

HITZAURREA

I

Schopenhauer, Dresdenen Mundua nahimen eta errepresentazio gisa bere obra nagusia idazten ari zela 1814-1818 bitartean, oharturik zegoen aro bat markatzen zuen sistema filosofiko bat jaioa zela. Baina zoritxarrez, bere aroak ia ez zion obra horri erreparatu ere egin. Obraren inprimaketak tirabirak izan zituen F. A. Brockhaus argitaratzailearekin, izan ere aldendu egin baitzen hitzarturikotik argitalpen-datari eta sariaren ordainketari zegokienez. Baina esperantzak huts egin zion. Urte eta erdiko epean ozta-ozta ehunen bat ale kaleratu zen. Liburu honen lehen edizioaren zoria parterik handiena makulatura gisa bukatzea izan zen. Edonola ere, Goethek liburuarekiko atxikimendua agertu zuen, eta hori sarigarri gertatu bide zitzaion egileari berandutzen ari zen liburuaren oihartzunaren aurrean. 1844an obra handiaren bigarren edizio osatua agertu zen, eta 1859an, hil baino urtebete lehenago, egileak hirugarren edizioa ikusi zuen.

II

Lehen edizioaren hitzaurrean liburua bi aldiz irakurtzea erabat beharrezkoa dela irakurleari egindako gomendioak jadanik arreta erakartzen du idazkiaren muin errealarari buruz. Liburua bigarren aldiz irakurtzeak bakarrik ulerrarazten du bere lehen atala bigarrena begien aurrean edukiz gero bakarrik aditzen dela. Baina bigarren atalaren aurkezpena lehen atalean eraikitzen da, beraz atal hori ere ezinbesteko gertatzen da. Schopenhauerren obraren bi atalak batabestearekin lotzen dituen elkarrekiko erreferentzia izenburutik bertatik islatzen da. Mundua nahimen eta errepresentazio gisa dio izenburuak. Izatez, liburuak lehenik mundua errepresentazio gisa tratatzen du eta azkenean bakarrik mundua nahimen gisa. Hemen ere bigarrenkia tratatuaren hasieran dago, lehenkia bukaeran. Edukien aurkibideari begiratu bat emateak agerian jartzen du obraren bi atalen ri -Schopenhauerrek izena ematen die- bat soilik darraiola, zeinetan argipen gehigarriak eskaintzen baitizkie munduaren bi aspektuei.

Schopenhauerren jokamoldea ez da tradizioz gabea. Aristo-telesekin metafisikak izan zuen hasieraz gero, diziplina filosofiko honen trataerak fisikaren aurkezpenari darraikio. Aristotelesek irakurria zien fisika ikasleei, kontzientzia har zezaten fisikan bertan formulaziorik ez duten supostuetan oinarritzen dela fisika. Horregatik Aristotelesen irakatsien idazkiek liburu bat daukate fisikaren bukaeran, gerora meta-ta-physica deitua eta Aristotelesek berak Lehen Filosofia. Lehen

Filosofia deitu zuena fisikaren ondoren zetorren Aristotelesen irakaskuntza filosofikoaren praxian, bere funtsean fisikaren lehenkia izan behar zuen ordea.

Schopenhauerrek ez du bestela jokatzeko. Bere fisika errepresentazio gisako mundua tratatzen den atalean aurkeztu da. Hala ere munduak errepresentazio aurpegi bat baino gehiago ditu, errepresentatzen duten munduan dauden garunak adina. Mundu funtsezko, lehenkiaz oso gutxi dakigu Schopenhauerren arabera garun-jardueraren, hau da, pentsamenduaren bidez. Errepresentazio gisako munduak munduari buruzko imajina bat sortzen dugun teoria eta ereduak barnebiltzen ditu. Beti imajina gisa bakarrik dirau, eta horregatik bigarrenkia da Schopenhauerrek nahimen gisako mundua deitzen duen mundu errealararen, lehenkiaren aldean.

Mundua errepresentazio gisa ez da fisika hutsa. Schopenhauerrek errepresentazio munduaren imajina globala ulertzen du, geure eguneroko esperientziaz deduzitzen dugunez, baita pentsamendu diskurtsiboarenez ere - hau da, ikerkuntza zientifikoaren bitartez oro har -. Mundua errepresentazio gisa arrazoiaren printzipioaren mendeko mundua da. Horrela Schopenhauerren obra nagusia Behar besteko arrazoiaren erro laukoitza bere doktorego-disertazioari loturik dago. Nola honetan hala hartan Schopenhauerrek erakusten du agertzen den mundua subjektu ezagutzailearen determinazio apriorizkoek erabat menderaturik dagoela, eta horiek Schopenhauerrentzat espazioa, denbora eta kausalitatea dira. Beraz, fisikarekin mundua errepresentazio gisa zuzen ezaugarriturik gelditzen da, zeren bi kasuetan espazioa eta denboran agertzen den mundu bat baita, kausalitate legearen mendean dagoena.

III

Schopenhauerrek bere jokamoldean Kanten filosofia transzendentalaren zuzeneko jarraitzaile gisa ikusten du bere burua. Obraren Eranskinean Schopenhauerrek kontu zehatza ematen du Kantiar filosofiaren kritikaz. Kantek ezagutzaren kritikari buruzko Arrazoimen hutsaren kritika bere obra nagusian jadanik aurkeztua zuen nola gure sentsu-aparatuak sentzuen datuetatik espazioak eta denborak determinaturiko begiespen bat eraikitzen duen. Bi determinazio horiek ez dagozkio berbaitango munduari, adibidez Newtonek baieztatu zuenez, espazio absolutuaz eta denbora absolutuaz hitz egitean. Aitzitik orain, ezagutzaren teorian, espazioa eta denbora gizakiaren sentsu-aparatuak sintetizatzen ditu.

Schopenhauerrentzat kausalitatearen kategoria garrantzizko bakarra ere -bere Arrazoimen hutsaren kritikako Analitika transzendentalean Kantek kausalitatea hamabi kategorietako bat bezala determinatzen du- ez dagokio berbaitango eta berarentzako mundu horri, baizik eta kausalitatea, espazioa eta denbora bezala, ezagutzako objektuak ezagutzen dituen subjektuak egindako ekarpenak dira. Gauza hautemanak espazioan eta denboran agertzen diren heinean eta kausa eta efektuaren sekuentzia kausalak determinaturik dauden neurrian, errepresentazio gisako munduari bakarrik dagozkio. Espazio, denbora eta kausalitateak determinatu gabeko mundua gizakiak ezin du errepresentatu. Aldiz, espazio, denbora eta kausalitateak determinaturiko mundua subjektu ezagutzailearen ezagumenera egokituriko mundua da.

Hautemandako munduaren Kanten bereizkuntza esentzia eta agerpenetan Schopenhauerrentzat ere derrigorrezkoa da. Mundua errepresentazio gisa agerpena da, mundua nahimen gisa haren funtsa da. Kantek ezagutza munduaren funtsetik baztertzen duen bitartean -berarentzat dena- Schopenhauerren filosofiak bere ezagutzaren xede bihurtzen du. Agerpenen atzean zer dagoen jakin nahi du. Schopenhauerrek metafisika

bat nahi du. Gauzen izateko era fisiko nabaria ez du horien azken egiaztat kontzebitu nahi. Horregatik aldarrikatzen du ezagugarritzat eta nahimen deitzen duenarekin identifikatzen du. Munduaren funtsak ezagugarria izan behar du, baina ez endelguaren bitartez.

IV

Schopenhauerrek behin baino gehiagotan goستن ditu kantiar filosofia transzendentalaren lorpenak eta horiek agertzen den munduaren, hau da, errepresentazio gisako munduaren ezagutzarako duten munta. Alabaina, bere azalpenak motibatuak dira, konbentziturik dagoelako idealismo transzendental ez dela gai munduaren funtsa, hau da, mundua nahimen gisa ezagutzeko. , hona hemen Schopenhauerrek bere obra aurkezteko darabilen tinbal-hotsa; eta zenbait lerro aurrerago idealismoaren printzipio hori formulazio orokortu izatera jasotzen du: .

- edo, Berkeleyrekin esateko: esse est percipi ("Izatea hautemana izatea da») - erradikaltasun horretan inolako salbuespenik onartzen ez duen printzipioa da. Nolanahi ere, Schopenhauerrek begien aurrean mundua kontsideratzeko beste era bat dauka; baina mundua nahimen gisa tratatzen duen era horrek, errepresentazio gisako munduaren kontsiderazio erradikalari aurrea utzi behar dio. Lehen liburua munduaren aspektu bakar horretaz soilik ari da. Mundua errepresentazio gisa bere aldetik bi ataletan banatzen da. Bata objektua da, bestea subjektua. Bietako ezein ez da inoiz bestea gabe agertzen. Objektu bat ezagutzen bada, horretan objektu hori ezagutzen duen subjektu batek esku hartzen du. Puntu horretan Schopenhauerren obra bere doktorego-disertazioaren ondorioei lotzen zaie, zeinetan xeheki aurkezten baitu zertan datzan objektu izatea, hau da, subjektu batentzako objektu izatea.

Lehen liburua, horrela, objektuak subjektu batentzat bihur litezkeen ahalbide ugarien aurkezpena da. Horretara, liburu hori idealismoaren apologia bihurtzen da. Idealismoak betidanik kontsideratu izan zituen ezagutzako objektuak subjektuaren existentziaren mendean. Oro har, Schopenhauerrek oinarritzako akats bakar bat egozten dio idealismoari: azkenean objektu hautatuak, subjektuaren mendekoak, edo subjektu hori bera izaki absolutu gisa azaldu izana eta pentsamendurekiko existentzia independente bat egotzi izana. Doilorkeria horren gailurra Schopenhauerren begietarako hegeldar Espiritu unibertsala da, agertzen dena espiritualdu behar duena. Baina Schopenhauerren iritziz, Kantek berak ere ez zuen argitu berak postulaturiko berbaitango gauza, ere deitu zuena, ezin dela inoiz agerpenen kausa erreala izan, are gutxiago agerketaren kausa ezezaguna. Berbaitango gauza hori Kantentzat errealitate absolutua zen, espazioan eta denboran agertzen ez dena zen. Ezagutezina izan behar zuen, zeren gauzek ezagugarritasuna espazioan eta denboran bakarrik baitute. , Kantek berbaitango gauza izendatzen zuenez, ez zuen gauza berezi bat izan behar, baizik adimenaren egintza bat, gero behin baino gehiagotan azpimarratu zuenez.

Berbaitango gauza kantiar hura, errealitate pentsamendutik independentea errepresentatu behar zuena, egiazki ezin dagokio uzi horri. Arrazoiz nabarmentzen du Schopenhauerrek . (§ 1) Baldin eta berbaitango gauzak benetan errealki errepresentatu beharko balu errealitate subjektuarengandik independentea, ezingo litzateke beharrian mental izan, baizik eta munduaren beraren gaiaz eratua egon beharko luke. Baina zer da Schopenhauerrentzat munduaren gaia, baldin eta materia hedatu eta solidoa bera ere errepresentazio gisako munduan espazio eta deborazko determinazioen bitartez bakarrik existi badaiteke? Schopenhauerrentzat munduaren

gaia da. Ondorioz Schopenhauerrentzat berbaitango gauza nahimenarekiko identikoa da. Gainera ez da handiera ezagutezina, baizik .

V

Mundua nahimen gisa esamoldeaz Schopenhauerrek ez du hainbeste munduari buruzko azken egiaren ezagutza doi bat izendatzen, baizik eta arazo-eremu bat esparrutzen du haren bitartez. Nahimena da mundu fisikoaren, oro har agertzen den munduaren barrenean datzan funtsezko mundua. Ez dugu pentsamenduaren bitartez nahimenaren ezagutza lortzen, nahiz eta nahimena pentsamenduaren objektu bihur daitekeen. Baina orduan beste objektu batzuen ondoko objektu da, subjektu batentzako objektu. Bere izaeraren arabera nahimena ez dagokio objektuen munduari, eta horregatik ez da espazialki eta tenporalki eraturiko munduan. Nahimena espazioaz, denboraz eta kausalitateaz haratago dago. Nola ezagut daiteke bitartegabe espazioaz, denboraz eta kausalitateaz haratago dagoen hura? Nola izan dezakegu ezagutza, oro har agertzen den munduaz funtsean bestelakoa den zerbaitetaz?

Schopenhauerren erantzuna lakonikoa da: Badugu nahimenaren ezagutza, zeren nahimena identikoa baita gure soinarekiko. , idazten du. (§ 18) Nire soina da nire ezagutzaren lehen objektua, eta aldi berean nire soinean inoiz objektu ez den zerbait jartzen da agerian, hau da, nahimena. Neure soinaren bitartez munduaren funtsarekiko ezagupidea egiten dut, aldiz, nire pentsamendua agerpenekin bakarrik jar daiteke harremanetan. Munduaren funtsa nahimena da, agerpena, berriz, errepresentazio bihur daitekeen hura da.

hitzxoaz esparrutzen den arazo-eremu erraldoia ixten da, argitzen zaigunean, Schopenhauerrek ez duela gizakia hobespenez izaki ezagutzaile gisa kontsideratzen, baizik izaki nahiesle gisa. Gizakiak bere buruaz dakien lehen gauza bere nahi izaterako jakitea da. Ezagutza interesak higitu baino lehen, gizakiarengan nahimena higitzen da. Hori izate- eta ongizate-nahimena da, gosea, bulkada, biziraute-bulkada. Nahimena da existentzia ororen lehen indarra, eta pisutasun, erakarpen-indar, bizi-bulkada, birsortze-indar gisa azaltzen da. , idazten du Schopenhauerrek § 20an, «Gorputzaren atalek gurari nagusiei, zeinen bitartez nahimena kanporatzen baita, betegintzarrez erantzun behar diete, horien adierazpen ikuskorra izan behar dute: hortzak, esofagoa eta hesteak gose objektibatua dira; genitalak, sexu-instintu objektibatua; oratzen duten eskuak, oin lasterrak ordezkatzan duten nahimenaren ahalegin bitartedunagoari dagozkio.» Azkenean bakarrik agertzen da ezagutza-bulkada gisako zerbait. Baina frango ahul taxuturiko zerbait da, eta gainera, gizaki guztiengan existitzen ez dena. Gauza bera gertatzen da arrazoimenarekin. Schopenhauerrentzat ezagutza oro soila da, eta horregatik soinari eta bere organoei loturik dago.

Gizaki orok sentimendu gisa jabetzan daukana, hori Schopenhauerrek soinaren funtsaren ezagutza, nahimenaren ezagutza izendatzen du. Nahimenaren hautemapenarekin gizakiak oro har munduaren funtserako irispidea du. Nahimenean gizakiak badaki gainerako sorkari guztiekin elkarturik dagoela; nahimena da munduaren batasuna irazaten duen printzipioa. Aitzitik, espazioak eta denborak izaera indibiduala determinatzen dute. Lurpekoa nolabait esateko edo supernaturala, beraz espazioa, denbora eta kausalitatearen marka daraman mundu fisikoan lokalizagarria ez dena, nahimen metafisikoak existentzia ororen oinarri bateratzailea eratzen du.

VI

Gizakiari bi eratara ematen zaio nahimena. Alde batetik, ezagutzaren objektu izan daiteke, alegia, egintzen motibo gisa edo pentsamendu razionalekin higiduraren arrazoi gisa jazartzen badugu. Hortik sortzen dira pentsamendu diskurtsiboak ekoizten dituen formak, agertzen den munduko harremanak behar besteko arrazoiaren printzipioaren funtzionamendu-eretara murrizten dituenean. Hemen gizakiak, azken finean, nahimenaren ekin du zerikusia, Schopenhauerrek dioenez. Beste alde batetik, nahimena era intuitiboan ematen da, bulkada sor gisa. Hirugarren liburuan Schopenhauerrek proposatzen du azkenik nahimenaren ezagutza bat, ez diskurtsiboki deduzitua, baina hala ere errepresentazio gisako munduan agertzen dena: gisa. Platonen modura ulertu egin nahiko lituzteke Schopenhauerrek, ez Kantek bezala. Kantek ideiak arrazoimenetik ernarazten dituen bitartean, hau da, pentsamenduari loturik, Platonek ideiak errealitatearen eredu gisa erabiltzen zituen. Forma aldaezinak ziren, eta horregatik denbora eta espazioko mundu iragankor baten atzean dirauena bezalakoa. Schopenhauerrek xeheki aipatzen du (§ 31 eta § 36) Platonen haitzuloaren simila, Platonen Politeiako zazpigarren liburutik jaso, agertzen den munduak itzal-mundu baten antza daukala erakusteko, zeinaren benetako errealitatea bere itzalen bitartez bakarrik ikuskorra den argiaren bitartez bilatu behar baita.

Idea platoniko baten zentzuan nahimena artista baten errepresentazio-munduan bitartegabe presente egiten omen da. Artista baten ezagutza geniala Schopenhauerrentzat nahimenaren ezagutza bat da ideia platoniko baten forman. Artista genialak horrela zerbait egiazkoa komunikatzen du munduari buruz, espazioa eta denbora egitura zehatzetan gelditu beharrik gabe. Horren begirada funtsezkoa zuzendurik gelditzen da, eta ez zaio -lehengo ezagutza diskurtsibo, zientifikoari dagokionez- gauzen itxura nabariari atxikitzen. Artefaktu guztiek jartzen dituzte agerian, idazten du Schopenhauerrek (§ 41), . Arte desberdinen artean musika da munduaren funtsari adierazpen garbiena ematen diona. Horrela idazten du Parerga eta Paralipomenan aurkitzen den Ederkiaren metafisikako aforismoetako batean: 1.

VII

Esku artean daukagun obrako laugarren liburuak, azkenean, agerian jartzen du Schopenhauerren nahimenaren metafisikaren egiazko objektua. Hori bere asmo moralean datza. Zeren munduaren funtsaren ezagutzarekin, zeina nahimena baita, Schopenhauerrek ez baitu ezein poz edo gozamen lotzen. Guztiz alderantziz baizik.

¹ Arthur Schopenhauer, Parerga und Paralipomena, Zürich 1977, II libkia, 473. hh.

Munduaren egiazko osaeraren ulerkuntza mundu hau ikuspegi moral batetik ezeztatua izan behar duelako konbikzio irmoak bitartegabe lagundurik doa.

Nahimena baieztatu edo ezeztatu egin daiteke. Nahimenaren ezeztapenean bakarrik ematen da ezagutzera Schopenhauerrentzat egintza baten joera morala. Nahimenak baieztatu egiten du bere burua, bere burua bakarrik maite du, egoismoaren printzipioa da. Bere gosea eta atsegina asetzea da bere xedea. Baina ez dago asetze iraunkorrik. Asetzea aldiunekoa baizik ez izatean, gabezia sortzen da. Gabezia-egoerak sufrimendua sortzen du eta betiro nahi duen nahimenarekin gabezia eta sufrimendua aldi berean ematen direlako, nola sufrimendua hala nahimena munduaren oinarritzko osaera dira. Sorkari guztiez era berean jabetzen den nahimenaren indarrak gabezia eta sufrimendua esan nahi duela ulertzetik sortzen da errukia. Nahimena egintzaren motibo indartsuena bezala gailentzen den tokian, han egoismoa da nagusi, zeren munduko sufrimendua gehitu egiten baita, eta hori da presenteko munduaren egoera normala.

Baina Schopenhauerrek adibide enpirikoen aipamena egiten du, zeinetan nahimena egintza baten motibo gisa nabariro bazterrean gelditu baita. Gizaki banaka batzuegan -Schopenhauerrek santu, aszeta eta bertutetsuak aipatzen ditu- nahimena aldendu egiten da bizitzatik. Horiek, idazten du Schopenhauerrek (§ 68) . Nahimenari uko-egitearen bere doktrinaren bitartez Schopenhauerren nahimenaren metafisika erlijioarekiko ukipenean jartzen da. Erlijioak gizakiaren beharrianetik salbamenera, giza existentziak berezkoak dituen sufrimenduetatik salbamenera jotzen du. Horretara, Schopenhauerrek baikor eta ezkor gisa sailkatzen ditu erlijioak. Bere doktrina propioa azken horiekin konparatzen du. Berarentzat erlijio ezkor dira kristautasuna eta Ekialde Urruneko erlijioak, zeinen artean kidekoentzat budismoa jotzen baitu. Horietan azaltzen da argi eta garbien bizitzeko nahimenaren ezeztapena: kristautasunean jatorritzko bekatuaren doktrinaren bidez, budismoan munduko gozamen eta tentaldietatik aldentzearen bidez. Schopenhauerren doktrinaren xedea munduko sufrimendutik salbatzea da, baina hori Jainko salbatzailerik gabe lortu nahi du. Horregatik erlijioarekiko duen jarrerara ateismo erlijioso izenda daiteke. Schopenhauerren kredoa bere metafisika da, eta bere doktrinaren ezkortasun sakonak ezin du estali Schopenhauer konbentziturik dagoela mundu hobe baten ahalatasunaz.

VIII

Munduaren kontsiderazio filosofikorako endelguaren esangura bigarrenkiaren eta soinen lehentasunarena ideia berriro itzultzen da Schopenhauerren beranduko obretan. Determinatzailea da Etikaren oinarritzko bi arazoak idazkietarako, Naturako nahimena tratatua eta, azkenik, Parerga eta Paralipomenan argitaraturiko ohar eta adibideetarako. Baina batez ere esku artean dugun obrako bigarren liburukiak hemen aurkezturiko Schopenhauerren doktrinaren gehikuntza eta garapenak barnebiltzen ditu.

Obraren eraginaren historia filosofia unibertsitarioaz aparte garatu da funtsean. Schopenhauer gabe nekez imajina liteke Nietzsche. Sigmund Freud berak batzuetan Schopenhauerrengana jotzen du, inkontzientearen eta kulturako ondoezaren bere teoria filosofikoki islatzean. Artistek Schopenhauerren obraren hartzapen berezia egin dute. Richard Wagnerrek schopenhaueriar taxuera eman dio bere i eta Thomas Mannek era desberdinetara jotzen du nahimenaren metafisikara bere nobeletako pertsonaiak tentsio eta sakoneraz hornitzeko. Schopenhauerren doktrina, azkenik, esanguratsu bihurtu da Max Horkheimerren deituriko aren ikuspuntutik. Schopenhauer

Horkheimerrentzat Marxekin batera, gauzen egoera aldaezintzat kontsideratu beharrik gabe, munduko miseriari adierazpena eman nahi dion gizartearen teoria sustengatzen duen bigarren zutabea da.

Klaus-Jürgen Grün
Frankfurt am Main

Bibliografia

Iturburuak eta aurkezpenak

Schopenhauer, Arthur, Sämtliche Werke. Arthur Hübscher-ek birlandu eta argitaraturiko Julius Frauenstadt-ek egin zuen edizio osoaren ediziotik. 7 liburuki. 4. edizioa Angelika Hübscher-ek berrikusia. Mannheim 1988.

Schopenhauer, Arthur, Der Handschriftliche Nachlaß. Arthur Hübscher-ek editatua. 5 liburuki 6. edizioan. Frankfurt am Main 1966-1975.

Schopenhauer, Arthur, Gesam-melte Briefe. Arthur Hübscher-ek editatua, 2. Edizio zuzendu eta osatua. Bonn 1987.

Schopenhauer, Arthur, Die Welt als Wille und Vorstellung, Züricher Ausgabe, obrak hamar liburukitan. Zürich 1977 (Aipua edizio honetakoak dira.).

Fischer, Kuno, Schopenhauers Leben, Werke und Lehre. 4. Heidelberg edizioa. 1934 (Geschichte der neuen Philosophie, 9 libki).

Frauenstädt, Julius, Schopenhauer-Lexikon. Ein philosophisches Wörterbuch, nach Arthur Schopenhauers sämtlichen Schriften und

handschriftlichem Nachlaß bearbeitet von Julius Frauenstädt, Leipzig, 1871.

Bibliografia osagarria

Cartwright, David E. Compassion, en: Zeit der Ernte. Studien zum Stand der Schopenhauer-Forschung. Festschrift für Arthur Hübscher zum 85. Geburtstag, W. Schirmacher-ek editatua, Stuttgart-Bad Cannstatt, 1982, 60-69 orr.

Cartwright, David E. Schopenhauer as Moral Philosopher - Towards the Actuality of his Ethics, in: Schopenhauer-Jahrbuch 70 (1989), 54-65 orr.

Grätzel, Stephan, Die philosophische Entdeckung des Leibes, Wiesbaden, 1989.

Hasse, Heinrich, Schopenhauer, München, 1926 (Geschichte der Philosophie in Einzeldarstellungen, Abt. VIII. Die Philosophie der neuesten Zeit, Bd. 34).

Horkheimer, Max Gesammelte Schriften Band 7, Vorträge und Aufzeichnungen 1949-1973, Gunzelin Schmid Noerr-ek editatua, Frankfurt am Main, 1995, barnean: Schopenhauer und die Gesellschaft, Die Aktualität Schopenhauers, Schopenhauers Denken im Verhältnis zu Wissenschaft und Religion.

Jahrbuch der Schopenhauer-Gesellschaft Kiel, 1912-1919; Heidelberg, 1920-15
Leipzig, 1926; Heidelberg 1927-1944; Leipzig - Frankfurt am Main e. a. 1945-1948;
Frankfurt am Main, 1949; Frankfurt am Main, 1951-1992; 1993tik Würzburg.

Kienzle, Ulrike Das Weltüberwindungswerk. Wagners «Parsifal» - ein szenisch-
musisches Gleichnis der Philosophie Arthur Schopenhauers, Regensburg, 1992.

Malter, Rudolf, Der eine Gedanke. Hinführung zur Philosophie Arthur
Schopenhauers, Darmstadt 1988.

Pisa, Karl Schopenhauer. Kron-zeuge einer unheilen Welt, Wien - Berlin, 1977.

Schmidt, Alfred, Die Wahrheit im Gewande der Lüge. Schopenhauers
Religionsphilosophie, München 1986.

Schmidt, Alfred Idee und Welt-wille. Schopenhauer als Kritiker Hegels, München
- Wien, 1988.

Schmidt, Alfred Physiologie und Transzendentalphilosophie bei Schopenhauer, in:
Jahrbuch der Schopenhauer-Gesellschaft, 70/1989, 43-53 orr.

Schmidt, Alfred Die Leiblichkeit des Menschen als Bindeglied zwischen Medizin
und Philosophie im Krankenhaus, Jürgen Meier-ek editatua, Hildesheim - Zürich - New
York, 1994.

Schmidt, Alf, Schopenhauer als Aufklärer, in: Dieter Birnbacher, Schopenhauer
in der Philosophie der Gegenwart, Würzburg, 1996.

LEHEN EDIZIOAREN HITZAURREA

Liburu hau nola irakurri behar den, ahalik eta hobekien ulertu ahal izateko, proposamena egiteko asmoa dut hemen. - Bere bitartez adierazi nahi dena pentsamendu bakar bat da. Hala ere, neure ahalegin guztiak gorabehera, ezin izan dut, hori adierazteko, liburu oso hau baino bide laburragorik aurkitu. - Pentsamendu hori luzaroan filosofiaren izenpean bilatu izan den horretakotzat daukat, eta, zeinaren aurkikuntza historikoki formatuek berek ere hain ezinezkotzat baitaukate, nola den harri filosofalarena, nahiz eta Pliniok horiei esana dien: [Zenbat gauza hartu izan da ezinezkotzat, burutua izan baino lehen?] (, 7, 1).

Gero adierazi behar den pentsamendu bakar hori alde desberdinetatik begiratzen bada, metafisika, etika, estetika deitu izan dena bezala agertzen da; eta noski hori guztia izan beharko du, baldin eta jadanik aitortu dudanez halakotzat daukadan guztia bada.

Pentsamendu-sistema batek lotura arkitektonikoa izan behar du, h. d. halakoa, zeinean atal bakoitzak bestea sustengatzen baitu, baina ez honek hura; oinarriak dena sustenga dezala bera sustengatua egon gabe, eta gailurra sustengaturik egon dadila, berak ezer sustengatu gabe. Aldiz, pentsamendu bakar batek, ahalik eta zabalena dela ere, batasun perfektuena gorde behar du. Baldin eta, bere komunikazio-arrazoiarengatik, ataletan banatzen bada, horien arteko loturak organikoa izan behar du, h. d. halako izaerakoa, non atal bakoitzak aldeberean osotasuna edukiko duen, osotasunak bera edukiko duen hein berean, ezein ez dadila ez lehena ez azkena izan, pentsamendu osoak bere ataletako bakoitzaren bitartez argitasuna irabazten duelarik, eta atalik txikiena ere erabat ulertua izan ez daitekeelarik, osotasuna aldezturik ulertua izan gabe. - Liburu batek lehen lerroa eta azken lerroa izan behar ditu, horregatik organismo baten aldean oso bestelako izango da, nahiz eta bere edukia horren antzekoa izan daitekeen: ondorioz, forma eta materia hemen kontraesanean egongo dira.

Berez dator, honelako zirkunstantzietan, aurkezturiko pentsamenduan ongi barrentzeko liburu bi aldiz irakurtzea beste biderik ez izatea, eta lehen aldia, egia da, egonarri handiarekin, zeina libreki emandako fedetik bakarrik aterako baita, hasierak bukaera ia hainbeste suposatzen duela, nola bukaerak hasiera eta, halaber, aurreko atal bakoitzak hurrengo ia suposatzen duela, horrek hura adina. Eta diot: zeren hori osoki eta erabat ezinezkoa baita, eta nolabait posible izan den heinean beti aurretik ezarri dut argitua izateko hurrengoaren premia gutxiago zeukana, eta, oro har, ahalegindu naiz, neure eskura neuzkan bitarteko guztiez, ahalgarri zen heinean, ulergarritasun erraza eta argitasuna ematen, jator eta kontzientziaz: eta mailaren batean lortu ere lortu dudala ziurta nezake, baldin eta irakurleak, oso naturala denez, esandako horretan bakarrik pentsatzen ez badu, baizik eta irakurtzen duen horren ondorio ahalgarrietan, zeinak eragiten baitio garaiko iritziei kontra egiten dien guztiari, eta seguraski baita irakurlearenei ere, kontraesan goiztiar eta irudikatuak gehitzea. Biziki gaitzetsiko dira, kausa horregatik, errealitatean gaizki ulertuak izango diren gauza asko, nahiz eta irakurleak kontrakoa uste izan, zeren, aurkezpenaren argitasunak eta erabilitako adierazpideen doitasunak, nahiz eta zalantzarik uzten ez duten bitartegabeko zentzuaz, ezin dute adierazi aldi berean gainerako guztiarekiko bere harremana. Horregatik, esan dudanez, lehen irakurketak egonarria eskatzen du; egonarri hori bigarrenetan, asko edo dena argi berritan agertuko den konfiantzatik atera beharko da. Gainerakoan, berez gai zaila dena erraz

eta osoki ulergarria bihurtzeko ahalegin serioak zuribidetu egin behar du han-hemenka errepikapenen bat aurkitzea. Jadanik obraren eraikuntza organiko, ez kateatuak batzuetan behartu egiten nau pasarte berak bi aldiz tratatzera. Hain zuzen ere obraren eraikuntza horrek eta atal guztien lotura estuak ez dit utzi kapitulu eta paragrafoen banaketa oso nabarmena egiten, baizik eta lau sail nagusitan, pentsamendu beraren lau ikuspunturekin nahikotzera behartu nau. Lau liburu horietako bakoitzean oso bereziki zaindu behar dugu geure burua pentsamendu nagusia begietatik ez galtzetik bere azterketak beharrezkoak dituen xehetasunak direla-eta, baina ezta aurkezpen osoaren aurrerakuntza ere. - Horrenbestez adierazita uzten dut lehen eskakizuna, irakurle etsaikorarentzat, h. d. (filosofoarentzat, zeren irakurlea bera ere horixe baita), hurrengoak bezain itzuriezina.

Bigarren eskakizuna da liburua irakurri baino lehen liburuki honetan ageri ez den, baizik bost urte lehenago izenburuarekin argitaratu zen sarrera irakur dadila. - Sarrera eta propedeutika hori ezagutu gabe erabat ezinezkoa da obra honen zentzua barrentzea, eta tratatu horren edukia hemen, liburuaren barruan balego bezala, suposatu egiten da. Gainerakoan, duela zenbait urte argitaratua izan ez balitz, ez nuke nik hemen sarrera gisa aipatuko, baizik eta lehen liburuan sarraraziko nukeen, zeren tratatuan esandakoa falta izatean, badirudi halako inperfekzio bat ageri duela hutsune horiengatik, zeinak beti ere tratatu hura aipatuz beteko baitira. Hainbestearino diot biguina neure burua kopiatzeari edota behiala nahikoa esandakoa kostata berriro beste hitz batzuetan adierazteari, lan asko hartuta gero, non beste bide honi jarraitzea nahiago izan baitut, nahiz eta orain gauza nintzatekeen liburuxka hartako edukiari aurkezpen zerbait hobea emateko, kategoriak, kanpo-zentzua, barne-zentzua eta abar bezalako kontzeptu halako batzuetatik garbituz, Kanten filosofiak nigan sortutako liluratik jaioak baitira. Baldin eta, hala ere, kontzeptu horiek oraindik obran badaude, behar adina ez aztertu izanagatik izan zen, eta, ikusten denez, albo-obra gisa eta gai nagusiarekin ia loturarik gabe, horregatik oraingo idatzi hau ezaguturik tratatu hartako pasarte horien zuzenketak erabat berez egingo dira irakurlearen pentsamenduan. - Tratatu horren bitartez erabat ezagutu denean beharbesteko arrazoiaren printzipioa zer den eta horrek zer esan nahi duen, bere baliozkotasuna zertara bai eta zertara ez den hedatzen, eta printzipio hori ez dagoela gauza guztien aurretik, eta soilik ondorioz eta horrekiko adostasunean, nolabait horren korolario gisa dela mundu osoa; baizik eta alderantziz forma besterik ez dela, zeinean beti subjektuaren bitartez baldintzaturiko objektua, zeinahi eratakola dela ere, nonahi ezagutzen baita, subjektua gizabanako ezagutzailea den heinean: orduan bakarrik izango da posible, hemen lehen aldiz entseaturiko eta filosofatzeko aurreko guztietatik desbideratzen den metodoa onartzea.

Higuin horrek berak, hitzez hitz kopiatu edo beste hitz edo okerrago batzuez, hobeak lehenago esan nituelarik, bigarrenaz gauza bera esatekoak, bigarren hutsune bat eragin du idazki honetako lehen liburuan, zeren nik hori guztia alde batera utzi baitut nire tratatuko lehen kapituluan dagoena eta bestela hemen hitzez hitz bere lekua aurkituko zukeena. Idazkitxo goiztiar hori ezagutzea ere suposatzen da hemen.

Irakurleari egin beharreko hirugarren eskakizuna, azkenik, ezer esan gabe ere suposa liteke: zeren filosofian bi mila urte hauetan azaldu den agerpen garrantzitsuena, eta gugandik hain hurbil dagoena ezagutzea besterik ez baita. Horiek benetan irakurtzen dituenari espirituan egiten dion efektua, nik neuk egiaz, jadanik beste nonbait esan dudanez, lausoak kentzeko itsuari egindako ebakuntzarekin zinez erkatzekoa da: eta konparazioari jarraitu nahi bagatzaizkio, nire helburua

honela izendatu behar da, ebakuntza hori ongi atera zaienei babes-betaurreko batzuk eskura eman nahi dizkiedala, zeinak erabiltzeko ebakuntza hori bera baldintzarik beharrezkoena baita. - Nahiz eta gero nire abiagunea Kant handiak egindakoa izan; hala ere, bere idazkien azterketa sakonak aukera eman dit horietan akats esanguratsuak aurkitzeko, zeinak nik bereizi eta baztergarritzat aurkeztu behar izan baititut, bere doktrinan egiazkoa eta bikaina dena hartatik garbi eta araztua suposatu eta erabili ahal izateko. Baina neure aurkezpena Kanten aurkako polemika sarriekin ez eten eta nahasteko, hori aparteko eranskin batean ezarri dut. Beraz, esandakoaren ondorioz, nire idazkiak Kanten filosofia ezagutzea suposatzen du: era berean eranskin horren ezagutza ere suposatzen du: horregatik zentzu horretan gomendagarria litzateke aurrena eranskina irakurtzea, hainbat gehiago, horren edukiak idazki honen lehen liburuarekin harreman estuak dituelarik. Bestalde, gaiaren izaeraren arabera ez legoke ekiditerik, eranskinak behin eta berriz idazkiaren beraren aipamena egitea: hortik ondorio bat dator, bai hori eta bai obraren atal nagusia bi aldiz irakurri behar direlakoa.

Kanten filosofia da, gainera, bakarra, zeinaren oinarritzko ezagutza suposatzen baita hemen aurkezten denerako. - Baina horrezaz gainera, irakurlea Platon jainkotiarren eskolan egona bada, hainbat hobeki prestaturik egongo da eta harkorragoa izango da niri entzuteko. Eta horrezaz gainera, Veden onuran erdikide bada, zeinen Upanixaden bidez guri irekitako sarbidea nire begietarako abantailarik handiena baita, zeinek oraindik berria den mende hau aurrekoetatik nabarmentzen baitu, zeren nire aburuz, literatura sanskritoaren eragina ez baita sakonera gutxiagorekin sartu 15. mendean grekoaren birbizitzea baino: horrela, diot nik, irakurleak jadanik antzinako indiar jakituriaren bedeinkapena jaso badu eta harkor onartu badu; orduan ezin hobeki prestaturik dago nik proposatu diodana entzuteko. Ez zaio gertatuko beste askori bezala arrotz, are etsaikor; zeren nik, harrokeria-kutsu handiegia hartuko ez balu, baieztatu bainezake Upanishadak eratzen dituzten aforismo partikular eta bakanduetako bakoitza nik komunikatu beharreko pentsamendutik ondorio gisa deduzi daitekeela, nahiz eta inola ere ez alderantziz, hau jadanik han aurki daitekeela.

Baina neure irakurle gehienak urduri jarri dira eta luzaroan kostata gorderik eduki duten kexua kanporatu dute, nola ausar nintekeen publikoari liburu bat proposatzera, eskakizun eta baldintzen pean, zeinetarik lehen biak arranditsuak eta guztiz apaltasunik gabeak baitira, eta hori garai batean, zeinean aberastasun orokorra pentsamendu originaletan baitago, non Alemanian bakarrik horrelakoak urtero hiru mila obra agertzen baitira eduki aberatsekoak, originalak eta guztiz ezinbestekoak eta gainera ezin zenbatu ahal aldizkako idazkitan edota eguneroko orritan, zeinak inprenten bitartez ondasun komun egiten baitira?, garai batean, zeinean bereziki filosofo guztiz original eta sakonen faltarik txikiena ere ez baitago; baizik eta Alemanian bakarrik horietako gehiago batera bizi baitira, gainerako mende guztiek bata bestearen ondotik erakutsi dituztenak baino?, nolatan, galdetzen du irakurle desarmatuak, lortuko dut bukatzea, baldin eta liburu bakar batekin hainbesteko ahalegina egin behar bada?

Nola kexu horien aurka ezertxo ere kontrajartzeko ez dudan, irakurle horiengan gutxienez eskerronen bat aurkitzea espero dut, garaiz abisatu diedalako ordurik ez galtzeko liburu batekin, zeina egindako eskakizunak bete gabe irakurtzeak ez bailuke fruiturik emango eta horregatik erabat albora uztekoa baita; gainera, bestalde, asko jokatu bailiteke ez zaiela egoki gertatuko, baizik eta [gutxiren gauza; Horazio , 1, 9, 44] izango dela, eta horrela bertan behera utzita eta bazterturik gutxi horien

zain egon beharko du, zeinen pentsatzeko era ez ohikoak dastagarri aurki dezan. Zeren irakurleari eskatzen zaizkion formalitate eta ahaleginak alde batera utzirik: garai honetan paradoxa eta faltsua gauza bera diren puntu gorenera jakituria iritsi zaion zein eskolatuk jasan ahal izango luke, ia orrialde bakoitzean, berak egiazkotzat eta behin betiko finkatutzat eduki duenari zuzenean kontra egiten dioten pentsamenduak aurkitzea? Eta gero, zeinen era desatseginean aurkituko lirateke asko desliluraturik, baldin eta hemen aipamenik ez badu aurkitzen, hain zuzen ere hemen bilatu behar dituela uste badu, zeren espekulatzeko bere modua bat datorrelako oraindik bizi den filosofo handiarenarekinl , zeinek liburu egiazki hunkigarriak idatzi baititu eta ahulezia txiki bat soilik baitauka, bere hamabosgarren urteaz aurretik ikasi eta onartu duen guztia giza espirituaren jaiotzatiko oinarri-pentsamendutzat edukitzea. Nork jasan lezake hori guztia? Horregatik nire aholkua berriro liburua alde batera uztea besterik ez da.

Baina horrela ere ez dut uste libratuko naizenik. Baztertu duen hitzaurrera iritsi den irakurleak liburua eskudirutan erosi du eta kaltea nork ordainduko dion galdetzen badu? - Nire azken ihespidea da orain halakoari gogoraraztea liburu bat, nahiz eta ez irakurri, modu askotara izan litekeela onuragarri. Beste askok bezain ongi, bere bibliotekako hutsune bat bete lezakeela, non, txukun koadernoturik, itxura polit samarra izango baitu. Edota neskalagun ikasiari tokadorean edo te-mahaian utz diezaioke. Edo azkenik, horren erreseina egin dezake, eta horixe da denetan hoberena eta nik bereziki hori egiteko aholkua ematen diot.

Eta horrela, txantxarako baimena hartu dudalarik, zeinari leku bat opa izateko normalean anbigua den bizitza honetan nekez izan bailiteke orrialde bat serioegia, seriotasun barnekoenaz entregatzen dut liburua, lehenago edo geroago zuzendurik dagoenengana bakarrik iritsiko den uste onean, eta gainerakoan lasai eman ere, edozein ezagutzatan, hainbat gehiago garrantzitsuenetan, egiak izan duen neurri beteko zori bera izango duelakoan, garaipen-jai labur bat bi denbora-epe luzeren artean, zeinean paradoxa bezala kondenatzen eta arrunkeria gisa gutxiensten baita. Lehen zoria autoreari egokitu ohi zaio. - Baina bizitza laburra da eta egiak urrunera eragiten du eta luze bizi izaten da: esan dezagun egia.

(Dresdenen idatzia 1818ko abuztuan)

BIGARREN EDIZIOAREN HITZAURREA

Ez gaur egungoei eta ez sorterrikideei - gizadiari entregatzen diot orain osaturik dagoen neure obra, baliogabe izango ez zaion konfiantzan; nahiz eta horiek aitortua izaten, onaren zoriak edozein motatan berekin dakarrenez, agian luze joko duen. Zeren berarentzat bakarrik, ez nire albotik bere arduretan barreiatu pasatzen ari den belaunaldi batentzat, zen ahalgarri nire burua, ia nire gogoaz beste, etengabeko lan batean, bizitza luzean zehar ari izana. Horren balioaz, interes gabeziazko denboraldian zehar ere, ez dut zalantzarik izan; zeren txarra eta faltsua dena eta, gero, zentzugabea² eta aldrebes guztien miresmen eta errespetuan iraunkorki egoten ikusi baitut, eta neure buruari galdetzen nion ea benetakoa eta zuzena dena prezatzeko gai diren gizakiak hain urriak ote diren, non hogei urtez alferrik itxaron beharra dagoen horrelakoak topatzeko, horietatik, gerta liteke hori egiteko gai direnak, hain gutxi ez izatea, horien obrak salbuespen bat izan daitezen lurreko gauzen iragankortasunean; horrenbestez gero galdu egingo genuke ondorengotzaren ikuspegi adoregarria, xede jaso baten atzetik dabilenak bere burua sendatzeko behar duena. - Onura materialera ez daraman gai bat benetan hartu eta horretan ahalegintzen denak ezin du garaikideen interesa kontuan hartu. Aitzitik ikusiko du gehienetan, bitartean gai horren itxurak duela balioa munduan eta bere sapan dagoela: eta hori normala da. Zeren gaia bera bere baitan den bezala hartu behar da burutua izateko: bestela ez dago lortzerik; zeren interesen bat tartekatzen denean egia arriskupean jartzen baita. Horren arabera, literatur historia unibertsalak eskuarki testigatu duenez, baliozko orok bere burua baliozko bihurtzeko denbora luzea behar izan du, batez ere irakaste-motakoa denean, eta ez olgaraztekoa: bitartean faltsua denak dir-dir egin du. Zeren gaia eta gaiaren itxura bateratzea zaila baita, ezinezkoa ez denean. Hauxe da, hain zuzen, premia eta beharrezko mundu honen madarikazioa, horiei denek zerbitzatu eta men egin behar izatea: horregatik ez dago halako eraz eratua, non bertan edozein ahalegin noble eta bikain, argia eta egiaren alde egiten dena bezalakoa, ez baita eragozpenik gabe loratzen eta bere kabuz existitu ahal izaten. Baizik eta horrelako zerbait baliozko izatera iritsi ahal izan denean eta horren bidez bere kontzeptua sartu denean, orduan interes materialak, xede pertsonalak ere nagusitu egiten dira, hartaz lanabesa edo maskara bihurtzeko. Horrela, bada, Kantek filosofiari berriro prestigioa ekarri zionean, laster bihurtu zen helburuen lanabes ere, estatalarena goitik, pertsonalarena behetik - nahiz eta zehatz harturik ez izan bera, haren ordeaz ageri zen doblea baizik. Horrek ezin gaitzake harri: zeren gizakien kopuru harrigarriro handia beren naturaren arabera ez dira inondik ere gai helburu materialetarako izan ezik, are besterik ezin dute ulertu. Horregatik egiarengatik ahalegina espero zitekeena baino puska bat garai eta eszentrikoagoa da, guztiek, askok, banaka batzuek ere horretan egoki esku hartu ahal izan zezaten. Oraindik ere ikusten da noiz edo noiz, adibidez hemen Alemanian bezala, aparteko jardunkortasun bat, ahalegin, idazte eta hitz egite orokor bat filosofiako gaitan; beraz, fidagarriki suposa daiteke horrelako mugimenduaren primum mobile erreala, ezkutuko eragingarria, eta jarrera eta ziurtapen solemne guztiak alde batera utzirik, helburu errealak, ez idealak direla bakarrik, interes pertsonalak, ofizialak, elizakoak, estatalak, labor esateko, materialak direla horretaz arduratzeke, eta ondorioz, alderdi-helburu soilak hain ustezko jakintsu unibertsal horien luma ugariak mugimendu handian ezartzen dituztenak; interesak dira, eta ez ideiak astrapalari horien izar gidaria, eta egia da, noski, horiek pentsatzen duten azken gauza. Egiak ez du aldekorik aurkitzen: aitzitik, halako eztabaida-zalaparta filosofiko batean zehar hain baketsu

eta oharkabeen bere bidea urra dezake, nola eliz fede zurrunenean atzemandako mendeetako negu-gau ilunenean bezala, zeinean irakatsi sekretu gisa jarraitzaile gutxi batzuei adierazten baitzitzaien edota pergamino batean bakarrik ezartzen baitzen. Are esan nezake ez dagoela filosofiarentzat garai kaltegarriagorik, alde batetik, estatu-bitarteko bezala eta, bestetik, irabazteko bitarteko gisa erabiltzen den garaia baino. Ala sinestekoa al da, ahalegin horretan eta zalaparta horretan, egia, inoren ardura ez den hori, argiratuko dela? Egia ez da prostituta, estimatzen ez dutenen lepora amiltzen dena: areago da halako edertasun muker bat, non hari dena sakrifikatzen diona bera ere haren ederra irabazi izanaz ezin baitaiteke ziur egon.

Orain gobernuak estatu-helburuetarako bitarteko bihurtzen dute filosofia; bestalde, gai filosofikoetan adituek industria bihurtzen dute, beste edozeinek bezala bere gizona elikatzen duena: gainera elkarrengana biltzen dira gero, beren borondate ona ziurtatzeko, h. d. helburu horiek zerbitzatzeko beren asmoa. Eta hitza bete egiten dute: ez egia, ez argitasuna, ez Platon, ez Aristoteles, baizik eta helburuak, zeinak betetzeko konpromisoa hartu baitute, horiek dituzte beren izar gidariak eta berehala bihurtzen dira egia, baliozkoa, kontuan hartzekoa eta horien kontrakoan irizpide ere. Horregatik horiei ez dagokiena, nahiz eta beren espezialitatean garrantzitsu eta ez-ohikoena izan, kondenatu egiten dute edo, horrek arriskutsu dirudienean, aho batezko jaramonik ez egitez itoarazi. Ikus bedi bakarrik panteismoaren aurka duten suhar ahobatekoan: ergelen batek sinetsiko ote du hori konbentzimendutik sortzen denik? - Nola ez da, oro har, ogia irabaztera eraitsi den filosofia bat sofistika izateraino endekatuko? Hori ekidinezina delako eta erregela aspalditik baliozko izan delako, antzinakoen artean filosofiarekin dirua irabaztea sofisten ezaugarri izan zen. - Gainera horri gehitu behar zaio, mundu honetan nonahi erdipurdikeria besterik espero izan behar ez denean, eska litekeela eta diru truk lortu ere bai, hemen ere horrekin nahikotu beharra dagoelarik. Horregatik ikusten ditugu Alemaniako unibertsitate guztietan erdipurdikeria maitea ahaleginak egiten oraindik existitzen ez den filosofia bat beren bitartekoez burutzeko, eta aldeaz aurretik ezarritako neurri eta helmugaren arabera noski - iseka egiteko krudelegia litzatekeen ikuskizuna.

Filosofiak horrela luzaz orokorrean bitarteko gisa zerbitzatu behar zuelarik, alde batetik helburu publikoetarako, eta bestetik pribatuatarako, ni neu, horrek nahastu gabe, duela hogeita hamar urte baino gehiagotan neure pentsamenduen hariari jarraitu natzaio, behar nuelako eta besterik ezin nuelako ere bai, instintu gisako bulkada batek eraginik, zeina baitzegoen norberak pentsatu duen egia eta argitu duen ezkutukoa, beste noizbait beste espiritu pentsatzaileraren batek atzemaia izango den konfiantzan euskarriturik, eta hari atsegin, poz eta kontsolagarri izango zaiolakoan: halakoari hitz egiten zaio, antzeko beste batzuek guri hitz egin diguten bezala eta horrela gure bizi-eremu honetako poz bihurtu zaizkigun bezala. Bitartean horien gaia aurrera doa bere kabuz eta beretzat. Baina gogoeta filosofikoei dagokienez era bakan samarrean gertatzen da norberak bere buruarentzat hausnartu eta ikertu duena, gero beste batzuen mesederako ere izatea; ez ordea jadanik jatorriz besteentzat determinaturik zegoena. Ezaguna da lehendabiziko horrek izaeran jatortasun orokorra duela, zeren inork ez baitu bere buruan engainatu nahi izaten, ezta bere buruari intxaurreale hutsak ematen ere; horregatik sofistakeria oro eta hitz-tratukeria oro desagertu egiten da, eta ondorioz, horretaz idatziriko pasartea irakurtzen hartutako nekea saritu egiten du. Hori dela-eta, nire idatziek jatortasunaren eta irekitasunaren zigilua hain argiro daramate bekokian, non horrenbestez nabarmen bereizten baitira Kanten ostealdiko hiru sofista

ospetsuenetatik: beti aurkituko nauzue ni erreflexioaren puntuan, h. d. adimendun gogoetaren eta komunikazio jatorrarenean, inoiz ez inspirazioarenean, begiespen intelektual edo pentsamendu absolutu ere deituarenean, izen zuzenarekin panparroikeria eta hitzontzikeria den horretan. - Espiritu horretan lan eginez eta bitartean beti faltsua eta txarra dena guztiek aintzakotzat harturik, bai panparroikeria³ eta hitzontzikeria⁴ errespetu handienez ikusirik, aspaldi uko egin diot neure garaikideen txaloari. Ezinezkoa da, garai bat, hogeitazehar Hegel bat, Kaliban intelektual hori, filosoforik handientzat aldarrikatu duena, hain ozen, non Europa osoan barrena entzun baita oihartzuna, hori ikusi duena garai horren txalo-irrikaz egon ahal izatea. Ez dauka jadanik emateko ohore-korua gehiago: bere txaloa prostituiturik dago, eta bere haserreak ez du ezer esan nahi. Hau esatean seriotan ari naizela nabarmen geratzen da, zeren inoiz neure garaikideen txaloa irrikatu izan banu, hogeitazehar ezabatu beharko nituzkeen, horietako iritzi guztiek erabat kontra egiten dietelako, eta parte batean eskandaluzko ere gertatu behar zaizkielako. Baina delitutzat hartuko nuke, txalo horregatik silaba bakar bat ere sakrifikatzea. Nire iparra egia izan da oso serioki: horri jarraituz, irrika nezakeen neure txalo propioa, erabat aldendurik gurari intelektual garai guztien ikuspegitik sakon hondoraturiko aro batetik eta, salbuespenetan berorietan ere, literatura nazional endekatu batetik, zeinean hitz goitarrak asmo behetarrekin lotzearen arteak bere gailurra harrapatu baitu. Neuk ere ezin diet ihes egin akats eta ahuleziei, zeinak nire naturak bakoitzari bereak bezala derrigor eransten baitizkit; baina ez ditut duintasunik gabeko moldaketengatik ugalduko. -

Bigarren edizio honi dagokionez, berriz, hogeita bost urte iragan ondoren ezer kendu behar ez izateak pozten nau lehenik, horrela oinarritzko konbikzioak gutxienez neure baitan gorde izanik. Lehen liburuko aldaketek, zeinak soilik lehen edizioako testua baitauka, ez diote esentziala den ezeri ukiturik egiten, baizik parte batez akzidentala denari bakarrik, nagusiki behin eta berriz egindako gehiketa labur argigarriak dira gehienetan. Kantiar Filosofiaren Kritikak soilik ditu zuzenketa esanguratsuak eta gehiketa xehetuak; eta horiek hemen liburu osagarri batean ematerik ez dagoenez gero, neure doktrina propioa aurkezten duten lau liburuak bezala, bakoitza bigarren liburukian sarturik dago. Horietan azken forma hautatu dut hobetze eta ugaltzearengatik, zeren hori taxutu zenetik iragan diren hogeita bost urteek nire aurkezteko eran eta proposamenaren tonuan hain aldakuntza ohargarriak burutu baitituzte, non bigarren liburukiaren edukia lehengoarekin osotasun bakar batean bateratzea ez bailitzateke egokia izango, zeinen fusioan biek sofritu beharko baitzuket. Horregatik bi lanak bereizirik ematen ditut eta neure lehen aurkezpenean, sarritan, orain adierazpenak zeharo beste era batera egingo nituzkeen tokian bertan ere, ez dut ezer aldatu; zeren babestu egin nahiko bainuke neure burua zahartzaroko eskrupuluekin neure urte gazteetako lana hondatzetik. Ikuspegi horretatik zuzentzekoa litzatekeena bigarren liburukiaren laguntzarekin irakurlearen adimenez berez egin ahal izango da. Bi liburukiek dute, hitzaren zentzu betean, harreman osagarria elkarrekiko, gizakiaren bizi-adin bat ikuspegi intelektualetik bestearen osagarri izatean hura oinarritzen den heinean: horregatik aurkituko da, liburuki bakoitzak ez daukala soilik bere baitan besteak ez daukana, baizik bataren abantailak besteari falta zaion horretan daudela hain zuzen ere. Beraz, horren arabera, nire obraren lehen erdiak bigarrenaren aldean abantaila hori badu, gaztaroaren suak eta lehen kontzepzioaren energiak eman dezaketena, honako honek hura gaingitu egingo du heldutasunean eta pentsamenduen etengabeko lanketan, zeinak bizialdi luzearen eta saiamenaren fruituak soilik baitira. Zeren neure sistemaren

oinarrizko pentsamenduak jatorriz taxutzeko indarra neukanean, hori berehala bere lau abarkuntzatan jarraitzeko, horietatik bere enborraren batasunera itzultzeko eta gero osotasuna argiro aurkezteko, orduan oraindik ez nuen gaitasunik, sistemaren atal guztiak perfekzio, sakontasun eta xehetasunarekin lantzeko, zeinak urte luzetako gogoetaren bitartez lortzen baitira, horiek beharrezkoak direlarik, ezin zenbatu ahal errealitate probatu eta argitzeko, erarik desberdinenetako frogez euskarritzeko, alderdi guztietatik klaru argitzeko, ikuspuntu desberdinak gero zehazki kontrastean jartzeko, gai askotarikoak argiro bereizi eta ongi ordenaturik aurkezteko. Horregatik, nahiz eta irakurlearentzat atseginago izango litzatekeen nire obra osoa labealdi bakar batean egina edukitzea, horren ordeaz orain bi erditan dauka, zeinak erabileran bateratu behar baitira; baina pentsa beza hori horrela lortzeko beharko zatekeela nik bizialdi bakar batean egin behar izatea, bitan bakarrik ahalgarri dena, eta nik horretarako naturak bi bizi-aldi guztiz desberdinetan eman dituen gaitasunak izan beharko nituzkeen bakarrean. Hortik dator nire obra bi erdi elkar osagarritan ematearen beharrezkotasuna, objektibo akromatikoko batekin konparatzen dena, zeina pieza bakar batekin egitea ezinezkoa baita, crownlassezko lente ganbil batekin eta flint-glassezko lente ahur batekin osatzen baita, zeinen efektu bateratuak ezer baino lehen nahi dena lortzen baitu. Bestalde, irakurleak bi liburuki batera erabiltzearen deserosotasunerako konpentsazioren bat aurkituko du, objektu bera buru berak, espiritu berean, baina urte desberdinetan tratatzeak berekin duen txandakatze eta hobetzean. Bitartean, nire filosofiaren ezagutza ez duenarentzat, erabat gomendagarria da aurrena lehen liburukia irakurtzea osagarrien gehikuntzarik gabe, eta azken horiez bigarren irakurketa batean baliatzea; zeren bestela zailegia izango bailitzateke, sistema bere loturan atzematea, lehen liburukiak aurkezten duenez, aldiz, bigarrenean doktrina nagusiak bakoitza xehekiago oinarritu eta osoki garatzen dira. Lehen liburukiaren bigarren irakurketa bat egiteko erabakia hartzen ez duenak berak ere hobe izango du bigarrena haren ondoren eta bere baitan irakurtzea bere kapituluen sekuentzia jarraituan, zeinak elkarrekiko askozaz lotura solteagoan baitaude, eta zeinen hutsuneak lehen liburukiaren oroitzenak, ongi ulertu badu behintzat, egoki beteko baititu: horretarako edonon aurkitzen baita erreferentzia lehen liburuarekiko dagozkien pasarteena, zeinean nik helburu horretarako bereizketa-lerro soilez lehen edizioan markaturiko sailak bigarrenean paragrafo-zenbakiez hornitu baititut. -

Jadanik lehen edizioaren hitzaurrean argiturik utzi dut, nire filosofia kantiarretik abiatzen dela eta horren oinarrizko ezagutza suposatzen duela: hori errepikatu egiten dut hemen. Zeren Kanten doktrinak, ulertu duen edozein burutan, oinarrizko aldaketa bat burutzen baitu, hain handia, non birjaiotze intelektual baten balioa izan baitezake. Izan ere, bera bakarrik da gai, hori gertatu zaiona, endelguaren jatorrizko determinaziotik datorren errealismotik baztertzeke, zeinetara ez baitira ez Berkeley eta ez Malebranche iristen; zeren horiek orokorregian geratzen baitira, aldiz Kant partikularrerraino iristen baita, eta halako era batean, non ez aurrekorik eta ez ondokorik ez baitu ezagutzen eta hain efektu bitartegabe eta erabat berezia, esan liteke, eragiten baitu espirituan, zeinaren ondorioz horrek oinarrizko lilura galtze bat jasaten baitu eta harrezkero gauza guztiak beste argi batean ikusten baitira. Horren bitartez bakarrik bihurtzen da norbera harkor nik eman behar ditudan ondorio positiboetarako. Aitzitik, Kanten filosofia menderatu ez duena, zernahi egiten duela ere, errugabetasun-egoeran egongo da, h. d. haurren errealismo natural horretan harrapatutik, zeinean gu guztiok jaiotzen baikara, eta zeinak edozertarako ahalbidetuko baikaitu, filosofiarako izan ezik. Ondorioz hori

lehen harekiko adin-txikikoa helduarekiko dagoen harreman berean baitago. Egia honek gaur egun paradoxa-kutsua izatea, Arrazoimenaren Kritika agertu eta lehen hogeita hamar urteetan inondik ere gertatuko ez zatekeena, Kant benetan ezagutzen ez duen belaunaldi bat hazi izatetik dator, zeren horretarako irakurketa iragankor, egonarrigabe bat edo bigarren eskuko txosten bat baino gehiago behar baita, eta hori berriz zeragatik, orientazio txarren ondorioz denbora alferrik galtzen delako buru arrunt eta ez profesionalen filosofemekin edo sofista panparroiekin, zeinak erantzukizunik gabe gomendatzen baitizkiote. Hortik dator lehen kontzeptuetako nahasmendua eta ezin esanezko gordinkeria eta kamuskeria, zeinak horrela hezitako belaunaldiaren ahalegin filosofiko propioan erdi-ikusten baitira preziositate eta pretentziositatezko estalkipetik. Baina errakuntza erremediogabeen harrapaturik dago, Kanten filosofia beste batzuek hartaz egindako aurkezpenetik ezagut daitekeela uste duena. Aitzitik, horrelako kontu-emateen, batez ere azken aldiotakoen aurrean, ohar zorrotza egin beharra daukat: eta azken urteotan, hegeldarren idazkietan, fabulazko izateraino iristen diren Kanten filosofiaren aurkezpenak agertu izan zaizkit. Nola izango dira gai lehen gaztaroan Hegelkeriaren zentzugabeak bihurritu eta hondaturiko buruak Kanten azterketa sakonak jarraitzeko? Goiz ohitu dira hitzontzikeria hutsalena pentsamendu filosofikotzat, sofisma pobreenak ingeniotzat, eta nabarmenkeria ergela dialektikotzat hartzera. Eta hitz-elkarketa amorratuak hartzearen bitartez, zeinean espiritua alferrik torturatu eta ahitzen baita zerbait pentsatzen, buruak desantolatuak dauzkate. Horientzat ez dago Arrazoimenaren Kritikarik, horientzat ez dago filosofiarik, horiei [espirituarentzako sendagai] bat dagokie, lehenik purga gisara edo , eta gero ea horiengan oraindik filosofiaz hitz egiteko erarik dagoen ikusi beharko da. - Kantiar doktrina alferrik bilatuko da Kanten obra propioetan izan ezik: eta horiek guztiz irakasgarriak dira hura erratzen denean bertan ere, hark huts egiten duenean bertan ere. Bere originaltasunaren ondorioz hartaz maila gorenean da baliozko benetako filosofo guztiei buruz baliozko dena: horien idazki propioetatik bakarrik ikasten da berak ezagutzen; ez besteen txostenetatik. Zeren aparteko espiritu horien pentsamenduek ez baitute buru arruntetatik iragaziak izatea jasaten. Bekoki zabal, garai, ederki gangatuen atzean jαιοek, zeinen azpian begi distiratsuek egiten baitute argi, burezur mehar, gogor eta deprimituen barrunbe mehar eta teilatupe baxuetan ezartzen direnean, zeinetatik begirada kamuts eta helburu pertsonaletara zuzenduak sortzen baitira, galdu egiten dute indar guztia, eta bizi osoa eta antzekoak direnik ere ez dirudite. Bai, esan daiteke, buru-mota horiek ispilu malkarren gisara dihardutela, zeinean dena bihurritu, deuseztu egiten baita, bere edertasunaren harmonia galdu eta karikatura bat errepresentatzen baita. Beren autoreengandik bakarrik jaso daitezke ideia filosofikoak: horregatik, filosofiara bultzatua sentitzen denak horien irakasle hilezkorrak beren obren santutegi isilean bilatu behar ditu. Benetako filosofo horietako bakoitzaren kapitulu nagusiek ehun aldiz ideia gehiago sortuko dituzte beren irakaskuntzan horiei buruzko txosten makal eta betezkelek baino, zeinak buru arruntek sortzen baitituzte, zeinak gainera gehienetan sakon harrapaturik baitaude aldi bakoitzeko modako filosofian edo bakoitzaren iritzi pertsonalean. Baina txunditzekoa da publikoak bigarren eskuko aurkezpen horietara hobespenez zeinen deliberatuki jotzen duen. Honetan izatez badirudi hautapen-kidetasunak eragina duela, zeinaren indarrez natura arruntak antzekoengana erakarriak izaten baitira, eta horren arabera, espiritu handi batek esandakoa beren antzekoengandik hauteman nahiago izaten baitute. Agian hori elkarrekiko irakaskuntzaren sistemaren printzipio berean oinarritzen da, zeinaren arabera haurrek beren kidekoengandik ikasten baitute hobekien.

Orain hitzerdi bat filosofia-irakasleentzat. - Zorroztasuna, arta zuzen eta fina, zeinez nire filosofia agertu denean bertan beren ahaleginekiko zeharo heterogeneo gisa, arriskutsu, esamolde arrunta erabiltzeko, beren merkataritzari egokitzen ez zaion zerbait bezala ezagutu baitute, baita politika seguru eta zorrotza ere, zeinaren indarrez horren kontrako prozedura zuzen bakarra aurkitu baitzuten, ahobatekotasun betegina, zeinarekin praktikara eraman baitzuten, azkenik, iraumena, zeinarekin harekiko leialtasunean egon baitziren - lehenagotik ere miretsi behar izan ditut. Prozedura hori, zeina gainera oso erraz azaltzeko modukoa delako ere gomendagarria baita, batere kontuan ez hartzean eta horrela isilpean edukitzean datza - Goetheren esamolde maleziatiaren arabera, zeinek egiazki garrantzitsua eta esanguratsua dena propioki ezabatzea adierazten baitu. Bitarteko isil horren eraginkortasuna areagotu egiten du korifeoen zaratak, zeinarekin zinkideen espirituaren haurren jaiotza elkarren artean ospatzen baitute eta behartzen baitute publikoa begiratzera eta elkar agurtzeko erabiltzen dituzten keinu garrantzitsuez ohartzera. Nork ez luke kontuan hartuko prozedura horren egokitasuna? Hala ere, ez dago printzipioaren aurka ezer objektatzerik. Jaunek bizi egin nahi dute, eta gainera filosofiatik bizi: horri gomendatu zaizkio, emaztea eta haurrarekin, eta nahiz eta Petrarcaren hura gora-behera, lortu egin dute. Baina nire filosofia ez dago inondik ere hartatik bizi izateko prestatua. Lehenik ongi hornituriko katedra baterako ezinbesteko eskakizunak falta zaizkio, gero teologia espekulatibo bat osoki, zeinak hain zuzen ere - Kant eta bere gora-behera- filosofia guztien gai nagusia izan behar baitu, nahiz eta egitekotzat hartzen duen ezer jakin ez daitekeenaz beti hitz egitea; gainera nireak ez du ezartzen filosofiako irakasleentzat hain zuhurki asmatu eta beraiei ezinbesteko bihurtu zaien alegia arrazoimen bitartegabe eta absolutuki ezagutzaile, begiesle eta hautemailea, zeina hasieratik bere irakurleekin lotu behar baitu, gero Kantek gure ezagutzari erabat eta betiko itxitako esperientzia ororen ahalatasunaz haraindiko esparruaz erarik erosoenean mundutik, aldi berean lau zaldirekin joateko, non kristautasun moderno, judutzaile, baikorraren oinarritzko dogmak bitartegabe azaldurik eta ahalik eta ongien antolaturik aurkitzen baitira. Baina zer du ikustekorik, mundu osoan, esentzial eskakizun horiek falta zaizkion, aintzatespenik eta elikatzeko ahalmenik ez duen filosofia sotilak - zeinak bere ipartzat egia soilik, egia sartugabea, higuingarria, sarritan jazartua eta, eskuinera edo ezkerrera begiratu gabe, hain zuzen horretaraxe gidatzen duena - alma mater harekin, unibertsitateko filosofia on, elikagarriarekin, zeina ehun asmo eta kezkarekin zamatua, bere bidea zainduz eta horregatik itzulinguruka datorrena, denbora guztian jaunenganako beldurra, ministerioaren nahia, eliza nazionalaren dogmak, editoreen gurariak, estudianteen komenientziak, kolegen adiskidetasun ona, eguneroko politikaren joaira, publikoaren aldi-aldiko joera eta hori guztia begien aurrean daukanarekin? Edo zer du komunean nire egia ikertze isil, serioak katedra eta bankuen eskola-eztabaida oihutsuekin, zeinen barne-eragingarriak beti xede pertsonalak izaten baitira? Aitzitik, bi filosofia mota horiek errotik heterogeneoak dira. Horregatik ez dago nirekin ez konpromisorik eta ez kamaradatasunik, eta nirekin ez du konturik egiaren bila dabilena ez bada; ezta eguneko alderdi filosofikorik ere: zeren horiek bakoitza bere asmoen atzetik baitabiltza; eta nik ideiak bakarrik eman ditzaket, horietako inori moldatzen ez zaizkionak, inoren arabera moldatuak izan ez direnez gero. Nire filosofia katedrarako gai izan dadin, zeharo beste garai batzuek etorri beharko lukete. - Benetan ederra izango litzateke horrelako filosofia bat izatea, zeinetatik ezingo bailitzateke bizi, baina airea eta argia, eta errespetu orokorra irabaziko bailirateke. Baina hori eragozteko eta horren kontra, guztiak bat datoz. Eztabaidan eta kontrakarrean, hala ere, jadanik ez

dago hain joko erraza: hori bera ere bitarteko higuigarri bat da, zeren publikoaren arreta gaira zuzentzen baitu, eta horri nire idatziak irakurtzeak filosofiako irakasleen elukubrazioetarako zaletasuna alferrik gal baitiezaioke. Zeren serioa den zerbait dastatu duenak, halakoak ezin du jadanik atseginik atera aspergarria denetik. Beraz, ahobatez onarturiko isiltzearen sistema da zuzen bakarra, eta horretan gelditu eta hortik aurrera jotzeko aholkua eman besterik ez nezake egin, ondorioak dituen bitartean, h. d. kontuan ez hartzetik ezjakintasuna ondorioztatzen den bitartean: beti izango da denbora portaeraz aldatzeko. Bitartean edozein izengaberi, han eta hemen nire uztatik izpiren bat hartzeko aukera gelditzen zaio, zeren etxeko pentsamenduen jarioa ez baita oso abailgarria izan ohi. Horrela kontuan-ez-hartu-eta-isiltzearen sistemak oraindik denboraldi batean iraun dezake, gutxienez nik bizitzeko oraindik izan dezakedan denbora-epean; eta horrekin jadanik asko irabazi da. Nahiz eta bitartean han-hemenka ahots indiskretoren bat entzunarazi den, irakasleen azalpen ozenek laster menderatzen dute, zeinek beste gauza batzuei buruz, aurpegikera serioarekin entretenitzen bai baitakite. Aholku ematen dut, hala ere, prozeduraren ahobatekotasunari oraindik zorrotzago atxikitzeko eta, batez ere, gaztejendea zelatatzeko, batzuetan izugarri indiskretoa izaten baita. Zeren nik sistema laudatuak betiko iraungo duenik ezin baitut bermatu, eta baliteke azken emaitzarako ez balio izatea. Nolanahi ere gauza propio bat da publiko erabat on eta esanekoa gidatzeko. Baldin eta garai ia guztietan Gorgiasak eta Hippiasak goian ikusten baditugu, absurdua eskuarki gailurrera iristen da, eta ezinezkoa badirudi ere liluratu eta liluratzailleen koruaren bidez bakar baten ahotsa entzunaraztea - era berean garai guztietan gelditzen zaie benetako obrei eragin original, isil, patxadazko, indartsua, eta mirari batez bezala azkenean ikusten da astrapalatik igotzen, aerostato baten gisara, zeina lur-espazio honetako ilungune trinkotik alderdi garbiagoetara igotzen baita, non heldu ondoren, bertan gelditzen baita eta inork ezin baitu gehiago handik eraitsi.

Frankfurt a. M.en idatzia, 1844ko otsailean.

HIRUGARREN

EDIZIOAREN HITZAURREA

Egiazkoak eta onak laster aurkituko luke lekua munduan, baldin eta hori sortzeko gaiezak direnek zin egingo ez balute horri irteten ez uzteko. Zirkunstantzia horrek jadanik munduari mesede egin ziezaiokeen asko eragotzi eta ezabatu du, erabat irato ez duenean. Niretzat bere ondorioa izan da, nahiz eta nik hogeita hamar urte nituela obra honen lehen edizioa argitaratu izan, hirugarren hau hirurogeita bi arte ezin egin izana. Horregatik kontsolamendua aurkitzen dut Petrarcaren hitzetan: [Nor bait, egun osoan lasterka ibili eta arratsean iristen bada, aski da] (, p. 140.). Nik neuk ere azkenean lortu dut eta, neure ibilbidearen bukaeran neure eraginkortasuna ikustearen gogobetetasuna dut, esperantzarekin, arau zahar baten arabera, luzeago iraungo duela, beranduago hasi den neurri berean. -

Irakurleak ez du hirugarren edizio honetan bigarren edizioak zeukan ezer faltako, baizik eta nabarmenki gehiago hartzen du, zeren egin zaizkion gehiketei esker bigarrenak baino 136 orrialde gehiago baititu inpresio berean.

Bigarren edizioa irten eta zazpi urte geroago bi liburuki argitaratu ditut. Azken izen horren pean bildua nire filosofiaren aurkezpen sistematikoari egindako gehiketaz osaturik dago eta liburuki hauetan aurkituko zukeen kokagune egokia: bakarrik nolabait argitaratu beharra neukan, ahal nuen tokian, zeren oso zalantzezkoa baitzen hirugarren edizio hori ikusteko biziko nintzen. deitu horien bigarren liburukian aurkitzen da eta kapituluaren gainidatzietan erraz ezagutzen dira.

Frankfurt a. M., 1859ko azaroan

LEHEN LIBURUA

MUNDUA ERREPRESENTAZIO GISA
LEHEN KONTSIDERAZIOA:

ERREPRESENTAZIOA ARRAZOIAREN
PRINTZPIOAREN MENDE: ESPERIENTZIA ETA ZIENTZIAREN OBJEKTUA

Sors de l'enfance, ami, réveille-toi!
[Irten haurtzarotik, adiskide, eta itzar hadi!]

JEAN-JACQUES ROUSSEAU

[, 5,1]

§ 1

- hau egia bat da, bizi den eta ezagutzen duen edozein izakirekiko balio duena; nahiz eta gizakiak bakarrik kontzientzia erreflexionatu abstraktura ekar dezakeen: eta errealki egiten du hori; horrela beragan gogoeta filosofikoa agertzen da. Argi eta ziur gelditzen zaio orduan ez duela ezagutzen ez eguzkia eta ez lurra; baizik beti begi bat, eguzki bat ikusten duena, esku bat, lur bat sentitzen duena; inguratzen duen mundua errepresentazio gisa dagoela hor, h. d. beste zerbaitekiko, errerepresentatzailearekiko erlazioan, zeina berbera baita. - Baldin eta egiaren bat a priori adierazterik badago, horixe da: zeren esperientzia ahalgarri eta pentsagarri guztien formaren enuntziatua baita, beste guztiak, denbora, espazioa eta kausalitatea baino orokorragoa dena: zeren hauek guztiek haiek suposatu egiten batituzte, eta forma horietako bakoitzak, zeinak guztiak arrazoiaren printzipioaren beste hainbeste taxuera berezi gisara ezagutu baititugu, errepresentazioen klase berezi baterako bakarrik balio baitute; horrela, aitzitik, subjektua eta objektuaren arteko banaketa klase horien guztien forma komuna da, eta bakarra, zeinaren azpian bakarrik edozein errepresentazio, edozein motatakoa delarik ere, abstraktu zein begiesgarria, hutsa edo enpirikoa, oro har bakarrik ahalgarri eta pentsagarri baita. Ez dago beste egiarik ziurragoa denik, beste guztietatik independenteagoa eta froga gutxiago behar duenik horixe baino, ezagutzarako existitzen den guztia, baita mundu osoa ere, subjektuarekiko harremanean bakarrik dela objektu, begieslearen begiespen, hitz batean: errepresentazio. Jakina, horrek balio du nola presentearekiko, hala iragana eta etorkizun ororekiko ere, urrunekoa eta hurbilekoarekiko; zeren denbora eta espazioarekiko ere balio baitu, zeinean bakarrik hori guztia desberdintzen baita. Munduarena den eta nolabait izan daitekeen guztia subjektuaren bitartez baldintzatutasun horrekin ezinbestez atzemanik dago eta subjektuarentzat bakarrik existitzen da. Mundua errepresentazio da.

Egia hori ez da inondik ere berria. Hantxe zegoen Kartesio (Descartes) abiatu zen gogoeta eszeptikoetan. Berkeley izan zen, ordea, deliberatuki adierazi zuena: horregatik meritu hilezkorra irabazi du filosofiarako, nahiz eta bere doktrinako gainerakoa sustengatzerik ez dagoen. Kanten lehen akatsa printzipio hori kontuan ez hartzea izan zen, Eranskinean aditzera ematen denez. - Zeinen goiz, aitzitik, onartu zuten Indiako jakintsuek oinarri-egia hori, Vyasari egotziriko Vedanta filosofiaren oinarrizko printzipio gisa agertzen dena, William Jonesek testigatzen du bere tratatuetak azkenean: [in:] (Asiatic researches, vol. IV, p. 164) «The fundamental tenet of the Vedanta school consisted not in denying the existence of the matter, that is of solidity, impenetrability, and extended figure (to deny which would be lunacy), but in correcting the popular notion of it, and in contending that it has no essence independent of mental perception; that existence and perceptibility are convertible terms»⁵. Hitz horiek errealtate enpirikoaren eta idealitate transzendentalaren arteko izankidetza behar beste adierazten dute.

Emandako alderdi horretatik, errepresentazio den heinean bakarrik kontsideratzen dugu mundua lehen liburu honetan. Baina kontsiderazio hori, bere egiaren kalterik gabe, alderdibakarra, hautazko abstrakzioaren baten bitartez eragina, huts bezala onartzeak edonori eragiten dion barne-erresistentziak erakusten du, zeinarekin berak mundua bere errepresentazio huts gisara onartzen baitu;

bestalde, onarpen horri inoiz ezin dio ihes egin. Kontsiderazio horren aldebakartasuna hurrengo liburuak osatuko du egia baten bitartez, zeina hemen abiagunetzat daukaguna bezain bitartegabe ziurra ez baita; baizik eta zeinara ikerketa sakonagoak, abstrakzio zailagoak, desberdinaren bereizkuntzak eta identikoaren baterakuntzak bakarrik gida baitezake - egia baten bitartez, zeinak oso serio eta edonori, nahiz eta beldurrik ez eman, pentsaraziko baitio, berak ere esan dezakeela eta esan behar duela: . -

Baina bitartean, lehen liburu honetan beharrezko da abiagunetzat daukagun munduaren alderdia finko kontsideratzea, ezagugarritasunaren alderdia, eta gero kontrakarrik gabe existitzen den edozein objektu, baita norbere soina bera ere (oso laster eztabaidatuko dugunez) errepresentazio gisara bakarrik kontsideratzea, errepresentazio huts izendatzea. Hemen horretatik abstrahitzen dena, gero hori mundu guztiari ziur gelditzea espero dugunez, nahimena besterik ez da beti, berak bakarrik munduaren beste alderdia eratzen duen heinean: zeren hori alde batetik erabat errepresentazio den bezala, bestetik erabat nahimen baita. Baina bi horietako ezer izango ez litzatekeen errealitate bat, berbaitango objektu baizik (Kanten berbaitango gauza ere esku artean tamalez horretara endekatu egin baitzaio), ametsetako munstro bat da eta hori onartzea filosofiako argi-txakurrak.

§ 2

Dena ezagutzen duena eta inork ezagutzen ez duen hori subjektua da. Beraz, munduaren euskarri da, agertzen den ororen, objektu ororen baldintza beti suposatu, erabatekoa: zeren subjektuarentzat bakarrik existitzen dena baizik ez baitago beti. Subjektu horren gisa aurkitzen du bakoitzak bere burua, baina ezagutzen duen heinean bakarrik, ez ordea ezagutzaren objektu den heinean. Objektu da, ordea, bere soina, zeina guk ere ikuspuntu horretatik errepresentazio izendatzen baitugu. Zeren soina objektuen arteko objektu baita eta objektuen legeen mendekoa, nahiz eta bera objektu bitartegabe izan⁶. Begiespeneko objektu oro bezala, ezagutza ororen formetan dago, denboran eta espazioan, zeinen bitartez sortzen baita aniztasuna. Subjektua, ordea, ezagutzailea, ez ezagutua, ez dago forma horietan, zeinek beti suposatu egiten baitute: horregatik ez dagozkio ez aniztasuna ez horien oposizioa, batasuna. Ez dugu inoiz ezagutzen, baizik eta bera da ezagutzen duena, ezagutza dagoen tokian.

Horrela munduak errepresentazio gisa, edozein ikuspegitik hemen kontsideratzen dugula ere, bi erdi esentzial, beharrezko eta bereiztezin ditu. Bata objektua da: zeinaren forma espazioa eta denbora baita, eta horren bitartez aniztasuna. Beste erdia, berriz, subjektua, ez dago espazioan eta denboran: zeren oso eta banagabe baitago edozein izaki errepresentatzailerengan; horregatik horietako bakar batek, existitzen diren milioiek bezain osoki, objektuarekin mundua errepresentazio gisa osatzen du: bakar hori desagertuko balitz, mundua ez litzateke existituko errepresentazio gisa. Erdi horiek, beraz, bereiztezinak dira, pentsamenduarentzat berarentzat ere; zeren bietako bakoitzak bestearen bitartez eta bestearentzat bakarrik baitu esangura eta izatea, horrekin existitzen da eta horrekin desagertzen da. Bitartegabe mugatzen dute elkar: objektua hasten den tokian, bukatzen da subjektua. Muga horien komuntasuna honetan agertzen da: objektu ororen forma esentzialak eta, beraz, orokorrak, zeinak denbora, espazioa eta kausalitatea baitira, objektuaren beraren ezagutza gabe ere, subjektutik abiatuz, aurkituak eta osoki ezagutuak izan daitezkeelakoan, h. d. Kanten hitzetan, a priori

gure kontzientzian daudelakoan. Hori aurkitu izana da Kanten meritu nagusia eta oso handia gainera. Gainera, nik baieztatzen dut arrazoiaren printzipioa dela objektuaren a priori kontziente zaizkigun forma horien guztien adierazpen komuna, eta horregatik garbiki a priori dakigun guztia, printzipio horren edukia besterik ez dela eta horri jarraitzen zaiona, eta horretan adierazten da propioki gure a priori ezagutza ziur guztia. nire tratatuan xeheki erakutsi dut nola objektu ahalgarri oro horren mende dagoen, h. d. beste objektu batzuekiko beharrezko harremanean, alde batetik determinaturik bezala, bestetik determinatzaile bezala: eta hori halako punturaino iristen da, non objektu guztien izate osoa, objektuak, errepresentazioak eta beste ezer ez diren heinean, bestearekiko bere beharrezko harreman horri osoki dagokiola, eta horretan bakarrik datzala, eta guztiz erlatiboa dela: horretaz laster hitz egingo da gehiago. Gainera erakutsi dut, objektuak beren ahalatasunaren arabera banatzen diren klaseen arabera, beharrezko harreman hori, arrazoiaren printzipioak orokorrean adierazten duena, beste taxu batzuetan agertzen dela; eta horren bitartez klase horien sailkapen egokia bermaturik gelditzen dela. Nik han esandako guztia ezaguntzat suposatzen dut hemen etengabe, eta irakurleak presente daukala: zeren jadanik han esan izan ez balitz, hemen izango bailuke bere leku beharrezkoa.

§ 3

Gure errepresentazio guztien arteko desberdintasun nagusia begiesgarri eta abstraktuarena da. Azken horrek errepresentazio-klase bakar bat eratzen du, kontzeptuena: eta horiek munduan gizakiaren jabetza dira bakarrik, zeinean kontzeptuak eratzeko gaitasuna, bera animalia guztiengandik bereizten duena, aspaldidanik arrazoimen izendatu izan baita⁷. Aurrerago beren horretan kontsideratuko ditugu errepresentazio abstraktu horiek, baina aurrenik errepresentazio intuitiboaz soilik hitz egingo dugu. Horrek mundu ikuskor osoa atzematen du edo esperientzia osoa, horren ahalatasunaren baldintzekin batera. Hori, esan denez, Kanten aurkikuntza garrantzitsua da, baldintza horiek, forma horiek berak, h. d. horien hautemapeneko orokorrena, horien agerpen guztien era berean propioa dena, denbora eta espazioa, baita bere baitan eta bere edukitik bereizirik ez soilik in abstracto pentsatua, baizik eta bitartegabe begietsia izan baitaiteke eta begiespen hori ez dela fantasma huts bat esperientziaren errepikatze hutsetik aterea, baizik eta esperientziatik hain independentea, zeinak areago alderantziz esperientziatik independente gisa pentsatua izan behar baitu, espazioaren eta denboraren propietateak a priori begiespenak ezagutzen dituenek, esperientzia ahalgarri guztietarako legetzat balio baitute, zeinaren arabera horiek nonahi gertatu behar baitute. Horregatik nire tratatuan, denbora eta espazioa garbi eta edukigabe gisa begiesten diren heinean, berez existitzen den errepresentazio-klase berezi gisa kontsideratu ditut. Begiespenaren forma orokor horiei Kanten aurkituriko taxuera oso garrantzizkoa delarik ere, zeinak baitira berez eta esperientziarekiko independenteki begiesgarri eta beren erregulartasun guztiaren arabera ezagugarri, zeinen gainean oinarritzen baita matematika bere hutsezintasunarekin; ez da halere, kontsideragarritasun gutxiagoko propietatea, arrazoiaren printzipioa, zeinak esperientzia kausalitate eta motibazioaren lege gisa eta pentsatzea judizioen oinarritzapenaren lege gisa determinatzen baitu, hemen taxu erabat originalean aurkezten dela, zeinari nik izatearen arrazoi izena eman baitiot, eta zeina denboran bere momentuen segida eta espazioan infinituraino elkar determinatzen duten atalen kokaera baita.

Nire aurreko tratatutik arrazoiaren printzipioaren edukiaren identitate perfektua bere taxuen desberdintasun guztian garbi gelditu zaionari, hori konbentziturik geldituko da zeinen garrantzizkoa den haren esentzia barnekoenaren bere taxuetarik sinpleenaren ezagutza, eta horrelakotzat denbora ezagutu dugu. Nola horretan aldiune bakoitza bakarrik existitzen den aurrekoa, bere aita, ezabatu duen heinean, gero bera hura bezain laster ezabatua izateko; nola iragana eta etorkizuna (bere edukiaren segida alde batera utzirik) amets bat bezain ezerezak diren, presentea, berriz, bien arteko muga hedadura eta iraumen gabea; era berean berrezagutu eta ulertuko dugu ezereztasun hori arrazoiaren printzipioaren beste taxuetan, nola denborak, baita espazioak ere, eta nola horiek, baita horrek nola denboran aldi berean dagoen guztiak, baita kausetatik edo motiboetatik irteten den guztiak ere, existentzia erlatibo bat bakarrik duela, beste baten bitartez eta beste batentzat, beraren modukoa, h. d. berriz ere horrela existitzen dena. Ikuspuntu honen funtsa zaharra da: Heraklitok gauzen jario betikoa deitoratzen zuen: Platonek bere objektua beti bilakatzen ari den baina inoiz ez deneraino eraisten zuen; Spinozak bakarrik den eta bakarrik dirauen substantzia bakarraren akzidente soil izendatzen zituen; Kantek horrela ezagututakoa agerpen soil gisa kontrajarri zion berbaitango gauzari; azkenik indiarren jakituria antzinakoenak badio: «Maia da, liluraren beloa, hilkorren begiak estaltzen dituen eta halako mundu bat ikusarazten diena, zeinaz esan baitaiteke, badela, baina baita ez dela ere: zeren ametsaren antza baitu, hondar gaineko eguzki-distiraren antza, ibiltariak urrunetik urtzat hartzen duenarena, edota soka jaurtiarena, suge gisa ikusten duenarena.» (Konparazio hauek Veda eta Puranetako ezin zenbatu ahala pasartetan aurkitzen dira.) Horiek guztiek esan nahi zutena eta aipatzen zutena gu orain kontsideratzen ari garena baizik ez da: mundua errepresentazio gisa, arrazoiaren printzipioaren mende.

§ 4

Ezagutu duenak arrazoiaren printzipioaren taxuera, denbora hutsean horrelako gisa agertzen dena, eta zeinaren gainean zenbatze eta kalkulatzeko oro oinarritzen baita, horrek denboraren esentzia osoa ere ezagutu du horrenbestez. Hori arrazoiaren printzipioaren taxuera hura besterik ez da eta ez du beste propietaterik. Suzesioa da denboraren esentzia osoa. - Gainera arrazoiaren printzipioa, espazio begietsi garbi soilean dagoen bezala ezagutu duenak, horrek espazioaren esentzia osoa agortu du horrenbestez; zeren hori inondik ere bere atalen bata bestearen elkarrekiko determinazioen ahalbidea besterik ez baita, zeinari deitzen baitzaio kokaera. Horren kontsiderazio xehea eta hortik sortutako emaitzak erosoago erabiltzeko, kontzeptu abstraktutara murriztea, geometria osoaren edukia da. - Halaber, arrazoiaren printzipioaren taxuera horiek, forma horien edukia (denbora eta espazioarena), bere hautemangarritasuna, h. d. materia, menderatzen dituenak, kausalitatearen legea ere ezagutu du; halakoak, horrenbestez, materiaren esentzia osoa horrelakoa den heinean ere ezagutu du: zeren hori inondik ere kausalitatea besterik ez baita, bakoitzak bitartegabe ulertzen duena, gogoeta apur bat eginez gero. Bere izatea bere eragitea da (horri buruzko gauza gehiago tratatuan § 21, 77. or.). Oso egokia da horregatik alemanez materiala den guztiaren multzoari errealitate (Wirklichkeit) deitzea⁸, hitz hori errealitate (Realität) baino askozaz adierazgarriagoa baita. Hori, zeinean eragiten baitu, berriz ere materia da: bere izate eta funts osoa aldaketa arautuan datza, atal batek bestean sortzen duena, ondorioz erabat erlatiboa da, beren mugen

barruan bakarrik balio duen harreman baten arabera, denbora bezala, baita espazioa bezala ere.

Denbora eta espazioa, ordea, bakoitza bere aldetik, materiari gabe ere begiespenez errepresentagarriak dira; materia, berriz, horiek gabe, ez. Formak berak, hartatik bereiztezina denak, espazioa suposatzen du, eta horren eragitean, zeinean baitago bere izate osoa, aldaketa batekin, denboraren determinazio batekin du beti zerikusia. Baina denbora eta espazioa ez dira biak bakoitza bere aldetik materiak auresuposatuak soilik; baizik bien bateratze batek eratzen du horren funtsa, zeren hori, erakutsi denez, eragitean, kausalitatean baitatza. Ezin zenbatu ahal agerpen eta egoera pentsagarri guztiak espazio infinituan egon litezke, noski, bata bestea estutu gabe, elkarren ondoan, edo baita denbora amaigabea ere, elkarri oztopo egin gabe, bata besteari jarraituz; horregatik gero beharrezko harreman bat horiena elkarrekiko, eta arau bat, zeinak horiek bere arabera determinatuko bailituzke, inola ere ez litzateke beharrezko izango, eta ez litzateke erabilgarria ere izango: ondorioz espazioko elkarren ondoan egote guztia eta denborako aldaketa guztia gorabehera, bi forma horietako bakoitzak berez eta besteekiko loturarik gabe bere iraupena eta bere joaira izango lukeen artean, ez legoke kausalitaterik, eta horrek materiaren funts propioa eratzen duenez, ez legoke materiari ere. - Baina kausalitatearen legeak bere esangura eta beharrezkotasuna hartu bakarrik hartzen ditu, aldaketaren funtsa ez egoeren beren aldaketa soilak bakarrik denean, baizik eta areago espazioko toki berean egoera bat egotean eta haren ondoren beste bat, eta denbora determinatu bakar eta berean hemen egoera hau eta han hura: denbora eta espazioaren elkarrekiko mugatze kontrajarri horrek ematen dio arau bati, zeinaren arabera aldaketak gertatu behar baitu, esangura eta beharrezkotasuna. Kausalitatearen legearen bitartez determinatzen dena ez da egoeren suzesioa denbora soilean, baizik suzesioa espazio determinatu batekiko ikuspegian, eta ez egoeren existentzia toki determinatu batean, baizik toki horretan denbora determinatu batean. Aldaketak, h. d. kausalitatearen legeak ezarritako trukeak, kasu bakoitzean espazioaren atal jakin batekin eta denboraren atal determinatu batekin du zerikusia aldi berean eta batera. Horren ondorioz kausalitateak espazioa eta denbora bateratzen ditu. Baina eragitean, baita kausalitatean ere, materiaren funts osoa datzala aurkitu dugu: ondorioz denbora eta espazio horretan ere bateraturik egon behar dute, h. d. bere baitan eroan beharko ditu aldi berean denboraren eta espazioaren propietateak, nahiz eta biak elkarren kontrakoak izan, eta bi horietako bakoitzean berez ezinezkoa dena, bere baitan bateratu behar du, denboraren ihes iraupengabea espazioaren iraute zurrun aldaezinarekin, bietatik dauka berak atalgarritasun amaigabea. Horren arabera, bere bitartez aurkitzen dugu lehenik aldiberekotasuna sarturik, zeina ezin baitaiteke denborakoa soilekoa izan, elkarren ondoan egoterik ez duelako, ezta espazioko soilekoa ere, horrek ez aurre, ez oste edo orainik ezagutzen ez duelako. Egoera askoren aldiberekotasunak eratzen du propioki errealitatearen (Wirklichkeit) funtsa: zeren bere bitartez baita ahalgarri ezer baino lehen iraupena, izan ere hori dirauenarekin aldi berean ageri denaren aldaketan soilik baita ezagugarria: aldaketan, dirauenaren bitartez bakarrik gordetzen baitu horrek aldaketa karakterra, h. d. kausalitatearen eta formaren bestelaketak, substantziaren, h. d. materiaren irautean. Espazio soilean mundua zurrun eta mugiezin legoke: suzesiorik gabe, aldaketarik gabe, eragiterik gabe: eragitearekin berarekin materiaren errepresentazioa gainditu egiten da. Denbora soilean, berriz, dena iheskorra litzateke: hisiarik ez, elkarren ondoan egoterik ez eta horregatik aldibererik ere ez, ondorioz iraupenik ez: beraz, berriz ere materiari ez. Denbora eta materiaren bateratzearen bitartez bakarrik

sortzen da materia, h. d. aldiberearen ahaltasuna eta horren bitartez iraupenarena, horren bitartez berriro substantziaren hisiarena egoeren aldaketan¹⁰. Denbora eta espazioa bateratzean bere funtsa daukalarik, materiak bien marka darama. Bere jatorria parte batean espaziotik datorrela iragartzen du formaren bitartez, zeinatik bereizteza baita, bereziki ordea (zeren denborari bakarrik baitagokio, honetan ordea ezer ez baitago berez iraunkorrik) hisiaren (substantzia) bitartez, zeinaren a priori ziurtasuna erabat espazioarenetik ondoriozta daitekeena baita¹¹: denboratik duen jatorria agerian gelditzen da kualitatean (akzidentea), zeina gabe ez baita inoiz agertzen, eta zeina beti kausalitatea, beste materia batean eragitea, eta aldaketa ere (denbora-kontzeptu bat) bai baita. Eragite horren legea espazioa eta denborarekin erlazionatzen da beti aldi berean, eta esanahia ere hortik hartzen du. Zer egoera denbora honetan eta toki honetan behar duen, kausalitatearen legea bakarrik hedatzen den determinazioa da. Materiaren oinarritzko determinazioen ondorioztatze horretan, gure ezagutzako a priori forma kontzientek zaizkigunetan oinarriturik, horien a priori propietate jakin batzuk ezagutzen ditugu, h. d. espazioa betetzea, h. d. barrenezintasuna, h. d. eraginkortasuna, baita hedadura, amaigabeko atalgarritasuna, iraupena, h. d. suntsiezintasuna, eta azkenik higikortasuna: aitzitik, pisutasuna, bere salbuespenik eza alde batera utzirik, a posteriori ezagutzen artean zenbatzekoa da, nahiz eta Kantek obran, 71. or. (Rosenkranz edizioa, 372. or.) a priori ezagugarritzat aitortzen duen.

Baina nola objektua, oro har, subjektuarentzat bakarrik existitzen den, honen errepresentazio gisa; horrela, errepresentazioen klase berezi bakoitza ere determinazio berezi horretarako bakarrik existitzen da subjektuan, zeinari ezagumen deitzen baitzaio. Denbora eta espazioaren korrelatu subjektiboari, forma huts gisa, Kantek sentsuzkotasan huts deitu zion, eta esamolde horri, Kantek hemen bide berriak urratu dituelako, iraunarazi egin beharko diogu; nahiz eta oso ongi ez dagokion, zer sentsuzkotasanak jadanik materia suposatzen baitu. Materiaren edo kausalitatearen korrelatu subjektiboa, zer biak gauza bakar bera baitira, adimena da, eta horretaz kanpo ez da ezer. Kausalitatea ezagutzea du bere funtzio bakarra, bere indar bakarra, eta funtzio handia du, asko besarkatzen duena, erabilera anitzekoa, adierazpen guztien identitate baina nabarikoa. Alderantzitara, kausalitate oro, baita materia oro ere, baita errealitate oro ere adimenarentzat, adimenaren bitartez, adimenean bakarrik dago. Adimenaren adierazpen lehena, sinpleena, beti existitzen dena mundu errealaen begiespena da: eta hori efektutiko kausaren ezagutza baizik ez da: horregatik begiespen oro intelektualala da. Baina ezingo ginateke inoiz hartara iritsi, baldin eta edozein efektu bitartegabe ezagutuko ez balitz eta horrela abiagune izateko balioko ez balu. Hori, ordea, animala soinetan efektua duena da. Zentzu horretan subjektuaren objektu bitartegabeak dira: beste objektu guztien begiespena berorren bitartez transmititzen da. Aldaketak, animala soinak esperimendatzen dituenak, bitartegabe ezagutzen dira, h. d. sentitzen dira, eta efektu hori bere kausari lotzen diogun heinean, azken horren begiespena objektu batena bezala sortzen da. Harreman hori ez da ondorio bat kontzeptu abstraktuetan giltza, ez da erreflexioaren bidez gertatzen, ez hautaz, baizik bitartegabe, derrigor eta ziur. Adimen hutsaren ezagutzeko era da, zeina gabe ez bailitzateke inoiz begiespenera iritsiko; baizik objektu bitartegabeen aldaketen kontzientzia lauso, landareen gisakotan bakarrik geldituko litzateke, inolako esangurarik gabe bata besteari jarraituko litzaizkiokeenak, baldin eta bat izango ez balute min edo atsegin bezala nahimenarentzat esangura. Baina eguzkia agertzearekin batera mundu ikuskorra existitzen den bezala, horrela adimenak kolpe batez, bere

funtzio bakar, sinpleaz sentipen lauso, ezer adierazten ez duena, begiespen eraldatzen du. Begiak, belarriak, eskuak sentitzen duena, ez da begiespena: datu soilak dira. Adimena efektutik kausara pasatzen denean bakarrik agertzen da mundua, espazioan hedaturiko begiespen bezala, taxuaren erara aldatuz, materiaren arabera denbora guztian zehar iraunez: zeren espazioa eta denbora bateratzen baititu materia errepresentazioan, h. d. eraginkortasunean. Mundu hori errepresentazio gisa dago hor, adimenaren bitartezko gisa soilik, baita adimenarentzat bakarrik ere. nire tratatuaren lehen kapituluari jadanik sentsuek hornitzen dituzten datuetatik adimenak begiespena nola sortzen duen azaldu dut, inpresioen erkaketaren bitartez, zeinak sentsu desberdinen bitartez objektuetatik jasotzen baitira, haurrak begiespena nola ikasten duen, nola horrek bakarrik hainbeste sentsuzkotasun-fenomeno askotarako gakoa ematen duen, bi begirekin ikuste sinplerako, estrabikoengan ikuste bikoitzeko edo distantzia desberdinetara bata bestearen atzean dauden objektuetarako, zeinak aldi berean begian atzematen baitira, eta lilura guztietarako, zeinak sentsu-lanabesetan bat-bateko aldaketaren bitartez sortzen baitira. Askozaz xeheago eta sakonago ari izan naiz oraindik gai garrantzitsu horri buruz § 21 tratatuaren bigarren edizioan. Hor esandako guztiak hemen luke bere leku beharrezkoa eta hemen ere berriz esan beharko litzateke: baina nola neure burua kopiaitzeko besteak kopiaitzeko adinako kontrakarra dudana, eta nola ez naizen gai orduan egin nuena baino hori hobeki aurkezteko, hara bidaltzen dut, hemen errepikatzen ibili beharrean, zeren hemen hura suposatutzat ematen baita.

Haurrengan eta ebakuntza egin zaien jaiotzatiko itsuengan ikusten ikastea, bi begiekin bikoitz sentituaren ikuste sinplea, ikuste bikoitza eta ukitze bikoitza, sentsu-lanabesa beren ohiko posizioetatik deslektutzean, objektuen agerpen zuzena, horien imajina begian alderantzizaturik dagoela, koloreen transposizioa, zeina begiaren ekintzaren barne-funtzio bat baita, banaketa polar bat, kanpoko objektuen gain eta, azkenik, estereoskopioa, - horiek guztiak frogatzen finko eta ezeztatzinak dira, begiespen oro ez soilik sentsual, baizik eta intelektual delakoarena, h. d. efektutik kausaren adimen-ezagutza hutsarena, ondorioz kausalitatearen legea suposatzen duena, zeinaren ezagutzaren mendean baitago begiespen oro, eta horrekin bere ahalatasun lehen eta osoaren esperientzia oro, ez alderantziz kausalitatearen legearen ezagutza esperientziatik, hori Humeren eszeptizismoa litzateke, zeina honela bakarrik ezeztatzen baita. Zeren kausalitatearen ezagutzak esperientziarekiko duen independentzia, h. d. bere aprioritatea, esperientzia orok berarekiko duen independentziatik soilik frogatzen daiteke: eta hori, hemen emandakoaren gainean eta aipaturiko pasarteetan era xehean erakusten denez bakarrik gerta daiteke, kausalitatearen ezagutza begiespenean, oro har, zeinaren eremuan baitago esperientzia oro, jadanik badagoela, eta erabat a priori dela esperientziari dagokionez, eta berak baldintzatzen aurre-suposatzen duela, eta ez alderantziz: baina hori ez dago frogatzerik Kantek egin duen eta nik § 23 tratatuan kritikaturiko eran.

§ 5

Baina geure burua babestu beharra daukagu gaizki-ulertze handi batetik, eta da, begiespena kausalitatearen ezagutzaren bitartez transmititzen, objektua eta subjektuaren artean kausa eta efektu harremana dagoela, zeren aitzitik hori beti objektu bitartegabearen eta bitartedunaren artean bakarrik, horrela objektuen artean

bakarrik gertatzen baita beti. Supostu faltsu horretan oinarritzen da kanpo-munduaren errealtateari buruzko polemika zentzugabea ere, zeinean dogmatismoa eta eszeptizismoa elkarri kontrajartzen baitzaizkio eta hura bai errealismo gisa, bai idealismo gisa agertzen baita. Errealismoak objektua ezartzen du kausatzat eta horren efektua subjektuan. Fichteren idealismoak objektua subjektuaren efektu bihurtzen du. Baina, nola, ordea, -eta hori ez dago inoiz behar adina buruan sartzerik- subjektua eta objektuaren artean ez dagoen harremanik arrazoiaren printzipioaren arabera; horrela ezin zen ere bi baieztapenetako ez bata eta ez bestea frogatu, eta eszeptizismoak garaipenezko erasoak egiten zituen bien aurka. - Nola kausalitatearen legea jadanik begiespenaren eta esperientziaren baldintza gisa, horien aurretik doan, horregatik ezin daiteke (Humek uste zuenez) horietatik ikas; horrela objektua eta subjektua ezagutza ororen lehen baldintzatzat aurretik doaz, beraz baita arrazoiaren printzipioaren aurretik ere oro har, zeren hori objektu ororen forma, bere agerpenaren era eta modu orokorra bakarrik baita; objektuak beti subjektua suposatzen du: bien artean, ordea, ezin liteke kausa eta efektuzko inolako harremanik izan. nire tratatuak hori lortu nahi du, printzipio horren edukia objektu ororen forma esentzialtzat, h. d. objektu izate ororen era eta modu orokortzat aurkeztzen duela, objektuari halako den heinean dagokion zerbait bezala: baina horrelako den heinean objektuak beti subjektua suposatzen du bere korrelatu beharrezko gisa; hori ere beti arrazoiaren printzipioaren baliozkotasun-eremutik kanpora gelditzen da. Kanpo-munduaren errealtateari buruzko polemika, halaber, arrazoiaren printzipioaren baliozkotasuna subjektura ere hedatze faltsuaren gainean dago, eta gaizki-ulertze horietatik abiaturik, ezin zuen inoiz bere burua ulertu. Alde batetik, dogmatismo errealistak, errepresentazioa objektuaren efektutzat kontsideratuz, horiek biak, errepresentazioa eta objektua, bat direnak, bereizi egiten ditu eta errepresentaziotik zeharo bestelako kausa bat onartu, berbaitango objektu bat, subjektutik independente dena: erabat pentsaezina den zerbait: zeren jadanik objektu gisa beti subjektua suposatzen baitu eta horregatik gelditzen da beti horren errepresentaziotzat. Eszeptizis-moak horri kontrajartzen dio, supostu faltsu beren azpian, errepresentazioan efektua bakarrik daukagula, inoiz ez kausa, beraz ezta izatea ere, objektuen eragitea bakarrik ezagutzen dela; baina baliteke horrek harekin inolako antzekotasunik ez izatea, oro har erabat faltsuki hartua ere izan liteke, zeren kausalitatearen legea lehenik esperientziatik hartua baita eta orain bere errealtateak horretan izan behar baitu oinarria. - Beraz, biei dagokie argipen hau: lehenik, objektua eta errepresentazioa gauza bera direla; gero, objektu begiesgarriaren izatea bere eragitea ere badela, hain zuzen ere horretan datzala gauzaren errealtatea eta objektuaren existentziaren eskakizunak subjektuaren errepresentaziotik kanpo, baita gauza erreala izate batenak ere, bere eragiteaz bestelakoa denak, ez duela zentzurik eta kontraesan bat dela; horregatik objektu begietsi baten eragite-moduaren ezagutzak harena agortu egiten duela, objektu den heinean, h. d. errepresentazio, zeren hartaz kanpo ez baita ezagutzarako ezer gelditzen. Mundu begietsia ere, zein kausalitate huts gisa agertzen baita, espazioan eta denboran dagoen heinean, erabat erreala da eta hain zuzen ere da huraxe, zertzat ematen baitu bere burua, eta errepresentazio gisa ematen du bere burua erabat eta inolako erreserbarik gabe, kausalitatearen legearen arabera kohesionaturik. Horixe da bere errealtate enpirikoa. Bestalde, kausalitate oro adimenean bakarrik dago eta adimenarentzat da; mundu erreal, h. d. eragile oso hura, horrelakoa den heinean adimenaren bitartez baldintzatua da eta hura gabe ezer ez da. Baina ez horregatik bakarrik, baizik eta oro har ez dagoelako objektua subjektu gabe, kontraesanik gabe pentsatzerik, ukatu behar diogu besterik gabe dogmatikoari, zeinak kanpo-munduaren

errealitatea subjektuarekiko bere independentzia gisa azaltzen baitu, haren horrelako errealitate bat. Objektuen mundu osoa errepresentazio da, eta horregatik hain zuzen, erabat eta betiera guztian subjektuaren bitartez baldintzaturik gelditzen da: h. d. idealitate transzendentala dauka. Baina horregatik hain zuzen ere ez da lilura ez itxura: den bezala ematen da, errepresentazio gisa, eta errepresentazio-sail bat bezala, zeinaren lokarri komuna arrazoiaren printzipioa baita. Horrelakoa den heinean adimen osasuntsuarentzat, bere esanahi barnekoenaren arabera ere, ulergarri da eta erabat hizkuntza ulergarrian hitz egiten dio. Sofismek errebelarazitako espirituei bakarrik otu lekieke horren errealitateaz polemikan aritzea, zeina beti arrazoiaren printzipioa desegoki erabili izanagatik gertatzen baita, zeinak errepresentazio guztiak, zeinahi modutakoak direla ere, bata bestearekin lotzen baititu zinez, inola ere ez ordea subjektuarekin edo subjektua edo objektua ez den zerbaitekin, baizik objektuaren arrazoiarekin bakarrik; kontzeptu zentzugabea, zeren objektuak bakarrik izan baitaitezke arrazoi, eta gainera beste objektu batzuen. – Baldin eta oraindik zehatzago ikertzen bada kanpo-munduaren errealitateari buruzko galdera horren jatorria, orduan aurkitzen da, bere eremuaz kanpo arrazoiaren printzipioaren erabilera faltsu hartaz aparte, bere taxuen nahaste berezi bat ere badagokiola, hain zuzen ere kontzeptuei edo errepresentazio abstraktuei buruz soilik daukan taxua, errepresentazio begiesgarriei, objektu errealei ezartzen baitzaie eta objektuei eskatzen zaie ezagutze-arrazoi bat, bilakatze-arrazoi bat bakarrik izan dezaketenean. Errepresentazio abstraktuetan, judizioetan loturiko kontzeptuetan, arrazoiaren printzipioa halako moduan da nagusi, non bakoitzak bere balorea, bere baliozkotasuna, bere existentzia osoa, hemen egia deritzona, soilik eta bakarrik judizioak bere baitatik kanpoko beste zerbaitekin, bere ezagutza-arrazoiarekin duen harremanaren bitartez baitu, zeinetara beti itzuli behar baita. Objektu errealean, errepresentazio begiesgarrien gainetik, berriz, arrazoiaren printzipioa, ez ezagutzearen, baizik bilakatzearen arrazoiaren printzipio gisa da nagusi, kausalitatearen lege gisa: horietako bakoitzak horren bitartez, bilakatu izatearen bitartez, h. d. efektu gisa kausa batetik sortua izatez, bere zorra ordaindu dio: ezagutza-arrazoi baten eskakizunak hemen ere ez du inolako baliozkotasunik eta inolako zentzurik; baizik eta objektuen zeharo bestelako klase batekoa da. Horregatik mundu begiesgarriak, haren baitan dirauen bitartean, ez du behatzailearengan ez eskrupulurik ez zalantzarik sortzen: hemen ez dago ez errorerik ez egiarik; horiek abstraktuaren, erreflexioaren eremura erbesteturik daude. Hemen, ordea, mundua zabalik dago sentsuetara eta adimenera, egia inozoarekin entregatzen du bere baitan den bezala, errepresentazio begiesgarri gisa, zeina erregularki kausalitatearekiko loturan garatzen baita.

Horrela, kanpo-munduaren errealitateari buruzko galdera guk hemen orain arte kontsideratu dugunez, beti irten izan da adimenaren nahaste batetik gaizkiulertzeraino bere buruaren baitatik joan denean, eta zentzu horretan bere edukia argitzearen bitartez erantzuten zitzaion. Arrazoiaren printzipioaren funts osoaren, objektua eta subjektuaren arteko harremanaren eta begiespen sentigarriaren izaera propioaren ikerketaren ondoren gainditurik gelditu behar zuen, aurrerantzean inolako esangurarik gelditzen ez zitzaiolako. Baina galdera horrek badu beste jatorri bat, orain arte emandako espekulatibo hutsaren erabat desberdina, propioki enpirikoa, nahiz eta beti ikuspegi espekulatibotik aurkeztua izan den; eta esangura horretan zentzu askozaz ulergarriagoa du beste lehen hartan baino, h. d. honako honetan: ametsak izaten ditugu; agian bizitza osoa ez ote da ametsa? – edo zehatzago esateko: ba ote dago irizpide ziurrik ametsa eta errealitatearen artean?, fantasmen

eta objektu errealen artean? - Begiespen amestuak errealak baino bizitasun eta argitasun urriagoa izateak ez du inolako arretarik merezi; zeren inork ez baititu biak bata bestearekin erkatzeko elkarren ondoan jarri; baizik eta ametsaren oroitzapena aurrez aurreko errealtatearekin bakarrik erka daiteke. - Kantek honela ebazten du auzia: - Baina ametsean bertan ere partikular orok badu lotura arrazoiaren printzipioaren arabera bere taxu guztietan, eta lotura hori bizitza eta ametsaren artean soilik hausten da. Eta amets bakoitzaren artean. Kanten erantzuna, beraz, honelako zerbait baizik ez zitekeen izan: amets luzeak (bizitza) bere baitan lotura orokorra dauka arrazoiaren printzipioaren arabera, ez ordea amets laburrekin; nahiz eta horietako bakoitzak lotura bera duen bere baitan: honen eta haren artean zubi hura hautsita dago, eta horretan bereizten dira biak. - Hala ere, ikerketa bat, zerbait amestua hala gertatua izan den, irizpide horren arabera finkatzea oso zaila izango litzateke eta sarritan ezinezkoa; zeren inola ere ez baikara gai, jazoera bizipendu bakoitzaren eta presenteko aldiunearen arteko lotura kausala atalez atal jarraitzeko, hala eta guztiz ere, ez ditugu amestutzat azaltzen. Horregatik, bizitza errealean ez gara baliatzen eskuarki horrelako ikerketa-mota batez ametsa eta errealtatea bereizteko. Egitatez, ametsa eta errealtatea bereizteko irizpide ziur bakarra itzartzearen erabat enpirikoa besterik ez da, zeinaren bitartez jazoera amestuen eta bizitza itzartukoaren arteko lotura kausala espreski eta sentitzeko eran hausten baita. Honen adibide bikain bat Hobbesek, 2. kapituluan egiten duen oharra ematen du: ametsak erraz hartzen ditugula ondoren errealtatetzat, konturatu gabe, jantzita lokartu garenean, eta errazago oraindik, egiteko edo negozioren batek gure pentsamendu guztiak biltzen dituenean eta ametsetan bezala itzarrik ere lanpetzen gaituenean: kasu horietan itzarrik egotea eta lokarturik egotea ia ez dira bereizten, ametsa errealtatearekin bat egiten eta harekin nahasten da. Orduan Kanten irizpidea erabili ahal izatea beti gelditzen da: baldin eta ondoren, sarritan gertatu ohi denez, presentearekiko lotura kausalaren edo horren absentsiaren berri ematerik ez badago, betiko erabaki gabe geratu beharko du jazoera bat amestua edo gertatua izan den. - Izan ere, hemen bizitza eta ametsaren arteko ahaidetasun hurbila gugandik oso gertu agertzen da: eta ez dugu lotsatu ere egin nahi, hori aitortzean, zeren hainbeste espiritu handik aitortu eta adierazi baitute. Vedek eta Puranek ez dakite mundu erreala ezagutza osorako, zeinek Maiaren ehundura deitzen baitute, konparazio hoberik eta ez dute besterik sarriago erabiltzen ametsarena baino. Platonek maiz esaten du gizakiak ametsetan soilik bizi direla, filosofoa bakarrik ahalegintzen dela itzartzen. Pindarok dio ('Pythia» 8, 135) (GRIEGO) (umbrae somnium homo); eta Sofoklese:

(GRIEGO)

(Nos enim, quicumque vivimus, nihil aliud esse comperio quam simulacra et levem umbram.) 125

[Ikusten dut, bizi garenok, simulakro eta itzal arin besterik ez garel.]

Eta horren alboan Shakespeare duintasun handienarekin ageri da:

We are such stuff

As dreams are made of, and our little life

Is rounded with a sleep...- Act 4., Scene 112

Azkenik, Calderón hain zegoen sakon ideia horrek atzema, non halako drama metafisiko batean aditzera ematen saiatu baitzen.

Poeta-pasarte ugari horien ondoren zilegi bekit niri ere konparazio baten bitartez aditzera ematea. Bizitza eta ametsak liburu bakar beraren orriak dira. Loturan irakurtzeari bizitza erreala deitzen zaio. Baina ohiko irakurketa-ordua bukatu denean (eguna) eta atsedeneakoak iritsi direnean, orduan sarritan nagitasunez orriak iraultzen aritzen gara, ordena eta loturarik gabe han-hemenka orri bati begiratzuz: askotan jadanik irakurritakoa izaten da, askotan ezezaguna, baina beti liburu berekoa. Horrela banaka irakurritako orria irakurketa kontsekuentearekiko loturaz kanpo gelditzen da: baina ez da hala ere hain atzera gelditzen horrekiko, irakurketa kontsekuentearen osotasuna era berean inprobisazioz hasi eta amaitzen dela kontuan hartzen bada, eta beraz, orri bakar handitzat jo daitekeela.

Nahiz eta amets bakoitza horrela bizitza errealetik bereizirik egon, horiek esperientziaren loturan, zeina horren berorren bitartez beti gertatzen baita, horrekin bat ez datozelako eta itzartzeak desberdintasun hori agerian jartzen duelako; hala ere, esperientziaren lotura hori bizitza errealarari dagokio bere forma gisa, eta ametsak ere badu lotura bat bere baitan horren aurrean erakusteko. Baldin eta epaiketarako ikuspuntua bietaz kanpo hartzen badugu, ez dugu horien esentzian desberdintasun determinaturik aurkitzen, eta beharturik egongo gara bizitza amets luze bat dela poetei onartzera.

Baldin eta orain kanpo-munduaren errealtateari buruzko erabat aparteko auziaren jatorri enpiriko honetatik espekulatibora itzultzen bagara, jadanik aurkitu dugu hori arrazoiaren printzipioaren erabilera faltsuan dagoela lehenik, hots, subjektuaren eta objektuaren artean ere, eta gero bere taxuen nahasketan, ezagutzaren arrazoiaren printzipioa bilakatzearen arrazoiaren printzipioa baliozkoa den eremura lekuz aldatzen den heinean: baina auzi horrek nekez lanpetu ahal izango zituzkeen filosofoak hain luzaro, baldin eta inolako egiazko edukirik gabea balitz eta bere barrenean ideia zuzenen bat eta zentzurik ez balu, bere jatorri propioena bezala legokeena, zeinatik gero horren arabera onartu beharko bailitzateke, ezer baino lehenago, erreflexioan sartu eta bere adierazpidea bilatu duelarik, forma eta auzi alderantzikatu eta bere burua ulertzen ez dutenetan sartu dela. Horrelaxe da, nire aburuz, noski; auziaren zentzurik barnekoenaren adierazpen garbia, haiek aurkitzen jakin ez zutena, nik neuk honako honetan ezartzen dut: zer da mundu begiesgarri hau nire errepresentazio izateaz gainera? Agian mundu hori, zeinaz ni errepresentazio gisa kontziente bainaiz, neure soin propioaz bezala, zeinaz ni bi aldiz kontziente bainaiz, alde batetik errepresentazioa, bestaldetik nahimena al da? - Galdera horren azalpen argiagoak eta baieztapenak bigarren

liburuaren edukia eratuko du, eta horretatik korolarioek idatzi honen gainerako atala beteko dute.

§ 6

Bitartean oraingoz lehen liburu honetan dena errepresentazio gisa, subjektuarentzako objektu gisa bakarrik kontsideratzen dugu: eta beste objektu erreal guztiak bezala ikusten dugu geure soin propioa ere, zeinatik munduaren begiespena abiatzen baita bakoitzarengan, ezagugarritasunaren aldetik soilik: eta horregatik errepresentazio besterik ez da guretzat. Egia da bakoitzaren kontzientziak kontra egiten diola, gainerako objektuak errepresentazio soil direlako azalpenari, are gehiago, norbere soina errepresentazio soil delakoari; eta hori dator bakoitzari berbaitango gauza, bere gorputz propio bezala bitartegabe agertzetik, eta aldiz begiespenaren beste objektuetan (Gegenständen) objektibaturik, bitartez soilik ezagutzetik. Gure azterketaren joairak bakarrik bihurtzen du beharrezko abstrakzio hori, kontsideratzeko modu alderdibakar hori, esentzian elkarrekin-egote horren bortxazko bereiztea: horregatik, kontrakar hori zanpaturik eta lasaiturik eduki behar da, ondorengo kontsiderazioek presentekoan alderdibakartasuna osatuko dutela igurikatuz, munduaren funtsa erabat ezagutu arte.

Soina hemen objektu bitartegabea da, h. d. subjektuaren ezagutzaren abiagunea eratzen duen errepresentazio hura, eta bere aldaketa bitartegabe ezagutuekin kausalitate legearen erabileraren aurretik doana eta horri lehen datuak ematen dizkiona. Materiaren funts guztia, erakutsi denez, bere eragitean datza. Efektua eta kausa adimenarentzat bakarrik existitzen dira, hau ez baita haren korrelatu subjektiboa besterik. Baina adimenak ez luke erabilerarik izango, baldin eta beste zerbait existituko ez balitz, hartatik bera abiatzeko. Horixe da hain zuzen sentsuzkotasunezko pertzepzio soil, soinaren aldaketaren kontzientzia bitartegabea, zeinaren indarrez hori objektu bitartegabe baita. Mundu begiesgarriaren ezagugarritasunaren ahalbidetasuna, beraz, bi baldintzatan aurkitzen dugu: lehena, baldin eta objektiboki adierazten badugu, gorputzek, bata bestean eragiteko, bata bestean aldaketak sortzeko duten gaitasuna da, gorputz guztien propietate orokor hau gabe, animalia gorputzen sentikortasunaren bitartez ere, ezinezkoa litzateke ezein begiespen: lehen baldintza hau subjektiboki adierazi nahi badugu, orduan esaten dugu: ezer baino lehen begiespena adimenak ahalbidetzen du; zeren horretatik bakarrik sortzen baita eta horrentzat bakarrik balio baitu kausalitatearen legeak, kausa eta efektuaren ahalgarritasunak, eta horregatik berarentzat eta beraren bitartez bakarrik existitzen da mundu begiesgarria. Bigarren baldintza, ordea, animalia gorputzen sentikortasuna da edo gorputz jakin batzuen gaitasuna, subjektuaren objektu bitartegabe izateko. Aldaketa soilak, zeinak sentsu-organoek beraiei espezifikoki dagokien inpresioen bitartez kanpotik jasaten baitituzte, errepresentazio deitzen dira, inpresio horiek ez oinazetik eta ez atseginik kitzikatzen ez duten heinean, h. d. nahimenarentzat esangura bitartegaberik ez duten eta hala ere hautemanak diren heinean, horrela ezagutzarentzat bakarrik existitzen dira: eta zentzu horretan diot soina bitartegabe ezagutzen dela, objektu bitartegabea dela; hala ere, objektu kontzeptua hemen ez da zentzurik propioenean hartu behar: zeren soinaren ezagutza bitartegabe horren bidez, zeina adimenaren erabileratik sortzen baita eta sentsuzkotasun-pertzepzio soil baita, soina bera ez da propioki objektu gisa existitzen, baizik eta haren baitan eragiten duten gorputzak gisa soilik; zeren benetako objektu baten ezagutza oro, h. d. espazioko errepresentazio begiesgarri

baten, adimenaren bitartez eta adimenarentzat bakarrik existitzen da, beraz ez aurretik, baizik bere erabileraren ondoren. Horregatik, soina benetako objektu gisa, h. d. espazioko errepresentazio begiesgarri gisa, beste objektu guztiak bezala, bitartedunki bihurtzen da ataletako batzuek besteetan duten eraginari kausalitatearen legearen aplikazioaren bitartez ezagutua denean, horrela begiak gorputza ikusten duenean eskuak hura haztatzen duenean. Ondorioz geure soin propioaren taxua ez zaigu sentipen komun hutsaren bitartez ezaguna; baizik ezagutzaren bitartez soilik, errepresentazioan bakarrik, h. d. garunean bakarrik aurkezten zaigu geure soin propioa lehenik zerbait hedatu, artikulatu, organiko gisa: jaiotzatikoitsuak errepresentazio hori datuen bitartez pixkanaka lortzen du, zeinak haztatzeak ematen baitizkio; eskurik gabekoitsuak ez luke bere taxua ezagutuko edo, gehienera ere, beste gorputz batzuek hartan duten inpresiotik pixkanaka ondorioztatu eta eraiki egingo luke. Murrizpen honekin ulertu behar da guk soinari objektu bitartegabe deitzea.

Gainerakoan, esandakoaren arabera, animali gorputz guztiak objektu bitartegabeak dira, h. d. munduaren begiespenaren abiagune, dena ezagutzen duen eta hain zuzen horregatik inoiz ezaguna ez den subjektuarentzat. Ezagutzea, berak baldintzaturiko motiboengatik higitzearekin, da horregatik animalitasunaren karakter propioa, kitzikapenengatik higidura landareen karakterra den bezala: baina inorganikoak ez dauka beste higidurarik kausa propioek eragindakoa izan ezik, zentzurik hertsienean ulertuta; hori guztia xehekiago azaldu dut, 2. edizioa, § 20, tratatuan, , lehen tratatuan, 3 eta § 1; eta horietara igortzen dut. Esandakotik animalia guztiek adimena dutela ateratzen da, baita imperfektuenek ere: zeren horiek guztiek ezagutzen baitituzte objektuak, eta ezagutza horrek motibo gisa determinatzen baititu beren higidurak. - Adimena animalia guztiengan eta gizaki guztiengan bera da, eta nonahi forma sinple bera du: kausalitatearen ezagutza, efektutik kausara eta kausatik efekturako igarobidea da, eta besterik ez. Baina bere zorrotasunaren gradua eta bere ezagutza-esferaren hedadura oso desberdinak dira, askotarikoak, eta anizki mailakatuak: gradurik apalenetik, zeinek objektu bitartegabearen eta bitartedunaren artean ezagutzen baitu kausalitate-harremana, eta iritsi ere, soinak jasaten duen inpresiotiko igarobidearen bitartez horren kausara iristen da hori espazioko objektu gisa begiestera, objektu bitartedun soilen beren arteko lotura kausalaren ezagutzaren gradurik garaienetaraino, zeina naturako kausa eta efektuen kateakuntza elkarrosatuenaren ulerkuntzaraino baitoa. Zeren azken hori ere adimenari baitagokio, ez arrazoimenari, zeinaren kontzeptu abstraktuek bakarrik balio baitute, bitartegabe ulerturiko hura onartu, finkatu eta korapilatzeke, inoiz ez ulertzea bera sortarazteko. Natur indar oro eta natur lege [oro], horiek agertzen dituen kasu oro, lehenik adimenak bitartegabe ezagutu behar du, begiespenez atzeman behar du, in abstracto arrazoimenarentzat kontzientzia erreflexionatuan sartu baino lehen. Adimenaren bitartezko kontzepzio begiesgarri, bitartegabea izan zen Robert Hookek egindako grabitazio-legearen aurkikuntza eta hainbeste agerpen handi lege horretara murriztea, gero Newtonen kalkuluek bermatu zuten; gauza bera izan zen Lavoisierren oxigenoaren aurkikuntza eta horrek naturan duen eginkizun garrantzitsuarena; baita kolore fisikoak sortzeko eraren Goetheren aurkikuntza ere. Aurkikuntza horiek guztiak efektutik kausara itzultze zuzen, bitartegabeak baizik ez dira, zeinari mota bereko kausa guztietan kanporatzen den natur indarraren identitatearen ezagutzari berehalakoan jarraitzen baitzaio: eta ideia orokor hau adimenaren funtzio bera eta bakarraren graduaren arabera adierazpen desberdin soila da, zeinaren arabera animaliak berak ere bere gorputzean eragiten duen kausa espazioko objektu bezala begiesten baitu. Horregatik dira aurkikuntza handi horiek

guztiak, baita begiespena eta adimen-kanporatze bakoitza ere, ulerpen bitartegabe bat, eta horrelakoa den heinean aldiunearen obra, aperçu bat, ustekabe bat, ez arrazoiketa-katea luze baten emaitza in abstracto; azken honek, aitzitik, balio du adimen-ezagutza bitartegabea bere kontzeptu abstraktueta ezarritik arrazoimenarentzat finkatzeko, h. d. argi uzteko, h. d. beste batzuei adierazi, aditzera emateko egoeran ezartzeko. - Bitartedunki ezaguturiko objektuen erlazio kausala atzemateko adimenak duen zorrozatasun horrek ez du natur zientzietan bakarrik bere erabilera aurkitzen (horren aurkikuntza guztiak berari zor zaizkio), baita bizitza praktikoa ere, non zuhurtzia deitzen baitzaio; aitzitik, lehen erabileran hobeki deitzen zaio zorrozatasuna, sarmena eta sagazitatea: zehatz harturik nahimenaren zerbitzuan eskusiboki dagoen adimenari deitzen zaio zuhurtzia. Hala ere, kontzeptu horien mugak ez dira inoiz zehatz ezartzekoak, zeren beti adimen aktiboaren funtzio bat eta bera baita animalia oroengan diharduena espazioko objektuaren begiespenean, zeinak bere zorrozatasun handienean, batzuetan, naturako agerpenetan, emandako efektutik kausa ezezaguna zuzen ikertzen baitu eta horrela arrazoimenari gaia ematen baitio arau orokorrak natur lege gisa pentsatzeko; beste batzuetan, kausa ezagunak erabiliz alde aurretik xedaturiko efektuetarako makina ingeniotsu eta konplikatuak asmatzen ditu; beste batzuetan, motibazioari ezarrita, intriga sotil eta amarrukeriak barrendu eta hutsaltzen ditu edota motibo eta gizakiak, horietako edozeinetarako harkorrak baitira, behar bezala ezartzen ditu eta makinak bezala, palanka eta gorpilak bitartez, higidura gogara ezarri eta bere xedeetara gidatzen ditu. - Adimen-gabeziari, zentzu propioan, ergeltasun deitzen zaio eta kausalitatearen legearen erabilerarekiko kamustasuna da, kausa eta efektuen, motiboa eta ekintzaren kateakuntza bitartegabe kontzebitzeko gaitasunik eza. Ergelak ez du natur agerpenen lotura ikusten, ez berez sortzen diren tokian, eta ez berariaz gidatuak diren tokian ere, h. d. makinetan baliagarri bihurtu direnean: horregatik atsegin zaio sorginkeria eta mirarietan sinestea. Ergela ez da ohartzen pertsona desberdinek, itxuraz elkarrekiko independenteek, izatez hitzarturiko loturan dihardutela: horregatik aise lortzen da hura engainatu eta intrigatzea: ez ditu ohartzen emandako aholkuen, adierazitako judizioen eta abarren motibo ezkutatuak. Baina gauza bera falta izaten zaio beti: zorrozatasuna, bizkortasuna, kausalitatearen legea erraz erabiltzea, h. d. adimen-indarra. - Ergeltasun-adibide handiena eta kontsideratzen ari garen zentzuan sekula ezagutu dudan etekintsuena, mutiko zeharo inozo bat zen hamaika bat urtekoa, eroetxe batean zegoena, zeinak arrazoimena baitzuen, hitz egin eta hautematen zuenez gero, baina adimenari zegokionez zenbait animalien atzetik zegoen: zeren etortzen nintzen bakoitzean lepoan nerabilen betaurreko-beira bati begira egoten baitzen, zeinean ispiladuraz gelako leihoak eta haien atzeko zuhaitz-adaburuak agertzen baitziren: hori zela eta, izugarritzko miresmena eta poza izaten zituen eta ez zen hura txundimenez begiztatzeaz nekatzen; zeren ispiladuraren kausalitate erabat bitartegabe hori ez baitzuen ulertzen.

Gizakiengan adimenaren zorrozatasun-graduak oso desberdinak diren bezala, horrela animalia espezie desberdinen artean oraindik desberdinagoak dira. Guztiengan, baita landareetatik hurbilen daudenengan ere, bada aski adimen objektu bitartegabearen efektutik kausa bitartedunera bezala iragateko, eta objektu baten begiespena, hori atzematera ere iristen da: zeren horrek bihurtzen baititu animalia, higidura baterako ahalatasuna ematen dien heinean motiboen arabera eta horren bitartez, eta janaria bilatzeko, edo gutxienez, atzemateko; aldiz, landareek kitzikapenez bakarrik dute higidura, zeinaren inpresio bitartegabea itxaron egin behar baitute edo iraungi, eta haien atzetik joan edo haiek atzeman ezin dutelarik. Animalia

perfektuenengan horien sagazitate handia miresten dugu: horrela, txakur, elefante, tximinoengan, azeriarengan, zeinen zuhurtzia Buffonek hain maisukiro deskribatu baitu. Animalia guztiz zuhur horiengan aski zehazki neur dezakegu adimenak zenbateraino dezakeen arrazoimenaren laguntzarik gabe, h. d. kontzeptuen bidezko ezagutza abstrakturik gabe: geure baitan ezin dugu hori horrela ezagutu, zeren adimenak eta arrazoimenak beti bata bestea sustengatzen baitute. Horregatik batzuetan animalien adimen-kanporatzeak gure igurikapenaren gainetik eta beste batzuetan azpitik aurkitzen ditugu. Alde batetik, txunditu egiten gaitu elefante haren sagazitateak, zeina European barren bidaia egin ondoren jadanik zubi askoren gainetik iragana baitzen, behin, ordea, uko egin zion hura zapaltzeari, nahiz eta bestalde gizakien eta zaldien multzoa iragaten ikusten zuen, izan ere hari bere pisurako arinegi eraikia baitzeritzon; bestalde, berriz, harritu egiten gaitu orangutan zuhurrek alde aurretik aurkituriko su berotzaileari abarrak botaz nola ez dioten iraunarazten ikusteak: horrek jadanik gogoeta bat eskatzen duelakoaren froga bat da hori, kontzeptu abstrakturik gabe ezinezkoa dena. Kausa eta efektuen ezagutza adimen-forma orokor gisa a priori animalien badagoela, aski ziur gelditzen da jadanik haien ere guretzat bezala kanpo-munduaren ezagutza begiesgarri ororen aurretiazko baldintza izatetik: horren adibide berezi bat gehiago nahi izanez gero, kontsidera bedi adibidez, bakarrik, nola txakur oso gazte bat ez den ausartzen mahaitik salto egitera, berak nahi izanarren ere, bere soinaren pisutasunaren efektua aurreikusten duelako, kasu berezi hori esperientziatik jadanik ezagutu gabe. Hala ere, animalien adimena epaitzean, gorde egin behar ditugu geure buruak instintuaren kanporatzea dena haiei egoztetik, horretaz eta arrazoimenaz zeharo bestelako gaitasuna den hori, zeinak sarritan, ordea, horien bien ekintza bateratuaren oso era analogoan eragiten baitu. Horren azterketa ez da hemen egitekoa, baizik eta harmoniaren edo naturako teleologia deritzonaren kontsiderazioarekin bigarren liburuan izango du bere tokia: eta osagarrien 27. kapitulua [2. liburukia] horri propioki eskainia dago.

Adimen-gabeziari ergeltasuna deitzen zaio; gauza praktikoetan arrazoimenaren erabilera-gabeziari, tenteltasuna; juzgamenaren gabeziari, sinpletasuna; azkenik, zatika edo osoki oroitzapen-gabeziari, eromena. Hala ere, bakoitzaz dagokion lekuan hitz egingo da. - Arrazoimenaren bitartez zuzen ezagutua egia da, h. d. judizio abstraktu bat behar besteko arrazoiarekin (tratatua, § 29. eta hh.): adimenak zuzen ezagutua errealitatea da, h. d. efektutik objektu bitartegabera bere kausaren bidez zuzen iragatea. Egiaren begiz begi arrazoimenaren engainu bezala errorea dago, eta errealitatearen begiz begi, adimenaren engainu bezala begitazioa. Horien guztien azterketa xeheagoa nire tratatuaren lehen kapituluan irakur daiteke. - Begitazioa efektu bakar bera bi kausa zeharo desberdinen bitartez eragin daitekeenean gertatzen da, zeinetarik batek oso maiz, besteak bakan eragiten baitu: adimenak, zeinak ez baitu daturik hemen zein kausa eragiten ari den bereizteko, zeren efektua erabat bera baita, ohiko kausa aurreuposatzen du beti, eta bere ekintza ez erreflexiboa eta ez espekulatiboa delarik, baizik eta artez eta bitartegabea, horrela, halako kausa faltsua agertzen da objektu begietsi gisa gure aurrean, zeina begitazio faltsua baita. Nola era horretan ikuste bikoitza eta haztatze bikoitza sortzen diren, baldin eta sentsu-lanabesak ohikoa ez den kokaera batera eramaten badira, aipaturiko tokian erakutsi dut eta froga ezeztatzeko bat ere eman dut begiespena adimenaren bitartez eta adimenarentzat bakarrik existitzen delakoaz. Adimenaren horrelako engainuaren edo begitazioaren adibide dira uretan sartutako makila, hautsia dirudiena; ispilu esferikoaren imajinak, zeinak gainalde konbexuan zertxobait atzerago agertzen baitira, konkaboan askoz aurrerago: hemen

aipatzekoa da ilargiak horizontean zenitean baino duen itxuraz hedadura handiagoa ere, zeina optikoa ez baita; zeren mikrometroak erakusten duenez, begiak ilargia zenitean ikuste-angelu zerbait handiagoan atzematen baitu horizontean baino; aitzitik, adimena da, ilargiak eta izar guztiek horizontean duten distira ahulagoaren kausa gisa horien distantzia handiagoa suposatzen duena, objektu lurtar gisara aire-perspektibaren arabera balioetsiz, eta horregatik horizonteko ilargia zenitekoa baino askozaz handiagotzat, baita aldi berean zeru-ganga horizontean hedatuagotzat, baita lautuagotzat edukiz ere. Faltsuki erabilitako balioespen honek aire-perspektibaren arabera mendi oso garaiak, zeinen guretzat bakarrik ikuskorra den gailurra aire garbi eta gardenean baitago, hurbilago edukiarazten dizkigu, beren garaieraren kaltetan, adibidez, Montblanc Salenchetik ikusita. - Eta horrelako begitazio liluratzaileak begiespen bitartegabea daude gure aurrean eta ez dago arrazoimenaren arrazoinamendurik baztertuko dituenik: horrelako batek errorea, h. d. beharbesteko arrazoirik gabeko judizioa, kontrajarritako egiazko batez bakarrik babes dezake, adibidez, in abstracto ezagut dezakegu ez dela distantzia handiagoa, baizik horizonteko lurrin arreagoa ilargia eta izarren distira ahulagoaren kausa: baina begitazioak, aipaturiko kasu guztietan, ezagutza abstraktu oro gora-behera, lekuz aldaezin jarraitzen du: zeren adimena arrazoimenetik erabat eta zorrotz bereizirik baitago gizakiari bakarrik gehituriko ezagutze-ahalmen gisa, eta bere baitan gizakiarengan ere irrazionala da noski. Arrazoimenak jakin bakarrik egin dezake beti: adimenari eta horren eraginetik aske begiespena bakarrik gelditzen zaio.

§ 7

Orain arteko gure kontsiderazio guztiari dagokionez ondorengo hau ere oso kontuan hartzekoa da. Horretan ez gara ez objektutik ez subjektutik abiatu, errepresentaziotik baizik, zeinek bi horiek bere baitan baitauzka eta suposatzen baititu, ezen objektu eta subjektu gisa banatzea bere forma lehen, orokorren eta esentzialena baitu. Forma hori horrelakoa den heinean, beraz, aurrena kontsideratu dugu, gero (gai nagusiari dagokionez sarrerako tratatura igorritz) horien mendeko beste formak aztertuko ditugu, denbora, espazioa eta kausalitatea, zeinak objektuari bakarrik baitagozkio; baina horiek objektuari horrelako den heinean esentzial baitzaizkio, aldiz, subjektuari horrelako den heinean objektua esentzial baitzaio, subjektutik abiatuz aurki litezke haiek, h. d. a priori ezagut daitezke, eta horri dagokionez bien muga komunak begizta daitezke. Hala ere, horiek guztiak esamolde komun batera, arrazoiaren printzipiora murriz daitezke, sarrerako tratatuan xeheki erakutsi denez.

Metodo honek bereizten du, alabaina, gure kontsiderazio-mota hau erabat orain arte sekula bilaturiko filosofietatik, zeinak objektutik edo subjektutik abiatzen baitziren eta ondoren bata bestetik azaltzen saiatzen baitziren, eta arrazoiaren printzipioaren arabera noski, zeinaren nagusitasunetik, aitzitik, guk objektua hari eta subjektuaren arteko harremana jaregiten baitugu, objektua bakarrik utzirik. - Baliteke emandako oposizio horretan ez ulertua izatea gure egunotan sortu den eta orokorrean ezaguna bihurtu den identitate-filosofia, ez objektua eta ez subjektua propioki bere lehen abiagune bihurtzen ez dituen, baizik hirugarren bat, arrazoimen-begiespenaren bitartez ezagugarria den absolutua, zeina ez baita ez objektu eta ez subjektu, baizik eta bien identitatea (Einerleiheit) dena. Nahiz eta nik, arrazoimen-begiespen ororen gabezia osoz, aipaturiko batasun ohoretsuaz eta

absolutuaz hitz egitera ez nukeen ausartu behar; hala ere, arrazoimen-begieslearen protokoloetan guztioi, guri profanooi ere zabalik gelditzen zazkigunetan oina ezartzen dudalarik, oharrarazi beharra daukat aipaturiko filosofia ez dagoela goian ezarritako oposizioaren bi akatsetatik salbuesterik: zeren subjektua eta objektuaren identitatea gora-behera, ez pentsatu, baizik intelektualki begietsi edo hartan murgiltze propioz espermentatu ahal omen dena, guztiarekin ere ezin ditu bi akats kontrajarri horiek ekidin; aitzitik, areago, biak bere baitan bateratzen ditu, bere burua bi diziplinatan banatzen duen heinean, hau da: idealismo transzendentala, Fichteren Niaren doktrina eratzen duena eta ondorioz arrazoiaren printzipioaren arabera objektua subjektutik atera edota horretatik bilbarazten duena, eta bigarrenik natur filosofia, zeinak objektutik pixkanaka subjektua bilakarazten baitu, metodo baten erabileraren bitartez, zeinari eraikuntza deitzen baitzaio; horretaz nik oso gutxi ulertzen dut, baina hala ere, oso argi dago arrazoiaren printzipioaren arabera aurreratze bat dela bere taxuetako askotan. Uko egiten diot nik jakituria sakon horri, bere baitan eraikuntza hori daukanari; zeren niri arrazoimen-begiespenak erabat ihes egiten didalarik, bera suposatzen duten aurkezpen horiek guztiek zazpi zigiluko liburu bat izan behar dute; eta halako graduan da kasua, - kontatzeko zerbait bakana - non jakituria sakoneko doktrina horietan niri beti gertatu izan baitzait zerbait lazkarria eta, horrezaz gainera, hitzontzikeria guztiz aspergarria baizik ez entzutea.

Objektutik abiatzen diren sistemek mundu begiesgarri osoa eta bere ordena zeukaten beti problematzat; hala ere, objektua, abiagunetzat hartzen dutena, ez da beti mundu hori edo horren oinarritzko elementua den materia: aitzitik sarrerako tratatuan ezarritako objektu posibleen lau klaseekiko adostasunean, sistema horien sailkapen bat egin dezakegu. Horrela esan daiteke klase horietako lehenetik edo mundu errealetik abiatu direla: Thales eta joniarrak, Demokrito, Epikuro, Giordano Bruno eta materialista frantsesak. Bigarrenetik edo kontzeptu abstraktutik: Spinoza (hau da, definizioan bakarrik existitzen den substantzia kontzeptu guztiz abstraktutik) eta lehenago eleatarrak. Hirugarren klasetik, h. d. denboratik, ondorioz zenbakietatik: pitagorikoak eta [Eraldakuntzen liburu]ko filosofia txinatarra. Azkenik, laugarren klasetik, h. d. ezagutzaren bitartez motibaturiko nahimen-egintzatik: eskolastikoak, zeinek irakasten baitute ezerezetiko sorkuntza bat munduaz kanpoko izaki pertsonal baten nahimen-egintzaren bitartez.

Metodo objektiboa da kontsekuenteena eta urrunen gidatzen duena, baldin eta benetako materialismo gisa aurkezten bada. Horrek materia, eta aldi berean denbora eta espazioa, soilik existentetzat ezartzen ditu eta gainera pasatzen du subjektuarekiko harremana, zeinean hori guztia existitzen baita bakarrik. Gainera kausalitatearen legea hartzen du gidaritzat, zeinean aurrera egin nahi baitu, bere baitan datzan gauzen ordena, veritas aeterna bezala hartuz; ondorioz adimenaren gainera salto eginez, zeinean eta zeinentzat bakarrik baitago kausalitatea. Gero materiaren lehen egoera sinpleena bilatzen ahalegintzen da eta ondoren horretatik gainerako guztiak garatzen, mekanismo soiletik kimismora, polaritatara, begetaziora, animalitatara igoz: eta hori lortzen dela suposaturik, animalia sentikortasuna ezagutzea izango litzateke katearen azken maila: zeina ondorioz orain materiaren modifikazio soil gisa, kausalitatearen bitartez eragindako horren egoera bat bezala aurkeztuko bailitzateke. Baldin eta materialismoari errepresentazio begiesgarriekin horraino jarraitu badiogu; orduan, bere gailurrera berarekin iritsirik, olinpikoen barre iraungiezinaren bat-bateko oldarra sentituko genuke, eta bitartean gu, amets batetik itzartuz bezala konturatuko gineteke, bere azken emaitza, hainbeste kostata

lortua, ezagutza, jadanik hasierako abiagunean, materia soilarenean, ezinbesteko baldintza bezala suposaturik zegoela eta horrekin egiazki materia pentsatzen genuela bururatzen baitzitzaigun, izatez ordea materia errepresentatzen duen subjektua besterik ez genuela pentsatzen, hura ikusten duen begia, hura sentitzen duen eskua, hura ezagutzen duen adimena. Horrela agerian jarriko litzateke ustekabeen izugarritzko petitio principii-a: zeren bat-batean azken maila euspen-puntu bezala agertuko bailitzateke, zeinatik jadanik lehena esekita baitzegoen, katea zirkulu gisa; eta materialistak Münchhausengo Baroiaren antza izango luke, zeinek, zaldian uretan igerian dabilela, zaldia zangoekin, baina bere burua aurrerantz tiraka ateratzen baitu erorritako ile-mototsetik gora. Horren arabera materialismoaren oinarritzko absurdukeria objektibotik abiatzean datza, objektibo bat hartzen du azken azalpen-arrazoitzat, dela hori materia in abstracto, pentsatua soilik den bezala, edo jadanik forman sartua, enpirikoki emana, gaia alegia, oinarritzko gai kimikoak adibidez horien konbinazio hurbilenekin batera. Hori hartzen du bere baitan eta absolutuki existente bezala, horretatik natura organikoa eta azkenik subjektu ezagutzailea irtenarazteko eta horiek horren bitartez erabat azaltzeko - ; aldiz, egiaz objektibo oro horrelakoa den heinean subjektu ezagutzailearen bitartez bere ezagutzaren formekin era askotarikoz baldintzaturik dago eta materia supostutzat dauka, eta erabat desagertzen da, subjektuaren abstrakzioa egiten bada. Materialismoa, horrela, ahalegin bat da, bitartegabe eman zaiguna bitartedun eman zaigunetik azaltzeko. Objektibo, hedatu, eragile, beraz material oro, materialismoak bere azalpenaren oinarri trinkotzat daukana, horretara murrizte bat (batez ere azkenean egintza eta kontraegintza bihurtu denean) osoki gogobetekoa irizten duela - hori guztia, diot nik, guztiz bitartedunki emana eta baldintzatua da, horren arabera erlatiboki existitzen dena: zeren garunaren makineria eta fabrikaziotik iragan baita eta horrela horren formetan, denbora, espazioa eta kausalitatean sartu, zeinen indarrez ezer baino lehen aurkezten baita espazioan hedatu eta denboran eragiten duena bezala. Horrela emandako batetik materialismoak bitartegabe emandakoa, errepresentazioa (zeinean hura guztia existitzen baita) eta azkenean nahimena azaldu nahi du, zeinatik gehienbat oinarritzko indar haiek guztiak egiaz azaltzekoak baitira, kausen arabera erregulariki kanporatzen direnak. - Ezagutzea materiaren modifikazioa delako baieztapenari beti eskubide berarekin alderantzizkoa kontrajartzen zaio, materia oro subjektuaren ezagutzearen modifikazio bakarrik dela haren errepresentazio gisa. Hala ere, barrenean natur zientzia ororen helmuga eta ideala azkeneraino eramandako materialismoa da. Guk orain hori hemen nabarmen ezinezkotzat aitortzeak beste egia bat berresten du, geroagoko kontsiderazioan agertuko dena, zientzia orok zentzu propioan, eta horren azpian ulertzen dut arrazoiaren printzipioak gidaturiko ezagutza sistematikoa, ezin duela azken helbururik lortu, ezta azalpen erabat gogobetegarrik eman ere; zeren munduaren funtsik barnekoena ez baitu inoiz atzematen, errepresentaziotik irten ere ezin da, aitzitik, barrenean errepresentazio batek bestearekiko duen harremana ezagutzen irakatsi besterik ez du egiten.

Zientzia oro bi datu nagusitatik abiatzen da beti. Horietako bat beti arrazoiaren printzipioa da, taxuren batean, organon bezala; bestea bere objektu berezia problema gisa. Horrela, adibidez, geometriak espazioa dauka problematzat, eta hartan izatearen arrazoa dauka organontzat: aritmetikak denbora dauka problematzat eta hartan izatearen arrazoa organontzat: logikak kontzeptuen lotura dauka problematzat, ezagutzaren arrazoa organontzat: historiak gizakien egintza gertatuak handieran eta masan problematzat, motibazio legea organontzat: natur

zientziak, berriz, materia dauka problematzat eta kausalitatearen legea organontzat: bere jomuga eta helburua beraz, kausalitatearen gidaritzapean materiaren egoera posible guztiak bata bestera eta azkenik bakarrera murriztea da eta berriro bata bestetik eta, azkenik, bakarretik ondorioztatzea. Bi egoera daude, beraz, horretan mutur bezala kontrajarriak: materiaren egoera, non bera subjektuaren objektu bitartegabea gutxien, eta non, gehien baita: hau da, materia hilen, gordinen, lehen oinarri-gaia, eta gero giza organismoa. Lehena kimika bezala bilatzen du natur zientziak, bigarrena fisiologia bezala. Baina orain arte bi mutur horiek ez dira lortu, eta bien artean soilik irabazi da zerbait. Ikuspegiak, beraz, ez du itxaropen handiegirik. Kimikariak, materiaren banaketa kualitatiboa kuantitatiboa bezala infinituraino joango ez den supostupean, oinarri-gaien kopurua, orain 60 ingurukoa dena, gero eta urriagotzen ari dira: eta bitaraino iritsiko balira, horiek bakarrera murriztu nahiko lituzkete. Zeren homogeneitatearen legeak materiaren lehen egoera kimiko baten supostura gidatzen baitu, zeina beste guztien aurretik existitu baita, materia horixe den bezainbatean ez esentzialak, baizik forma kontingenteak, kualitateak baitira eta materiari halako den heinean bakarrik dagozkionak. Bestalde, ez dago ulertzerik, nola horrek, bere baitan eragiteko bigarren bat existitzen ez zenean, aldaketa kimikoa jasan ahal izan zuen; zeinaren bitartez hemen kimikoan nahasmendu bera sartzen baita, Epikuroren mekanikoa jo zuena bera, azaldu behar izan zuenean, lehen atomo hura hasieran bere mugimenduaren jatorrizko norabidetik nola irten zen: bere baitatik erabat garatzen den eta ez ekidin eta ez ebatzi ezin den kontraesan hori oso propioki antinomia kimiko bezala ezar zitekeela: nola aurkitzen den hemen natur zientziaren bi mutur bilatuen lehenean, era berean bigarrenen berari dagokion kontrapartea ere erakutsiko digu. - Natur zientziaren beste mutur hori lortzeko ere ez dago itxaropen handirik; zeren gero eta gehiago ulertzen baita, inoiz ezin dela kimikoa mekanikora edo gutxiago organikoa kimikora edo elektrikora murriztu. Gaur egun antzinako bide erratu horietan barrena abiatzen direnak, aurrekoak bezala isilik eta lotsaturik atzerabidea egitera beharturik aurkituko dira. Horretaz xehekiago hitz egingo dut hurrengo liburuan. Hemen bidenabar aipaturiko zailtasunak bere eremu propioan kontrajartzen zaizkio natur zientziari. Filosofiatzat harturik, gainera, materialismo izango litzateke: honek, dagoeneko ikusi dugunez, jadanik bere jaiotzan heriotza darama bihotzean; zeren subjektuaren eta ezagutzaren formen gainetik salto egiten baitu, zeinak materiari gordinenean suposaturik baitaude, zeinetatik hasi nahiko lukeen, baita organismoan ere, zeinetara iritsi nahi baitu. Zeren printzipioa da, materialismo oro beti ezinezko bihurtzen duena. Eguzkiak eta planetak, ikusten dituen begirik gabe, ezagutzen dituen adimenik gabe, hitzez adierazgarriak dira: baina hitz horiek errepresentaziorako sideroxylon [burdin zur] bat dira. Bestalde kausalitatearen legeak eta horri darraion naturaren kontsiderazio eta ikerketak suposizio ziur batera gidatzen gaituzte derrigor, denboran, materiaren egoera garaiago organizatua beste gordinago baten atzetik etorri delakora: hau da, animaliak gizakiak baino lehen, arrainak lehorreko animaliak baino lehen, landareak horiek baino lehen, inorganikoa organikoa den guztiaren aurretik existitu dela: eta ondorioz jatorrizko masak aldaketa-sail luze bat jasan behar izan duela lehen begia ireki ahal izan zenerako. Eta hala ere, ireki zen lehen begi horren mendean gelditzen da, nahiz eta intsektu batean izan, mundu oso haren existentzia, ezagutza derrigor transmititzen duenarenean bezala, zeinarentzat eta zeinean bakarrik baitago eta zeina gabe pentsatu ere egiterik ez baitago: zeren errepresentazioa besterik ez baita eta horrelakoa den heinean subjektu ezagutzailea behar du bere existentziaren euskarri gisa: zeren denbora-sail luze hura bera, ezin zenbatu ahal aldatetaz betea, zeinen

bitartez materia formatik formara igotzen baitzen, harik eta lehen animalia ezagutzailea bilakatu zen arte, denbora hori guztia kontzientzia baten identitatean bakarrik da pentsagarria, zeinen errepresentazioen segida, zeinen ezagutzaren forma baita bera eta, zeinaz kanpo erabat galtzen baitu bere esanahia eta ez baita ezer. Horrela. alderdi batetik derrigor ikusten dugu mundu osoaren existentzia lehen izaki ezagutzailearen mendean, zenik eta imperfektuena izan zitekeela ere; bestalde, era berean lehen animalia ezagutzaile hori erabat kausa eta efektuzko katea luze alde aurretiko baten mendean derrigor, zeinean bera maila txiki bat bezala sartzen baita. Elkarren aurkako bi ikuspegi hauek, zeinetako bakoitzera gu izatez beharrezkotasun berarekin iritsi baikara, gure ezagumenaren antinomia dei liteke eta natur zientziako lehen mutur hartan aurkituriko kontraparte gisa ezar; ordea, Kanten antinomia laukoitza, bere filosofiari idazki honen eranskinean egindako kritikan, oinarrigabeko itxurakeria bat bezala agertuko da. - Guri hemen azkenik beharrezko bezala ageri zaigun kontraesanak bere ebazpena honako honetan aurkitzen du: Kanten hizkuntza erabiltzeko, denbora, espazioa eta kausalitatea ez dagozkiola berbaitango gauzari, baizik bere agerpenari soilik, zeinaren formak baitira; eta horrek nire hizkuntzan mundu objektiboa esan nahi du, mundua errepresentazio gisa, ez bakarra, baizik bat, munduaren kanpo-aldea soilik, zeinak zeharo beste alde bat baitauka, bere barne-funtsa, bere gunea, berbaitango gauza: eta hori hurrengo liburuan kontsideratuko dugu, bere objektibazioen bitartegabetasunarengatik nahimen deituz. Baina mundua errepresentazio gisa, hemen kontsideratzen dugun bakarra, lehen begia irekitzearekin agertzen da, zeina ezagutza-bitarteko hori gabe ezin baita existitu; beraz, lehen ere ez zen existitzen. Baina begi hori gabe, h. d. ezagutzatik kanpo, ez zegoen aurrekorik, denborarik. Beraz horregatik denborak ez du hasierarik, baizik eta hasiera oro bere baitan dago: zeren bera baita ezagugarritasunaren formarik orokorrena, zeinari agerpen guztiak kausalitatearen lokarriaren bitartez egokitzen baitzaizkio, horrela lehen ezagutzarekin batera bera (denbora) ere agertzen da, bere infinitutasun guztiarekin bi norabideetan, eta lehen presente hori betetzen duen agerpenak, aldi berean, kausalki lotua ezagutua izan behar du, eta agerpen-sail baten mendean, zeinak amaigabeki iraganerantz hedatzen baitira, eta iragan hura aldi berean presente honek beronek baldintzatzen du, eta alderantziz hark hau ere bai; beraz, lehen presentea bezala, iragana ere, zeinatik baitator, subjektu ezagutzailearen mendean dago eta hori gabe ez da ezer, hala ere, lehen presente horrentzat beharrezkotasuna dakar, lehena bezala bera ez aurkezteko, h. d. ez daukana iragana amatzat eta denboraren hasiera bezala; baizik eta iraganaren ondorio bezala izatearen printzipioaren arabera denboran, eta halaber, bera betetzen duen agerpena, iragana bete zuten egoeren efektu gisa, kausalitatearen legearen arabera. - Interpretazio mitologiko sotilen zalea denak, hasieragabeko denboraren aurkezpentzat adierazitako momentuaren izendapen gisa, Kronosen jaiotza (GRIEGO) kontsidera dezake hemen, titanik gazteenarena, zeinarekin, berak aita irentzean, zeruko eta lurreko sorkari eragabeak bukatzen baitira eta gero jainkoen eta gizakien arrazak agertokia hartzen baitu.

Aurkezpen honek, zeinara iritsi baikara, objektutik abiatzen den sistema filosofiko kontsekuenteenari, materialismoari jarraitzean, subjektuaren eta objektuaren ezin gaidituzko oposizioan, aldi berean elkarrekiko dependentzia bereiztezina begiesgarri egiteko balio du; eta ezagutza horrek gidatzen du munduaren funts barnekoena, berbaitango gauza, jada ez errepresentazioaren bi elementu horietako bakarrean, baizik eta errepresentaziotik erabat desberdina den batean bilatzera, zeina horrelako oposizio jatorrizko, esentzial eta ondorioz ebatzezin batez ez baitago erasanik.

Aztertuturiko objektutik abiatze horri, horretatik subjektua irtenarazteko, subjektutik irtetea kontrajartzen zaio, zeinek horretatik objektua atera nahi baitu. Orain arteko filosofian lehen hori sarria eta orokorra izan den bitartean, aldiz, bigarrenaren benetako adibide bakar bat aurkitzen da, eta oso berria gainera, Johann Gottlieb Fichteren sasi-filosofia, zeinaz ikuspegi horretatik ohartarazi behar baita, nahiz eta benetako balio eta barne-eduki hain gutxi izan duen doktrinak eta oro har itxurakeria bat besterik ez izan, hala ere, seriotasun sakoneneko keinu, tonu nabarmen eta suharrik bizienaz aurkezturik eta polemika bikainez aurkari ahulen aurrean defenditua, distiratu ahal izan zuen eta zerbaiten itxura agertu. Baina benetako seriotasuna, inolako kanpo-eraginen mendean erori gabe, helburutzat egia beti begietan daukana, erabat falta zitzaien hari, baita bere antzera zirkunstantzietara egokitu behar izaten duten filosofo guztiei ere. Ezin zekioken besterik gerta. Filosofoa perplexitatearen bitartez bihurtzen da halako, nondik bera askatzen saiatzen baita eta Platonen (GRIEGO) [harritzea], berak (GRIEGO)[oso sentimendu filosofikoa] deitzen duena baita. Baina hemen benetakoak ez diren filosofoak eta benetakoak honetan bereizten dira: azken horiei mundua ikustetik bertatik perplexitate hori sortzen zaie, lehen haiei, berriz, aitzitik liburu batetik, aurrean daukaten sistema batetik: hori izan zen Fichteren kasua ere, zeina Kanten berbaitango gauzarengatik bakarrik bihurtu baitzen filosofo eta zeina gabe oso egiantzekoa izango zatekeen beste gauzaren bat arrakasta gehiagorekin burutu ahal izatea, zeren talentu erretoriko nabarmenaren jabe baitzen. Filosofo egin zuen liburuaren, «Arrazoimen Hutsaren Kritika»-ren zentzuan sakonxeago sartu izan balitz, ulertuko zukeen, haren doktrina nagusia espirituaaren arabera hauxe dela: arrazoiaren printzipioa ez dela, filosofia eskolastiko guztiak nahi duenez, veritas aeterna [egia betiko] bat, h. d. ez duela baliozkotasun baldintzagabe bat, munduaren aurretik, kanpotik eta gainetik; baizik eta erlatibo eta baldintzatua, agerpenean bakarrik balio duena, espazioaren eta denboraren edo kausalitate- edo ezagutza-lege oinarritzakoaren lokarri beharrezko gisa; eta horregatik, munduaren barne-funtsa, berbaitango gauza, inoiz ezin da printzipio horren gidalerroan aurkitu; baizik eta horrek nora gidatzen duen oro, beti dependente eta erlatibo, agerpen bakarrik da, eta ez berbaitango gauza; gainera, ez da subjektuarekin zerikusia duena, baizik objektuen formarekin bakarrik, zeinak, horrexegatik, ez baitira berbaitango objektu, eta objektuarekin jadanik subjektua eta horrekin hura existitzen baita; beraz, ez dago ez objektua subjektuari eta ez hau hari eransterik bere printzipioari ondorio gisa. Baina horretatik guztitik Fichteri ez zaio gauzarik txikiena ere gelditu: gai horretan gauza bakarra izan zaio interesgarri: subjektutik abiatzea, zeina Kanten hautatu baitzuen, orain arteko objektutik abiatzea, zeren bitartez hori berbaitango gauza bihurtzen baitzen, faltsua zela erakusteko. Fichtek, ordea, subjektutik abiatze hori inporta den bakartzat hartu zuen, imitatzaile guztiek bezala uste izan zuen, Kant horretan areagotzen bazuen, gainditu ere egingo zuela, eta norabide horretan bertan errepikatu zituen orain arteko dogmatismoak alderantzizkoan egin zituen eta Kanten kritikarako bidea ireki zuten akatsak; beraz, gai nagusiari dagokionez ez zen ezer aldatu eta oinarritzako akats zaharra, objektuaren eta subjektuaren artean aurreko eta ondoriozko erlazioak zeudela suposatzea, lehen bezala gelditu zen gero ere, eta horregatik arrazoiaren printzipioak, lehen bezalaxe, baliozkotasun baldintzagabea hartu zuen eta berbaitango gauza, lehen objektuan bezala, orain ezagutzaren subjektuan ezarri zen; baina bi horien erlatibitate osoa, zeinek erakusten baitu berbaitango gauza edo munduaren barne-funtsa ez dagoela horietan, baizik eta horretatik bezala hartatik ere kanpo, elkarrekiko existitzen direnak bezala bilatu behar delakoa, lehen bezain ezagutu gabe gelditu zen gero ere. Kant existitu izan ez

balitz bezala, arrazoiaren printzipioa Fichterengan oraindik ere, eskolastikoengan izan zena bera da, veritas aeterna. Antzinateko jainkoen gainetik betiko patua nagusi zen bezala, eskolastikoen Jainkoaren gainetik veritates aeternae horiek ziren nagusi, h. d. egia metafisikoak, matematikoak eta metalogikoak, batzuegan lege moralaren baliozkotasuna ere bai. Veritates horiek bakarrik ez ziren beste zerbaiten mendeko: baina horien beharrezkotasunaren mendean zeuden bai Jainkoa eta bai mundua. Horrelako veritas aeterna bezala harturiko arrazoiaren printzipioaren ondorioz Fichterengan nia da munduaren arrazoa, edo ez-niarena, objektuarena, zeina baita bere ondorioa, bere egindura. Beraz, arrazoiaren printzipioa xehekiago aztertu edo kontrolatzera sartu, ez da badaezpadan sartu. Baina printzipio horren taxua eman beharko banu, zeinaren gidaritzapean Fichtek ez-nia nitik aterarazten baitu, armiarmak bere amarauna bezala, orduan espazioan izatearen arrazoiaren printzipioa dagoela aurkitzen dut: zeren horrekiko harremanean bakarrik hartzen baitute halako zentzu- eta esangura-mota bat honelako mota eta erako dedukzio oinazetu haiek: nola niak ez-nia ekoitzi eta fabrikatzen duen, inoiz idatzi izan den libururik zentzugabe eta aspergarrienaren edukia horrek eratzen baitu. - Fichteren filosofia hori, bestelakoan aipamenik ere merezi ez duena, soilik antzinako materialismoari berandu agerturiko benetako oposizio gisa interesatzen zaigu, zeina baitzen objektutik abiatze kontsekuenteena, beste hau subjektutik abiatzearena bezala. Materialismoak kontuan hartu ez zuenez, objekturik sinpleenarekin jadanik subjektua ere ezarri zuela; horrela ez zuen hartu kontuan Fichtek subjektuarekin (nolanahi deitzen ziola ere) objektua ere ezarria zuela jada, zeren ezein subjektu ez baita halakoa gabe pentsagarri, baizik eta honako hau ere ez zuen kontuan hartu: a priori dedukzio oro, baita froga oro ere orokorrean beharrezkotasun batean oinarritzen direla, eta beharrezkotasun oro arrazoiaren printzipioan bakar-bakarrik; zeren beharrezko izatea eta arrazoi jakin baten ondorio izatea - kontzeptu trukagarriak baitira¹³, arrazoiaren printzipioa objektuaren forma orokorra besterik ez dela, zeinarekin objektua jadanik suposatzen baita, ezin duela baliozkotasunik izan, ordean, horren aurretik eta kanpo eta horren legearen arabera bakarrik burutu eta gerta daitekeela. Oro har subjektutik abiatzeak goian aurkeztu den objektutik abiatzearekin akats bera dauka komunean, gero deduzitu behar dena alde aurretik onartzearena, h. d. bere abiagunearen beharrezko korrelatua.

Bi errore elkarri kontrajarri horietatik toto genere bereizten da gure prozedura, ez objektutik eta ez subjektutik abiatzen ez den heinean, baizik eta errepresentaziotik, kontzientziako lehen gertakari den heinean, zeinaren oinarri-forma esentzialena objektu eta subjektuan banatzea baita, objektuaren forma, berriz, arrazoiaren printzipioa bere taxu desberdinetan, zeinetariko bakoitzak errepresentazioen bere klase propioari hainbeste nagusitzen baitzaio, non jadanik erakutsi denez, taxu horren ezagutzearekin klase osoaren funtsa ere ezagutzen baita, eta aldiz, hori (errepresentazio gisa) taxu hori berori besterik ez baita: horrela denbora ezer ez da hartako izatearen arrazoa, h. d. suzesioa baizik; espazioa ezer ez da hartako arrazoi printzipioa, beraz, posizioa baizik; materia ezer ez da kausalitatea baizik; kontzeptua (berehalaxe erakutsiko denez) ezer ez da ezagutza-arrazoiarekiko harremana baizik. Errepresentazio gisa munduak daukan erlatibitate oso eta iraunkor horrek, bai bere formarik orokorrean (subjektua eta objektua) eta bai horren mendekoan (arrazoiaren printzipioa) erakusten digu, esan denez, munduaren funts barnekoena errepresentazioaz zeharo bestelako alde batean bilatu behar dela, eta hori hurrengo liburuak izaki bizidun ororentzat halaber gertakari ziur bitartegabea den batean aztertuko du.

Hala ere, oraindik aztertu beharra daukagu errepresentazioen harako klase hura, zeina gizakiari bakarrik baitagokio, zeinaren gaia kontzeptua baita eta, zeinaren korrelatu subjektiboa arrazoimena, orain arte kontsideraturiko errepresentazioena adimena eta sentikortasuna zen bezala, animalia orori ere egozten zaizkionak.¹⁴

§ 8

Eguzkiaren argi bitartegabetik ilargiaren errainu ezkutura bezala goaz errepresentazio begiesgarri, bitartegabe, bere burua aurkeztu eta bermatzen duenetik erreflexiora, arrazoimenaren kontzeptu abstraktu diskurtsiboetara, zeinek eduki osoa ezagutza begiesgarri hartatik eta harekiko harremanean bakarrik baitute. Begiespen hutsaren alorrean gabiltzan bitartean, dena klaru, finko eta ziur dago. Hor ez dago ez galderarik, ez zalantzarik, ez errorerik: ez da aurrerago joan nahi, ezin da aurrerago joan, atsedena hartzen dugu begiespenean, gogobetetasuna presentean. Begiespena bere buruarentzat aski da; horregatik, hartatik garbi irten dena eta harekiko leial iraun duena, benetako arte-obra inoiz faltsua eta ezein garaitan ezeztatua izan ezin dena bezala: zeren ez baitago inolako iritzirik, gauza bera baizik. Baina ezagutza abstraktuarekin, arrazoimenarekin alor teorikoan zalantza eta errorea, alor praktikoan kezka eta damua sartzen dira. Baldin errepresentazio begiesgarrian begitazioak une batean errealtatea desitxuratzen badu, horrela abstraktuan errorea milaka urtetan nagusi izan daiteke, herri osoak bere burdinazko uztarripean ezar ditzake, gizadiaren mugidarik nobleenak irato eta liluratzeko gai ez dena bera ere, bere esklaboen, bere liluratuen bitartez, oin-burdinetan eduki dezake. Etsaia da, zeinaren aurka garai guztietako espiriturik

jakintsuenak borroka desorekatuan ari izan baitira, eta irabazi izan diotena bakarrik bihurtu da gizadiaren jabetza. Horregatik on da kontuan hartzea, bere lurretan sartzen ari garenez gero, zertan datzan bere eremua. Nahiz eta sarritan esan izan den egia aztarnatu egin behar dela, hartatik inolako etekinik ageri ez denean ere, zeren hori bitartedunki izan eta ager baitaiteke, inork espero ez duen tokian; horrela aurkitzen dut nik hemen gehitu behar dela, era berean, ahalegindu behar dela errore oro agerian jarri eta deserrotzen, halaber hartatik inolako kalterik ageri ez denean, zeren horretatik ere zeharo bitartedunki izan baitaiteke eta ager baitaiteke, inork espero ez duen tokian: zeren errore orok pozoia baitakar bere barruan. Espiritua, ezagutza da gizakia lurraren jaun bihurtzen duena; horregatik, ez dago kaltegabeko errorerik, eta are gutxiago errore aintzagarririk, santurik. Eta errearen aurkako hain borroka noble eta zailari beren indarra eta bizitza, edozein era eta zirkunstantziatan, eskaintzen dizkioten pozbiderako, ezin diot uko egin nik hemen gehitzeari, egia oraindik existitzen ez den bitartean, erroreak bere jokoa burutu dezakeela, mozoiloek eta saguzarrek gauean bezala: baina lehenago espero liteke mozoiloek eta saguzarrek eguzkia ekialdera atzeraraztea, egia berrezagutu eta argiro eta erabat adierazia berriz baztertua izatea baino, errore zaharrak haren leku zabala inolako trabarik gabea berriro hartuz. Hori da egiaren indarra, zeinaren garaipena zail eta neketsua baita, baina horregatik, behin lortu denean, ez dago jadanik hura galtzerik.

Orain arte kontsideratu ditugun errepresentazioez gainera, zeinak beren osaeraren arabera denbora eta espazioa eta materiara murriz baitaitezke, baldin eta objektuari, edo sentikortasun hutsari eta adimenari (hau da, kausalitatearen ezagutzari) begiratzen badiogu, subjektuari begiratzen badiogu, gizakiarengan bakarrik agertu da lurreko biztanle guztien artean beste ezagutza-indar bat, kontzientzia guztiz berri bat, zeinari oso egoki eta doitasun sendunez *erreflexio* izena eman baitzaio. Zeren izatez isla baita, ezagutza begiesgarri hartatiko dedukzio bat, nahiz eta esentzian hartaz bestelako natura eta osaera hartu dituen, ez ditu haren formak ezagutzen; eta arrazoiaren printzipioak berak, objektu guztien gainetik nagusi denak, hemen zeharo bestelako taxua du. Kontzientzia berri, garai potentziatua, begiesgarria den ororen *erreflexu* abstraktu hori arrazoimenaren kontzeptu ez-begiesgarrian, hori bakarrik da gizakiari bere gogoetamen hori ematen diona, kontzientzia animaliarenetik hain argiro bereizten diona, eta zeinaren bitartez lurreko bere ibilera guztia hain desberdina gertatzen baita bere senide arrazoigabeen aldean. Aldi berean gainditu egiten ditu ahalmenez eta grinaz. Horiek presentean bakarrik bizi dira; gizakia, aldiz, iraganean eta etorkizunean. Haiek aldiuneko beharrianak asetzen dituzte; gizakia bere etorkizunaz arduratzen da xedapen trebeenen bitartez, baita bera biziko ez den garaiez ere. Haiek aldiunearen inpresiopean, motibo begiesgarriaren efektupean daude erabat; kontzeptu abstraktuek, berriz, gizakia presentearekiko independente determinatzen dute. Horregatik burutzen ditu plan hausnartuak edo jokutzen du maximen arabera, inguruabarrak edo aldiuneko inpresio halabeharrezkoak kontuan hartu gabe: horregatik har ditzake, adibidez, lasaitasunez bere heriotza propiorako xedapen trebeak, inork ez ikertzeko eran estal dezake bere burua eta bere sekretua hilobiraino eramanez, azkenik aukera erreala egiten du motibo bat baino gehiagoren artean: zeren in abstracto soilik ekar baitezakete, kontzientzian aldi berean presente dauden motibo horiek, elkar baztertzen duten ezagutza, eta nahimenarekiko duten boterea elkarren artean neurtu; horren arabera gero nagusitzen dena, aukera egitean, nahimenaren erabaki hausnartu bihurtzen da eta bere osaeraren seinale ziur gisa jartzen du agerian. Animalia,

berriz, presenteko inpresioak determinatzen du: presenteko bortxarekiko beldurrak soilik beza dezake bere guraria, harik eta beldur hori azkenean ohitura bihurtu den arte eta aurrerantzean horrelakoa den heinean determinatzen baitu: horixe da hezketa. Animaliak sentitu eta begietsi egiten du; gizakiak pentsatu egiten du horretaz eta jakin daki: biek nahia dute. Animaliak bere sentipena eta aldarteak komunikatu egiten ditu keinuen eta hotsaren bitartez: gizakiak besteei pentsamenduak komunikatzen dizkie, hizkuntzaren bitartez, edo ezkutatu egiten dizkie pentsamenduak, hizkuntzaren bitartez. Hizkuntza da bere arrazoimenaren lehen sorkaria eta beharrezko lanabesa: horregatik grekoz eta italieraz hizkuntza eta arrazoimena hitz beraz izendatzen dira: (GRIEGO), il discorso. Arrazoimena (Vernunft) alemanieraz vernehmen (hauteman) aditzetik dator, zeina ez baita entzutearen (hören) sinonimo, baizik eta hitzen bitartez komunikaturiko pentsamenduez jabetzea esan nahi du. Hizkuntzaren bitartez bakarrik burutzen ditu arrazoimenak bere egintza garrantzitsuenak, adibidez, norbanako bat baino gehiagoren arteko ekintza harmonizatzaila, milaka askoren elkarreragin planifikatua, zibilizazioa, estatua; gainera, zientzia, lehenagoko esperientziak gordetzea, komuna dena kontzeptu batean laburbiltzea, egia komunikatzea, errorea hedatzea, pentsatzea eta poesia egitea, dogmak eta superstizioak. Animaliak heriotzean du lehen aldiz heriotzaren berri: gizakia kontzientziarekin hurbiltzen da heriotzara orduoro, eta horrek bihurtzen du bizitza neurri bateraino zalantzakor, bizitza osoan etengabeko deusezte horren izaera hori ezagutu ez duenarentzat bertan ere. Horregatik ditu gizakiak nagusiki filosofiak eta erlijioak: baina ez dago ziur, bere ekintzan gehien estimatzen duguna zinez, libreki ongi jokatzeko eta asmo nobleak izatea, bi horietako baten fruitua inoiz izan den. Ziurra da, ordea, horiei bakarrik dagozkien sorkariak eta bide horretan arrazoimenaren ekoizpen direla, aitzitik, eskola desberdinetako filosofoen iritziz miresgarri eta menturatsuenak, eta erlijio desberdinetako apaizen usuario guztiz bakan eta batzuetan ankerrak ere badirenak.

Garai eta herri guztien aho batezko iritzia da adierazpen hain askotarikoak eta zabalak diren horiek guztiak printzipio komun beretik, gizakia eta animaliak bereizten dituen indar intelektual berezi horretatik datozela eta, zeina Vernunft, (GRIEGO), (GRIEGO), (GRIEGO) ratio izendatu baita. Halaber, gizaki guztiek ahalmen horren adierazpenak ezagutzen oso ongi dakite eta zer den razionala eta zer irrazionala esaten, non arrazoimena gizakiaren beste gaitasun eta propietate batzuekiko kontraesanean agertzen baita eta, azkenik, baita zer ez den espero izan behar animalia zuzurrengandik ere horren gabeziak. Garai guztietako filosofoak bat datoz erabat arrazoimenaren ezagutza orokorrari dagokionez eta, gainera, azpimarratu egiten dituzte horren adierazpen bereziki garrantzitsu batzuk, hala nola afektuak eta grinak menderatzea, ondorioak atera eta printzipio orokorrak ezartzeko gaitasuna, baita esperientzia ororen aurretik ziurrak direnak ere, eta abar. Hala ere, arrazoimenaren funts propioari buruzko haien azalpen guztiak zalantzarazkoak dira, ez daude zorrotz determinatuak, lausoak dira, batasun eta erdigunerik gabeak, batzuetan adierazpen bat eta beste batzuetan beste bat nabarmentzen dutenak, horregatik sarritan elkarrengandik aldentuz. Horri gehitu behar zaio asko direla arrazoimena eta agerkundearen arteko oposiziotik abiatzen direnak, filosofiarentzat guztiz arrotza baita, eta nahasmendua areagotzeko bestetarako ez baitu balio. Oso harrigarria da orain arte ezin filosofo ez gai izana arrazoimenaren adierazpen askotariko horiek guztiak funtzio sinple batera murrizteko, zeina horietan guztietan berrezagutuko bailitzateke, zeinatik horiek guztiak azalduko bailirateke eta, zeinaren arabera arrazoimenaren barne-funts propioa eratuko bailitzateke. Egia da Locke bikainak 2. liburua, II. kapitulua, § 10. eta 11.ean animalia eta gizakiaren

arteko izaera desberdintzailatzat oso zuzen kontzeptu orokor abstraktuak ematen dituela, eta Leibnizek horiek errepikatu egiten dituela erabateko adostasunean 2. liburua, 11. kapitulua, § 10., 11.ean. Soilik Locke 4. liburuan, 17. kapituluan, § 2, 3.an, arrazoimenaren azalpen propiora iristean, orduan galdu egiten du bistatik erabat haren izaera nagusi sinple hura, eta haren kanporatze zatikatu eta deduzituen datu zalantzakor, lauso, osagabeak ematen ditu: Leibniz berak ere, hari dagokion bere obrako pasartean, orokorrean berdin dihardu, baina nahasmendu eta lausotasun handiagoarekin bakarrik. Kantek berak ere arrazoimenaren funtsa zenbateraino nahastu eta faltsutu duen, horretaz xeheki hitz egin dut Eranskinean. Kanten ondoren argitara eman diren idazki filosofikoen mordoa aztertzeke nekea hartzen duenak, halakoak ezagutuko du printzeen hutsegitengatik herri osoek penitentzia egin behar izaten duten bezala, espiritu handien erroreek beren eragin kaltegarria belaunaldi osoetara, baita mendeetan zehar ere, hedatzen dutela, eta, haziz eta ugalduz, azkenean munstrokeria izateraino endekatzen direla: eta hori guztia honetatik segitzen da, Berkeleyk dioenez: 2, London 1784, i, p. 160].

Adimenak funtzio bakarra duen bezala: kausa eta efektu harremanen ezagutza bitartegabea eta mundu errearen begiespena, baita zuhurtzia, sagazitate eta asmatze-gaitasun oro ere, eta askotarikoa dela ere horren erabilera, oso nabarmen dago, hala ere, funtzio sinple horren kanporatzeak baizik ez direla; horrela arrazoimenak ere funtzio bakarra du: kontzeptua eratzea; eta bakar horretatik azaltzen dira oso erraz eta erabat berez goian aipaturiko agerpen haiek guztiak, gizakia eta animaliaren bizitza bereizten dutenak: eta azken finean funtzio horren erabilera edo ez-erabilerak nonahi eta noiznahi razional edo irrazional izendatu izan denak adierazten du¹⁶.

§ 9

Kontzeptuek orain arte kontsideraturiko errepresentazio begiesgarrienaz toto genere bestelako klase berezi bat eratzen dute, gizakiaren espirituan bakarrik existitzen dena. Horregatik desegokia litzateke hori esperientzian frogatzeko eskatzea, baldin horren pean kanpo-mundu erreala, errepresentazio begiesgarria ere badena, ulertzen bada, edo objektu begiesgarriak bezala begien aurrean edo fantasiaren aurrean ezartzeko. Pentsatu bakarrik egiten dira, ez begietsi, eta horien efektuak dira, zeinak haien bitartez burutzen baititu gizakiak, benetako esperientziaren objektu bakarrak. Horrelakoak dira hizkuntza, ekintza hausnartu, planifikatua eta zientzia; eta gero, horietatik guztietatik sortzen dena. Antza hizketa, kanpoko esperientziaren objektu gisa, telegrafo oso perfektu bat besterik ez da, hautazko zeinuak lastertasun handia eta ñabardura finenekin transmititzen dituen. Zer esan nai dute, ordea, zeinu horiek? Nola gertatzen da horien interpretazioa? Itzuli edo egiten ote ditugu, bestea hizketan ari den bitartean, aldi berean haren hizketa fantasiako imajinetan, zeinak tximista baten lastertasunean gudan iragaten baitira eta higitu, kateatu, eraldatu eta koloratzen jarioan doazen hitz eta horien flexio gramatikalen arabera? Zer nolako astrapala sortuko litzatekeen gero gure buruan hitzaldi bat entzuten ari garenean edo liburu bat irakurtzen! Ez da horrela gertatzen. Hizketaren zentzua bitartegabe hautematen da, zehatz eta determinatu kontzebitzen da, eskuarki fantasmekin nahastu gabe. Arrazoimena da arrazoimenari mintzo zaiona, bere eremu propioan iraunez, eta berak transmititu eta jasotzen duena kontzeptu abstraktuak dira, errepresentazio ez-begiesgarriak, zeinek behin betiko eraturik eta erlatiboki kopuru txikitari, hala ere

mundu errealeko ezin zenbatu ahal objektu atzeman, eduki eta ordeztu baitituzte. Honetatik bakarrik azaltzen da animalia bat ez dela inoiz gai hitz egin eta hautemateko, nahiz eta hizkuntzaren lanabesak, baita errepresentazio begiesgarriak ere gurekin komunean izan: baina nola hitzek errepresentazioen klase guztiz berezi hura izendatzen duten, zeinaren korrelatu subjektiboa baita arrazoimena, horiek animalia-errentzat zentzu eta esangurarik gabeak dira. Horrela hizkuntza beste edozein agerpen bezala, zeina arrazoimenari egozten baitiogu, eta gizakia eta animalia bereizten dituen edozer bezala, bakarra eta sinplea den iturri horren bitartez azaldu behar da: kontzeptuen bitartez, zeinak abstraktuak baitira, ez-begiesgarriak, orokorrak, ez denbora eta espazioko errepresentazio indibidualak. Kasu partikularretan bakarrik iragaten gara kontzeptuetatik begiespenera, fantasmak eratzen ditugu kontzeptuen errepresentante begiesgarri gisa, zeinarekin ez baitira inoiz baliokide izaten. Horiek § 28, tratatuan bereziki aztertutakoak dira, horregatik ez dut hemen gauza bera errepikatuko: bertan esandakoarekin erkatu behar da Humek eko hamabigarrenean, § 28.an, eta Herderrek n (bestalde oso liburu txarra den horretan) I. atala, 274. or. an dioena. - Ideia platonikoak, fantasia eta arrazoimena batuta posible den horrek idatzi honetako hirugarren liburua-ren objektu nagusia eratzen du.

Nahiz eta kontzeptuak eta errepresentazio begiesgarriak esentzian desberdinak izan, hala ere beharrezko harremanean daude horiekiko, zeinak gabe ez bailirateke ezer izango; harreman horrek, ondorioz, beren funts eta izate guztia eratzen du. Erreflexioa imitazioa, mundu arketipiko, begiesgarriaren errepikapena da derrigor, nahiz eta oso era bereziko imitazioa gai guztiz heterogeneoan. Horregatik oso egoki esan liteke kontzeptuak errepresentazioen errepresentazio direla. Arrazoiaren printzipioak ere hemen du bere taxu propioa, eta haiek bezala, zeinen artean errepresentazioen klase batean nagusi baita, klase horren funts osoa, errepresentazioak diren heinean, beti propioki eratu eta agortzen du, halako moldez, non jadanik ikusi dugunez, denbora erabat suzesioa baita eta besterik ezer ez, espazioa erabat posizioa baita eta besterik ezer ez, materia erabat kausalitatea baita eta besterik ezer ez; horrela kontzeptuen funts osoa ere edo errepresentazio abstraktuen klasearena harremanean bakarrik datza, zeina arrazoiaren printzipioak adierazten baitu beraietan: eta hori ezagutza-printzipioarekiko harremana denean, orduan errepresentazio abstraktuak bere funts osoa beste errepresentazio batekiko harremanean dauka bakarrik eta soilik, zeina bere ezagutza-printzipio baitu. Hori berriro kontzeptu edo errepresentazio abstraktu izan daiteke, noski, eta hori bezalako ezagutza-printzipio abstraktu berriz ere; baina ez horrela infinituraino: baizik eta azkenean ezagutza-printzipioen saila kontzeptu batekin itxi behar da, zeinek bere oinarria ezagutza begiesgarrian baitauka. Zeren erreflexioaren mundu osoak begiesgarria den horretan baitauka bere euskarria bere ezagutza-printzipio gisa. Horregatik dauka errepresentazio abstraktuen klaseak besteekiko desberdingarritzat horietan arrazoiaren printzipioak beti harreman bat klase bereko beste errepresentazio batekiko eskatzea, baina errepresentazio abstraktuetan azkenik harreman bat beste klase bateko errepresentazio batekiko.

Kontzeptu haiek, zeinak, oraintxe esan denez, ez bitartegabe, baizik kontzeptu baten bitartekaritzaz edo beste gehiagorenez ezagutza begiesgarriarekiko harremanean jartzen baitira, hurrenez hurren, abstracta izendatu dira eta aitzitik, beren oinarria bitartegabe mundu begiesgarrian daukatenak, concreta. Azken izendapen hori oso desegoki bakarrik dagokie bere bitartez izendaturiko kontzeptuei, zeren horiek beti abstracta baitira eta hala eta guztiz ere errepresentazio begiesgarriak. Izendapen horiek, ordea, horren bitartez adierazitako desberdintasunaren

kontzientzia oso lauso batetik sortu dira, hala ere gorde egingo ditugu hemen emandako oharrarekin. Lehen erako adibideak, horiek ere abstracta zentzu gorenean, eta abar bezalako kontzeptuak dira. Azken erakoen adibideak, edo ez-propioki concreta deituak eta abar kontzeptuak dira. Baldin eta konparazioa ez balitz metaforikoegi samarra eta horregatik txantxetan hartzeko modukoa, nahikoa egoki esan liteke azkenak beheko solairua bezala direla, lehenak erreflexioaren eraikineko goiko solairuak¹⁷.

Kontzeptu batek bere azpian asko hartzea, h. d. errepresentazio begiesgarri edo baita abstraktuak ere berarekiko ezagutza-printzipioaren harremanean egotea, h. d. beraren bitartez pentsatua izatea, hori ez da, sarritan adierazten denez, gaitasun esentzial bat, baizik eta deduzitu, sekundario bat, zeina ez baita beti errealtatean gertatzen, nahiz eta beti ahalatasunaren arabera existitzen den. Gaitasun hori kontzeptua errepresentazio baten errepresentazio izatetik dator, h. d. bere funts osoa beste errepresentazio batekiko harremanean izatetik bakarrik; baina bera errepresentazio hori berori ez izaki, hori gehienetan zeharo beste errepresentazio-klase batekoa baita, h. d. begiesgarria, hala denborazko, espaziozko eta beste determinazio batzuk, eta oro har harreman ugari izan ditzake, kontzeptuarekin batera pentsatuak izan ez daitezkeenak, horregatik kontzeptu beraren bitartez pentsatuak izan daitezke esentzialak ez diren errepresentazio desberdin gehiago, h. d. haren azpian subsumituak izan daitezke. Gauza bati baino gehiagori buruz baliozko izate hori ez da esentziala, kontzeptuaren gaitasun akzidentala baizik. Horregatik egon litezke kontzeptuak, zeinen bitartez objektu erreal bakarra soilik pentsa bailiteke, hala ere errepresentazio abstraktu eta orokorrak izan daitezkeelarik, baina inola ere ez partikular eta begiesgarriak: horren modukoa da, adibidez, norbaitek hiri jakin bati buruz duen kontzeptua, baldin eta geografiatik soilik hura ezagutzen badu: nahiz eta haren bitartez hiri bakar hori pentsatu, hala ere ahalgarri izango lirateke zati batzuetan desberdinak diren hiri gehiago ere, zeintzuei guztiei kontzeptua egokitzen baitzaie. Ez bakarrik horrela, kontzeptu batek, objektu batetik baino gehiagotik abstrahitua delako, du orokortasuna; baizik alderantziz, orokortasuna, h. d. partikularraren ez-determinazioa, arrazoimenaren errepresentazio abstraktu gisa esentziala zaiolako, pentsa daitezke gauza desberdinak kontzeptu beraren bitartez.

Esandakotik ateratzen da, kontzeptu oro, errepresentazio abstraktu eta ez-begiesgarria, baita erabat determinatua ez delako ere, hedadura edo esfera deitzen denaren jabe dela, baita berari dagokion objektu bakarra existitzen den kasuan bertan ere. Etengabe aurkitzen dugu kontzeptu ororen esferak beste baten esferarekin zerbait komunean daukela, h. d. hartan parte batean lehen hartako gauza bera pentsatzen dela; nahiz eta, errealki kontzeptu desberdinak badira, bakoitzak edo gutxienez bietako batek zerbait izan, besteak ez daukana: harreman horretan aurkitzen da subjektu oro bere predikatuarekiko. Harreman hori ezagutzeari juzgatzea deitzen zaio. Esfera horiek figura espazialen bidez aurkeztea oso ideia bikaina da. Lehen aldiz Gottfried Ploucquet-ek izan zuen hori eta laukia erabili zuen; Lambert-ek, haren atzetik, elkarren gainean ezarritako lerro soilak erabili zituen: Eulerrek garatu zuen lehenik osoki zirkuluekin. Nik ez dakit esaten, azken finean, zertan datzan hain analogia zehatza kontzeptuen eta horien figura espazialen harremanen artean. Baina logikarentzat oso aldeko zirkunstantzia da, kontzeptuen harreman guztiak beren ahalatasunaren arabera, h. d. a priori, figura horien bitartez ikusteko eran aurkeztu ahal izatea, honako eran:

1. Bi kontzeptuen esferak erabat berdinak dira: adibidez, beharrezkotasun kontzeptua eta printzipio jakin batetik ondorioakoa; baita ruminantia eta bisulca (hausnarkari eta apatx erdibitua duten animalien artekoa); baita ornodun eta odol gorrikoen artekoa (nahiz eta anelidoengatik eragozpenen bat izan dezakeen): kontzeptu trukagarriak dira. Horiek zirkulu bakarra aurkezten dute, zeinak bata zein bestea adierazten baitu.

2. Kontzeptu baten esferak erabat bere baitan hartzen du bestearena:

animalia

zaldia

3. Esfera batek bi edo gehiago hartzen ditu bere baitan, zeinek elkar baztertu eta aldi berean esfera betetzen baitute:

Angelu zuzena

Angelu zorrotza Angelu kamutsa

4. Bi esferek bakoitzak bestearen atal bana hartzen du bere baitan.

lorea gorria

5. Bi esfera hirugarren batean daude baina hura bete gabe:

materia

ura lurra

Azken kasu honek balio du esfera guztietarako, zeinaren esferek ez baitute komuntasun bitartegaberik, beti ere hirugarren batek, nahiz eta sarritan oso zabala izan, biak bere baitan hartzen dituenean.

Kasu horietara kontzeptuen lotura guztiak murriz daitezke, eta judizioei buruzko doktrina osoa, zeinaren konbertsioa, kontraposizioa, erreziprokazioa, disjunkzioa (hori hirugarren figuraren arabera) hartatik deduzitzen baitira: baita judizioen ezaugarriak ere, zeinen ganean Kantek adimenaren ustezko kategoriak oinarritu baitzituen, hala ere forma hipotetikoaren salbuespenarekin, zeina ez baita kontzeptu soilen lotura, judizioena baizik; baita ere modalitatearen salbuespenarekin, zeinari buruz, judizioen ezaugarri orori buruz bezala, zeina kategorien oinarrian ezarria baitago, Eranskinak kontu zehatza ematen baitu. Aipaturiko kontzeptu-lotura ahalgarriei buruz oraindik ohartarazi beharra dago elkarren artean era askotako loturak egin daitezkeela, adibidez, laugarren figura bigarrenarekin. Esfera batek, beste bat osoki edo parte batean bere baitan hartzen badu bakarrik, hirugarren batek osoki edo parte batean bere baitan hartzen badu, orduan aurkezten dute elkarrekin silogismoa lehen figuran, h. d. judizioen lotura haiek, zeinen bitartez ezagutzen baita, kontzeptu bat, beste batean osoki edo parte batean harturik dagoena, hirugarren batean ere badagoela, zeinek hori bere baitan hartzen baitu: edo horren alderantzikoa ere bai, ukapena; zeinaren aurkezpen irudizkoa naturala denez soilik honetan egon baitaiteke, bi esfera lotuak hirugarrenean ez egotean. Era honetara esfera asko elkarrekin lotzen direnean, silogismo-katea luzeak sortzen dira. - Kontzeptuen eskematismo hau, zenbait manualetan aski ongi azaldu dena, judizioen doktrinaren eta silogistika osoaren oinarritzat ezar daiteke, eta horrela biak irakastea oso erraz eta sinple bihurtzen da. Zeren horien arau guztiak beren jatorriaren arabera ulertu, deduzitu eta azaltzen baitira. Ez da beharrezko horiekin oroimena kargatzea, zeren logika inoiz ez baita onura praktikokoa, baizik interes teorikokoa bakarrik filosofiarentzat. Zeren esan izan bada ere logikak pentsamendu razionalarekiko oinarritzko baxuak

musikarekiko bezala jokatzeko duela, baita, zehaztasun gutxiagorekin hartzen badugu,
etikak bertutearekiko edo estetikak artearekikoa ere; hala ere, horren kontra
pentsatu behar da, orain arte ez dela artista bakar bat ere estetikaren estudioaren
bitartez sortu, ezta karakter noble bat ere etikaren estudioaren bitartez, Rameauren
aurretik zuzen eta

ederki konposatu izan zela, eta oinarrizko baxua ezagutu beharrik ez dagoela disharmoniez ohartzeko: era berean ez dago logika jakin beharrik sofismen engainupean ez erortzeko. Guztiarekin aitortu beharra dago, nahiz eta musika-konposizioa epaitzeko ez izan, hori praktikatzeko oinarrizko baxua onura handikoa dela: eta zera ere esan daiteke, nahiz eta maila murriztagoan, estetikak eta etikak berak ere bai praktikarako onura batzuk badituela, nahiz eta nagusiki negatiboak izan, beraz horiei ez dago balio praktiko guztia kentzerik: baina logikak ezin dio sona hori ere bere buruari eman. Bakoitzak in concreto dakien horren in abstracto jakitea besterik ez da. Beraz, arrazoiketa faltsu batekin bat ez etortzeko bere beharrik ez dagoen bezala, ez dago horren arauen laguntza eskatu beharrik, arrazoiketa zuzen bat egiteko, eta logikaririk jakitunenak berak ere alde batera uzten du bere pentsamendu errealean. Hori ondorengotik azaltzen da. Zientzia oro egia, lege eta arau orokorrezko, ondorioz, abstraktuzko sistema batez eraturik dago edonolako objektu-motaren bati buruz. Gero horren azpian gertatzen den kasu partikular bakoitza determinaturik gelditzen da behin betiko balioa duen jakite orokorraren arabera; zeren orokorra denaren erabilera hori infinituki errazagoa baita, gertatzen den kasu partikular bakoitza hasieratik hasita bere baitan ikertzea baino; beti ere behin lortutako ezagutza abstraktu orokorra eskurago gelditzen baitzaigu partikularren ikerketa enpirikoa baino. Logikarekin, berriz, alderantziz gertatzen da. Bera jakite orokorra da, arrazoimenaren autobehaketaz eta eduki ororen abstrakzioz ezagutua eta arau gisara adierazia arrazoimenaren prozedura-eratik. Horrentzat beharrezko eta esentziala da prozedura-era hori: beraz, ezein kasutan ezin daiteke hartatik desbidera, bere baitan abandonaturik dagoen bitartean. Horregatik errazago eta ziurrago da kasu berezi bakoitzean bere funtsaren arabera jokatzeko uztea, bere prozeduratik lehen abstrahituriko jakitea kanpotik emandako lege arrotz baten taxuan ezartzea baino. Errazagoa da: zeren nahiz eta beste zientzia guztietan arau orokorra gugandik kasu bakoitzaren azterketa bakandu eta propioa baino hurbilago egon bakarrik eta bere buruaren bitartez; alderantziz, arrazoimenaren erabilera kasu jakin batean horren beharrezko prozedura beti hurbilago gelditzen zaigu hartatik abstrahituriko arau orokorra baino, zeren gudan pentsatu egiten duena arrazoimen hori bera baita. Ziurragoa da: zeren askozaz errazago gerta baitaiteke errore bat horrelako jakite abstraktuan edo horren erabilera arrazoimenaren prozedura bat bere funtsaren, bere naturaren aurka joango dena burutzea baino. Hortik dator apartekotasuna, beste zientzietan kasu bakoitzaren egia arauan frogatzen bada, logikan alderantziz araua beti kasu partikularrean frogatu behar da: eta logikaririk trebeenak ere, ohartzen duenean, kasu partikular batean arauak esaten duenaz bestetara atera dela ondorioa, beti akatsa arauan bilatzen du, berak errealki egindako silogismoan baino lehenago. Logikaren erabilera praktikoa egin nahi izateak esan nahiko luke, kasu partikular batean segurtasun handienarekin bitartegabe ezaguna dena, ezin esan ahaleko nekearekin arau orokorretatik deduzitu nahi izatea: zera bezala litzateke, mugimenduak egiteko mekanika eta digestioa egiteko fisiologia kontsultatu nahi izatea: eta logika helburu praktikoetarako irakasten duenak kastore bat bere eraikina jasotzen trebatu nahi duenaren antza du. - Nahiz eta onura praktikorik ez izan, hala eta guztiz ere logika mantendu egin behar da, zeren interes filosofikoa baitu, arrazoimenaren antolakuntza eta egintzaren ezagutza berezi gisa. Diziplina isolatu, berbaitango, bukatu, biribildu eta erabat ziur gisa justifikaturik dago, bere kabuz bakarrik eta beste guztiekiko dependentziarik gabe zientifikoki tratatua eta Unibertsitatean bertan irakatsia izateko: baina bere balio propioa filosofia guztiarekiko harremanean datza ezagutzaren kontsiderazioan, eta zinez, ezagutza razional eta

abstraktuarenean. Horregatik bere irakaskuntzak ez luke izan behar hainbeste praktikara zuzenduriko zientziaren forma, ez lituzke judizioak, silogismoak eta abar zuzen maneiatzeko arauak bakarrik bere baitan izan behar; baizik areago egon beharko luke zuzendurik arrazoimenaren eta kontzeptuaren funtsa ezagutzera eta ezagutzaren arrazoiaren printzipioa xeheki kontsideratzera: zeren horren parafrasi soila baizik ez baita logika, eta zinez propioki arrazoiak judizioei egia ematen dien kasurako, ez enpirikoki edo metafisikoki, logikoki edo metalogikoki baizik. Ezagutza-arrazoiaren printzipioarekin batera gero aipatzekoak dira gainerako hirurak pentsamenduaren oinarritzko legetik hain hurbil daudenak edo egia metalogikoko judizioak, zeinetatik hurrenez hurren arrazoimenaren teknika osoa sortzen baita. Pentsamenduaren funtsa propioki, h. d. judizioen eta silogismoena, kontzeptu-esferen loturatik lehenago adierazitako eran eskema espazialaren arabera aurkezten da eta horretatik judizioaren eta silogismoaren arau guztiak konstrukzioaren bitartez deduzitzen dira. Logikaz egin daitekeen erabilera praktikoa bakarra da aurkariari, eztabaidatzean, ez hainbeste bere paralogismoak baizik eta berariazko sofismak erakustea, horiek izen teknikoez izendatuz. Norabide praktikoa horrela bigarren maila batean uztean, eta, logikak filosofia osoarekin duen lotura agerian jartzean, hartako kapitulu bat bezala, bere ezagutzak ez luke orain den baino bakanagoa izan beharko: zeren gaur egun gai nagusian landu gabe geratu eta ezjakintasunean harrapaturiko multzo ezjakinean sartu nahi ez duen orok filosofia espekulatiboa ikasi behar du: eta hori hemeretzigarren mende hau filosofikoa delako; eta horrekin ez da hainbeste filosofiaren jabe dela esan nahi edo filosofia dela hartan nagusi, baizik eta filosofiarako helduta dagoela eta horregatik erabateko premia duela: hori formazio handiko seinalea da, baita puntu finko bat ere denboren kulturaren eskalan¹⁸.

Nahiz eta logikak onura praktikorik ez izan, hala ere ez dago ukatzerik helburu praktikorako asmatua izan zela. Bere sorrera honela azaltzen dut nik. Eleata, megariko eta sofisten artean eztabaidatzeko zaletasuna gero eta gehiago garatu eta pixkanaka adikzio izateraino iritsi zelarik, ia eztabaida bakoitzean sortzen zen nahasmenduak laster sentiarazi bide zien prozedura metodiko baten beharrezkotasuna, zeinarako sarrera gisa dialektika zientifiko bat bilatu behar baitzen. Lehenik ohartu bide zuten eztabaidan ari ziren alderdiek bat etorri behar zutela printzipio bakar batean, zeinara gatazkako puntuak murriztu behar baitziren eztabaidakoan. Prozedura metodikoaren hasiera elkarrekin berrezaguturiko printzipio horiek halakotzat formalki adieraztean zetzan eta ikerketaren gailurrean ezartzean. Printzipio horiek hasiera batean ikerketako materialarekin bakarrik zuten zerikusia. Baina laster konturatu ziren elkarren artean berrezaguturiko egiara itzuli eta beren baieztapenak hartatik deduzitzeko erak eta moduak ere forma eta lege jakin batzuk jarraitu behar zituztela, zeinetaz, nahiz eta alde zuzeneko adostasunik ez izan, inoiz ez baitzen iritzi desberdintasunik izaten, eta hortik ikusi zen ikerketaren alderdi formalak izan behar zuela bere esentzian zetzan arrazoimenaren joaira propioa. Nahiz eta hori inoiz ez egon zalantza eta iritzi-desberdintasunaren pean, pedanteriaraino iristen zen buru sistematikoren bati bururatu bide zitzaion itxura ona izango zuela eta dialektika metodikoaren biribiltzea izango zela, baldin eztabaida ororen alderdi formal hori, arrazoimenaren beraren erregulariki beti jardute hori, halaber printzipio abstraktutan adierazten bazen, zeina azterketako materialari zegokionez, elkarren artean berrezaguturiko printzipioak azterketaren gailurrean ezarri baitziren eztabaidatzearen beraren kanon finkotzat, zeinara beti jo eta, zeinean beti oinarritu behar baitzen. Horretara, ordu arte isileko

adostasunez jarraitu eta instintuaren arabera praktikatu zena, orain kontzientziarekin legetzat berrezagutu eta formalki adierazi nahi zen bezala, pixkanaka gero eta adierazpen gutxi-asko perfektuak aurkitu ziren oinarri-printzipio logikoetarako, hala nola, kontraesan printzipioa, behar besteko arrazoiaren printzipioa, hirugarrena baztertzearena, [guztiz eta bakarraz esana], baita silogistikaren arau espezialagoak ere, adibidez, [premisia partikular soiletatik edo negatibo soiletatik ez da ezer segitzen; ondoriotik premisarako segida ez da baliozkoa] eta eta abar. Baina hau oso astiro eta asko kostata gertatu zela eta Aristotelesen aurretik dena zeharo osagabe zegoela, elkarrizketa platoniko askotan egia logikoak argitara ateratzen diren era baldar eta xehetuan ikusten dugu parte batean, hobeki oraindik Sexto Enpirikok megarikoen eztabaidei buruz lege logiko erraz eta sinpleenez eta haiek argitan jartzen zituzten era neketsuaz berri ematen digunetik. (Sextus Empiricus, lib. 8, p. 112 seqq.) Baina Aristotelesek aurretik aurkitutakoa bildu, ordenatu, zuzendu eta paregabeko perfektzio garaira eraman zuen. Baldin eta horretara begiratzen badiogu, nola kultura grekoaren joairak Aristotelesen lana aldeztu aurretik prestatu eta burutu duen, ez gara oso makurtuak sentituko idazle pertsiarren baieztapenari fede ematera, zeina Jonesek, erabat konbentziturik, komunikatzen baitigu, h. d. Kalistenesek indoen artean logika landu bat aurkitu zuela eta Aristoteles bere osabari bidali ziola (4. libkia, 163 or.) - Erraz ulertzen da Erdi Aro ilunean, ezagutza erreal ororen gabezia formulaz eta hitzez bakarrik elikatzen zen eskolastikoen espiritu eztabaidazaleak ongi etorri hoberena egin izana logika aristotelikoari, eta arabiarren mutilazioetan beraietan ere gutiziaz atzeman eta laster jakite ororen erdigune izatera jaso izatea. Bere itxurari dagokionez ordutik jausia badago ere, gure garaia arte kredituan egon da zientzia autonomo, praktikoa eta oso beharrezkotzat: gure egunotan filosofia kantiarrak, zeinek bere oinarria propioki logikatik hartu baitu, berriro harekiko interes berria piztarazi du, zeinak ikuspegi horretatik, h. d. arrazoimenaren funtsa ezagutzeko bitarteko gisa, merezi baitu noski.

Silogismo zorrozki zuzenak kontzeptu-esferen harremana zehatz kontsideratzetik sortzen diren bezala, baldin eta esfera bat beste batean eta hori berriro hirugarren baten barruan badago, orduan bakarrik lehena ere hirugarrenean osoki sartutzat berrezagutzen da; horrela, aitzitik pertsuasioaren artea kontzeptu-esferen harremanen kontsiderazio azaleko baten mendean datza eta gero asmoen arabera era alderditar batean determinaturik, eta nagusiki zeragatik, kontsideraturiko kontzeptuaren esfera parte batez bakarrik dagoelako beste batean, baina parte batez zeharo desberdin batean eta erabat lehenean edo erabat bigarrenean dagoena bezala aurkezten da, hizlariaren asmoaren arabera. Adibidez, grinaz hitz egiten bada indar handienaren kontzeptupean, munduko agens ahaltsuena bezala nahierara subsumi daiteke edo arrazoigabeziaren kontzeptupean eta hori ezintasunaren, ahuleziaren azpian. Prozedura bera jarrai daiteke eta diskurtsoa eratzen duten kontzeptu bakoitzean berriro erabil. Ia beti kontzeptu baten esferan beste askoz gehiago sailkatzen dira, zeinetarik bakoitzak lehenaren eremuaren atal bat bere baitan hartzen baitu, nahiz eta beste batzuk gehiago ere besarkatzen dituen: azken kontzeptu-esfera horietatik bat bakarrik argitu behar da, zeinaren azpian lehen kontzeptua subsumitu nahi baita, bitartean gainerakoak kontuan hartu gabe edo ezkutaturik uzten direla. Artifizio horretan dute oinarria pertsuasio-arte guztiek, sofismarik finenek: zeren *mentiens*, *velatus*, *cornutus*¹⁹ bezalako logikoak zakarregiak baitira erabilera errealerako. Nola ez dudan ezagutzen orain arte sofistiazio eta pertsuasio ororen funtsa azken arrazoi horretara bere ahaltsuna murriztu duenik eta hori kontzeptuen osaera

berarizkoan, h. d. arrazoimenaren ezagutzeko eran demonstratu denik; azaldu egin nahi dut, nire aurkezpenak horretara eramanez nauekarik, gaia, nahiz eta oso erraza izan, ondoren doan taulako eskemaren bitartez, zeinek erakutsiko baitu, nola kontzeptu-esferak askotan elkarrekin bat datozen eta horren bitartez hautazkotasunari jokorako aukera ematen zaion, kontzeptu bakoitzetik honetara edo hartara iragateko. Gauza bat ez dut nahi, taularen bitartez gidatu izanagatik, iraizeko azalpentxo honi bere naturaren arabera eduki dezakeena baino garrantzi handiagoa inork ematea. Adibide argigarritzat bidaiatze kontzeptua hautatu dut. Bere esferak beste lauren eremua ukitzen du, zeinetako bakoitzera pertsuaditzailea gogara iragan baitaiteke: horiek beren aldetik beste batzuk ukitzen dituzte, horietako askok aldi berean bi edo gehiago, zeinen bitartez pertsuaditzaileak nahierara bere bidea hartzen baitu, beti bakarra bailitzan, eta gero azkenik, bere asmoa izan denaren arabera, onean edo txarrean kokatzen da. Alabaina esferak jarraitzean norabideak beti erdigunetik (emandako kontzeptu nagusitik) periferiara iraun behar du, ez du atzera joan behar. Horrelako sofistikazio baten janzkera ohiko diskurtsoa izan daiteke edo silogismo zorrotz bat, entzulearen alderdi ahulak kontseilatzen duenaren arabera. Barrenean, demostrazio zientifikoak, bereziki filosofikoak ez dira bestetara eratzen: nola izango zatekeen ahalgarri bestela, hainbeste gauza garai desberdinetan ez soilik oker hartua izatea (zeren erroreak berak beste jatorri bat baitauka), baizik eta demonstratu eta frogatua izatea, nahiz eta gero oinarri faltsua zutela aurkitu izan, adibidez, Leibniz eta Wolferen filosofia, astronomia ptolemaikoa, Stahlen kimika, Newtonen koloreen teoria eta abar eta abar²⁰.

§ 10

Horren guztiaren bitartez gero eta hurbilago agertzen zaigu galdera, nola lortu behar dugun ziurtasuna, nola oinarritu behar diren judizioak, zertan datzan jakitea eta zientzia, zeina hizkuntzarekin eta ekintza hausnartuarekin batera arrazoimenaren bitartez emandako hirugarren pribilegio handitzat goratzen baitugu.

Arrazoimenak izaera femeninoa du: jaso eta gero bakarrik eman dezake. Berez bere eragitearen forma edukigabeak besterik ez dauka. Arrazoimen-ezagutza erabat hutsa lau printzipioek bakarrik ematen dute, zeina nik egia metalogikoei egozten baitiet: beraz, identitatearen, kontraesanaren, hirugarrena baztertzearen eta behar besteko ezagutza-arrazoiaren printzipioak.

Zeren logikaren gainerakoa bera ere ez baita arrazoimen-ezagutza erabat hutsa, zeren kontzeptuen esferen harremanak eta konbinazioak suposatzen baititu: baina kontzeptuak, oro har, aldeztu aurretiko errepresentazio begiesgarrien arabera existitzen dira, eta horiekiko harremanak eratzen die beren funts osoa, zeina ondoren suposatzen baitute. Baina supostu hori kontzeptuen eduki determinatzailea ez, baizik eta orokorrean haren existentzia batera bakarrik hedatzen da; horrela logikak osotasunean harturik arrazoimen-zientzia huts gisa balio dezake. Gainerako zientzia guztietan arrazoimenak errepresentazio begiesgarrietatik hartzen du edukia: matematikan, esperientzia ororen aurretik begiesmenez jakindako espazioa eta denboraren erlazioetatik; natur zientzia hutsean, h. d. esperientzia ororen aurretik naturaren joairaz dakigun horretan, zientziaren edukia arrazoimen hutsetik sortzen da, h. d. kausalitatearen legearen a priori ezagutzatik eta horrek espazioaren eta denboraren begiespen huts harekin duen loturatik. Beste zientzia guztietan, aipaturiko horrietatik mailegatu ez den guztia, esperientziari dagokio. Jakiteak oro har esan nahi du: halako judizioak bere espirituaren esku hautaz birsortzeko edukitzea, zeinek beren baitatik kanpora beste zerbaitetan beren behar besteko ezagutza-arrazoa baitute, h. d. egiazkoak baitira. Ezagutza abstraktua bakarrik da jakitea; horregatik dago arrazoimenak baldintzatua, eta animaliez ezin dezakegu esan, zentzu hertsian, zerbait dakitenik, nahiz eta ezagutza begiesgarria, eta horregatik, oroimena eta fantasia ere baduten, gainera amets egiteak ere frogatzen duena. Kontzientzia (*Bewußtsein*) egozten diegu, zeinaren kontzeptua ondorioz, nahiz eta hitza jakitetik (*wissen*) hartua izan, bat datorren errepresentazioarenarekin oro har, zeinahi eratakola dela ere. Horregatik landareari bizia egozten diogu, baina kontzientziarik ez. - Jakitea, beraz, kontzientzia abstraktua da, arrazoimena, beste era batean oro har ezagutua kontzeptutan finkaturik edukitzea.

§ 11

Ikuspegi honetatik jakitearen benetako oposizioa sentimendua da, zeinaren azterketa hemen egingo baitugu beraz. Sentimendu hitzak izendatzen duen kontzeptuak eduki negatiboa baizik ez dauka, h. d. kontzientzian presente dagoen zerbait, ez dela kontzeptua, ez dela arrazoimenaren ezagutza abstraktua: gainerakoan, nahi duena izan litekeelarik, sentimendu kontzeptuaren azpian dago, zeinaren esfera neurgabeki zabalak gauzarik heterogeneoenak hartzen baititu, zeinetaz ez baita inoiz ulertzen, nola bateratzen diren, harik eta ezagutu ez den arte, ikuspegi negatibo horretan bakarrik, kontzeptu abstraktuak ez izatean datozela bat. Zeren elementu desberdinenak, etsaikorrenak elkarrekin lasai baitaude kontzeptu horretan, h. d. sentimendu erlijiosoa, atseginaren sentimendua, sentimendu morala, gorputzezko sentimendua ukimen bezala, oinaze bezala, koloreetarako, doinuutarako sentimendu bezala eta zeinen harmoniak eta disharmoniak, gorrotoa, laborria, norbere gogobetetasuna, ohorea, lotsa, bidezkoa, bidegabearen sentimendua, egiaren sentimendua, sentimendu estetikoa, indarra, ahulezia, osasuna, adiskidetasuna, maitasuna eta abarren eta abarren sentimendua. Ez dago inolako komuntasunik horien artean negatiboa, arrazoimen-ezagutza abstraktua ez direlakoa izan ezik; baina hori guztiz bitxia gertatzen da harreman espazialen a priori ezagutza begiesgarria eta adimen hutsarenak erabat kontzeptu haren azpian sartzen direnean eta oro har ezagutza ororenak, egia ororenak, zeinetaz begiespenez bakarrik izaten baita kontzientzia, baina kontzeptu abstraktutan oraindik ezarri gabe, horietaz sentitu egiten direla esaten da. Horri buruz argigarri gisa liburu berrietatik ateratako adibide batzuk ezarri nahi ditut,

nire azalpenaren sendogarri ukaezinak baitira. Gogoan dut, Euklidesen alemanierazko itzulpen baten sarreran irakurri nuela, geometrian hasiberriei figura guztiak marrazten utzi behar zaiela, frogatzera iragan aurretik, horrela egia geometrikoa, frogapenek ezagutza osatua eman baino lehen, alde aurretik sentituko zuketelako. - Era berean hitz egiten da Friedrich Schleiermacherren n sentimendu logiko eta matematikoaz (339 or.), baita bi formularen berdintasun eta desberdintasun sentimenduaz ere (342 or.); gainera Tennemannen k, 1. libkian, 361. orrialdean, hau dio; - Baina sentimendu kontzeptu horiek ikuspegi zuzenetik kontsideratzen ez den bitartean eta bere ezaugarri negatibo hura, berari bakarrik esentzial zaiona, aitortzen ez den bitartean gaizki-ulertze eta polemikatarako etengabeko aukera emango du bere esferaren neurriz kanpoko hedaduragatik eta bere eduki negatibo soil, erabat alderdi bakarretik determinatu eta urriarengatik. Alemanez sentsazio (Empfindung) hitz baliokide samarra daukagularik, erabilgarria litzateke, soineko sentimenduentzat azpimota gisa hori erabiltzea. Baina sentimendu kontzeptu beste guztiekiko desproporzionatu horren jatorria zalantzarik gabe honako hau da. Kontzeptu guztiak, eta kontzeptuak bakarrik izendatzen dituzte hitzek, arrazoimenarentzat bakarrik existitzen dira, hartatik sortzen dira: horiekin jada kokagune partzial batean gaude, hortaz. Baina horrelako batetik hurbilekoa argiago agertu eta positiboki ezartzen da; urrunekoagoa batera jariatzen da eta berehala negatiboki soilik kontsideratzen da: horrela izendatzen du nazio bakoitzak bestea arrotz, grekoak beste guztiak barbaro, ingelesak Ingalaterra edo ingelesa ez den guztia continent edo continental, fededunak beste guztiak herese edo jentil, nobleak beste guztiak roturiers, estudianteak beste guztiak filisteo eta abar eta abar. Alderdikeria hau bera, esan daiteke: harrokeriazko ezjakintasun gordin hau bera egotzi behar zaio, bitxia badirudi ere, arrazoimenari, kontzientziaren modifikazio oro sentimendu kontzeptu bakar beraren azpian atzematen baitu, berari dagokion errepresentazio-era bitartegabea ez izanez gero, h. d. kontzeptu ez abstraktua. Hori penatu behar izan du orain arte gaizki-ulertze eta errakuntzen bitartez bere eremu propioan, zeren bere prozedura propioa oinarritzko autoezagutzaz argi geratu ez zaiolako, sentimendu-ahalmen berezi bat ere asmatu eta orain horren teoriak ere eraikitzen dituelarik.

§ 12

Jakitea, zeinaren kontraparte kontraesankor gisa nik arestian sentimendu kontzeptua aztertu baitut, jadanik esan dudanez, ezagutza abstraktua da, h. d. arrazoimen-ezagutza. Baina nola arrazoimenak beti beste nonbaitetik jasotakoa ezagutzaren aurrean jartzen digun, horrela ez du propioki gure ezagutzea hedatzen, beste forma bat hari ematea baizik ez du egiten. Hau da, begiespenez, in concreto ezagutua izan dena, abstraktuki eta orokorki ezagutarazten du. Hori, ordea, askozaz garrantzizkoagoa da, horrela adierazita, lehen begiratuan dirudiena baino. Zeren ezagutzaren gordetze ziur oro, komunikagarritasun ziur oro eta aplikazio ziur eta hedatu oro alor praktikoan haren mendean baitago, jakite bat, ezagutza abstraktu bat bihurtu izanarenean. Ezagutza begiesgarriak beti kasu partikularraz bakarrik balio du, hurbilekoenera bakarrik iristen da eta horretan irauten du, zeren sentikortasunak eta adimenak propioki objektu bakarra atzeman baitezakete aldiko. Ekintza sustengatu, osatu eta planifikatu orok oinarri-printzipioetatik, horrela jakite abstraktu batetik abiatu behar du eta horren arabera gidatua izan behar du. Horrela, adibidez, adimenak kausa eta efektuaren harremanaz duen ezagutza, egiatan

berez askozaz perfektu, sakon eta agortzaileagoa da, hartaz in abstracto pentsa daitekeena baino: adimenak berak bakarrik begiespenez bitartegabe eta perfektuki berrezagutzen du palanka baten, polipasto baten, gurpil horzdun baten, ganga batek bere baitan atsedena hartzearen eta abarren eragiteko era. Baina jadanik aipatu den ezagutza intuitiboaren gaitasunarengatik, presente bitartegabera bakarrik joatearengatik, adimen soila ez da makinak eta eraikinak egitera iristen: aitzitik, arrazoimenak sartu behar du hemen begiespenen lekuan kontzeptu abstraktuak ezartzera, horiek eragitearen gidaritzat hartzera, eta zuzenak baldin badira, orduan arrakasta gertatuko da. Era berean begiespen hutsean bikain berrezagutzen ditugu parabola baten, hiperbola baten, espiral baten funtsa eta erregularitasuna; baina ezagutza horretatik errealitatean erabilera ziurra egiteko, aurrena jakite abstraktu bihurtu behar da, bere begiesgarritasuna galduz, baina horrela jakite abstraktuaren ziurtasun eta determinazioa irabaziz. Kalkulu diferentzial orok ere ez du hedatzen kurbei buruzko gure ezagutza, begiespen huts soilak lehendik horietaz duena baino gehiago ez dauka bere baitan; baina ezagutzaren era aldatu egiten du, begiesgarria dena abstraktu bihurtzen du, erabilerarako hain arrakasta nabarmeneko dena. Hemen orain gure ezagumenaren propietateetako baten aipamena egingo dugu, orain arte ongi oharrarazi ahal izan ez duguna, ezagutza begiesgarri eta abstraktuaren arteko desberdintasuna ez baitzegoen erabat argitua. Hau da, espazioko harremanak bitartegabe eta horrelakoak diren heinean ezin direla ezagutza abstraktura garraiatu, baizik horretarako denborazko handierak soilik, h. d. zenbakiak direla egokiak. Zenbakiak bakarrik adieraz daitezke soilik haietan zehatz dagozkien kontzeptu abstraktutan, ez handiera espazialak. Mila kontzeptua hamar kontzeptuaren aldean halakoxe eran da desberdina, nolakoxeak diren biak denborazko handierak begiespenean: milaren kasuan hamarren anizkun jakin bat pentsatzen dugu, zeinean hura denboran disolba baitezakegu begiespenerako, h. d. zenbatu ahal izateko. Baina milia baten eta oin baten kontzeptu abstraktuaren artean, bien errepresentazio begiesgarriarik gabe eta zenbakiaren laguntzarik gabe, ez dago desberdintasun zehatz eta handiera hari berari dagokionik. Bietan, oro har, handiera espazial bakar bat bakarrik pentsatzen da, eta biak nahikoa bereizi ahal izateko, orduan edota begiespen espaziala lagungarritzat hartu behar da, beraz ezagutza abstraktuaren eremutik alde egin, edota desberdintasuna zenbakitan pentsatu behar da. Harreman espazialen ezagutza abstraktua izan nahi bada, aurrena denborazko harreman, h. d. zenbaki bihurtu behar dira: horregatik aritmetika bakarrik da, ez geometria handieren teoria orokorra, eta geometria aritmetikara itzuli behar da, alor praktikoan komunikagarritasuna, determinazio zehatza eta erabilgarritasuna izan nahi baditu. Egia da harreman espazial bat horrelakoa den heinean in abstracto ere pentsa daitekeela, h. d. , baina harreman horren handiera eman nahi izanez gero, zenbakia behar da. Beharrezkotasun hori, espazioa bere hiru dimentsioekin denborara, dimentsio bakarra duen horretara itzuli behar izatea, baldin eta bere harremanen ezagutza abstraktu bat (hau da, jakite bat, ez begieste soil bat), beharrezkotasun hori da matematika hainbeste zailtzen duena. Hori oso argi gelditzen da kurben begiespena horien kalkulu analitikoarekin erkatzen badugu edo funtzio trigonometrikoen logaritmoen taulak triangeluaren aldean harreman aldakorren begiespenarekin soilik, zeina haren bitartez adierazten baita: hemen begiespena begirada bakarrean perfektuki eta doitasun handienaz atzematen dena, h. d. kosinua nola urritzen den, sinua hazten ari den heinean, nola angelu baten kosinua bestearen sinua den, bi angeluen urritze eta haztearen alderantzizko harremana eta abar, zeinen zenbakizko ehundura eskerga, zeinen kalkulu neketsuak behar diren hori in abstracto adierazteko: nola ez ote dugu denbora oinazetu behar bere dimentsio

bakarrarekin, hala esan daiteke, espazioaren hiru dimentsioak birsortzeko! Baina hori beharrezkoa zen, baldin eta erabiltzeko helburuarekin espazioaren harremanak kontzeptu abstraktutan ezarrita eduki nahi bagenituen: bitartegabe ezin ziren haiek honetan sartu, baizik eta denborazko handiera hutsaren, zenbakiaren, bitartekaritzaren bidez, zeina ezagutza abstraktuari bakarrik egokitzen baitzaio bitartegabe. Halaber ohargarria da, espazioa begiespenari hainbeste egokitzen zaion bezala eta bere hiru dimentsioen bitartez, oso harreman konplikatua erraz besarkatzen baititu, aitzitik ezagutza abstraktuari ihes egiten dio; alderantziz, denbora erraz sartzen da kontzeptu abstraktuetan, aitzitik begiespenerako ez da batere egokia: zenbakien gure begiespena bere elementu propioan, denbora soilean, espazioaren laguntza gabe, ozta-ozta iristen da hamarrera; hortik aurrera kontzeptu abstraktuak bakarrik ditugu, jadanik ez zenbakien ezagutza begiesgarririk: aitzitik zenbaki-hitz bakoitzarekin eta zeinu algebraiko guztiekin kontzeptu abstraktu zehazki determinatuak lotzen ditugu.

Horrekin batera hemen kontuan hartzekoa da adimen askok ezagutza begiesgarriarekin bakarrik aurkitzen dutela gogobetetasun osoa. Espazioan izateko arrazoiak eta jarraipena begiesgarriki aurkeztua, hori da bilatzen dutena: euklidear frogak edo problema espazialen ebazpen aritmetikoa ez zaie interesatzen. Beste inteligentzia batzuek, aitzitik, aplikazio eta komunikaziorako bakarrik erabilgarriak diren kontzeptu abstraktuak: pazientzia eta oroimena dute printzipio, formula, arrazoiketen katea luzeen bitartezko frogaketa eta kalkuluetarako, zeinen zeinuen abstrakzioari konplikatuenak ordezkatzeko baitituzte. Horiek determinazioa bilatzen dute; haiek begiesgarritasuna. Desberdintasuna karakteristikoa da.

Jakiteak, ezagutza abstraktuak, bere baliorik handiena komunikagarritasunean eta finkaturik gordetzeko ahalasunean dauka: horregatik bakarrik da alor praktikorako hain estimaezinko garrantzitsua. Pertsona batek gorputz naturalen aldaketa eta higiduren lotur kausalaz ezagutza begiesgarri bitartegabea izan lezake adimen soilean eta horretan gogobetetasun osoa aurki dezake; baina komunikaziorako bidaltzen da, kontzeptutan finkatu eta gero. Arlo praktikorako lehen erako ezagutza aski da, hori burutzea bere gain bakarrik hartzen badu, eta noski, ezagutza begiesgarria oraindik bizirik dagoela, burutu daitekeen egintza batean; ez ordea, inoren laguntza edo aldi desberdinetan buruturiko egintza propioa eta horregatik plan hausnartua behar badu. Horrela, adibidez, billar-jokalari trebe batek gorputz elastikoen arteko talka-legeen ezagutza perfektua izan dezake, adimenarekin soilik, begiespen bitartegaberako, eta horrekin aski du: aitzitik, mekanikari zientifikoak bakarrik dauka lege horien ezagutza egokia, h. d. horren in abstracto ezagutza. Makinak eraikitzeko ere aski da adimen-ezagutza begiesgarri soil hori, makinaren asmatzaileak berak bakarrik burutzen duenean, inolako zientziaren jabe ez diren eskulangile talentudunengan sarritan ikusten denez: aitzitik, pertsona bat baino gehiago eta ekintza osatu bat, denboragune desberdinetan gertatzen dena operazio mekaniko bat, makina bat, eraikin bat burutzeko behar direnean, hori gidatzen duenak beharrezkoa du plana in abstracto zirriborratua edukitzea, eta arrazoimenaren laguntzaz bakarrik da ahalgarri ekintza elkarreragile hori. Ohargarria da, hala ere, lehen erako ekintza hartan, zeinean bakarrik soilik zerbait burutu behar baitu egintza etengabea, arrazoimenaren erabilera, erreflexioa eragozpen ere izan daitekeela jakitea, adibidez, billarrean jokatzeko, eskriman, instrumentu bat erabiltzeko, kantatzeko: hemen ezagutza begiesgarriak bitartegabe gidatu behar du jardura: erreflexioaren bitartez burutzeak ziurrez bihurtzen du, arreta banatu eta gizakia nahasten duen heinean. Horregatik basati eta gizaki landugabeek, pentsatzera

oso gutxi ohituta daudenek, soin-ariketa asko, animaliekiko borroka, geziaz jotzea eta antzekoak europar erreflexiogileak lortzen ez dituen ziurtasun eta lastertasunez burutzen dituzte, hain zuzen ere bere gogoetak kolokarazi eta ezbaian jartzen dituelako: zeren adibidez, kokagune zuzena edo denboragune zuzena bi mutur faltsutatik distantzia berera bilatzen saiatzen baita; natur gizakiak bitartegabe aurkitzen du hori, desbidean gogoeta egin gabe. Halaber, ez dit niri laguntzen bizarra mozteko labana jarri behar dudan angelua, gradu eta minutuekin in abstracto ematen jakiteak, baldin eta begiespenez ezagutzen ez badut, h. d. praktikarik ez badaukat. Era berean nahasgarria da arrazoimena erabiltzea fisiognomia ezagutzeko: horrek ere bitartegabe gertatu behar du adimenaren bitartez; zertzeladen esangura adierazpena sentitu bakarrik egiten da, esaten da, hots, ez da kontzeptu abstraktutan sartzen. Gizaki orok dauka bere fisiognomika begiesgarri bitartegabea: hala ere, batek argiago berrezagutzen du besteak baino 21 [gauzen ezaugarritzea] hura. Baina in abstracto fisiognomika bat irakatsi eta ikasteko ez dago eratzerik; zeren ñabardurak hemen hain dira sotilak, non kontzeptua ez baita haietaraino iristen; horregatik jakite abstraktuak haiekiko mosaikoz egindako koadro batek Van der Werft edo Denner-en batekiko bezala jokutzen du; nahiz eta denik eta finena izan mosaikoa, beti gelditzen dira harriaren mugak eta horregatik ez da posible tindu batetik besterako igarobide iraunkorra; horrela dira kontzeptuak ere beren zurruntasun eta mugaketa zorrotzarekin, determinazio zehatzagoz nahiz eta oso sotilki zatitu nahi izan, ez da inoiz gai izango begiesgarriaren modifikazio sotilak lortzeko, zeinetara hemen adibidetzat hartutako fisiognomika iristen baita²².

Kontzeptuen aipaturiko osaera hori, mosaikoaren irudien antzeko bihurtzen duena eta, zeinen indarrez, begiespena beti haren asintota bezala gelditzen baita, hori da arrazoia, artean beren bitartez ezer onik ez egiteko. Kantariak edo virtuosoak bere emanaldia erreflexioaren bitartez gidatu nahi badu, orduan hilik geratzen da. Gauza berak balio du konpositoreei, pintoreei, poetei buruz: kontzeptua beti antzua da arterako; horretan teknika dena bakarrik gida lezake: zientzia du bere eremua. Hirugarren liburuan ikertuko dugu zergatik benetako arte oro ezagutza begiesgarritik sortzen den, inoiz ez kontzeptutik. - Portaeraren ikuspegitik bertatik ere, maneren atsegingarritasun pertsonalarekiko ere kontzeptua negatibo gisa agertzen da, egoismoaren eta aberekeriaren purrustada zakarrei eusteko, kortesia bere obra laudagarria den bezalaxe; baina gure portaeraren erakarmena, grazia, atsegina, maitagarri eta adiskidezkoa ezin liteke kontzeptutik sortua izan: zeren

Sentitzen da asmoa, eta atsekabetzen gara.

[Goethe, 2, 1]

Simulazio oro erreflexioaren obra da; baina luzaroan eta etengabe ez dago hari eusterik: [nemo enim potest personam diu ferre; ficta cito in naturam suam recidunt. - Inork ezin du luzaroan mozerroa erabili; simulazioa laster itzultzen da bere izaera propiora]», dio Senekak liburuan eta gehienetan ezagutu egiten da eta eragin guztia galtzen du. Bizitzako kinketan, erabaki bizkorrak, egintza ausartak gauzei laster eta irmo heltzea behar denean, egia da arrazoimena beharrezko dela, baina gaina hartzen badu eta bilaketa intuitibo, bitartegabe, adimen hutsezkoa eta aldi berean zuzena dena atzematea nahasmenduz eragozten badu, eta erabakirik eza sortzen badu, erraz honda dezake guztia.

Azkenik bertutea eta santutasuna bera ere ez dira erreflexiotik sortzen, baizik eta nahimenaren sakontasun barnekotik eta ezagutzarekiko bere harremanetik. Azterketa hori idatzi honetako beste pasarte batekoa da: hala ere, hemen oharraraz dezaket etikarekin harremana duten dogmak nazio osoen arrazoimenean ber-berak izan

daitezkeela, baina gizabanako bakoitzarengan egintza beste bat, baita alderantzizkoa ere: egintza esan ohi denez, sentimenduen arabera gertatzen da: hau da, ez kontzeptuen arabera soilik, eduki etikoen arabera. Dogmek arrazoimen nagia lanpeturik edukitzen dute: egintza azkenik independente ibiltzen da harekiko bere joairan, gehienetan ez maxima abstraktuen arabera, baizik esan gabekoen arabera, zeinen adierazpena gizaki osoa bera baita. Horregatik, nahiz eta herrien dogma erlijiosoak oso desberdinak izan, toki guztietan egintza ona esan ezinezko gogobetegarritasunez lagundurik agertzen da eta txarra izulaborri amaigabeaz: ez dago lehenak kordokarazi duen isekarik; ez dago besteetatik libratuko duen aitorrentzulearen absoluziorik. Hala ere, bizimodu bertutetsua burutzeko arrazoimena erabiltzea beharrezkoa dela ez dago ukatzerik,: baina bera ez da horren iturria; baizik bere funtzioa da, mendekoa, hartutako erabakiei eustea, maximak betetzea aldiuneko ahuleziaren kontra eta egintzaren kontsekuentziarako. Gauza bera egiten du, azkenik, artean ere, zeinean garrantzitsuenari dagokionez ezin baitu ezer egin, baina hori burutzea sustengatzen baitu, zeren genioa ez baita beti erne egoten, eta horrela obrak atal guztietan biribildua eta osotasuna eratuz egon behar baitu²³.

§ 13

Arrazoimena erabiltzearen onura eta kalteari buruzko kontsiderazio hauek guztiek balio behar dute, argi eta garbi uzteko, nahiz eta jakite abstraktua errepresentazio begiesgarriaren erreflexua izan eta horretan oinarritu, hala ere ez dela berarekin hainbesteraino bat etortzen, non haren lekua har dezakeen denean: aitzitik, inoiz ez da berarekin erabat bat etortzen; horregatik, jadanik ikusi dugunez, giza egintza asko arrazoimenaren eta jokaera hausnartuaren laguntzaz bakarrik burutzen dira, hala ere batzuk hobeki hura erabili gabe. - Hain zuzen ere, ezagutza begiesgarriaren eta abstraktuaren inkongruentzia hori, zeinaren indarrez honako hau hari beti mosaiko-lana pinturari bezala hurbiltzen baitzaio, oso fenomeno bitxi baten arrazoaia ere bada, zeina baita, arrazoimena bezala, giza naturari bakarrik propio zaiona, zeinari buruz orain arte behin eta berriz azalpenak ematen ahaleginak egin diren arren, guztiak askiek izan baitira: barreaz ari naiz. Bere jatorria dela-eta, behartuak gaude hemen horri buruzko azalpen bat ematera, nahiz eta berriro gure joairari trabak jarri. Barrea beti kontzeptu baten eta objektu errealen artean bat-batean hautemandako inkongruentziatik sortzen da eta ez beste ezertatik, zeinaren bitartez nolabaiteko harremanean pentsatuak izan baitira, eta bera ere inkongruentzia horren adierazpena besterik ez da. Sarritan gertatzen da bi objektu erreal edo gehiago kontzeptu bakarraren bitartez pentsatu, eta horren identitatea haletara aldatzea; objektu horien erabateko desberdintasunak, ordea, deigarri bihurtzen du, kontzeptua ikuspegi alderditar batetik bakarrik egokitzen zitzaizela horiei. Sarritan, hala ere, objektu erreal bakar bat izaten da, zeinaren kontzeptuarekiko inkongruentzia, alde batetik arrazoiz subsumitua izan dena, bat-batean sentigarri bihurtzen duena. Zenbat eta zuzenagoa alde batetik horrelako errealitateen subsuntzioa izan kontzeptuaren pean, eta zenbat eta handiagoa eta nabarmenagoa, bestaldetik, harekiko bere desegokitasuna, hainbat indartsuagoa da oposizio horretatik sortzen den barregarritzkoaren efektua. Barre oro subsuntzio paradoxazko, eta ondorioz ezusteko baten zioarekin sortzen da; berdin dio hori hitzen edo egintzen bidez adierazten den. Hori da laburrean barregarritzkoaren azalpen zuzena.

Ez naiz geldituko hemen, horren anekdotak adibidetzat kontatzen, horrela neure azalpena argitzeko: zeren hori hain sinple eta ulergarria baita, non horren premiarik ez duen, eta horren probatzat irakurleak gogoratzen duen edozein gauza barregarri era berean baita egokia. Baina gure azalpena baieztu eta argitu egiten da barregarritzkoaren bi moduen banaketatik, zeinean sailkatzen baita eta zeinak azalpen horretatik sortzen baitira. Edo gerta liteke bi objektu erreal zeharo desberdin edo gehiagoren, errepresentazio begiesgarrien ezagutzan aurrez joatea, eta horiek hautaz biak atzematen dituen kontzeptuaren batasunaren bitartez identifikatzea: barregarritzkoaren mota horri grazia deitzen zaio. Baina alderantzizkoa ere gerta liteke: kontzeptua lehendabizi ezagutzan egotea, eta hartatik errealtatera eta horrekiko eragitera, egintzara joatea: gainerakoan esentzian desberdinak diren objektuak, baina guztiak kontzeptu horretan pentsatuak direnak, era berean ikusi eta tratatuak dira, harik eta gainerakoan duten desberdintasun handia egilearen harridura eta txundimenerako agertu arte: barregarritzkoaren mota horri nabarmenkeria deitzen zaio. Horren arabera, barregarritzko oro graziadun burutapena edo egintza nabarmena da, gero objektuen diskrepantziatik kontzeptuaren identitatara edo alderantziz iragango litzatekeelarik; lehena beti hautazkoa, bigarrena beti ez-hautazkoa eta kanpotik behartua litzateke. Abiagune hori itxuraz behintzat alderantzikatzea eta grazia nabarmenkeria gisa mozorrotzea da gorteko bufoi eta pailazoen artea: horrelakoak, objektuen dibertsitateaz ongi jabeturik, bateratu egiten ditu grazia sekretuarekin kontzeptu baten azpian, zeinatik gero abiatuz ondoren aurkituriko objektuen dibertsitatetik berak prestatu duen ezusteko hura hartzen baitu. - Barregarritzkoaren teoria labur baina behar besteko honetatik ateratzen da, txantxagilearen azkeneko kasua alde batera utzirik, grazia beti hitzetan erakutsi behar dela, nabarmenkeria, berriz, gehienetan egintzatan, baita hitzetan ere, baldin eta bere asmoak adieraztea baizik egiten ez duenean, errealki burutu ordez, edo judizio eta iritzi hutsetan adierazten dituenean.

Nabarmenkeriari dagokio pedanteria ere. Hori sortzen da nork bere adimenean konfiantza gutxi izan eta horregatik kasu partikular batean bitartegabe zuzena dena berrezagutzen uzten ez dionean, eta horren arabera erabat arrazoimenaren gerizapean kokatzen du eta hartaz baliatzen da nonahi, h. d. beti kontzeptu orokor, arau, maximetatik abiatu eta haiei zehazki atxiki nahi zaie, bizitzan, artean, baita ongi portatze etikoan ere. Hortik dator pedanteriari propioa zaion forma, manera, adierazpen eta hitzari oratzea, zeinak hartan gauzaren funtsaren lekuan agertzen baitira. Izan ere, berehala agertzen da kontzeptuaren inkongruentzia errealtatearekiko, agertzen da nola hura ez den inoiz partikularrera jaisten, eta nola bere orokortasuna eta determinazio zurruna inoiz zehazki egokitzen ez zaizkien errealtatearen ñabardura sotil eta askotariko modifikazioei. Pedantea bere maxima orokorrekin ia beti laburregi gelditzen da bizitzan, zuhurtasun, gustu eta baliagarritasunik gabe agertzen da: artean, zeinetarako kontzeptua antzua baita, munstro bizigabe, zurrun eta amaneratuak ekoizten ditu. Ikuspegi etikotik beretik ere zuzen edo jator portatzeko asmoa, ez dago beti maxima abstraktuen bitartez burutzerik; zeren kasu askotan zirkunstantzien amaigabeko izaera sotilki ñabarduratuak beharrezko bihurtzen baitu karakteretik sorturiko zuzena denaren hautapen bitartegabea; aldiz, maxima abstraktu soilak erabiltzeak, batzuetan emaitza faltsuak ematen ditu, erdizka bakarrik egokitzen direlako, beste batzuetan haiek burutzerik ez dagoelako, zeren egilearen karakter indibidualari arrotz baitzaizkio eta horrek ez baitu inoiz erabat engainatzen uzten: horregatik gero inkontsekuentziak etortzen dira. Ezingo genuke Kant pedanteria morala eragiten

duelako ahakarretik erabat libratu, egintza baten balio moralaren baldintzatzat, maxima abstraktu razional hutsengatik, ez inolako isuri eta ez uneko paroxismoarik gabe, bere izatea ezartzen duen heinean; eta ahakar hori da izenburua duen Schillerren epigramaren zentzua. - Batez ere gai politikoetan, doktrinario, teoriko, jakitun eta abarrez hitz egiten denean, pedanteengan pentsatzen da, h. d. gauzak in abstracto bai, baina in concreto ezagutzen ez dituztenengan. Abstrakzioa hurbileko determinazioetan ez pentsatzean datza: baina alor praktikoan horietxek dute garrantzi handiena. Teoria osatzeko beste grazia-sasimota bat aipatu beharra daukagu, hitz-jokoa, calembourg-a, pun-a, zeinekin zentzubikoiztasuna, l'équivoque jar baitaiteke harremanean, zeinen erabilera nagusia obszenitatea (zantarkeria) baita. Graziak bi objektu erreal oso desberdin, ausaz baliatuz, hitz baten azpian ezartzen dituen bezala, horrela ezartzen ditu hitz-jokoak bi kontzeptu desberdin, ausaz baliatuz, hitz baten azpian: kontraste bera sortzen da hemen, baina askozaz hits eta azalekoagoa, zeren hori ez baita gauzen esentziatik sortu, baizik eta izena ezartzearen ausatik. Grazian identitatea kontzeptuan dago, desberdintasuna errealitatean; hitz-jokoan, berriz, desberdintasuna kontzeptuetan dago eta identitatea errealitatean, zeinari baitagokio testua. Konparazio bilatuegia izango litzateke, agian, hitz-jokoa graziarekiko goiko kono alderantzikatuaren hiperbola behekoarekiko dena horixe bera dela esatea. Hitza gaizkiulertzea, ordea, edo quid pro quo-a nahigabeko calembourga, da eta nabarmenkeriak horrekiko graziarekiko bezalaxe jokatzeko du; horregatik sarritan gorraizea duenak nabarmenak bezalako aukera ematen du barrerako, eta komediografo txarrek halakoen premia izaten dute honelakoen ordeaz barre eragiteko.

Nik hemen barrea alderdi psikikotik soilik kontsideratu dut: fisikoari dagokionez n, 2. libkia., 6. kap., § 96, 134. or. ean (lehen edizioa) horretaz aurkeztutakora igortzen dut²⁴.

§ 14

Kontsiderazio askotariko horietatik guztietatik, zeinen bitartez espero baitut desberdintasuna eta harremanak arrazoimenaren ezagutzeko eraren, jakitearen, kontzeptuaren, alde batetik, eta, begiespen sentigarri huts, matematikoan ezagutza bitartegabearen eta adimenaren bidezko kontzepzioaren artean, bestetik, argi eta garbi geldituko zirela, gainera baita sentimendua eta barreari buruzko azalpen episodikoetatik ere, zeinetara gure ezagutzeko eraren harreman ohargarri haien kontsiderazioaren bitartez ia oharkabea gidatuak izan baikara - orain zientziari buruzko azalpen gehiago ematera itzultzen naiz, zeina arrazoimenak gizakiari, hizkuntza eta egintza hausnartuarekin batera hirugarren pribilejio gisa ematen baitio. Zientziaren kontsiderazio orokorrak, hemen aurrean daukagunak, parte batez, bere formarekin izango du zerikusia, beste parte batez, bere judizioen oinarritapenarekin, eta azkenik, baita bere edukiarekin ere.

Jadanik ikusita daukagu, logika hutsaren oinarria alde batera utzirik, jakite orok orokorrean ez daukala bere jatorria arrazoimenean bertan; baizik eta beste era batez ezagutza begiesgarri gisa lortua, hartan ezartzen dela, haren bitartez zeharo beste ezagutza-era bat, abstraktua, izatera iragaten baita. Jakite oro, h. d. kontzientziara in abstracto jasotako ezagutza, benetako zientziarekiko puska batek osoarekiko bezala jokatzeko du. Gizaki orok esperientziaren bitartez, eskaintzen zaion partikularraren kontsiderazioaren bitartez gauza askori buruzko jakite bat

lortzen du; baina edozein erako gauzakien ezagutza osoa in abstracto lortzea helburutzat jartzen duena bakarrik ahalegintzen da zientziaren alde. Kontzeptuaren bitartez bakarrik isola dezake mota hori; horregatik zientzia ororen gailurrean kontzeptu bat dago, zeinaren bitartez gauza guztien osotasunaren partea pentsatzen baita; parte horretatik ezagutza oso bat in abstracto agintzen du; adibidez, harreman espazialen kontzeptua, edo gorputz inorganikoen elkarrekiko eragitea edo landareen, animalien izaera, edo lurberaren gainaldearen aldaketa behin eta berrizkoak edo gizadiaren aldaketak osotasunean edo hizkuntza baten eraikuntzarena eta abar. Zientziak bere objektuaren ezagutza lortu nahi izango balu, kontzeptuaren bitartez banaka pentsaturiko gauzak ikertuz, harik eta pixkanaka osotasuna ezagutu arte; parte batez, giza oroimena ez litzateke horretarako gai izango, eta parte batez, osotasunaren ziurtasunik ez litzateke lortuko. Horregatik baliatzen da goian aipaturiko kontzeptu-esferen propietate hartaz, bata bestea bere baitan hartzearenaz, eta esfera zabalenetara jotzen du nagusiki, zeinak baitaude oro har bere objektuaren kontzeptuaren barruan: horiek beren harremanak elkarren artean determinatzean, horrenbestez horietan pentsaturiko guztia ere orokorrean determinatu egiten da eta gero isolaketan bitartez, gero eta kontzeptu-esfera estuagoak, gero eta zehatzagoak determina daitezke. Horren bitartez posible da zientzia batek bere objektua osoki besarkatzea. Ezagutzara iristeko egiten duen bide hori, h. d. orokorretik partikularrera doana, bereizi egiten da jakite arruntetik: horregatik da forma sistematikoa zientziaren ezaugarri esentzial eta karakteristikoa. Zientzia ororen kontzeptu-esfera orokorrenen lotura, h. d. bere printzipio orokorrenen ezagutza, ezinbesteko baldintza da horien irakaskuntzarako: horietatik printzipio bereziagoetara zer puntutaraino joan nahi den, nahiera-kontua da eta horrek ez du erudizioaren oinarria gehitzen, horren bolumena baizik. - Printzipio gorenaren zenbakia, zeinen mendean baitaude gainerakoan, oso desberdina da zientzia bakoitzean, eta horrela batzuetan subordinazio handiagoa, eta beste batzuetan koordinazio handiago dago; ikuspegi horretatik hark juzgamena, honek berriz oroimena gehiago hartzen du kontuan. Eskolastikoek jadanik ezaguna zuten²⁵, silogismoak bi premisa eskatzen dituelarik, ezin dela proposizio bakarretik, aurreko beste batetik deduzitzen denetik, ezein zientzia sortu, baizik eta gehiago, gutxienez bi izan behar dituela. Zientzia propioki sailkatzaileak: zoologia, botanika, baita fisika eta kimika ere, azken horiek eragite inorganiko oro oinarritzko indar gutxi batzuetara murrizten dituzten heinean, subordinazio handienaren jabe dira; aitzitik, historiak propioki horrelakorik ez du batere, izan ere orokortasuna horretan periodo nagusien laburbilduman ageri baita, zeinatik datu partikularrak ezin baitira deduzitu eta haiei denboraren arabera bakarrik baitaude subordinaturik, kontzeptuaren arabera koordinaturik: horregatik historia, zehatz harturik, jakite bat da, baina ez da zientzia. Matematikan euklidiar metodoaren arabera, axiomak dira printzipio goren frogaezin bakarrak eta demostrazio oro mailaka haiei zorrotz subordinaturik daude: hala ere, metodo hori ez zaio esentzial, eta izatez, teorema bakoitzak eraikuntza espazial berri bat jasotzen du, bere baitan aurrekoekiko independentea dena eta benetan erabat independenteki haietatik ezagut daitekeena, berez, espazioaren begiespen hutsean, zeinean eraikuntzarik nahasiena ere axioma bat bezain bitartegabeki ebidentea baita: baina horretaz aurrerago xehetasun gehiago emango ditut. Bitartean proposizio matematiko oro egia orokor bat da ezin zenbatu ahal kasu partikularretarako balio duena, eta esentzial zaio proposizio sinpleetatik konplikatuertarako joaira mailakatu bat, zeinara murrizt baitaiteke: beraz, matematika edozein ikuspegitatik ere zientzia da. - Zientzia baten perfekzioa horrelakoa den heinean, h. d. formaren arabera, proposizioen subordinazioa ahal den

gehien izatean datza, eta koordinazioa ahal den gutxien. Talentu zientifiko orokorra, beraz, kontzeptu-esferak beren determinazio desberdinen arabera subordinatzeko gaitasuna da zientzia eratzeke, Platonek behin eta berriz gomendatzen zuenez, ez soilik orokorra eta bitartegabe horren azpian askotarikotasun besarkaezina bata bestearen alboan ezarrita; baizik eta orokorrenetik partikularrera ezagutza pixkanaka tarteko kontzeptuen, eta gero eta determinazio hurbilagokoen arabera egindako sailkapenen bitartez jaisteko. Kanten esamoldearen arabera, horri homogeneousitatearen legea eta espezifikazioarena era berean asetzea deitzen zaio. Baina hain zuzen ere, horrek benetako perfekzio zientifikoa eratzen duelako, zientziaren helburua ez dela ziurtasun handiena ateratzen da hortik: zeren hori era berean izan baitezake ezagutza partikular koherentziagabeenak ere; aitzitik, jakitea arintzea bere formaren bitartez eta horren bitartez emandako jakitearen perfekzioaren ahalatasuna. Horregatik oso iritzi normal baina erratua da ezagutzaren zientifikotasuna ziurtasun handiengan dagoelakoa, eta halaber, faltsua da hortik sortutako baieztapena, matematika eta logika bakarrik direla zientziak zentzu propioan; zeren horietan soilik baitago ezagutzaren ziurtasun ezeztalezina beren erabateko aprioritatearengatik. Azken pribilegio hori ezin zaie ukatu: baina horrek ez die uzi berezirik ematen zientifikotasunerako, zeren hori ez baitago ziurtasunean, baizik eta orokorretik partikularrera mailaka jaistean oinarrituriko ezagutzaren forma sistematikoan. - Zientzien bereizgarria den ezagutzaren bide horrek, orokorretik partikularrerakoak, berekin dakar, horietan gauza asko aurreko printzipioetatik dedukzioz, baita frogapenen bitartez oinarrituak egotea ere, eta horrek sorrarazi du errore zaharra, egia frogaturikoa bakarrik delakoa eta egia orok frogapen bat behar duelakoa; areago kontrara, frogapen orok frogatu gabeko egia bat behar du, zeinak azken finean bera edo bere frogapenak euskarritzen baititu: horregatik bitartegabeki oinarrituriko egia bat frogapen baten gainean oinarritutakoa baino hobesgarriagoa da, iturriko ura akueduktukoa baino ere den bezala. Begiespena da, nola a priori hutsa, matematika oinarritzen duena bezalakoa, hala a posteriori enpirikoa, beste zientzia guztiak oinarritzen dituen bezalakoa, egia ororen iturria eta zientzia ororen oinarritzapena. (Logika bakarrik salbuetsi behar da, hori ezagutza ez-begiesgarrian, baina arrazoimenak bere lege propioez duen ezagutza bitartegabeen oinarritzen da.) Ez judizio frogatuak ezta bere frogapenak; baizik eta begiespenetik bitartegabe ateratakoak, eta frogapenik gabe haietan oinarrituriko judizioak dira zientzian eguzkia unibertsoan dena bera: zeren horietatik sortzen baita argi oro, zeinek argizaturik baitira beste batzuk argitzeko gai. Bitartegabe begiespenetik lehen judizio horien egia oinarritzea, zientziaren euskarri horiek gauza errealean multzo besarkaezinetik nabarmentzea; hori juzgamenaren obra da, zeina begiespenez ezagutua zuzen eta zehatz kontzientzia abstraktura pasarazteko ahalmena baita, eta horregatik adimena eta arrazoimenaren arteko bitartekaria. Norbanako batengan ahalmen hori tamaina gailen eta ohiko neurria gainditzen duen batean izateak errealki aurreraraz ditzake zientziak: baina proposizioak proposizioetatik ateratzea, frogatzea, ondorioaztatzea arrazoimen osasuntsua duen edonork egin dezake. Aitzitik, begiesgarriki ezagututakoa kontzeptu egokitan erreflexiorako ezarri eta finkatzea, alde batetik objektu erreal askok komunean dutena kontzeptu baten bitartez, bestetik haien desberdintasuna beste hainbeste kontzepturen bitartez pentsatzen da, eta horrela desberdintasuna bat-etortze alderditar bat gorabehera desberdin bezala, eta identikoa dena, desberdintasun alderditar bat gorabehera, identiko gisa ezagutu eta pentsatzen da, dena kasu bakoitzean nagusi den helburu eta interesaren arabera: hori dena egiten du juzgamenak. Horren gabezia sinpletasuna da. Sinpleak batzuetan ez ditu

ezagutzen zentzu batean identikoa denaren desberdintasun alderditar edo erlatiboa, beste batean desberdintasun erlatibo edo alderditarraren identitatea. Gainerakoan juzgamenaren azalpen horri Kantek egiten duen erreflexibo eta subsumitzaile sailkapena ezar lekiok, zeinak gero objektu begiesgarrietatik kontzeptura edo horretatik haietara iragaten baitira, bi kasuetan adimenaren ezagutza begiesgarriaren eta arrazoimenaren erreflexiboaren artean beti bitartekari izanez. - Ezin liteke egon egia-rik silogismoetatik bakarrik beharrezkotasunez atera litekeenik; baizik eta beharrezkotasuna, horiek silogismoen bitartez soilik oinarritzekoa, beti da erlatiboa, eta subjektiboa ere bai. Frogapen guztiak silogismoak direnez gero, horrela egia berri baterako ez da lehenik frogapena bilatu behar, ebidentzia bitartegabea baizik, eta hori falta zaion artean bakarrik erabili behin behinekoz frogapena. Ez dago zientzia erabat frogagarri-rik; eraikin bat ezin airean egon daitekeen bezalaxe: bere frogapen guztiak begiesgarria den eta horregatik frogagarria ez den zerbaite- ra murriztu behar dira. Zeren erreflexioaren mundu osoa mundu begiesgarrian oinarritu eta errotzen baita. Azkeneko, h. d. jatorrizko ebidentzia oro, begiesgarria da: hitzak berak adierazten du hori. Beraz, edo enpirikoa da, edo esperientzia ahalgarriaren baldintzen a priori begiespenean oinarritua: bi kasuetan hornitzen du horregatik ezagutza inmanentea soilik, ez transzendentea. Kontzeptu bakoitzak du bere balorea eta bere existentzia honetan: oso harreman bitartekotuan bada ere erre- presentazio begiesgarri batean: kontzeptuei buruz balio duenak horietatik osaturiko judizioez ere balio du, eta zientzia guztiez ere bai. Horregatik nolabait ahalgarri izan behar du, egia oro, silogismoen bitartez aurkitu eta frogapenen bitartez komunikatzen dena, frogapenik eta silogismorik gabe ere bitartegabe ezagutzea. Hori zailena proposizio matematiko konplikatu askoren kasuan izango da, noski, zeinetara ondorio-katea batekin bakarrik iristen baikara, h. d. adibidez, korda eta tangenteen kalkulua arku guztiei Pitagorasen teorema- ko ondorioen bitartez egitea; baina horrelako egia bat ere ezin liteke esentzian eta bakarrik printzipio abstraktutan oinarritu, eta oinarrian dauzkan harreman espazialak a priori begiespen hutsarentzat hainbeste nabarmendu ahal behar dira, non bere enuntziazio abstraktua bitartegabe oinarrituko baita. Matematikako frogapenez berehalaxe hitz egingo dugu xeheki.

Tonu garaian hitz egiten da sarritan zientzia batzuez, zeinak erabat premisa ziurretan oinarrituak eta, horregatik, ezeztazink- i egiazkoak baitira. Ondorio-katea logiko hutsen bitartez bakarrik, nahiz eta premisak ere egiazkoak izan, inoiz ez da jadanik premisetan zegoena argitu eta azaltzea besterik lortzen: explicite aurkeztuko da, han bertan implicite ulerturik zegoena. Zientzia sonatu horien aipamena egiten denean, bereziki matematikoak, batez ere astronomia esan nahi izaten da. Azken horren ziurtasuna a priori emandako, beraz hutsezina den espazioaren begiespen bat oinarrian izatetik dator, harreman espazial guztiak bata bestetik beharrezkotasun batekin (izatearen arrazoia), zeinak a priori ziurtasuna ematen baitu, jarraitu eta horregatik ziurtasunez bata bestetik deduzitzen baitira. Determinazio matematiko hauei natur indar bakar bat gehitzen zaie, pisutasuna, zeinak zehazki masen eta distantziaren karratuarekiko harremanean eragiten baitu, eta azkenik, kausalitatetik jarraitzen delako a priori ziurtaturiko inertziaren legea, masa horietako bakoitzari behin betiko ezarritako higidura datu enpirikoarekin batera. Hauxe da astronomiaren material osoa, zeina bere sinpletasun eta bere ziurtasunaren bitartez finkatu eta objektuen tamaina eta garrantziarengatik, emaitza guztiz interesgarrietara gidatzen baitu. Adibidez, planeta baten masa eta bere satelitearekiko distantzia ezagutzen badut, orduan

ziurtasunez ondoriozta dezaket bira emateko behar duen denbora, Keplerren bigarren legearen arabera: lege horren oinarria da distantzia horretara lastertasun horrek bakarrik eusten diola sateliteari aldi berean planetari loturik, eta ez diola horren gainera erortzen uzten. - Beraz, horrelako oinarri geometriko baten bitartez, h. d. a priori begiespen baten bitartez, eta gainera natur lege baten erabilpenaz, ondorioak aurrera eramane daitezke; zeren horiek hemen zubia soilik baitira aldi berean kontzepzio begiesgarri batetik besterako; baina ez da gauza bera gertatzen ondorio soil eta hutsekin logikoa bakarrik den bidean. - Oinarritzko lehen egia astronomikoen jatorria propioki indukzioa da, h. d. begiespen askotan emandakoaren bilduma judizio zuzen bitartegabeki oinarritu batean: horretatik gero hipotesiak eratzen dira, zeinen esperientziaren bitartezko baieztapenak, perfekziora hurbiltzen den indukzioak bezala, lehen judizio hartarako frogak ematen baitu. Adibidez, planeten itxurazko higidura enpirikoki ezagutzen da: higidura horien (planeta-orbitaren) lotura espazialari buruzko hipotesi faltsu askoren ondoren azkenean zuzena aurkitu zen, baita jarraitzen zaizkien legeak ere (Keplerrenak), azkenik baita horien kausak ere (grabitazio unibertuala); eta hipotesi guztiei gertaturiko kasu guztien enpirikoki ezaguturiko bat-etortzeak haiekin eta haietatik ondorioekin indukzio bezala erabateko ziurtasuna eman zien. Hipotesiaren aurkikuntza juzgamenaren gaia izan zen, emandako gertakaria zuzen atzeman eta horren arabera adierazi baitzuen: baina indukzioak, h.d. begiespen anitzak, haren egia berretsi egin zuen. Baina hori bitartegabeki, begiespen enpiriko bakar baten bitartez ere oinarri zitekeen, baldin eta unibertsoan zehar askatasunez ibiltzerik izango bagenu eta begi teleskopikoak izango bagenu. Beraz, arrazoiketak ez dira hemen ere esentzialak ezta ezagutzaren iturri bakarrik ere, baizik larrialdiko laguntza soil errealki beti.

Azkenik, hirugarren adibide heterogeneo bat ezartzeko, oharrarazi nahi dugu egia metafisiko deituak ere, h. d. Kantek obran ezartzen dituenak, horiek ere ez diete ebidentzia frogapenei zor. A priori ziurra dena bitartegabe ezagutzen dugu: ezagutza ororen forma gisa beharrezkotasun handienarekin zaigu kontziente. Adibidez, materia iraunkorra izatea, h. d. ez dela sortzen ez iraungitzen, bitartegabe dakigu egia negatibo bezala: zeren espazioa eta denboraren gure begiespen hutsak higiduraren ahalatasuna ematen baitu; adimenak kausalitatearen legeen forma eta kausalitatearen aldaketaren ahalatasuna ematen du: baina materiaren sorrera edo ezabapenerako errepresentagarritasun-formak falta zaizkigu. Horregatik egia hori garai guztietan eta nonahi ebidentea izan da, eta inoiz ez da benetan zalantzan jarri izan; eta hori ezinezkoa izango zatekeen, bere ezagutza-arrazoia orratz-erpinetan aurrera egiten duen Kanten demostrazio hain zail hura besterik ez balitz. Baina horrezaz gainera (Eranskinean adierazten denez), nik faltsu aurkitu dut Kanten frogapena, eta lehenago erakutsi dut materiaren iraupena deduzitu behar dela, ez denboran esku hartzetik, baizik eta espazioak esperientziaren ahalatasunean duenetik. Zentzu horretan metafisiko deituriko egia guztien benetako oinarritzapena, h. d. ezagutzaren forma beharrezko eta orokorren adierazpen abstraktuena, ezin liteke bere aldetik printzipio abstraktutan egon; errepresentatzearen formen kontzientzia bitartegabea, zeina adierazten baita inolako kontrakarren beldurrik izan behar ez duten enuntziatu apodiktikoen bitartez. Hala eta guztiz ere, horien frogapen bat eman nahi bada, honetan bakarrik egon liteke hori, atal gisa edo suposizio gisa, jadanik inolako zalantzarik ez duen frogatu beharreko egia batean dagoela frogatzean: adibidez erakutsi dut begiespen enpiriko orok bere baitan daukala jadanik kausalitatearen legearen erabilera, zeinaren ezagutza, beraz, esperientzia

ororen baldintza baita, eta horregatik ezin baita esperientziaren bitartez emana eta baldintzatua izan, Humekek baieztatzen zuenez. - Frogapenak oro har gutxiago dira ikasten dutenentzat, eztabaidan aritu nahi dutenentzat baino. Azken horiek setati ukatzen dute bitartegabe oinarrituriko ulerpen oro: egia bakarrik izan liteke kontsekuente norabide guztietan; horregatik erakutsi behar zaie horrelakoei, taxu baten azpian eta bitartedunki aitortzen dutela, beste taxu baten azpian eta bitartegabeki ukatzen dutena, beraz, ukatzen eta onartzen dutenaren arteko lotura logikoki beharrezkoa ere.

Gainera forma zientifikoak, h. d. partikular guztia orokor baten azpian subordinatzeak eta horrela beti aurrera jarraitzeak, berekin dakar proposizio askoren egia logikoki oinarritua bakarrik izatea, h. d. beste proposizio batzuekiko bere dependentziaren bitartez, beraz ondorioen bitartez ere, zeinek aldi berean demostrazio gisa balio baitute. Baina ez da inoiz ahaztu behar forma hori guztia ezagutza errazteko bitarteko bat besterik ez dela, ez ordea ziurtasun handiagorako bitarteko bat. Errazagoa da animalia baten izaera dagokion espezieetik ezagutzea, eta horrela gorantz genero, familia, ordena, klasetik ezagutzea, kasu bakoitzean emandako animalia bere baitan ikertzea baino; baina silogismoen bitartez deduzituriko proposizio guztien egia beti baldintzaturik eta azkenik dependente da, ez silogismoetan baizik eta begiespenean oinarria duen batekiko. Azken hori silogismoen bitartezko dedukzio bat bezain hurbil balego beti gugandik, erabat hobesgarriagoa izango litzateke. Zeren kontzeptuetatik dedukzio oro lehenago erakutsitako esferekin elkarren artean dituzten askotariko txirikordatzez eta sarritan izaten duten beren edukiaren determinazio kolokarengatik engainu askoren arriskupean dago; horren adibide dira doktrina faltsu eta era guztietako sofismen hainbeste frogapen. - Silogismoak, noski, formaren arabera erabat ziurrak dira: beren materiarengatik dira oso ziurrezak kontzeptuengatik; zeren alde horien esferak sarritan ez dira behar bezain zorrozki determinatuak egoten, alde batabesteak ebakitzen dute hainbeste aldiz, non esfera bat alderditarki beste askoren baitan baitago, eta hartatik horietako batera edo bestera nahierara iragan daiteke eta handik beste batera, jadanik aurkeztu denez. Edo beste hitz batzuekin esateko: terminus minor eta medius-a beti egon daitezke kontzeptu desberdinen mende, zeinetatik terminus maior eta medius-a hautatzen baita nahierara, eta horren arabera gero ondorioa desberdina gertatzen da. - Nonahi, beraz, ebidentzia bitartegabea askoz hobesgarriagoa da frogaturiko egia baino, eta hori hartu behar da haren bila urrunegi joan behar denean bakarrik, ez ordea, hura hau bezain hurbil edo hurbilago dagoenean. Horregatik ikusi dugu lehenago, izatez, logikan, zeinean ezagutza bitartegabea kasu bakoitzean gugandik hurbilago baitago zientifiko deduzitua baino, geure pentsamendua beti pentsatze-legeen ezagutza bitartegabearen bitartez gidatzen dugula eta ez garela logikaz baliatzen²⁶.

§ 15

Baldin eta gure konbentzimenduarekin, begiespena dela ebidentzia ororen lehen iturria eta berarekiko harreman bitartegabe edo bitarteduna bakarrik egia absolutua, gainera hartarako biderik hurbilena dela beti ziurrena, zeren kontzeptuzko bitartekaritza oro engainu askoren arriskupean baitago - baldin eta guk, diot nik, konbentzimendu horrekin matematikara jotzen badugu, Euklidesek zientzia gisa finkatu eta gaurko egunera arte osorik gelditu den horretara, berak daraman bidea bakana ez ezik erratua ere aurki dezakegu. Guk oinarritapen logiko oro begiesgarri

murritztea eskatzen dugu; aitzitik, bera ahalegin handiarekin saiatu da bere ebidentzia begiesgarri, nonahi hurbil, berezia zitalki errefusatzeko, hori beste logiko batez ordeztzeko. Onartu behar dugu, hori norbaitek, makuluekin ibiltzeko zangoa ebakitzea bezala dela, edota printzeak, [Goethe] obran, natura eder errealistik ihes egitea bezala, hura imitatzen duen teatro-dekorazio batean hartaz gozatzeko. - Hori dela-eta hemen tratatuko seigarren kapituluaren esan nuena gogorarazi behar dut, eta irakurleak oroimenean fresko eta oso presente izango duela suposatzen dut; horrela nik hemen neure oharrak horrekin lotzen ditut, logikoki emana izan daitekeen egia matematiko baten ezagutza-arrazoi soilaren eta izatearen arrazoiaren arteko desberdintasuna nabarmendu gabe, zeina espazioko eta denborako atalen lotura bitartegabe, begiespenez soilik ezagutzen dena baita, ulerpena, zeinean soilik egiazko gogobetetasuna eta oinarritzko ezagutza bermatzen baitira, ezagutza-arrazoi soilak beti gainaldean gelditzen den bitartean, eta zinez jakite bat zerbait horrela dela, eman dezakeena baina ez zergatik den horrela. Euklidesek bide horretatik jo zuen zientziaren kalte nabarirako. Zeren, adibidez, hasieran, behin betiko erakutsi behar zuenean nola triangelu batean angeluek eta aldeek elkar determinatzen duten, eta bata bestearen arrazoiak eta ondorioak formaren arabera diren, arrazoiaren printzipioak espazio hutsean duen eta han, edonon bezala, beharrezkotasuna ematen baitu, gauza bat den bezalakoa izateko; zeren hartatik zeharo desberdina den beste bat den bezalakoa baita; beraz, triangeluaren funtsari buruz oinarritzko ulerpen bat eman ordez proposizio isolatu, nahierara hautatu bat ezartzen du triangeluari buruz eta horren ezagutza-arrazoi logiko bat ematen du kontraesanaren printzipioaren arabera egindako frogapen neketsu, logiko baten bitartez. Harreman espazial horien ezagutza agortzaile baten ordez nahierara komunikaturiko emaitza batzuk jasotzen dira hartatik eta kasua da norbaiti makina artifizial baten efektu desberdinak erakutsi bai, baina haren barne-lotura eta mekanismoak ezkutatzeko balitzaizkio bezala dela. Euklidesek frogatzen duena, dena horrela dela, kontraesanaren printzipioak beharturik onartu beharra dago: baina zergatik den horrela, ez da ikusten. Horregatik izaten da prestidigitadore baten trikimailuaren ondorengoa bezalako sententzia ia ezatsegin bat, eta izatez Euklidesen frogapen gehienak horren oso antzekoak izaten dira. Ia beti egia atzeko atetik sartzen da, albo-zirkunstantziaren batetik per accidens sortzen delarik. Sarritan frogapen apagogiko batek ate guztiak ixten ditu, bata bestearen atzetik, eta bakarrik uzten du zabalik, zeinatik bakarrik sartu behar baita barrura. Sarritan, Pitagorasek teorema bezala, lerroak marrazten dira, zergatik jakin gabe: gero agertzen da lakioak zirela, ikaslea ustekabean erakarri eta assensus-a atzemateko, zeinek gero harriturik onartu egin behar baitu, bere barne-loturaren arabera erabat ulertezina zaiona, hainbesteraino, non Euklides osoa alderen alde azter baitezake harreman espazialen legeak propioki ulertzea lortu gabe, horren ordez haietatik emaitza batzuk buruz ikasiz. Ezagutza propioki enpiriko eta zientifiko hau medikuarenaren parekoa da, zeinek gaixotasuna eta haren kontrako bitartekoa ezagutzen baititu, baina ez bien arteko lotura. Baina hau guztia, ezagutza-mota baten oinarritzapen eta ebidentziaren era propioa apertaz errefusatu eta horren ordez arrotza zaion beste bat indarrez sartzearen ondorioa da. Hala ere, Euklidesek puntu hori ezartzeko izan duen erak miresmen osoa merezi du, zeina hainbeste mendetan barrena eskaini baitzaio eta hain urrunera joan da, non matematika tratatzeko bere era aurkezpen zientifiko ororen eredu gisa azaldu baita, zeinaren arabera beste zientzia guztiak moduztatzen ahalegindu baitira, nahiz eta geroago horretatik urrundu, zergatik oso ongi jakin gabe. Gure begietan Euklidesen matematiketako metodo hura aldrebeskeria oso

distiratsu bat bezala soilik ager daiteke. Alabaina, berariaz eta metodikoki bultzaturiko eta gainera guztien txaloek lagundutako errore handi horietako bakoitzak, bizitzarekin edo zientziarekin zerikusia duelarik ere, bere garaian nagusi zen filosofian dauka arrazoia. - Eleatek aurkitu zuten aurrena desberdintasuna, baita kontraesana ere begietsiaren,

(GRIEGO), eta pentsatuaren, (GRIEGO)27 artean eta beren filosofemetarako, baita sofismetarako ere, askotan erabili zuten. Horiei gero megarikoak, dialektikoak, sofistak, neoakademikoak eta eszeptikoak jarraitu zitzaizkien; horiek begitazioari, h. d. sentsuen engainuari erreparatu zioten, edo areago adimenarenari bere datuak aldatzerakoan, zeinek sarritan gauzak ikusarazten baitizkigu, arrazoimenak ziurtasunez errealtatea ukatzen dizkienak, adibidez, uretako makila hautsia eta antzekoak. Berrezagutu zen sentsuzkotasun-begiespenean ez dagoela baldintzagabe fidatzerik, eta alde zaureratik ondorioztatu zen pentsamendu razional logikoak bakarrik oinarritzen duela egia; nahiz eta Platonek ('Parmenides'en), megarikoek, Pirronek eta neoakademikoek adibideen bitartez (gerora Sexto Enpirikok egingo zuen eran) erakutsi zuten silogismoek eta kontzeptuek ere errorera gidatzen dutela, are paralogismoak eta sofismak sortu ere egiten dituztela, sentsuzkotasun-begiespenean begitazioa baino askozaz errezago sortzen direnak, eta desegiten askozaz zailagoak direnak. Bitartean, enpirismoarekiko oposizioan sorturiko razionalismoak nagusitasuna lortu zuen, eta horren arabera landu zuen Euklidesek matematika, axioma ebidentzia begiesgarriaren (GRIEGO) gainean soilik derrigorrean euskarrituz, baina gainerako guztia silogismoen gainean (GRIEGO). Bere metodoak nagusi iraun zuen mende guztietan zehar eta hala gelditu behar izan zuen, harik eta a priori begiespen hutsa enpirikotik bereizi zen arte. Zinez badirudi Euklidesen iruzkingilea zen Proklosek jadanik erabat ezagutu zuela desberdintasun hura, Keplerrek bere liburuan latinera itzuli zuen iruzkingile haren pasarteak erakusten duenez: soilik Proklosek ez ziola eman behar adinako pisurik gaiari, bakartu samarturik utzi zuen, inor ohartu gabe gelditu eta ez zen nabarmendu. Bi mila urte geroago Kanten doktrinak, zeina Europako herrietan hain aldaketa handiak jakite, pentsatze eta portaera guztian sortzera determinaturik baitzegoen, matematiketan ere halako bat eragin zuen. Zeren espiritu handi horrengandik ikasi dugunean espazioa eta denboraren begiespenak enpirikoaz zeharo bestelakoak direla, inpresio orotatik sentsuekiko erabat independenteak, horien baldintzatzaileak, eta ez horiek baldintzatuak, h. d. a priori direla, eta horregatik sentsuen engainuetara ez daudela zabalik, orain bakarrik ulertu ahal izan dugu Euklidesen matematika tratatzeko era logikoa arreta onuragabea dela, zango osasuntsuentzako makulu bat dela, ibiltari baten parekoa, zeinek gauez bide argi, finko bat ura delakoan, gorde egiten baitu bere burua hura zapaltzetik eta beti albotik zoru malkarretik baitabil, pozik, tarteka-marteka, ihes egiten dion ur horretan oina ezarriz. Orain bakarrik baieztatu dezakegu ziurtasunez, figura baten begiespenean beharrezkotzat agertzen zaiguna, ez datorrela paperean agian akats askorekin marrazturiko figuratik, ezta kontzeptu abstraktutik ere, zeinean pentsatzen baitugu, baizik eta bitartegabe a priori ezagutzen dugun ezagutza ororen formatik: hori arrazoiaren printzipioa da nonahi; hemen begiespenaren forma bezala dago, h. d. espazioa, izatearen arrazoiaren printzipio bezala; zeinaren ebidentzia eta baliozkotasuna ezagutza-arrazoiaren printzipioarena, h. d. ziurtasun logikoarena, bezain

ren ulerpen gehiago ematen du frogapen hark baino beharrezkotasun horren barne-konbikzio irmoaz eta angelu zuzenarekiko propietate horren dependentziaz:

kateto desberdinen kasuan ere horrelako konbikzio begiesgarri batera eramanak izatea onartu beharra daukagu, oro har edozein egia geometriko ahalgarritan bezala; besterik ez bada, horren aurkikuntza horrelako beharrezkotasun begietsi batetik abiatu zelako beti, eta frogapen horren atzetik bakarrik izan baitzen imajinatua: pentsamendu-joairaren analisi bat behar da bakarrik egia geometriko baten lehen aurkikuntza, horren beharrezkotasuna begiespenez ezagutzeko. Oro har metodo analitikoa da nik matematikaren irakaskuntzarako nahi dudana, Euklidesek erabili zuen sintetikoaren ordeiz. Hala ere, horrek egia matematiko konplikatueta oso zailtasun handiak izango ditu, hala ere ez gaindiezinak. Dagoeneko hasita dago Alemanian han-hemenka matematikaren irakaskuntza aldatu eta bide analitiko horretatik gehiago ibiltzen. Hori erabaki handienarekin Kosack jaunak, Nordhausengo Gimnasioan matematika- eta fisika-irakaslea denak egin du, 1852ko apirilaren 6ko eskola-egitarau ofizialari entseiu landu bat gehituz, geometria nire printzipioen arabera tratatzeko.

Eta matematikako metodoa hobetzeko, batez ere eskatzen da, egia frogatuak begiesgarriki ezagutuaren aldean hobespene duelako aurreiritziari uko egitea edo logikoak, kontraesanaren printzipioan oinarrituriko metafisikoaren aldean, zeina bitartegabe ebidente baiz, eta zeinari espazioaren begiespen hutsa ere bai baitagokio.

Ziurrena eta beti azalezinena arrazoiaren printzipioaren edukia da. Zeren horrek, bere taxu desberdinetan, gure errepresentazio eta ezagutza guztien forma orokorra izendatzen baitu. Azalpen oro horretara itzultzea beraren bitartez oro har adierazitako errepresentazioen lotura kasu partikularrari ezartzea da. Beraz, azalpen ororen printzipioa da eta horregatik ez da berez ezein azalpenetarako gai ezta horren beharrean ere, zeren bakoitzak bera suposatzen baitu eta beraren bitartez bakarrik hartzen baitu zentzua. Baina bere taxuetako ezeinek ez du hobespenik bestetik: era berean ziurra eta frogaezina da izatearen arrazoiaren edo bilakaeraren edo ekintzaren edo ezagutzaren printzipio bezala. Printzipiotik ondorioarako harremana, bere taxuetako batzuetan bezala besteetan, beharrezkoa da, baina oro har beharrezkotasun kontzeptuaren jatorria eta zentzu bakarra ere bada. Ez dago ondorioarena beste beharrezkotasunik printzipioa emana denean, eta ez dago printzipiorik ondorioaren beharrezkotasuna ez dakarrenik. Premisetan emandako ezagutza-arrazoitik konklusioan adierazitako ondorioa jariatzen den bezain ziur, espazioko izate-arrazoiak espazioko bere ondorioa ziurtasun berarekin baldintzatzen du: bi horien harremana begiespenez berrezagutu badut, ziurtasun hori edozein logikorena bezain handia da. Horrelako harreman baten adierazpena da edozein teorema geometriko, baita hamabi axiometako batena ere: egia metafisiko bat da eta horrelakoa den heinean kontraesanaren printzipioa bera bezain bitartegabeki ziurra da, zeina egia metalogiko bat eta frogapen logiko ororen oinarri orokorra baita. Edozein teorematan adierazitako harreman espazialen beharrezkotasun begiesgarriki aurkeztua ukatzen duenak eskubide berarekin uka ditzake axiomak eta eskubide berarekin premisetatik konklusioen ondorioak, baita kontraesanaren printzipioa bera

ere: zeren hori guztia harreman berdinki frogaezin, bitartegabeki ebidente eta a priori ezagugarriak baitira. Horregatik harreman espazialen beharrezkotasun begiesgarriki ezagugarria frogapen logiko baten bitartez kontraesanaren printzipiotik deduzitu nahi bada, lurralde bateko jaun bitartegabeari beste batek hura feudotzan eman nahi izatea besterik ez litzateke izango. Horixe da Euklidesek egin zuena. Bere axiomak bakarrik uzten ditu, derrigorturik, bitartegabeko ebidentzian oinarriturik: ondorengo egia geometriko guztiak logikoki frogatuak daude, h. d. axioma haien suposiziopean teoremetan egindako supostuarekiko bat-etortzean, edo lehenagoko teorema batekikoan edo baita teoremaren kontrapartearen kontraesanez ere supostuarekiko, axiomekiko, lehenagoko teoremekiko edo bere buruarekikoan. Baina axiomek berek ez dute beste edozein teorema geometriko bako bako ebidentzia bitartegabe gehiago, baizik sinpletasun gehiago eduki urriagoaren bidez.

Delitugile bati itaunketa egiten zaionean, haren adierazpenak aktan jasotzen dira, bere bat-etortzetik bere egia epaitzeko. Baina hori lagungarri soil bat besterik ez da, zeinetaz ez baitira baliatzen, bere adierazpen bakoitzaren egia bitartegabe iker baldin badaiteke; batez ere, delitugileak hasieratik kontsekuenteki gezurra esan izan ahal duelarik. Lehen metodo hura da, hala ere, Euklidesek espazioa ikertzeko erabilitakoa. Egia da suposizio zuzenetik abiatu zela, naturak nonahi, baita bere oinarritzko forman ere, espazioarekiko kontsekvente izan behar duelakotik, eta horregatik, nola espazioaren atalak elkarrekiko kausa eta efektu harremanean dauden, determinazio espazial bakar bat ere bera ez bezalakoa ezin daitekeen izan, beste guztiekin kontraesanean jarri gabe. Baina hori oso itzulunguru neketsu eta gogobetegarritasun gutxikoa da, zeinek nahiago baitu ezagutza bitarteduna halaber ziurra den bitartegabearen aldean, zeinek gainera zerbait badelako ezagutza, zergatik delakotik, zientziaren kalte handiarekin bereizi eta azkenik ikasleari espazioko legeen ulerpena erabat ezkutatzeko baitio, eta are ohitu egiten du arrazoiaren eta gauzen barne-loturaren ikerketa propiotik, eta horren ordez jakite historiko batera gidatuz, horrela izatearekin nahikotzera. Metodo horri hain sarri goretzi zaion adimen-zorroztasunaren ariketa honetan baizik ez dago: ikaslea arrazoiketari, h. d. kontraesanaren printzipioa erabiltzen lantzean, batez ere oroimena bultzatzean, datu haiek guztiak, zeinen bat-etortzea erkatu behar baita, gordetzera.

Gainera ohargarria da frogapen-metodo hori geometrian bakarrik erabili dela eta ez aritmetikan: aitzitik, azken horretan egia errealki begiespenaren bitartez bakarrik argitzen da, zeina hemen zenbaki soiletan baitatza. Zenbakien begiespena denboran bakarrik izaten denez gero eta horregatik ezein eskema sentigarritz, figura geometrikoa bezala, errepresentatu ezin daitekeelarik; desagertu egin zen hemen begiespena enpirikoa soilik dela eta horregatik begitazioaren mendean dagoen susmoa; susmo hori frogapen-era logikoak geometrian bakarrik sartu ahal izan du. Zenbatzea da, denborak dimentsio bakarra duelako, eragiketa aritmetiko bakarra, zeinara beste guztiak murriz baitaitezke: eta zenbatze hori a priori begiespena besterik ez da, zeina oinarritzat hartzeko ez baita hemen inolako ezbairik izaten eta, zeinaren bitartez bakarrik, gainerakoa, kalkulu oro, ekuazio oro azken finean gertatzen baita. Ez da frogatzen, adibidez

$$\frac{(7 + 9) \times 2}{3} = 42;$$

baizik eta begiespen hutsa hartzen da oinarritzat denboran, zenbatzea, proposizio partikular bakoitza axioma bihurtuz. Geometria betetzen duten frogapenen ordez aritmetikaren eta algebraren eduki osoa zenbakiak laburbiltzeko metodo soil bat da. Denboran zenbakien gure begiespen bitartegabea zinez, gorago aipatu denez, ez da

hamar batera baino urrunago iristen: hortik aurrera zenbakiaren kontzeptu abstraktu batek, hitz baten bidez finkatuak, begiespenaren lekua ordeztu behar du, zeina horregatik ez baita errealki burutzen, baizik eta erabat determinatuki izendatzen. Hala ere, zenbaki-ordenazioaren baliabide garrantzitsuaren bidez, zeinek zenbaki handiagoak txikiago horien beren bitartez errepresentatzen baititu beti, kalkulu bakoitzaren ebidentzia begiesgarria ahalbidetzen da, halako punturaino, non abstrakzioa hain lagungarritzat hartzen baita, ez zenbakiak bakarrik, baizik eta handiera determinatugabeak eta eragiketa osoak in abstracto bakarrik pentsatu eta ikuspegi horretatik izendatzen baitira, non (r-b) bezalakoak, ez baitira burutzen, aditzera ematen bakarrik.

Eskubide berarekin eta ziurtasun berarekin aritmetikan bezala geometrian ere egia a priori begiespen hutsaren bitartez bakarrik oinarriaraz liteke. Izatez, izatearen arrazoiaren printzipioaren arabera, begiespenez ezaguturiko beharrezkotasun hori da beti geometriari bere ebidentzia handia ematen diona, eta zeinean bakoitzaren kontzientzian oinarritzen baita bere proposizioen ziurtasuna: inola ere ez da hankapaloen gainean aurrera egiten duen frogapen logikoa, zeina gaiarekiko arrotz, laster ahazten baita gehienetan, konbentzimenduaren kalterik gabe, eta ezabatu ere egin liteke, geometriaren ebidentzia horrenbestez gutxitu gabe, zeren hartatik erabat dependentea baita eta beste ezagutza-era baten bitartez konbentzimendu osokoa duen hura bakarrik frogatzen baitu beti alde aurretik: horretan soldadu koldar baten antza du, zeinak zauri bat egiten baitio beste batek eraildako etsaiari eta gero hura hil izanaz ilarraintzen baita²⁸.

Horren guztiaren ondorioz espero izatekoa da ez dela inolako zalantzarik izango, matematikaren ebidentzia, ebidentzia ororen eredu eta sinbolo bihurtu dena, bere funtsaren arabera ez dela frogapenetan oinarritzen, baizik begiespen bitartegabea, zeina hemen eta edonon egia ororen azken arrazoa eta iturria baita. Hala ere, matematikaren oinarrian dagoen begiespenak abantaila handi bat dauka besteen aldean, baita enpirikoarenean ere. Hau da, a priori dela, horrenbestez esperientziatik independentea, beti alderditarki eta hurrenez hurren ematen dena; guztitik distantzia berera dago, eta arrazoitik edota ondoriotik abia daiteke nahierara; eta horrek erabateko hutsezintasuna ematen dio, zeinean ondorioa arrazoitik ezagutzen baita, eta ezagutza horrek bakarrik du beharrezkotasuna: adibidez, aldean berdintasuna angeluen berdintasunaren bitartez oinarritua bezala ezagutzen da; aitzitik, begiespen enpiriko oro eta esperientzia guztien parterik handiena alderantziz bakarrik ondoriotik arrazoiara joaten da, eta ezagutza-mota hori ez da hutsezina, zeren beharrezkotasuna ondorioari bakarrik baitagokio, arrazoa emanda dagoen heinean, ez ordea arrazoiaren ezagutzari ondoriotik, zeren ondorio hori arrazoi desberdinetatik abia baitaiteke. Ezagutzaren azken mota hori beti indukzioa da: hau da, ondorio askotatik, zeinek arrazoi bat adierazten baitute, hartzen da arrazoa ziurtzat; baina kasuak inoiz erabat elkarrekin batera egon ezin direnez, hemen ere egia ez da inoiz baldintzagabeki ziurra. Egia-mota horrek bakarrik du ezagutza oro begiespen sentigarriaren bitartez eta esperientzia gehiena. Sentsu baten afekzioak kausatik efektura doan adimen-judizioa eragiten du; ordea, arrazoitutik arrazoiara ondorioa ez baita inoiz ziurra, horrela ahalgarri da begitazio faltsua sentsuen engainu gisa eta sarritan erreala, gorago aditzera eman denez. Sentsu batek baino gehiagok edo bost guztiek afekzioak dituztenean, zeinek kausa bera adierazten baitute, orduan bakarrik bihurtzen da begitazioaren ahalatasuna oso txiki, baina hala ere existitzen da; zeren kasu jakinetan, adibidez, txanpon faltsuarenean, sentsu guztiak engainatzen baitira. Kasu berean aurkitzen da ezagutza

enpirikoa, ondorioz natur zientzia guztiak, horien alderdi hutsa (Kanten metafisikaren arabera) alde batera utzirik. Hemen ere efektuetatik ezagutzen dira kausak: horregatik natur teoria guztia hipotesietan oinarritzen da, zeinak sarritan faltsuak izaten baitira eta gero pixkanaka leku egokiagoa hartzen baitute. Berariaz antolaturiko esperimenduetan bakarrik doa ezagutza kausatik efektura, beraz bide ziurretik: baina esperimendu horiek beroriek hipotesien ondorioz bakarrik egiten dira. Horregatik natur zientzietako edozein adar ezin izan da, adibidez, fisika edo astronomia edo fisiologia behingoz aurkitu, matematika edo logika ahal izan diren bezala; baizik eta mende askotako esperientzia bateratu eta erkatuak behar izan dira eta behar dira. Egiaztapen enpiriko anitzak dakar indukzioa, zeinaren gainean oinarritzen baita hipotesia, perfekzioetik hain hurbilera, zeinek praxirako ziurtasunaren lekua hartzen baitu, eta hipotesiari hain kalte txikia egiten baitio bere jatorriak, nola geometriaren erabilerari lerro zuzen eta kurboen elkarneurgaiztasunak edo aritmetikari logaritmoaren ezin lortuzko zuzentasun perfektuak: zeren zirkuluaren koadratura eta logaritmoa frakzio infinituen bitartez zuzentasunera infinituki hurbiltzen diren bezala, horrela esperientzia askotarikoz indukzioa, arrazoiaren ezagutzara ondoriotik, ebidentzia matematikora, h. d. ondorioaren ezagutza arrazoitik, nahiz eta ez infinituki, hala ere hainbeste hurbiltzen da, non engainuaren ahaltasuna nahikoa murrizten baita, gutxietsia izateko tamainaraino. Hala ere, existitu egiten da: adibidez, indukziozko arrazoiketa bat da ezin zenbatu ahala kasuetatik guztietara, h. d. propioki arrazoi ezezagunera, zeinatik guztiak baitaude esekita. Mota horretako zein arrazoiketak dirudi gizaki guztiek bihotza ezkerraldean daukatelakoak baino ziurragoa? Hala ere, badira salbuespen guztiz bakan, erabat bakoiztu gisa, bihotza eskuinaldean kokaturik daukaten gizakiak. - Begiespen sentigarria eta zientzia esperimentalak ebidentzia-mota beraren jabe dira. Matematikak, natur zientzia hutsak eta logikak haien aurrean duten abantaila a priori ezagutza gisa, ezagutzen formalkia, zeinen gainean aprioritate oro oinarritzen baita, erabat emana egotean soilik datza eta horregatik hemen arrazoitik ondoriora iragan ahal izatean, han ordea gehienetan ondoriotik arrazoiara. Berez gainerakoan kausalitatearen legea edo bilakatzearen arrazoiaren printzipioa, ezagutza enpirikoa gidatzen duena, arrazoi printzipioaren beste taxuera haiek bezain ziurrak dira, zeintzuei goiko a priori zientziak jarraitzen baitzaizkie. - Kontzeptuzko frogapen logikoek edo arrazoiketek a priori begiespenezko ezagutzak bezalaxe arrazoitik ondoriora joateko abantaila dute, zeinaren bitartez berez, h. d. bere formaren arabera, hutsezinak baitira. Horrek ekarpen handia egin du frogapenak oro har hain prestigio handia izan dezan. Baina hutsezintasun hori erlatiboa da: zeren horiek zientziaren printzipio gorenaren azpian bakarrik subsumitzen baitute; eta horiek dira zientziaren egia-funts guztia beren baitan daukatenak, eta ezin dira frogatuak izan, baizik eta begiespenean oinarritu behar dira, aipaturiko zientzia gutxietan beti a priori begiespen hutsa baita, aldiz beti enpirikoa eta indukzioaren bitartez orokortasunera jasoak. Baldin eta esperientzia-zientzietan orobat partikularra orokorretik frogatzen bada, orokorrak partikularretik bakarrik hartzen du bere egia, lanabes metatuen biltoki bat da, ez bere burua ekoizten duen lurzorua.

Beste hainbeste esan dezakegu egiaren oinarritzapenaz. - Errorearen jatorriaz eta ahaltasunaz, Platonen soluzio metaforikoaz hasita, usategiarena, nondik nahi ez den usoa ateratzen baita eta abar (, 167 or. eta hh.), azalpen ugari emateko ahaleginak egin dira. Mugimendu diagonalaren bidez Kanten errorearen jatorriari buruzko azalpen lauso, zehazkabea n, lehen edizioako 294. or.

eta bosgarreneko 350. or. an aurkitzen da. - Nola egia judizioak bere ezagutza-printzipioarekin duen harremana den, bada noski problema bat, judiziozileak nola uste dezakeen errealki printzipio horren jabe dela eta ez izan, h. d. errorea, arrazoimenaren engainua nola den posible. Ahaltasun hori nik adimenaren begitazio edo engainuarekiko, zeina azaldu baita goian, erabat antzeko aurkitzen dut. Nire iritzia da, izatez, (eta horrek ematen dio azalpenari lekua hemen) errore oro ondoriotik arrazoirako silogismo bat dela, zeinek zinez balio baitu, non ere jakina denean, ondorioak hura bakarrik eta beste inolako kausarik ezin dezakeela izan; horretaz kanpo ez. Erratzen denak izan ez dezakeen arrazoi bat ezartzen dio ondorioari; horretan, beraz, adimen-gabezia erreala erakusten du, h. d. kausa eta efektuaren arteko loturaren ezagutza bitartegabearen gaitasun-gabezia: edo, sarriagotan gertatzen den kasua, arrazoi ahalgarri baten ondorioa determinatzen du, baina bere arrazoiketaren premisari gehitzen dio ondoriotik arrazoirak, aipaturiko ondorioa berak emandako arrazoitik bakarrik irteten dela beti, eta hori indukzio oso batek bakarrik justifika lezake, zeina berak suposatzen baitu, egin gabe: beti hori kontzeptu zabal samarra da; horren ordez: batzuetan edo gehienetan ezarri beharko litzateke, zeinen bitartez ondorioa problematiko izango bailitzateke eta ez erratua. Erratzen denak aipaturiko eran jokatzeara, zalaparta da edo ahaltasunaren ezagutza mugatuegia, horregatik ez daki egin beharreko indukzioaren beharrezkotasuna. Errorea, beraz, begitazioaren oso antzekoa da. Biak dira ondoriotik arrazoirako silogismoak: begitazioa beti kausalitatearen legearen arabera eta adimen hutsak begiespenean bertan bitartegabe burutua; errorea, arrazoiaren printzipioaren forma guztien arabera, arrazoimenak pentsamenduan propioki burutua, maizenik kausalitatearen legearen arabera, honako hiru adibideok erakusten dutenez, zeinak hiru errore-motaren tipo edo errepresentantetzat har baitaitezke: 1. Sentsu-begitazioak (adimenaren engainuak) errorea (arrazoimenaren engainua) eragiten du, adibidez, pintura bat altuerliebetzat hartu eta horrelakotzat edukitzen bada; hori honako premisa nagusia duen silogismo baten bitartez gertatzen da: «Gris-iluna leku batzuetan ñabardura guztietatik zurira iragaten bada; horren kausa argia da beti, zeinek irtenguneak eta sarguneak era desberdinean argitzen baititu: ergo - <. 2. > Nire kaxan dirua falta bada, orduan kausa nire zerbitzariak giltzaren kopia bat edukitzea da beti: ergo - <. 3. > Baldin eta prismak errefraktaturiko, h. d. gorantz eta beherantz aldenduriko eguzki-irudia, lehenik biribil eta zuri agertu ordez, orain luzanga eta koloreztaturik agertzen bada, horren kausa argian desberdin koloreztatu eta desberdin errefraktaturiko argi-izpi homogeenok sarturik egotea da beti, zeinak, bere errefraktagarritasun desberdinaren bitartez bata bestetik aldendurik, orain irudi luzanga eta aldi berean kolore desberdinekoa erakusten baitu: ergo -bibamus! < - Sarritan faltsuki orokorturiko arrazoi bat ondoriotzat suposatzetik sorturiko premisa nagusi hipotetiko batetik horrelako silogismo bati egotzi behar zaio errore oro; baina ez, esaterako, kalkulu akasduak, zeinak ez baitira propioki erroreak, akats soilak baizik: operazioa, zenbakien kontzeptuek iragartzen dutena, ez da begiespen hutsean, zenbaketan, burutu, baizik beste bat haren ordez.

Zientzien edukiari oro har dagokionez, zinez hori beti izaten da munduko agerpenen elkarrekiko harremana arrazoiaren printzipioaren arabera eta zergatiaren gidaritzapean, zeinak bitartedunki bakarrik baititu balioa eta zentzua. Harreman horren probari azalpen deitzen zaio. (Hori ezin da bi errepresentazio, dagokien klasean nagusi den arrazoiaren printzipioaren taxueraren arabera elkarrekiko harremanean erakustera baino urrunago joan.) Horra iritsi denean, ez dago aurrerantzean galdetzerik: zeren frogaturiko harremana beste era batera inola ere

errepresenta ezin daitekeena baita, h. d. ezagutza ororen forma da. Horregatik ez da galdetzen zergatik $2 + 2 = 4$ den; edo zergatik triangeluan angeluen berdintasunak aldean berdintasuna determinatzen duen; edo zergatik emandako edozein kausari bere efektua jarraitzen zaion; edo zergatik premisen egiatik konklusioarena argitzen den. Azalpen oro, zeinek eramaten baikaitu harremanera, zeinari buruz ez baitago zergatia galdetzerik, qualitas occulta suposatu batean bukatzen da: mota horretakoa da jatorrizko edozein natur indar. Horrelako batekin egin behar du topo azkenean natur zientzietako edozein azalpenek, nahiz eta erabat iluna izan: horregatik harri baten barne-funtza gizaki batena bezain azalgabe utzi behar du; ezin du kontu eman ere pisutasunaz, loturaz, propietate kimikoez eta abarrez ere, zeinak hark kanporatzen baititu, ezta ezagutzaz eta egintzaz ere. Horrela, adibidez, pisutasuna qualitas occulta bat da: zeren ahanztz baitaiteke, beraz ez baita ateratzen ezagutzaren formatik beharrezko zerbait bezala: aitzitik, horixe da inertziaren kasua, zeina kausalitateari jarraitzen baitzaio; horregatik kausalitateara murriztea azalpen erabat gogobetegarria da. Bi gauza dira zinez inondik ere azalezinak, h. d. arrazoiaren printzipioak adierazten duen harreman-era murritzezinak: lehenik arrazoi printzipioa bera bere lau taxu guztietan, zeren bera baita azalpen ororen printzipioa, zeinarekiko harremanean hark zentzua baitu; eta bigarren, berak atzematen ez duen hura, zeinatik ordea jatorrizkoa agerpen guztietan sortzen baita: berbaitango gauza da, zeinaren ezagutza ez baitago arrazoiaren printzipioaren mendean. Azken horrek hemen erabat ulertu gabe gelditu beharra dauka, zeren bigarren liburuaren bitartez bakarrik bihurtuko baitira ulergarri, zeinean zientzien egintza ahalgarriari buruzko kontsiderazio hauek berriro aztertuko baitira. Baina han, natur zientziak, eta oro har zientzia orok, gauzak bertan behera uzten dituen tokian, haien azalpena ez ezik azalpen horren printzipioa bera ere, arrazoiaren printzipioa, puntu horretatik iragaten ez denean, filosofiak han hartzen ditu propioki berriro gauzak eta zientziatik zeharo bestelako eran kontsideratzen ditu. - tratatuan § 51.an erakutsi dut nola zientzia desberdinetan printzipio horren taxuera bat edo beste gidari bihurtzen den, eta berez, horren bidez zientzien banaketa egokiena egin ahal izango zen. Baina gida horren arabera emandako azalpen oro, esan denez, beti erlatiboa da: gauzak elkarrekiko harremanean azaltzen ditu, baina beti uzten du zerbait azaldu gabe, aldeztu aurretik suposatutzat ematen dena. Hori, adibidez, matematiketan espazioa eta denbora da; mekanika, fisika eta kimikan materia, kualitateak, jatorrizko indarrak, natur legeak; botanikan eta zoologian, espezieen desberdintasuna eta bizia bera; giza generoaren historian, pentsatzearen eta nahi izatearen bere berezitasun guztiekin - guztietan arrazoiaren printzipioa bere taxueretako bakoitzean. - Filosofiak propioa den zerbait du, ezer ezagunik ez suposatzea, baizik eta harentzat neurri berean dena arrotz eta problema izatea, ez bakarrik agerpenen harremanak baita horiek beroriek ere, baita arrazoiaren printzipioa bera ere, zeinara dena murrizteaz beste zientziak pozik baitaude, baina murrizpen horren bitartez haietan ez litzateke ezer irabaziko, zeren seriean kide bakoitza berari beste bat bezain arrotz baitzaio, gainera lotura-mota hori berarentzat lotzen duena bezain arazo da, eta berau loturaren ondoren aldeztu aurretik bezainbatekoa. Zeren, esan denez, zientziek suposatzen duten hori bera da eta beren azalpenen oinarritzat jarri eta mugatzat ezartzen dutena, hain zuzen ere filosofiaren problema propioa, zeina ondorioz zientziak amaitzen diren tokian hasten baita. Frogapenek ezingo lukete horren euskarri izan: zeren horiek proposizio ezagunetatik ezezagunak deduzitzen baitituzte; baina berari dena ezezagun eta arrotz zaio. Ezin liteke proposiziorik egon, zeinaren ondorioz mundua bere agerpen guztiekin existi baitaiteke: horregatik ezin liteke izan, Spinozak nahi zuenez, ez

firmis principiis frogatuz deduzi daitekeen filosofiari. Gainera filosofia da jakiterik orokorra ere, zeinaren proposizio nagusiak ez beste baten, ez orokorragoaren ondorioak ezin baitaitezke izan. Kontraesanaren printzipioak kontzeptuen bat-etortzea baieztatzea besterik ez du egiten; baina kontzeptuak eman ez du berak egiten. Arrazoiaren printzipioak agerpenen loturak azaltzen ditu, ez horiek berak: horregatik filosofia ezin daiteke mundu osoaren causa efficiens bat edo causa finalis bat bilatzetik abia. Gaur egunekoak gutxienez ez du mundua inola ere nondik eta zertako den bilatzen; baizik eta mundua zer den soilik. Zergatia hemen zer- en mendean dago: zeren jadanik munduari baitagokio, bere agerpenen formaren bitartez bakarrik sortzen baita arrazoiaren printzipioa eta neurri horretan bakarrik du baliozkotasuna eta zentzua. Egia da mundua zer den esan litekeela, bakoitzak inolako laguntzarik gabe ezagutzen duela; zeren ezagutzaren subjektua, zeinaren errepresentazio baita mundua, bera baita: zentzu horretan hori ere egia litzateke. Baina ezagutza hori begiesgarria, in concreto da: aldiz, filosofiaren eginkizuna ezagutza in abstracto ematea da, begieste hurrenez hurrenekoa eta aldakorra eta oro har sentimendu kontzeptu zabalak besarkatzen duen guztia eta jakite negatibo soil, ez abstraktu eta zehatz izendatzen duena, horrelako batera, jakite iraunkor batera jasotzea. Beraz, mundu osoaren funtsaren in abstracto adierazpen bat izan behar du, osoarena eta atalena ere bai: Eta gainera judizio partikularrezko multzo amaigabe batean ez galtzeko, abstrakzioaz baliatu behar du etapartikular bakoitza orokorrean pentsatu, bere desberdintasunak berriro orokorrean: horregatik batzuetan bereizi, beste batzuetan batu egingo ditu, munduaren askotarikotasun guztia oro har, bere funtsaren arabera kontzeptu abstraktu gutxitan laburbildurik jakiteari entregatzeko. Kontzeptu horien bitartez, zeinean finkatzen baitu munduaren funtsa, nola orokorra hala partikularra berrezagutu behar da, bien ezagutza ahalik eta zehatzen lotuta dagoelarik: horregatik filosofiarako gaitasuna Platonek ezarri zuen horretan ere badatza, bakarra anizkoitzean ezagutzean eta anizkoitza bakarrean. Beraz, horren arabera, filosofia oso judizio orokorren batura izango da, zeinen ezagutza-arrazoia mundua bera baita bitartegabe bere osotasunean, ezertxo ere baztertu gabe: beraz, baita giza kontzientzian aurretik aurkitzen den guztia ere; munduaren erabateko errepika, nolabaiteko ispiladura izango da kontzeptu abstraktutan, eta hori esentziaz identikoa dena kontzeptu bakarrean bateratuz eta beste batean desberdintasunen bereizkuntzaz bakarrik da ahalgarri. Eginkizun hori izendatu zion filosofiari Baco Verulamekok esan zuenean: [Egiazko filosofia da leialen ematen dituen naturaren esanak eta nolabait naturaren diktatupean idatzita dagoena eta haren simulakroa eta isla besterik ez dena, eta bere propiotik ezer erantsi gabe, hura errepikatu eta ematen duena.] (, lib. 2, cap. 13, [125 or.]). Guk ordea hori Bacok orduan pentsatu ahal izan zuen baino askozaz zentzu zabalagoan hartzen dugu.

Munduaren alde eta atal guztiek, osotasun batekoak direlako, elkarrekiko duten bat-etortzea, munduaren imajina abstraktu hartan berraurkitu behar da. Horren arabera judizioen batura hartan, nolabait esateko, bata bestetik deduzi liteke, eta beti txandaka zinez. Hala ere, lehenik han egon behar dute, eta munduaren ezagutzaren bidez in concreto bitartegabeko gisa oinarriturik, ezarririk, eta are gehiago, oinarritzapen bitartegabe oro bitarteduna baino ziurragoa den heinean: haien elkarrekiko harmonia, zeinaren indarrez pentsamendu bakarren batasunean urtu eta mundu begiesgarriaren harmonia eta batasunetik sortzen baita, zeina horren ezagutza-arrazoi komuna baita, ez da horren oinarritzapenerako lehentzat erabiliko; baizik bere egiaren indartze bat bezala gehituko zaio. - Baina eginkizun hori bere gauzapeanaren bitartez bakarrik argi daiteke erabat²⁹.

§ 16

Arrazoimena gizakiarena bakarrik den ezagumen propio eta berezi bezala eta berak buruturiko giza naturari bereizgarri zaizkion egitekoak eta fenomenoak osotasunean kontsideratu ondoren, arrazoimenaz hitz egitea geratzen zait oraindik, gizakiaren egintzak gidatzen dituen heinean, zentzu horretan praktiko ere dei daitekeelarik. Baina hemen esan beharrekoak neurri handi batean beste gune batean aurkitu du bere lekua, h. d. idazki honen Eranskinean, zeinean Kantek arrazoimen praktiko deituaren existentzia eztabaidatu behar baitzen, zeina berak (oso eroso, noski) bertute guztien iturri bitartegabe eta eginbehar absolutu baten (hau da, zerutik eroritako baten) kokagunetzat aurkezten baitu. Moralaren printzipio kantiar horren ezeztapen xehe eta errotikoa geroago egin dut obran. – Horregatik hemen gutxi daukat esateko arrazoimenaren eragin errealaz, hitz horren egiazko zentzuan. Arrazoimenaren gure kontsiderazioaren sarreran bertan orokorrean oharrarazi dugu, zenbateraino bereizten den gizakiaren egintza eta portaera animaliairenetik eta desberdintasun hori kontzientzian kontzeptu abstraktuen absentsiaren ondorioztat bakarrik har daitekeela. Horien eragina gure izate osoan hain erabakigarri eta esanguratsua da, non neurri batean animaliekiko harremanean jartzen baikaitu, ikusmena duten animaliak begigabeekiko (larba, har eta zoofito jakin batzuekiko) harremanean: azken horiek ukimenez bakarrik ezagutzen dute espazioan bitartegabe presente dagoena, ukitzaille direnez; ikusleek, ordea, hurbileko eta urrunekoaren zirkulu zabala. Era berean mugatzen ditu arrazoimenaren absentsiak animaliak denboran errepresentazio begiesgarri bitartegabe presenteetara, h. d. objektu errealetara: guk, aitzitik, in abstracto ezagutzaren indarrez, presente erreal estuarekin batera iragan osoa eta etorkizuna ere besarkatzen ditugu, ahaltasunaren alor zabalarekin batera: guk gainetik begiratzen diogu bizitzari alde guztietarantz, presentea eta errealtateaz askozaz haratago. Espazioan eta ezagutza sentigarriarako begia dena, horixe bera da denboran eta barne-ezagutzarako arrazoimena. Nola objektuen ikuskortasunak bere balorea eta zentzua horien sentigarritasuna iragartzen duelako soilik daukan, horrela ezagutza abstraktuaren balore osoa begiesgarriarekiko bere harremanean datza beti. Horregatik natur gizakiak beti balore gehiago ematen dio bitartegabe eta begiesgarri ezagutuari kontzeptu abstraktuei, pentsatu soilari baino: ezagutza enpirikoa logikoa baino nahiago du. Alderantziz uste izaten dute egintzetan baino hitzetan gehiago bizi izaten direnek, mundu errealean baino paperean eta liburuetan gehiago ikusi dutenak eta beren endekatze handian pedante eta letragizaki bihurtu direnak. Hortik bakarrik da ulergarri, nola Leibniz, Wolff eta bere jarraitzaile guztiekin hainbestearaino erratu ahal izan zen, Duns Scotoren jarraipenean ezagutza begiesgarria nahasi abstraktu bezala bakarrik azaltzeko! Spinozaren ohoretan esan beharra daukat, bere zentzu zuzenak kontzeptu komun guztiak begiesgarriki ezagutuaren nahasmendutik sortutzat azaldu dituela alderantziz (2, propositio 40, scholium 1). – Iritzi aldrebes horretatik sortu da, halaber, matematikan bere ebidentzia berezia baztertu eta logikoari bakarrik balioa ematea; eta oro har ezagutza ez-abstraktu oro sentimendu izen

zabalaren azpian atzeman eta gutxiestea; azkenik, etika kantiarrak nahimen ona, zirkunstantzien ezagutza huts, bitartegabeari dagokiona eta ongi jardun eta ongi portatzera gidatzen duena sentimendu eta paroxismo soil gisa balore eta merezimendurik gabekotzat azaldu eta balore morala maxima abstraktuetatik sortutako egintzari bakarrik berrezagutu nahi izatea.

Biziaren gainikuspegi alderdigabea bere osotasunean, gizakiak arrazoimenaren bitartez animaliaaren gainetik duena, bere bizitzako bidearen zirrimarra geometriko, kolorga, abstraktu, kaxkartu batekin ere konpara daiteke. Horrela animaliarekiko marinelak bezala jokatzeko du, zeinek itsaskarta, konpas eta koadrantearen bidez bere bidaia eta aldioro bere kokagunea zehatz baitaki itsasoan, olatuak eta zerua bakarrik ikusten dituen ontziko jende informaziogabearekiko. Horregatik kontsideragarria da, baita miresgarria ere, gizakiak in concreto bere bizitzaren ondoan bigarren bat in abstracto nola beti eramaten duen. Lehenean errealitateko ekaitz guztien eta presentearen eraginpean abandonaturik, animalia bat bezala ahalegindu, sofritu, hil beharra dauka. In abstracto bere bizitza, ordea, bere gogoeta razionalaren aurrean dagoen bezala, lehenaren eta munduaren ispiladura lasaia da, zeinean bizi baita, jadanik lehen aipaturiko zirrimarra kaxkartu hura da. Hemen gogoeta patxadatsuaren alorrean agertzen zaio hotz, kolorga eta aldiunerako arrotz, han erabat poseditu eta biziki higitzen duena: hemen ikusle eta behatzaile soila da. Erreflexiora erretiratze honetan komerialari bat dirudi, zeinek bere eszena antzeztu eta, berriro sartu arte, ikusleen artean bere lekua hartzen baitu, nondik berak, zernahi gerta daitekeela ere, baita bere heriotzaren prestakuntza bera izanik ere, (antzerkian) lasai begiratzen baitio, eta gero berriz sartu, eta jardun eta sofritu egiten baitu, behar duen bezala. Bizitza bikoitz horretatik sortzen da animaliaaren axolagabeziarekiko hain desberdina den gizakiaren lasaitasuna, zeinarekin batek aldeztu aurretiko gogoeta, hartutako erabakia edo ezagututako beharrezkotasunaren arabera beretzat garrantzitsuena, edo lazkarriena odol hotzarekin bere buruaren gain jasan edo burutzen baitu: suizidioa, herio-zigorra, dueloa, bizia arriskuan jartzeko duten edozein motatako balentriak eta oro har, bere animalia natura osoa kontra jartzeko zaizkion gauzak. Horretan ikusten da gero, zer neurritan arrazoimena animalia naturaren nagusi bihurtzen den eta indartsuari dei egiten dion: (GRIEGO) (ferreum certe tibi cor!) [benetan burdinazko bihotza daukak!] 24, 521. Hemen, benetan esan daiteke, arrazoimena praktikoko agertzen dela: beraz, nonahi, arrazoimenak jarduerak gidatzen duen tokian, motiboak kontzeptu abstraktuak diren tokian, ez errepresentazio begiesgarri partikularrak, ezta animalia gidatzen duen aldiunearen inpresioa determinatzailea ez den tokian, hori arrazoimen praktikoa agertzen da. Hori egintzaren balore etiketikiko erabat desberdin eta independentea dela, egintza razionala eta egintza bertutetsua bi gauza zeharo desberdinak direla, arrazoimena era berean aurkitzen dela gaiztakeria handiarekin eta ontasun handiarekin elkartzurik eta bai batari eta bai besteari bere laguntzarekin eraginkortasun handia ematen diola, era berean prestu eta baliagarria dela asmo nobleak zein txarrak, maxima zuhur zein ergelak era metodiko, kontsekuentean burutzeko, harekin natura femenino, hartzaile eta gordetzaileak, bere burua sortzen ez duenak berekin dakarrena baita - nik hori guztia Eranskinean xeheki aurkeztu eta adibideez argitu dut. Hor esandakoa hemen bere leku propioan legoke, baina Kanten ustezko arrazoimen praktikokoaren aurkako polemikarengatik hara aldatu behar izan dut; nora ere nik horregatik hemen berriro hara igortzen baitut.

Arrazoimen praktikokoaren garapenik perfektuena, gailur goren hitzaren zentzu egiazko eta benetakoa, zeinara gizakia bere arrazoimenaren erabilera hutsaren bitartez iritsi bataiteke eta, zeinean animaliarekiko bere desberdintasuna argiroen agertzen

baita, jakitun estoikoan dago ideal gisa aurkezturik. Zeren etika estoikoa jatorriz eta esentziaz ez baita bertute-doktrina, baizik eta bizitza razionalerako ikasbidea, zeinaren helburu eta xedea espirituaren lasaitasunaren bitartezko zoriona baita. Portaera bertutetsua hemen per accidens bakarrik aurkitzen da, bitarteko gisa, ez helburu gisa. Horregatik etika estoikoa bere funts osoaren eta ikuspuntuaren arabera bertutera bitartegabe jotzen duten sistema etikoen aldean errotik desberdina da, zeinak baitira Veden, Platonen, kristautasunaren eta Kanten doktrinak. Etika estoikoaren xedea zoriona da: (GRIEGO) [dohatsutasuna da xedea] (virtutes omnes finem habere beatitudinem) [bertute guztien xedea dohatsutasuna izatea da] dio Stobaiosek Estoari buruz egindako aurkezpenean (lib. 2, cap. 7, 114 p. baita 138 or.ean ere). Hala ere, etika estoikoak irakasten du zoriona barneko bakean eta espirituaren lasaitasunean (GRIEGO) bakarrik aurkitzen dela ziur eta hori berriz bertutearen bitartez bakarrik lortzen dela: horixe besterik ez du esan nahi bertutea ongi gorena delakoak. Baina gero pixkanaka bitartekoarengatik xedea ahaztu eta bertutea gomendatzen bada, bere zorion propioaz zeharo bestelako interes bat adierazten duen era batean, horri argiro kontra-jartzen zaiolarik; hori inkontsekuentzietako bat da, zeinaren bitartez sistema bakoitzean bitartegabe ezagutua edo, esaten denez sentituriko egia bide zuzenera bideratzen baita, arrazoiketak bortxatuz; adibidez, Spinozaren «Etika'n argiro ikusten da, zeinek egoistatik sofisma nabarmenen bitartez bertute-doktrina hutsa deduzitzen baitu. Horren arabera, nik etika estoikoaren espiritua atzeman dudanez, horren jatorria pentsamendu honetan datza: ea gizakiaren pribilegio handia, arrazoimena, zeinek bitartedunki egintza planifikatuaren bitartez eta horretatik sortzen denetik, bizitza eta bere zamak hainbeste arintzen baitizkio, ez ote litzatekeen gai izango, bitartegabe, h. d. ezagutza soilaren bidez, bizitza betetzen dizkioten era guztietako sofrimendu eta oinazeetatik behingoz hura libratzeko, erabat edo ia erabat behintzat. Arrazoimenaren abantailarentzat ez zen egokitzen jotzen horretaz hornituriko izakia, zeinek horren bitartez gauza eta egoera amaigabeak atzeman eta besarkatzen batitu, hala ere, presentearen bitartez eta gertaeren bitartez, zeinek urte gutxiko hain bizitza labur, iheskor eta ziurrezak beren baitan eduki baititzakete, abandonaturik uztea hain min bizietara, hain beldur eta sofrimendu handietara, zeinak gure gutizia eta ihesaren bulkada suharretik sortzen baitira, eta uste izan zen arrazoimenaren erabilera egokiak gizakia haren gainetik jaso behar zuela, zauriezin bihurtu ahal izan behar zuela. Horregatik esan zuen Antistenesek. (GRIEGO) (aut mentem parandam aut laqueum) [edo adimena prestatu behar da edo bestela urkabihurra] (Plutarko: cap. 14, h. d. bizitza hain dago axanpaz eta lardaskeriaz betea, non pentsamendu egokiz nork bere burua hartaz babestu behar duen edo bertan behera utzi behar den. Ikusi zen, gabeziak ez duela sofrimendua bitartegabe eta derrigor sortzen ez edukitzetik; eduki nahi izan eta ez edukitzetik baizik; eduki nahi izate hori beharrezko baldintza dela, zeinaren azpian bakarrik bihurtzen baita ez edukitzea gabezia eta mina sortzen baitu. (GRIEGO) (Non paupertas dolorem efficit, sed cupiditas) [Pobretasunak ez du min ematen, gutiziak baizik] (Epitekto: 25). Beraz, esperientziaz jakin izan zen esperantza dela desira sortu eta elikatzen duen uzia; horregatik komun guztioi eta ekidinezinak zaizkigun gaitz ugari ezta ondasun erdietsezinek ez gaituzte kezkatu eta atsekabetzen; baizik eta gizakiari desbideragarri eta erdietsigarri zaion gutxi edo asko huskeriazko horrek; eta ez bakarrik absolutuki, baizik eta erlatiboki erdietsezin edo ekidinezinak ere erabat lasai uzten gaitu; horregatik gure indibidualitateari ezarriak zaizkion gaitzak, edo derrigor ukaturik gelditu behar zaizkion ondasunak, axolagabetasunez kontsideratzen dira, eta giza berezitasun horren ondorioz desira oro laster hiltzen

da eta min gehiago ere ezin dezake sor, baldin eta ezein esperantzak ez badio elikagaia ematen. Horretatik guztitik sortu zen, zorion oro gure uzien eta lortzen dugunaren arteko harremanean bakarrik oinarritzea: zeinen handi edo txiki harreman horren bi handierak baitira, ez dio axolarik, eta harremana lehen handiera txikituz zein bigarrena handituz ezar daiteke: eta era berean, sofrimendu oro propioki, eskatu eta itxaroten dugunaren eta ematen zaigunaren arteko desorekatik sortzen dela, baina desoreka hori ezagutzen bakarrik datza³⁰ nabarmen, eta ikuspen hobe baten bidez erabat gainditu egin daiteke. Horregatik zioen Krisipok: (GRIEGO) [naturalki gertatzen denaren arabera esperientziaz bizi behar da] (Stobaios: lib. 2, cap. 7, 134 or), h. d. munduko gauzen joairaren ezagutza egokiarekin bizi behar dela. Zeren gizaki batek nolabait bere onetik irteten den bakoitzean, ez behar batek lurrera bota duelako edo etsitzen edo sumintzen delako, orduan erakusten du horrela espero zuenaz bestetara aurkitzen dituela gauzak, ondorioz errean harrapaturik zegoela, mundua eta bizitza ez zituela ezagutzen, ez zekiela nola ausaren bitartez natura bizigabeak, helburu kontrajarrien bitartez, baita txarkeriaren bitartez bizi izandakoak ere, norbanakoaren nahimenarekin gurutzatzen dituen urrats bakoitzean: edo ez du bere arrazoimena erabili bizitzaren izaera horren jakite orokorrera iristeko, edo juzgamaña falta zaio, baldin eta orokorrean dakiena partikularrean berrezagutzen ez badu, eta horregatik, horrek txunditu eta bere onetik ateratzen badu³¹. Horrela, bada, poz bizikor oro erre bat, erokeria bat da, zeren ez baitago iraunkor asebate dezakeen desira erdietsirik, zeren jabetza oro eta zorion oro ausaz eta denbora jakin baterako bakarrik ematen baitzaigu, eta horregatik hurrengo orduan kendu egin baitakiguke. Min oro erokeria hori desagertzean datza. Biak sortzen dira, beraz, ezagutza akasduetik: horregatik jakintsuari nola pozkariora hala mina beti urrun geratzen zaizkio, eta ez dago haren (GRIEGO) nahastuko duen gertaerarik.

Estoako espiritu eta helburu horren arabera hasten da Epikteto, eta etengabe hartara itzultzen da, bere jakituriaren muinera bezala, ongi hausnartu eta desberdindu behar dela zer dagoen gure mendean eta zer ez, eta horregatik azken horri ez zaiola inola ere kontu egin behar; horrenbestez, lasai, libre geratzen dela min, sofrimendu eta beldur guztitik. Baina gure mendean dagoena, nahimena bakarrik da: eta hemen gertatzen da orain bertute-teoriarako pixkanakako igarobide bat, ohartzen delarik, gure mendean ez dagoen kanpo-munduak zoriona eta zorigaitza determinatzen dituen bezala, horrela barneko atsegina edo atsekabea gure baitan bertan nahimenetik sortzen direla. Baina geroago galdetu zen ea bi lehenei edo bi azkenei bonum eta malum izenak ote zegozkien. Hori propioki hautazkoa eta gogarakoa zen eta ez zeukan gaiarekin zerikusirik. Hala ere, etengabeko eztabaidak izan zituzten horri buruz estoikoek peripatetiko eta epikurotarrekin, bi handiera erabat elkarneurgaitzen konparaketa desegokiari eta horretatik sortzen ziren eta elkarri jaurtitzen zizkioten sententzia kontrajarri paradoxazkoei ekin zioten. Horien bilduma interesgarri bat, alde estoikotik, Zizeronen eskaintzen digute.

Zenon fundatzaileak, badirudi hasiera batean beste bide bat hartu zuela. Bere abiagunea hau izan zen: Ongi gorena lortzeko, h. d. espirituaren lasaitasunezko dohatsutasuna, nork bere buruarekin bat etorritz bizi behar zuela. (GRIEGO). - Consonanter vivere: hoc est secundum unam rationem et concordem sibi vivere. [Bat etorritz bizitzea, h. d. printzipio beraren eta nor bere buruarekiko harmoniaren arabera bizi izatea] Stobaios: lib. 2, cap. 7, 132 or. Era berean: (GRIEGO). - Virtutem esse animi affectionem secum totam vitam consentientem. [Bertutea da arimak bere buruarekiko duen harmonia bizitza osoan zehar] ibidem p. 104.) Baina hori guztiz razional, kontzeptuen arabera, determinatuz bakarrik zen posible, ez inpresio aldakor eta apeten arabera; baina nola gure ahalean gure egintzaren maximak bakarrik

dauden, ez arrakasta ezta ere kanpoko zirkunstantziak: horrela, beti kontsekuente iraun ahal izateko, haiek bakarrik bihurtu beharko lirateke helburu eta ez azken horiek; eta horrenbestez berriro bertute-teoria sartzen da.

Baina Zenonen jarraitzaile bitartegabeei haren printzipio morala - bat-etorritz bizitzea - formalegia eta edukigabeegia iruditzen zitzaien. Horregatik eduki materiala eman zioten honako hau gehituz: (GRIEGO); hori, Stobaiosek aipaturiko lekuan dioenez, aurrena Kleantesek gehitu zuen eta gaiak oso zabalera handia hartu zuen kontzeptuaren esfera handiarengatik eta adierazpenaren zehazkabetasunarengatik. Zeren Kleantes natura orokor osoaz ari baitzen, Krisipo, berriz, giza naturaz bereziki (Diogenes Laertios, 7, 89). Azken horren arabera bakarrik bertuteak izan behar zuela ikusi zen, animalia instintuak asetzea animalia naturei dagokien bezala, eta berriro indarrez bertute-teoriara itzuli eta, samurki edo gogorki, etikak fisikaren oinarria hartu behar izan zuen. Zeren estoikoek printzipioaren batasunera jotzen zuten beti: Jainkoa eta mundua haiengan inondik ere bi gauza desberdin ez ziren bezala.

Etika estoikoa, oro har, oso ahalegin estimagarri eta ohargarria da izatez, gizakiaren pribilegio handia, arrazoimena, helburu garrantzitsu eta osasungarri baterako erabiltzeko, zeina baita edozein bizitza murgildurik dagoen sofrimendu eta minetatik hura jasotzea irakaspen baten bitartez:

Qua ratione queas traducere leniter aevum: Ne te semper inops agitet vexetque cupido, Ne pavor et rerum mediocriter utilium spes. [Nola eman dezakezu zeure bizitza lasai, irrika beti aseeginak tormentatu gabe, are onura gutxiko gauzen beldurrez eta esperantzaz.]

Horazio, , 1, 18, 97.

eta horren bitartez goren graduaren duintasunaren erdikide bihurtzeko, zeina izaki arrazoidun gisa animaliekiko oposizioan baitagokio, eta hartaz zentzu horretan hitz egin baitaiteke, ez bestetan. - Etika estoikoari buruzko nire ikuspegi honek aukera eman dit hemen hartaz hitz egiteko, arrazoimena zer den eta zer egiteko gai den aurkeztean. Eta helburu hori arrazoimena erabiliz eta etika razional soil baten bitartez erdiesgarria da gradu jakin batean, esperientziak ere erakusten duen

bezala, karakter razional huts haiek, zeintzuei arrunki filosofo praktiko deitzen baitzaie - eta arrazoiz, zeren, benetako filosofoak, h. d. teorikoak bizitza kontzeptura pasarazten duen bezala, haiek kontzeptua bizitzara pasarazten baitute - horiek dira zoriontsuenak; hala ere asko falta da zerbait perfektua era horretan gertatzeko eta errealki arrazoimen zuzen erabiliak bizitzako zama guztiak eta sofrimendu guztiak kendu eta dohatsutasunera gidatu ahal izateko. Aitzitik, kontraesan betegina dago sofritu gabe bizi nahi izatean, zeina bere baitan baitauka sarritan erabiltzen den esamoldeak: hori argigarri samarra gertatuko zaio nire ondorengo aurkezpene azkenerraino jarraituko duenari. Kontraesan hori arrazoimen hutsaren etika hartan bertan ere nabarmentzen da, estoikoa beharturik aurkitzen denean bizitza zoriontsurako bere irakaspideari (zeren horretan gelditzen baita beti bere etika) suizidioaren gomendioa eranstera (ekialdeko despoten apainduria arazeriatsu eta ponpeziaren pean pozoia daukan flaskotxo prezagarri bat aurkitzen dugun bezala), gorputzeko sofrimenduak inolako printzipio eta ondorioz filosofatuz kendu ezin diren kasurako, jasanezin eta sendaezin direnean, eta haren helburu bakarra, dohatsutasuna ere hutsaldu eta sofrimenduari ihes egiteko, heriotza besterik gelditzen ez denean, zeina beste edozein sendagai bezala axolakabe hartu behar baita. Hemen oposizio indartsuago bat nabari da etika estoikoaren eta goian aipaturiko haien guztien artean, zeinek bertutea bere baitan eta bitartegabe, sofrimendurik gogorrekin ere helburu bihurtzen baitute, eta ez baitute nahi sofrimenduari ihes egiteko bizitza amaitzerik; nahiz eta haien guztien artean inork ez baitu jakin suizidioa errefusatzeko egiazko arrazoiak ematen, baizik eta era guztietako arrazoi itxurazkoak bilatzen nekatu dira: laugarren liburuan gure kontsiderazioarekiko loturan emango da arrazoi hura. Baina goiko oposizioak nabarmendu eta berretsi egiten du esentzial desberdintasuna, oinarritzko printzipioan dagoena Estoaren, zeina propioki eudaimonismo berezi bat besterik ez baita eta aipaturiko doktrina haien artekoa, nahiz eta biek sarritan emaitzetan elkartu eta itxuraz ahaideak izan. Goian aipaturiko barne-kontraesana, ordea, zeinarekin etika estoikoa bere oinarritzko pentsamenduan atzemanik baitago, beste honetan ere agertzen da: bere idealak, modu estoikoak, bere aurkezpenean bertan bizia edo barneko egia poetikoa ezin irabazi izatean, baizik zurezko automata zurrun irautean, zeinarekin ezin baita ezer hasi, eta berak ere ez daki nora jo bere jakituriarekin, zeinaren patxada bikaina, asetasuna, dohatsutasuna gizadiaren funtsarekiko kontraesanean baitago, eta haren ezein errepresentazio begiesgarrira iristeko ez baitigu aukerarik ematen. Zeinen bestelakoak diruditen, haren alboan jarrita, mundu-gainditzaileek eta borondatezko penitentziagileek, zeinak jakituria indiarrrak proposatzen baitizkigu eta errealki sortu baititu, edo kristautasuneko Salbatzaileak, bizitza sakonez beteriko figura bikain horrek, egia poetiko handi eta esangura goreneko horrek, zeina bere bertute perfektu, santutasun eta bikaintasuna gorabehera, sofrimendu handieneko egoeran agertzen baita gure aurrean³².

BIGARREN LIBURUA

MUNDUA NAHIMEN GISA

LEHEN KONTSIDERAZIOA:
NAHIMENAREN OBJEKTIBAZIOA

Nos habitat, non tartara, sed nec sidera caeli:
Spiritus, in nobis qui viget, illa facit.

[Gugan bizi da bera, ez azpimunduan ezta zeruko izarretan ere: Gugan bizi den Espirituak eragiten du hori guztia.]

AGRIPPA VON NETTESHEIM

5, 14

§ 17

Lehen liburuan errepresentazioa horrelako den heinean, forma orokor gisa bakarrik tratatu dugu. Baina errepresentazio abstraktua, kontzeptua bere edukiaren arabera ere aztertu da errepresentazio begiesgarriarekiko bere harremanaren bitartez soilik eduki eta esangura guztia duen heinean, zeina gabe balorerik eta edukirik gabea izango bailitzateke. Beti errepresentazio begiesgarriari erreferentzia eginez, ahaleginduko gara bere edukia, bere determinazio hurbilekoenak eta aurkezten dizkigun taxuerak ezagutzen. Bereziki saiaturako gara bere benetako esanguraz azalpen bat lortzen, bestela sentitua bakarrik den esangura hartaz, zeinaren indarrez imajina horiek, bestalde izan beharko luketenez, erabat arrotz eta hutsal gure aurretik ez baitira iragaten, baizik eta bitartegabe hitz egiten baitigute, ulertuak baitira eta gure esentzia osoa kontuan hartzen duten interesa baitute.

Matematika, natur zientzia eta filosofiara geure begiak zuzentzen ditugu, zeinetatik bakoitzak, nahi dugun azalpenaren atal bat emango digula itxaropena ematen baitigu. - Lehenik filosofia buru askoko munstro bezala aurkitzen dugu, zeinetarik bakoitzak hizkuntza desberdina hitz egiten baitu. Egia da hemen aipaturiko puntuaz, errepresentazio begiesgarri haien esanguraz, guztiek ez dutela iritzi desberdina elkarren artean: zeren eszeptiko eta idealistak salbuetsirik besteek adostasun handi samarra dute objektu baten gaiaz, errepresentazioaren oinarrian dagoenaz, eta zeina errepresentazioaz bere izate eta esentziaren arabera zeharo desberdina izanarren, hala ere zati guztietan arrautza bat beste batekiko bezain antzekoa bailitzateke. Baina horrek ez digu guri ezertan lagunduko: zeren ez baitakigu inola ere objektu hori eta errepresentazioa bereizten; baizik eta biak gauza bat eta bera direla aurkitzen dugu, objektu orok beti eta noiznahi subjektu bat suposatzen duela eta horregatik errepresentazio dirauela; horrela guk egoki berrezagutu dugu objektu izatea errepresentazioaren formarik orokorrena bezala, zeina subjektu eta objektu gisa banatzea baita. Gainera arrazoiaren printzipioa da, zeinari egiten baitzaio erreferentzia, errepresentazioaren forma baizik ez zaiguna, h. d. errepresentazio batek beste batetik duen lotura, ez ordea errepresentazioen sail finitu edo infinitu oso baten errepresentazio izango ez litzakeeen zerbaitekiko lotura, eta errepresentagarri ere izan ez daitekeena. - Eszeptikoez eta idealistez gorago hitz egin dugu kanpo-munduen errealtateari buruzko polemika azaltzean.

Baldin eta orain errepresentazio begiesgarriaren nahi dugun ezagutza hurbilagokoa, guri bakarrik erabat orokorra, forma soilaren arabera ezaguna zaiguna, matematikan bilatzen badugu, orduan honek errepresentazio haietaz bakarrik hitz egingo digu, horiek denbora eta espazioa betetzen dituzten heinean, h. d. handierak diren heinean. Zenbata eta zer-tamaina zehaztasun handienaz emango dizkigu: baina hori beti erlatiboa delarik, h. d. errepresentazio bat beste batekin erkatze bat, eta hori zinez handierarekiko ikuspegi alderditar hartatik bakarrik; orduan hori ezin liteke izan nagusiki bilatzen ari garen informazioa.

Azkenik, begirada bat zuzentzen badugu natur zientzien eremu alor askotan banatura, lehenengo eta behin bi esparru nagusi bereizi ahal izango ditugu. Edo taxuen deskribapena da, nik morfologia deitzen dudana, edo aldaketen azalpena, nik aitiologia deitzen dudana. Lehenak forma iraunkorrak kontsideratzen ditu, bigarrenak materia aldakorra forma batetik beste baterako bere igarobideko legeen arabera.

Lehena, nahiz eta ezpropioki, natur zientzia deitzen dena da bere zabalera osoan: botanika eta zoologia gisa irakasten digu bereziki banakoen etengabeko aldaketan dirauten taxu desberdin, organiko eta horregatik finko determinatuak ezagutzen, zeinek eratzen baitute errepresentazio begiesgarrien edukiaren atal handi bat: berak sailkatu, bereizi, bateratu, sistema natural eta artifizialen arabera ordenatu eta guztien gainikuspegi bat eta ezagutza bat ahalbidetzen duten kontzeptu bihurtzen ditu. Gainera guztietatik pasatzen den analogia ñabarduratu bat (unité de plan) erakusten digu osotasunean eta ataletan, zeinaren indarrez eman gabeko gai baten gaineko askotariko bariazioen itxura baitauka. Materia taxu haietara iragatea, h. d. banakoen sorrera, ez da kontsiderazioaren gai nagusia, zeren banako oro bera bezalako beste batetik sortzen baita generazioz, zeinek guztiz misterioz, nonahi, orain arte ezagutza argi bati ihes egin baitio: horretaz dakigun gutxiak fisiologian dauka bere lekua, zeina natur zientzia aitiologikoei baitagokie. Horretara makurtzen da, gai nagusiaren arabera, morfologiari dagokion mineralogia ere, bereziki geologia bihurtzen den gune hartan. Aitiologia dira propioki natur zientziako abar guztiak, gai nagusitzat kausa eta efektuen ezagutza dutenak: horiek irakasten dute, arau hutsezin baten arabera bezala, materiaren egoera bati beharrezkotasunez beste determinatu bat jarraitzen zaiola: aldaketa determinatu batek beharrezkotasunez beste determinatu bat baldintzatu eta sortzen duen bezala: irakaspen horri azalpen deitzen zaio. Hemen aurkitzen dira nagusiki mekanika, fisika, kimika, fisiologia.

Baldin eta gu irakaspen horietan murgiltzen bagara, laster ohartuko gara nagusiki bila gabiltzan informazioa ez dugula gehiago aitiologian aurkitzen morfologian baino. Azken horrek ezin zenbatu ahal taxu, infinituki askotariko eta famili antzekotasun ukaezinez ahaideturikoak eskaintzen dizkigu, errepresentazio bide horretatik beti arrotz gelditzen zaizkigunak, eta horrela kontsideraturik soilik, hieroglifo ulertezin gisa aurrean dauzkagunak. - Aitzitik, aitiologiak irakasten digu, kausa eta efektu legearen arabera, materiaren egoera determinatu honek beste hura dakarrela eta horrekin azaldu eta bere egitekoa bete egin duela. Baina barrenean ordena erregularra erakustea besterik ez du egiten, zeinaren arabera egoerak espazioan eta denboran agertzen baitira, eta kasu guztietarako irakasten du, zein agerpenek denbora honetan, toki honetan beharrezkotasunez gertatu behar duen: berak determinatzen die beren lekua denboran eta espazioan ere lege baten arabera, zeinaren eduki determinatua esperientziak irakatsi baitu, zeinaren forma orokorra eta beharrezkotasuna hartatik independente baitzaizkigu ezagunak. Agerpen haietako edozeinen barne-esentziaz ez dugu horren bitartez inolako berririk hartzen: horri naturindar deitzen zaio eta azalpen aitiologikoaren eremuaz kanpo aurkitzen da, zeinek horrelako indar baten kanporatzea gertatzearen konstantzia aldaezinari, ezagunak zaizkion baldintzak hartan existitzen diren bakoitzean, natur lege deitzen baitio. Natur lege hori, baldintza horiek, toki jakin batekin eta leku jakin batekiko harremanean gertatze hori, horiek dira berak dakien, eta are jakin dezakeen gauza bakarra. Indarra bera, kanporatzen dena, lege horren arabera gertatzen diren agerpenen barne-esentzia beti misterio, erabat arrotz eta ezezagun gelditzen zaio, bai agerpen sinpleenean eta bai konplikatuenean. Zeren, nola aitiologiak orain arte bere helburua perfektukien mekanikan, ez-perfektukien fisiologian lortu baititu; horrelaxe indarra, zeinaren eraginez harri bat lurrera erortzen baita edo gorputz batek beste batekin talka egiten baitu, beren barneko esentziaren arabera ez zaigu animalia baten higidurak eta hazkuntza sorrarazten dituen baina arrotzasun eta misterio gutxiagokoa gertatzen. Mekanikak materia, pisutasuna, barrenezintasuna,

talka bidezko higiduraren komunikagarritasuna, solidotasuna eta abar azterrezintzat suposatzen ditu, natur indar deitzen die, horiek derrigor eta erregularki baldintza jakin batzuetan agertzeari natur lege, eta gero hasten da horien azalpena, zeina baita leial eta matematikoki doi ematea, nola, non, noiz kanporatzen den indar bakoitza, eta horretatik sortzen den agerpen bakoitza indar horietako batera murriztea. Gauza bera egiten dute fisikak, kimikak, fisiologiak beren eremuan, soilik horiek askozaz gehiago suposatu eta gutxiago lortzen dutela. Horren arabera, natura osoaren azalpen aitiologiko perfektuena ez litzateke inoiz indar azalezinen zerrenda bat eta arauen berriemate ziur bat izango, zeinen arabera horien agerpenak denboran eta espazioan gertatzen baitira, hurrenez hurren etortzen, elkarri leku uzten baitiote: baina horrela agertzen diren indarren barneko esentziak, berariei darraikien legeak horretara gidatzen ez duelako, azaldu gabe gelditu beharko luke beti eta agerpenean eta horren ordenan gelditu beharko luke. Zentzu horretan marmol baten ebakidurarekin erka liteke, zeinek era askotako zainak erakusten baititu elkarren ondoan, ez ordea zain horien joaira marmolaren barruan gainalde hartaraino. Edo isekazko konparazio bat egitea zilegi bazait, txundigarriagoa delako - natura osoaren aitiologia burutuan ikertzaile filosofikoari gertatuko litzaioke, nola ez dakiela gizarte erabat ezezagun batean sartu denari bezalako zerbait, nongo kideek sailean bere aurrean bata bestea bere adiskide eta lehengusu gisa aurkeztuko bailizkiokete eta horrela nahikoa ezagutaraziko balizkiokete: berak, ordea, bitartean, aurkezten dizkiotenen aurrean pozten dela ziurtatu arren, galdera hau izango luke ahoan: .

Bestalde aitiologiak ezin digu inoiz nahi dugun informaziorik eman geure errepresentazio gisa ezagutzen ditugun agerpenei buruz. Zeren horien azalpen guztien ondoren beti guretzat erabat arrotzak diren errepresentazio soil gisa gelditzen baitira, zeinen esangura ez baitugu ulertzen. Lotura kausalak espazioan eta denboran gertatzen diren araua eta ordena erlatiboa bakarrik ematen ditu, baina ez digu irakasten horrela gertatzen dena hurbilagotik ezagutzen. Gainera, kausalitatearen legeak klase determinatu bateko errepresentazioentzat, objektuentzat bakarrik du baliozkotasuna, zeinen suposiziopean bakarrik baitu esangura: horrela, objektu horiek bezala, beti subjektuarekiko harremanean dago, beraz era baldintzatuan; horregatik era berean, subjektutik abiatuz gero, h. d. a priori, edota objektutik abiatuz gero, h. d. a posteriori, ezagutzen da, jadanik Kantek irakatsi digunez.

Baina errepresentazioak dauzkagula, halako eta halako direla eta honelako edo bestelako legeen arabera elkarri loturik daudela jakitea ez aski izateak bultzatzen gaitu ikertzera, zeinen adierazpen orokorra beti arrazoiaren printzipioa baita. Errepresentazio horien esangura jakin nahi dugu: ea mundu hau errepresentazio besterik ez al den galdetzen dugu; zein kasutan bera amets funtsgabe edo mamuzko kimera bat bezala gure aurretik pasatuko litzatekeen, gure arreta merezi ez duela; edo beste zerbait ez ote den, gainera beste zerbait ez ote den eta orduan zer ote den halako hori. Era berean, oso ziurra da galdetutako horrek errepresentazioaz erabat eta bere esentziaren arabera guztiz desberdina izan behar duela, horregatik bere formek eta bere legeek ere guztiz arrotzak izan behar dutela; eta horregatik errepresentaziotik abiatu eta hartara ezin daitekeela iritsi lege haien gidaritzapean, zeinek objektuak, errepresentazioak, bakarrik lotzen baitituzte elkarren artean, arrazoiaren printzipioaren taxuerak direnak.

Hemen kanpotik gauzen esentziara ez dagoela inoiz iristerik jadanik ikusten dugu: nahi adina ikertu arren, imajinak eta izenak besterik ez da lortzen. Gaztelu baten inguruan sarrera baten bila eta tarteka fatxada zirrimarratuz alferrik biraka

dabilenaren antza du. Eta hala ere, hau da nire aurretik filosofo guztiek egin duten bidea.

§ 18

Izatez neure aurrean neure errepresentazio gisa soilik dagoen munduaren esangura ikertua edo hartatik subjektu ezagutzailearen errepresentazio soil gisa, hartaz kanpo izan daitekeenerako igarobidea, zoritxarrez inoiz ez litzateke aurkituko, baldin eta ikertzailea bera subjektu ezagutzaile hutsa (aingeruburu hegaldun soingabea) besterik ez balitz. Baina bera ere mundu horretan erroturik dago, individuum gisa aurkitzen da hartan, h. d. bere ezagutza, zeina baita mundu osoaren euskarri baldintzatzzailea errepresentazio gisa, gorputz baten bidez bitartekoturik dago, zeinaren afekzioak, erakutsi denez, adimenarentzat mundu haren begiespenaren abiagune baitira. Gorputz hori subjektu ezagutzaile hutsarentzat bere horretan beste edozein bezalako errepresentazio bat da, objektuen arteko objektu bat: higidurak, horren egintzak, zentzu horretan beste objektu begiesgarri guztien aldaketak bezala zaizkio berari ezagunak eta era berean arrotz eta ulertezin gertatuko litzaizkioke, baldin eta horien zentzua, nolabait, zeharo beste era batean deszifratuko ez balitz. Bestela emandako motiboengatik bere portaera natur lege baten konstantziarekin gertatzen dela ikusiko luke, beste objektu batzuen aldaketak bezala kausa, estimulu, motiboengatik. Motiboaren eragina ez luke agertzen zaizkion beste edozein efektuk bere kausarekiko duen loturan baino ulertuko. Bere soinaren kanporatze eta egintzen barneko esentzia eta beretzat ulertezinari ere indar bat, kualitate bat edo karakter bat, deituko lioke nahierara, baina ez luke hura gehiago ulertuko. Baina hori guztia ez da horrela: aitzitik, individuum gisa agertzen den ezagutzaren subjektuari enigmaren hitza ematen zaio: eta hitz hori nahimena da. Horrek eta horrek bakarrik ematen dio giltza bere agerpen propiorako, zabaltzen dio esangura, erakusten dio bere esentziaren, bere egintzaren, bere higiduraren barneko mekanismoa. Ezagutzaren subjektuari, zeina bere identitatearen bitartez gorputzarekin individuum gisa agertzen baita, gorputz hori bi era guztiz desberdinetan ematen zaio: behin errepresentazio gisa begiespen adigarrian, objektuen arteko objektu gisa, eta horien legeen mendean; gero berriz aldi berean guztiz bestelako era batean, h. d. bakoitzari bitartegabe ezaguna zaiona bezala, nahimen hitzak izendatzen du. Bere nahimeneko egiazko egintza oro aldi berean eta ezinbestean bere soinaren higidura bat ere bada: ezin du egintza errealki nahi izan, hori soinaren higidura bezala agertzen dela aldi berean hauteman gabe. Nahimen-akzioa eta soinaren aktua ez dira bi egoera desberdin objektiboki ezagunak, kausalitatearen lokarriak bateraturik, kausa eta efektu harremanean daudenak; baizik eta bat eta bera dira, bi era zeharo desberdinetan emanak soilik: behin guztiz bitartegabe eta beste behin adimenarentzako begiespenean. Soinaren ekintza nahimenaren objektibaturiko egintza, h. d. begiespenean agerturikoa besterik ez da. Aurrerago erakutsiko dugu, honek soinaren edozein higiduraz balio duela, ez motiboengatik bakarrik, baizik eta estimulu soilengatik nahigabe gertatzen direnez ere bai, zeren soin osoa, nahimen objektibatua, h. d. errepresentazio bihurtua besterik ez baita. Hori guztia zabalago aztertu eta argi utziko da. Horregatik soina, nik aurreko liburuan eta tratatuan han berariaz alderditarki hartutako ikuspuntutik (errepresentazioarenetik) bitartegabeko objektu deitu nuena, hemen beste ikuspegi batetik nahimenaren objektitatea deituko dut. Horregatik zentzu jakin batean esan daiteke: nahimena soinaren a priori ezagutza da eta soina nahimenaren a posteriori

ezagutza da. - Etorkizunarekin zerikusia duten nahimen-erabakiak egunen batean nahi izango denari buruz arrazoimenaren gogoeta soilak dira, ez propioki nahimen-egintzak: burutzeak bakarrik ezartzen dio zigilua erabakiari, zeina ordura arte beti proposamen aldakorra baita eta arrazoimenean bakarrik, in abstracto, existitzen baita. Erreflexioan bakarrik dira nahi izatea eta egitea desberdin: errealitatean bat dira. Nahimenaren egintza egiazko, benetako, bitartegabe bakoitza gorputzaren egintza agertzaile ere bada berehala eta bitartegabe; eta horri dagokionez bestalde soinen baitan egindako eragin oro berehala eta bitartegabe nahimenaren baitango eragin ere bada: horrelakoa den heinean min deitzen zaio, nahimenaren aurkakoa denean; ongizate, atsegin deitzen zaio, haren araberrakoa bada. Bien mailaketak oso desberdinak dira. Erabat oker daude minari eta atseginari errepresentazio deitzen dietenak; ez dira inola ere, baizik nahimenaren afekzio bitartegabeak bere agerpenean, soinean: inpresioaren aldiuneko nahi izate edo ez izate bortxatua, soinak jasaten duena. Bitartegabe errepresentazio soil gisa kontsideratu eta horregatik esandakotik salbuets daitezke inpresio jakin gutxi batzuk soinean, zeinek ez baitute nahimena erasaten eta zeinen bitartez bakarrik soina ezagutzaren objektu bitartegabe baita, zeran adimeneko begiespen gisa jadanik objektu bitartedun baita beste guztiak bezala. Hemen esan nahi dena sentsu objektibo hutsen, ikusmenaren, entzumenaren eta ukimenaren afekzioak dira, eta bakarrik organo horiek beren era propio, espezifiko, naturazkoan afektatuak diren heinean, zeina baita atal horren sentikortasun jaso eta espezifikoki modifikatuaren hain kitzikapen guztiz ahula, non ez baitu nahimena afektatzen; baizik adimena inolako kitzikapenek nahastu gabe, berari datuak eskuratzen dizkio, zeinetatik begiespena sortzen baita. Sentsu-lanabes haien edozein afekzio indartsuago edo beste mota bateko mingarria da, h. d. nahimenaren aurkakoa, zeinaren objektibitateari horrela baitagozkio. - Nerbio-ahulezia kanporatzen da adimenarentzat datuak egiteko intentsitate-maila bakarrik izan beharko luketen inpresioak, maila garaiagora iristean, zeinean nahimena mugitzen baitute, h. d. mina edo atsegina eraginez, sarriagotan mina, parte batean kamuts eta lausoa dena, horregatik ez baitira tonu bakartuak eta argi indartsua bakarrik minez hautematen baizik umore orokor gaixozko, hipokondriakoa sorrarazten ere baitute, argiro berrezagutzen ez dena. - Gainera, soinen eta nahimenaren identitatea, besteak beste, nahimenaren higidura bizi eta neurriz gaineak, h. d. afektu orok, erabat bitartegabe soina eta horren barneko mekanismoa kordokarazi eta bere bizi-funtzioen joaira nahastean agertzen da. Hori bereziki azalduko dago , bigarren edizioako 27. orrialdean.

Azkenik, neure nahimenaz daukadan ezagutza, nahiz eta bitartegabea izan, ezin da nire soinenetik bereizi. Ez dut ezagutzen neure nahimena osotasunean, ez batasun gisa, ez perfektuki bere esentziaren arabera, baizik eta bere egintza partikularretan ezagutzen dut, horrela denboran, zeina nire gorputzaren agerpenaren forma baita, edozein objektuena bezala: horregatik da soina nire nahimenaren ezagutzaren baldintza. Nahimen hori, beraz, neure soina gabe ezin dut propioki errepresentatu. tratatuan zinez nahimena edo areago nahi izatearen subjektua errepresentazioen edo objektuen klase berezi bat bezala ezarrita dago: hantxe bertan ikusi genuen objektu hori nola bat egiten den subjektuarekin, h. d. objektu izateari ere uzten: bat egite horri han (GRIEGO) miraria deitu genion: neurri batean oraingo idazki hau guztia horren azalpena da. - Nik neure nahimena benetan objektu gisa ezagutzen dudan neurrian, soin bezala ezagutzen dut: baina gero berriro ni tratatu hartan ezarritako errepresentazioen lehen klasean nago, h. d. objektu errealean. Aurrera joan ahala gero eta hobeki ikusiko dugu errepresentazioen lehen klase hark bere ebazpena, bere deszifratzea, han ezarritako laugarren klasean, zeinek ez

baitzuen propioki objektu gisa subjektuaren aurrean egon nahi, eta guk horren arabera laugarren klasean nagusi den motibazioaren legetik lehen klasean baliokoa den kausalitatearen legearen barneko esentzia eta horren arabera gertatzen dena ulertzen ikasi behar dugula.

Orain bidenabar aurkezturiko nahimenaren eta gorputzaren identitatea egiaztatu bakarrik egin daiteke, hemen egiten den bezala, eta zinez lehen aldiz egiten da eta aurrera joan ahala gero eta gehiago egingo da, h. d. kontzientzia bitartegabetik, in concreto ezagutzatik arrazoimenaren jakitera jasoko da edo in abstracto ezagutzara pasaraziko da: aitzitik, bere naturaren arabera inoiz ezingo da frogatu, h. d. ezagutza bitartedun gisa beste bitartegabe batetik ezingo da deduzitu, bera delako bitartegabeena, eta bera horrelakotzat atzeman eta finkatzen ez badugu, alferrik espero izango dugu hori nolabait bitartedunki ezagutza deduzitu gisa berreskuratzea. Oso era bereziko ezagutza da, zeinaren egia ere ez baitago propioki lau errubriketako baten azpira ekartzerik, zeinetan nik tratatuan, § 29 eta hh.etan egia guztiak sailkatu baititut, h. d. logiko, enpiriko, transzendental eta metalogikotan: zeren hori ez baita, beste haiek bezala, errepresentazio abstraktu baten harremana beste errepresentazio batekiko edo errepresentazio begiesgarri edo abstraktuaren forma beharrezkoarekiko; baizik eta hori judizio baten harremana da errepresentazio begiesgarri batek, soinak, errepresentazio ez, baizik horretatik toto genero desberdina den zerbaitekiko: nahimenarekiko. Horregatik nik egia hori beste guztietatik nabarmendu nahiko nuke eta (GRIEGO) egia filosofiko deitu. Horren adierazpena desberdin erabil eta esan daiteke: nire soina eta nire nahimena bat dira - nik errepresentazio begiesgarri gisa neure soin deitzen dudana, deitzen dut, zeharo era desberdin batean, beste ezein erarekin erkatzerik ez dagoen batean kontziente zaidan neurrian, neure nahimena - edo nire soina neure nahimenaren objektitatea dela - edo, hori alde batera utzirik, nire soina nire errepresentazio dela, nire nahimen ere badela; eta abar1.

§ 19

Baldin eta lehen liburuan barneko kontrakarrarekin soin propioa mundu begiesgarri honetako gainerako objektu guztiak bezala subjektu ezagutzailearen errepresentazio soil gisa azaldu badugu; orain argi geratu zaigu zerk bereizten duen bakoitzaren kontzientzian gorputz propioaren errepresentazioa besteetatik, nahiz eta gainerakoan erabat berdina izan, h. d. soin propioa bestelako era, toto genere desberdin batean, kontzientzian agertzea, zeina nahimen hitzaren bitartez izendatzen baita, eta ezagutza bikoitz hori, geure soinaz daukaguna, berari buruz, bere motiboengatik eragite eta higitzeari buruz baita kanpoko inpresioengatik bere sufrimenduari buruz, hitz batean, ez errepresentazio gisa baizik gainera berbaitan denari buruz argibidea ematen duela, beste objektu erreale guztien esentzia, eragite eta sufritzeaz bitartegabe ez daukaguna.

Subjektu ezagutzailea soin batekiko duen harreman berezi horren bitartez, zeinarentzat, horretaz kanpo kontsideraturik, errepresentazio bat baita gainerako guztiak bezalakoa, individuum da. Harreman hori, ordea, zeinaren indarrez subjektu ezagutzailea individuum baita, hain zuzen ere horrexegatik horren eta bere errepresentazioen arteko bakar baten artean bakarrik gertatzen da, horregatik bakar horretaz ez errepresentazio soil batez bezala, baizik aldi berean zeharo bestelako era batean, h. d. nahimen batez bezala, dauka kontzientzia. Baina harreman berezi hartaz, bata eta beraren ezagutza bikoitz eta guztiz heterogeneoaren abstrakzioa

egiten bada; orduan bat hura, soina, besteak bezalako errepresentazioa da: beraz, horri buruz orientatzeko, individuum ezagutzaileak bietan bat egin beharra dauka, edo onartu errepresentazio hura desberdintzen duena soilik bere ezagutza errepresentazio bakar harekiko harreman bikoitzean egotea dela, objektu begiesgarri bakar honetan soilik dagokiola zabalik aldi berean bi eratara ulerkuntza, baina hori ez dela azaltzen objektu horrek beste guztiekiko duen desberdintasun baten bitartez, baizik objektu bakar horrekiko bere ezagutzaren harremanaren desberdintasun baten bitartez bakarrik azaltzen dela, zeinatik beste guztiekiko daukanaz bestelakoa; edo bestela onartu behar da objektu bakar hori esentzialki beste guztietatik desberdina dela, bera bakarrik dela beste guztien artean nahimen eta errepresentazio aldi berean, gainerakoak aldiz errepresentazio soilak direla, h. d. fantasma soilak direla, bere soina horrela munduko individuum erreala bakarra, h. d. nahimen-agerpen bakarra eta subjektuaren objektu bitartegabe bakarra. - Beste objektuak, errepresentazio soil gisa kontsideratuak, bere soinarekiko berdinak direla, h. d. horrek bezala espazioa (errepresentazio gisa bakarrik existitzea ahalgarri zaio) espazioa betetzen dutela eta horrek bezala espazioan eragiten dutela, hori zinez a priori frogagarria da ziur errepresentazioentzako kausalitatearen lege segurutik, zeinek ez baitu kausarik gabeko efekturik onartzen: baina alde batera utzirik efektutik kausa bat orokorki bakarrik ondoriozta litekeela, inoiz ez kausa berdin bat; hemen beti errepresentazio soilaren eremuan gaude, zeinarentzat bakarrik balio baitu kausalitatearen legeak eta zeinaren gainetik ez baitago harago joaterik. Ea individuumak errepresentazio gisa bakarrik ezaguturiko objektuak bere soin propioa bezala nahimen baten agerpenak diren; hori da, jadanik aurreko liburuan esan denez, kanpo-munduaren errealtitateari buruzko auziaren benetako zentzua: hori ukatzea da egoismo teorikoaren zentzua, zeinek fantasmatzat hartzen baititu agerpen guztiak bere individuum propioa izan ezik, egoismo praktikoak ikuspegi praktikotik hori bera egiten duen bezalaxe, h. d. pertsona propioa bakarrik ikusi eta tratatzen du erreala bakartzat, gainerako guztiak fantasma soiltzat. Egoismo teorikoa ez dago inoiz frogapenen bidez ezeztatzerik: hala ere, filosofian ez da inoiz benetan sofisma eszeptiko bezala baizik, h. d. begitazio bezala, erabili izan. Konbikzio serio gisa, aldiz, erotxeetan bakarrik aurki liteke: horrelakoa den heinean frogapena ez baizik sendabidea beharko litzateke horren kontra. Beraz, horrelakoa den heinean ez dugu denbora gehiago horretan emango, baizik eta beti polemikoa den eszeptizismoaren azken gotorlekutzat kontsideratuko dugu. Baldin eta beti indibidualitateari loturiko gure ezagutzak eta halaber horretan bere mugapena derrigor berekin daukanak bakoitza soilik bat izatea, aitzitik beste guztiak ezagutu ahal izatea, badakar, mugapen horrek berorrek sortzen du propioki filosofiaren premia; horregatik guk, hain zuzen ere filosofiaren bitartez gure ezagutzaren mugak zabaltzen ahalegintzen garenok egoismo teorikoak hemen aurrez aurre jartzen digun argumentu eszeptikoa mugako gotorleku txiki bat bezala ikusten dugu, zeina zinez beti menderaezina bada ere, hango garnizioak ere bertatik ez dauka inoiz irteterik, horregatik albotik iragan eta arriskurik gabe atzera utz dezakegu.

Horren arabera jada argi utzi dugun ezagutza bikoitza, bi era guztiz heterogeneoz emana, zeina baitaukagu geure soin propioaren esentziatik eta eragitetik, gainera naturako edozein agerpenen esentziarako giltza bat bezala erabiltzen da, eta objektu guztiak, gure soin propio ez direnak, horregatik ez era bikoitzean, baizik errepresentazio gisa bakarrik ematen zaizkio gure kontzientziari, eta soin horren analogiaren arabera epaitu eta horregatik onartzen dugu, alde batetik, bera den bezalaxe direla beraiek ere, errepresentazio eta horretan beraren mota berekoak direla, bestalde, bere existentzia subjektuaren errepresentazio gisa

alde batera uzten bada, orduan oraindik gelditzen denak, bere barneko esentziaren arabera, guk geure baitan nahimen deitzen duguna bera izan behar duela. Zeren beste zer existentzi edo errealtate-mota egotz diezaiokegu gainerako gorputz-munduari?, nondik hartu elementuak haietaz horrelako bat osatzeko? Nahimenaz eta errepresentazioaz kanpo ezin zaigu ezer ezagun edo pentsagarri. Baldin gorputz-munduari, zeina baitago bitartegabe gure errepresentazioan, ezagutzen dugun errealtate gehiena egotzi nahi badiogu; orduan bakoitzarentzat bere soin propioak daukan errealtatea ematen diogu: hori baita bakoitzarentzat errealea. Baina orain soin horren errealtatea eta bere ekintzak analizatzen baditugu, orduan, gure errepresentazioaz gainera, gure nahimena besterik ez dela aurkitzen dugu: horrenbestez bere errealtatea bera ere agorturik dago. Horregatik gorputz-munduari egotzeko beste era bateko errealtate bat ezin dugu inon aurkitu. Baldin horrela gorputz-munduak oraindik gure errepresentazio soila baino zerbait gehiago izan behar badu, orduan esan behar dugu, errepresentazioaz gainera, horrela bere baitan eta bere barneko esentziaren arabera, geure baitan nahimen gisa bitartegabe aurkitzen dugun hori dela. Badiot: bere esentzia barnekoenaren arabera, nahimenaren esentzia hori aldeztetik hurbilagotik ezagutu behar dugu, ez berari baizik bestela maila askozaz gehiago dituen bere agerpenari dagokiona hartatik bereizten jakin dezagun: horrelakoa da, adibidez, ezagutzak lagundurik-egotea eta horrek motibo bidez baldintzaturiko determinaturik-egotea: hori, aurrera joan ahala ikusiko dugunez, ez dagokio bere esentziari, baizik bere agerpen argienari soilik animalia eta gizaki gisa. Orduan esango dut: harria lurrera bultzatzen duen indarra, bere esentziaren arabera bere baitan eta errepresentazio oroz kanpo, nahimena da; esaldi horri ezingo zaio egotzi harria motibo ezagun baten arabera higitzen delako iritzi zentzugabea, gizakiarengan nahimena horrela agertzen delako². - Aurrerantzean oraindainokoan bidenabar eta orokorrean aurkeztutakoa xeheago eta argiago azaldu, oinarritu eta bere hedadura osoan garatu nahi dugu³.

§ 20

Soin propioaren esentziaz bere baitan, soin hori dena bezala, begiespenaren objektu, errepresentazio denaz gainera, jadanik esan denez, nahimenak bere buruaren berri ematen du soin horren hautazko higiduretan, horiek nahimen-egintzen ikuskortasuna besterik ez diren bezainbatean, zeinekin aldi berean bitartegabe eta osoki bat eta bera bezala agertzen baitira, ezagugarritasunaren formaren bitartez bakarrik bereizten direla haietatik, zeinetara iragan baitira, h. d. errepresentazio bilakatu baitira.

Nahimenaren egintza horiek beti daukate arrazoi bat kanpoan, motiboetan. Hala ere, motibo horiek inoiz ez dute determinatzen nik denbora horretan, toki horretan, zirkunstantzia horietan nahi dudana baino gehiago; ez ordea nik oro har nahi izatea, ezta nik oro har zer nahi dudana ere, h. d. nire nahi izate osoa ezaugarritzen duen maxima. Horregatik nire nahi izatea ez dago bere esentzia osoaren arabera motiboetatik azaltzerik; baizik horiek bere kanporatzea soilik determinatzen dute denboragune jakin batean, abagune soila dira nire nahimena agertzeko: hori bera, aitzitik, motibazioaren legearen eremutik kanpo dago: denboragune jakin bateko bere agerpena soilik determinatzen du derrigorrean legeak. Nire karakter enpirikoaren suposiziopean bakarrik da motiboa nire egintzaren behar besteko azalpen-arrazoiak: neure karakterretik abstrakzio egiten badut eta gero galdetzen badut, zergatik nik oro har hau eta ez hura nahi dudana; ez da horrentzat erantzunik ahalgarri, zeren

nahimenaren agerpena bera ere arrazoiaren printzipioaren mendean baitago, baina ez hura bera, bere horretan arrazoigabe deitu behar baitzaio. Hemen suposatzen ditut nik nola Kanten karakter enpiriko eta adigarriaren doktrina, baita lehen edizioko, 48-58 or. eta berriro 178 or. eta hh.etan neuk hari egindako azalpenak ere, hala laugarren liburuan geroago xehekiago hitz egingo duguna ere. Oraingoz agerpen bat beste baten bitartez oinarriturik egotea bakarrik oharrarazi behar dut, horrela hemen motiboaren bitartezko egitea, ez zaiola horrekin kontrajartzen, horren berbaitango esentzia nahimena izateari, zeinek ez baitauka inolako arrazoirik, zeren arrazoiaren printzipioa bere taxu guztietan ezagutzaren forma soila baita, bere baliozkotasuna, beraz, errepresentaziora, agerpenera, nahimenaren ikuskortasunera soilik hedatzen baita, ez ikuskor bihurtzen den nahimenera berera.

Alabaina, nire gorputzeko aktu oro nahimen-akzio baten agerpen bada, zeinean motibo jakin batzuen pean nire nahimena bera oro har eta osoki, beraz, nire karakterra berriz adierazten baita; orduan akzio horren ezinbesteko baldintzak eta suposizioak ere nahimenaren agerpen izan behar du: zeren bere agerpena ezin baitaiteke egon zerbaiten mendean, bitartegabe eta beraren bidez hala kontingente izango bailitzateke, eta haren bitartez bere agerpena bera kontingente bakarrik izango bailitzateke: baldintza hura, ordea, soin osoa bera da. Horrek berak horrela nahimenaren agerpen izan behar du eta nire nahimenarekiko bere osotasunean, h. d. nire karakter adigarriarekiko, zeinaren agerpena denboran nire karakter enpirikoa baita, hala jokatu behar du, nola soinaren ekintza partikularrak nahimenaren egintza partikularrarekiko. Horrela soin osoak ez du nire nahimen ikuskor bihurtua baizik izan behar, nire nahimena bera izan behar du, hori objektu begiesgarri, lehen klaseko errepresentazio den heinean. - Horren baieztapentzat jadanik esan da nire soinaren baitango inpresio orok berehala eta bitartegabe nire nahimena afektatzen duela, eta ikuspegi horretatik mina edo atsegina, maila txikiagoan sentsazio atsegin edo ezatsegin deitzen dela, eta baita alderantziz nahimenaren edozein higidura suharrek, beraz afektuak eta grinak gorputza kordokatzen dutela eta bere funtzioen joaira nahasten dutela ere. - Egia da, nahiz eta oso ezperfektuki, nire soinaren sorreraz eta zerbait hobeki bere garapen eta iraupenaz ere aitiologikoki kontu eman dezakegula, zeina baita fisiologia: horrek gaia azaldu soilik azaltzen du, motiboek egintza nola azaltzen duten. Horregatik egintza partikularren oinarritzapena motiboaren bitartez eta horren beharrezko ondorioa gutxi kontrajartzen bazaio ekintzari oro har eta esentziaren arabera bakarrik bere baitan arrazoigabea den nahimen baten agerpena delakoari, era berean gutxi kontrajartzen zaio soinaren funtzioen azalpen fisiologikoa soin horren existentzia osoa eta bere funtzioen sail osoa nahimen haren, zeina soin beraren kanpoko ekintzetan motiboen arabera agertzen baita, objektibazioa bakarrik delako egia filosofikoari. Fisiologiak bilatzen du kanpoko ekintza horiek, zeinak hautazko higidura bitartegabeak baitira, organismoko kausetara murriztea, adibidez, muskuluen higidura zukuen fluxu batetik azaltzea (, dio Reilek bere , 6. libkia, 153. or.): demagun era horretako azalpen benetako batera errealki iristen garela, horrek ez luke inoiz gaindituko hautazko higidura oro (functiones animales) nahimen-egintza baten agerpen delako egia bitartegabe ziuerra. Ezta ere bizitza begetatiboaren (functiones naturales, vitales) azalpen fisiologikoak, nahi den tokiraino oraindik hazten dela ere, gaindi dezake inoiz osoki horrela garatzen den animala bizitza hori bera nahimenaren agerpen delako egia. Oro har, gorago aztertu denez, azalpen aitiologiko orok inoiz ezin du eman denboran eta espazioan agerpen partikular baten derrigor determinaturiko gunea, hori berori arau finko baten arabera derrigor gertatzea baizik: aitzitik, agerpen ororen

barneko esentzia bide horretatik beti aztertu gabe gelditzen da, edozein azalpen aitiologikok suposatu egiten du eta indar edo natur lege izenez deitzen du edo, egintzez hitz egiten bada, karakter, nahimen izenez. – Nahiz eta egintza partikular bakoitza karakter determinatu baten suposiziopean eskainitako motibotik derrigor etorri, eta nahiz eta hazkuntza, elikatze-prozesua eta animalia bizitzako aldaketa guztiak derrigor eragiten duten kausen (estimuluen) arabera sortu, horrela egintzen sail osoa, ondorioz horietako bakoitza, eta horien baldintza, horiek burutzen dituen soin osoa bera, ondorioz baita prozesua ere, zeinaren bitartez eta zeinean baitatza – nahimenaren agerpena, ikuskortzea, nahimenaren objektitatea besterik ez da. Horretan oinarritzen da gizaki- eta animalia soina gizaki- eta animalia nahimenari perfektuki egokitzea oro har, berariaz prestaturiko lanabesa prestatzailearen nahimenara bezalatsu, baina aise gaindituz, eta horregatik komenientzia bezala agertuz, h. d. gorputzaren azalgarritasun teleologiko bezala. Gorputzaren atalek gurari nagusiei, zeinen bitartez nahimena kanporatzen baita, perfektuki erantzun behar diete, horien adierazpen ikuskorra izan behar dute: hortzak, esofagoa eta hesteak gose objektibatua dira; genitalak, sexu-instintu objektibatua; oratzen duten eskuak, oin lasterrak ordezkatzeko duten nahimenaren ahalegin bitartedunagoari dagozkio. Eta giza forma orokorra giza nahimen orokorrari bezala, horrela dagokio indibidualki modifikaturiko nahimenari, bakoitzaren karakterrari gorpuzkera indibiduala, zeina horregatik erabat eta atal guztietan karakteristiko eta adierazkorra baita. Oso ohargarria da hori jadanik Parmenidesek adierazi izana Aristotelesekin («Metafisika», 3, 5) aipaturiko ondorengo bertso hauetan:

(GRIEGO)

(Ut enim cuique complexio membrorum flexibilium se habet, ita mens hominibus adest: idem namque est, quod sapit, membrorum natura hominibus et omnibus et omni: quod enim plus est, intelligentia est.)⁴

[Bakoitzak arin malgutzen diren soinatalen jabetza duen bezala, horren arabera dago gizakiarengan adimena: zeren gauza bera baita espiritua eta soinatalen taxuera beti bakoitzarentzat; baina adimena da nagusi.]

§ 21

Kontsiderazio hauen guztien bitartez norbaiti ezagutza etorri bazaio in abstracto ere, argia eta ziurra hortaz, edozeinek in concreto bitartegabe, h. d. sentimendu gisa daukana, h. d. agerpen propioaren bere baitango esentzia, zeinak berari errepresentazio gisa, nola bere egintzen bitartez, hala horien substrato iraunkorraren bitartez, bere soina aurkezten baitio, bere nahimena dela, bere kontzientziarentzat bitartegabeena eratzen duena, baina halakoa den bezainbatean erabat errepresentazioaren forman sartzen ez dena, zeinean objektua eta subjektua elkarren aurrez aurre baitaude; baizik bitartegabeko era batean, zeinean subjektua eta objektua ez baitira guztiz argiro bereizten, bere buruaren berri ematen baitu, hala ere ez osoki, baizik bere egintza partikularretan bakarrik bihurtzen baitzaio ezagugarri norbanakoari berari – nirekin konbikzio horretara iritsi denari, diot nik, halakoari natura osoaren esentziarik barnekoenaren ezagutzarako giltza bihurtuko zaio hori berez, beste agerpen haletara guztietara pasarazten duelarik, zeinak ez, bere propioa bezala, ezagutza bitartegabea bitartedunaz batera, baizik

azken horietan soilik, horrela erabat alderditarki, errepresentazio gisa bakarrik emanak baitira. Ez agerpen haietan bakarrik, zeinak bere propioen oso antzekoak baitira, gizaki eta animalien, esentziarik barnekoena bezala nahimen hura berrezagutuko du; baizik erreflexio jarraituak horretara gidatuko du, indarra, landarean bultza egin eta begetatzen baita, zeinaren bitartez kristala gatzatzen baita, imana ipar-polora zuzentzen baita, zeinaren kolpeak metal heterogeneoen ukipenetik bera jotzen baitu, zeina gaien kidetasunen arabera aldarapen eta erakarpen, batze eta bereizte gisa agertzen baita, eta azkenik, pisutasuna, materia guztian hain ahaltsu aritzen dena, harria lurrera eta Lurra eguzkira erakartzen duena - horiek guztiak agerpenean bakarrik desberdintzat, beren barneko esentziaren arabera gauza beretzat berrezagutu behar direnak, berak bitartegabe horrela intimoki eta gainerako ezagun guztia baino hobeki argiroen agertzen den tokian bertan berrezagutzen duen hori bezala, nahimena deitzen da. Erreflexioaren erabilera hori da soilik, agerpenean egoten uzten ez diguna, baizik berbaitango gauza eramaten gaituena. Agerpenari errepresentazio deitzen zaio, eta besterik ez: errepresentazio oro, zeinahi eratakoa dela ere, objektu oro agerpen da. Nahimena bakarrik da berbaitango gauza: hori den heinean ez da inondik ere errepresentazio, baizik toto genere hartaz desberdina: errepresentazio oro, objektu oro, agerpena, ikuskortasuna, objektitatea dakartzan hura da. Barnekoena da, partikular ororen muina, baita osotasunarena ere: itsuki eragiten duen natur indar bakoitzean agertzen da: gizakiaren egintza hausnartuan ere agertzen da; zeinen bien desberdintasun handia agerpenaren graduari bakarrik baitagokio, ez agertzen denaren esentziari.

§ 22

Berbaitango gauza hau (adierazpide kantiar hori gorde nahi dugu behin betiko formula gisa), bere horretan inoiz objektu ez dena, hain zuzen ere objektu oro bere agerpen soil delako, eta ez bera, baldin eta objektiboki pentsatua izatekotan, objektu baten izena eta kontzeptua mailegatu behar ditu, objektiboki nonbait emandako zerbaitetatik, ondorioz bere agerpenetako batetik: baina horrek ulerkuntza-gune bezala balio izateko, bere agerpen guztien artean perfektuena, h. d. argiena, bakarrik izan liteke, gehienbat garatua, ezagutzak bitartegabe argitua: hori gizakiaren nahimena besterik ez da. Hala ere, on izango da oharraraztea guk hemen noski denominatio a potiori bat bakarrik darabilgula, zeinaren bitartez nahimen kontzeptuak berak orain arte zeukana baino hedadura handiagoa hartzen baitu. Identikoaren ezagutza agerpen desberdinetan eta desberdinarena antzekoan hori da, Platonek hain sarritan oharrarazten duenez, filosofiarako baldintza. Orain arte, ordea, naturan nahimenarekin ahalegindu eta eragiten duten indarretako bakoitzaren esentziaren identitatea ez da berrezagutu eta horregatik askotariko agerpenak, zeinak genero beraren espezie desberdinak baitira, ez ditu halakotzat ikusi, baizik heterogeneo bezala kontsideratu ditu: horregatik ere ezin liteke hitzik existitu genero horren kontzeptua izendatzeko. Horregatik nik espeziea bere genero bikainenaren arabera izendatzen dut, gugandik hurbilen dagoena, ezagutza bitartegabea, beste guztien ezagutza bitartedunera garamatzana. Horregatik gaizki-ulertze iraunkor batean harrapaturik legoke hemen eskatzen den kontzeptuaren zabalpena egiteko gai izango ez litzatekeena, baizik nahimen hitzean beti orain arte bakarrik horretaz izendaturiko espezie bat, ezagutzak gidatua eta motiboen arabera eskusiboki, eta motibo abstraktuen arabera bakarrik, horrela arrazoimenaren gidaritzapean kanporatzen den nahimena ulertu nahiko lukeena, zeina, esan denez, nahimenaren agerpen argiena baita. Agerpen horren bitartegabe ezaguna zaigun

esentziarik barnekoena guk orain garbi isolatu behar dugu pentsamenduan, eta gero esentzia beraren agerpen ahulago, lausoago guztietara pasarazi, zeinaren bitartez guk nahimen kontzeptuaren eskaturiko zalbaltzea burutzen baitugu. - Alderantziz, orobat eran gaizki ulertuko ninduke agerpen guztien berbaitango esentzia hura edozein erataria izenda daitekeela uste duenak, nahimen hitzaren bitartez edo beste edozeinez. Hori izango litzateke kasua, baldin gauza hura bere baitan zerbait izango balitz, zeinaren existentzia guk ondoriatu besterik egingo ez bagenu eta horrela bitartedunki bakarrik eta in abstracto soilik ezagutuko bagenu; orduan nahi bezala izendatu ahal izango litzateke: izena handiera ezezagun baten zeinu soiltzat legoke. Orain ordea nahimen hitzak, zeinak hitz magiko batek bezala edozein gauzaren esentziarik barnekoena ireki beharko bailiguke, ez da handiera ezezagun bat, silogismoen bitartez lortutako zerbait; baizik erabat bitartegabe ezaguturiko zerbait eta hain ezaguna, non zer den nahimena, askozaz hobeki baitakigu eta ulertzen baitugu beste edozer baino, zernahi dela ere. - Orain arte nahimen kontzeptua indar kontzeptuaren azpian subsumitu da: kontrara zeharo alderantzizkoa egiten dut nik eta naturako indar bakoitza nahimen gisa pentsatu. Ez bedi uste izan hori hitz-auzi soilak edo axolakabea denik: aitzitik, esanahi eta garrantzi handienekoa da. Zeren indar kontzeptuak beste guztiek bezala, azkenean, mundu objektiboaren ezagutza begiesgarria, h. d. agerpena, errepresentazioa dauka oinarrian, eta hortik dago aterea. Kausa eta efektua nagusi diren eremu horretatik abstrahiturik dago, horrela, errepresentazio begiesgarritik, eta esan nahi du kausaren kausa izatea, aitiologikoki inola ere gehiago azalgarria ez den puntuan, baizik azalpen aitiologiko ororen beharrezko suposizioa dena. Kontrara nahimen kontzeptua bakarra da posible guztien artean, bere jatorria ez agerpenean, ez errepresentazio begiesgarri soilean daukana, baizik barrutik datorrena, bakoitzaren kontzientzia bitartegabeenetik sortzen dena, zeinean horrek individuum propioa bere esentziaren arabera bitartegabe, inolako formarik gabe, subjektu eta objektuarena ere gabe ezagutzen baitu eta aldi berean bera da, zeren hemen ezagutzaila eta ezagutua bat egiten baitira. Horregatik indarraren kontzeptua nahimenarenera murrizten badugu, orduan izatez ezezagun bat infinituki ezagun batera, areago bakarra eta errealki bitartegabe eta erabat ezaguna den batera murriztu dugu eta gure ezagutza neurri handi batean zabaldu egin dugu. Aitzitik, subsumitzen badugu, orain arte gertatu denez, nahimen kontzeptua indarrarenean; orduan munduaren barneko esentziaz daukagun ezagutza bitartegabe bakarraz gabetu egiten gara, agerpenetik abstrahituriko kontzeptu batean hondoratzen uzten diogun bitartean, zeinarekin horregatik ezin izango baikara inoiz agerpenaz haratago joan.

§ 23

Nahimena berbaitango gauza gisa erabat desberdina da bere agerpenarekiko eta guztiz askea haren forma guztiekiko, zeinetan agertzen denean bakarrik sartzen baita, zeinek hortaz haren objektitatearekin baitute zerikusia, hari berari arrotz zaizkiolarik. Errepresentazio ororen forma orokorrenak, subjektu batentzat objektu izatearenak, ez du berarekin zerikusirik; oraindik gutxiago haren mendekoeekin, zeinek orokorrean beren adierazpide komuna arrazoiaren printzipioan baitaukate, zeintzuei ezaguna denez denbora eta espazioa ere baitagozkie, eta ondorioz baita horien bitartez bakarrik dirauen eta ahalgarri den aniztasuna ere. Azken ikuspegi horretatik eskolastika zahar propiotik mailegaturiko adierazpide batez denbora eta espazioari principium individuationis deituko diet, zeina behin betiko oharrarazi

nahi baitut. Zeren denbora eta espazioa baita hura, zeinen bitartez esentzia eta kontzeptuaren arabera berdina eta bat dena desberdin, aniztasun gisa, batera eta bata bestearen ondoren agertzen baita: ondorioz principium individuationis dira, eskolastikoen hainbeste zorrozkeria eta eztabaidaren gaia, zeinak Suarezengan (5, sectio 3) batera aurkitzen baitira. - Nahimena berbaitango gauza gisa, esandakoaren arabera, arrazoiaren printzipioaren eremutik kanpo dago bere taxuera guztietan, eta ondorioz, erabat kausagabea da, nahiz eta bere agerpenetako bakoitza arrazoiaren printzipioaren mendean egon erabat: gainera, aske dago aniztasun orotatik, nahiz eta bere agerpenak denboran eta espazioan ezin zenbatu ahala izan: bera da horietako bat; ez ordea bat objektu bat den bezala, zeinaren batasuna aniztasun ahalgarriekiko oposizioan ezagutzen baita; bat, baina kontzeptu bat den bezala areago, zeina abstrakzioaren bitartez aniztasunetik irteten baita: baizik bat da, denbora eta espaziotik, principium individuationis, h. d. aniztasunaren ahaltsunetik kanpora dagoena bezala. Hau guztia nahimenaren agerpenen eta manifestazio desberdinen ondorengo kontsiderazioaren bitartez erabat garbi utzitakoan, orduan ulertuko dugu osoki kantiar doktrinaren zentzua, denbora, espazioa eta kausalitatea ez dagozkiola berbaitango gauzari, ezagutzearen formak direla baizik.

Nahimenaren arrazoigabezia argien manifestatu den tokian ezagutu da errealki, gizakiaren nahimen gisa, eta hori aske, independente izendatu denean. Aldi berean, nahimenaren arrazoigabeziaren beraren gainetik ezikusi egin da beharrezkotasuna, zeinaren mendean baitago haren agerpena erabat, eta egintzak asketzat azaldu dira, izan ez direlarik, zeren portaera bakoitza motiboak karakterraren gain duen eragiteari beharrezkotasun hertsiarekin jarraitzen baitzaio. Beharrezkotasun oro, dagoeneko esan denez, ondorioak arrazoiarekiko duen harremana da eta ezertxo ere ez besterik. Arrazoiaren printzipioa agerpen ororen forma orokorra da, eta gizakiak bere egintzan beste edozein agerpen bezala haren mendean egon behar du. Autokontzientzia nahimena bitartegabe eta bere baitan ezaguna delako, kontzientzia horretan dago askatasunarena ere. Bakarrik, alde batera uzten da individuuma, pertsona, ez nahimena berbaitango gauza gisa, baizik eta nahimenaren agerpen dena, horrelakoa den heinean jadanik determinaturik eta agerpenaren forman, arrazoiaren printzipioan, sarturik dagoela. Hortik dator gertakari miresgarria bakoitzak bere burua a priori erabat aske, baita bere egintzetako bakoitzean ere, edukitzea eta aldiuneoro beste bizimodu bat, beste bat izatea deitzen zaiona hasi ahal duela uste izatearen gertakari miresgarria. A posteriori bakarrik, esperientziaren bitartez, aurkitzen du bere txundimenerako, ez dela aske, baizik beharrezkotasunaren mendean dagoela, eta bere asmo eta erreflexioak gorabehera, bere egitea ez duela aldatzen, eta bere bizitzaren hasieratik bukaera arte bere karakter berak txarretsi, bera burutu eta aldi berean hartutako papera azkeneraino antzetzu behar duela. Nik ezin dut kontsiderazio hau hemen gehiago landu, zeren etiko gisa idatzi honetako beste atal bati baitagokio. Bitartean nik horri buruz adierazi nahi dut bere baitan arrazoigabea den nahimenaren agerpena, horrelakoa den heinean, beharrezkotasun legearen, h. d. arrazoiaren printzipioaren, mendean dagoela; horrela ez dugu inolako eragozpenik naturako agerpenak gertatzen diren beharrezkotasunean, nahimenaren manifestazioak haietan berrezagutzeko.

Orain arte nahimenaren agerpentzat hartu izan dira beste arrazoirik ez zuten aldaketak motibo bat baino, h. d. errepresentazio bat ez duten aldaketak bakarrik hartu dira; horregatik naturan gizakiari bakarrik eta izatekotan ere animaliei egozten zaie nahimena; zeren ezagutzea, errerepresentatzea noski, nik beste leku

batean dagoeneko aipatu dudanez, animalitasunaren karakter benetako eta eksklusiboa baita. Bakarrik ezein ezagutzak gidatzen ez duen tokian, nahimenak han ere eragiten duela animalien instintuan eta trebetasunean, ikusten dugu batez ere⁵. Horiek errepresentazioak eta ezagutza daukatelakoa, ez da hemen kontuan hartzekoa, zeren helburua, zeinara jotzen baitute motibo ezagutua balitz bezala, erabat ezezaguna gertatzen baita haientzat; horregatik haien egintza hemen motiborik gabe gertatzen da, ez da errepresentazioak gidatua, eta horrek erakusten digu lehenik eta argiroen nola nahimenak inolako ezagutzarik gabe ere badiharduen. Urtebeteko txoriak ez du arrautzen errerepresentaziorik, horientzat habia eraikitzeke; armiarma gazteak ez du harrapakinarenik, harentzat sare bat lantzeko; ezta inurri-lehoiak ere inurriarenik, lehen aldiz hobia egiten duenean; kakarraldoaren larbak hortzaka zuloa egiten du zurean, bertan bere eraldakuntza burutzeko, bi aldiz handiagoa harra denean kakarraldo emea denean baino, lehen kasuan, adarrentzako lekua izateko, nahiz eta haietaz oraindik errerepresentaziorik ez izan. Animalia horien egite horretan nabaria da animalia bere gainerako egitean bezala, nahimenak badiharduela: baina ekintza itsua da, ezagutzak lagundua, baina ez berak gidatua. Behin iritsi garenean errepresentazioa motibo gisa nahimenaren ekintzaren baldintza beharrezko eta esentziala ez delako ulerpenera; orduan nahimenaren eragitea errazago berrezagutuko dugu, hain nabaria ez den kasuetan ere, eta ondoren, adibidez, barraskiloaren etxea ez diogu hari berari ezagutzak gidaturiko nahimen bati egotziko, geuk eraikitzen dugun etxea, gure nahimenaz bestelako baten bitartez existitzen dela baino gehiago; baizik bi etxeak bi agerpenetan objektibatzen den nahimenaren obratzat hartuko ditugu, zeina gudan motiboen arabera, barraskiloarengan itsuki, kanporantz zuzenduriko eratze-kitzikapen gisa eragiten baitu. Gudan ere nahimen horrek berak sarritan itsuki eragiten du: ezagutzak gidatzen ez dituen gure soineko funtzio guztietan, bere prozesu bital eta begetatibo guztietan, digestioan, odol-zirkulazioan, sekrezioan, hazkuntzan, ugalketan. Ez bakarrik soinaren akzioak baizik hura bera baita osoki, gorago frogatu denez, nahimenaren agerpen, nahimen objektibatu, nahimen konkretu: hartan gertatzen den orok nahimenaren bitartez gertatu behar du beraz, nahiz eta hemen nahimen hori ez izan ezagutzak gidatua, ez izan motiboen arabera determinatua, baizik itsuki eraginez, kasu horretan kitzikapen deitzen diren kausen arabera izan.

Nik kausa deitzen diot hitzaren zentzurik hertsienean materiaren halako egoerari, zeinak beste bat beharrezkotasunarekin sortzen duelarik, berak kausatu duen bezain aldaketa handia jasaten baitu, zeina arauaren bitartez adierazten baita. Gainera, benetako kausan eragipena hazi kausaren proportzio berean egiten da, erreakzioa ere bai; halako moldez, non efektu-mota ezaguna denean, kausaren intentsitate-mailatik efektu-maila ere neurtu eta kalkulatzeko baita, eta alderantziz ere bai. Propioki kausa deituriko horiek mekanismoaren, kimismoaren eta abarren agerpen guztietan eragiten dute, labur esateko, gorputz inorganikoen aldaketa guztietan. Aitzitik, kitzikapen deitzen diot bere eraginaren arabera erreakzioa jasaten ez duen kausari, eta zeinaren intentsitatea ez baitoa inondik ere paraleloki mailaren arabera efektuaren intentsitatearekin, zeina ez baitago haren arabera neurtzerik: aitzitik, kitzikapenaren gehitze txiki batek oso handia eragin dezake efektuan edo alderantziz, aurreko efektua ezabatu eta abar. Mota horretakoa da gorputz organikoek horrelakoak diren heinean sorturiko edozein efektu: beraz, kitzikapenengatik, ez kausa soilengatik gertatzen dira animali soinean benetako aldaketa organiko eta begetatibo guztiak. Kitzikapenak, ordea, oro har edozein kausak eta motiboak berak bezala ez du determinatzen inoiz indar ororen denboran eta

espazioan kanporatzearen sarrera-puntua baino gehiago, ez kanporatzen den indarraren barneko esentzia bera, zeina gure aurreko dedukzioaren arabera nahimen gisa ezagutzen baitugu, zeinari horregatik bai gorputzaren aldaketa kontzienteak bai inkontzienteak egozten batizkiogu. Kitzikapenak erdigunea hartzen du, igarobidea egiten du motiboaren, ezagutzatik iragandako kausalitatearen, eta zentzu hertsian hartutako kausaren artean. Kasu partikularretan batzuetan motibotik hurbilago egoten da, eta beste batzuetan kausatik, hala ere, beti bietatik desberdintzen da: horrela gertatzen da, adibidez, kitzikapenaren bitartezko izerdiaren igoeran landareetan eta ez dago kausa soiletatik hidraulikaren eta hodi komunikatuen legeen arabera azaltzerik: hala ere horietan dauka sostengua eta oro har aldaketa kausal hutsetik oso hurbil dago. Aitzitik, hedysarum gyrans eta mimosa pudicaren higidurak, nahiz eta kitzikapen soilaren ondorio izan, hala ere motiboengatikoen oso antzekoak dira eta ia badirudi igarobidea egin nahi dutela. Argia gehitzean begininiak estutzea kitzikapenarengatik gertatzen da, baina motiboengatik higiduretara pasatzen da; zeren hori gertatzen baita argi indartsuegiak erretina mingarriki erasango lukeelako, eta guk, hori saihesteko, begininia uzurtzen dugu. - Ereizioaren eragingarria motibo bat da, ze errepresentazio bat da; hala ere kitzikapen baten beharrezkotasunarekin eragiten du: h. d. ez dago hari kontra egiterik, baizik urrundu egin behar da, hark eragiterik izan ez dezan. Gauza bera gertatzen da objektu nazkagarriekin, zeinek oka egiteko gogoia eragiten baitute. Kitzikapenezko higiduraren eta motibo ezagun baten araberrako egintzaren artean animalien instintua ere kontsideratu dugu beste mota bateko tarteko erreal gisa. Mota horretako beste tarteko bat bezala arnasketa ikusten saia gintezke: eztabaidak izan dira, ea hautazko edo ez-hautazko higiduretakoa den, h. d. motiboaren ala kitzikapenaren ondorioa den propioki, horren arabera agian bien arteko gauza bat bezala azaldu ahal izango bailitzateke. Marshall Hallek (§ 293 sq.) funtzio mistoa dela azaltzen du, zeren bai nerbio zerebralaren (hautazkoen) eta bai nerbio espinalen (ez-hautazkoen) eraginpean baitago. Baina badirudi azkenean motibotik sortzen diren nahimen-adierazpenen artean sartu behar dugula: zeren beste motibo batzuek, h. d. errepresentazio soilek, nahimena determina dezakete astiroagotu edo bizkorragotzera, eta beste edozein hautazko egintza bezala, badu itxura erabat eten daitekeela eta libreki itotzea eragin. Eta izan ere, beste motiboren batek hainbestearaino nahimena determinatuko balu eta airea hartzeko premia larria gaindituko balitz hori egin ahal izango litzateke. Batzuen arabera Diogenesek era horretara ezarri zion bukaera bere bizitzari (Diogenes Laertios 6, 76). Beltzek ere hori egin izan omen dute (Friedrich Benjamin Osiander 170-180 or.). Horretan adibide indartsu bat geneukake motibo abstraktuen eraginarena, h. d. nahi izate propioki razionalak animali nahi izatearekiko duen nagusitasunarena. Gutxienez parte batean ekintza zerebralaren bitartez arnasa determinaturik egotearen alde gertakari batek hitz egiten du: azido zianhidrikoak duen hiltzeko moduak, zeren zerebroa geldiarazi eta horren bitartez arnasketa eragozten baitu: baina horri artifizialki eusten bazaio, garunaren sorgortzea pasatu arte, orduan ez da heriotzarik gertatzen. Aldi berean arnasketak ematen digu hemen bidenabar adibiderik nabariena motiboak nola kitzikapenak eta kausa soilak bezalako beharrezkotasun handiz zentzurik hertsienean eragiten du eta nola presioa kontrapresioaz bezala, motibo kontrajarriekin bakarrik funtzionamenduz kanpo: zeren arnasketan hori eten daitekeelakoaren itxura askozaz ahulagoa baita motiboengatik gertatzen diren beste higiduretan baino; zeren motiboa horretan oso eragingarria, oso hurbilekoa eta bera asetzea oso erraza baita, hori burutzen duten muskuluen nekaezintasunarengatik, eskuarki ez dio ezerk kontra egiten, eta norbanakoaren ohiturarik zaharrenaren bitartez sostengaturik dago guztia. Eta hala

ere, motibo guztiek beharrezkotasun berarekin eragiten dute. Motiboengatik higiduren beharrezkotasuna eta kitzikapenengatikoena komuna den ezagutzak erraztu egingo digu ulertzen soin organikoan kitzikapenengatik eta guztiz erregularri gertatzen dena bere barneko esentziaren arabera nahimena dela, zeina inoiz ez bere baitan, baizik bere agerpen guztietan arrazoiaren printzipioaren, h. d. beharrezkotasunaren mendea baitago⁶. Beraz, ez gara mugatuko animaliak, beren egintzan ez ezik beren izate, gorpuzkera eta antolakuntza osoan nahimen-agerpen gisa berrezagutzera; baizik eta guri bakarrik eman zaigun gauzen berbaitango esentziaren ezagutza bitartegabea landareetara pasaraziko dugu, zeinen higidura guztiak kitzikapenengatik gertatzen baitira, zeren ezagutzaren absentsiak eta berak baldintzaturiko motiboengatik higidurenak bakarrik eratzen baitu animalien eta landareen artean desberdintasun esentziala. Horrela, errepresentazioarentzat landare gisa, begetazio soil gisa, itsuki ari den indar gisa agertzen dena, berbaitango esentziaren arabera nahimentzat jo beharko dugu, eta baita gure agerpen propioaren euskarria eratzen duena bera dela berrezagutu ere, gure egitean, baita gure soinaren izatean ere adierazten denez.

Orain azken urratsa egitea gelditzen zaigu, gure kontsideratze-era indar haietara guztietara hedatzea, zeinek naturan lege orokor, aldaezinen arabera eragiten baitute, zeinen arabera gorputz guztien higidurak gertatzen baitira, zeinek batere organorik ez izatean kitzikapenerako ez baitute sentikortasunik eta ez motiborako batere ezagutzarik ere. Gauzen beren baitango esentziaren ulerkuntzarako giltza, zeina guri geure esentzia propioaren ezagutza bitartegabeak bakarrik eman baitiezaguke, mundu inorganikoaren agerpen horietan ere ezarri behar dugu, zeinak guztien artean distantzia handienara baitaude gugandik. - Baldin eta ikusten badugu, begirada ikertzailez kontsideratuz, uraren oldar indartsu eta geldiezina, zeinekin sakonera amiltzen baita, imana beti ipar-polora zuzentzen den iraunkortasuna, burdinak beti hari jarraitzen dion irrika, elekrizitatearen poloak berriro elkartzeko duten bizitasuna, giza gurariena bezala, eragozpenekin areagotzen dena; kristala bizkor eta bat-batean gatzatzen ikusten badugu, erakuntzaren hainbesteko erregularitasunarekin, zeina norabide desberdinetan egindako ahalegin guztiz deliberatua baita eta zehatz determinatua solidotzeak bakarrik atzeman eta finkatua nabariki; baldin eta ohartzen badugu nolako hautapenez gorputzek jariakortasun-egoerak askatasunean jarri eta solidotasunaren lokarrietatik jareginik, elkar bilatu eta aldentu, batu eta bereizten duten; baldin, azkenik, erabat bitartegabe sentitzen badugu, zama bat bezala, zeinaren bulkadak gure soina lurmasara lotzen baitu, etengabe horren kontra zapaldu eta estutzen duela, bere ahalegin bakarra jazartuz - orduan ez zaigu irudimen-neke handirik kostako, nahiz eta gure esentzia propiotik hainbesteko distantziara berrezagutzea ezagutzaren argitan bere helburuak jazartzen ari den hura bera, nahiz eta hemen bere agerpenik ahulenean itsu, kamuts, alderditar eta aldaezin bakarrik ahalegindu, hala ere, nonahi bat eta bera delako, - lehen goiznabarrak eguerdi betearen brintzekin eguzki-argiaren izena partekatzen duen bezala - hemen bezala han nahimen izena eraman behar duela, zeinek izendatzen baitu munduko gauza bakoitzaren berbaitango izatea eta agerpen ororen muin bakarra dena.

Hala ere, erabateko desberdintasunaren distantzia, eta are itxura, natura inorganikoaren eta guk geure esentzia propioaren barrena gisa hautematen dugun nahimenaren artekoa, batean erabat determinaturiko erregularitasunaren eta bestean itxuraz hautazkotasun araugabearen arteko kontrastetik sortzen da batik bat. Zeren gizakiarengan indibidualitatea indartsu agertzen baita: bakoitzak bere karakter

propioa du; horregatik motibo berak ez du guztiengan indar bera, eta norbanakoaren ezagutza-esferan sartzen diren baina besteentzat ezagunak diren mila albo-zirkunstantziek modifikatu egiten dute bere efektua; horregatik egintza ez dago motibotik bakarrik aurre-determinatzerik, zeren beste faktorea falta baita, karakter indibidualaren ezagutza zehatza eta hori laguntzen duen ezagutza. Aitzitik, natur indarren agerpenek beste muturra erakusten dute hemen: lege orokorren arabera eragiten dute, desbideratzerik gabe, indibidualitaterik gabe, agerian dauden zirkunstantzien arabera, aurre-determinazio zehatzenean mende, eta natur indar bera kanporatzen da bere milioika agerpenetan era berean hain zuzen. Puntu hori azaltzeko nahimen bakar eta zatiezinararen identitatea bere agerpen hain desberdin guztietan, bai ahulenetan eta bai indartsuenetan frogatzeko, lehenik nahimenak berbaitango gauza gisa bere agerpenarekiko, h. d. nahimen gisako munduak erre-presentazio gisako munduarekiko, duen harremana kontsideratu behar dugu, eta hortik irekiko zaigu bigarren liburu honetan trataturiko objektua sakon ikertzeko biderik hoberena⁷.

§ 24

Kant handiarengandik ikasi dugu denbora, espazioa eta kausalitatea beren erregularotasun osoaren eta beren forma guztien ahalatasunaren arabera gure kontzientzian, objektuetatik erabat independente existitzen direla, zeinak haietan agertzen baitira, zeinek haien edukia eratzen baitute, edo beste hitz batzuetan: subjektutik zein objektutik abiatuta era berean aurki daitezkeela; horregatik eskubide beraz subjektuaren begiespen-era edo objektuaren izaera dei daitezke, objektu (Kantengan: agerpen), h. d. erre-presentazio den heinean. Forma horiek objektua eta subjektuaren arteko muga bereizteaz ere har daitezke: horregatik objektu orok horietan agertu behar du, baina subjektuak ere agertzen den objektutik independente erabat poseditu eta gainbegiratzeko ditu. - Alabaina, forma horietan agertzen diren objektuak fantasma huts izatea nahi ez bada, esangura bat izatea baizik: zerbaiti erreferentzia egin beharko liokete, zerbaiten adierazpen izan beharko lukete, bere aldetik bera bezala objektu, izango ez dena erre-presentazio, h. d. subjektu batentzat bakarrik erlatiboki existituko litzatekeen zerbait; baizik eta horrelako dependentziarik gabe berari aurrean kontrajarritako izaki batetik, baldintza esentzial eta horren forma gisa existituko litzatekeena, h. d. ez erre-presentazio, baizik berbaitango gauza izango litzakeena. Horren arabera gutxienez galde egin genezake: erre-presentazio horiek, objektu horiek oraindik zerbait gehiago ote dira, erre-presentazio, subjektuaren objektu direla alde batera utzirik? Eta zer izango lirateke zentzu horretan? Zer da erre-presentazioaz toto genere desberdina den beste alde hori? Zer da berbaitango gauza? - Nahimena: izan da gure erantzuna, nik oraingoz alde batera uzten dudana.

Zernahi dela ere berbaitango gauza, Kantek zuzen erabaki du, denbora, espazioa eta kausalitatea (jadanik guk gerora arrazoiaren printzipioaren taxuera gisa, eta hori agerpenaren formen adierazpen orokor gisa berrezagutu ditugunak) ez direla haren determinazio, baizik eta, ondoren eta erre-presentazio bihurtu diren heinean, egotz lekizkiokeela, h. d. bere agerpenari bakarrik dagozkion heinean eta ez hari berari. Zeren subjektuak horiek bere baitatik, objektu ororekiko independente, erabat ezagutu eta eraikitzen baititu; horrela erre-presentazio izatearekiko dependentzian egon behar dute, ez erre-presentazio denarekikoan. Erre-presentazioaren forma izan behar dute horrelakoa den heinean, ez ordea forma hori hartu duenaren propietate izan. Subjektua eta objektuaren oposizio soilarekin (ez kontzeptuan, gertakarian

baizik) jadanik emanak izan behar dute, ondorioz ezagutzaren formaren determinazio hurbilagoa bakarrik izan, zeinaren determinazio orokorra oposizio hori berori baita. Hala, bada, agerpenean, objektuan berriro denbora, espazioa eta kausalitatearen bitartez baldintzaturik dagoena, horien bitartez bakarrik errepresentatua izan daitekeen heinean, h. d. aniztasuna alboan eta bata bestearen ondoren egotearen bitartez, aldaketa eta iraupena kausalitatearen legearen bitartez eta kausalitatearen suposiziopean bakarrik errerepresentagarria den materia, azkenik horren bitartez bakarrik errerepresentagarria den guztia - hori guztia orokorrean ez da agertzen denaren, errerepresentazioaren forman sartu denaren propioa esentziaz, baizik forma horrekiko berorrekiko bakarrik da dependente. Alderantziz, baina, agerpenean, denbora, espazioa eta kausalitatearen bitartez baldintzaturik ez dagoena, horietara murriztuz ez daitekeena, horien arabera azal ez daitekeena, hori izango da hain zuzen bitartegabe agertzen denaren, berbaitango gauzaren berri emango duena. Horren arabera sortzen da ezagugarritasun perfektuena, h. d. klarutasun handiena, argitasuna eta ikergarritasun agortzailea derrigor egokituko zaio, ezagutzari horrelakoa den heinean propio zaiona, horrela ezagutzaren formari; baina ez bere baitan errepresentazio ez denari, objektu ez denari, eta forma horietan sartzearen bitartez bakarrik ezagugarri, h. d. errepresentazio, objektu bihurtu denari. Beraz, ezagutua izatearekiko bakarrik dependentea dena, errepresentazio izatearekiko oro har eta horrelakoa den heinean (ez ezagutua den eta errepresentazio denarekiko), horregatik ezagutua, bilakatua den edozeri, inolako desberdintasunik gabe, dagokiona, eta zeina subjektutik abiatu edo objektutik, era berean aurkitzen dena - horrek bakarrik eman ahal izango du inolako erreserbarik gabe ezagutza klaru, gogobetegarri, erabat agortzailea, bere azken arrazoiraino iristen dena. Baina hori guri a priori ezagunak zaizkigun agerpen ororen formetan ez beste ezertan ez dago, zeinen adierazpen komuna arrazoiaren printzipioa baita, zeinen ezagutza begiesgarriarekin (eta horrekin du eskusiboki zerikusia) harremana duten taxuak denbora, espazioa eta kausalitatea baitira. Horietan bakarrik oinarriturik daude matematika hutsa eta a priori natur zientzia hutsak. Ezagutzak zientzia horietan bakarrik ez du, beraz, iluntasunik aurkitzen, eta ez du tupust egiten ikerrezinarekin (arrazoigabearekin, h. d. nahimenarekin), gehiago deduziezina denarekin; ikuspegi horretatik Kantek berak, dagoeneko esan denez, ezagutza horiei hobespenez, are eskusiboki, logikarekin batera zientzia deitu nahi izan zien. Bestalde, ordea, ezagutza horiek harreman soilak, errepresentazio batek beste batetik dituen harremanak, inolako edukirik gabeko formak besterik ez dizkigute erakusten. Lortzen duten eduki bakoitzak, forma horiek betetzen dituzten agerpen bakoitzak badauka bere baitan zerbait bere esentziaren arabera erabat ezagugarria ez dena, beste baten bitartez erabat azalgarria ez dena, zerbait arrazoigabea dena, zeinaren bitartez ezagutzak ebidentzia galdu eta gardentasun osoa sakrifikatzen baitu. Azterketari ihes egiten dion hori da hain zuzen ere berbaitango gauza, esentzian errepresentazio ez dena, ezagutzaren objektu ez dena; baizik forma horretan sartu den heinean ezagugarri bihurtzen dena. Forma jatorriz arrotza zaio, eta ezin inoiz erabat bat izan berarekin, ezin da inoiz forma soilera murriztu eta, nola hori arrazoiaren printzipioa den, ezin da erabat aztertua izan. Horregatik, nahiz eta matematika orok ezagutza agortzailea eman agerpenean handiera, posizioa, zenbakia denaz, labur esateko, harreman espazial eta tenporala denaz, nahiz eta aitiologia orok badintza erregularrei buruz informazioa eman, zeinen azpian agerpenak beren determinazio guztiekin denboran eta espazioan gertatzen baitira, hala ere horretan guztian ez digute irakasten inoiz zergatik agerpen determinatu bakoitza hain zuzen orain hemen agertzen den eta hain zuzen orain hemen agertu behar

duela besterik; horrela horien laguntzarekin ez gara inoiz gauzen barneko esentzian sartzen, eta horrela beti gelditzen da zerbait, zeinaz inolako azalpenik ezin baita eman, baizik eta hori suposatzen duena beti, h. d. naturako indarrak, gauzen eragite-mota determinatua, kalitateak, agerpen bakoitzaren karakterra, arrazoigabea, agerpenaren formarekiko dependente ez dena, arrazoiaren printzipioarekiko, berbaitango forma hori arrotz zaiona, baina horretan sarturik dagoena eta bere legearen arabera bistaratzen dena, lege horrek bere bistaratzea bakarrik determinatzen du, ez bistaratzen den hori, agerpenaren nolakoa bakarrik ez, zer hori, forma bakarrik, ez edukia. - Mekanikak, fisikak, kimikak arauak eta legeak irakasten dituzte, zeinen arabera barrenezintasuna, pisutasuna, solidotasuna, jariakortasuna, kohesioa, elastizitatea, beroa, argia, kidetasuna, magnetismoa, elektrizitatea eta abarrek eragiten baitute, h. d. legea, araua, zeinak indar horiek aldioro denboran eta espazioan agertzearen ikuspegitik betetzen baituzte: baina indarrek berek, nolanahi jokatzeko dugula ere, qualitates occultae izaten jarraitzen dute. Zeren berbaitango gauza baita, agertzen denean, fenomeno haiek aurkezten dituenak, haietatik zeharo desberdina, bere agerpenaren errepresentazioaren forma bezala arrazoiaren printzipioaren erabat mendean, nahiz eta forma horretara inoiz murriztu ezin den eta horregatik aitiologikoki azkeneraino azaldu ezin den, ezta erabat aztertu ere; zinez erabat ulergarria, forma hori hartu duen heinean, h. d. hori agerpen den heinean; baina bere barneko esentziaren arabera ulergarritasun horren bitartez ez da mailarik txikienean ere azaltzen. Horregatik, zenbat eta ezagutza batek beharrezkotasun handiagoa izan berekin, zenbat gehiago egon hartan beste era batera pentsatu eta errepresentatzen ez dena - adibidez, harreman espazialak bezalakoak - zenbat eta klaru eta gogobetegarriago izan beraz; hainbat eduki objektibo huts gutxiago dauka edo hainbat benetako errealtate gutxiago dago bertan emana: eta alderantziz, zenbat eta bertan kontigente huts bezala gehiago kontzebi daitekeen, hainbat gehiago agertzen zaigu enpirikoki soilik emana bezala; hainbat gehiago dago benetan objektiboa eta egiazki erreala dena horrelako ezagutzan; baina aldi berean baita hainbat azalezin gehiago ere, h. d. bestetik deduziezina.

Garai guztietan izan da, noski, bere helburua ezagutu gabe bizitza organiko oro kimismora edo elektrizitatara murrizten ahaleginak egin dituen aitiologia, berriro kimismo oro, h. d. kalitatea, mekanismora (atomoen taxueraren bitartezko eragiterak), horiek berriz bai alde batetik foronomiaren objektura, h. d. denbora eta espazioa elkarturik higiduraren ahalatasunera, bai geometria soilera, h. d. espazioko posizioa (alde-alde eskubide guztiarekin efektu baten gutxitzea distantziaren berbidurarekin eta Hebel-en teoria geometrikoki soilik eraikitzen bezala): geometria azkenik aritmetikan ebazten da, zein baita, dimentsioaren batasunarengatik, atzemangarriena, gainbegiragarriena, azkeneraino azter daitekeen arrazoiaren printzipioaren taxuera. Hemen orokorrean aipaturiko metodo horien adibideak hauek dira: Demokritoren atomoa, Cartesioren zurrumbiloak, Lesageren fisika mekanikoa, zein joan den mendearen azken aldera afinitate kimikoak berak ere, grabitazioa bezala, mekanikoki, talka eta presioaren bitartez azaltzen ahalegindu baitzen, etik zehatzago ikus daitekeenez; Reilen forma eta nahasturak ere, animali bizitzaren kausa gisa, horretara jotzen du: guztiz mota horretakoa da azkenik orain ere, 19. mendearen erdian berriz berpiztu den, ezjakintasunarengatik bere burua originaltzat daukan materialismo gordina, zeinek ergelki bizi indarrak ukatuz bizitzaren agerpenak indar fisiko eta kimikoetatik azaltzen baititu, eta horiek berriz amesturiko atomo batzuen materia, posizioa, taxua eta higiduraren eragite mekanikotik sortarazten baititu eta horrela naturako indar guztiak talka eta

kontratalkara murriztu nahiko lituzke, horrelakoak diren heinean baitira. Horren arabera, argia bibratze mekanikoa izango litzateke edo helburu horretarako postulaturiko eter imaginario baten uhindura, zeinek iritsi denean, erretina, danbolin baten modura jotzen baitu, non, adibidez, segundoko 483 bilioi kolpek gorria eta 727 bilioik morea ematen baitute eta abar: kolorearekikoitsuak kolpeak zenbatu ezingo lituzketenak izango lirateke, ezta? Horrelako teoria zakar, mekaniko, demokritiko, kamuts eta egiaz zokilezkoak, duela berrogeita hamar urte Goetheren koloreen teoria agertu ondoren oraindik Newtonen argi homogeneoan sinesten duten eta hori esateko lotsarik ez dutenen dinakoak dira. Esperientziaz ikasiko dute, haurrari (Demokritori) ez ikusi egiten zaiona, helduari ez zaiola barkatzen. Baliteke lotsagarri amaitu behar izatea: baina orduan ezkutuka ihes egingo du mundu guztiak eta horrekin zerikusirik ez balu bezalako itxurak egingo. Laster itzuliko gara jatorrizko natur indarren elkarren arteko murrizte faltsu horretaz hitz egitera; oraingoz aski da hemen esandakoa. Demagun hori horrela gertatu dela, dena azaldurik eta azterturik geldituko litzateke, azkenik kalkulu-kasu bihurturik ere bai, zein gero jakituriaren tenpluko santurik santuena izango bailitzateke, zeinetara arrazoiaren printzipioak azkenean zorionez gidatuko bailuke. Baina agerpenaren eduki oro desagertu eta forma soila bakarrik geldituko litzateke: agertzen den hori nola agertzen denera murrizturik geldituko litzateke, eta nola hori izango litzateke a priori ezagugarria ere, horregatik subjektuarekiko erabat dependente, eta horregatik, bere buruarentzat bakarrik, azkenik fantasma soila, errepresentazio eta errepresentazioaren forma bakar-bakarrik: ez legoke berbaitango gauzaz galdetzerik. - Horren arabera, demagun hori horrela gertatu dela, orduan mundu osoa subjektutik deduzituko litzateke eta izatez Fichtek bere hitzontzikeriaren bitartez itxuraz egin nahi izan zuena gertatuko litzateke. - Baina ez da horrela gertatzen: fantasiak, sofistikazioak, aireko gazteluek ez dute era horretara zientziarik eratu. Lortu da eta egiazko urrats bat egin da, hori lortu den bakoitzean, naturako agerpen ugari eta askotarikoak jatorrizko indar bakanetara murriztea: hasiera batean desberdintzat hartutako indar eta kualitate bat baino gehiago deduzitu da bata bestetik (adibidez, magnetismoa elektrizitatetik), eta horrela horien kopurua urritu egin da: aitiologia bere helburura iritsia izango da, naturako indar jatorrizko guztiak horrelakotzat ezagutuak, ezarriak eta horien eragiteko moduak finkatuak, h. d. arauak, zeinen arabera kausalitatearen gidaritzapean beren agerpenak denboran eta espazioan agertzen baitira, eta zeinek elkarren artean beren lekua determinatzen baitute: baina beti geldituko dira lehen indar batzuk, beti geldituko da hondakin disolbaezin gisa agerpenaren eduki bat, zein bere formara ezingo baita murriztu, ezta arrazoiaren printzipioaren arabera beste zerbaitetik azaldu ere. - Zeren naturako gauza bakoitzean badago zerbait, zeinetatik ez baitago inoiz ezein arrazoi ematerik, ezein azalpen ahalgarri, ez baitago beste kausarik bilatzerik: bere eragitearen modu espezifikoa da, h. d. bere izatearen modua hain zuzen, bere esentzia. Zinez gauzaren eragite partikular bakoitzari kausa bat egotz lekiok, zeini jarraitzen baitzaio, hain zuzen orain, hain zuzen hemen eragin behar zuelakoa: baina oro har eta hain zuzen horrela eragiten duelakoa, inoiz ez. Beste propietaterik ez badu, eguzki-hautsale bat besterik ez bada ere, gutxienez horren pisutasun eta barrenezintasun gisa erakutsiko du zerbait ikerrezin hori: baina hori, diot nik, berarentzat, gizakiarentzat bere nahimena den hori da, eta hori bezala, bere barneko esentziaren arabera ez dago azalpenaren mendean, areago horrekin identiko da bere baitan.

Egia da nahimenaren adierazpen orori eta horren egintza bakoitzari denbora horretan, toki horretan motibo bat egotz lekiokela, zeinetatik gizakiaren

karakterraren suposiziopean derrigor gertatu behar baitu. Baina berak karakter hori izateaz, berak oro har nahi izateaz, motibo desberdinetatik hain zuzen hori eta ez besterik, are zerbaitek bere nahimena higitzeaz, horretaz ez dago inoiz arrazoia ematerik. Gizakiarentzat bere karakter ikerrezina, motiboengatiko bere egintzen azalpenean suposatzen dena, hori da hain zuzen gorputz inorganiko bakoitzean bere kualitate esentziala, bere eragiteko modua, zeinen kanporatzeak inpresioen bitartez deiaraz baitaitezke kanpotik, aldiz hura bera ezerk hartaz kanpo determinatzen ez duelarik, horrela azalgarria ere ez delarik: bere agerpen partikularrak, zeinen bitartez bakarrik bihurtzen baita ikuskor, arrazoiaren printzipioaren mendean daude: baina bera arrazoigabea da. Jadanik eskolastikoek hori esentzian zuzen berrezagutu eta forma substantialis gisa izendatu zuten (ikus horretaz disp. 15, sectio 1).

Errore handi bezain ohikoa da agerpen sarri, orokor eta sinpleenak hobekien ulertzen ditugunak direla uste izatea; baina haietara gure begirada eta ezjakintasuna haietan gehienbat ohitu ditugunak izaten dira. Harri bat lurrera erortzea animalia bat higitzea bezain azalezina zaigu. Gorago esan denez, natur indar orokorrenetatik (pisutasuna, kohesioa, barrenezintasuna) abiatuz, horietatik arraroagoak eta zirkunstantzia konbinatuetan bakarrik eragiten dutenak (adibidez, kualitate kimikoa, elektrizitatea, magnetismoa) azaldu nahi izan dira, azkenik horietatik organismoa eta animalien bizitza, are gizakiaren ezagutzea eta nahi izatea ulertuko lirateke. Tazituki onartu izan da qualitates occultae batzuetatik abiatzea, zeinak argitzeari uko egin baitzitzaien, horien gainean eraikitzeko asmoa dagoelako, eta ez horien azpian indusketan ibiltzekoa. Horrek, esan denez, ezin zuen atarramendu onik izan. Baina hori alde batera utzirik, eraikin hori beti airean egongo litzateke. Zertan laguntzen dute azalpenek, lehen problema zen bezain ezezaguna den zerbaitera murrizten badute? Azken finean gehiago ulertzen al da natur indar orokorren barneko esentziaz animalia bakoitzaren barneko esentzia baino? Bata ez al dago bestea bezain ikergabe? Arakaezin, arrazoigabea delako, agerpenaren edukia, zera delako, inoiz murriztu ezin dena bere formara, bere nola-ra, arrazoiaren printzipiora. Baina gu, hemen ez aitiologiaz baizik filosofiaz, h. d. ez baldintzatuaz, baizik munduaren esentziaren ezagutza baldintzagabeaz arduratzen garenok, alderantzizko noranzkoan bidea hartu eta bitartegabe osokien ezaguna eta erabat fidatzekoa zaigunetik jotzen dugu, hurbilen daukagunetik, urrun, alderditar eta bitartedun zaiguna ulertu ahal izateko: eta agerpen ahaltsu, esanguratsu, argienetik ez-perfektuagoa, ahulagoa ulertzen ikasi nahi dugu. Gauza guztietatik, neure soin propioa salbu, alde bakarra ezagutzen dut, errepresentazioarena: bere barneko esentzia itxita daukat eta misterio sakona zait, nahiz eta kausa guztiak ezagutu, zeinetatik bere aldaketa guztiak gertatzen baitira. Nigan gertatzen denarekin erkatuz bakarrik, motibo batek higitzen nauenean, nire soinak egintza bat burutzen duenean, zein baita nire aldaketa propioen, kanpoko arrazoiek determinatuen barneko esentzia, ideia bat izan dezaket bizirik gabeko gorputz horiek kausengatik aldatzeko duten era eta moduaz, eta horrela ulertu zer den horien barneko esentzia, zeren agertze horren kausen ezagutzak denboran eta espazioan gertatzearen arau soilaren berri emango baitit eta ez besterik. Hori egin badezaket nire soina objektu bakarra delako da, zeinaren alde bakar bat ez ezik, errepresentazioarena, bigarrena ere, nahimen deitzen dena ezagut baitezaket. Horrela nik neure organismo propioa, gero neure ezagutze eta nahi izatea eta motiboengatiko neure higidura hobeki ezagutuko nituzkeela sinetsi ordez, baldin eta kausengatiko higidurara murriztu ahal izango banu, elektrizitatearen bitartez, kimismoaren bitartez, mekanismoaren bitartez; ez aitiologia baizik filosofiaren bila nabilenez gero, alderantziz gorputz

inorganikoen higidurarik sinple eta orokorrenak, zeinak kausengatik gertatzen ikusten baitut, lehenik beren barneko esentziaren arabera ulertzen ikasi behar dut motiboengatik neure higidura propioetatik eta indar arakaezinak, naturako gorputz guztietan kanporatzen direnak bere espeziearen arabera nigan nahimena denarekiko identikoak direla ezagutzen, eta mailari dagokionez bakarrik horretaz desberdinak. Horrek esan nahi du tratatuan ezarritako errepresentazioen laugarren klaseak giltza izan behar duela niretzat lehen klasearen barneko esentziaren ezagutzarako, eta motibazioaren legetik kausalitatearen legea ulertzen ikasi behar dudala, barreneko bere esanguraren arabera.

Spinozak dio (62) talka baten bitartez airean barrena doan harriak, kontzientziarik balu, bere nahimen propioz hegan doala uste izango lukeela. Nik gehitzen diot bakarrik harriak arrazoia izango lukeela. Harentzat talka, niretzat motiboa den hori da, eta bere baitan kohesioa, pisutasun, lortutako egoeran iraupen den hori, barneko esentziaren arabera neure baitan nahimen gisa ezagutzen dudana hori bera da, eta hartan ezagutza agertuko balitz, hala nahimen gisa berrezagutuko litzateke. Spinozak, pasarte hartan, harriak hegan egiten duen beharrezkotasunera zeukan begia zuzendua, eta arrazoiz pasarazi nahi du hori pertsona baten nahimen-egintza bakoitzaren beharrezkotasunera. Nik, aitzitik, barneko esentziari begiratzen diot, zeinek beharrezkotasun erreala orori (hau da, kausatiko efektuari) horren suposizio gisa, esangura eta baliozkotasuna ematen baitio, gizakiarengan karakter, harrian kualitate deitzen zaio, baina bietan gauza bera da, eta non ere bitartegabe ezagutua baita, nahimen deitua, eta zeinek harrian ikuskortasunaren, objektitatearen mailarik ahulena baitu, gizakiarengan indartsuena. - Gauza guztien ahalegin hori, gure nahi izatearekin identikoa dena, Agustin santuak jadanik sen ziurraz berrezagutu zuen, eta ezin diot uko egin gaiaren bere adierazpen xaloa hemen aldatzeari: «Si [enim] pecora essemus, carnalem vitam et quod secundum sensum eiusdem est amaremus, idque esset sufficiens bonum nostrum, et secundum hoc si esset nobis bene, nihil aliud quaereremus. Item, si arbores essemus, nihil quidem sentientes motu amare possemus: verumtamen id quasi appetere videremus, quo feracius essemus, uberiusque fructuosae. Si essemus lapides aut fluctus aut ventus aut flamma vel quid eiusmodi sine ullo quidem sensu atque vita, non tamen nobis deesset quasi quidam nostrorum locorum atque ordinis appetitus. Nam velut amores corporum momenta sunt ponderum, sive deorsum gravitate, sive sursum levitate nitantur: ita enim corpus pondere, sicut animus amore fertur, quocumque fertur.» [Animaliak izango bagina, orduan haragizko bizitza eta horen sentsuei dagokiena maitatuko genuke eta ongi horretan izango genuke geure asea, eta horren arabera ongi bageunde, ez genuke beste ezer bilatuko. Era berean, zuhaitzak bagina, orduan ezingo genuke ezer sentitu eta mugimenduaren bitartez lortu, baina ahalegin motako bat adieraziko genuke, zeinaren bitartez emankorrago izango baikinake eta eman aberatsagokoak izango baikinake. Harriak edo olatuak edo haizea edo sugarra edo antzeko zerbait izango bagina, inolako kontzientzia edo bizitzarik gabeak, ez litzaiguke faltako dagokigun lekua eta ordenarekiko ahaleginik. Zeren grabitatearen mugimenduetan nolabait bizigabeen maitasuna agertzen baita, pisutasunaren indarrez beherantz edo arintasunaren indarrez gorantz ahalegintzen delarik: horrela pisuak gorputza, maitasunak espiritua bezala eramaten baitu, eramaten duen lekura.] (11, 28.)

Oraindik ohartzea merezi du Eulerrek jadanik ulertu zuela grabitazioaren esentzia azken finean gorputzen (beraz nahimen) batera murriztu behar zela. Horrek Newtonengan ageri den grabitazioaren kontzeptuaren etsai bihurtzen du, eta horren

modifikazio bat teoria cartesiar goiztiarraren arabera bilatzera makurturik dago, horrela grabitazioa eter batek gorputzetan egindako talka batetik deduzitzera, egokiagoa omen litzatekeelako. Atrakzioa qualitas occulta gisa fisikatik bazterturik ikusi nahi du. Hori egoki zegokion Eulerren garaian nagusi zen natura hilaren ikuspegiari, arima materiagabearen korrelatu gisa: baina ezarri dudan oinarri-egiarekiko ikuspegitik kontuan hartzekoa da, zein jadanik buru argi hark urruntasunean dirdirka ikusirik, itzulia garaiz hartzera presatu baitzen eta, behinolako oinarri-ikuspegi guztiak arriskuan ikusteko bere beldurrarekin, zentzugabekeria zahar eta jadanik baztertu batean babesa aurkitu baitzuen.

§ 25

Badakigu aniztasuna oro har derrigor denbora eta espazioaren bitartez baldintzatua eta horietan bakarrik dela pentsagarria, zeinak guk ikuspegi horretatik principium individuationis deitzen baititugu. Baina denbora eta espazioa arrazoiaren printzipioaren taxuera gisa berrezagutu ditugu, zeinetan gure a priori ezagutza guztia adierazten baita, zeina, ordea, azaldu dugunez horrelakoa den heinean gauzen ezagugarritasunari bakarrik baitagokio, ez beraiei, h. d. gure ezagutza-forma da soilik, ez berbaitango gauzaren propietatea, zeina horrelakoa den heinean aske baitago ezagutzaren forma orotatik, baita orokorrenetik ere, subjektuarentzat objektu izatearenetik, h. d. errepresentazioaz zeharo bestelako zerbait da. Baldin eta bere baitango gauza hori, luzaro erakutsi eta argi utzi dudala uste dudanez, nahimena bada; orduan, horrelakoa den heinean eta bere agerpenetik bereizita kontsideraturik, denboratik eta espaziotik kanpo dago, eta horren arabera ez du aniztasunik ezagutzen, ondorioz bakarra da; hala ere, jadanik esan dudanez, ez da individuum gisa, ezta kontzeptu bezala ere bakarra; baizik aniztasunaren ahalatasunaren baldintza, principium individuationis-a arrotza zaion zerbait bezala. Espazio eta denborako gauzen aniztasuna, zeinak batera bere objektitatea baitira, horregatik ez dauka berarekin zerikusirik, eta horiek gora-behera zatiezin gelditzen da. Adibidez, ez dago horren zati txikiago bat harrian, handiago bat gizakiarengan: zeren ataletik osorako harremana espazioari baitagokio eskusiboki eta ez du inolako zentzurik, begiespen-forma hori alde batera utziz gero; baizik gehiago eta gutxiagoak ere agerpenarekin, h. d. ikuskortasunarekin, objektibazioarekin bakarrik du zerikusia: horrena bai, landarean harrian baino maila garaiagoa dago; animaliarengan landarean baino garaiagoa: are ikuskortasunean bere nabarmentzeak, bere objektibazioak mailaketa infinituak ditu, ilunabar ahulenaren eta eguzki-argi bizienaren artean, hotsik indartsuenaren eta oihartzunik arineraren artean bezala. Aurrerago ikuskortasunaren maila horren kontsideraziora itzuliko gara, zeina bere objektibazioari, bere esentziaren errainuari baitagokio. Baina bere objektibazioaren mailaketak duena baino zerikusi bitartegabe gutxiago du oraindik berarekin maila desberdin horietako agerpenen aniztasunak, h. d. forma bakoitzeko banakoen edo indar bakoitzaren adierazpen partikularren multzoak; zeren aniztasun hori denbora eta espazioaren bidez bitartegabe baldintzaturik baitago, zeinean indarra bera ez baita sartzen. Era berean nabarmentzen da haritz batean milioi batean bezala: bere zenbakiak, denbora eta espazioko bere ugalketak ez du inolako zentzurik berarekiko ikuspegian, baizik eta espazioan eta denboran ezagutzen duten eta hartan ugaltu eta barreiatutako banakoen aniztasunaren ikuspegian, zeinen aniztasuna bere agerpenari bakarrik baitagokio, ez berari. Horregatik baieztatu liteke, halaber, baldin eta per impossibile izaki bakar bat, nahiz eta kaxkarrena izan, erabat deuseztuko balitz,

horrekin mundu osoa iraungiko litzatekeela. Horren sentimenduarekin dio Angelus Silesius mistiko handiak:

Badakit, ni gabe, Jainkoak ezingo lukeela une batez ere bizi.
Ni desegiten banaiz; berarenak ere derrigor egin beharra dauka.

Era askotara ahalegindu izan dira unibertsoaren handiera neurtezina bakoitzaren ulertzeko gaitasunera hurbiltzen, eta gero horretatik kontsiderazio eraikigarrietarako bide hartzen, adibidez, lurraren eta baita gizakiaren txikitasun erlatiboari buruz; eta gero horrekiko oposizioan, espirituaren handitasunaz horren gizaki txikian, zeinak munduaren handitasun hori arakatu, ulertu, are neur baitezake, eta antzeko beste gauza batzuk egin ere bai. Bejondeiela! Baina niretzat, munduaren neurtezintasuna kontsideratzean, berbaitango esentzia da garrantzizkoena, zeinaren agerpena baita mundua -zernahi delarik ere-, bere egiazko nia, ezin dela era horretan espazio mugagabea banatu eta barreiatu, baizik hedadura infinitu hori bere agerpenari bakarrik dagokiola, aitzitik naturako gauza bakoitzean, bizidun bakoitzean osorik eta zatitu gabe dagoela presente; horregatik ez da ezer galtzen banakoren batean geldituz gero, eta benetako jakituria ez da mundu mugagabea neurtzen delako lortzen edo, taxuzkoagoa litzatekeena, pertsonalki espazio amaigabea hegaz pasatzen delako; baizik edozein banako erabat ikertzen delako, bere esentzia propio eta egiazkoa erabat ezagutu eta ulertzen ikastea bilatzen delarik.

Horren arabera ondorengo, jadanik Platonen edozein ikasleri berez bururatu zaiona, hurrengo liburuan kontsiderazio xehearen objektu izango da, h. d., ezin zenbatu ahal banakotan adierazten den, nahimenaren objektibazioaren maila desberdin horiek eredu erdietsezin gisa edo gauzen betiko forma bezala existitzen direnak, berak ez agertuz denboran eta espazioan, banakoaren mediuma; baizik finko egonez, ezein aldaketaren mendean egon gabe, beti izanez, inoiz bilakatu gabe; haiek sortu eta iraungitzen diren bitartean, beti bilakatzen ari dira eta izan ez dira inoiz; hori, diot nik, nahimenaren objektibazioaren maila horiek Platonen ideiak besterik ez direla. Eta hemen bidenabar aipatzen dut hori aurrerantzean ideia hitza zentzu horretan erabili ahal izateko, zeina nire kasuan benetako eta jatorrizko, Platonek berak emandako zentzuan ulertu behar baita eta horregatik ez da inondik ere arrazoimen eskolastikoki dogmatizatzailearen produkzio abstraktu haietan, zeinak izendatzeko Platonek jadanik ezaguna zuen eta berak zentzu egokiagoan erabilitako hitz haren erabilera desegoki eta abusuzkoa egin baitu Kantek. Horrela nik ideia hitzaren azpian nahimenaren objektibazioaren maila determinatu eta finko bakoitza ulertzen dut, berbaitango gauza eta horregatik aniztasunari arrotz zaion heinean; maila horiek gauza partikularrekiko betiko forma edo eredu gisa jokatzen baitute. Dogma platoniko sonatu haren adierazpen labur eta bilduena Diogenes Laertiosek ematen digu (3, 12): (GRIEGO) (Plato ideas in natura velut exemplaria dixit subsistere; cetera his esse similia ad istarum similitudinem consistentia.) [Platonek irakasten du ideiak nolabait eredu gisa existitzen direla, gainerako gauzek, ordea, horien antza dutela eta horien irudi bezala direla.] Kanten abusu hartaz ez dut berri gehiagorik emango: horri buruz behar dena Eranskinean dago.

§ 26

Nahimenaren objektibazioaren mailarik behearen gisa naturako indar orokorrenak aurkezten dira, zeinak agertzen baitira bai edozein materiatan salbuespenik gabe, pisutasuna, barrenezintasuna bezala, bai oro har existitzen den materialian banatu

baitira, halako moldez, non batzuk materia espezifikoki desberdin hauen gainean, eta beste batzuk beste haien gainean nagusitzen baitira, hala nola, solidotasuna, jariakortasuna, elastizitatea, elektrizitatea, magnetismoa, propietate kimiko eta edozein eratako kualitateen gainean. Horiek bere baitan nahimenaren agerpen bitartegabeak dira, gizakiaren egitea bezalaxe, bere horretan arrazoigabeak dira gizakiaren karakterra bezala, bere agerpen partikularrak bakarrik daude arrazoiaren printzipioaren mendean gizakiaren egintzak bezala, aitzitik horiei berei ezingo litzaieke ez efektu eta ez kausa deitu, baizik kausa eta efektu guztien baldintza alde aurretiko eta suposatuak dira, zeinen bitartez bere esentzia propioa garatu eta agertzen baita. Horregatik zentzugabea da pisutasunaren, elektrizitatearen kausaz galdetzea: horiek jatorrizko indarrak dira, zeinen kanporatzeak kausa eta efektuen arabera gertatzen baitira, horrela horien agerpen partikular orok kausa bat duela, zeina bera horrelako agerpen partikular bihurtzen baita berriz eta determinazioa ematen du, hemen indar hura kanpora dadin, denboran eta espazioan ager dadin; baina indarra bera ez da kausa baten efektua, ezta efektu baten kausa ere. - Horregatik faltsua da hau esatea: , hemen areago da lurraren hurbiltasuna kausa, horrek harria erakartzen duen heinean. Lurra kentzen bada, harria ez da eroriko, nahiz eta pisutasunak iraun. Indarra bera kausen eta efektuen kateatik erabat kanpoan gelditzen da, zeinak denbora suposatzen baitu, horrekiko harremanean bakarrik baitu zentzua: hura ere denboraz kanpo gelditzen da. Aldaketa partikularrak beste aldaketa partikular bat dauka kausatzat, baina ez indarra, zeinaren kanporatzea baita. Zeren hain zuzen kausa bati ezin zenbatu ahal alditan ager dadin beti eraginkortasuna ematen diona, natur indar bat da, eta horrelakoa den heinean arrazoigabea da, h. d. kausen kateatik erabat kanpo gelditzen da eta oro har arrazoiaren printzipioaren eremutik eta nahimenaren objektitate bitartegabetzat ezagutzen da filosofikoki, zeina baita natura osoaren berbaitangoa; baina aitiologian, hemen fisikan, jatorrizko indar, h. d. qualitas occulta gisa aipatzen da.

Nahimenaren objektitatearen maila gorenean indibidualitatea esanguratsu agertzen ikusten dugu, gizakiarengan bereziki, karakter indibidualen desberdintasun handia bezala, h. d. pertsonalitate oso, indarrez markaturiko fisiognomia indibidualaren bitartez kanpora adierazia, zeinak gorpuzkera osoa besarkatzen baitu. Indibidualitate hori ez dauka ezein animaliak hain maila zabalean; animalia gorenak bakarrik dute horren antza, zeinengan hala ere espezie-karakterra erabat nagusi baita, eta horregatik fisiognomia indibidual gutxi. Zenbat eta beheago, hainbat gehiago galtzen da karakter indibidualaren aztarna oro espeziearen orokorrean, zeinen fisiognomia ere bakarrik gelditzen baita. Generoaren karakter psikologikoa ezagutuz gero, zehatz jakiten da zer espero litekeen banakoarengandik; aitzitik, giza espeziean banako bakoitza bere baitan aztertu eta ikertu behar da, ziurtasun apur batekin bere portaera aldezturik determinatzeko, zeina arrazoimenarekin bakarrik sortutako aldaketaren ahalatasunarekin zailtasun handienekoa baita. Seguraski giza generoak beste guztiekiko duen desberdintasun hori loturik dago garunaren ildoak eta zirkunboluzioak, txorien erabat falta eta karraskariengan oraindik oso ahulak direnak, animalia gorenengan beraien erabakien aldean oso simetrikoak dira eta banako bakoitzarengan iraunkoragoak gizakiarengan baino⁸. Gainera gizakia animalia guztiengandik bereizten duen karakter indibidual haren fenomeno gisa dago animalien sexu-instintuak bere asekuntza hautapen ohargarririk gabe bilatzea, aldiz gizakiarengan hautapen hori, zeina erreflexio ororekiko independente eta era instintuzkoan burutzen baita, hainbestera bultzatzen da, non grina indartsu izateraino igotzen baita. Beraz, gizaki oro nahimenaren agerpen bereziki determinatu eta ezaugarritu gisa, neurri bateraino ideia propio bat bezala hartu behar delarik, animalien indibidualitate hori erabat falta da espezieak bakarrik zentzu propio bat duen heinean, eta bere aztarna gero eta gehiago desagertzen da, gizakiarengandik gehiago urrundu ahala, landareek, azkenik, ez dute banakoaren beste berezitasunik, eta luraren, klimaren eta beste kontingentzia batzuen kanpoko eragin aldeko edo kontraktik bakarrik azaltzen dira perfektuki; horrela, azkenik, naturako erreinu inorganikoan indibidualitate oro desagertzen da erabat. Kristala soilik har daiteke banakotzat neurri bateraino: norabide jakin batzuetan egindako ahaleginen batasuna da, solidotzeak geldiarazia, bere aztarna iraunkor bihurtzen duena: bere muin-taxuerazko agregatu bat da, batasunerako ideia batez lotua, zuhaitza hazten den zuntz bakar batetik agregatu bat den bezala, zeina hostoaren nerbio bakoitzean, hosto bakoitzean, abar bakoitzean aurkezten, errepikatzen baita eta neurri bateraino horietako bakoitza hazkuntza propiotzat har daitekeena, zeina handitik parasitoki elikatzen baita, halako moldean, non zuhaitza kristalaren antzera landare txikien agregatu sistematiko bat baita, nahiz eta osotasuna ideia zatietan baten aurkezpen perfektua izan, h. d. nahimenaren objektibazioaren maila determinatu horrena. Kristal espezie bereko banakoek ezin dute beste desberdintasunik izan, kanpoko kontingentziek eragiten dituztenak baino: espezie bakoitza kristal handitan edo txikitan gatzaraz dezakegu nahierara. Banakoa horrelakoa den heinean, h. d. karakter indibidual baten azternekin, ez da inola ere natura inorganikoan aurkitzen. Horren agerpen guztiak natur indar orokorren kanporatzeak dira, h. d. nahimenaren objektibazioaren halako mailak, zeinak ez baitira inondik ere objektibatzen (natura organikoan bezala) indibidualitatearen desberdintasunaren transmisioaren bitartez, zeinek osotasunaren ideia atalka adierazten baitute; baizik eta espeziean bakarrik eta hori agerpen partikular bakoitzean erabat eta inolako desbideratzerik gabe aurkezten baitute. Ze denbora, espazioa, aniztasuna eta kausak baldintzatu izatea ez nahimenari ezta ideari (nahimenaren objektibazio mailari), baizik horien agerpen partikularrei bakarrik

dagokie; horrela gisa horretako natur indar baten, adibidez, pisutasunaren edo elektrizitatearen milioika agerpen guztietan, indar hori horrelakoa den heinean oso zehatz aurkezten da era berean, eta kanpoko zirkunstantziek bakarrik modifika dezakete agerpena. Bere esentziaren agerpen guztietako batasun horri, horiek gertatzearen konstantzia aldaezin horri, kausalitatearen gidaritzapean horretarako baldintzak existitzen diren neurrian, horri natur lege deitzen zaio. Horrelako bat esperientziaz ezaguna denean, orduan natur indarraren agerpena, zeinaren karakterra adierazi eta ezarri baita, zehatz aurre-determinatu eta kalkulatu da. Nahimenaren objektibazioaren behe-mailetakoa agerpenen erregulartasun hori da horiei hain itxura desberdina ematen diena nahimen berak gorenei ematen dienaren aldean, hau da bere objektibazioaren maila argiagoetan, animalien, gizakiengan eta horien portaeran, zeinetan karakter indibidualaren agertze indartsuago edo ahulagoa eta motiboen bitartez higitua izatea, zeinak ezagutzen daudelako, ikuslearentzat sarritan ezkutuan gelditzen baitira, bi agerpen-moten barneko esentziaren identikotasuna orain arte erabat ezezaguna izan da.

Natur legeen hutsezintasunak, partikularren ezagutzatik abiatzen denean, eta ez ideiarenetik, badu zer bait txundigarria, batzuetan ia laborritzerainokoa. Mirets gintezke naturak bere legeak behin bakarrik ere ez ahazteaz: adibidez, behin natur lege baten arabera bada, gai jakin batzuek elkarrekin topo egitean baldintza determinatu batzuetan konbinazio kimiko, gas-garapen, erreketak bat gertatzea; orduan, baldintzek elkarrekin topo egiten badute, nola gure xedapenez hala erabat ausaz (non puntualtasuna espero gabea delako hainbat txundigarriagoa baita) gaur orain mila urte bezala berehala eta atzerapenik gabe agerpen determinatua gertatzen da. Miragarritzko hori bizikien sentitzen dugu agerpen arraro, oso zirkunstantzia konbinatuetatik soilik gertatzen diren, eta horien artean aldiz lehen iragarri zaizkigunetan, horrela adibidez, metal jakin batzuek batabestea eta hezetasun azidotu batez elkar txandaka ukitzen dutenean, kateakuntza horren muturretan zilarrezko orritxoak ezarri, bat-batean gar berdeek sortu behar dute: edo baldintza jakin batzuetan diamante gogorra ikatz-azido bihurtzen da. Natur indarren oropresentzia espirituarena bezalakoa txunditu egiten gaitu, eta eguneroko agerpenetan inoiz harritzen ez gaituena, hemen ohartzen dugu, h. d. nola kausa eta efektuaren artean lotura benetan hain misteriotsua dagoen, formula magiko baten eta espirituaren artean ezartzen dena bezalakoa, zeina azken horrek deiturik derrigor agertzen baita. Aitzitik, ezagutza filosofikoan sarturik bagaude, natur indar bat nahimenaren objektibazioaren maila determinatu bat dela, h. d. guk geuk geure esentzia propio gisa ezagutzen duguna, eta nahimen hori bere baitan eta bere agerpenarekiko desberdina eta bere formatatik denboraz eta espazioaz kanpo dagoena eta horregatik horiek baldintzaturiko aniztasuna ez berari ezta bitartegabe bere objektibazioaren mailari, h. d. ideari, baizik horren agerpenei bakarrik dagokiela, kausalitatearen legeak, ordea, denbora eta espazioarekiko harremanean bakarrik duela zentzua, horietan ideia desberdinen agerpen anizkoiztuak, zeinetan manifestatzen baita nahimena, bere lekua determinatzen baitu, ordena arautuz, zeinetan gertatu behar baitu - baldin eta gu, diot nik, Kanten doktrina handiaren barneko zentzuaren ezagutza horretan sartzen bagara, espazioa, denbora eta kausalitatea ez berbaitango gauzari, baizik agerpenari bakarrik dagozkiola, gure ezagutzaren formak bakarrik direla, eta ez berbaitango gauzaren berezitasunak; orduan ulertuko dugu, natur indar baten eragitearen erregulartasun eta puntualtasunari, bere milioika agerpen guztien berdintasun perfektuari, horien agerpenaren hutsezintasunari buruzko txunditze hura, izatez, haur baten edo basati baten txunditzearekin konpara daitekeela, zeinak lehen

aldiz alde askoko kristal baten bitartez, adibidez, lore bat begiztatzean, ikusten dituen ezin zenbatu ahal loreen berdintasun perfektuaz harritu eta bakoitzaren hostoak banan-banan zenbatzen baititu.

Horrela jatorrizko edozein natur indar orokor bere barneko esentzian nahimenaren objektibazioa besterik ez da maila behere batean: horrelako maila bakoitzari betiko ideia deitzen diogu Platonen zentzuan. Baina natur legea ideiak bere agerpeneko formarekin duen harremana da. Forma hori denbora, espazioa eta kausalitatea da, zeinek lotura eta harreman beharrezko eta bereiztezinak baitituzte elkarrekiko. Denbora eta espazioaren bitartez ideia anizkoiztu egiten da ezin zenbatu ahal agerpenetan: baina ordena, zeinaren arabera horiek askotarikotasunaren forma haietan agertzen baitira, finko determinaturik dago kausalitatearen bitartez: hori aldi berean ideia desberdinen agerpen haien muga-puntuen araua da, zeinaren arabera espazioa, denbora eta materia hartan banaturik baitaude. Arau horrek harremana du, beraz, derrigor existitzen den materia osoaren identitatearekin, zeina agerpen desberdin haien guztien substratu komuna baita. Horiek guztiak ez baleude materia komun harekin harremanetan, zeinaren jabetzan banatuak izan behar baitute; beren uziak determinatzeko ez litzateke horrelako legerik beharko: guztiek aldi berean eta elkarren ondoan espazio infinitua eta denbora infinitua erabat beteko lukete. Beraz, betiko ideien agerpen haiek guztiak materia bakar eta berarekiko harremanean daudelarik, beharrezkoa zen horien agertze eta desagertzearen arau bat izatea: bestela ez bailiokete elkarri lekuri utziko. Horregatik, kausalitatearen legea esentzian substantziaren iraupenarekin loturik dago: biek hartzen dute bata bestetik elkarrekiko zentzua; era berean espazioak eta denborak ere jokatzen dute berarekiko. Zeren materia berean determinazio kontrajarrien ahaltasun soila denbora baita; determinazio kontrajarri guztien azpian irauteko ahaltasun soila espazioa baita. Horregatik azaldu dugu materia aurreko liburuan denbora eta espazioaren bateratzea bezala; eta bateratze hori akzidenteen aldaketa gisa agertzen da substantziaren iraupenean, zeinaren ahaltasun orokorra kausalitatea edo bilakatzea baita. Horregatik esan dugu ere, materia erabat kausalitatea dela. Adimena kausalitatearen korrelatu subjektibo gisa azaldu dugu eta materia (baita mundu osoa errepresentazio gisa ere) adimenarentzat bakarrik existitzen dela esan dugu, bere baldintza, bere euskarri dela beharrezko bere korrelatu gisa. Hori guztia lehenengo liburuan adierazitakoaren bide batezko oroitzapen gisa ezarri dut hemen. Bi liburuak barnean bat datozela ohartzea beharrezkoa da horiek erabat ulertzeko: zeren mundu errealean beren bi alde bezala bereiztezinki bateraturik dagoena: nahimena eta errepresentazioa, bi liburu hauen bitartez banatu egin da, bakoitza bakarturik argiago ezagutzeko.

Agian ez litzateke alferrikako izango, adibide baten bitartez oraindik argiago uztea nola kausalitatearen legeak denbora eta espazioarekin eta bien bateratzean datzan materiarekin harremanean soilik zentzua duen; mugak determinatzen baititu, zeinen arabera natur indarren agerpenak haien jabetzan banatuak baitira, jatorrizko natur indarrak berak, nahimenaren objektibazio bitartegabe gisa, hori berbaitango gauza gisa ez baitago arrazoiaren printzipioaren mendean, zeinak forma haietatik kanpo gelditzen baitira, zeinen barruan bakarrik azalpen aitiologiko orok baitute baliozkotasuna eta zentzua, eta horregatik hain zuzen ere ezin baikaituzte inoiz naturaren barneko esentziara gidatu. - Helburu horretarako mekanikako legeen arabera eraikitako makina bat pentsa dezagun. Burdinazko pisuek beren pisutasunaren bitartez hasiera ematen diote higidurari; kobrezko gurpilek erresistitu egiten dute beren

solidotasunarengatik, talka egin eta jaso egiten dute palanka bere barrenezintasunaren bidez. Hemen pisutasuna, solidotasuna, barrenezintasuna jatorrizko indar azaldu gabeak dira: mekanikak indarrak agertzen diren baldintzak eta kanporatzen diren era eta modua bakarrik adierazten digu, materia determinatuak denbora eta tokia nola menderatzen dituen. Orain iman indartsu batek eragin dezake pisuen burdinaren gain, pisutasuna menderatuz: makinaren higidura gelditu egiten da eta materia zeharo bestelako natur indar baten, magnetismoaren agertoki bihurtzen da berehala, zeinetaz azalpen aitiologikoak bere agerpenaren baldintzak besterik ez baititu ematen. Edo bestela makina haren kobrezko diskoak ezartzen ditugu zinkezk plaken gainean, horien artean hezetasun azidotua eramaten da: berehalaxe makinaren materia bera beste indar jatorrizko baten, galvanismoaren azpian eroriko da, zeinak bere legeen arabera menderatzen baitu, bere agerpenen bitartez hartan agertzen baita, zeinetaz aitiologiak zirkunstantziak, zeinen azpian, eta legeak, zeinen arabera agertzen baitira, besterik ezin baititu eman. Orain temperatura hazarazten dugu, oxigeno hutsa sarrarazten dugu: makina osoa erre egiten da; hau da, bat-batean natur indar zeharo desberdin batek, kimismoak, denbora horretan, toki horretan materia horrekiko bere uzi ukaezinak ditu eta ideia gisa agertzen da bertan, nahimenaren objektibazioaren maila determinatu gisa. - Horren bitartez sorturiko metal-karea orain azido batekin batzen da: gatz bat sortzen da, kristalak gatzatu egiten dira; beste ideia baten agerpenak dira, bere baitan ikerrezinak direnak, bitartean agerpen horiek gertatzea baldintza haiekiko dependentea da eta aitiologiak emango digu horien berri. Kristalak urtu egiten dira, beste gai batzuekin nahasten dira, begetazio bat sortzen da haietatik: beste nahimen-agerpen berri bat - eta horrela jazar eta behar daiteke materia iraunkorra infinituraino, bai natur indar honek, bai hark berarekiko eskubideak hartzen dituela eta hutsezinki atzematen du, aurrean jarri eta bere esentzia agerian jartzeko. Eskubide horren determinazioa, denbora eta espazioko puntua, non ere baliozko baita, kausalitatearen legeak ematen du. Indarra bera nahimenaren agerpena da eta horrelakoa den heinean ez dago arrazoiaren printzipioaren taxueraren mendean, h. d. arrazoigabea da. Denbora oroz kanpo dago oropresentea da, eta badirudi zirkunstantzien agertzeari lotzen zaiola etengabe, zeinen azpian irten eta materia determinatu batez ordura arte nagusi ziren indar horiez jabe baitaiteke indarrez. Denbora oro bere agerpenerako bakarrik existitzen da, baina bera zentzurik gabea da: milaka urtez lozorroan egoten dira indar kimikoak materian, harik eta erreaktiboen ukipenak askatzen dituen arte: orduan agertzen dira; baina denbora agerpen horrentzat bakarrik existitzen da, ez indarrarentzat beretzat. Ehunka urtetan egoten da lozorroan galvanismoa kobrean eta zinkean, eta lasai egoten dira zilarraren ondoan, zeinek hirurek beharrezko baldintzetan bata bestea ukitzen dutenean, sugarretan hasi behar izaten baitute. Erreinu organikoan bertan ere hazi-ale lehor bat hiru mila urtez indar lozorrotua iraunarazten ikusten dugu, zeina azkenean aldeko zirkunstantziak agertzean landare gisa ernetzen baita⁹.

Kontsiderazio honen bitartez garbi gelditu zaigu zer desberdintasun dagoen natur indarren eta horien agerpen guztien artean; hura nahimena bera baizik ez dela ulertu dugu bere objektibazioaren maila determinatu horretan; baina agerpenei bakarrik, denbora eta espazioaren bitartez, dagokie aniztasuna, eta kausalitatearen legea haietan gunearen determinazioa besterik ez da agerpen bakoitzarentzat; gero ezagutuko dugu Malebrancheren kausa okasiozko doktrinaren egia perfektua eta zentzu sakona. Benetan merezi du nekea hartzea bere doktrina hori, , seigarren liburuko bigarren ataleko hirugarren kapitulu eta kapitulu horri atzean erantsitako en adierazitakoa, nire oraingo aurkezpen honekin erkatzen eta bi doktrinen arteko bat-

etortze perfektuena hautematen, nahiz eta pentsatzeko eran alde handiak dauden. Gainera miretsi beharra daukat nola Malebranchek, dogma positiboetan erabat harrapatuta, zeinetara behartzen baitzuen bere garaiak ezin kontra egiteko eran, halako zamaren pean hala ere liburuki haietan, hain zorionez, hain zuzen egia aurkitu zuen eta dogma haiekin beraiekin, gutxienez haien hizkuntzarekin, bateratzen jakin zuen.

Zeren egiaren ahala sinestezinki handia eta ezin esan ahaleko iraupenekoa baita. Bere aztarna ugariak garai eta herrialde desberdinetako dogma bitxienetan, baita zentzugabeenetan, guztietan aurkitzen baititugu, nahiz eta egia askotan partzuergo berezian, nahastura miresgarrian, berrezagutu behar den. Horrela landare baten itxura du, zeina harri handien meta handi baten azpian ernetzen baita, baina hala ere argirantz igotzen baita, asko kostata, itzulinguru eta zeharbide askorekin itxuragabeturik, zurbildurik, eskasturik - hala ere argirantz beti.

Izan ere, Malebranchek arrazoia du: natur kausa oro da kausa okasiozkoa bakarrik, aukera, abagunea ematen du nahimen bakar eta banaezin haren agerpenerako, zeina gauza guztien berbaitangoa eta zeinaren objektibatze mailakatua mundu ikuskor hori guztia baita. Soilik toki horretan denbora horretan agertzea, ikuskor bihurtzea kausaren bitartez burutzen da, eta horrelakoa den heinean berarekiko dependente da, ez ordea agerpenaren osotasuna, ez bere barneko esentzia: hori nahimena bera da, zeinean arrazoiaren printzipioak ez baitu erabilerarik, horrenbestez arrazoigabea da. Munduan ez dago gauzarik bere existentziarena soil eta oro har kausa duenik; baizik soilik kausa bat, zeinatik hemen hain zuzen eta orain hain zuzen existitzen baita. Zergatik harri batek orain pisutasuna, orain solidotasuna, orain elektrizitatea, orain propietate kimikoak erakusten dituen, hori kausen, kanpoko eraginen mendean dago eta horietatik azaldu behar da: propietate horiek berek, baita horien esentzia osoak ere, zeina baitago haietaz eratua eta ondorioz emandako era haietan guztietan kanporatzen baita, oro har horrelakoa den bezalakoa izateak, oro har existitzeak, horrek ez dauka arrazoirik, baizik nahimen arrazoigabea ikuskor bihurtzea da. Horrela kausa oro kausa okasiozkoa da. Horrela aurkitu dugu natura ezagutzagabea: gauza bera gertatzen da kausarik eta kitzikapenik ez baizik motiboak dauden tokian ere, zeinek agerpenen gertatze-puntua determinatzen baitute, animalien eta gizakien portaeran beraz. Zeren hemen eta han nahimen bakar eta bera agertzen baita, bere manifestazioko mailetan oso desberdina, horren agerpenetan anizkoiztua eta horrekiko ikuspegiaren arrazoiaren printzipioaren mendean dagoena, bere baitan horretatik guztitik erabat aske. Motiboek ez dute gizakiaren karakterra determinatzen, baizik karakter horren agerpena, eta horrela egintzena; bere bizi-joairaren kanpoko taxua, ez ordea horren zentzua eta edukia: horiek karakterretik irteten dira, zeina nahimenaren agerpen bitartegabea baita, beraz arrazoigabea. Zergatik bata gaiztoa, eta bestea ona den, ez dago motiboen eta kanpoko eraginen mendean, esaterako, doktrina edo predikuenean, eta zentzu horretan azalezina da zeharo. Baina gaiztagin batek bere gaiztakeria bidegabekeria txikietan, herra koldarretan, makurkeria kaxkarretan, zeinak bere ingurumarietako zirkulu estuetan burutzen baititu, edo konkistatzaile gisa herriak zapaltzen baditu, mundu bat ezbeharretan amilarazten badu, milioika pertsonaren odola isurtzen badu: hori bere agerpenaren kanpoko forma da, horren alde ez-esentziala, eta hori zoriak ezartzen duen zirkunstantzien, bizi-ingurunearen, kanpoko eraginen, motiboen mendean dago; baina bere erabakia ez da motibo horietatik azaltzerik: nahimenetik sortzen da, zeinaren agerpena gizaki hori baita. Horretaz laugarren liburuan hitz egingo da. Karakterrak bere propietateak garatzen dituen era eta modua erabat konparagarriak

dira naturan ezagutzagabeko gorputz bakoitzak bereak erakusten dituenekin; urak ur izaten dirau bere baitan dituen propietateekin; bai laku lasai gisa bere hegiak ispilatzen dituela edo bitsa ateraz harkaitzen kontra oldartzen dela edo, artifizialki eraginez, ur-zurrusta luze gisa indarrez gorantz igotzen dela: hori kanpoko kausen mendean dago: bata bestea bezain natural zaio; baina zirkunstantzien arabera, bata edo bestea erakutsiko du, edozertarako era berean prest, kasu bakoitzean bere karakterrarekiko fidel eta beti hori agirian jarritz. Horrela jarriko da agirian edozein giza karakter ere zirkunstantzia guztietan: baina horretatik sortzen diren agerpenak, zirkunstantziak izan diren arabera izango dira beti.

§ 27

Baldin eta natur indarrei eta horien agerpenei buruzko aurreko kontsiderazio guztietatik argi gelditu bazaigu kausetatiko azalpena noraino irits daitekeen eta non amaitzen den, baldin eta agerpen guztien edukia beren forma soilera murrizteko ahalegin ergelean erori nahi ez bada, non ere gero azkenean forma besterik ez bailitzateke geldituko; horrela orain orokorrean determinatu ahal izango dugu, zer eska lekioken aitiologia orori. Naturako agerpen guztiei lehen kausak bilatu behar dizkie, h. d. horiek beti gertatzen diren zirkunstantziak: baina gero askotariko zirkunstantzietan anizkoizturiko agerpenak murriztu egin behar ditu agerpen guztietan eragiten duen eta kausan suposatzen denera, naturako indar jatorrizkoetara, zuzen bereiziz, ea agerpenaren desberdintasun bat indarraren desberdintasun batetik edo zirkunstantzien desberdintasunetik bakarrik datorren, zeinaren azpian kanporatzen baita indarra, eta aldi berean kontuz ibiliz, indar desberdinen agerpen gisa, bakarra eta berarena dena zirkunstantzia desberdinen azpian, edo alderantziz indar baten kanporatze gisa hartzetik, jatorriz indar desberdinei dagokiena. Horretarako juzgamen bitartegabea behar da; horregatik dira hain gizaki gutxi fisikan ulerpena zabaltzeko gai, nahiz eta denak izan esperientzia zabaltzeko. Nagikeria eta ezjakintasuna makurturik daude jatorrizko indarretara lasterregi jotzera: hori eskolastikoen entitate eta quidditateetan agertzen da ironiaren parekoa den exajerazioarekin. Nik ez nuke inondik ere horiek berriro sar daitezen laguntzarik eman nahi. Azalpen fisiko bat eman ordez nahimenaren objektibaziora, Jainkoaren kreazio-indarrera jotzea bezain gutxi da zilegi. Zeren fisikak kausak eskatzen baititu; baina nahimena ez da inoiz kausa: agerpenarekiko duen harremana ez da inondik ere arrazoiaren printzipioaren arabera; baizik bere baitan nahimena dena, beste alde batetik errepresentazio gisa, h. d. agerpen gisa, existitzen da: horrelako den heinean agerpenaren forma eratzen duten legeei jarraitzen zaie: horrela, adibidez, higidura orok, nahiz eta beti nahimen-agerpen izan, kausa bat izan behar du, zeinatik denbora eta toki determinatu batekiko harremanean, h. d. ez orokorrean, bere esentziaren arabera, baizik agerpen partikular gisa azaldu behar baitu. Kausa hori mekanikoa da harrian, motibo bat da gizakiarengan: baina ezin du inoiz huts egin. Aitzitik, orokorra, mota determinatu bateko agerpen guztien esentzia komuna, zeinaren suposiziorik gabe kausatiko azalpenak ez bailuke zentzurik eta esanahirik izango, hori natur indar orokorra da, fisikan qualitas occulta gisara egon behar duena, hain zuzen hor azalpen aitiologikoa amaitu eta metafisikoa hasten delako. Kausa eta efektuen katea ez da inoiz jatorrizko indar baten bitartez eteten, zeinaren baitan oinarrituko bailitzateke, ezin da horretara bere lehen mailara bezala atzerarazi; baizik katearen hurrengo mailak, urrunduenak bezalaxe, jatorrizko indarra suposatzen du eta

bestela ezingo luke ezer azaldu. Kausa eta efektuen sail bat indar desberdinenen agerpena izan daiteke, zeinak ikuskortasunean hurrenez hurren gertatzea berak gidatzen baitu, nik lehenago metalezko makina baten adibidean argitu dudanez: baina indar jatorrizko eta elkarren artetik deduzitzen ez diren horien desberdintasunak ez du inondik ere eteten kausen katea haren batasuna, ezta bere maila guztien arteko lotura ere. Naturaren aitiologiak eta naturaren filosofiak ez dute elkarrekiko hausturarik sortzen; baizik bata bestearen ondoan dabilta, objektu bera ikuspuntu desberdinetatik kontsideratuz. Aitiologiak kausen kontu ematen du, zeinek agerpen partikular azaldu beharrekoak derrigor burutu baitzituzten, eta horien azalpen guztien oinarritzat indar orokorrak erakusten baititu, zeinek kausa eta efektu horietan guztietan baitihardute, zehatz determinatzen ditu indar horiek, horien kopurua, horien desberdintasunak eta gero efektu guztiak, zeinetan indar bakoitza zirkunstantzien desberdintasunaren neurriaren arabera desberdin agertzen baita, beti bere karakter bereziaren arabera, zeina natur lege deitzen zaion arau hutsezin baten arabera garatzen baitu. Fisikak hori guztia edozein ikuspegitatik erabat burutu duenean, bere perfekzioa lortu du: orduan ez da indar bakar bat ere geldituko mundu inorganikoan ezagutu gabe, ez efektu bakar bat ere kreditatu gabe, indar haietako baten agerpen gisa zirkunstantzia determinatu batzuen azpian, natur lege baten arabera. Hala ere, natur lege bat naturan behaturiko arau soil bat da, zeinaren arabera zirkunstantzia determinatu batzuetan, horiek agertzen diren bakoitzean, beti batihardu: horregatik natur legea orokorki adierazitako gertakari bat, bezala defini daiteke; zeinaren arabera gero natur lege guztien erabateko aurkezpena gertakari-zerrenda oso bat besterik ez bailitzateke izango. - Natura osoaren kontsiderazioa morfologiaren bitartez osatzen da, zeinak natura organikoko taxu iraunkor guztiak zenbatu, konparatu eta ordenatzen baititu: izaki partikularren agertzearen kausaz ez du zer esan handirik, izan ere hori guztiengan generazioa baita, zeinaren teoria bere eskuko baita, eta kasu bakanetan generatio aequivoca. Azken horri dagozkio, hertsiki harturik, nahimenaren objektibitatearen maila beheren guztiak, horrela agerpen fisiko eta kimikoak partikularrean gertatzen diren era, eta gertatze horretarako baldintzen berri ematea ere aitiologiaren eginkizuna da. Aitzitik, filosofiak orokorra dena kontsideratzen du nonahi, baita naturan ere: jatorrizko indarrak berak dira hemen bere objektua, eta berak horietan nahimenaren objektibazioaren maila desberdinak berrezagutzen ditu, zein baita mundu honen barneko esentzia, berbaitangoa; izan ere munduak, hartaz gabeturik, subjektuaren errepresentazio soil gisa azaldu behar baitu. - Alabaina, aitiologiak, filosofiari lagundu beharrean eta bere doktrinei adibideen bitartez erabilpena eman ordez bere helburua, jatorrizko indar guztiak baztertzea dela, uste duenean, harik eta bakar, orokorrean den batera iritsi arte, adibidez, barrenezintasunera, zeina imajinatzen baitu ulertzen duela errotik eta horren arabera beste guztiak bortxaz horretara murrizten saiatzen baita; horrela ihes egiten dio bere oinarriari eta errorea ematen digu egiaren ordez. Orduan formak naturaren edukia ordezten du eta dena zirkunstantzia eragileei egozten zaiei, ezer ez gauzen barneko esentziari. Bide horretara iritsiko bagina, jadanik esan denez, aski izango litzateke kalkulu-ariketa bat munduaren enigma ebazteko. Eta bide horretatik jotzen da, dagoeneko esan denez, efektu fisiologiko guztiak forma eta nahasturara, adibidez, elektrizitatera, hori kimismora eta azken hori mekanismora murriztu behar badira. Azken hori izan zen, adibidez, Cartesioaren eta atomista guztien akatsa, zeinek murriztu baitzituzten mundu-gorputz guztien higadura jariakin baten talkara eta kualitateak atomoen kohesioa eta taxura, eta hortik lan egin zuten naturako agerpen guztiak barrenezintasun eta kohesioaren fenomeno soil gisa azaltzeko. Nahiz eta horretatik

aldendu garen, gure egunotan ere gauza bera egiten dute fisiologo elektriko, kimiko eta mekanikoek, zeinek organismoaren bizitza osoa eta funtzio guztiak bere osagaien tik azaldu nahi baitituzte setati. Azalpen fisiologikoaren helburua bizitza organikoa fisikak kontsideratzen dituen indar orokorretara murriztea dela, Meckelen 1820, 5. libkia., 185. or.ean adierazita aurkitzen da. - Lamarckek ere, bere , 2. libkia, 3. kap.an bizia beroa eta elektrizitatearen efektu soil gisa azaltzen du: (16. or.). Horren arabera beroa eta elektrizitatea lirateke berbaitango gauza eta animali eta landare-mundu horren agerpena. Iritzi horren zentzugabekeria nabarmen agertzen da 306 or.an eta hh.etan. Ongi ezaguna da, azken aldiotan, hain sarritan leher egin duten ikuspuntu horiek ausardia indarberrituarekin agertu direla. Ongi kontsideratuz gero, horien oinarrian suposizio bat dago: organismoa indar fisiko, kimiko eta mekanikozko agerpenen agregatu bat besterik ez dela, zeinak hemen, ausaz elkarrekin bildurik, organismoa sortuko bailukete, natur joko gisa, beste zentzurik gabe. Animalia baten edo gizakiaren organismoa, horren arabera, filosofikoki kontsideraturik, ez litzateke ideia propio baten aurkezpena, h. d. ez nahimenaren objektitate bitartegabea goragoko maila determinatu batean; baizik nahimena elektrizitatean, kimismoan, mekanismoan objektibatzen duten ideia haiek bakarrik agertuko lirateke hartan: horregatik organismoa hain zoriz sortua litzateke indar horiek elkarrekin topo egitetik, nola gizakien eta animalien taxuak hodei edo estalaktitetatik, eta horregatik ez lirateke interesgarriak beren baitan. Baina laster ikusiko dugu azalpen-mota fisiko eta kimikoen erabilera hori organismoetan zer muga jakinen barruan baimendua eta erabilgarria izan litekeen; zeren bizi-indarrak natura inorganikoko indarrak baliatu eta erabiltzen dituela aurkeztuko baitut, baina ez dela haietaz eratua; errementaria mailuaz eta ingudeaz eratua den bezain gutxi. Horregatik sekula ezin izango da azaldu hain sinplea den landareen bizitza, adibidez, kapilaritatea eta endosmositik, are gutxiago animali bizitza. Ondorengo kontsiderazio honek azterketa zail samar horretarako bidea lautuko digu.

Egiaz, esandako guztiaren arabera, natur zientzien errore bat da, nahimenaren objektitatearen goiko mailak beheagokoetara murriztu nahi izatea; zeren natur indar jatorrizko eta berez dirautenak ez ezagutu eta ukatzea jadanik indar berezien arrazoigabea onarpena bezain erratua da, jadanik ezagunak direnen agerpen-mota propio bat besterik aurkitzen ez den tokian. Horregatik arrazoiz dio Kantek ez dela bidezkoa belar-lastoaren Newton bat espero izatea, h. d., belar-lastoa indar fisiko eta kimikoen agerpenera murriztuko lukeena, haren ausazko egikaritzea, natur joko soil bat bakarrik izango bailitzateke, zeinetan ez bailitzateke ideia propiorik agertuko, h. d. nahimena ez litzateke goiko maila berezi batean bitartegabe agerian jarriko; baizik natura inorganikoko agerpenetan bezala soilik eta kontingente forma horretan. Eskolastikoek, horrelakorik inola ere onartuko ez zuketenean, arrazoi guztiarekin esango zuketena forma substantialis-aren erabateko ukapen bat zela eta hori forma accidentalis soilera degradatze bat. Zeren Aristotelesen forma substantialis-ak hain zuzen ere, nik gauza bateko nahimenaren objektibazioaren maila deitzen dudana bera izendatzen baitu. - Baina bestalde ez da alde batera utzi behar, ideia guztietan, h. d. natura inorganikoko indar guztietan eta natura organikoko taxu guztietan, nahimen bat eta bera dela agirian jartzen dena, h. d. errepresentazioaren forman, objektitatean sartzen dena. Horregatik bere batasuna bere agerpen guztien arteko barneko ahaidetasun baten bitartez ere ezagutarazi behar da. Hori bere objektitatearen maila gorenetan bakarrik jartzen da agirian, agerpen osoa argiago den tokian, horrela landareen eta animalien erreinuan, forma guztien analogia zuzeneko orokorraren bitartez agerpen guztietan berraurkitzen den oinarri-tipoaren

bitartez: hori da, beraz, mende honetan frantsesengandik sortu den sistema zoologiko bikaina, eta erarik osoenean anatomia erkatuan gisa aipatzen dena. Hori aurkitzea da halaber Schelling-en eskolako filosofoen egiteko nagusia edo ahaleginik laudagarriena, zeinek horren meritu handia baitute; nahiz eta kasu askotan naturako analogien ehizan ibiltzea zorrozkeria soil izateraino endekatu baita. Arrazoiz aipatu dute haiek ahaidetasun orokor eta famili antzekotasuna natura inorganikoko ideietan, adibidez, elektrizitatea eta magnetismoaren artean, zeinen identitatea gero konstatatu egin baitzen erakarpen kimikoaren eta pisutasunaren artean eta abarretan. Berezi oharrarazi zuten polaritatea, h. d. indar bat kualitatiboki desberdinak diren bi jarduera kontrajarritan eta berriz elkartzera jotzen dutenetan banatzea, zeina gehienetan eta espazialki norabide kontrajarritan bereiziz ezartzen baita agirian, naturako ia agerpen guztien oinarri-tipoa dela iman eta kristaletik hasi eta gizakiarenganaino. Txinan ezagutza hori garairik zaharrenetatik erabili izan da Yin eta Yangaren oposizioaren doktrinan¹⁰. - Izan ere, munduko gauza guztiak nahimen bakarraren eta beraren objektitatea, ondorioz barneko esentziaren arabera identikoak direnez gero; horregatik beren artean ez du existitu behar analogia ukaezin horrek bakarrik, eta inperfektuagoa den edozeinetan ondorengo perfektuagoaren aztarna, indikazioa, zirrimarra erakutsi; baizik eta forma horiek guztiak munduari errepresentazio gisa soilik dagozkionez, onartu beharra dago, errepresentazioaren formarik orokorrenetan, agertzen den munduaren benetako oinarri-armazoi horretan, horrela espazioan eta denboran, oinarri-tipoa, formak betetzen dituen guztiaren indikazioa, zirriborroa aurkitu eta kreditatu behar dela. Badirudi ezagutza ilun bat izan dela horretaz Kabbalari eta pitagorikoen filosofia matematiko guztiari, eta txinatarren i ere sorrera eman diona: eta Schelling-en eskola hartan ere naturako agerpen guztien arteko analogia argitara ekartzeko haien askotariko ahaleginetan, espazioa eta denboraren lege soiletatik natur legeak deduzitzeko saio ugari aurkitzen ditugu, baina porrot eginak. Hala ere, ezin liteke jakin noraino iritsiko den noizbait buru genial bat bi ahaleginak gauzatzen.

Alabaina, agerpena eta berbaitango gauzaren arteko desberdintasuna begietatik inoiz galdu behar ez bada ere eta horregatik ideia guztietan objektibaturiko nahimenaren identitatea sekula ez badago ere (zeren bere objektitatearen maila determinatuak dituelako) agertzen deneko ideia partikular beraren identitatearekin faltsutzerik, eta horregatik, adibidez, erakarpen kimiko edo elektrikoa sekula ezin bada grabitatearen bitartezko erakarpenera murriztu, nahiz eta barneko bere analogia berrezagutua den eta lehena azken horren potentzia altuagotzat har daitekeen; halaber, animalia guztien egikeraren barneko analogiak ere ez du justifikatzen espezieak nahastea eta identifikatzea eta perfektuagoak inperfektuagoen barietate gisa azaltzea; eta azkenik, inoiz ez badago funtzio fisiologikoak prozesu kimiko eta fisikoetara murrizterik, hala ere muga jakin batzuen barruan honako hau har dezakegu portaera horren justifikaziotzat gertakortasun handiarekin.

Baldin eta nahimenaren agerpenetatik bere objektibazioko mailarik beherenetan, horrela inorganikoan, bat baino gehiago elkarren artean gatazkan sartzen badira, kausalitatearen gidaritzari jarraituz existitzen den materiaz jabetu nahi duten heinean; eztabaida horretatik orduan ideia garaiago baten agerpena sortzen da, zeinak menderatzen baititu aurretik existitzen ziren inperfektuago guztiak, baina halako moldez, non horien esentziari era subordinatu batean irauten uzten dion, horien analogon bat bere baitan onartzen duen heinean; prozesu hori ere ideia guztietan agertzen den nahimenaren identitatetik eta gero eta objektibazio garaiago baten atzetik egiten duen ahaleginetik bakarrik da ulergarria. Horregatik ikusten

dugu, adibidez, hezurak tinkotzean kristalizazioaren analogon ukaezin bat, jatorriz karea menderatzen zuena bezalakoa, nahiz eta osifikazioa ez dagoen inoiz kristalizaziora murrizterik. Analogia ahulago agertzen da haragiaren tinkotzean. Era berean hazien nahastura animali gorputzetan eta sekrezioa konbinazio eta banatze kimikoen analogon dira, lege horiek oraindik eragiten jarraitzen duten heinean, baina subordinaturik, oso modifikaturik, ideia garaiago batek menderaturik; horregatik indar kimiko soilek, organismotik kanpo, ezin dituzte inoiz halako haziak eman; baizik:

deitzen die kimikak;

Bere buruari iseka egiten dio, nola jakin gabe.

(Goethe , 1, 1940. berts.)

Horrelako garaipenetik sorturiko ideia perfektuago batek karakter berri bat hartzen du, nahimenaren beste ideia edo objektibazio beheagoko batzuekiko, menderatutako bakoitzarekiko bere baitan garaiago potentziaturiko analogon bat hartzen duelako: nahimena espezie berri batean objektibatzen da: jatorriz generatio aequivocaren bitartez sortzen da, gero zuku organiko, landare, animalia, gizakiaren ernamuin existentearekiko asimilazioaren bitartez. Horrela agerpen behekoen borrokatik sortzen da goragokoa, haiek guztiak irentsiz, baina baita guztien ahalegina maila garaiagoan burutuz ere. - Horren arabera hemen harako lege hura da nagusi: ; Baco Verulameko, 38, .

Nik neuretzat posible izatea nahi nukeen pentsamendu hauen gaiari datxekion iluntasuna aurkezpenaren klarutasunaz gaingitza: ezik oso garbi ikusten dut irakurlearen kontsiderazio propioak asko lagundu beharko didala, baldin eta ulertu gabe gelditu edo gaizki ulertua izatea nahi ez badut. - Emandako iritziaren arabera organismoan efektu-mota kimiko eta fisikoen aztarnak konstatatuko dira, baina ezingo dira inoiz horietatik azaldu; zeren inondik ere ez baita horrelako indarren eragite bateratuaren bitartez, horrela era kontingentean sorturiko fenomeno, baizik ideia garaiago bat, zeinak behereago haiek asimilazio bortxatzailez menderatu baititu; zeren ideia guztietan objektibatzen den nahimen bakarra, ahalik eta objektibaziorik garaienera iristen ahalegintzen den heinean abandonatu egiten baititu hemen bere agerpenaren maila behearenak, horien gatazka baten ondoren, beste garaiago eta hainbat ahaltsuago batean agertzeko. Ez dago garaipenik borrokarik gabe: ideia edo nahimen-objektibazio garaiagoa behereagoen bortxaketaren bitartez bakarrik sor daitekeen heinean, jasan egiten du horien erresistentzia, zeina morrontzapean ezarriarik egon arren, beti ahalegintzen baita bere esentziaren kanporatze independente eta osora iristen. Burdina jasotzen duen imanek pisutasunarekin etengabeko borrokan jardun behar duen bezala, zeinak nahimenaren objektibazio behearena bezala burdina horren materiarekiko eskubide jatorrizkoagoa baitu, eta zeinean imanaren borroka taigabea horrela indartu egiten baita, bitartean erresistentziak bera kitzikapen handiago batera jasotzen duelarik; horrela edozein agerpenek, baita nahimen-agerpenak ere, giza organismoan aurkezten denak, borroka iraunkor bat dauka indar fisiko eta kimiko ugariekin, zeinek ideia behereago gisara lehenagoko eskubidea baitute materia harekiko. Horregatik erortzen da apur batean pisutasuna gaingituz altxaturik eduki den besoa: horregatik osasunezko sentimendu atsegina, zeinak bere organismo kontzientearen ideien garaitzapena lege fisiko eta kimikoen gainean adierazten baitu, zeinek jatorriz menderatzen baitituzte gorputzaren zukuak, hala ere hain sarri etena halako ezatsegintasun handiago edo txikiago batzuek beti propioki lagundua, zeina indar horiekiko erresistentziatik sortzen baita, eta zeinen bitartez gure bizitzaren atal begetatiboa sufrimendu etengabe arin batez loturik baitago.

Horregatik deprimitzen ditu digestioak animalia funtzio guztiak ere, zeren bizi-indar guztia erabiltzen baitu natur indar kimikoak menderatzeko asimilazioaren bitartez bada. Horregatik bada oro har bizitza fisikoaren zama, loaren beharrezkotasuna eta azkenik heriotzarena, zirkunstantziek faboratua, natur indar uztarpetu haiek, etengabeko garaipenaren bitartez nekaturiko organismoari kendutako bere materia hartzen diote eta horren esentzia eragozpenik gabe aurkeztera iristen dira. Horregatik esan daiteke organismo orok ideia, zeinaren imajina baita, bere indarraren partea kendu eta gero bakarrik aurkezten duela, zeina erabiltzen baita materia kendu nahi dioten beheragoko ideiak bortxatzeko. Badirudi Jakobo Böhme hori oso kontuan zeukala, nonbait esaten duenean gizakien eta animalien soin guztiak, are landareenak ere, propioki erdi-hilik daudela. Zenbat eta organismoak nahimenaren objektibitatearen maila sakonenak adierazten dituzten natur indar haiek menderatzea gehiago edo gutxiago lortu, bere ideiarekin adierazpen perfektuago edo inperfektuagora iristen da, h. d. bere espeziean edertasuna dagokion idealetik hurbilago edo urrunago dago.

Horrela naturan nonahi liskarra ikusten dugu, borroka eta garaipenen aldaketa, eta horretan nahimenari esentziala zaion bere burua bitan banatzea argiago berrezagutzen dugu. Nahimenaren objektibazioaren maila orok besteei materia, espazioa, denbora auzitan jartzen die. Materia iraunkorrak etengabe aldatu behar du forma, kausalitatearen gidaritzapean, agerpen mekaniko, fisiko, kimiko, organikoek, agertzeko elkar gutiziaz hertsatuz, bata besteari materia kentzen diote, bakoitzak bere ideia agerian jarri nahi duenean. Natura osoan zehar jarrai daiteke liskar hori, izan ere horretaz bakarrik eraturik baitago bera: (GRIEGO). (nam si non inesset in rebus contentio, unum omnia essent, ut ait Empedocles) [zeren gauzetan liskarrik ez balego, gauza guztiak bat izango lirarteke, Empedoklesek dioenez.] (Aristoteles, 2, 5): horregatik liskar hori bera nahimenak bere buruarekiko duen bi esentzialetan banatze hori agerian jartzea besterik ez da. Borroka orokor horrek bere ikuskortasun argiena animalia munduan lortzen du, zeinak landare-mundua bere elikadurarako baitauka, eta zeinean bere aldetik animalia bakoitza beste baten harrapakin eta elikagai, h. d. bere ideia aurkezten den materia, bihurtzen baita, beste baten aurkezpenerako lekua utzi behar baitu, animalia orok bere existentziari beste baten etengabeko ezabaketaz bakarrik euts diezaiokeelarik; horrela bizitzeko nahimena bere buruazelikutzen da etengabe eta bere buruaren elikagai da taxu desberdinetan, azkenean giza espezieak, beste guztiak menderatzen dituelako, mundua bere erabilpenerako manufakturatzat hartzen du, espezie horrek berak, laugarren liburuan aurkituko dugunez, bere baitan borroka hori, nahimenak bere burua bitan banatze hori argitasun beldurgarrienean jartzen du agirian, eta bihurtzen da. Bitartean liskar hori, bortxatze hori nahimenaren objektibitatearen maila beherenetan ere berrezagutu beharra daukagu. Intsektu askok (ikneumonidek bereziki) beren arrautzak beste intsektu batzuen larben larruazalean, are soinean ere, ezartzen dituzte, zeinaren suntsiera geldoa baita ernetzen ari den hoziaren lehen obra. Besopolipo gazteak, zeina zaharretik abar bat bezala hazi eta gero hartatik bereizten baita, borroka egiten du, hari itsatsirik dagoen bitartean, jadanik berarekin eskaintzen zaion harrapakinarengatik, bata besteari ahotik kentzeraino (Trembley, 2, 110 or. eta 3, 165. or.) Era horretan adibiderik deigarriena bulldog-inurriak (bulldog-ant) ematen du Australian: ebakitzen badugu, borroka hasten da buru- eta isats-atalaren artean: hark horri matrailaz heltzen dio, eta horrek bere burua hura eztenkatuz kementsu babesten du. Borrokak orduerdi bat iraun ohi du, hiltzen diren edo beste inurri batzuek arrastatzen dituzten arte. Prozesu hori beti gertatzen da (1855eko azaroaren 17ko «Galignani's Messenger'en inprimaturiko «Weekly

Journal'en Howittek idatziriko gutun batetik). Missouriren hegietan batzuetan haritz sendo bat ikusten da basamahatsondo erraldoi bat enborrean eta abarretan hain kiribildu, kateatu eta lotua duena, non iratorik bezala, ihartu egin behar izaten duenall. Gauza bera agertzen da mailarik beheerenetan, h. d. asimilazio organikoaren bitartez ura eta ikatza landare-zuku, edo landarea edo ogia odol bihurtzen direnean, eta horrela edonon, indar kimikoen mugatzez, efektu-mota subordinatu batekin animalia sekrezioak sortzen baitira; natura inorganikoan ere, adibidez, gatzatzen ari diren kristalek bata bestearekin topo egin, gurutzatu eta deusezten direnean, ezin dute beren forma kristaldu garbia erakutsi, ia guruin bakoitza nahimenaren liskar horren imajina den bezala bere objektibazioaren hain maila behere hartan; edo iman batek burdinari magnetizitatea indarrez ezartzen dionean, hemen ere bere ideia aurkezteko; edo galvanismoak kidetasunak bortxatzen dituenean, konbinazio finkoenak desegiten dituenean, lege kimikoak hainbestearaino gainditzen dituenean, non polo negatibo batean deskonposaturiko gatzaren azidoek polo positibora joan behar izaten duten, bidean zeharkatzen dituen alkaliekin konbinatu gabe edo topo egiten duen tornasol-papera gorritu ere egin gabe. Handian gorputz zentralaren eta planetaren arteko harremanean agertzen da: hori, nahiz eta dependentzia desberdinetan, jarki egiten zaio beti, indar kimikoak organismoan bezala; horretatik sortzen da gero indar zentripeto eta zentrifugoen

arteko tirandura iraunkorra, unibertsoari higiduran eusten diona eta bera ere adierazpen bat da guk kontsideratu dugun nahimenaren agerpenaren borroka esentzial orokor horrena. Zeren gorputz bakoitza nahimen baten agerpentzat hartu behar den bezala, nahimena derrigor ahalegin bat bezala aurkezten da; bola bihurturiko mundu-gorputz bakoitzaren jatorrizko egoera ezin liteke atsedena izan, higidura baizik, aurreranzko ahalegina espazio amaigabean, geldiuenerik eta helmugarik gabe. Horri ez zaio kontrajartzen ez inertziaren legea eta ez kausalitatearena: zeren haren arabera materia horrelakoa den heinean atsedena eta higidurarekiko neutrala baita, horrela higidura atsedena bezain ongi izan daiteke horren jatorrizko egoera; horregatik, higiduran aurkitzen badugu, hain gutxi gaude justifikaturik horren aurretik atsedenezko egoera bat izan dela suposatzeraz, eta higidura gertatzearen kausaz galdetzeraz nola alderantziz, atsedenean aurkituko bagenu, horren aurreko higidura bat suposatu eta hori gainditzearen kausaz galdetu behar izatera. Horregatik ez daukagu lehen bulkadarik bilatu beharrik indar zentrifugoarentzat, baizik planetetan, Kant eta Laplaceren hipotesiaren arabera, gorputz zentralaren jatorrizko biraketaren hondar bat da, zeinatik haiek uzurtzean bereizi baitziren. Baina horri berorri esentzial zaio higidura: birak ematen ditu eta aldi berean hegaz doa espazio infinituan edo zirkulatu egiten du agian gorputz zentral handiago eta ikustezin zaigun baten inguruan. Iritzi hori guztiz bat dator astronomoek duten eguzki zentral baten ustekizunarekin, baita gure eguzki-sistema osoaren hautemandako urruntzearenarekin ere, agian gure eguzkiari dagokion izar-taldearenarekin, zeinetatik azkenik izar finko guztiekin batera eguzki zentralaren urruntze orokor bat ondoriozta baitaiteke, zeinek espazio amaigabean zentzu guztia galtzen baitu (zeren espazio absolutuko higidura ez baita atsedenetik bereizten), eta horren bitartez, bitartegabeko ahalegina eta helmugarik gabeko hegaketaren bitartez ezereztasun haren, azken helburu baten gabezia haren adierazpen bihurtzen baita, zeina liburu honen bukaeran nahimenaren ahaleginari bere agerpen guztietan berrezagutu beharko baitzaio; horregatik, halaber, espazio infinituak eta denbora infinituak bere agerpen guztiaren forma orokor eta esentzialenak izan behar dute, horrelakoa den heinean bere esentzia osoa adierazteko existitzen baita. - Azkenik, nahimen-agerpen guztiek bata bestearekiko duten borroka kontsiderazioan harturik, materia soilean, horrelakoa den heinean kontsideraturik, bere agerpenaren esentzia Kantek zuzen adierazia indar aldarazle eta erakarle gisa berrezagut dezakegu; horrela berak elkarren aurka ahalegintzen diren indar batzuen borrokan dauka bere existentzia. Baldin eta materiaren desberdintasun kimiko guztiak abstrahitzen baditugu edota kausa eta efektuen katea hain urruneraino pentsatzen badugu, non inolako diferentzia kimikorik ez baita existitzen; orduan materia soila, bola bihurturiko mundua, zeinaren bizitzak, h. d. nahimenaren objektibazioak, erakarpen-eta aldarapen-indarren arteko borroka hura eratzen baitu, hura pisutasun gisa, alde guztietatik erdigunera bultzatzen duena bezala, hau barrenezintasun gisa, solidotasun edo elastizitatearen bitartez hari kontrajarriz, zeinen etengabeko bulkada eta erresistentzia nahimenaren objektitatea gisa mailarik beherenetan kontsidera baitaiteke, eta jadanik hor bere karakterra adierazten du.

Horrela ikusten dugu, beraz, hemen mailarik beherenean, nahimena oldaritsu bat, bulkada ilun, lauso bat bezala aurkezten, ezagugarritasun bitartegabe guztitik urrun. Bere objektibazioaren erarik sinple eta ahulena da. Oldaritsu eta ezagutzagabeko ahalegin gisa natura inorganiko guztian ere agertzen da, jatorrizko indar guztietan, zeinak bilatzen eta, zeinen legeak aztertzen ahalegintzen baitira fisika eta kimika, eta horietariko bakoitza milioika agerpenetan guztiz era bereko eta erregularretan, karakter indibidualaren inolako aztarnarik adierazten ez

dutenetan aurkezten da, baina denbora eta espazioaren bitartez soilik anizkoizturik, h. d. principium individuationisaren bitartez, irudi bat kristal baten aldean bitartez anizkoizten den bezala.

Mailaz maila argiago objektibatuz, landare-erreinuan ere eragiten du, non ez benetako kausak, baizik kitzikapenak baitira agerpenen lokarriak, nahimena erabat ezagutzagabea indar bultzatzaile ilun gisa, eta horrela azkenik animalia agerpenaren atal begetatiboan, animalia bakoitzaren sortze eta garapenean eta horien barneko ekonomiaren kontserbazioan, non beti kitzikapen soilak bere agerpena derrigor determinatzen baitute. Gero eta gorago dauden nahimenaren objektitatearen mailek azkenean eramaten dute puntu batera, non ideia aurkezten duen banakoak ezingo liokeen bere elikadura asimilatzaileari eutsi kitzikapenekiko higidura soilaren bitartez; zeren kitzikapen horrek igurikatua izan behar baitu, hemen ordea elikadura bereziki determinatua da eta agerpenen gero eta askotarikotasun haziagoan multzokatzea eta astrapala hain handia bihurtu baita, non bata bestea nahasten baitute, eta kitzikapen soilak mugituriko banakoak bere elikadura itxaron ahal izateko ausa oso urria izango bailitzateke. Horregatik elikadura bilatu, hautatu egin behar da, animalia arrautzatik edo amaren gorputzetik, zeinean ezagutzagabe begetatzen baitzuen, erauzia izan den puntutik. Horretatik bihurtzen da hemen motiboengatik higidura eta horregatik ezagutza beharrezko, zeina horrela agertzen baita nahimenaren objektibazioaren maila horretan eskaturiko bitarteko lagungarri, (GRIEGO) gisa, banakoaren kontserbazio eta espeziearen ugalketarako. Ezagutza garunak edo ganglio handiago batek errepresentaturik agertzen da, objektibatzen den nahimenaren beste edozein joera edo determinazio organo baten bitartez errepresentaturik dagoen bezala, h. d. errepresentazioarentzat organo bat bezala aurkezturik¹². - Bitarteko lagungarri horren, (GRIEGO) horren bitartez bakarrik sortzen da kolpe batean mundua errepresentazio gisa bere forma guztiekin: objektua eta subjektua, denbora, espazioa, aniztasuna eta kausalitatea. Munduak orain bigarren aldea erakusten du. Orain arteko nahimen soilak, orain aldi berean errepresentazio da, subjektu ezagutzailearen objektu. Nahimenak, orain arte ilunpetan guztiz ziur eta hutsezin bere joerari jarraitzen zitzaionak, maila horretan argi bat piztu du, bitarteko baten gisa, zeina beharrezko baitzen, bere agerpenen multzokatze eta osaera konplikatu, baita perfektuenetatik ere sortuko litzatekeen desabantaila gainditzeko. Orain arteko ziurtasun eta erregulartasun hutsezina, zeinarekin natura inorganiko eta begetatibo soilak eragiten baitzuen, honetan oinarritzen zen: bere esentzia jatorrizkoan bakarrik oldaritsu nahimen gisa jardutean, bigarren mundu zeharo bestelako baten laguntzarik gabe, baina baita haren nahasturarik gabe ere, mundura errepresentazio gisa, zeina egiaz bere esentziaren errainua bakarrik, baina zeharo beste izaera batekoa baita eta orain bere agerpenen kohesioan esku hartzen baitu. Horren bitartez eten egiten da orain nahimenaren ziurtasun hutsezina. Animaliak jadanik begitazioaren, engainuaren arriskupean daude. Errepresentazio begiesgarriak bakarrik dituzte, ez kontzepturik, ez erreflexiorik, horregatik presenteari loturik daude, ezin dute etorkizuna kontuan hartu. - Badirudi ezagutza arrazoigabe hori kasu guztietan beren helburuetarako ez dela aski eta batzuetan aldi berean laguntza gehigarria behar duela. Zeren agerpen guztiz ohargarri bat eskaintzen baitzaigu, nahimenaren eragite itsua eta ezagutzak argituarena bi agerpen-motatan era txundigarrienean bata bestearen eremuan sartzen baitira. Batean, ezagutza begiesgarriak eta bere motiboek gidaturiko animalien egintzen artean aurkitzen dugu horiek gabeko bat, horrela itsuki eragiten duen nahimenaren beharrezkotasunarekin burutua joera artifizialetan, zeinak ezein motibok eta ezagutzak gidatu gabe, badute beren obra motibo abstraktu eta razionalen gainean

burutuko balute bezalako itxura bat. Bestea, horri kontrajarritako kasua da, zeinean alderantziz ezagutzaren argia itsuki eragiten ari den nahimenaren tailerretan sartzen baita eta giza organismoaren funtzio begetatiboak argitzen baititu: argikuspén magnetikoan. - Azkenik, non ere nahimena bere objektibazio-maila gorenera iritsi baita, ez da aski animaliarri irtendako arrazoimenaren ezagutza, zeinari sentsuek datuak eskuratzen baitizkiote, zeinetatik begiespen soila, presenteari loturik dagoena, sortzen baita: gizakiak, esentzia konplexu, aldeanitz, moldakor, guztiz premiatsu eta ezin zenbatu ahal zauriren arriskupean dagoena, ezagutza bikoitz batez argiturik egon behar zuen iraun ahal izateko, aldi berean ezagutza intuitiboaren potentzia garaiago batek sartu behar zuen horretan, haren erreflexio batek: arrazoimenak kontzeptu abstraktuen gaitasun gisa. Horrekin gogoeta existitzen zen, etorkizuna eta iraganaren gainikuspegia bere baitan zeukana, eta ondorioz horien hausnarketa, ardura, presenteariekiko egintza independente, aurremeditaturako gaitasuna, azkenik baita erabat kontzientzia argia ere nahimen-erabaki propioena horrelakoak diren heinean. Baldin eta ezagutza begiesle soilarekin begitazioaren eta engainuaren ahalatasuna sartu bazen, zeinaren bitartez aurreko hutsezintasuna nahimenaren ezagutzagabeko bultzatzean gaitasuna izan baitzen, beraz intuitua eta joera artifizialak nahimen-kanporatze ezagutzagabe gisa ezagutzak gidaturikoen artean haren laguntzara etorri behar izan bazuten; horrela ia erabat galtzen dira arrazoimenaren sarrerarekin ziurtasun hura eta nahimen-kanporatzeen hutsezintasuna (zeina beste muturrean, natura inorganikoan, erregularitasun zorrotz gisa agertzen baita): intuituak erabat atzera egiten du, gogoetak, orain dena ordeztu behar duenak, ezbaia eta ziurtasun eza sortzen ditu (lehen liburuan azaldu denez): errorea ahalgarri da, zeinek kasu askotan egintzen bitartezko nahimenaren objektibazio egokia eragozten baitu. Zeren nahiz eta nahimenak jadanik karakterrean bere norabide determinatu eta aldaezina hartu duen, zeinari dagokionez nahi izatea bera hutsezinki agertzen baita motiboaren eraginez; horrela erroreak horren kanporatzeak faltsu egin ditzake, motibo absurduak aldi berean errealekin batu eta horiek ezabatuz¹³: horrela, adibidez, superstizioak motibo imajinatuak azpitik ezartzen dituenen, zeinek gizakia egintza-era batera hertsatzen baitute, zeina existitzen diren zirkunstantzietan bere nahimena bestela kanporatuko litzatekeen modurekiko erabat kontrajarria baita: Agamemnonek erail egiten du bere alaba: zikoitz batek limosnak banatzen ditu egoismo hutsez, egunen batean ehun halakoturik itzuliko zaizkion itzaropenean, eta abar.

Ezagutza oro har, nola razionala hala begiesgarri soila, horrela jatorriz nahimenetik beretik sortzen da, bere objektibazioaren maila garaiagoen esentziari dagokio (GRIEGO) soil bat bezala, banakoaren eta espeziearen kontserbaziorako bitarteko gisa, gorputzeko edozein organo bezala. Jatorriz horrela nahimenaren zerbitzurako, bere helburuak burutzeko determinatua, ia beti guztiz prest egoten da hari zerbitzatzeko: horrela animalia guztiengan eta ia gizaki guztiengan. Hala ere, hirugarren liburuan ikusiko dugu nola gizaki partikularretan ezagutzak ihes egiten dion zerbitzaritasun horri, horren uztarria bota eta nahi izatearen helburu guztietatik garbiro berez iraun dezakeen munduaren ispilu soil, klaru gisa, nondik sortzen baita artea; azkenik laugarren liburuan ikusiko dugu, nola ezagutza-mota horren bitartez, nahimenaren baitan eragiten duenean, bere autogaindipenera irits daitekeen, h. d. etsipenera, zeina azken helmuga baita, are bertute guztien eta santutasunaren esentzia barnekoena eta mundutiko askapena.

§ 28

Agerpenen askotarikotasun eta desberdintasun handia kontsideratu dugu, zeinetan nahimena objektibatzen baita; gainera elkarrekiko duten borroka amaigabe eta ezin adiskidetuzkoa ere ikusi dugu. Hala ere, gure orain arteko aurkezpen guztiaren arabera nahimena bera berbaitango gauza gisa ez dago aniztasun horretan, aldaketa horretan sartua. Ideia (platonikoen) desberdintasuna, h. d. objektibazioaren mailaketa, banakoen multzoa, zeinean horietako bakoitza aurkezten baita, formen materiarengatiko borroka: horrek guztiak ez du harekin zerikusirik, baizik bere objektibazioaren era eta moduarekin, eta horren bitartez harreman bitartedun bat du berarekiko, zeinaren indarrez bere esentzia adieraztea baitagokio errepresentaziorako. Linterna magikoak irudi asko eta askotarikoak erakusten dituen bezala, nahiz eta bera sugar bat eta bera izan, haiei guztiei ikuskortasuna banatzen diena; horrela askotariko agerpen guztietan, zeinek bata bestearen alboan mundua betetzen baitute eta bata bestearen ondoren jazoera gisa metatzen baitira, nahimen bakarrari agertzen zaiona soilik, zeinaren ikuskortasuna, objektibitatea, guztia baita eta zeinak mugitu gabe baitirau aldaketa haren guztiaren erdian: bera bakarrik da berbaitango gauza; baina objektu oro agerpen, fenomeno da, Kanten hizkuntza erabiltzeko. - Nahiz eta gizakiarengan nahimenaren ideia (platoniko) gisa bere objektibazio perfektu eta argiena aurkitzen duen; hala ere ezingo luke horrek bakarrik bere esentzia adierazi. Gizakiaren ideiak, dagokion zentzuan agertzeko, ez luke bakarrik eta bakarturik aurkeztu beharko, baizik mailen sekuentziak lagundurik egon beharko luke beherantz animalien taxuera guztietan zehar, landare-erreinutik inorganikoraino: horiek guztiek elkar osatzen dute nahimenaren objektibazio osoan; gizakiaren ideiak suposatu egiten ditu, zuhaitzaren loreek hostoak, abarrak, enborra eta sustraiak suposatzen dituzten bezala: piramide bat eratzen dute, zeinaren erpina gizakia baita. Konparaketak gogoko izanez gero, zera ere esan daiteke: bere agerpenak gizakiarena hain derrigor laguntzen du, nola argi osoa erdi-itzal guztien gradazioek laguntzen baitute, zeinen bitartez ilunpetan galtzen baita; edo gizakiaren erresonantzia ere izenda daiteke eta esan: animalia eta landarea gizakiaren beheranzko bosgarrena eta hirugarrena direla, erreinu inorganikoa beheko zortzigarrena dela. Azken konparaketa horien egia osoa argi geratuko zaigu, baldin eta hurrengo liburuan musikaren esangura sakona ikertzen saiatzen bagara, eta agerian geldituko zaigu, nola arin higitzen diren goiko tonuen bitartez kohesioan aurrera egiten duen melodia, zentzu batean, erreflexioaren bitartez kohesioa duen gizakiaren bizitza eta ahalegina aurkezten dituen bezala ikusi behar dela, eta aitzitik kohesiorik gabeko betelan-ahotsak eta astun mugitzen den baxuak, zeinetatik musikaren osotasunerako beharrezko harmonia sortzen baita, gainerako animali natura ezagutzagabea irudikatzen baitute. Hala ere, horretaz bere tokian hitz egingo da, non ere hain kutsu paradoxazkoa izango ez duen. - Baina guk barneko, nahimenaren objektitate egokitik bereiztezina den beharrezkotasun hura, bere agerpenen maila-sekuentzia hori berori osotasunean kanpoko beharrezkotasun batez adierazia aurkitzen dugu, haien bitartez, zeinen indarrez gizakiak bere

animalien premia baitu, horiek mailaka batabesteena, gero landareena, zeinek zoruaren premia baitute, urarena, elementu kimikoena eta horien nahasturarena, planetarena, eguzkiarena, errotazioa eta traslazioarena horien inguruan, ekliptikaren zehartasunarena eta abarrena. - Barrenean hori honetatik dator, nahimenak bere burua irentsi behar izatetik, zeren horretaz kanpo ez baita ezer existitzen eta nahimen gosetu bat baita. Horregatik ehiza, beldurra eta sufrimendua.

Nola nahimenaren batasunaren ezagutzak, berbaitango gauzarena bezala, agerpenen desberdintasun eta askotarikotasun amaigabeen bakarrik ematen baitu egiazko giltza naturako produkzio guztien analogia miresgarri eta ukaezin hari buruz, famili antzekotasun hari buruz, zeinak eman gabeko gai baten inguruko bariazio kontsidera baitaitezke; horrela era berean harmonia haren, munduaren atal guztien lotura esentzialaren, jadanik kontsideratu dugun haren mailaketaren beharrezkotasunaren ezagutza argi eta sakon atzemanaren bitartez, horrela irekiko zaigu ikuspegi egiazko eta gogobetegarri bat barneko esentziaz eta natur produktu organiko guztien helburuzkotasun ukaezinaren zentzuaz, zeinak horien kontsiderazio eta epaiketan a priori suposatzen baititugu.

Helburuzkotasun hori bi eratakoa da: alde batetik barnekoa, h. d. organismo partikular baten atal guztien bat-etortze hain ordenatua, non horien eta bere espeziearen kontserbazioa sortzen baita hortik, eta horregatik ordenatze horren helburu gisa aurkezten baita. Baina bestetik helburuzkotasuna bada kanpokoa ere, h. d. natura inorganikoak organikoarekin oro har duen edo natura organikoko atal bakoitzak bestearekiko harreman bat, zeinak natura organiko osoaren kontserbazioa edo animali espezie bakoitzarena ahalbidetzen baitu, eta horregatik helburu horretarako bitarteko gisa gure judizioa aurkezten baita.

Barneko helburuzkotasuna ondoko eran agertzen da gure kontsiderazioarekiko loturan. Baldin eta orain artekoaren arabera naturako taxueren desberdintasun guztiak eta banakoen aniztasun guztiak ez nahimenari, baizik horren objektitateari eta horren formari bakarrik badagozkio; orduan derrigor jarraitzen zaio, zatiezina eta agerpen bakoitzean guztiz presente dela, nahiz eta bere objektibazioaren mailak, ideia (platonikoak), oso desberdinak izan. Ideia desberdin horiek errazago atzemateko nahimen-egintza bakar eta sinple gisa

kontsidera ditzakegu, zeinean bere esentzia gutxiago edo gehiago adierazten baita: baina banakoak ideien agerpenak dira, horrela egintza horiek, denboran eta espazioan eta aniztasunean. – Objektitatearen maila beherenetan horrelako egintza batek (edo ideia batek) agerpenean ere gorde egiten du bere batasuna; aldiz maila garaiagoetan, agertzeko egoera eta garapen-sail oso bat behar du denboran, zeinek guztiek batera harturik bere esentziaren adierazpena osatzen baitute. Horrela, adibidez, ideiak, natur indar orokorren batean agirian jartzen denak, kanporatze sinple bat dauka, nahiz eta kanpoko harremanaren neurrian desberdin aurkezten baita: bestela bere identitatearen berri ere ezingo litzateke eman, zeina kanpoko harremanetik sortzen den desberdintasuna ezabatzearen bitartez gertatzen baita. Era berean kristalak bizi-kanporatze bakarra du, bere gatzatzea, zeinak ondoren forma zurrunduan, aldiuneko bizitza haren gorpuan, bere adierazpen erabat buruaskidun eta agortzailea baitu. Jadanik landareak bere ideia, zeinaren agerpena baita, ez du behingoz eta kanporatze sinple baten bitartez adierazten, baizik bere organoen garapenen suzesio batean denboran. Animaliak ez du era berean bakarrik garatzen, sarritan bere organismoaren oso taxuera desberdinetan (metamorfosia); baizik taxu hori bera, nahiz eta nahimenaren objektitatea den maila horretan, ez da iristen bere ideiaen aurkezpen osora, baizik eta adierazpen hori animaliaaren egintzen bitartez osatzen da zeinean bere karakter enpirikoa, espezie osoan bat bera dena adierazten baita eta ideiaen agerian jartze erabatekoa baita, zeinean organismo determinatua oinarri-baldintzatatzat suposatzen baitu. Gizakiarengan jadanik banako bakoitzak karakter enpiriko propioa du (areago, laugarren liburuan ikusiko denez, espeziearen karakterra erabat ezabatzeraino iristen da, h. d. nahi izate osoaren autoezabaketaren bitartez). Beharrezko garapenaren bitartez denboran eta horrek baldintzaturiko atalkatzearen bitartez egintza partikularretan karakter enpiriko gisa ezagutzen dena, agerpenaren denborazko forma horren abstrakzioarekin, Kanten adierazmoldearen arabera karakter inteligiblea da, zeinak desberdintasun horren eta askatasunaren eta beharrezkotasunaren arteko harremanaren aurkezpenaren berri eman izanak, h. d. berbaitango gauza gisa nahimenaren eta denborako bere agerpenaren artekoak propioki, bere meritu hilezkorra bikaintasun bereziz erakusten baitu¹⁴. Karakter inteligiblea bat dator ideiarekin edo propiokiago: hartan agirian jartzen den jatorrizko nahimen-egintzarekin; zentzu horretan ez da gizaki bakoitzaren karakter enpirikoa hartu behar bakarrik, baizik animalia espezie bakoitzarena, areago, landare-espezie bakoitzeko natura inorganikoaren jatorrizko indar bakoitzarena karakter adigarri baten agerpen gisa, h. d. nahimen-egintza banaezin denboraz kanpoko bat bezala. – Bidenabar ohartarazi nahiko nuke hemen nolako xalotasunez landareak bere karakter osoa taxu soilaren bitartez adierazi eta erakusten duen, bere izate eta nahi izate osoa agirian jartzen dituen, horregatik landareen fisiognomia hain interesgarria delarik; bitartean animalia, bere ideiaen arabera ezagutua izateko, bere egite eta joeran behatua izan behar duelarik, gizakiak erabat ikertua eta frogatua izan behar du, zeren arrazoimenak neurri handian disimulurako gai bihurtzen baitu. Animalia horrela gizakia baino askozaz xaloagoa da, landarea animalia baino xaloagoa den bezala. Animaliarengan bizitzeko nahimena gizakiarengan baino biluziago ikusten dugu, azken hori hainbesteko ezagutzarekin gainjantzirik eta gainera disimulurako gaitasunaren bitartez estalirik baitago, halako moldez, non bere egiazko esentzia ia ausaz eta guneka bakarrik irteten baita argitara. Erabat biluzik, baina askozaz ahulago ere bai, agertzen da landarean izateko oldar soil gisa helbururik eta xederik gabe. Zeren horrek bere esentzia guztia agirian jartzen baitu lehen begiradan eta erabateko errugabetasunarekin, zeinak ez baitu sufritzen genitalak, animalia guztiengan

lekurik ezkutuen hartu dutenak, berak erpinean erakusgai erabiltzeagatik. Landareen errugabetasun hori beren ezagutzagabezia datza: ez nahi izatean, baizik ezagutzarekin nahi izatean datza errua. Landare bakoitzak, lehenik, bere sorterriaren, hango klimaren eta ernarazi duen lurtzoruaren izaeraren berri ematen digu. Horregatik gutxien trebatuak berak ere erraz ezagutzen du landare exotiko bat zona tropikoari ala epelari dagokion, eta uretan, paduran, mendietan ala eremuan hazten den. Gainera, ordea, landare bakoitzak bere espeziearen nahimen berezia adierazten du, eta beste ezein hizkuntzatan adieraz ezin daitekeen zerbait esaten du. - Baina orain esandakoa organismoen kontsiderazio teleologikorako erabiliko dugu, bere barneko helburuzkotasunarekin zerikusia duen heinean. Baldin eta natura inorganikoan toki guztietan nahimenaren egintza bakar bat bezala kontsideratu behar den ideia halaber kanporatze bakar eta beti berdin bat bezala agirian jartzen bada, eta horregatik esan badaiteke hemen karakter enpirikoak bitartegabe esku hartzen duela adigarriaren batasunean, aldi berean berarekin bat datorrela, zeren hemen barneko ezein helburuzkotasun ezin baitaiteke erakutsi; aitzitik, organismo guztiek garapenen suzesio baten bitartez bata bestearen ondoren, zeina atal desberdinen askotarikotasun baten bitartez baldintzaturik baitago, beren ideia aurkezten badute, horrela bere karakter enpirikoaren kanporatzeen batura bere bilduman bakarrik da adigarriaren adierazpen; horrela atalen bata bestearen alboan egote beharrezko hori eta garapenaren bata bestearen ondoren joate horrek ez du agertzen, kanporatzen den nahimen-egintzaren ideien batasuna ezabatzen: areago batasun horrek bere adierazpena atal eta garapen horien elkarren arteko beharrezko harreman eta kateakuntzan aurkitzen du kausalitatearen legearen arabera. Nola nahimen bakar eta banaezina eta horregatik bere buruarekin bat datorren nahimena, zeina ideia osoan eta egintza batean bezala agirian jartzen baita: horrela bere agerpenak, nahiz eta atalen eta egoeren desberdintasun batean sakabanaturik egon, beharrezko du bere batasun hori berriz erakustea berbaitango bat-etortze etengabea: atal guztien elkarrekiko harreman beharrezkoaren eta dependentziaren bitartez gertatzen da hori, zeinen bitartez agerpenaren ideien batasuna berrezartzen baita. Horren ondorioz bakarrik berrezagutzen ditugu organismoen atal eta funtzio desberdin haiek elkarrekiko bitarteko eta helburu gisa, eta organismoa bera guztien azken helburua gisa. Ondorioz, bere baitan sinplea den ideia organismoaren atal eta egoeren aniztasunean deskonposatzea alde batetik eta bere batasuna bere atal eta funtzioen loturaren bitartez berrezartzea, kausa eta efektu, horrela bitarteko eta helburu, elkarrekiko direla, bestetik agertzen den nahimenari horrelakoa den heinean, berbaitango gauzari ez zaizkio propio eta esentzial, baizik bere agerpenari espazioan, denboran eta kausalitatean (arrazoiaren printzipioaren, agerpenaren formaren taxuak denak). Errepresentazio gisako munduari dagozkio, ez nahimen gisako munduari: nahimena objektu, hau da errepresentazio bihurtzen den modu eta erari dagozkio, bere objektitatearen maila horretan. Azterketa zail samar horren zentzua barrendu duenak orain benetan zuzen ulertu ahal izango du Kanten doktrina, zeinaren arabera organikoaren helburuzkotasuna eta inorganikoaren erregulartasuna gure arrazoimenak bakarrik ezartzen baititu naturan, horregatik biak agerpenari dagozkio, ez berbaitango gauzari. Natura inorganikoko erregulartasunaren konstantzia hutsezinari buruz goian aipaturiko miresmena esentzian natura organikoaren erregulartasunari buruzkoa bera da: zeren bi kasuetan ideien jatorrizko batasunari begiratzeak harritzen baikaitu, zeinak agerpenerako aniztasunaren eta desberdintasunaren forma hartu baitu¹⁵.

Lehenago egindako banaketaren arabera, bigarren motako, kanpoko helburuzkotasunari dagokionez, zeina organismoen barneko ekonomian ez, baizik horiek

kanpotik, baita natura inorganikotik eta bata bestetik ere hartzen duten euspen eta laguntzan azaltzen baita; horrela aurkitzen du horrek bere azalpena orokorrean, edozein kasutan, aurrez egin dugun azterketan, izan ere mundu osoa bere agerpen guztiekin nahimen bakar eta banaezinaren objektitatea baita, ideia, zeina beste ideia guztiekiko harmonia ahots bakarrarekiko bezala portatzen baita, horregatik nahimenaren batasun horrek bere agerpen guztiek elkarrekiko duten bat etortzean azaldu behar du. Hala ere, ikuspegi hori argitasun askozaz handiagora jaso dezakegu, baldin eta naturako atal desberdin haiek elkarrekiko duten kanpoko helburuzkotasan eta bat-etortzera hurbilduz gero, eta azterketa horrek aldi berean aurrekoari buruz argia isuriko du. Baina hori lortzeko ondorengo analogia kontsideratzea izango dugu onena.

Gizaki partikular bakoitzaren karakterra, erabat indibiduala eta osoki espeziearenaren baitan ez dagoen heinean, ideia berezi bat bezala ikus daiteke, nahimenaren objektibazio-egintza berezi bati dagokiona bezala. Egintza hori bera litzateke bere karakter adigarria, bere enpirikoa baina berorren agerpena. Karakter enpirikoa erabat eta osoki determinaturik dago nahimen adigarriaren bitartez, zeina arrazoigabea, h. d. berbaitango gauza arrazoiaren printzipioaren (agerpenaren formaren) mendean ez dagoena baita. Karakter enpirikoak bizi-joaira batean adigarriaren imajina eman behar du, eta ezin da horren esentziak eskatzen duenaz bestetara gertatu. Determinazio hori esentzialera bakarrik hedatzen da, ez horren arabera agertzen den bizi-joairaren ez-esentzialera. Ez-esentzial horri dagokio gertakarien eta egintzen determinazioa hurbilagokoa, zeinak baitira karakter enpirikoa azaltzen den gaia. Horiek kanpoko zirkunstantziek determinaturik daude, zeinak motiboek sortzen baitituzte, zeinekiko karakterrak erreakzionatzen baitu bere naturaren arabera, eta nola oso desberdinak izan daitezkeen, horren eraginaren arabera gobernatu beharko da karakter enpirikoaren agerpenaren kanpoko taxuera, alegia bizi-joairako taxuera faktiko eta historiko determinatua. Hori oso era desberdinetara gerta daiteke, nahiz eta agerpen horren esentzia, bere edukia, berdin geratu: horrela, adibidez, ez da funtsezkoa intxaurrak edo sosak jokatzeko diren; baina jokoan iruzur egiten den ala jator aritzen den, hori funtsezkoa da: hori karakter adigarriak determinatzen du, hura kanpoko eraginak. Gai bera ehun bariaziotan aurkez daitezkeen bezala, horrela karakter bera ere ehun bizi-joaira guztiz desberdinetan. Kanpoko eragina oso era desberdinetakoa izan daitekeelarik, hala ere, edonola gertatzen dela, bizi-joairan adierazten den karakter enpirikoak adigarria zehatz objektibatu behar du, bere objektibazioa zirkunstantzia faktikoen alde aurretik aurkituriko gaira moldatzen duen heinean. - Kanpoko zirkunstantziek esentzian karakterrak determinaturiko bizi-joairaren baitan duten eragin haren zerbait analogoa, onartu beharra daukagu orain, baldin eta pentsatu nahi badugu, nola nahimenak bere objektibazioko jatorrizko egintzan ideia desberdinak determinatzen dituen, zeinetan bera objektibatzen baita, h. d. mota guztietako natur izakien taxu desberdinak, zeinetan bere objektibazioa banatzen baitu eta horregatik elkarrekiko harreman bat agerpenean derrigor izan behar baitute. Onartu beharra daukagu nahimen bakarraren agerpen horien guztien artean gertatu zela elkarri moldatze eta egokitze orokor bat, zeinatik ordea, berehala ikusiko dugunez, denbora-determinazio oro baztertu behar baita, zeren ideia denboraz kanpo baitago. Horren arabera agerpen orok gertatzen den ingurunera moldatu behar du, eta honek berriz hartara, nahiz eta horrek denboran askozaz geroagoko lekua hartu; eta nonahi ikusten dugu consensus naturae hori. Horregatik landare bakoitza bere lurzorura eta zeru-parera moldaturik dago, animalia oro bere elementura eta harrapakinera, bere elikadura izan behar duen horretara, eta halaber nolabait babesturik dago bere

jazarle naturalen aurka; begia moldaturik dago argira eta bere errefrakziora, birika eta odola airera, igeriketa-puxika uretara, itsas txakurraren begia bere ingurunearen aldaketara, ganbeluaren urdaileko zelula ur-edukitzailak afrikar basamortuetako lehortera, nautiluen¹⁶ bela haizera, zeinak bere ontzitxoari bultza egiten baitio, eta horrela kanpoko helburuzkotasun berezi eta txundigarrienetara iritsi arte¹⁷. Alabaina, honetan guztian denbora-harreman guztietatik abstrahitu beharra dago, zeren horrek ideiaren agerpenarekin baitauka zerikusia, ez ideiarekin berarekin. Horren arabera azalpen-mota hura atzera joz erabili behar da eta ez onartu espezie bakoitza alde aurretik aurkituriko zirkunstantzietara egokitu dela bakarrik, baizik eta denboran alde aurretik sortu diren zirkunstantzia horiek kontuan hartu dituztela egunen batean oraindik etortzekoak diren izakiak. Zeren nahimen bakar eta bera baita, mundu osoan objektibatzen dena: ez du denborarik ezagutzen, zeren arrazoiaren printzipioaren taxu hori ez baitagokio berari ezta jatorrizko bere objektitateari, ideiei ere; baizik eta berak ere banako iragankorrek haiek, ezagutzen dituzten modu eta erari bakarrik, h. d. ideien agerpenei. Horregatik gure oraingo kontsiderazioan, nahimenaren objektibazioa ideietan banatzen den modua, denbora-sekuentzia batere esangurarik gabea da, eta ideiak, zeinen agerpenak kausalitatearen legearen mendean baitaude, horrelakoak diren heinean, denbora-sekuentzian lehenago agertu baitziren, horrenbestez ez dute pribilejiorik agerpenak geroago sartu dituztenekiko, zeinak baitira areago hain zuzen ere nahimenaren objektibaziorik perfektuenak, eta horietara lehenagokoak berdin moldatu behar baitira, nola hauek haietara. Horrela planeten joaira, ekliptikaren inklinazioa, lurraren errotazioa, lehorraren eta itsasoaren banaketa, atmosfera, argia, beroa eta antzeko agerpen guztiak, zeinak baitira naturan harmonian oinarribaxua den hori, bortxaz egokitu ziren izaki bizien etorkizuneko belaunaldietara, zeinen eroale eta euskarri izan behar baitzuten. Era berean egokitu zen lurtzorua landareen elikadurarako, horiek animalien elikadurarako, horiek beste animalia batzuen elikadurarako baita alderantziz horiek guztiak berriz haientzat. Naturako atal guztiak bata besterantz doaz, zeren nahimen bakarra baita, horietan guztietan agertzen dena, baina denbora-sekuentzia bere objektitate jatorrizko eta egoki bakarrari (adierazpen hori hurrengo liburuak azaltzen du), ideiei, guztiz arrotz zaie. Orain bertan ere, espezieek beren burua kontserbatzea bakarrik, sortu beharrik gehiago ez dutenean, behin eta berriz ikusten dugu etorkizunera hedatzen den, benetan denbora-sekuentziatik nolabait abstrahitzen den ardura bat, jadanik badenak izan behar duenarekiko egokitze bat. Horrela eraikitzen du txoriak habia oraindik ezagutzen ez dituen kumeentzat; kastoreak eraikin bat jasotzen du, horren helburua ezezaguna bazaio ere; inurriak, hamsterrak, erleak, bizikaia biltzen dute ezezaguna zaien negurako; armiarmak, inurri-lehoiak, tranpak egiten dituzte maltzurtasun hausnartuz etorkizuneko beren harrapakin ezezagunentzat; intsektuek arrautzak ezartzen dituzte etorkizuneko larbak etorkizunean elikagaia aurkituko duen tokian. Loratze-aldian sexu banatuko Vallisneriaren lore emea bere zurtoineko espiroletatik, ordura arte uraren barruan eduki dituen horietatik garatu eta horren bitartez gainaldera igotzen denean, orduantxe bereizten da uraren barruan zurtoin txiki batean hazten den lore arra eta bere bizia sakrifikatuz gainaldera iristen da, eta hantxe bertan igeri eginez lore emea bilatzen du, zeina gero ernaltzea gertaturik bere espiralen uzkurketaren bitartez barrura itzultzen baita, non ere fruitua garatzen den¹⁸. Hemen ere beste behin kakarraldo arraren larba gogoratu beharra daukat, zeinak bere metamorfosirako zureko zuloa emeak baino bi aldiz handiagoa egiten baitu etorkizuneko adarrentzat leku egiteko. Oro har horrela animalien instintuak ematen digu argibiderik hoberena naturako gainerako teleologiaz. Zeren instintua egintza

bat den bezala helburu-kontzeptu baten arabera egiten dena bezalakoa, eta hala ere erabat horrelakorik gabea; naturako eratze oro helburu-kontzeptu baten arabera egindakoa bezalakoa da, eta hala ere erabat horrelakorik gabea. Zeren naturako kanpoko eta barneko teleologian, bitarteko eta helburu gisa pentsatu behar duguna, gure ezagutza-erarako espazioan eta denboran bakarrik banaturiko eta neurri horren barruan bere buruarekin bat datorren nahimenaren batasunaren agerpena baita.

Bitartean batasun horretatik sortzen den agerpenen elkarrekiko moldatze eta egokitzeak ezin du ezabatu naturako borroka orokorrean agertzen den barneko gatazka, nahimenari esentziala zaiona. Harmonia hura munduaren existentzia eta bere esentzia ahalbidetzen duenetik harago ezin da joan, zeina gabe aspaldi iraungiko baitzatekeen. Horregatik espeziearen existentziara eta bizi-baldintza orokorretara bakarrik hedatzen da, ez ordea banakoengana. Baldin eta, horren arabera, harmonia eta akomodazio horien indarrez, espezieak organikoan eta natur indar orokorrak inorganikoan bata bestearen ondoan badaude, eta are elkarri euskarria ematen badiote; horrela azaltzen da, aitzitik, nahimen objektibatuaren ideia haien guztien bitartez espezie haietako banakoen ezabatze-gerra etenezinean eta natur indar haien agerpenen elkarrekiko lehia iraunkorrean, goian aditzera eman denez. Borroka horren jokalekua eta objektua materia da, zeina elkarri aldika kentzen ahalegintzen baitira, espazioa eta denbora ere bezala, zeinen baterakuntza kausalitatearen formaren bitartez baita benetan materia, lehen liburuan azaldu denez¹⁹.

§ 29

Neure aurkezpenaren bigarren atal nagusia ixten dut hemen, espero dudalarik, orain arte izan gabeko pentsamendu baten lehen berri-ematea delarik, zeina horregatik lehen aldiz sortu duen indibidualitatearen aztarnetatik erabat libre ezin baitateke egon - ahalgarri dela, egingarri izan zaidala, mundu hau, zeinetan bizi eta existitzen garen, bere esentzia osoaren arabera erabat nahimen eta aldi berean erabat errepresentazio den ziurtasun argiaren berri ematea; errepresentazio horrek jadanik horrelakoa den heinean forma bat suposatzen duela, hau da objektua eta subjektua, eta horregatik erlatiboa dela; eta galdetzen badugu forma hori eta beraren mendeko guztiak ezabatu ondoren, zeinak adierazten baititu arrazoiaren printzipioak, zer gelditzen den; errepresentazio batekiko toto genere desberdina den hori nahimena, beraz benetan berbaitango gauza, besterik ezin daiteke izan. Bakoitzak bere burua nahimen horren gisa aurkitzen du, zeinean munduaren barneko esentzia baitatza, horrela, subjektu ezagutzaille gisa ere bere burua aurkitzen duen bezala, zeinaren errepresentazioa mundu osoa baita, zeinak zentzu horretan bere kontzientziarekiko harremanean bakarrik baitu existentzia haren eroale beharrezko gisa. Bakoitza da horrela ikuspegi bikoitz horretan mundu osoa bera, mikrokosmosa, horren bi aldeak erabat eta osoki bere baitan aurkitzen ditu. Eta bakoitzak horrela esentzia propio bezala berrezagutzen duenak, horrek berak agortzen du mundu osoaren, makrokosmosaren esentzia ere: eta bera ere bakoitza bezala erabat nahimen da eta erabat errepresentazio da, eta ez da ezer besterik gelditzen. Horrela ikusten dugu hemen Thalesen filosofia, makrokosmosa kontsideratzen zuena, eta Sokratesena, mikrokosmosa kontsideratzen zuena, bat datozela, bien objektua bat bera bezala agertzen zaigularik. - Baina osotasun handiagoa eta horren bitartez ziurtasun handiagoa ere lortuko du lehen bi liburuetan aditzera emandako ezagutzak oraindik etorriko diren bi liburuen bidez, zeinetan espero baitut galdera askok, orain arteko gure

konsiderazioetan argitasunarekin edo argitasunik gabe egin izan direnek, beren erantzun gogobetegarria aurkituko dutela.

Bitartean horrelako galdera bat aparte azter liteke, zeren ez baita planteatzen, erabat sakondu ez baldin bada orain arteko aurkezpenaren zentzua eta horrela horren argibiderako balio dezake. Honako hau da. Nahimen oro zerbaiten nahimena da, objektu bat du, bere nahi izatearen jomuga bat: zer nahi du, beraz, azken finean edo zertan ahalegintzen da nahimen hori, zeina munduaren berbaitango esentzia gisa aurkeztu baitzaigu? - Galdera hori, beste hainbeste bezala, berbaitango gauza agerpenarekin nahastean datza. Azken honetara bakarrik hedatzen da, ez hartara, arrazoiaren printzipioa, zeinaren taxuera ere bai baita motibazioaren legea. Beti agerpenei buruz, horrelakoak diren heinean, gauza partikularrei buruz bakarrik eman daiteke arrazoia, inoiz ez nahimenari berari buruz ezta ideiari buruz ere, zeinetan egoki objektibatzen baita. Horrela higidura partikular bakoitzaren edo oro har aldaketaren kausa bat bila daiteke naturan, h. d. egoera bat, zeinek derrigor hura sorrarazi baitu; inoiz ez natur indarrarena berarena, zein hartan eta ezin zenbatu ahal agerpen berdinetan jartzen baita agirian: eta horregatik egiazko zentzugabekeria da, gogoetagebeziatik sortua, pisutasunaren, elektrizitatearen eta abarren kausaz galdetzea. Bakarrik, agertu izan balitz pisutasuna, elektrizitatea ez natur indar jatorrizko, propioak, baizik natur indar jadanik ezagunago, orokorrago baten agerpen-erak bakarrik direla, orduan galde liteke kausaz, zeinak egiten baitu natur indar horiek hemen pisutasunaren, elektrizitatearen agerpena sorraraztea. Hori guztia lehen bidenabar aurkeztu da. Era berean orain ezagutzen duen banako baten nahimen-egintza partikular bakoitzak (zeina bera berbaitango gauza gisa nahimenaren agerpen besterik ez baita) motibo bat dauka derrigor, zein gabe egintza hura inoiz ez bailitzateke gertatuko: baina kausa materialak bere baitan soilik determinazioa duen bezala, denbora honetan, toki honetan, materia honetan natur indar honen edo haren kanporatze bat gertatu behar izateko; horrela determinatzen du soilik motiboak izaki ezagutzaile baten nahimen-egintza denbora honetan, toki honetan, zirkunstantzia hauetan erabat zera partikular gisa; inola ere ez ordea izaki horrek oro har nahi duela eta era horretara nahi duela: hori karakter adigarri baten kanporatzea da, zein nahimena bera bezala, berbaitango gauza bezala, arrazoigabea baita, eta arrazoiaren printzipioaren eremutik kanpo datzana. Horregatik gizaki bakoitzak helburu eta motiboak ditu iraunkorki, zeinen arabera bere portaera gidatzen baitu, eta badaki denbora guztian bere jarduera bakar horretaz kontu ematen: baina galdetuko balitzaio zergatik nahi duen oro har edo zergatik existitu nahi duen oro har; ez luke erantzunik emango, areago galdera horri zentzugabe ere iritziko lioke: eta horretan adieraziko luke propioki bera nahimena besterik ez delako kontzientzia, zeinaren nahi izatea oro har berez ulertzen baita eta bere egintza partikularretan bakarrik denbora-une bakoitzerako motiboen bitartezko determinazio hurbilagokoa behar baitu.

Izan ere, xede ororen, muga ororen absentsia nahimenaren esentziari dagokio, zeina amaigabeko ahalegina baita. Gai hau ukitua dugu indar zentrifugoaren aipamena egitean: erarik sinpleenean agerian jartzen da nahimenaren objektitatearen maila beherenean, h. d. pisutasunean, zeinaren ahalegin iraunkorra, azken helburu baten ezintasun nabarian, begien aurrean baitago. Zeren existitzen den materia guztia bere nahimenaren arabera mukulu bakar batean bateratuko balitz; horrela horren barruan pisutasuna, erdigunerantz ahaleginduz, barrenezintasunarekin solidotasun edo elastizitate gisa borrokatuko litzateke. Horregatik materiaren ahalegina beti muga daiteke, baina sekula eta inoiz ez bete eta ase. Horrela jokatzeko du hain zuzen ere nahimenaren agerpen guztien ahalegin guztiarekin. Lortutako helburu oro ibilbide

berri baten hasiera da, eta horrela infinituraino. Landareak gorantz jasotzen du bere agerpena ernamuinetik enbor eta hostoan barrena lore eta fruitura, zeina baita ernamuin berri baten, banako berri baten hasiera, zeinak ibilbide zaharra korritzen baitu, eta horrela denbora amaigabean. Horrelakoa da animaliaaren bizi-joaira ere: ugaltzea da horren gailurra, eta hori lortu ondoren lehen banakoaren bizitza bizkor edo astiro hondora doa, bitartean berri batek naturari espeziearen kontserbazioa bermatzen diolarik eta agerpen bera errepikatzen delarik. Areago, ahalegin eta aldaketa iraunkor horren agerpen soil ikusi behar da organismo ororen materiaren etengabeko berritzea ere, zeinari fisiologoek utzi baitiote orain, higiduran erabilitako gaiaren ordezkotzat hartzeari, zeren makinaren higapen posiblea inondik ere ez baita elikaduraren bitartezko etengabeko gehikuntzaren baliokidea: betiko bilakaera, amaigabeko jarioa nahimenaren esentzia agirian jartzeari dagokio. Gauza bera azaltzen da azkenik giza ahalegin eta desiretan, zeinek horiek betetzea nahi izatearen azken helburuaren itxurak egiten baitizkigute: baina bete diren bezain laster, ez dirudite horrelakoak zirenik, eta horregatik laster ahaztu eta zaharkitzen dira, eta propioki beti, nahiz eta ez izan aitortzekoa, ezabaturiko engainu gisa alde batera uzten dira; aski zorioneko da, baldin eta oraindik zerbait desiratu eta ahaleginak egiteko gelditu bada, desiratik asetzerara eta hortik desira berrira beti iragatearen jokoa, zeinaren igarobide bizkorrari zoriona, eta geldoari sufrimendua deitzen baitzaio, mantentzeko, eta gelditze hartan ez sartzeko asperdura beldurgarri eta bizi-zurruntzaile gisa, objektu determinaturik gabeko gura izate lauso, languor erailtzaile gisa azaltzen baita. - Horren guztiaren ondorioz badaki beti nahimenak, ezagutzak argitzen duenean, zer nahi duen hemen eta zer orain; inoiz ez ordea zer nahi duen oro har: egintza bakar bakoitzak helburu bat du; nahi izate orokorrak batere ez: natur agerpen bakoitza toki honetan, denbora honetan agertzera behar besteko kausa batez determinaturik dagoen bezala, baina horretan azaltzen den indarrak oro har ez du kausarik, zeren hori berbaitango gauzaren, nahimen arrazoigabearen agerpen-maila baita. - Nahimenaren autoezagutza bakarra oro har orokorreko errepresentazioa, mundu begiesgarri osoa da. Hori bere objektitatea, bere agirian jartzea, bere ispilua da. Propietate horretan adierazten duena izango da gure ondorengo kontsiderazioen gaia²⁰.

HIRUGARREN LIBURUA

MUNDUA ERREPRESENTAZIO GISA

ERREPRESENTAZIOA, ARRAZOIAREN PRINTZPIOAREKIKO INDEPENDENTEKI: IDEIA PLATONIKOA:
ARTEAREN OBJEKTUA

(GRIEGO)

*[Zer da beti dena, inolako sortzerik ez duena, eta zer da sortzen dena eta zer da
desagertzen dena, baina egiazki inoiz ez dena?]*

PLATON

27 D

§ 30

Lehen liburuan mundua errepresentazio soil, subjektu batentzako objektu gisa aurkeztu ondoren, bigarren liburuan bere beste aldetik begiratu eta hori nahimena dela aurkitu dugu, zeina agertu baitzaigu mundu hori errepresentazioaz kanpo bakarrik dena bezala; horrela ezagutza horren arabera mundua errepresentazio gisa nola osoan hala bere ataletan nahimenaren objektitatea izendatu dugu, horrek esan nahi du: objektua, errepresentazio bihurturiko nahimena. Gainera, gogoan daukagu nahimenaren objektibazio horrek maila asko baina determinatuak zituela, zeinetan argitasun eta perfekzio mailakatu goranzkoarekin nahimenaren esentzia errepresentazioan agertzen baita, objektu bezala aurkezten baita. Maila horietan berrezagutu ditugu hor Platonen ideiak, maila horiek, espezie determinatuak edo gorputz natural guztien, nola organikoen hala inorganikoen, forma eta propietate jatorrizko ez aldakorrak, baita natur legeen arabera agerian jartzen diren indar orokorrak direla. Ideia horiek horrela orokorrean ezin zenbatu ahala banako eta partikularitasunetan agertzen dira, zeinek haien eredu gisa jokatzeko baitute beren kopia horiekiko. Banako horien aniztasuna, denbora eta espazioaren bitartez, horien sortze eta iraungitzearen bitartez, kausalitatearen bitartez bakarrik da errepresentagarria, eta forma horietan guztietan berrezagutzen ditugu arrazoiaren printzipioaren taxuera desberdinak, zeina finitutasun ororen, indibiduazio ororen azken printzipioa baita eta errepresentazioaren forma orokorra, banakoaren ezagutzan gertatzen den bezala. Aitzitik, ideia ez da printzipio hartan sartzen: horregatik ez dagozkio ez aniztasuna ezta aldaketa ere. Bitartean banakoak, zeinean aurkezten baita, ezin zenbatu ahal baitira eta etengabe bilakatzen eta iraungitzen ari baitira, hura aldatugabe gelditzen da bakar eta bera gisa, eta arrazoiaren printzipioak ez du berarentzat esangurarik. Baina nola hori forma baita, zeinaren pean subjektuaren ezagutza oro baitago, ezagutzen duen banakoa den heinean; ideiak erabat kanpo gelditzen dira banakoaren ezagutza-esferatik horrelakoak diren heinean. Horregatik ideiak ezagutzaren objektu izatea nahi bada; hori subjektu ezagutzaillearengan indibidualitatea ezabatuz bakarrik gerta daiteke. Horri buruzko azalpen hurbilagoko eta xeheak ematen arituko gara ondoren.

§ 31

Lehendabizi honako ohar guztiz funtsezkoa egingo dugu. Espero dut nire aurreko liburuan lortu dudala konbentzitzea kantiar filosofian berbaitango gauza deitzen dena, hain esanguratsu, baina ilun eta paradoxazko gisa aurkezten den hura bera, batez ere Kantek sartu duen moduarengatik, efektutik kausarako inferentziaz, eskandalu-harri, are gehiago, bere doktrinaren alde ahultzat aurkitu izan denaren bidez, nik diot, hori, zeinara gu izan garen bezala zeharo bestelako bide batetik iristea izan bada, nahimena besterik ez dela, adierazitako eran zabaldu eta determinaturiko kontzeptu horren esferan. Gainera espero dut ez dela inolako ezbairik geldituko esandakoari buruz, nahimenaren objektibazioaren maila determinatuetan, zeinek munduaren berbaitango hura eratzen baitute, Platonek ideia betikoak edo forma aldaezinak (GRIEGO) deitu zituenak berrezagutzeko, eta hori, bere doktrinaren dogma nagusi eta aldi berean ilun eta paradoxazkoentzat aitortu dena, gogoeta, liskar, iseka eta

beneraziorako objektu ere izan da buru asko eta iritzi desberdinetakoentzat mende luzeetan barrena.

Baina nahimena guretzat berbaitango gauza bada, ideia nahimen horren objektitatea maila determinatu batean; orduan Kanten berbaitango gauza eta Platonen ideia, zeinentzat bakarrik (GRIEGO) [egiazki dena] baita, Mendebaldeko bi filosofo handien bi paradoxa handi ilun horiek - egiatan ez identiko, baina oso hurbiletik ahaideturik eta determinazio bakar batez bereizirik aurkitzen ditugu. Bi paradoxa handi horiek, hain zuzen ere beren barneko sintonia eta beren ahaidetasun guztiairengatik beren sortzaileen indibidualitate bereziki desberdinarengatik hain kutsu desberdina duten horiek, bata bestearen iruzkinik hoberenak ere badira, helmuga bakarrera gidatzen duten bi bide zeharo desberdin diren heinean. - Hitz gutxi behar da hori argi uzteko. Kantek dioena funtsean hauxe da: «Denbora, espazioa eta kausalitatea ez dira berbaitango gauzaren determinazioak; baizik bere agerpenari bakarrik dagozkio, gure ezagutzaren formak baizik ez diren heinean. Baina aniztasun oro eta sortze eta iraungitze oro denbora, espazioa eta kausalitatearen bitartez bakarrik dira posible; horrela dator haiek agerpenari bakarrik eta inola ere ez berbaitango gauzari dagozkionak izatea. Zeren gure ezagutza ere forma haiek baldintzatzen baitute; horrela esperientzia osoa agerpenaren ezagutza besterik ez da, ez berbaitango gauzarena: horregatik bere legeak ez dago berbaitango gauzarentzat baliozko bihurtu ahal izaterik. Gure ni propiora ere hedatzen da esandakoa, eta agerpen gisa ezagutzen dugu guk, ez bere baitan izan daitekeenaren arabera». Horixe da kontsideraturiko ikuspegi garrantzitsua Kanten doktrinaren zentzua eta edukia. Platonek aldiz hau dio: «Mundu honetako gauzek, gure sentsuek hautematen dituztenek, ez dute egiazko izaterik: bilakatu egiten dira beti, izan ez dira inoiz; izate erlatibo bat besterik ez dute, oro har, elkarrekiko beren harremanean eta horren bitartez bakarrik dira: horregatik horien izate osoari era berean dei lekieke ez-izate ere. Ondorioz ez dira benetako ezagutza (GRIEGO) baten objektuak; zeren bere baitan eta beretzat eta beti era berean denarena bakarrik gerta baitaiteke horrelakorik: horiek, aitzitik, gure sentsazioak eragindako horrelakotzat edukitze baten (GRIEGO) objektua besterik ez dira. Horien hautemapenera mugaturik gauden bitartean, gu, gizakiok, badirudi haitzulo ilun batean tinko loturik eserita geundekeela, buruari bira ematerik ez genukeela eta ezer ezingo genukeela ikusi atzealdean erretzen ari den suaren argitan haien aurreko gauza errealean itzal-irudiak horman izan ezik, zeinak gizakien eta suaren artean sarturik baileudeke, eta bata besteaz, are beren buruaz ere, horma horretako itzalak besterik ez bailituzkete ikusiko. Horien jakituria esperientziaz ikasitako itzal horien sailen sekuentzia aurrez esatea izango litzateke. Orain, aitzitik, egiaz badena bakarrik (GRIEGO) dei daitekeena, zeren beti delako, baina inoiz bilakatzen eta iraungitzen ez delako: horiek dira itzal-irudi horien eredu errealak; ideia betikoak dira, gauza guztien lehen formak. Horiei ez dagokie inolako aniztasunik: zeren bakoitza bere esentziaren arabera bat baita, eredua den heinean, zeinaren kopiak edo itzalak baitira mota bereko gauza izen bereko, bakoitz eta iragankorrek. Horiei ez dagokie inolako sortzerik eta iraungitzerik: zeren egiaz direnak baitira, ez ordea bilakatu eta galtzen direnak, desagertzen diren horien kopiak bezala. (Bi determinazio ukatzaile horien baitan dago beharrezko suposizio bezala, denborak, espazioak eta kausalitateak horientzat esangurarik eta baliozkotasunik ez dutelakoa eta horietan existitzen ez direlakoa.) Horregatik ideia horietaz bakarrik izaten da benetako ezagutza bat, zeren horrelako baten objektua bakarrik izan daiteke beti eta kontsiderazio orotan (horrela bere baitan) dena; ez badena, baina berriro ez dena, ea nola begiratzen zaion.» - Hori da Platonen doktrina. Agirian dago eta ez du argibide gehiago behar hau baino: bi doktrinaren barreneko zentzua

erabat berdina dela, biek mundu ikuskorra agerpen gisa azaltzen dutela, bere baitan ez dela ezer eta bertan adierazten denaren bitartez bakarrik (batarentzat berbaitango gauza eta bestearentzat ideia) du zentzua eta ezkutaturiko errealtatea; azken horri, egiaz badenari ordea, bi doktrinen arauz, guztiak, agerpen haren formarik orokor eta esentzialenak ere guztiz arrotz zaizkio. Kantek, forma horiek ukatzeko, adierazpen bitartegabe abstraktu gisa kontzebitu ditu, eta berbaitango gauzatik denbora, espazioa eta kausalitatea baztertu egin ditu agerpenaren forma soil gisa: Platon, berriz, ez da adierazpen goreneraino iritsi, eta forma haiek ideiei bitartedunki baztertu dizkie, forma haien bidez bakarrik ahalgarri dena ideiez ukatu duen heinean, mota berekoen aniztasuna, sortzea eta iraungitzea. Ugaritasun handiagorako adibide baten bitartez jarri nahi dut agirian bat-etortze ohargarri eta garrantzitsu hori. Demagun aurrez aurre daukagula animalia bat bizi-ekintza betean. Platonek esango du: «Animalia honek ez dauka egiazko existentziarik, baizik itxurazko bilakatze iraunkor bat, izate erlatibo bat, era berean ez-izate eta izate dei litekeena. Egiaz badena ideia bakarrik da, animalia horretan kopiatzen dena, edo animalia bere baitan (GRIEGO), ezerekoiko dependente ez dena, baizik bere baitan eta beretzat dena (GRIEGO)[bere baitan, beti era bakar eta era berean] 78 D), bilakatu ez dena, amaitzen ez dena, baizik beti era berean (GRIEGO) [beti izanez, eta inoiz ez sortuz edo desagertuz; Platonen arabera, Timaeus» 27 D]. Guk orain animalia horrengan bere ideia berrezagutzen dugun heinean, erabat berdin dio eta esangurarik ez du guk animalia hori geure aurrean daukagun ala duela milaka urte bizi zen arbasoa, gehiago oraindik, hemen ala urruneko lurralde batean dagoen, era, posizio, edo egintza horretan ala beste hartan aurkezten den, bere motako banako hau edo beste bat den: hori guztia ez da ezer eta agerpenari bakarrik dagokio; animaliaren ideiak bakarrik du egiazko izatea eta ezagutza errealtaren objektu da». – Horrela mintzatuko litzateke Platon. Kantek honelako zerbait lioke: «Animalia hau denbora, espazioa eta kausalitateko agerpen bat da, zeinak guztiak gure ezagutza-fakultatean dautzan, esperientziaren ahalatasunaren a priori baldintzak baitira, ez berbaitango gauzaren determinazioak. Horregatik da animalia hau, guk denbora determinatu honetan, toki jakin honetan, esperientziarekiko loturan, kausen eta efektuen katean bilakaturiko eta era berean derrigor iragankorra den banako hautematen dugun bezalakoa, ez da berbaitango gauza, baizik gure ezagutzarekiko harremanean bakarrik baliozko agerpen bat. Bere baitan zer izan daitekeen jakiteko, ondorioz denboran, espazioan eta kausalitatean dautzan determinazio guztietatik independenteki ezagutzeko, sentsuzkotatasunaren eta adimenaren bitartez bakarrik ahalgarri zaigun ezagutza-eraz bestelako bat beharko litzateke.»

Kanten adierazpena platonikora oraindik hurbilagotzeko, hau ere esan liteke: denbora, espazioa eta kausalitatea gure endelguaren eraikuntzak direla, zeinen indarrez edozein motatako izaki benetan existitzen den bakarra, amaigabeko suzesioan beti berriro, sortzen eta iraungitzen diren mota berekoen izaki-aniztasun bat bezala aurkezten baitzaigu. Aipaturiko eraikuntzaren bitartez eta arauz gauzak kontzebitzea inmanentea da; aitzitik, horrekin dituen baldintzapenaz kontziente dena transzendentala da. Hori arrazoimen hutsaren kritikaren bitartez bakarrik atzematen da in abstracto: baina salbuespenez begiesgarriki ere gerta daiteke. Azken hori nire gehikuntza da, oraingo hirugarren liburu honen bitartez argitzen saiatuko naizena.

Bere garaian Kanten doktrina ulertu izan balitz, Kanten garaitik Platon benetan ulertu eta atzeman izan balitz, bi maisu handien doktrinen barneko zentzua eta edukia zintzo eta serio hausnartu izan balitz, bataren adierazpen artifizialetan lanpetu eta bestearen estiloa parodiatu beharrean; ezingo zatekeen huts egin, aspaldi aurkituko zatekeen zenbaiteraino bat datozen bi era handiak eta esangura

hutsa, bi doktrinen jopuntua guztiz bat bera dela. Gero Platon etengabe Leibnizekin, zeinengan haren espirituak ez baitu egonlekurik edo oraindik bizi den jaun1 ezagun batekin ere ez zatekeen konparatuko, iseka egin nahi izan balitz bezala aurreko garaietako pentsalari handiaren maneen lepotik; baizik oro har iritsi denera baino askozaz aurrerago iritsiko ginatekeen, edo bestela, ez genukeen hain lotsagarriro atzera egingo, azken berrogei urteotan egin denez: ez genukeen utziko gaur hitzontzi honek, bihar beste hark gidatzen eta Alemanian hain esanguratsua iragartzen zen 19. mendea ez zatekeen bufoikeria filosofikoz irekiko, zeina Kanten hilobiaren gainean egin baita (antzinakoek batzuetan beretarren hiletetan bezala), beste nazioen iseka bidezkoen pean, zeren horrelakorik inori baino gutxiago aleman serio eta batzuetan tentetuei baitagokie. Baina hain da txikia benetako filosofoen publikoa, non ulertzen duten ikasleak berak urri baizik ez baitizkiete ekartzen mendeek. - (GRIEGO)2. (Thyrsigeri quidem multi, Bacchi vero pauci.)[Askok erabiltzen dute tirsoa, gutxi izaten dira ordea bakanteak.] Platon, 69 C; (GRIEGO) (Eam ob rem philosophia in infamiam incidit, quod non pro dignitate ipsam attingunt: neque enim ab spuriiis, sed a legitimis erat attrectanda.) [Horregatik erori da filosofia mesprezioan, ez dutelako dagokion bezala tratatu; zeren ez benetakoak ez direnek, baizik benetako filosofoek tratatu behar baitute bera.] Platon['Res publica» 7, 535 C].

Hitzen atzetik ibiliz: eta abar. - galdetu izan da Platonen ideiak, zeinek lehen kontzeptuak izan behar baitute, baita egiaz badiren gauzen begiespen baten oroitzapenak ere, bat ote ziren Kanten begiespenaren eta pentsatzearen formekin, zeinak a priori baitautza gure kontzientzian: bi doktrina guztiz heterogeneo horiek, formen kantiarrena, zeinak banakoaren ezagutza agerpenera mugatzen baitu, eta ideien platonikoa, zeinen ezagutzak forma haiek espreski ukatzen baititu - hein horretan diametralki kontrajarritako doktrina horiek, nahiz eta beren adierazpenetan antz pixka bat izan, arretaz konparatu ziren deliberatu, eta beren berdintasunaz eztabaida egin zen, eta azkenik ez zirela gauza bera aurkitu zen eta ondorioztatu zen Platonen ideien doktrina eta Kanten arrazoimenaren kritika ez zetozela bat inondik ere3. Baina aski bedi horretaz.

§ 32

Orain arteko gure kontsiderazioetatik garbi geratzen zaigu Kanten eta Platonen arteko barneko bat-etortze guztia eta biek bilatzen zuten helburuarena, edo biak filosofatzera zirikatu eta gidatu zituen mundu-ikuskeraren identitatea gora-behera, hala ere ideia eta berbaitango gauza ez direla gauza bat eta bera: baizik guretzat ideia berbaitango gauzaren objektitate bitartegabe, eta horregatik egokia besterik ez da, zeina bera baita nahimena, nahimena oraindik objektibatu ez den, oraindik errepresentazio bihurtu ez den neurrian. Zeren berbaitango gauzak, Kanten arabera hain zuzen, aske egon behar baitu ezagutzeari horrelakoa den heinean datxezkion formatatik: eta Kanten hutsegite bat besterik ez da (Eranskinean erakutsiko denez) forma horien artean beste guztien aurretik ez aipatzea, zeren hori baita agerpen ororen, errepresentazio ororen forma lehen eta orokorrena; horregatik hark berbaitango gauzari espreski ukatu beharko ziokeen objektu izatea, zeinak goiz aurkituriko inkonsekuentzia handi hartan erortzetik gordeko baitzukeen. Ideia platonikoa, aitzitik, objektua da derrigor, zerbait ezaguna, errepresentazio bat, eta hain zuzen ere horregatik, eta horregatik bakarrik berbaitango gauzaz bestelakoa. Agerpenaren forma subordinatuak, arrazoiaren printzipioaren azpian

atzematen ditugunak soilik baztertu ditu, edo hobeki esateko: oraindik ez da horietan sartu; baina forma lehen eta orokorrera gorde egin du, oro har errepresentazioarena, subjektuarentzat objektu izatearena. Horri subordinaturiko formak (zeinen adierazpen orokorra arrazoiaren printzipioa baita) dira ideia biderkatzen dutenak banako bakoitz eta iragankorretan, zeinen kopurua, ideiarekiko erlazioan erabat axolagabea baita. Arrazoiaren printzipioa da, beraz, ideia moldatzeko forma, banako gisa subjektuaren ezagutzan erortzen den heinean. Gauza partikularra, arrazoiaren printzipioaren arabera agertzen dena, berbaitango gauzaren (zeina nahimena baita) objektibazio bitartedun bat besterik ez da, zeinaren eta nahimenaren artean baitago ideia, nahimenaren objektitate bitartegabe bakar gisa, zeinek beste forma propiorik ez baitu hartu ezagutzarako, horretarako den heinean errepresentazioarena baizik oro har, subjektu batentzat objektu izatearena. Horregatik bera bakarrik da nahimenaren edo berbaitango gauzaren objektitate ahalik eta egokiena, berbaitango gauza osoa ere bada, errepresentazio formapean soilik: eta horretan datza Platonen eta Kanten bat-etortze handiaren arrazoia, nahiz eta, zorroztasun handienaren arabera, biek hitz egiten dutena gauza bera ez izan. Baina gauza partikularrak ez dira nahimenaren objektitate guztiz egokia, baizik hori lausotu egiten baitute hemen forma haiek, zeinen adierazpen komuna arrazoiaren printzipioa baita, zeina ordean ezagutzaren baldintza baita, hori banakoari horrelako den heinean ahalgarri zaionez. - Izatez, zilegi bazaigu ezinezko suposizio batetik abiatzea, ez ditugu gauza partikularrak ezta gertaerak, ez aldaketak, ez aniztasuna ezagutzen, baizik ideiak soilik, nahimen bakar, egiazko berbaitango gauza horren objektibazioaren mailaketa atzematen dugula, ezagutza huts lausotugabea, eta ondorioz gure mundua nunc stans bat izango litzateke; baldin eta gu ezagutzaren subjektu gisa aldi berean banakoak ere ez bagina, gure begiespena gorputz batez bitartekotua ez balego, zeinaren afekzioetatik abiatzen baita, eta zeina nahi izate konkretua, nahimenaren objektitate, horrela objektuen arteko objektu baita eta horrelakoa den heinean, kontzientzia ezagutzailean agertzen denean, hori arrazoiaren printzipioaren formatan bakarrik gerta daiteke, ondorioz denbora eta printzipio horrek adierazten dituen beste forma guztiak jadanik suposatu eta horren bitartez sartzen ditu. Denbora izaki indibidualak ideiez daukan ikuste banatu eta zatikatua soilik da, zeinak denboraz kanpo, horrela betikoak baitira: horregatik dio Platonek denbora betieraren imajina mugitua dela: (GRIEGO)4.

§ 33

Nola guk banako gisa, arrazoiaren printzipioaren mendean dagoena beste ezagutzarik ez dugun, eta forma horrek ideien ezagutza baztertu egiten duen; horrela ziurra da, ahalgarri denean, gauza partikularren ezagutzatik ideien era igotzen garela, eta hori aldaketa bat subjektuan gertatzen denean bakarrik gerta daitekeela, zeina objektuaren modu osoaren aldaketa handi hari dagokiona eta analogoa baita eta, zeinaren indarrez subjektuak ideia bat berrezagutzen duenean, jadanik ez baita banako.

Aurreko liburutik gogoan izan behar dugu ezagutzea oro har nahimenaren objektibazioari bere maila gorenetan dagokiola eta sentikortasuna, nerbioak, garuna izaki organikoaren beste atalak bezala, nahimenaren adierazpen direla bere objektitatearen maila horretan, eta horregatik berorren bitartez sortzen den errepresentazioa bere zerbitzura determinaturik dagoela bere helburu orain konplikatuak (GRIEGO) lortzeko bitarteko (GRIEGO) gisa, era askotako premiak dituen

izaki baten kontserbaziorako. Jatorriz eta bere esentziaren arabera erabat nahimenaren zerbitzuan dago ezagutza, eta objektu bitartegabea, kausalitatearen legearen erabileraren bitartez haren abiapuntu bihurtzen den bezala, nahimen objektibatu besterik ez baita, horrela arrazoiaren printzipioaren arabera dabilen ezagutza harreman hurbil edo urrunagoko batean dago nahimenarekiko. Zeren banakoak bere soina objektuen arteko objektu gisa aurkitzen baitu, zeinekiko guztiekiko askotariko harreman eta jarrerak baititu arrazoiaren printzipioaren arabera, zeinen kontsiderazioak horrela beti bide hurbil edo urrunagoko batetik bere soinera, horrela bere nahimenara itzularazten baitu. Izan ere, arrazoiaren printzipioa baita objektuak soinarekiko harreman horretan eta horren bitartez nahimenarekikoan ezartzen duena; horrela horri zerbitzatzzen dion ezagutzak ere bakarrik ahalegindu beharko du objektuetatik arrazoiaren printzipioaren bitartez ezarritako loturak ezagutzen, horien askotariko harremanak espazioan, denboran eta kausalitatean aztertzen. Zeren horren bitartez bakarrik baita objektua banakoarentzat interesgarri, nahimenarekiko harremana duena. Horregatik nahimenari zerbitzatzzen dion ezagutzak objektuetatik horien harremanak besterik ez du ezagutzen, objektuak ezagutzen ditu soilik denbora honetan, toki honetan, zirkunstantzia hauetan, kausa hauetatik, efektu hauekin existitzen diren heinean, hitz batean, gauza partikular gisa: eta harreman horiek guztiak ezabatuz gero, objektuak ere desagertu egingo lirateke, zeren

ez

bailitzateke besterik ezer horietan berrezagutuko. - Ez genuke ere ahaztu behar, zientziak gauzetan kontsideratzen duena, esentzian horixe besterik ez dela, beren harremanak, aldaketa naturalen denbora, espazio eta kausalitatearen harremanak, taxuen konparaketa, gertakarien motiboak, beraz, harreman hutsak. Zientzia ezagutza arruntetik bereizten duena bere forma soila da, sistematikotasuna, partikular guztiaren bildumaren bitartez ezagutza erraztea, kontzeptuak orokorrean eta horren bitartez lortutako osotasunean subordinatzearen bidez. Harreman orok izate erlatiboa baizik ez du: adibidez, denborako izate oro aldi berean ez izate ere bada; zeren denbora baita gauza berari determinazio kontrajarriak egozten dizkiona: horregatik denborako agerpen oro aldi berean ez izate da; zeren horren hasiera eta horren amaiera bereizten dituen, denbora baizik ez da, esentzian zerbait iragankorra, sendotasunik gabea eta erlatiboa, hemen iraupen deritzona. Denbora da objektu guztien forma orokorrena, nahimenaren zerbitzuan dagoen ezagutzarena eta gainerako forma horien prototipoa.

Oro har ezagutza nahimenaren zerbitzu horren mendean gelditzen da, zerbitzu horretarako sortua bezala, zeren nahimenari ernea baita burua enborrari bezala. Animalengan ezagutzaren zerbitzaritasun hori nahimenaren azpian ez dago ezabatzerik. Gizakiarengan ezabatze hori salbuespen gisa bakarrik gertatzen da, berehala hurbilagotik kontsideratuko dugunez. Gizakia eta animalia arteko desberdintasun hori erabat adierazirik dago buruak enborrarekiko duen harremanaren desberdintasunaren bitartez. Beheko animalien artean biak bat eginik daude: guztiengan burua lurrera zuzendurik dago, nahimenaren objektuak dauden tokira: goikoengan ere burua eta enborra batago dira gizakiarengan baino, zeinaren burua gorputzari libreki ezarria agertzen baita, berak eramana soilik, ez berari zerbitzatzen. Giza espeziearen pribilegio hori Belvedereko Apolok aurkezten du maila gorenean: ingurura begiratzen duen musen jainkoaren burua hain dago aske sorbalden gainean, non gorputzetik erabat jaregina, harekiko arduraren pean jada ez egonez ageri baita.

§ 34

Gauza partikularren ezagutza arruntetik ideietarako igarobidea, esan denez, ahalgarria baina salbuespen gisa kontsideratu behar dena, bat-batean gertatzen da, ezagutza nahimenaren zerbitzutik libratu, aldi berean subjektuak indibidual soila izateari uzten dionean, eta orain ezagutzaren subjektu huts nahimengabe denean, zeinak jadanik ez baitu arrazoiaren printzipioaren arabera harremanak argitzea bilatzen; baizik eskaintzen zaion objektuaren kontenplazio finkoan baitatza, beste edozeinekiko loturatik kanpo eta horretan desegiten da.

Horrek, argi geratzeko, eztabaida bat osoa behar du derrigor, horren arrotasuna oraingoz ahaztuz, harik eta idazki honetan adierazteko pentsamendu osoaren laburbildumaren ondoren hori berez desagertu arte.

Baldin eta, espirituaren indarrak jasorik, gauzak kontsideratzeko ohiko modua alde batera lagata, uzten badio elkarrekiko beren harremanak bilatzeari, zeinen azken helmuga beti nahimen propioarekiko harremana baita, arrazoiaren printzipioaren taxueren gidaritzapean, eta gauzen non, noiz, zergatik eta zertarakoa gehiago kontsideratzen ez badu: baizik zer bakar eta soila; eta pentsamendu abstraktuaz, arrazoimenaren kontzeptuez, kontzientziaz arduratzen ez bada; baizik horren guztiaren orde zere espirituaren ahalmen osoa begiespenari eskaintzen badio, erabat

horretan murgildu eta kontzientzia osoa betetzen bada, presenteko objektu naturalaren kontenplazio lasaiaren bitartez, paisaje bat, zuhaitz bat, harkaitz bat, eraikin bat edo beste edozer dela, alemanezko esamolde esanahitsu baten arabera, objektu horretan erabat galtzen bada, bere banakoa, bere nahimena ahaztu eta subjektu huts gisa, objektuaren ispilu klaru bihurtzen bada, halako molde, non gauzakia bakarrik existituko balitz bezala, hautematen duen inor gabe, eta begieslea begiespenetik berezi ezin bada, baizik biak bat bilakatzen badira, kontzientzia osoa imajina begiesgarri bakar batez beterik badago; horrela objektua bere baitatik kanpoko harreman orotatik, subjektua nahimenarekiko harreman orotatik bereizi denean: orduan ezagututakoa ez da gauza partikularra bere horretan; baizik ideia da, forma betikoa, nahimenaren objektitate bitartegabea maila horretan: eta horrexegatik beragatik ez da banakoa begiespen horretan ulertua; zeren banakoa begiespen horretan galdu egin baita: baizik ezagutzaren subjektu huts, nahimengabe, mingabe, denboragabea da. Orain berez hain txundigarria den hori (zeren oso ongi baitakit Thomas Paine gandik datorren aforismoa: berresten duela) ondorengoaren arabera gero eta argiago eta arrotasun gutxiagoko bihurtuko da. Hori berori susmatu zuen Spinozak honako hau idatzi zuenean: (5, 31. prop. 31, schol.)⁵ Kontenplazio horretan, kolpe batez gauza partikularra bere espeziearen ideia bihurtzen da eta banako begieslea ezagutzaren subjektu huts. Banakoak horrelakoa den heinean gauza partikularrak bakarrik, ezagutzaren subjektu hutsak ideiak bakarrik ezagutzen ditu. Zeren banakoa ezagutzaren subjektua baita nahimenaren agerpen partikular determinatu batekiko bere harremanean eta horren zerbitzuan dago. Nahimen-agerpen partikular hori horrelakoa den heinean, bere taxuera guztietan, arrazoiaren printzipioaren mendean dago: beraz, horrekin berorrekin harremanetan jartzen den ezagutza oro arrazoiaren printzipioari jarraitzen zaio, eta nahimenaren onurarako ere horrek bakarrik balio du eta ez bestek, zeinak harremanak baititu objektutzat. Banako ezagutzailea horrelakoa den heinean eta berak ezaguturiko gauza partikularra beti nonbait, noizbait eta kausen eta efektuen katean maila izaten dira. Ezagutzaren subjektu hutsa eta bere korrelatua, ideia, arrazoiaren printzipioaren forma haietatik guztietatik kanpora irten dira: denborak, tokiak, ezagutzen duen banakoak eta ezagutua den banakoak, ez dute haietaz inolako zentzurik. Deskribaturiko eran banako ezagutzaile batek bere burua ezagutzaren subjektu hutsetara eta horrela kontsideraturiko objektua ideia izatera jasotzen duenean, mundua errepresentazio gisa agertzen da osoki eta garbi eta nahimenaren objektibazio perfektua gertatzen da, zeren ideia bakarrik baita objektitate egokia. Horrek biltzen ditu bere baitan objektua eta subjektua era berean, zeren horiek baitira bere forma bakar; horretan hartzen baitute biek erabateko oreka: eta nola objektua hemen subjektuaren errepresentazio besterik ez den, subjektua ere gauzaki begietsian erabat galtzean gauzaki hori berori bihurtzen da, kontzientzia osoa bera horren imajinarik argiena baizik ez den neurrian. Kontzientzia horrek, bertatik ideia guztiak edo nahimenaren objektitate-maila guztiak iragaten direla pentsatzen bada, mundu osoa errepresentazio gisa eratzen du propioki. Denbora eta espazio guztietako gauza partikularrak arrazoiaren printzipioaren bitartez (banakoen ezagutzaren forma horrelakoa den heinean) biderkaturiko eta horregatik bere objektitate hutsean alteraturiko ideiak baizik ez dira. Ideia agertzen den bitartean, hartan subjektua eta objektua desberdintzen ez direnez gero, zeren elkar perfektuki betez eta elkarren baitara sartuz bakarrik sortzen baita ideia, nahimenaren objektitate egokia, mundua errepresentazio gisa propioki; horrelaxe banako ezagutzailea eta ezagutua ez dira desberdintzen berbaitango gauza gisa. Zeren alde batera uzten badugu erabat mundua errepresentazio gisa, mundua nahimen gisa besterik ez zaigu geratzen. Nahimena da ideiarene bere-baitangoa, horrek perfektuki objektibatzen

duena; halaber gauza partikularraren bere-baitangoa ere bada, eta hori ezagutzen duen banakoarena, zeinak inperfektuki objektibatzen baitute. Errepresentazio eta bere forma guztietatik kanpoko nahimen gisa bat eta bera da objektu kontenplatuan eta banakoan, zeinak kontenplazio horretan altxatuz bere buruaz subjektu huts gisa hartzen baitu kontzientzia: horregatik bi horiek beren baitan ez dira desberdintzen; zeren bere baitan nahimena, hemen bere burua berrezagutzen duena, eta eran eta moduan soilik, berorri ezagutza hori gertatzen zaion gisan, agerpenean bakarrik, bere formaren, arrazoiaren printzipioaren indarrez, existitzen dira aniztasuna eta desberdintasuna. Era berean ni objekturik gabe, errepresentaziorik gabe subjektu ezagutzaile ez naizen bezala, baizik nahimen itsu soila; horrela ni gabe, ezagutzearen subjektu gisa, gauza ezagutua ez da objektu, baizik nahimen soil, bulkada itsu. Nahimen hori bere baitan, errepresentazioaz kanpo, nirearekin bat eta bera: errepresentazio gisako munduan bakarrik, zeinaren forma beti gutxienez subjektu eta objektu baita, ezagutu eta banako ezagutzaile gisa banatzen baikara elkarrekiko. Ezagutzea, mundua errepresentazio gisa ezabatzen denean, nahimen soila, bulkada itsua besterik ez da geratzen. Horrek objektitatea hartzeak, errepresentazio bihurtzeak, kolpe batean, subjektua eta objektua ezartzen ditu: baina objektitate hori nahimenaren objektitate huts, perfektu, egokia izateak objektua ideia gisa ezartzen du, arrazoiaren printzipioaren formatatik aske, eta subjektua ezagutzaren subjektu huts gisa, indibidualitatetik eta nahimenarekiko zerbitzaritzaatik libre.

Esandako eran naturaren begiespenean hain urruneraino sakondu eta galdu dena, subjektu ezagutzaile huts gisa existitzen dena, bitartegabe ohartuko da, horrelakoa den heinean munduaren eta existentzia objektibo guztiaren baldintza, horrela euskarri dela, zeren hori aurrerantzean berearekiko dependente dena bezala aurkezten baita. Horrela bere baitara erakarriko du natura, bere esentziaren akzidente gisa bakarrik sentitzeraino. Zentzu horretan dio Byronek:

Are not mountains, waves and skies, a part
Of me and of my soul, as I of them?⁶

[3, 75]

Baina hori sentitzen duenak nola eduki dezake bere burua erabat iragankortzat natura ez-iragankorrekiko oposizioan? Aitzitik Vedako Upanishadak adierazten duenaren kontzientzia atzemango du: (Oupnekhat» 1, 22).⁷

§ 35

Munduaren esentziaren ikuspegi sakonago bat izateko ezinbestean beharrezko da nahimena berbaitango gauza eta bere objektitate egokia desberdintzen ikastea, eta gero maila desberdinak, zeinetan hori argi eta perfektuago agertzen baita, ideiak berak eta ideien agerpen soila arrazoiaren printzipioaren taxueretan, zeina baita banakoen ezagutze-era interesatua. Orduan Platonekin bat etorriko gara, zeren berak ideiei bakarrik egozten baitzien benetako izatea, aitzitik espazio eta denborako gauzei, banakoarentzat erreala den mundu horri, existentzia itxurazko eta ametsezkoa bakarrik aitortzen zion. Orduan ulertuko dugu ideia bat eta bera hainbeste agerpenetan nola biderkatzen den eta banako ezagutzaileei bere esentzia zatika bakarrik, alde baten ondoren bestea eskaintzen dien. Orduan desberdinduko da ideia bera, haren agerpena, banakoaren behaketapean erortzen den era eta modutik, hura esentzial gisa eta azken hori ez-esentzial gisa ezagutuko da. Hori adibide txiki eta

handien bitartez kontsideratu nahi dugu.

- Hodeiak higitzen direnean, eratzen dituzten irudiak ez zaizkie esentzial, haientzat axolagabe dira: baina lurrin elastiko gisa, haizearen talkak elkarren kontra zanpatu, bultzatu, hedatu eta urratzen dituenean; hori beren izaera dute, beraietan objektibatzen den indarren esentzia da, ideia da: figura haiek behatzaile indibidualarentzat bakarrik existitzen dira. - Errekarentzat, harrien gainetik beherantz doanarentzat, ikusarazten dituen zurrumbiloak, uhinak, bitsezko figurak, axolagabe eta funtsgabeak dira: pisutasunari jarraitzea, jariakin ez-elastiko, erabat higikor, formagabe, garden gisa portatzea; hori da bere esentzia, hori da, begiesgarriki ezagutzen bada, ideia: figura haiek guretzat bakarrik, banako gisa ezagutzen dugun heinean, existitzen dira. - Leiho-beirako izotza kristalizazio-legeen arabera gatzatzen da, zeinak jartzen baitu agirian hemen agertzen den natur indarraren esentzia, ideia aurkezten baitu; baina eratzen dituen zuhaitzak eta loreak funtsgabeak dira eta guretzat bakarrik existitzen dira. - Hodei, erreka eta kristalean agertzen dena, nahimen haren oihartzun ahulena da, landareetan perfektuago, animaliengan oraindik perfektuago, eta gizakiarengan perfektuki azaltzen dena. Baina bere objektibazioaren maila haien guztien esentziak eratzen du ideia: aitzitik, horren destolestapena, zeina arrazoiaren printzipioaren taxueretan hedatzen baita agerpen askotariko eta aldeanitzetan; hori ideiarri ez-esentzial zaio, banakoaren ezagutze-eran dago soilik eta horrentzat bakarrik du errealitatea. Berdin balio du orain derrigor ideia haien destolestapenari buruz, zein baita nahimenaren objektitaterik perfektuena: ondorioz gizakiaren historia, gertakarien metaketa, aldien aldaketa giza bizitzaren forma eranitzak herrialde eta mende desberdinetan - hori guztia ideiarenean agerpenaren forma kontingentea besterik ez da, eta ez dagokio horri, zeinean baitago nahimenaren objektitate egokia soilik, baizik agerpenari bakarrik, banakoaren ezagutzan erortzen denari, eta ideiarri berari hain arrotz, ez-esentzial eta axolagabe zaiona hodeiei aurkezten dituzten figurak bezala, errekarri bere zurrumbiloen eta bitsezko figuren taxua, izotzari bere zuhaitzak eta loreak bezala.

Hori ongi ulertu duenarentzat, eta nahimena eta ideia, eta hori eta bere agerpena desberdintzen dakienarentzat, munduko gertaerek badute zentzua, baina haietatik gizakien ideia irakurtzeko letrak diren heinean, ez ordea beren baitan eta berentzat. Ez du jende arruntarekin denborak errealki zerbait berria eta esanguratsua sortzen duenik sinetsiko, ez beraren bitartez edo bere baitan zerbait erreala existentziara etortzen denik, edota osotasun batek bezala hasiera eta amaiera, egitasmoa eta garapena dituenik, eta azken xedetzat hogeita hamar urte bizi den azken belaunaldiaren perfekziorik gorena (beren kontzeptuen arabera). Horregatik Homerorekin ez luke jainkoz beteriko Olinpo oso bat ezarriko denbora-gertaera horiek guztiak gobernatzeko, ezta Ossianekin hodeien figurak izaki indibidualtzat hartu ere, zeren, esan denez, biek hartan agertzen den ideiarekiko harremanean zentzu handia baitute. Giza bizitzaren askotariko taxuetan eta gertaeren aldaketa taigabea, ideia bakarrik kontsideratuko du dirauena eta esentziala gisa, zeinean bizitzeko nahimenak bere objektitaterik perfektuena baitauka, eta zeinek bere alde desberdinak gaitasun, grina, errore eta giza espeziearen pribilegioetan, norberakeria, gorrotoa, maitasuna, beldurra, zuhurtzia, arinkeria, kamustasuna, maltzuratasuna, grazia, genioa eta abarretan erakusten baititu, zeinak guztiak mila eratako taxutan (banakotan) konbinatuz eta gatzatuz historia handia eta txikia etengabe burutzen baitituzte, zeren axolagabea baita mugimenduan jartzen dena intxaurrak ala koroak diren. Azkenean munduan Gozziren drametan bezala gertatzen

dela aurkituko da, zeinetan beti pertsonaia berak agertzen baitira, asmo berarekin eta zori berarekin antzezturik: motiboak eta gertaerak bakoitzean desberdinak izaten dira; baina gertaeren espiritua beti bera da: antzerki bateko pertsonaiek ez dakite ezer besteetako prozesuez, zeinetan berek antzeztu baitzuten: horregatik, aurreko antzerkietako esperientzia guztien, Pantalone ez da bihurtzen zaluago edo eskuzabalago, Tartaglia ez jatorrago, Brighella ez kementsuago eta Kolonbina ez bertutetsuago. -

Demagun zilegi zaigula begirada argi bat ematea ahalatasunaren erreinuari eta kausa eta efektuen katea guztiei, eta lurraren espirituak agertu eta banako bikainenak, munduko argitu eta heroiak koadro batean erakusten dizkigula, zeinen eraginkortasuna ausak garaia baino lehen suntsitu baitu - gero gertaera handiak, munduaren historia aldatu eta kultura eta argiztapen goreneko aroak sortuko zituzketenak, baldin eta adur itsuenak, zori zentzugabeenak beren sorreran eragotzi izan ez balituzte, azkenik, banako handien indar bikainak, zeinek mende osoan ernalduko zituzketenak, zeinak ordea, erroreak edo grinak desbideraturik edo beharrezkotasunak derrigorturik, duintasunik eta fruiturik gabeko objektuetan alferrik galdu edo jolasean xahutu zituztenak - hori guztia ikusiko bagenu, ikaratu egingo ginateke eta aldi osoetan galdutako altxorrak deitoratuko genituzke. Baina lurraren espirituak barre egin eta esango liguke: «Iturria, banakoak eta horien indarrak darizkiona agortezina da eta denbora eta espazioa bezala amaigabea: zeren horiek, agerpenen forma hauek bezala, agerpen, nahimenaren ikuskortasun besterik ez baitira. Iturri amaigabe hori ezin du ezein neurri amaikorrek agortu; horregatik ernamuinean iratoriko gertaerak, edo obra orok, amaigabetasun murriztugabea du zabalik berriz itzultzeko. Agerpenaren mundu horretan hain ezinezkoa da nola egiazko galera hala egiazko irabazia. Nahimena bakarrik existitzen da: bera, berbaitango gauza, bera, agerpen horien guztien iturria. Bere buruaren ezagutza eta horretan erabakitzen den baieztapena edo ukapena da gertaera bakarra bere baitan.»-8

§ 36

Historia gertaeren hariari jarraitzen zaio: pragmatikoa da, horiek motibazioaren legeen arabera deduzitzen dituen heinean, eta lege horrek, agertzen den nahimena, ezagutzak argiturik dagoen tokian determinatzen du. Bere objektitatearen maila beherenetan, ezagutzarik gabe eragiten duen tokian natur zientziak bere agerpenen aldaketen legeak aitiologia gisa kontsideratzen ditu eta haietan dagoen iraunkorra morfologia gisa, zeinak ia amaigabea den gaia kontzeptuen laguntzaz errazten baitu, orokorra atzemanez, hortik partikularra ateratzeko. Azkenik forma soilak, zeinetan subjektuaren ezagutzarako banako gisa, ideiak aniztasun bihurturik agertzen baitira, horrela denbora eta espazio matematikak kontsideratzen ditu. Horiek guztiek, zeinen izen komuna zientzia baita, arrazoiaren printzipioari erantzuten diote bere taxuera desberdinetan, eta horien gaia agerpena da, horren legeak, lotura eta horretatik sortzen diren harremanak. - Zer ezagutza-motak kontsideratzen du harreman orotatik kanpoan dagoen eta independentea den, munduan benetan esentziala den, bere agerpenen egiazko edukia, ezein aldaketaren mendean ez dagoena eta horregatik betiko egia berarekin ezaguna dena, hitz batean, ideiak, zeinak berbaitango gauzaren, nahimenaren objektitate bitartegabe eta egokia baitira? Artea da, genioaren obra. - Kontenplazio hutsaren bitartez atzemandako ideia betikoak errepikatzen ditu, munduko agerpen guztien esentziala eta iraunkorra, eta errepikatzen den gaiaren arabera arte plastikoa, poesia edo musika da. Bere jatorri

bakarra ideien ezagutza da; bere xede bakarra ezagutza horren komunikazioa. - Zientziak, lau eratan taxuturiko arrazoiaren eta ondorioen korronte atsedetik eta iraupenik gabeari jarraituz, lortutako xede bakoitzean beti berriro agertzen den eta azken xede batek inoiz erabateko bere asetzea aurkitu ezin duen bezala, lasterka egitearen bitartez ere ez da inoiz hodeiek horizontea ukitzen duten gunea lortzen; artea, aldiz, beti bere xedean dago. Zeren bere kontenplazioko objektua munduko joairaren korrontetik atera egiten du eta bakarturik dauka bere aurrean: eta partikular hori, korronte horretan atal txiki galkor bat zena, osoaren ordezkari bihurtzen da, espazio eta denborako amaigabe anitzen baliokide: horregatik partikular horretan gelditzen da: denboraren gurpila gelditu egiten da; harremanak desagertu egiten zaizkio: esentziala, ideia du bere objektu. - Horregatik izenda dezakegu hain zuzen ere gauzen kontsiderazio-era independentea, arrazoiaren printzipioarekiko, esperientzia eta zientziaren bidea den horri jarraitzen zaion kontsiderazioarekiko oposizioan. Azken kontsiderazio-mota hori amaigabeki luzatzen den lerro horizontal batekin konpara daiteke; lehena, berriz, edozein puntutan hori ebakitzen duen perpendikular batekin. Arrazoiaren printzipioari darraikion kontsiderazio-mota razionala da, bizitza praktikoa eta zientzian bakarrik baliozko eta lagungarri dena: printzipio horren edukitik alderatzen dena kontsiderazio-mota geniala da, artean bakarrik baliozko eta lagungarri dena. Lehena Aristotelesen kontsiderazio-mota da; bigarrena osotasunean Platonena. Lehenak ekaitz indartsua dirudi, hasiera eta amaiera gabe alde batetik bestera dabilena, dena makurtu, higitu, berekin arrastaka daramana; bigarrena eguzki-errainu lasaiaren antzekoa, ekaitzari bidea ebakitzen diona, hark batere mugitu gabe. Lehena urjauziaren ezin zenbatu ahal, indarrez mugituriko tantaren antzekoa da, zeinek beti aldatuz, aldiune batean ere atsedetik ez baitute hartzen, bigarrena zirimola sumindu horren gainean lasai datzan ostarkua. - Objektuan erabat sartzen den goian deskribaturiko kontenplazio hutsaren bitartez bakarrik atzematen dira ideiak, eta genioaren esentzia kontenplazio horretarako gaitasun gailenean datza: zeren horrek norbere pertsona eta bere harremanak erabat ahaztea eskatzen baitu; horrela genialitatea objektibitate perfektuena besterik ez da, espirituaren norabide objektiboa, subjektiboari, norbere pertsonarengana, nahimenera doanari kontrajarria. Horren arabera genialitatea gaitasuna da, begieste hutsean jokatzekoa, begiespenean galtzekoa eta ezagutza, jatorriz nahimenaren zerbitzuan bakarrik existitzen dena, horren zerbitzutik kentzekoa, bere interesak, bere nahi izatea, bere xedeak erabat begietatik galtzea, baita bere pertsonalitatea ere denbora batean erabat abandonatzeko, subjektu ezagutzaile huts bezala, mundu-begi klaru gisa gelditzeko: eta hori ez aldiune batean; baizik behar besteko iraupen eta gogoetarekin atzemandakoa arte hausnartuaren bitartez errepikatu eta [Goethe, I, 348 eta hh. bertsolerroak]. - Badirudi genioa banako batean agertzeko, horrelakoari ezagumenaren neurri bat egotzi behar zaiola, zeinak nahimen indibidual baten zerbitzurako behar dena nabarmen gaingitzen baitu; eta ezagutzaren aske egindako gainezkako hori orain subjektu nahimengabe, munduaren esentziaren ispilu garbi bihurtzen baita. - Horretatik esplikatzen da ezinegoneraino iristen den bizikortasuna banako genialengan, zeinak presenteak nekez asebetetzen baititu, horien kontzientzia betetzen ez duelako: horrek ematen die atsedetik gabeko joera hori, kontsideraziorako duinak eta berriak diren objektuen etengabeko bilaketa hura eta joran hura, ia inoiz asetzen ez dena, beren antzeko izakiak, berak baino handiagoak, haiekin komunikatu ahal izateko; aldiz, ohiko lurkumea, ohiko presenteak erabat betea eta ase, hartan ibiltzen da eta gero, bere gisakoak edonon aurkituz, bere gozamina, genioari ukatzen zaiona, eguneroko bizimoduan du. - Genialitatearen atal esentzialtzat berrezagutu izan da fantasia, eta batzuetan horrekin identikotzat

ere jo izan da: lehena arrazoiz; bigarrena arrazoirik gabe. Genioaren objektuak, horrelakoarenak diren heinean, ideia betikoak, munduaren eta haren agerpen guztien forma esentzial iraunkorrak direlarik, ideiarene ezagutza ordea derrigor begiesgarria, ez abstraktua delarik; horrela genioaren ezagutza mugaturik legoke bere pertsonak errealki aurrean dituen eta horretara gidatzen duten zirkunstantzien kateakuntzarekiko dependenteak diren objektuen ideietara, baldin eta fantasiak ez balio bere esperientzia pertsonalaren errealtateaz gaineratik horizontea hedatuko eta bere apertzepzio errealerara etorri den gutxiaz gainerako guztia eraikitzeke egoeran jarritz, eta horrela ia bizi-irudi ahalgarri guztiak bere aurretik pasaraziz. Gainera objektu errealak horietan aurkezten diren ideiarene oso ale akasduak izaten dira ia beti: horregatik genioak fantasia behar du, gauzetan naturak errealki eratu duena ez ikusteko, baizik eta eratzen ahalegindu dena, baina aurreko liburuan aipatutako beren formek elkarren artean duten borrokarengatik eratu ez dena. Gai horretara eskultura kontsideratzean berriro aurrerago itzuliko gara. Fantasiak horrela hedatu egiten du genioaren ikuste-zirkulua errealtatean bere pertsonari aurkezten zaizkion objektuen gaineratik nola kualitatez hala kantitatez. Horregatik fantasiaren indar ez-ohiko bat genialitatearen laguntzaile, eta are baldintza da. Baina alderantziz hura ez da honetatik sortzen; aitzitik, gizaki guztiz ez-genialek fantasia handia izan dezakete. Zeren objektu erreala bat bi era kontrajarritan kontsidera daitekeen bezala: era objektibo, genial hutsean, horren ideia atzemanetz; edo era arruntean, arrazoiaren printzipioaren arabera harremanetan soilik beste objektuekiko eta bere nahimen propioarekiko; horrela fantasma bat ere bi eratara kontsidera daiteke: lehen moduan kontsideraturik, ideiarene ezagutzarako bitarteko bat da, zeinaren komunikazioa baita arte-obra: bigarren kasuan fantasma, aireko gazteluak eraikitzeke erabiltzen da, norbere jorana eta apeta asetzen dutenak, une batean liluratu eta seduzitzeko; horrenbestez horrela loturiko fantasmei buruz benetan horien harremanak besterik ez dira ezagutzen. Joko horietan aritzen dena fantastiko bat da: berak lakot dituen irudiak aise nahastuko ditu errealtatean, eta horregatik horretarako ezgai bilakatuko da bera: agian bere fantasiaren kapritxoak idatziko ditu, zeinak aurkitzen baitira mota guztietako eleberrietan, bera bezalakoak eta publiko zabala olgarazten dutenetan, zeren irakurleek heroiaren lekuan amets egin eta gero aurkezpenera oso aurkitzen baitute.

Gizaki arrunta, naturako manufaktura hori, egunero milaka sortzen dituenak bezalakoa, jadanik esan denez, ez da gai zentzu guztietan erabat kontsiderazio desinteresatu bat egiteko, zeina benetako kontenplazioa baita, gutxienez ez inola ere era jarraituan: bere nahimenarekin harremanen bat duten neurrian bakarrik, hori oso bitarteduna bakarrik bada ere, zuzen diezaieke gauzei bere aditasuna. Zeren ikuspegi horretatik, zeinak beti harremanen ezagutza eskatzen baitu, gauzaren kontzeptu abstraktua aski izaten baita eta gehienetan baliagarriago ere bai; horrela gizaki arruntak ez dirau luzaroan begiespen soilean, horregatik ez du bere begirada luzaroan gauzaki batean finkatzen; baizik aurkezten zaion guztian bizkor bilatzen du kontzeptua, zeinaren azpian ezartzen baita, nagia aulkia bilatzen duen bezala, eta gero ez zaio beste ezer interesatzen. Horregatik bukatzen du hain bizkor edozerekikoa, arte-obrekikoa, naturako gauzaki ederrekikoa eta benetan nonahi bizitzaren ikusmira esanguratsuekikoa, bere eszena guztietan. Baina bera ez da pausatzen: bizitzan bere bidea bilatzea baizik ez du egiten, eta edozein kasutan, nolabait bere bidea izan litekeena, beraz xehetasun topografikoak zentzurik zabalenean: bizitzaren kontsiderazioan horrelakoa den heinean berak ez du denborarik galtzen. Genialak, berriz, zeinaren ezagumena bere gainpisiuaren bitartez nahimenaren

zerbitzutik, denbora aldi bateko, aldendu egin baitaiteke, pausatu egiten da bizitzaren beraren kontsiderazioan, ahalegindu egiten da gauza bakoitzaren ideia atzematen, ez beste gauzekiko horren harremanak: horregatik sarritan bertan behera uzten du bizitzako bere bidearen kontsiderazioa, eta horregatik gehienetan aski baldar ibiltzen da halakoa. Gizaki arruntarentzat bere ezagutza-gaitasuna bidea argitzen dion linterna den bitartean, genialarentzat mundua agirian jartzen dion eguzkia da. Bizitza begiztatzeko bi era hain desberdin horiek, bien itxuran ere laster nabarmentzen dira. Gizakiaren begiradak, zeinean genioak bizi eta eragiten baitu, erraz markatzen du hura, izan ere bizi eta finko aldi berean, begiztagarritasunaren, kontenplazioaren karakterra baitarama bere baitan; buru genial gutxien erretratueta ikus daitekeenez, zeinak naturak ezin zenbatu ahal milioiren artean noizbehinka sortu baititu: aitzitik, besteen begiradan, gehienena bezala axolagabe eta adierazpengabea ez bada, kontenplazioaren egiazko oposizioa nabarmentzen da: zelatatzea. Horren ondorioz buru baten ezagutzaren gainpisu deliberatua nahi izatearen gainetik hartan nabarmentzean datza, ondorioz nahi izate batekiko inolako harremanik gabeko ezagutze bat, ezagutze huts bat hartan adieraztean. Aitzitik, normalean izaten diren buruetan, nahi izatearen adierazpena nagusi izaten da, eta ezagutzea beti nahi izatearen eraginez bakarrik sartzen dela ekintzan ikusten da, horrela motiboetara soilik dagoela zuzendurik.

Nola ezagutza geniala edo ideiarene ezagutza arrazoiaren printzipioari jarraitzen ez zaiona den, aitzitik, horri jarraitzen zaionak, bizitzan zuhurtzia eta arrazoizkotasuna eman eta zientziak sorrarazten dituen; horrela norbanako genialek azken ezagutza hori bertan behera uzteak ekartzen duen gabezia izaten dute. Hala ere, mugatze bat egin beharra dago hemen: ikuspegi horretatik esaten dudan guztiak bakarrik duela zerikusia horiekin, ezagutze-era genialean atzemanak dauden heinean eta bitartean, eta hori ez da izaten bere bizitzako aldiune bakoitzeko kasua, zeren tentsio handi nahiz eta espontaneoak, zeina behar baita ideiak nahimenetik aske atzemateko, derrigor uzten baita, eta tartegune handiak izaten ditu, zeinetan genioa gizaki arruntaren abantaila eta gabezien nahikoa parean egoten baita. Horregatik aspaldidanik genioaren eragitea inspiraziotzat hartu izan da, izenak berak adierazten duenez, norbanakoarengandik desberdina den eta aldika bakarrik jabetzan hartzen duen gizakiaz gaundiko izaki baten eragitetzat. Norbanako genialek arrazoiaren printzipioaren edukira aditasuna zuzentzeari dioten aiherra, izatearen arrazoiarekiko ikuspegiaren agertzen da lehenik, matematikekiko aiherra bezala, zeinen agerpenaren, espazio eta denboraren, forma orokorrenetik kontsiderazio gisa, arrazoiaren printzipioaren taxuerak besterik ez baitira; horregatik horien kontsiderazioaren erabat kontrakoak dira, agerpenaren edukia soilik, zeinean adierazten den ideia bilatzen baitu, harreman oro kontuan izan gabe. Gainera matematikaren trataera logikoa genioari kontra jarriko zaio, zeren horrek, ikuspegi propioa itxiz, ez baitu asetzen, baizik ezagutza-arrazoiaren arabera silogismoren kateakuntza bat eskainiz, espirituaren indar guztietatik oroimenarena hartzen baitu kontuan nagusiki, oinarritzat hartzen diren aurreko printzipio guztiak presente edukitzeko. Esperientziak baieztatu du arteko genio handienek ez dutela matematikarako inolako gaitasunik: sekula ez da izan gizaki bat bietan oso gailena. Alfierik kontatzen du sekula ezin izan zuela Euklidesen laugarren teorema bera ere ulertu. Goetheri ezagutza matematikoen falta behin eta berriz egotzi zioten bere ren aurkari arrazoigabeek: noski hemen, datu hipotetikoen arabera kalkulu eta neurketak ez, baizik kausen eta efektuen adimen-ulerkuntza bitartegabea axola zen tokian, ahakar hori erabat bitxi eta toki desegokian zegoen, eta horiek horren bitartez ez

ezik gainerako Midasen erako beren sententzien bitartez ere beren juzgamenaren erabateko gabezia agirian jartzen baitute. Gaur oraindik, Goetheren irten eta ia mende-erdi bat geroago Alemanian bertan Newtonen asmakeriek deuseztu gabe katedren jabe irautea eta oraindik zazpi argi homogeneous seriooki eta horien errefrangibilitate desberdinaz hitz egiten jarraitzea -gizadiaren karakter-ezaugarri intelektual handien artean oro har, eta alemangoarenaren artean bereziki ezartzekoak dira. - Lehenago emandako arrazoi berberak azaltzen du era berean ezaguna den gertakaria, alderantziz matematikari gailenek ere arte ederraren obretarako sentikortasun gutxi dutela, zeina xalotasun bereziz adierazten baita matematikari⁹ frantses haren anekdota ezagunean, zeinek Racineren irakurri ondoren, sorbaldak uzurtuz galdetu baitzuen: . - Nola gainera kausalitatearen eta motibazioaren legearen arabera harremanak zorrotz atzemateak zuhurtzia propioki eratzen duen, eta ezagutza geniala harremanetara zuzendurik ez dagoelarik; zuhur bat, horrelakoa den heinean eta bitartean, ez da geniala izango eta geniala, horrelakoa den heinean eta bitartean, ez da zuhurra izango. - Azkenik oro har ezagutza begiesgarria, zeinaren eremuan baitago erabat ideia, arrazoiaren printzipioaren ezagutzak gidatzen duen razional edo abstraktuari erabat kontrajarria dago. Beraz, oso kasu bakanetan aurkitzen da genialitate handia razionaltasun gailenari loturik, alderantziz norbanako genialak sarritan afektu bizi eta grina arrazoigabeen mendean egoten dira. Horren arrazoiak ez da arrazoimenaren ahulezia, baizik, alde batetik, nahimen-agerpen osoaren energia ez-ohikoa, zeina norbanako geniala baita eta nahimen-egintza guztien bizikortasunaren bitartez kanporatzen baita, bestetik, ezagutza abstraktuaren gainetik begiesgarriaren gainpisua sentsuen eta adimenaren bitartez, begiesgarriarako, beraz, joera deliberatua, zeinen baitan inpresio energiko gorenak kontzeptu koloreak hainbestearaino azpiratzen baititu, non azken horien ordeztu lehen hark gidatzen baitu haren egintza, horregatik berregatik arrazoigabe bihurtuz: horren arabera presenteak horren gain duen eragina oso ahaltsua da, gogoeta ez egitera, afekzioa, grinara gidatzen du. Horregatik eta oro har, bere ezagutza parte batean nahimenaren zerbitzutik baztertu delako, horiek ez dute elkarriketan hainbeste pertsonarengana pentsatzen, baizik hitz egiten ari diren gaian, zeinek suharki menderatzen baititu: horregatik bere interesen objektiboegi epaitzea edo berri ematea, isilik edukitzea zuhurrago litzatekena ez isiltzea eta abar. Horregatik azkenik bakarrikzketarako joera izaten dute eta oro har ahulezia ugari erakuts ditzakete, eromenera errealki hurbiltzen direnak. Genialitateak eta eromenak alde bat izatea bata bestea mugatzen duena, are batzuetan bata bestearen gainetik iragatea, maiz ohartu eta inspirazio poetikoa eromen mota bat izendatu ere egin izan da: deitzen dio Horaziok (3, 4) eta Wielandek en sarreran. Aristotelesek berak Senekaren sarreraren arabera (15, 16) esan bide zuen: . Platonek adierazten du lehenago aipaturiko haitzulo ilunaren mitoan zehar (7), eta esaten du: haitzulotik kanpo egiazko eguzki-argia eta errealki badiren gauzak (ideiak) begietsi dituztenek gero ezin dutela haitzulokan ikusi, haien begiak iluntasunera ezohiturik daudelako, han beheko itzal-irudiak ezin dituztela berrezagutu eta horregatik beren hutsegiteetan besteen, haitzulotik eta itzal-irudi horietatik inoiz irten ez direnen isekagai bihurtzen direla. n ere esaten du (317. or.) nolabaiteko eromenik gabe ez dagoela benetako poetarik (327. or.), eta gauza iragankorretan ideia betikoak berrezagutzen dituen ero modura agertzen dela. Zizeronek aipatzen du: (1, 37). Eta azkenik badio Popek¹⁰:

Great wits to madness sure are near allied,
And thin partitions do their bounds divide.¹¹

Bereziki irakasgarria da zentzu horretan Goetheren , zeinean ez bakarrik nekaldia, genioaren funtsezko martiritza bere horretan, baizik eromenerako igarobide iraunkorra jartzen baitigu begien aurrean. Azkenik genialitatea eta eromenaren artean ukipen bitartegabea dagoelakoa, alde batetik, gizaki genialen biografien bitartez, adibidez, Rousseau, Byron, Alfierirenaren bitartez, eta beste batzuen bizitzatik ateratako anekdoten bitartez berretsi egin da; bestetik neronek ere esan beharra daukat, eroetxeetara egindako neure bisita ugarietan, dohain nabarmenki handiko subjektu batzuk aurkitu ditudala, zeinen genialitatea eromenean zehar nabarmentzen baitzen, nahiz eta hemen azken hori erabat nagusitu zitzaien. Hori ez dago ausari egozterik, zeren alde batetik eroen kopurua erlatiboki oso txikia baita, bestalde, ordea, norbanako genial bat ohiko kalkulu guztiak baino bakanagoa eta salbuespen handiena bezala bakarrik gertatzen den agerpena da; horretaz konbentzitu ahal izango gara errealki genio handiak zenbatzen baditugu, Europa landu guztiak garai zahar eta berrietan sortu dituenak, gizadiarentzat balio iraunkor bat garai guztietan zehar izan duten obrak eman dituztenak - eta diot nik, banaka horiek zenbatu eta kopuru hori 250 milioiekin konparatzen bada, European hogeita hamar urte oro, etengabe berrituz bizi diren horiekin. Ez dut aipatu gabe utzi nahi, gailentasun intelektual nabarmeneko pertsona batzuk ezagutu ditudala, nahiz eta esanguratsuak ez izan, zeintzuei aldi berean zorotasun-kutsu arin bat nabari baitzitzaien. Horretatik balirudike, ohiko neurritik endelguaren igotze orok anormaltasun bat den heinean eromenerako prestatzen duela. Baina neure iritzia eman nahi dut ahalik eta laburren genialitatea eta eromenaren arteko ahaidetasun horren arrazoi intelektual hutsari buruz, zeren azterketa horrek genialitatearen, benetako arte-obrak bakarrik sortzen dituen espirituaren gaitasun horren esentzia propioa azaltzen lagunduko baitu. Baina horretarako beharrezkoa da eromenaren beraren azterketa labur bat.¹²

Nik dakidanez oraindik ez da aurkitu eromenaren esentziaren azalpen klaru eta osorik, eroak eta osasuntsuak bereizten dituen horren kontzeptu zuzen eta argirik. - Eroei ez dago arrazoimena eta adimena ukatzerik: zeren hitz egin eta hauteman egiten baitute, sarritan ondorio oso zuzenak ateratzen baitituzte; normalean presentea oso zuzen begiesten dute eta kausen eta efektuen arteko lotura ulertu egiten dute. Ikuspenak, sukarretako eldarnioak, ez dira eromenaren ohiko sintomak: eldarnioak faltsutu egiten du begiespena, eromenak pentsamenduak. Gehienetan eroak ez dira erratzen presente bitartegabearen ezagutzan; baizik eta beren hizketa erratuak absenteari eta iraganari buruzkoak izaten dira beti eta horren bitartez bakarrik presentearekiko loturazkoak. Horregatik iruditzen zait niri horien gaixotasunak batez ere oroimenarekin duela zerikusia; ez noski, erabat falta zaielako: askok baitakizkitez hainbat gauza buruz eta aspaldian ikusi gabeko pertsonak ere batzuetan berrezagutzen dituzte; baizik oroimenaren haria eten, horren lotura iraunkorra ezabatu eta iraganaren oroitzapen koherente samarrik ahalgarri ez delako. Iraganeko eszena bakartu batzuk zuzen ageri dira, baita presente bakartu batzuk ere; baina iraganekoa gogoratzean, gero fikzioez betetzen dituztenak hutsuneak daude, edo beti berak, ideia finko bihurtzen direnak: eromen finko, melankolia; edo aldian-aldian bestelakoak direnak, bat-bateko burutazioak: orduan zorakeria, fatuitas deitzen zaio. Horregatik izaten da hain zaila ero bati eroetxera sartzean bere aurreko bizimoduaz galdetzea. Etengabe nahasten ditu bere oroimenean egiazkoa eta faltsua. Nahiz eta presente bitartegabea zuzen berrezagutu, iragan irudikatu batekiko lotura fikziozkoaren bitartez faltsutu egiten du: horregatik bere burua eta beste batzuk identikotzat hartzen dituzte beren fikziozko iraganean bakarrik dauden pertsonekin, ezagun asko

ez dituzte berrezagutzen eta horrela presenteko partikularren errepresentazio zuzenean harreman faltsu nabariak ezartzen dituzte absentearekiko. Eromenak maila garai bat lortzen badu, erabateko oroimen-gabezia sortzen da, horregatik orduan eroak ez du inolako gaitasunik izaten absente edo iraganekoa den ezerekiko interesa erakusteko, baizik aldiuneko aldartearen bitartez bakarrik determinatzen da, buruan iragana betetzen dioten fikzioei loturik: orduan, etengabe indarraren mendean edukitzen ez badira, une batez ere ez daude portaera txarrak edo erailketa burutzetik ziurtatuak. - Eroen ezagutzak hauxe du komunean animalienarekin, biak presentera mugaturik egotea; baina honek bereizten ditu biak: animaliak ez du propioki iraganaren inolako errepresentaziorik horrelakoa den heinean, nahiz eta horrek ohituraren bitartez animaliaaren gain eragiten duen, horregatik, adibidez txakurrak garai bateko bere nagusia urteak iragan eta gero ere berrezagutu egiten du, hori ikustetik ohiko inpresioa hartzen du; baina ordudanik iragandako denboraz ez du oroitzapenik: eroak, berriz, bere arrazoimenean beti in abstracto iragan bat darama, baina faltsua, beretzat bakarrik existitzen dena, eta hori beti edo une batean bakarrik: iragan faltsu horren eraginak zuzen ezaguturiko presentearen erabilera bera ere eragotzi egiten du; hori zuzen egiten du animaliak. Sofrimendu espiritual handiek, ustekabeko gertaera lazkarriek sarritan eromena eragiten dutela azalduko dut ondoren. Horrelako edozein sofrimendu gertaera erreal gisa beti presentera mugatua da, horrela iragankorra eta neurri horretan ez beti gogorregia: ezin menderatuzko handitasunean, min iraunkorra den neurrian agertzen da: baina horrelakoa den heinean berriro pentsamendu bat da eta horregatik oroimenean datza: horrelako atsekabe bat, horrelako jakite edo oroitzapen mingarri bat hain tormentagarria bihurtzen denean, non ezin jasanezkoa gertatzen baita eta norbanakoa horren azpian geldituko bailitzateke - horrela beldurturiko naturak eromenera jotzen du bizitzaren azken salbabidera bezala: horrela atsekabeturiko espirituak bere oroimeneko haria eten, hutsuneak fikzioz bete eta horrela ihes egiten du bere indarrak gaingiditzen dituen min espiritualetik eromenera - soinatal gangrenatu bat kendu eta zurezko batez ordeztzen den bezala. - Adibidetzat Ajax sumindua, Lear Erregea eta Ofelia kontsideratzen dira: zeren benetako genioaren sorkariak, zeinetara jo baitaiteke hemen orokorki ezagunak direlako bakarrik, egiazki pertsona errealean parean jartzekoak baitira: gainerakoan sarritan erreala den esperientziak gauza bera erakusten digu hemen. Minetik eromenera iragate mota horren pareko ahul bat da denoi sarritan bat-batean bururatzen zaigun oroitzapen mingarri bat, nolabaiteko adierazpen ozen edo mugimenduren baten bitartez nola mekanikoki baztertzen saiatzen garen, hartatik aldentzen, indarrez geure burua barreiatzen. -

Aditzera emandako eran eroa presente partikularra, baita askotan iragan partikularrak ere zuzen berrezagutzen ikusten dugun bezala, baina lotura, harremanak kontuan ez hartzen eta horregatik errakuntza eta delirioan erortzen; horrelakoa da berak banako genialarekin duen ukipen-gunea ere: zeren honek ere harremanen ezagutza, zeina arrazoiaren printzipioaren araberakoa baita, bertan behera uzten duenean, gauzetan bere ideiak ikusi eta bilatzeko, horiek begiesgarriki adierazten duten benetako esentzia atzemateko, zeinekiko ikuspegitik gauza bakarrak bere espezie guztia ordeztzen baitu eta horregatik, Goethek dioenez, kasu batek milaren balioa baitu¹³ - genialak ere galdu egiten du begietatik gauzen loturaren ezagutza: begiesten duen objektu partikularra edo berak atzemandako presente bizikorregia hain argi klarutan agertzen dira, non nolabait esateko kateako gainerako mailak, zeinari baitagozkio, horrela ilunpetara egiten baitute atzera, eta horrek eromenekoekin aspaldidanik ezaguturiko antzekotasunak dituzten fenomenoak sortzen ditu. Gauza existente partikularrean ez-perfektuki eta modifikazioaren bitartez ahuldurik

dagoena, genioaren kontsideratzeko erak horren ideia perfekziora jasotzen du: horregatik edonon muturrak ikusten ditu, eta horrexegatik hain zuzen bere egintza ere muturretara eramaten du: ez daki neurri zuzena bilatzen, neurrizkotasuna falta zaio eta emaitza esandako hori da. Perfektuki ezagutzen ditu ideiak, baina ez norbanakoak. Horregatik, jadanik oharrarazi denez, poeta batek gizakia sakon eta barrenetik ezagut dezake, baina gizakiak oso gaizki; erraz sartzen zaio ziria eta jostailu da maltzurren eskuetan.¹⁴

§ 37

Nahiz eta gure aurkezpenaren ondorioz genioa arrazoiaren printzipiotik independenteki eta horregatik gauza partikularren orde, zeinek beren existentzia harremanean soilik baitute, horien ideiak ezagutzeko gaitasunean dagoen, eta horien aurrez aurre baita ideiarenekoerlatua bera izateko ere, horrela ez banakoa baizik ezagutzaren subjektu huts izatekoa; horrela hala ere, gaitasun horrek neurri txikiagoan eta desberdinean gizaki guztiengan egon behar du; zeren bestela hain ezgaiak izango bailirateke arte-obrez gozatzeko, nola haiek sortzeko, eta oro har ederra eta bikaina denerako ez lukete inolako sentikortasunik izango, are gehiago, hitz horiek ez lukete berentzat inolako zentzurik izango. Horregatik onartu beharra daukagu gizaki guztiengan, baldin eta norbait ez bada gozamen estetikorako erabat gaitasunik gabea, gauzetan ideiak berrezagutu eta horrenbestez bere nortasunaz une batez gabetzeko ahalmen hori existitzen dela. Genioaren abantaila askozaz maila garai eta iraupen sustengatuagoko ezagutza-era izatea da, zeinak ematen baitio beharrezko hausnarketa egiteko aukera, ezagututakoa hautazko obra batean errepikatzen; errepikapen hori da arte-obra. Horren bitartez komunikatzen die besteei kontzebituriko ideia. Ideiak beti bera eta aldaezin dirau: horregatik plazer estetikoa esentzian beti bat eta bera da, arte-obra baten bitartez edo bitartegabe natura edo bizitzaren begiespenez eragin daiteke. Arte-obra ezagutza hori errazteko bitarteko bat besterik ez da, zeinean plazer hori baitago. Ideia arte-obratik natura bitartegabetik eta errealtatetik baino guri errazago agertzea artistak, ideia bakarra ezagutu duenak, eta ez errealtatea, bere obran ideia bakarra soilik errepikatu izatetik, hura errealtatetik bereizi izatetik dator, kontingentzia nahastaile guztiak alde batera utzirik. Artistak bere begien bitartez munduari begirarazten digu. Esentziala dena, gauzen harreman orotatik kanpo dagoena berrezagutzen duen begia izatea da genioaren dohaina, jaiotzatikoa; dohain hori inori emateko, guri bere begiak uzteko gai izatea: hori da lortua, artearen teknika. Horregatik orain artekoan ezagutze-mota estetikoaren barneko esentzia bere oinarri-lerro orokorrenetan aurkeztu ondoren, orain aldi berean naturan eta artean bietan ederra eta sublimea denaren honako kontsiderazio filosofiko zehatzago hau egingo dut. Ederrak sublimea hunkitzean zer gertatzen zaion gizakiari aztertuko dugu lehenik: emozio hori bitartegabe naturatik, bizitzatik ateratzen duen ala artearen bitartekaritzaz hartan esku hartzen duen, ez da desberdintasun esentziala, kanpoko baizik.

§ 38

Kontsiderazio-era estetikoan bi osagai bereiztezin aurkitu ditugu: objektuaren ezagutza, ez gauza partikular gisa, baizik ideia platoniko gisa, gauzen espezie oso horren forma iraunkor gisa; gero ezagutzailearen autokontzientzia, ez norbanako

gisa, baizik ezagutzaren subjektu huts, nahimengabe gisa. Baldintza, zeinaren azpian bi osagaiak beti elkarturik sartzen baitira, arrazoiaren printzipioari loturiko ezagutza-era abandonatzea zen, zeina aitzitik nahimenaren zerbitzurako bakarrik baita baliagarri, zientziarenerako bezala. - Ederra kontsideratzearen bitartez eragiten den plazerra, bi osagai horietatik sortzen ikusten dugu, behin batetik gehiago, bestean bestetik gehiago, kontenplazio estetikoaren objektuaren arabera.

Nahi izate oro premiatik, beraz gabeziatik, beraz sufrimendutik, sortzen da. Asetzeak bukaera ezartzen dio horri; baina asetzen den desira baten aurrean, gutxienez hamar gelditzen dira ukaturik: gainera, irrikak luze irauten du, eskakizunak amaigabeak izaten dira; asetzea laburra eta urria izaten da. Batzuetan behin betiko asetzea itxurazkoa bakarrik izaten da: desira beteak berehala egiten dio lekua beste bati; hura errore ezaguna da, hau oraindik ezezaguna. Nahi izatearen ezein objektu lortuk ezin du asetze iraunkor, aldaezinik eman: baizik eskaleari botatzen zaion limosnaren antza du, gaur bizia luzarazten dio, bere tormentuari bihar arte luzarazteko. - Horregatik, bada, nahimenak kontzientzia betetzen digun bitartean, desiren oldarrean beren betiko itxaropen eta beldurrekin murgiltzen garen bitartean, nahi izatearen subjektu garen bitartean, sekula ez dugu zorion eta lasaitasun iraunkorrik izango. Jazarka ala ihesean gabiltzala, ezbeharraren beldur ala gozamenaren atzetik gabiltzala, funtsean berdin dio: beti eskatzen ari den nahimenak sorturiko kezkak, edozein taxutan dela ere, kontzientzia bete eta etengabe higitzen du; lasaitasunik gabe, ordea, erabat ezinezkoa da egiazko ongizatea. Horrela nahi izatearen subjektua Ixionen gurpil birakarian dago beti, Danaiden bahean beti ura ateratzen ari da, beti iraungitzen ari den Tantalos da.

Baina kanpoko eragingarri batek edo barneko aldarte batek nahi izatearen korrante amaigabetik bat-batean ateratzen gaituenean, nahimenaren morrontzapetik ezagutza jaregiten duenean, aditasuna nahi izatearen motibora ez, baizik gauzak nahimenarekiko beren harremanetik aske kontzebitzen dituenean, horrela interesik gabe, subjektibitate gabe, objektibitate hutsean, haietara osoki emana, errepresentazio soil diren heinean, ez motibo: orduan nahi izatearen lehen bide hartatik beti bilaturiko, baina beti ihes egiten zuen lasaitasuna behingoz berez agertzen da, eta erabat egokia gertatzen zaigu. Hori egoera mingabea da, Epikurok ongi goren eta jainkoen egoeratzat goesten zuena: zeren une horretan geure burua aske ikusten baitugu nahimenaren oldar ziztrinetik, nahi izatearen lan bortxatuetatik jai hartzen dugu, Ixionen gurpila gelditu egiten da.

Egoera hori idearen ezagutzarako beharrekotzat goian deskribatu dudana da, kontenplazio huts, begiespenean desegite, objektuan galtze, indibidualitate oro ahazte, arrazoiaren printzipioari jarraitzen zaion eta harremanak bakarrik atzematen dituen ezagutza-eraren gainditze gisa, zeinean aldi berean eta bereiztezinki begietsiriko gauza partikularra bere espeziearen ideara, banako ezagutzailea ezagutza nahimengabearen subjektu huts izatera igotzen baita eta horrela biak horrelakoak diren heinean ez baitira aurrerantzean denboraren eta beste harreman guztien korrontean gelditzen. Orduan berdin dio nondik ikusten den eguzkia sartzen, ziegatik ala jauregitik.

Barneko aldarteak, nahi izatearekiko ezagutzak duen gainpisuak eragin dezake egoera hori edozein zirkunstantzian. Hori erakusten digute herbeheretar bikain haiek, zeinek begiespen objektibo huts hori gauzakirik esanahigabekoenetara zuzentzen baitzuten eta haien objektibitatearen eta espirituaren baretasunaren oroigarri iraunkor bat ezartzen baitzuten beren bodegoietan, zeinak behatzaile estetikoak ez baititu hunkipenik gabe begiesten, zeren artistaren aldarte-egoera

lasai, patxadazko, nahimenetik jaregina jartzen baitiote aurrean, horrelako gauza esanguragabeak horrela objektiboki begiesteko, hain arretatsu begiztatu eta begiespen hori hain kontu handiarekin errepikatzeko: eta irudiak halako egoeran esku hartzera gonbidatzen gaituen bitartean, bere emozioa sarritan oraindik gehitu egiten da nahi izate bizikorraren bitartez asaldaturiko gure barne-egoera patxadagabearekiko oposizioz, zeinean aurkitzen baikara une hartan. Espiritu horrekin berorrekin, paisajistek, Ruisdaelek bereziki, pintatu izan dituzte ia batere esangurarik gabeko paisaje-objektuak eta horren bitartez efektu hori bera oraindik atseginago burutu dute.

Hori gogamen artistiko baten barneko indarrez bakarrik lortzen da: baina barnealdarte objektibo huts hori objektu kontrajarrien bitartez, beren begiespenera gonbidatzen gaituztenen bitartez, natura ederraren betetasun deigarriaren bitartez erraztu eta eragiten da. Naturak, bat-batean gure begiradari irekitzen zaion bakoitzean, gu, aldiune bakar batean bada ere, subjektibitatez, nahimenaren morrontzapetik jaregitea eta ezagutza hutseko egoerara pasaraztea lortzen du. Horregatik grinak edo premiak edo kezkak tormentaturik dagoena naturari egindako begirada aske bakar batez supituki bizkortu, alaitu eta eraiki egiten da: grinaren ekaitza, desiraren bulkada eta nahi izatearen beldurra eta tormentu oro bat-batean modu miresgarri batean baretu egiten dira. Zeren, nahi izatetik jareginik, nahimengabeko ezagutza hutsean murgiltzen garen une berean, nolabait esateko beste mundu batean sartu gara, zeinean jadanik ez baitago gure nahimena higitzen duen eta horregatik gu hain biziki astintzen gaituen hori guztia. Ezagutzatik jaregiteak loa eta ametsa bezalako guztitik erabat ateratzen gaitu: zoriona eta zorigaitza desagertu egiten dira; gu ez gara jadanik banakoa, hori ahaztu egiten da, baizik ezagutzaren subjektu hutsa: munduaren begi bakar bat bezala gaude hor, zeinatik izaki ezagutzaile orok begiratzen baitu, gizakiarengan bakarrik, baina nahimenaren zerbitzutik erabat aske izan daitekeena, zeinaren bitartez indibidualitatearen desberdintasun oro hain osoki desberdintzen baita, non ez baitio axolarik begi soegilea errege ahaltsu batena ala eskale errukarri batena den. Zeren ez zorionak eta ez ezbeharrak ez baitute muga hori gainditzen. Oso hurbil daukagu beti eremu bat, zeinean geure ezbehar guztietatik erabat libratzen baikara; baina nork dauka horretan luzaroan irauteko indarra? Horrela begietsiriko objektu batekiko harremanen bat gure nahimenari, gure pertsonari kontzientzian sartzen zaion orduko, xarma bukatu egiten da: arrazoiaren printzipioa nagusi duen ezagutzara itzultzen gara, ez dugu jadanik ideia berrezagutzen, gauza partikularra baizik, geuk osatzen dugun katea baten maila, eta berriro geure ezbehar guztietan murgiltzen gara. - Gizakirik gehienak, objektibitateaz, genialitateaz erabat gabeturik daudelako, ia beti puntu horretan egoten dira. Horregatik ez dira sentitzen oso pozik naturarekin bakarrik: gizartea behar dute, liburu bat gutxienez. Zeren beren ezagutza nahimenaren zerbitzuan baitago: horregatik gauzakietan nahimenarekiko nolabaiteko harremana bilatzen dute, eta horrelako harremanik ez duen edozertan, haien barruak, oinarribaxu baten gisara iraunkor, pozkariogabea entzunarazten du: ingurunerik ederrenak ere itxura mortu, ilun, arrotz, etsaikorra hartzen du horrelakoentzat.

Nahimengabeko begieste horren dohatsutasun hori da, azkenik, iraganeko eta urruneko gauzen gainera xarma miresgarria hedatzen duena ere eta horiek hain argi edertzailearen pean aurkezten dizkiguna, geure buruaren begitazio batez. Zeren aspaldi iragandako egunak, urruneko toki batean bizi izandakoa presente bihurtzen dugunean, objektuak bakarrik ekarrarazten ditu gure fantasiak, ez nahimenaren subjektua, zeinak orduan bere sofrimendu sendaezinak berekin baitzituen oraintxe

bezala: baina horiek ahazturik daude, zeren horiek beste batzuei harrezkero jadanik sarritan leku egin baitiete. Orain begiespen objektiboak oroitzapenean, presentekoak eragingo lukeenez eragiten du, baldin eta geure buruari nahimengabe hartan murgiltzen utziko bagenio. Horregatik gertatzen da, bereziki, premiaren batek ohi baino gehiago larritzen bagaitu, iraganeko eta urruneko eszenen bat-bateko oroitzapena paradisu galdu bat bezala gudan aurretik hegaz pasatzea. Fantasiak objektibokiari bakarrik deitzen dio atzera, ez indibidual-subjektiboari eta objektiboki hura bere irudia fantasian bezain garbia dugu orain, nahimenarekiko ezein harremanek nahastu gabe gure aurrean egon zela garai batean imajinatzen dugu orain bere irudia fantasian bezala: ordea objektuen gure nahimenarekiko harremanak oinazea eragiten zigun orduan orain bezala. Objektu presenteen bitartez urrunduen bitartez bezalaxe sofrimendu orotatik libra gaitezke, baldin eta horien kontsiderazio objektibo hutsera igotzeko eta objektu horiek bakarrik direla presentekoak eta ez gu geu ilusioa sortzeko gai baldin bagara: orduan lortuko dugu, geure ni sufritzailetik gabeturik, ezagutzaren subjektu huts gisa objektu haiekin erabat bat izatea, eta gure premia horrela arrotz zaien bezala, horrelaxe arrotz zaizkigu une horretan guri geuri ere. Mundua errepresentazio gisa bakarrik geratzen da, eta mundua nahimen gisa desagertu egiten da.

Kontsiderazio horien guztien bitartez nahi dut argi eta garbi utzi nolako motakoa den eta zeinen partaidetza handia duen plazer estetikoan baldintza subjektiboak, nahimenaren zerbitzutik ezagutza askatzeak, nor bere burua banako gisa ahaztu eta ezagutzaren subjektu huts, nahimengabe, denboragabe, harreman guztiekiko independentera kontzientzia jasotzeak. Kontenplazio estetikoaren alde subjektibo horrekin beharrezko korrelatu gisa beti horren alde objektiboa agertzen da, ideia platonikoaren kontzepzio begiesgarria. Baina horren kontsiderazio hurbilagokoan eta artezko obrek horrekiko duten harremanarenean sartu aurretik, oraindik pixka batean plazer estetikoaren alde subjektiboan gelditzea komenigarria da, horren kontsiderazioa osatzeko sublimearen inpresioaren azalpenarekin, zeina harekiko erabat independentea baita eta hartatik modifikazio baten bitartez sortzen baita. Horrela plazer estetikoaren gure ikerketak bere alde objektiboaren kontsiderazioarekin bere betetasun osoa lortuko du.

Baina orain artekoari honako ohar hauek egin behar zaizkio. Argia da gauzarik pozgarriena: ona eta osasungarri guztiaren sinbolo bihurtu da. Erlijio guztietan salbamen betikoa adierazten du, eta ilunpeak, kondenezioa. Ormuzd argirik garbienean bizi da, Ahriman gau betikoan. Danteren Paradisuan Londresko Vauxhallen bezalako zerbait gertatzen da: arima dohatsu guztiak argi-puntu gisa agertzen dira, figura erregularrak eratuz. Argiaren absentziak bitartegabe tristetzen gaitu; hura itzultzeak poztu egiten gaitu: koloreek gozamen bizi bat kitzikatzen dute, zeinak maila gorena lortzen baitu gardenak direnean. Hori guztia argia ezagutza-era begiesgarri perfektuenaren korrelatu eta baldintza izatetik dator, zeina nahimena bitartegabe afektatzen ez duen bakarra baita. Zeren ikuspena ez baita beste sentsuen afekzioa bezala, bitartegabea eta bere efektu sentigarriaren bitartez sentsazio atsegin edo desatsegin bat organoan eragiteko gai, ez du lotura bitartegaberik nahimenarekin: baizik adimenean sortutako begiespenak izan dezake horrelakorik, zeina gero objektuaren nahimenarekiko harremanean baitago. Entzupenean gauzak bestela dira: tonuek min bitartegabea eragin dezakete eta bitartegabeki, sentsualki harmonia eta melodiarekiko harremanik gabe, atseginak izan daitezke. Ukipena, soin osoaren sentsazioarekin bat egiten dena eragin bitartegabe horren bidez, nahimenaren

mendean dago: hala ere, badago oraindik ukitze mingabe edo atsegingabea. Baina usainak beti atseginak edo desatseginak izaten dira: zaporeak gehiago oraindik. Azkeneko bi zentzumen horiek dira nahimenarekin kutsatuenak: horregatik dira nobletasun gutxienekoak eta Kantek zentzumen subjektibo deituak. Argiarengatiko poza, izatez, ezagutza-era begiesgarri perfektu eta garbienaren ahaltasun objektiboarengatiko poza baizik ez da eta horrelakoa den heinean, ezagutze huts, nahi izate orotatik askaturiko eta gabetua guztiz pozgarria dela ondoratzen da horretatik, eta horrelakoa den heinean parte handia hartzen du gozamen estetikoan.- Argiarekiko sentiera horretatik uretan islatutako objektuei aitortzen diegun edertasun harrigarriro handia ondoratzen da. Gorputzen bata bestearekiko inpresio arin, bizkor, finen hori da, zeinari gure hautemapen askogatik, perfektu eta garbiena ere zor diogun: atzera jaurtitako argi-izpien bitartezko inpresioa; hori hemen guztiz argi, gainbegiragarri eta osoki ageri da kausan eta efektuan, eta nabarmen gainerabegien aurrean ezarria: hortik dator gure poz estetiko, zeina funtsean plazer estetikoaren oinarri subjektiboan errotzen baita eta ezagutze hutsa eta bere bideei buruzko poza baizik ez baita¹⁵.

§ 39

Kontsiderazio horiekin guztiekin, zeinek plazer estetikoaren alde subjektiboa jarri behar baitute agerian, horrela plazer hori, zeina ezagutza begiesgarri soilarengatiko poza baita eta horrelakoa den heinean nahimenarekiko oposizioan baitago - horrekin bitartegabe gisa loturik dagoen sintonia haren ondorengo azalpenarekin burutzen da, zeinari sublimearen sentimendua deitu baitzaio.

Jadanik lehenago oharrarazi dugu begieste hutsaren egoeran jartzea errazena gertatzen dela, objektuak berari aurkezten zaizkionean, beren taxu aldi berean determinatu eta argiekin beren ideien ordezkari erraz bihurtzen direnean, zeinetan edertasuna ere zentzu objektiboan baitago. Natura ederrak dauka batez ere gaitasun hori, eta horren bitartez sentigaitzena denari ere gutxienez plazer estetiko iragankor bat eskuratzen dio: areago oso txundigarria gertatzen da ikustea nola landareen munduak kontsiderazio estetikora gonbidatzen duen eta hori nolabait ezartzen duen, non esan baitaiteke, adeitasun horrek lotura duela izaki organiko horiek berek animala soinak ez bezala ezagutzaren objektu bitartegabe izatearekin, eta horregatik norbanako adimendun arrotzak behar dituztela, nahi izate itsuaren mundutik errepresentazioarenera igarotzeko, zeren nolabait igarotze horren bitartez, bitartegabe ukatu zaiena gutxienez bitartedunki lortu nahi balute bezala. Gainerakoan utzi egiten dut pentsamendu ausart eta agian ameskeriaren mugetan dagoen hori bere horretan, zeren naturaren kontsiderazio sakon eta saiatsu batzuk bakarrik hori eragin eta justifika baitezaketel¹⁶. Naturaren adeitasun, bere formen esangurazkotasun eta argitasun horrek, zeinak azpimarratzen baititu horietan indibidualizaturiko ideiak, eta zeinak nahimenaren zerbitzuan dagoen ezagutzaren harreman soiletatik desbideratzen baikaitu gu kontenplazio estetikora eta horrenbestez ezagutzaren subjektu nahimenetik askera jasotzen baikaitu: ederrak soilik eragiten du gudan, eta edertasunaren sentimendua kitzikatzen du. Baina objektu horiek beroriek, zeinen taxu esanguratsuek beren kontenplazio hutsera gonbidatzen baikaituzte, giza nahimenaren aurka oro har, bere objektitatean, giza gorputzean, aurkezten denez, harreman etsaikor bat aldin badute, aurka badagozkio, erresistentzia erresistentzia oro gainditzen duen nagusitasunarekin mehatxatzen

badute edo bere handitasun neurgabearekin ezerezeraino txikitzen badute; behatzaileak, hala ere, ez badu zuzentzen bere aditasuna bere nahimenarekiko harreman etsaikor behartzaile horretara; baizik hori hauteman eta berrezagutuz, kontzientziarekin hartatik aldentzen bada, bere nahimenetik eta horrekiko harremanetik indarrez libratuz, eta, ezagutzen murgilduz bakarrik, nahimenari beldurgarri zaizkion objektu haiek ezagutzaren subjektu nahimengabe huts gisa lasai kontenplatzen baditu, bere ideia harreman bakoitzarekiko arrotza bakarrik kontzebituz, horregatik bere kontsiderazioan gogara pausatuz, ondorioz, horregatik hain zuzen, bere buruaren gainetik, bere pertsonaren, bere nahi izatearen eta nahi izate ororen gainetik jasoa bada -orduan sublimarean sentimenduak betetzen du, jasotze-egoeran dago, eta horregatik egoera hori eragiten duen objektuari sublimea deitzen zaio. Sublimarean sentimendua ederrarenetik desberdintzen duena hau da: ederrean ezagutze hutsak borrokarik gabe nagusitasuna lortu du, bitartean objektuaren edertasuna, bere ideiarenekin osaera errazten duen ezagutza, nahimenari eta bere zerbitzuan aritzen den harremanen ezagutzarekiko erresistentziarik gabe, eta horrela oharkabean kontzientziatik urrunduta egin du eta hori berori ezagutzaren subjektu huts gisa utzi du, nahimenean inolako oroitzapenik geratu gabe: aitzitik, bikainean ezagutza hutsezko egoera hura kontzienteki eta indarrez lortu behar da objektu beraren nahimenarekiko harreman ez-aldekotzat berrezagutuetaatik askatuz, nahimenaren gainetik sublimatze libre eta kontzientziak lagundurikoaren eta harekin harremanetan jartzen den ezagutzaren bitartez. Sublimatze hori ez da kontzientziarekin irabazi egin behar, iraunarazi ere egin behar da, eta horregatik bakarrik nahimenaren etengabeko oroitzapen baten laguntza du, hala ere ez beldurra edo desira bezalako nahi izate partikular, indibidual batena, baizik giza nahi izatearena oro har, bere objektitatearen, giza soinen bitartez orokorrean adierazia den neurrian. Nahimen-egintza partikular erreal bat kontzientzian gertatuko balitz estuasun erreal, pertsonalaren eta objektuaren arriskuaren bitartez; horrela errealki higituriko nahimen indibidualak nagusitasuna lortuko luke, kontenplaziorako lasaitasuna ezinezko bihurtu, bikainaren inpresioa galdu egingo litzateke, beldurrari leku egiten dion bitartean, zeinean banakoaren ahalegina salbatzeko, beste pentsamendu horiek baztertuko bailituzke. - Adibide batzuek asko lagunduko dute estetiko-bikainaren teoria hori argitu eta inolako zalantzarik gabe uzten; aldi berean bikainaren sentimendu horren desberdintasun-maila erakutsiko dute. Zeren hau ederraren berdina da bere determinazio nagusian, ezagutza huts, nahimengabekoan, eta horrekin derrigor agertzen dira arrazoiaren printzipioaren bitartez determinaturiko harremanetik kanpo dauden ideien ezagutzen eta gehikuntza baten bitartez bakarrik, kontenplaturiko objektuak nahimenarekiko duen berrezaguturiko harreman etsaikorraren gainetik igotzeagatik oro har desberdintzen den bezala; horrela sortzen dira, gero gehikuntza hori indartsu izan, argi, hertsakor, hurbila edo ahula bakarrik, urruna, seinalatua soilik, bikainaren maila gehiago, are gehiago ederretik bikainerako igarobideak. Aurkezpenetako egokiagotzat daukat igarobide horiek eta oro har bikainaren inpresioaren maila ahulagoak lehenik adibidetan begien aurrean ezartzea, nahiz eta sentikortasun estetikoak oro har oso handia ez dutenek eta fantasia bizikoak ez direnek geroago ondoren etorriko diren inpresio horren adibide maila garai eta argiagokoak bakarrik ulertuko dituzten; horrelakoek azken horiek hartu behar dituzte kontuan, eta lehenago eman eta aipaturiko inpresioaren oso maila ahuleko adibideak bere horretan bertan behera utzi.

Gizakia nahi izatearen bulkada zakar eta ilunaren (genitalen poloak ezaugarritua gune gori gisa) eta ezagutza hutsaren (garunaren poloak ezaugarritua)

subjektu betiko, libre, aratza den bezala: horrela, kontraste horren eran, eguzkia aldi berean argiaren iturri da, ezagutze-mota perfektuenaren baldintza eta horrexegatik hain zuzen gauzarik pozgarriena - eta beroaren iturri, bizitza ororen lehen baldintza, nahimenaren agerpen guztiena mailarik garaienetan. Horregatik nahimenarentzat beroa dena, horixe da ezagutzarentzat argia. Argia da, beraz, edertasunaren koroako diamante handiena eta objektu eder bakoitzaren ezagutzan eraginik erabakigarriena du: bere presentzia oro har ezinbesteko baldintza da; bere kokaera egokiak areagotu egiten du ederrenaren edertasuna. Beste guztien artean arkitekturaren ederra areagotzen du bere faboreak, zeinaren bitartez esanahi gutxienekoa objektu ederren bihurtzen baitu. - Negu gorrian naturaren zurruntze orokorrean behean dagoen eguzkiaren izpiak harrizko masek atzera jaurtikiak ikusten ditugu, non argi egiten baitute, berotu gabe, horrela ezagutze-era garbienaren, ez nahimenaren aldeko; horrela argiak masa horietan duen efektu ederraren kontsiderazioak, edertasun orok bezala, ezagutza hutseko egoeran ezarriko gaitu, zeinak hemen izpi haien horrela printzipio biziarezlearen bidezko berotze-falta arinki oroitzearen bitartez, nahimenaren interesaren gainetik nolabait igotzea eskatzen baitu, ezagutza hutsean irauteko ere arinki eskatzen du nahi izate orotatik saihestuz, horrela ederraren sentimendutik bikainerako igarobidea bihurtuz. Bikainak ederrean duen hats ahulena da, azken hori hemen mailarik txikienean agertzen delarik. Hurrengoa ia aurrekoa bezain adibide ahula da.

Goazen lurralde oso bakarti batera, horizonte mugagabea zero erabat oskarbi bat duenera, zuhaitzak eta landareak batere higitzen ez den airepean, ez dago animaliarik, ez gizakirik, ez ur korronterik, isiltasun handiena dago - horrelako ingurunea dei bat da seriotasunerako, kontenplaziorako, nahi izatea eta bere premia guztiak alde batera utzirik: baina horrek berak ematen dio ingurune bakarti eta lasaitasun handikoari halako sublimetasun-kutsu bat. Zeren beti ahalegindu eta lortzea behar duen nahimenari objekturik eskaintzen ez badio ere, ez aldekorik ez kontrakorik, horrela kontenplazio hutsezko egoera bakarrik gelditzen da, eta horretarako gai ez dena, lanpetu gabeko nahimenaren hutsartean aspertasunaren tormentuan murgilduko da beherakada umiliagarriarekin. Bitartean gure balio intelektualaren neurri bat ematen du, zeinetarako oro har bakardadea jasan edo maitatzeko gure gaitasunaren maila neurgailu ona baita. Deskribaturiko inguruneak bikainaren adibide bat ematen du mailarik beherenean, aldiz, horretan ezagutza hutsezko egoerari, bere lasaitasun eta erabateko askitasunari, kontraste gisa nahimenaren dependentzia eta miseriaren oroitzapena nahasten baitio, zeinak etengabeko jarduna behar baitu. - Sublimetasun-mota hau da Ipar Amerika barrualdean ikusten diren amaigabeko zelaiei goratzen zaiena.

Horrelako lurralde bati oraindik landareak kentzen badizkiogu, eta harkaitz biluziak bakarrik erakusten baditu; orduan gure subsistentziarako beharrezkoa den organikotasunaren erabateko absentsiarengatik, nahimena beldurtu egingo da: basamortuak izaera beldurgarria hartuko du; gure aldartea tragiko bihurtuko da areago: ezagutza hutsera igotzea nahimenaren interesetatik erabakigarriago libratuz gertatzen da, eta ezagutza hutsezko egoeran diraugun bitartean, argiro gertatuko da bikainaren sentimendua.

Oraindik maila garaiagoan eragin dezake hori ondorengo inguruneak. Natura ekaitzeko higiduran; ekaitz-hodei ilun eta mehatxugarrien artetik argi-iluntasuna; harkaitz eskerga, biluzi, zintzilikatuak, beren murrizkuntzaz ikuspegia ixten dutenak; bitsa dariela oldartzen diren urak; erabateko basamortua; zintzurretan barrena iragaten den airearen intziria. Natura etsaikorrarekiko gure dependentzia,

gure borroka, hartan hautsitako gure nahimena begien aurrean nabari jartzen zaigu orduan: baina estuasun pertsonala nagusitzen ez den bitartean, baizik kontenplazio estetikoan diraugin bitartean, naturako borroka horretan barrena, nahimen hautsiaren irudi horretan barrena ezagutzaren subjektu hutsak antzeman eta kontzebitu egiten ditu lasai, kordokatu gabe, ezinteresatuki (unconcerned), hain zuzen nahimenarentzat mehatxugarri eta beldurgarri diren objektuetan, ideiak. Kontraste horretan dago hain zuzen bikainaren sentimendua.

Baina oraindik ahaltsuagoa izango da inpresioa, asaldatutako natur indarren borroka bere handitasunean begien aurrean badaukagu, baldin eta ingurune hartan erortzen ari den korrante batek bere burrundararekin gure ahots propioa entzuteko ahaltsuna kentzen badigu - edo ekaitzak astinduriko itsaso zabalean baldin bagaude: etxeen tamainako olatuak gora eta behera, indarrez hegiko labarren kontra joka, bitsa airean gora jaurtiz, ekaitza uluka, itsasoa orroka, tximistek hodei beltzak zeharkatzen badituzte eta trumoi-hotsak ekaitza eta itsasoaren gainetik entzuten badira. Orduan lortzen du behatzaile hunkitugabeagan agerpen honek bere kontzientziaren duplizitatearen argitasunik gorena: aldi berean banako bezala sentitzen du bere burua, nahimen-agerpen kontingente gisa, indar haien kolperik txikienak porroka dezakeena, natura ahaltsuaren aurrean babesgabe, dependente, zoriaren eskuetan, ezerez hutsala indar eskergen aurrez aurre; eta aldi berean ezagutzaren subjektu lasai betiko, zeina objektuaren baldintza gisa mundu oso horren euskarri baita eta naturaren borroka beldurgarria horren errepresentazio besterik ez, ideien kontzepzio lasaian, nahi izate ororekiko eta premia ororekiko libre eta arrotz. Bikainaren inpresio betea da hori. Norbanakoa mehatxupearan daukan eta inolako konparaziorik gabe handiago zaion ahalmen bat ikusteak eragiten du hori.

Zeharo beste era batean sor daiteke hori handiera soil bat espazioan eta denboran aurrez aurre jartzean, zeinaren neurtezintasunak norbanakoa hutseraino txikitzen baitu. Lehen moduari dinamiko dei diezaiokegu, bigarrenari matematikobikain, Kanten izendapenak eta bere banaketa zuzena gordez, nahiz eta gu inpresio horren barneko esentziaren azalpenean erabat harengandik aldentzen garen, eta erreflexio moralei eta filosofia eskolastikoko hipostasiei horretan partaidetzarik onartzen ez diegun.

Baldin eta espazio eta denborako munduaren handiera amaigabeen kontsiderazioan galtzen bagara, iragandako milurteetan eta datozenetan gogoeta egiten badugu - baita ere, gaueko zeruak ezin zenbatu ahal mundu errealki begien aurrean jarri eta horrela munduaren neurtezintasuna kontzientzian ezartzen badigu - orduan hutseraino txikiturik sentitzen gara, norbanako gisa sentitzen gara, soin bizidun gisa, nahimen-agerpen iragankor, urtanta bat ozeanoan bezala desagertzen gara, ezerezean galtzen gara. Baina aldi berean gure ezereztasun propioaren fantasma horren aurka, gezurrezko ezintasun horren aurka gure kontzientzia bitartegabea jaikitzen da, mundu horiek guztiak gure errepresentazioan bakarrik existitzen direlako, ezagutza hutsaren subjektu betikoaren modifikazio gisa soilik, horrela sentitzen baikara, individualitatea ahazten dugunean, eta zeina mundu guztien eta denbora guztien euskarri beharrezkoa, baldintzailea baita. Munduaren handiera, lehen kezkatzen gintuena, orain gudan datza: harekiko gure dependentzia hori hark gurekiko duen dependentziak gainditzen du. - Hori guztia ez da bat-batean erreflexioan agertzen, baizik kontzientzia sentitu gisa bakarrik azaltzen da, nolabaiteko zentzuan (zeina filosofiak bakarrik jartzen baitu agerian) munduarekin bat baita, eta horregatik bere neurtezintasunaren bitartez ez da beheztatzen, goratu egiten da baizik. Vedetako Upanishadek askotariko esamoldetan errepikaturik adierazten dutenaren kontzientzia

sentitua da, batez ere jadanik lehenago aipaturiko maximan esandakoa: (1, 122). Norbanako propioaren gainetik goratzea da, sublimearen sentimendua.

Guztiz era bitartegabea hartzen dugu matematiko-sublimearen inpresio hori, espazio baten bitartez, zeinak unibertsoaren aldean kontsideraturik txikia bada ere, hala ere bitartegabeki guztiz hautemangarri bihurtu delarik hiru dimentsioen arabera bere handiera guztiarekin gudan eragiten baitu, horrela gure soin propioaren neurria ia infinituki txiki bihurtuz. Ezin izango du hori inoiz hautemapenerako hutsik dagoen espazio batek, horretarako ez da espazio ireki bat behar, baizik bere mugetan hiru dimentsiotan bitartegabe hauteman daitekeen espazio bat, horrela ganga garai eta handi bat Erromako Petriren elizakoa edo Londresko Pauloren elizakoa bezalakoa. Bikainaren sentimendua hemen gure soin propioaren ezereztasun hutsalaz handiera baten aurrean ohartzetik sortzen da, zeina beste alde batetik gure errepresentazioan baitago, eta zeinaren euskarri geu baikara subjektu ezagutzaile gisa, horrela hemen eta edonon gure norbanako propioaren zentzugabeziaren eta dependentziaren, nahimen-agerpen gisa, eta ezagutzaren subjektu huts gisa gure niaren kontzientziaren arteko kontraste bezala. Zeru izarratuko gangak berak, baldin eta erreflexiorik gabe kontsideratzen badugu, harrizko ganga hark bezalaxe eragiten du eta ez bere egiazko handierarekin, baizik itxurazkoarekin. - Gure begiespeneko objektu askok bikainaren inpresioa eragiten dute, beren handiera espazial edo beren adin, horrela beren denborazko iraupen handiaren indarrez, gu haien aurrean hutseraino txikiturik sentiaraziz, eta hala ere haiei begiratuz gozatu egiten dugula: mota horretakoak dira mendi oso garaiak, Egiptoko piramideak, antzinate zaharreneko hondakin kolosalak.

Bikainaren gure azalpen hori etikoa denera ere pasaraz daiteke, karakter bikain deitzen zaionera. Hori ere nahimena objektuen bitartez kitzikatua ez izatetik sortzen da, zeinak egokiak bailirateke hura kitzikatzeko; baizik eta ezagutzak horretan nagusitasuna izatetik. Gisa horretako karakter batek era objektibo hutsean kontsideratuko ditu gizakiak, ez ordea beren nahimenarekiko izan ditzaketen harremanen arabera: adibidez, haien hutsegiteez, baita dioten gorrotoaz eta egindako bidegabekeriez ohartuko da, horregatik, bere aldetik, haien kontrako gorrotora kitzikatua izan gabe; haien zorionari begiratuko dio, inbidiarik sentitu gabe; haien gaitasun onak berrezagutuko ditu, haiekin hurbilagoko loturarik desiratu gabe; emakumeen edertasuna hautemango du, haiek irrikatu gabe. Bere zorion edo zorigaitz pertsonalak ez dute gogor erasango, aitzitik Hamletek Horazio deskribatzen duen bezalakoa izango da:

for thou hast been
As one, in suffering all, that suffers nothing;
A man, that fortune's buffets and rewards
Hast ta'en with equal thanks, etc.

(Act 3, scene 2)17.

Zeren bere bizi-joaira propioan eta bertako ezbeharretan bere zori indibiduala gutxiago ikusten baitu gizadiarena baino eta horregatik ezagutzen jokatuko du sofritzen baino areago.

Aurkakoeak elkar argitzen baitute, hauxe izan liteke oharra egiteko lekua, sublimearen benetako aurkakoa, lehen begiratuak horrelakotzat berrezagutzen ez duena: polita dela. Horrenbestez, onarpena, asekontza bitartegabe eskainiz nahimena kitzikatzen duena ulertzen dut. - Sublimearen sentimendua nahimenari kontrako zaion gauzaki bat kontenplazio hutsaren objektu bihurtzearen bitartez sortu den bezala, zeina gero nahimena etengabe saihestu eta bere interesen gainetik igotzearen bitartez iraunaraziz, horrek eratzen baitu sublimetasunaren aldartea; aitzitik, polita denak eraitsi egiten du behatzailea kontenplazio hutsetik, ederraren kontzeptzio orotarako beharrezkoa den horretatik, nahimena derrigor kitzikatuz bitartegabe atsegin zaizkion objektuen bitartez, horrenbestez so-egileak ez baitu irauten ezagutzaren subjektu huts gisa, baizik nahi izatearen subjektu premiatsu, dependente bihurtzen da. - Normalean mota alaiko eder orori polit deitzen diogunez gero, desberdintasun zuzenaren gabeziak kontzeptu zabalegia den hori, nik alboan erabat utzi ezik, gaitzetsi ere egin behar dut. - Erabilitako eta azaldutako zentzuan artearen eremuan bi polit-mota aurkitzen ditut nik eta biak artearen duin ez direnak. Bata, oso beheara, herbeheretarren bodegoietan ageri dena, zeinak okerra sortzen baitu, aurkezturiko gauzakiak jangarriak direlakoan, zeinak beren aurkezpen engainagarriak derrigor apetitua kitzikatuz, zeina nahimenaren kitzikapena baita, gauzakiaren kontenplazio estetiko orori bukaera ezartzen diona. Fruitu margotuak oraindik onargarriagoak dira, zeren lorearen ondorengo garapen gisa eta forma eta kolorearen bitartez natur emaitza eder bezala aurkezten baita, inolako premiarik sentitu gabe haren jangarritasunean pentsatzeko; baina zoritxarrez naturaltasun engainagarri mahairatu eta prestaturiko jakiak aurkitzen ditugu sarritan, ostrak, sardintzarrak, otarrainak, gurinopilak, garagardoa, ardoa eta abar, erabat baztergarriak direnak. - Historiaren pinturan eta eskulturan dago polita taxu biluzitan, zeinaren jarrera, erdi-jantzita egotea eta tratatzeko era guztia so-egilearengan irritsa sorraraztera zuzendurik baitago, zeinaren bitartez kontsiderazio estetiko hutsa ezabatua eta artearen xedea endekaturik gelditzen baita. Hutsegite horiek herbeheretarrei kritikaturakoei erabat dagozkienak dira. Antzinakoak beren edertasun guztian eta taxuen biluztasun osoan ia horretatik beti libre daude, zeren artistak berak edertasun idealez beteriko espiritu objektibo hutsarekin sortu baitzituen, ez irrits zantarraren espiritu subjektiboan.- Horrela polita dena erabat saihestu behar da artean.

Badago negatiboki-polita dena ere, goian aztertutako positiboki-polita bera baino ere baztergarriagoa dena: eta hori nazkagarria da. Politik bezala behatzailearen nahimena iratzarri eta kontsiderazio estetiko hutsa suntsitu egiten du. Baina ez nahi izate bizi bat, kontra-ahalegin bat da horrek eragiten duena: nahimena iratzartzen du, bere higuineko objektuak aurrean ezarriz. Horregatik beti berrezagutu da hori onartezina dela artean, nahiz eta itsusia bera ere, nazkagarria ez den bitartean, toki egokian jasan egin daitekeen, aurrerago ikusi ahal izango denez.

§ 41

Gure kontsiderazioaren joairak derrigorrezko bihurtu du sublimearen azterketa hemen etetea, ederrarena erdizka, bere alde subjektiboaren arabera bakarrik osaturik zegoela. Zeren alde subjektibo horren modifikazio berezi bat baitzen bikaina eta ederra bereizi dituen. Baldin eta nahimengabeko egoera hutsa kontenplazio estetiko orok suposatu eta eskatzen badu, objektuak hartara gonbidatu eta erakarria delarik,

erresistentzia gabe nahimena kontzientziatik desagertze soilez berez bezala gertatu bada; edo nahimenaren gaineratik goratze kontziente librearen bitartez lortu bada, zeinarekiko objektu kontenplatuak berak harreman kontrako, etsaikorra badu, zeinari atxikitzeak kontenplazioa ezabatu egingo bailuke - hori da ederraren eta bikainaren arteko desberdintasuna. Objektuan biak ez daude esentziaz desberdinak: zeren kasu bakoitzean kontsiderazio estetikoaren objektua ez da gauza partikularra, baizik bertan agerian jartzeko ahalegintzen den ideia, nahimenaren objektitate egokia maila determinatu batean: horren beharrezko korrelatua, bera bezala, arrazoiaren printzipiotik libratua, ezagutzaren subjektu hutsa da, gauza partikularren korrelatua norbanako ezagutzailea den bezala, zeinak arrazoiaren printzipioaren eremuan baitaude biak.

Objektu bat ederra dela diogunean, gure kontsiderazio estetikoaren objektua dela adierazten dugu, bi gauza bere baitan dituen, alde batetik, hori begiratzeak objektibo egiten gaituela, garena jabetzen geure buruaz horren kontsiderazioan jadanik ez banako gisa, baizik ezagutzaren nahimengabeko subjektu huts bezala; eta bestetik, guk objektuan ez dugula gauza partikularra, baizik ideia bat berrezagutzen dugula, zeina objektuaren gure kontsiderazioa arrazoiaren printzipioaren mendean ez badago bakarrik gerta baitaiteke, bere harremanak hartaz kanpoko beste ezeri (zeina azkenik beti gure nahi izatearekiko harremanei loturik baitago) jarraitzen ez badio, baizik objektuan bertan oinarritzen bada. Zeren ideia eta ezagutzaren subjektu hutsa beharrezko korrelatu gisa agertzen baitira beti batera kontzientzian, agerpen horretan denborazko desberdintasun guztiak desagertzen baitira, ze biak arrazoiaren printzipioari beren taxuera guztietan erabat arrotz zaizkio eta haren bitartez ezarritako harremanetatik kanpora daude, ostarkua eta eguzkiarekin konparatzeko, zeinek erortzen ari diren tanten etengabeko higidura eta suzesioan ez baitute inolako parterik. Horregatik, baldin eta nik, adibidez, zuhaitz bat estetikoki, artista-begiekin kontsideratuko banu, horrela ez bera, baizik bere ideia berrezagutuko nuke, horrekin ez du inolako esangurarik, zuhaitz hori den ala duela mila urte loretu zen aurreko bat den, era berean, behatzailea hau edo beste bat den, noizbait edo nonbait bizi izan den norbanakoa; arrazoiaren printzipioarekin gauza partikularra eta norbanako ezagutzailea ezabatu egiten dira eta ideia eta ezagutzaren subjektu hutsa besterik ez dira gelditzen, zeinek batera nahimenaren objektitate egokia eratzen baitute maila horretan. Eta ez denboratik bakarrik, espaziotik ere libratu dago ideia: zeren ez baita nik pentsatzen dudana taxu espaziala, baizik adierazpena, horren zentzu hutsa, barneko bere esentzia, niri zabaltzen eta hitz egiten didana, hori da propioki ideia eta erabat bera izan daiteke, taxuaren harreman espazialeko desberdintasuna handia bada ere.

Alabaina, alde batetik, existitzen den gauza bakoitza objektibotasun hutsean eta harreman orotatik kanpo kontsidera daitekeenez; gainera, bestetik, gauza bakoitzean nahimena bere objektitatearen mailaren batean agertzen bada eta hori berori ideia baten adierazpena bada; horrela gauza bakoitza ederra da orobat. -

Gauzarik esanguragabeenak ere kontsiderazio objektibo huts eta nahimengabea onartzen duela eta horrenbestez eder bezala agertzen direla, lehenago (§ 38)18 ikuspegi horretatik aipaturiko herbeheretarren bodegoiek testigatzen dute. Bata bestea baino ederragoa izatea horrek kontsiderazio objektibo hutsa errazten duelako da, horri abegi egiten diolako, eta are horretara behartu ere egiten duelako, non ere gero guk oso eder deitzen baitiogu. Eta hori bai gauza partikular gisa, bere atalen harreman oso argi, oso determinatu, erabat zentzuzkoen bitartez bere espeziearen ideia garbi adierazten duelako eta bertan bateratutako bere espezieko

guztien adierazpen ahalgarrien perfekzioaren bitartez horien ideia perfektuki agirian jartzen duelako gertatzen da, horrela behatzaileari gauza partikularretik ideiarako igarobidea asko errazten zaiolarik, eta horrenbestez, baita kontenplazio hutseko egoera ere; bai objektu baten edertasun bereziaren pribilegio hori, ideiak berak, hartatik guri hitz egiten digunak, nahimenaren objektitatearen maila garai batekoa izatean eta horregatik guztiz garrantzizko eta esanguratsu izatean. Horregatik gizakia beste guztiak baino ederrago da eta bere esentzia agerian jartzea artearen xede gorena. Giza taxua eta giza adierazpena da arte plastikoaren objektu garrantzitsuena giza egintza poesiaren objektu garrantzitsuena den bezala. - Hala ere, gauza bakoitzak bere edertasun propioa du: ez organiko bakoitzak eta indibidualitate baten batasunean aurkezten denak bakarrik; baizik baita inorganiko, formagabe bakoitzak, are artefaktu bakoitzak ere. Zeren horiek guztiek ideiak jartzen baitituzte agerian, zeinen bitartez nahimena mailarik beherenetan objektibatzen baita, nolabait naturako tonu baxu sakon eta durunditsuenak ematen baitituzte. Pisutasuna, solidotasuna, jariakortasuna, argia, eta abar dira harkaitzetan, eraikinetan, uretan adierazten diren ideiak. Lorezaintza eta arkitekturako arte ederrak horiei lagundu besterik ezin diete egin, horien propietateak argiro, alde askotatik eta etengabe garatu, horiei aukera eman, garbiro adierazteko, horrenbestez kontenplazio estetikora gonbidatu eta hori errazteko. Eraikin txarrek edo natura zabartu edo artea endekatu den lurraldeek hori gutxi egiten dute edo batere ez: hala ere, naturako oinarri-idea haiek ezin dira horietatik erabat desagertu. Hemen ere hitz egiten baitiote horien bila dabilen behatzaileari, eta eraikin txarrek berek ere eta antzekoek badute oraindik kontenplazio estetikorako gaitasuna: oraindik horietan berrezagugarriak dira gaiaren propietate orokorrenen ideiak, soilik horietan artistikoki emandako forma ez dela erraztasunerako bitarteko, areago dela eragozpen, kontsiderazio estetiko zailtzen duena. Artefaktuek ere, ondorioz, ideia adierazpenari zerbitzatzen diote: soilik ez da artefaktuaren ideia, horietatik hitz egiten duena, baizik materialaren ideia, zeinari forma artistiko hori eman baitzaio. Eskolastikoen hizkuntzan oso eroso adierazten da hori bi hitzekin, artefaktuan ideiak bere forma substantialis-a adierazten du, ez bere forma accidentalis-a; azken horrek ez du ideiara gidatzen, baizik giza kontzeptu batera bakarrik, zeinatik irten baita. Hemen artefaktuz ez dela espreski arte plastikoko ezein obra adierazi ulertzen da. Gainerakoan, eskolastikoek forma substantialis esamoldeaz izatez ulertzen zuten nik gauza batean nahimenaren objektibazio-maila deitzen dudana bera. Berehalaxe arkitektura ederraren kontsiderazioarekin materialaren ideia adierazpena itzuliko gara. - Gure ikuspuntuaren arabera ezin gara bat etorri Platonekin (10, p. 284-285 et p. 79, editio Bipontini) mahaiak eta aulkiak mahai eta aulki ideiak adierazten dituztela; baizik guk diogu adierazten dituztela, beren material soilean horrelakoa den heinean adierazten diren ideiak. Aristotelesen arabera (11, 3), Platonek berak natur izakiez bakarrik ezarri zituen ideiak: (GRIEGO) (Plato dixit, quod ideae eorum sunt, quae natura sunt) [Platonek irakatsi zuen naturako gauza adina ideia dagoela], eta 5. kapituluaren esaten da platonikoen arabera ez dagoela etxearen eta eraztunaren ideiarik. Edozein kasutan ere Platonen ikasle hurbilenek, Alkinook aditzera ematen digunez (cap. 9)19, jadanik ukatu egin zuten artefaktuen ideiak daudenik. Honela dio: (GRIEGO) (Definiunt autem ideam exemplar aeternum eorum, quae secundum naturam existunt. Nam plurimus ex iis, qui Platonem secuti sunt, minime placuit arte factorum ideas esse, ut clypei atque lyrae; neque rursus eorum, quae preter naturam, ut febris et cholerae; neque particularium, ceu Socratis et Platonis; neque etiam rerum vilium, veluti sordium et festucae; neque relationum, ut maioris et

excedentis: esse namque ideas intelectiones dei aeternas, ac seipsas perfectas.) [Ideia naturako gauzen eredu denboragabe gisa definitzen dute. Zeren Platonen jarraitzaile gehienek ez baitute onartzen, gauza artifizialen ideiarik dagoenik, adibidez, ezkutua edo lirarenik, naturaren aurkakoak baitira, sukarra eta kolerarena bezala, ezta izaki partikularrenik ere, Sokrates edo Platonena bezalakorik, ezta balio gutxiko gauzenik ere, zikina edo ezpalarenik, ezta harremanenik ere, handiago edo sobera izatearenik ere; zeren ideiak Jainkoaren pentsamendu betiko eta beren baitan beteginak direlako.] - Abagune honetan beste puntu bat ere aipa daiteke, zeinean ideien gure doktrina Platonenetik asko aldentzen baita. Berak irakasten du (10, p. 288), arte ederrak aurkezteko asmotan duen objektua, pintura eta poesiaren eredia ez dela ideia, gauza partikularra baizik. Guk orain arte egin dugun azalpenak hain zuzen alderantzizkoa baieztatzen du, eta Platonen iritziak honetan hainbat gutxiago harritu behar gaitu, gizon handi horren akats handi eta ezagutu baten iturburua bera baita, h. d. artearen gutxiespen eta errefusapena, batez ere poesiarena: horri buruzko bere judizio faltsua lotzen du berak aipaturiko pasartearekin bitartegabe.

§ 42

Orain inpresio estetikoaren gure azalpenera noa berriz. Ederraren ezagutzak egiazki subjektu ezagutzailea eta ideia ezagutua objektu gisa aldi berean eta bereiztezinki ezartzen ditu beti. Baina gozamen estetikoaren iturria batzuetan ezagututako ideiarekin kontzepzioan gehiago egongo da, bestetan, nahi izate orotatik eta horrenbestez, indibidualitate orotatik eta horretatik sortzen den sufrimendutik jaregindako ezagutza hutsaren duntsutasun eta espirituaren lasaitasunean: eta noski gozamen estetikoaren osagai bata edo bestea nagusitzea egongo da begiesgarriki kontzebituriko ideia nahimenaren objektitate-maila garaiago edo behereagokoa den. Horrela natura ederraren kontsiderazio estetikoan (errealitatean edo artearen bitartekaritzaz) inorganikoetan eta begetaletan eta arkitektura ederraren obran ezagutza nahimengabe hutsaren gozamena nagusia izaten da, zeren hemen kontzebituriko ideiak nahimen objektitatearen maila beheerenekoak bakarrik baitira, horregatik ez garrantzi sakon eta eduki askoesaleko agerpenak. Aitzitik, animaliak eta gizakiak kontsiderazio edo aurkezpen estetikoaren objektu direnean, gozamena areago egongo da ideia horien kontzepzio objektiboan, zeinak nahimena agirian jartze argienak baitira; zeren horrelakoek taxuen askotarikotasuna, agerpenen aberastasuna eta garrantzi sakona aurkezten baitute eta nahimenaren esentzia perfektukien jartzen baitute agirian, bere bizikortasun, lazkarritasun, asekuntza edo hausturan (azken hori antzeppen tragikoetan), azkenik, konbertsio edo autoezabaketan, zeina pintura kristauaren gaia baita nagusiki; historien pinturak eta dramak ezagutza beteak argituriko nahimenaren ideia objektutzat daukan bezala. - Orain arteak banaka aztertu nahi ditugu, eta horrela proposatu dugun ederraren teoriak osotasuna eta argitasuna lortuko ditu.

§ 43

Materia horrelakoa den heinean ezin daiteke ideia baten aurkezpena izan. Zeren, lehen liburuan aurkitu dugunez, kausalitatea besterik ez baita: bere izatea eragite hutsa da. Baina kausalitatea arrazoiaren printzipioaren taxuera da: aitzitik

ideiaren ezagutzak esentziaz baztertu egiten du printzipio horren edukia. Bigarren liburuan materia ideien agerpen partikular guztien substratu komun gisa aurkitu dugu, ondorioz ideien eta agerpenen edo gauza partikularren arteko lotura-maila gisa. Horrela arrazoi batetik eta bestetik materiak berez ezin du ideiarik aurkeztu. Baina a posteriori honela baieztatzen da hori, materiatik horrelakoa den heinean ez da posible ezein errepresentazio begiesgarri, kontzeptu abstraktu bat bakarrik: lehen hartan formak eta

kualitateak bakarrik aurkezten dira, zeinen euskarria baita materia eta, zeinetan bakarrik jartzen baitira agirian ideiak. Horri dagokio gainera, kausalitatea berez (materiaren esentzia guztia) begiesgarriki aurkeztgarria ez izatea, baizik lotura kausal determinatu bat bakarrik. -Kontrara, bestalde, ideia baten agerpen oro, horrelakoa den heinean arrazoiaren printzipioaren forman edo principium individuationis-ean sartu dena, materiaren horren kualitate gisa aurkeztu behar da. Horrela, bada, esan denez, materia lotura-maila da ideiaren eta principium individuationis-aren artean, zeina norbanakoaren ezagutzaren forma edo arrazoiaren printzipioa baita. - Horregatik Platonek arrazoi guztiarekin ideiaren eta bere agerpenaren, gauza partikularren ondoan, zeinek biek munduko gauza guztiak beren baitan besarkatzen batituzte, materia ezarri du bietatik desberdina den hirugarren gisa, (p. 345). Banakoa ideiaren agerpen gisa materia da beti. Materiaren kualitate oro ere ideia baten agerpen da eta horrelakoa den heinean kontsiderazio estetiko baterako gai ere bai, horretan aurkezten den ideiaren ezagutzarako. Horrek materiaren kualitate orokorrenei buruz ere balio du, zeinak gabe ez baita inoiz existitzen eta, zeinen ideiak nahimenaren objektitate ahulena baitira: pisutasuna, kohesioa, solidotasuna, jariakortasuna, argiaren kontrako erreakzioa eta abar.

Baldin eta arkitektura arte edertzat soilik kontsideratzen badugu, helburu baliagarrietarako bere determinazioa alde batera utzirik, zeinean nahimenari laguntzen baitio, eta ez ezagutza hutsari eta horrela gure zentzuan ez baita arte; orduan ezin diogu ezarri nahimenaren objektitatearen maila beheerenekoak diren ideiak argiro begiesgarri bihurtzearen asmoa besterik: h. d. pisutasuna, kohesioa, solidotasuna, gogortasuna, harriaren propietate orokor horiek, nahimenaren ikuskortasun lehen, sinple, lausoenak, naturako oinarri-baxuaren doinuak; eta gero horien ondoan argia zati askotan horien oposizioa dena. Nahimenaren objektitatearen maila sakon horietan bertan ikusten dugu jadanik bere esentzia bitan nola jartzen den agirian: zeren pisutasuna eta solidotasunaren arteko borroka baita propioki arkitektura ederraren gai estetiko bakarra: hori era askotarikotan erabat argiro agerraraztea da bere zeregina. Hori ebazten du indar ezabaezin horiei beren asekuntzarako bidea ez emanaz bide laburrenetik eta horiei itzulinguru baten bidez eutsiz, horrela borroka luzatuz eta bi indarren bulkada agortezina era askotarikotan ikuskor bihurtuz. - Eraikinaren masa osoak, jatorrizko bere joeraren baitan utziz gero, multzo soil bat besterik ez luke aurkeztuko, ahal bezain finko lur-gorputzari lotua, zeinara pisutasunak, hemen horrela agertzen den nahimenak, etengabe bultzatzen baitu, solidotasunak, nahimenaren objektitate den horrek ere, kontra egiten dion bitartean. Baina joera horri, bulkada horri arkitekturak eragotzi egiten dio asekuntza bitartegabea eta bitartedun, itzulinguruzkoa bakarrik baimentzen dio. Zurajeak zutabeen bitartez bakarrik zapal dezake lurra; gangak eutsi egin behar dio bere buruari, eta pilareen bitartekaritza bakarrik jaregin dezake bere bulkada lurmasara eta abar. Baina beharturiko itzulinguru horietan, eragozpen horien bitartez garatzen dira argien eta erarik askotarikoenean harrimasa gordinaren barruan dauden indarrak: eta arkitekturaren helburu estetikoa hutsa ezin da urrunago joan. Horregatik datza eraikin baten edertasuna atal bakoitzaren erregulartasun nabarian, ez gizakiaren helburu hautazko eta kanpokoetan (zentzu horretan obra arkitektura baliagarriari dagokio); baizik bitartegabeki osotasunaren egonkortasunean, zeinarekin atal bakoitzaren kokaerak, handierak eta formak hain harreman beharrezkoa izan behar baitu, non atalen bat kenduko balitz, osotasuna amildu egin ahal izango bailitzateke. Zeren atal bakoitzak ahal duenari eusten dionean, eta bakoitza behar duen tokian eta behar adina irozoturik dagoenean,

garatzen baita kontrajoko hura, pisutasuna eta solidotasunaren arteko borroka hura, harriaren bizitza, nahimenaren kanporatzea eratzen duena, ikuskortasun perfektuenean, eta argiro jartzen dira agirian nahimenaren objektitatearen maila behehenak. Era berean atal bakoitzaren taxuak ere determinaturik egon behar du bere helburuaren eta osotasunarekiko bere harremanaren bitartez, ez hautazkotasunaren bitartez. Zutabea da euspen-forma sinpleena, helburuak bakarrik determinatua: zutabe bihurritua gustugabea da: zutabe lauangeluarra izatez sinpletasun gutxiagokoa da, nahiz eta batzuetan zutabe biribila baino egiten errazagoa izan. Era berean, friso, zuraje, arku, kupularen formak beren bitartegabeko helburuen bitartez erabat eta osoki determinatuak dira eta horrela azaltzen dute beren burua. Kapitelen eta abarren apaindura eskulturari dagokio, ez arkitekturari, zeinek edergailu gehigarritzko gisara soilik baimentzen baititu eta baztertu ere egin bailitezke.- Esandakoaren arabera, arkitekturako obra baten ulerkuntza eta gozamen estetikorako erabat beharrezkoa da bere materialaz bere pisuari, bere solidotasunari eta kohesioari dagokienez ezagutza bitartegabe, begiesgarria izatea, eta horrelako obra batekiko gure poza supituki asko murriztuko litzateke eraikitzean erabilitako materiala apar-harria dela jakinaraziz gero: zeren itxura hutsezko eraikina dela irudituko bailitzaiguke. Ia eragin bera izango luke zurezkoa delako albisteak, guk harrizko suposatzen genuelarik; hain zuzen ere, solidotasuna eta pisutasunaren arteko harremana eta horren bitartez atal guztien esangura eta beharrezkotasuna aldatu eta kolokatuko litzukeelako, izan ere natur indar horiek zurezko eraikinean askozaz ahulago jartzen baitira agerian. Horregatik arkitektura ederreko obra ezin liteke propioki zurezkoa izan, nahiz eta berak forma guztiak onartzen dituen: hori gure teoriak bakarrik azaltzen du. Baina azkenik esango baligute, eraikina, zeinari begiratzeak poztu egiten baikaitu, materia zeharo desberdinekoa dela, pisu eta kontsistentzia oso desberdinekoa, nahiz eta horiek begiz bereizterik ez egon; horrenbestez eraikin osoa dastaezin bihurtuko litzaitzake, ezezaguna zaigun hizkuntza batean egindako poema bat bezala. Horrek guztiak arkitekturak ez duela matematikoki soilik eragiten frogatzen du, dinamikoki baizik eta horren bitartez hitz egiten digutenak, ez direla forma eta simetria soilik, naturako oinarri-indar horiek baizik, lehen ideia horiek, nahimenaren objektitatearen maila beheheneko horiek. - Eraikinaren eta bere atalen erregularitasuna, parte batean, osakide bakoitzaren helburuzkotasun bitartegabeak egikaritzen du osotasunari trinko eusteko, parte batean osotasunaren gainikuspegia eta ulerkuntza errazteko zerbitzatzen du, eta beste parte batean, azkenik, figura erregularrek, horrelakoak diren heinean, espazioaren erregularitasuna agirian jartzen duten bitartean, edertasunari laguntzen diote. Baina hori guztia balio eta beharrezkotasun subordinatukoa bakarrik da eta inola ere ez garrantzizkoena, zeren simetria bera ere ez baita ezinbestez eskatzen dena, hondakinak berak ere ederrak direlarik.

Arkitekturako obrek oso harreman berezia dute argiarekiko: edertasun bikoiztua lortzen dute eguzki-argi betean, zero urdina atzean dutela, eta zeharo beste efektu bat agertzen dute ilargitan. Horregatik arkitekturako obra eder bat burutzean beti arreta berezia eskaintzen zaie argiaren efektuei eta zero-alderdiei. Horrek guztiak parte handi batean arrazoiak du bere atal guztien argitzapen klaru eta zorrotza eta horien harremanak guztiz ikuskor egitean: gainera, nire iritzia da arkitektura, pisutasuna eta solidotasuna bezala, argiaren esentzia erabat kontrajarri hori agerian jartzera determinaturik dagoela. Izan ere, argiak masa handi, opako, zorrotz mugatu eta era askotara taxuturikoek harrapatu, eragotzi, atzera jaurtitzean, orduan garatzen du bere natura eta propietateak argi eta garbien, behatzailearen gozamen

handirako, zeren argia gauzarik pozgarriena baita, ezagutze-era begiesgarri perfektuenaren korrelatu objektibo eta baldintza gisa.

Arkitekturak begiespen argira ekartzen dituen ideiak nahimenaren objektitatearen mailarik beherenak dira, eta ondorioz arkitekturan agerian jartzen denaren esanguratasun objektiboa, erlatiboki murrizta da; horrela eraikin eder eta egoki argituriko bati begiratzean gozamen estetikoa ez dago hainbeste ideiaren kontzepzioan, baizik eta kontzepzio horrekin ezarritako bere korrelatu subjektiboan, horrela, begirada horretan behatzailea norbanakoaren ezagutze eratik, nahimenari eta arrazoiaren printzipioari zerbitzatzen dionetik jaregitean dago nagusiki eta ezagutzaren subjektu nahimengabe hutsarenera jasoaz izatean; nahi izatearen sufrimendu guztietatik eta indibidualitatetik askaturiko kontenplazioan bertan. Ikuspegi honetatik arkitekturaren oposizioa eta arte ederren sailean beste muturrean dagoena drama da, ideiarik garrantzitsuenak ezagutarazten dituen, horregatik horren gozamen estetikoan alde objektiboa guztiz nagusikoa da.

Arkitektura arte plastiko eta poesiatik ez kopiatu bat, baizik gauza bera ematean desberdintzen da: ez du errepikatzen beste horiek bezala ideia ezagutua, zeinaren bitartez artistak begia mailegatzen baitio behatzaileari; baizik hemen artistak behatzaileari objektua bakarrik ematen dio, ideiaren kontzepzioa errazten dio objektu indibidual erreala, bere esentziaren adierazpen argi eta oso bihurtuz.

Arkitekturako obrak oso gutxitan burutzen dira, arte ederreko gainerako obren antzera, helburu estetiko hutserako: aitzitik beste horiek arteari berari arrotz zaizkion helburu baliagarrien mendean daude, eta horretan datza arkitektoaren meritu handia, helburu estetiko hutsak arrotzak zaizkionekiko menderatze horretan burutu eta lortzean, era askotarikoetan aldioroko helburu hautazkoei egoki moldatu eta zuzen epaituz nolako edertasun estetiko-arkitektonikoa tenplu, jauregi, armategi eta abarrekin onartu eta bateratzen duen. Zenbat eta klima gordinak premiak, baliagarritasunaren eskakizun horiek areagotu, hainbat joko-eremu meharagoa dauka ederrak arkitekturan. India, Egipto, Grezia eta Erromako klima bigunean, beharrezkotasunaren eskakizunak urri eta solteago determinaturik baitzeuden, arkitekturak librekien jazartu ahal izan zituen bere helburu estetikoak: zeru nordikoen azpian oso murrizturik gelditu ziren; hemen etxetzarrak, teilatu zorrotzak eta dorreak behar diren tokian, arkitekturak, bere edertasun propioa oso muga meharren barruan bakarrik gara zezakeenak, horren ordezpenerako hainbat gehiago jo behar izan du eskulturatik mailegaturiko apaingailuak egitera, arkitektura eder gotikoan ikusten denez.

Alabaina, arkitekturak beharrezkotasun eta baliagarritasunezko eskakizunengatik mugatze handiak baditu; horrela bestalde, horietan berorietan euskarri indartsua aurkitzen du, zeren bere obren tamaina eta bikaintasunagarengatik eta bere efektu-mota estetikoaren esfera estuarengatik arte eder soil gisa ezingo bailuke iraun, baldin eta industria baliagarri eta beharrezko bezala leku finko eta ohorezkoa ez balu giza zereginetan. Azken horren gabezia da, hain zuzen, beste arte bati, ahizpa gisa alboan egotea eragozten diona, nahiz eta hori ikuspegi estetikitik albolan gisa haren mendean dagoen: ura eramatearen arte ederraz ari naiz. Zeren arkitekturak pisutasunaren ideia erantzut egiten duena, zeinean hori solidotasunari loturik agertzen baita, gauza bera egiten du hark ideia berarentzat jariakortasuna, formagabezia, garraiagarritasun erraza, gardentasuna ezarri zaizkionean. Harkaitzen gainera bitsa dariela eta orroka amiltzen diren urjauziek, lasai langartzen diren kataratek, urezko zutabe garai gisa altxatzen diren surtidoreek eta ispiluak bezain laku klaruek agerian jartzen dituzte materia astun jariakorraren ideiak,

arkitekturaren obrek materia solidoaren ideiak garatzen dituzten bezala. Ura eramatearen arte eder baliagarrian ederrak ez du euskarririk aurkitzen; zeren horren helburua normalean ez baita bat etortzen baliagarritasunarenarekin, baizik eta salbuespen gisa bakarrik gertatzen da, adibidez, Erromako Cascata di Trevi²⁰.

§ 44

Aipaturiko bi arteek nahimenaren objektitatearen mailarik beheren horietarako egiten dutena, hori bera egiten du natura begetalaren maila garaiagoetarako neurri batean lorezaintzaren arte ederrak. Lekune baten paisaje-edertasuna bertan batera aurkitzen diren gauzaki naturalen askotarikotasunean datza hein handi batean eta gero horiek zehatz bereizi, argiro agertu eta lotura eta dibertsitate egokian aurkeztean. Bi baldintza horiek dira lorezaintza-arteak baliarazten dituenak: hala ere, bere gaiaz ez da inondik ere hain jabe nola den arkitektura berearena, eta horregatik bere efektua mugatu egiten du. Erakusten duen edertasuna ia erabat naturari dagokio: berak ezer gutxi egin du horretarako: eta bestalde, naturaren desfaborearen aurka oso gutxi egin dezake, eta horrek bere alde egin ordez bere aurka lan egiten duenean bere lorpenak urriak izaten dira.

Landareen mundua, artearen bitartekaritzarik gabe gozamen estetikorako nonahi bere burua eskaintzen duenean, artearen objektu denean, paisaje-pinturari dagokio nagusiki. Horren eremuan datza berarekin gainerako natura ezagutzagabe osoa ere. - Bodegoian eta arkitektura soil pintatuan, hondakinak, elizak barrutik eta antzekoetan gozamen estetikoaren alde subjektiboa izaten da nagusi: gure poza horretan ez datza nagusiki bitartegabe aurkezturiko ideien kontzepzioan, baizik areago kontzepzio horren korrelatu subjektiboan, ezagutza nahimengabe hutsean; zeren, pintoreak gauzak bere begiaren bitartez erakusten dizkigunean, guk hemen aldi berean elkarrekiko sentsazioa espirituzko lasaitasun sakonaren oste-sentimendua eta nahimenaren isiltze osoa hartzen ditugu, zeinak beharrezko baitziren, ezagutza horrela gauzaki guztiz bizigabe haietan murgildu eta horiek horrelako maitasunarekin, hemen horrelako objektibitate-mailarekin kontzebitzeko. - Benetako paisaje-pinturaren efektua zinez bere osotasunean mota horretakoa da: soilik aurkezturiko ideiak nahimenaren objektitatearen maila garai gisa garrantzitsu eta esanguratsuagoak direlako, horrela gehiago agertzen da plazer estetikoaren alde objektiboa eta subjektiboaren orekari eutsi egiten dio. Ezagutza hutsa horrelako den heinean ez da jadanik garrantzitsuena; baizik ahalmen berarekin eragiten du ideia ezagutuak, munduak errepresentazio gisa nahimenaren objektibazioaren maila esanguratsu batean.

Baina oraindik maila askozaz garaiagoa jartzen du agerian animalien pinturak eta eskulturak, eta azken horretaz antzinako hondakin esanguratsuak ditugu, adibidez, zaldiak, Venezian, Monte Cavallon, elgindar erliebeetan, Florentzian brontze eta marmolean, antzinako basurdea bera, otso ulukariak, gainera lehoiak Veneziako Armategian, Vatikanon bertan ere areto oso bat animalia zaharrenez betea eta abar. Aurkezpen horietan plazer estetikoaren alde objektiboak nagusitasun deliberatua hartzen du subjektiboaren aldean. Ideia horiek ezagutzen dituen subjektuaren lasaitasuna, bere nahimen propioa behartu duenarena, hemen ere edozein kontsiderazio estetikotan bezala gertatzen da: baina ez da bere efektua sentitzen; zeren aurkezturiko nahimenaren egonezinak eta bizikortasunak lanpetzen baikaitu. Nahi izate hori da, gure funtsa ere eratzen duena, hemen begien aurrean taxutan agertzen zaiguna, zeinetan bere agerpena gudan bezala ez baita gogoetak menderatu

eta bigundua, baizik ezaugarri gogorretan eta groteskoa eta munstrozkoa izateraino iristen den argitasun batez aurkeztua, horregatik beragatik estalkirik gabe, xalo eta zabal, libreki agerian egonez, eta horretan datza hain zuzen animaliekiko gure interesa. Espezieen ezaugarria jadanik landareen aurkezpenean ageri zen, baina formetan bakarrik han: hemen askoz esanguratsuagoa da eta ez da taxuan bakarrik adierazten, baizik egintzan, posizioan eta keinuan, baina beti motaren karakter gisa bakarrik, ez banakoarena.- Maila garaiagoko ideien ezagutza hori, guk pinturan bitartekaritza arrotzaren bitartez jasotzen duguna, bitartegabeki ere jaso dezakegu landareen begiespen kontenplatibo hutsez eta animalien behaketa, eta azken horiei dagokienez, beren egoera libre, natural eta erosoan. Beren taxu miresgarri eta askotarikoen eta beren egintza eta bulkaden kontsiderazio objektiboa naturako liburu handiaren lezio irakasgarria da, egiazko signatura rerum-aren²¹ deszifratze bat da: horretan nahimenaren manifestazioaren askotariko maila eta erak ikusten ditugu, zeina izaki guztietan bat eta bera baita, zeinak edonon gauza bera nahi baitu, bizitza, existentzia bezala objektibatzen baita hain aldaketa amaigabea, hain taxu desberdinetan, zeinak guztiak kanpoko baldintza desberdinetara moldatzeak baitira, gai beraren bariazio askorekin konpara daitezkeenak. Baldin eta behatzaileari horien barneko esentziari buruzko ondorioa oraindik erreflexiorako eta hitz batean komunikatu nahi bagenio; orduan hoberena sanskriterazko formula erabiltzea izango genuke, zeina hinduen liburu santuetan horrela sarritan agertzen baita eta , hitz handi baiteritzo: , h. d.: .

§ 45

Nahimenak bere objektibazioaren mailarik gorena lortzen duen ideia bitartegabe eta begiesgarriki aurkeztea da, azkenik, historia-pinturaren eta eskulturaren eginkizun handia. Ederrak sortzen duen pozaren alde objektiboa erabat nagusia da hemen eta subjektiboa atzean gelditzen da. Gainera kontsideratu behar da horren azpiko hurrengo mailan, animalia pinturan karakteristikoa dena bat eginik dagoela ederrarekin: lehoi, otso, zaldi, ardi, zezen gehien karakteristikoak ziren ederrenak ere. Horren arrazoia animaliek espezie-karakterra bakarrik izatean datza, ez karakter indibiduala. Gizakiaren aurkezpenean, ordea, bereizi egiten dira espezie-karakterra eta banakoaren karakterra: hari edertasuna deitzen zaio (erabat zentzu objektiboan), honek karakter edo adierazpen izena hartzen du, eta biak aldi berean banako berean perfektuki aurkeztearen zailtasun berria sartzen du.

Giza edertasuna adierazpen objektibo bat da, zeinak nahimenaren objektibazio perfektuena bere ezagugarritasunaren mailarik gorenean izendatzen baitu, gizakiaren ideia oro har, forma begietsian osoki adierazia. Baina hemen ederraren alde objektiboa agertzen den bezala; horrela gelditzen da subjektiboa horren lagun betiko gisa: eta nola ezein objektuk ez gaituen eramaten begiespen estetiko hutsera giza aurpegiak eta taxuak bezain bizkor, zeinak begiratzean aldiune batean esan ezinezko ongizateak hartzen baikaitu eta gure buruaren eta tormentatzen gaituen guztiaren ginetik jasotzen baikaitu; horrela hori honengatik bakarrik da ahalgarri, nahimenaren ezagugarritasun argi eta garbien horrek ezagutza hutsaren egoeran erraz eta bizkorren jartzen gaituelako, zeinean gure nortasuna, gure nahi izatea bere betiko tormentuarekin desagertu egiten baita, poz estetiko hutsak dirauen bitartean; horregatik dio Goethek: - Naturak giza taxu eder bat lortzen duenean, horretaz azaldu behar dugu, nahimenak, maila goren horretan norbanako batengan objektibatu den heinean, zirkunstantzia zorionekoen eta bere indarraren bitartez eragozpen

guztiak eta erresistentzia perfektuki menderatzen dituela, zeinak maila behereko nahimen-agerpenek kontrajartzen baitizkiote, eta zeinen indar naturalak baitira, eta zeinari dagokion materia guztia beti lehenik hartu eta kendu behar baitio. Gainera nahimenaren agerpenak goiko mailetan beti askotarikotasuna du bere forman: jadanik zuhaitza ezin zenbatu ahaleko zuntz errepikatuzko agregatu sistematiko bat besterik ez da; osaera hori gero eta goragora doa, eta giza gorputza atal erabat desberdinen sistema arras konbinatu bat da, zeinetako bakoitzak, vita propria bat, bizitza osotasunari subordinatua baina guztiz propioa baitauka: alabaina, atal horiek era egokian osotasunari subordinatuak eta elkarrekiko koordinatuak izatea, harmonikoki osotasunaren aurkezpenean konspiratzea, ez da gehiegizkoa, ez da bortxatua - horiek guztiak baldintza bakanak dira, zeinen emaitza edertasuna, perfektuki markaturiko espezie-karakterra baita. - Horrela jokatzeko du naturak. Nola, ordea, arteak? Naturaren imitazioz, esan ohi da. - Baina nola berrezagutuko luke artistak obra lortu eta imitatu beharrekoa, eta nola aurkituko luke hori lortugabekoen artean; esperientziatik ederra aitzinatzen ez badu? Gainera, inoiz sortu al du naturak atal guztietan perfektuki ederra den gizakirik? - Horri buruz esan izan da artistak gizaki partikular askorengan banaturiko atal ederrak bilatu eta horiekin oso eder bat eratu behar duela: iritzi zentzugabe eta aldrebasa. Zeren galde bailiteke nola ezagutuko duen forma batzuk ederrak direla eta besteak ez. - Halaber ikusten dugu zeinen urrun joan diren edertasunean alemaniar pintore zaharrak naturaren imitazioaren bitartez. Beha bitez horien figura biluziak. - A posteriori soilik eta esperientzia hutsez ezinezkoa da ederraren ezagutza: hori beti, atal batean gutxienez, a priori da, nahiz eta arrazoiaren printzipioaren taxuera a priori jakinekin alderatuta zeharo beste mota batekoa izan. Horiek duten zerikusia agerpenaren forma orokorrarekikoa da, horrelakoa den heinean, berak ezagutzaren ahalgarritasuna oro har, agertzearen nola orokor, salbuespengabea nola oinarritzen duen, eta ezagutza horretatik matematika eta natur zientzia hutsa nola sortzen den: aitzitik, beste a priori ezagutza-mota hark, ederraren aurkezpenean ahalbidetzen duenak, agerpenaren formarekin ez baizik edukiarekin du zerikusia, agerpenaren nola-rekin beharrean zer-ekin. Guk guztiok giza edertasuna berrezagutzea, bera ikusten dugunean, hori benetako artistarengan halako klarutasunarekin gertatzen da, non berak inoiz ikusi ez duen bezala erakusten baitu, eta gainditu egiten natura haren aurkezpenean; hori hemen nahimena, bere objektibazio egokiaren mailarik gorenean epaitu eta aurkitu behar delako, are gugeu garelako bakarrik da ahalgarri. Horren bitartez bakarrik daukagu izatez natura (zeina nahimena baita, gure esentzia propioa eratzen duena) aurkezten ahalegintzen denaren aitzinapen bat; aitzinapen hori, benetako genioarengan, gauza partikularretan horien ideia berrezagutzen laguntzen dion bereizmen-mailaz lagundurik dago, nolabait natura hitz-erdika ulertzen eta argiro adierazten du, berak hitz-totelka esandakoa, formaren edertasuna, mila ahaleginetan lortu gabea, marmol gogorrari ezartzen dio, naturari aurrez aurre jartzen diola, nolabait goraki esanez: , eta erantzuten dio ezagutzailearen oihartzunak. - Horrela bakarrik aurkitu ahal izan zuen greko genialak giza taxuaren prototipoa eta eskulturako eskolako kanon gisa ezarri; eta horrelako aitzinapenaren indarrez bakarrik zaigu ahalgarri, ederra, naturak banaka errealki lortu duena berrezagutzea. Aitzinapen hori ideala da: ideia da, gutxienez erdizka, a priori ezagutua den heinean, eta horrelakoa den heinean a posteriori naturak emandakoaren bitartez osatuz onartua delarik, artearentzat praktiko bihurtzen da. Ederraren horrelako a priori aitzinapen baten ahalatasuna artistarengan, baita a posteriori bere berrezagutza ezagutzailearengan, artista eta ezagutzailea naturaren berbaitangoa, bere burua objektibatzen duen nahimena bera izatean datza. Zeren Enpedoklese esan zuenez,

berdinak bakarrik ezagutzen baitu berdina: naturak bakarrik ezagut dezake bere burua; naturak bakarrik araka dezake bere burua: baina espiritua ere espirituak bakarrik hauteman dezake²².

Xenofonteren Sokratesek adierazitakoa izan arren, iritzi aldrebesa da (Stobaios, vol. 2, p. 384) grekoek giza edertasunaz finkatutako ideala erabat enpirikoki aurkitu zutelakoa atal partikular ederrak bilduz, hemen belauen bat, hain beso bat aurkituz eta ohartuz, eta gainerakoan erabat antzekoa da poesiari dagokionez, adibidez, Shakespearek bere drametan ezin zenbatu ahal karakter askotarikoak, hain egiazkoak, hain sustengatuak, hain sakonetik landuak bere bizitzako esperientzia propioz ohartu eta gero eman zituelako ustea. Uste horren ezintasun eta absurdukeriak ez du inolako azalpenik behar: agerian dago, genioak arte plastikoaren obra ederraren aitzinapen susmatzaile baten bitartez sortzen duen bezala, horrela poesiaren obra ere karakteristikoaren antzeko aitzinapenez bakarrik egin daiteke; nahiz eta biek esperientziaren beharra duten eskema gisa, zeinean a priori ilunki kontziente zaien hura bakarrik argitasun betera ekarrarazi eta aurkezpen hausnartuaren ahalatasuna aurrerantzean agertzen baita.

Giza edertasuna lehen azaldu da nahimenaren objektibazio perfektuena bezala, bere ezagugarritasunaren maila gorenean. Formaren bitartez adierazten du bere burua: eta hori espazioan bakarrik datza eta denborarekin ez du beharrezko harremanik, adibidez, higidurak duen bezala. Horregatik esan dezakegu: nahimenaren objektibazio egokia agerpen espazial soil baten bitartez edertasuna da zentzu objektiboan. Landarea nahimenaren horrelako agerpen espazial soil bat besterik ez da; zeren bere esentziaren adierazpenari ez baitagokio higidurarik eta ondorioz denborarekiko inolako harremanik (bere garapenaz aparte): bere taxu soilak adierazten du bere esentzia osoa agerian jarritz. Baina animaliak eta gizakiak beren baitan agertzen den nahimena osoki agerian jartzeko egintza-sail bat behar dute, zeinaren bitartez agerpen horrek haietan denborarekiko harreman bitartegabea baitu. Hori guztia aurreko liburuan jadanik aztertutik dago: oraingo gure kontsiderazioari ondorengoarengatik lotzen zaio. Nahimenaren agerpen espazial soilak hori maila determinatu bakoitzean perfektuki edo inperfektuki objektiba dezakeen, edertasuna edo itsusitasuna eratzen duena bezala; horrela nahimenaren objektibazio tenporalak, egintzak, eta hain zuzen bitartegabeak, horrela higidurak, hartan objektibatzen den nahimenari garbiro eta perfektuki erantzun diezaioke, arrotza denik nahastu gabe, gehiegizkorik gabe, gabeziarik gabe, une hartako nahimen-egintza determinatua zehazki adieraziz – edo hori guztia alderantziz gerta daiteke. Lehen kasuan higidura graziarekin gertatzen da; bestean horrelakorik gabe. Edertasuna nahimenari dagokion aurkezpena oro har bere agerpen espazial soilaren bitartez den bezala; horrela grazia nahimenari dagokion aurkezpena da bere agerpen tenporalaren bitartez, nahimen-egintza bakoitzaren adierazpen guztiz zuzen eta egokia, bera objektibatzen duten higidura eta posizioaren bitartez. Higidurak eta posizioak gorputza suposatzen dutenez gero; horrela Winckelmannen adierazpena oso zuzen eta egokia da honako hau dioenean: (Obrak, libkia 1, 258 or.). Berez dator, landareei edertasuna bai baina graziarik ezin egotzi ahal izatea, zentzu figuratuan izan ezik; animaliei eta gizakiei, berriz, biak, edertasuna eta grazia. Esandakoaren arabera grazia higidura eta posizio oro modurik erraz, egoki eta erosoenean burutzean datza eta horren arabera bere asmoari edo nahimen-egintzari dagokion adierazpen hutsa izatean, gehiegizkorik gabe, helburuaren kontrako, zentzugabeko maniobrarik gabe, posizio aldrebesik gabe, akatsik gabe, zuraren zurruntasunik gabe aurkezten dena. Graziak atal guztien proportzio egokia, soin-egitura erregular, harmonikoa suposatzen du

bere baldintzatzat; zeren horren bidez bakarrik baita ahalgarri arintasun perfektua eta begibistako helburuzkotasun bat posizio eta higidura guztietan: horrela grazia ezinezkoa da soinaren edertasunaren halako maila bat gabe. Biak perfektuki eta bateraturik nahimenaren agerpenik argiena dira bere objektibazioaren mailarik gorenean.

Gorago esan denez, gizadiaren ezaugarria da espeziearen karakterra eta banakoarena bereiztea, halako moldez, non aurreko liburuan esan denez, gizaki bakoitzak nolabait ideia guztiz berezi bat aurkezten baitu. Gizadiaren ideia aurkeztea helburu duten arteek, espeziearen karakterra den edertasunarekin batera, norbanakoaren karakterra dute egitekotzat, zeinari deitzen baitzaio hobespenez karakter; baina hori ez zerbait kontingentea bezala norbanakoari bere partikulartasunean erabat berezi gisa egozten zaiona, baizik hain zuzen norbanako horrengan batik bat agertzen den gizadiaren ideiarekin aldea bezala, zeina agerian jartzeko horren aurkezpena helburuari zerbitzatzen diona baita. Horregatik, karakterrak, nahiz eta horrelakoa den heinean indibiduala izan, hala ere idealki, bere garrantzia nabarmenduz gizadiaren ideiarekiko ikuspegian oro har (zeinaren objektibaziorako ekarpena egiten baitu bere erara) kontzebitu eta aurkeztua izan behar du: horrezaz kanpo aurkezpena erretratua da, partikularren errepikapena horrelakoa den heinean kontingentzia guztiekin. Eta erretratuak berak ere, Winckelmannek dioenez, norbanakoaren ideala izan behar du.

Idealki kontzebituriko karakter hori, zeina gizadiaren ideiarekin alde berezi baten nabarmentzea baita, ikusteko eran aurkezten da, bai fisiognomia eta gorpuzkera iraunkorraren bitartez, bai afektu eta grina iragankorraren, ezagutzearen eta nahi izatearen elkarrekiko modifikazioaren bitartez, hori guztia keinuan eta higiduran adierazten delarik. Norbanakoa beti gizadiari dagokionez eta bestalde gizadia beti norbanakoagan eta horren esanguratasun ideal bereziarekin agerian jartzen denez gero; edertasuna ez dago karakterraren bitartez ezabatzerik, ezta hau haren bitartez ere: zeren espezie-karakterra norbanakoarenaren bitartez ezabatzeak karikatura emango bailuke, eta indibidualarena espezie-karakteraren bitartez ezabatzeak garrantzigabezia. Horregatik aurkezpena, edertasun bihurtzen duenean, eskulturak nagusiki egiten duenez, beti hori (espezie-karakterra) karakter indibidualak modifikaturik eta gizadiaren ideia beti era determinatu, indibidual batean adierazten du, horren alde berezi bat nabarmenduz; zeren giza banakoak horrelakoa den heinean nolabait ideia propio baten duintasuna du eta gizadiaren ideiarekin ere esentzial zaio garrantzi propioko banakoengan aurkeztua izatea. Horregatik aurkitzen dugu antzinako obretan haiek argi kontzebituriko edertasuna ez taxu bakarraren bitartez adierazia, baizik karakter desberdin ugari dituztenez, nolabait beti beste alde batetik atzemana, eta horren arabera modu batera aurkeztua Apologan, beste batera Bakogan, beste batera Herkulesengan, beste batera Antinoorengan: areago karakteristikoak mugatu egin dezake ederra eta azkenik itsusitasuneraino eramanez Sileno mozortuan, Faunoan eta abarretan. Karakteristikoa dena espeziearen karakterra errealki ezabatzeraino iristen bada, horrela ez-naturala denaraino; orduan karikatura bihurtzen da. - Baina edertasunari berari baino oraindik askozaz gutxiago kalte egin lekiok grazia karakteristikiaren bitartez: zeina posizio eta higidura karakterraren adierazpenak eskatzen baitu; horiek pertsonari dagozkion erarik egokien, helburuari atxiki eta errazenean burutu behar dira. Hori ez du eskultore eta pintoreak bakarrik kontuan izan behar, baita edozein aktore onek ere: bestela hemen ere karikatura sortuko da bihurritze, deslektze gisa.

Eskulturan edertasuna eta grazia dira garrantzitsuenak. Espirituaren karakter propioa, afektuan, grinan, ezagutza eta nahi izatearen elkarjokoan agertzen dena, aurpegiaren eta keinuen adierazpenez bakarrik aurkez daitekeena, da nagusiki pinturaren jabetza. Zeren nahiz eta begiak eta koloreak eskulturaren eremuaz kanpo egon, ekarpen handia egiten baitiote edertasunari; horrela karakterrerako oraindik askozaz esentzialagoak dira. Gainera edertasuna osoago garatzen da kontsideraziorako ikuspuntu batetik baino gehiagotatik: aitzitik, adierazpena, karakterra, ikuspuntu bakarretik perfektuki kontzebi daiteke.

Edertasuna eskulturaren helburu nagusia nabarmen delarik Laokoontek ez oihu egitearen gertakaria azaltzen ahalegindu da Lessing oihu egitea eta edertasuna ezin direla batu esanez. Nola Lessingi objektu hori liburu propio baterako gai edo gutxienez loturagune bihurtu zaion, eta horren aurretik eta ondoren horretaz hainbeste idatzi delarik; zilegi bekit, bidenabar, hemen horri buruzko neure iritzia azaltzea, nahiz eta azterketa hain berezia ez den inola ere orokorrera zuzenduriko gure kontsiderazioen barruan benetan sartzen.

§ 46

Laokoontek, talde ospetsuan, ez duela oihu egiten nabaria da eta horri buruz behin eta berriz errepikatzen den harridura orokorra, beraz, bere egoeran guk guztiok oihu egingo genuelakotik dator: eta horrela eskatzen du naturak ere; zeren min fisiko gogorrean eta bat-batean agerturiko beldur fisiko handiengan erreflexio oro, jasamen isil bat ezar lezakeena, erabat baztertzen da kontzientziatik eta natura oihuen bidez asaskatu egiten da, aldi berean mina eta beldurra adieraziz, salbatzaileari deituz eta erasotzailea izutuz. Jadanik Winckelmannek sentitu zuen, beraz, oihuaren adierazpenaren falta: baina artistaren justifikazioa bilatzen zuen bitartean, Laokoonte benetako estoiko bihurtu zuen, zeinek bere duintasunarekiko egokitza ez baitauka, secundum naturam oihu egitea, baizik haren minari horren adierazpena estaltzearen hertsapen onuragabea ezartzen baitio: horregatik Winckelmannek berarengan ikusten du «gizon handi baten espiritu frogatua, tormentuekin borrokan aritu eta sentsazioaren adierazpena menderatu eta bere baitan ixtea bilatzen baitu: ez da oihu ozenak eginez Virgilioren kasuan bezala aritzen, baizik hasperen artegek soilik ihes egiten diote eta abar (Obrak, 7. libkia, 98. or.) – Hori berori zehatzago (6. libkia, 104 eta hh. or.). Winckelmannen iritzi hori kritikatu egiten zuen gero Lessingek bere Laokoonten eta zuzendu egin zuen goian adierazitako eran: arrazoi psikologikoaren lekuan estetiko hutsa ezarri zuen, edertasunak, antzinako artearen printzipioak oihuaren adierazpena ez duela onartzen. Beste argudio batek, berak gehitzen duenak, arte-obra higiezinan egoera erabat iragankorrak, iraupenerako gai ez direnak, aurkezterik ez dagoelakoak, figura bikainen ehunka adibide ditu bere kontra, zeinak mugimendu guztiz iheskorretan, dantzan, borrokan, lasterkan eta abar finkaturik baitaude. Goethek berak Laokoonteri buruzko artikuluan, -en (8. or.) sarreran dagoen horretan, beharrezkotzat dauka horrelako momentu guztiz iragankor baten aukera egitea. – Gure egunotan Hirtek erabaki du ("Entzun» 1797, 7. zatia), dena adierazpenaren egia gorenera bideratuz, Laokoontek oihu egiten ez badu, itota hiltzeko zorian dagoelako dela. Azkenik Fernowek (1. libkia, 426. or. eta hh.) hiru iritzi horiek aztertu eta haztatu egin ditu; nahiz eta berak berririk ez gehitu, hiru horiek adostu eta bateratu egiten ditu.

Derrigor harritu beharra daukat gizon hain hausnartzaile eta zorrotzek kostata arrazoi askiekak urrunetik arrastaka ekartzea, argudio psikologiko, eta are fisiologikoak hartzea oso hurbil dagoen eta aurreiritzirik gabearentzat begibistakoa den gauza baten arrazoiak azaltzeko - eta bereziki Lessingek, zein hainbeste hurbildu baitzen azalpen zuzenera, nahiz eta benetako puntuan ez jo.

Ikerketa psikologiko eta fisiologiko guztien aurretik, Laokoontek bere egoeran oihu egingo duen ala ez, nik gainerakoan erabat baieztuko bainuke, taldearekiko ikuspegian erabakitzea da, oihu egitean hartan ezingo litzatekeela aurkeztu, horren aurkezpena erabat eskulturaren eremutik kanpo gelditzearen arrazoiarengatik bakarrik. Ezingo litzateke marmolez oihuka ari den Laokoonte bat burutu, baizik ahoa irekitzen duen eta alferrik oihu egiten ahalegintzen den Laokoonte bat bakarrik, zeini ahotso eztarrian trabaturik gelditu baitzaio, . Oihu egitearen esentzia eta ondorioz efektua behatzailearentzat, hotsean bakarrik datza, ez ahoa irekitzean. Oihu egitearekin derrigor batera joan behar duen azken fenomeno hori, horrela buruturiko hotsaren bitartez bakarrik motibatu eta justifikatu behar da: orduan egintzarentzat karakteristiko, komenigarri eta are beharrezko da, nahiz eta edertasunari kalte egiten dion. Arte plastikoan bakarrik, zeinarentzat oihu egitearen aurkezpena guztiz arrotz eta ezinezko baita, oihu egiteko bitarteko indartsua, hazpegi guztiak eta gainerako adierazpen guztiak asaldatzen dituen, ahoa irekitzea aurkeztea errealki ulertezina litzateke; zeren orduan begien aurrean sakrifizio ugari eskatzen duten materialak jarriko bailituzke, eta bitartean horren helburua, oihu egitea bera, aldi berean horren aldartearekiko efektua lortzeke geldituko litzateke. Are gehiago, porrot egin duen ahalegin baten itxura irrigarria sortuko luke, pailazo batek egingo lukeenarekin errealki konpara daitekeena, lotan dagoen gauzainari adarra ezkoz erabat trabatu eta gero su-oihuekin esnatuko balu eta hark adarrari putz egitean alferrikako ahaleginez olgatuko balitz. - Aitzitik, oihuaren aurkezpena arte aurkezleen eremuan datzan tokian, erabat onargarria da, zeren egiari zerbitzatzen baitio, ideiarenean aurkezpen osoari. Horrela poesian, zeinak aurkezpen begiesgarriarako irakurlearen fantasia kontuan hartzen baitu: horregatik oihu egiten du Virgiliorengan Laokoontek aizkorak jo ondoren lokarriak eten dituen zezen baten modura: horregatik Homerok Marte eta Minervari era oso lazkarrian oihu eragiten die, nola beren jainko-duintasunari hala jainko-edertasunari kalterik egin gabe. Gauza bera gertatzen da antzerkian: Laokoontek agertokian oihu egin beharko luke noski; Sofoklesek ere oihu eragiten dio Filoktetesi, eta agertoki zaharrean ere seguraski oihu egingo zuen. Oso antzeko kasu batez oroitzen naiz, Londresen, alemanieratik itzulitako antzerki batean, Kemble antzesle sonatua, Rolla amerikarra antzezten nola ikusi nuen: erdi-basatia baina oso karakter noblekoa zena: hala ere, zauritu zutenean, ozen eta biziki egin zuen oihu, eta hori efektu handi eta bikainekoa izan zen, zeren guztiz karakteristiko gisa ekarpen handia egiten baitzion egiari. - Aitzitik, oihu-egile mutu bat, pintatua edo harrizkoa, askozaz irrigarriagoa izango litzateke musika pintatua baino, zeina jadanik Goethek en kritikatu baitzuen; zeren oihu egiteak gainerako adierazpenari eta edertasunari askozaz kalte handiagoa egiten baitio musikak baino, zeinak gehienetan eskuak eta besoak bakarrik lanpetzen baititu eta pertsona ezaugarritzen duen egintzatzat hartzen baita, eta zentzu horretan oso egoki pinta daiteke, soinen higidura zakarrik edo ahoaren bihurritzerik ez baitu eskatzen: horrela, adibidez, Santa Zezilia organoan, Raffaelen Erromako Sciarra Galerian eta abar. - Artearen mugengatik Laokoonteren mina oihuen bitartez adierazterik ez zegoenez gero, artistak horren beste adierazpenak higiduran jarri behar izan zituen: eta hori burutzapenik

gorenean lortu zuen, Winckelmannek (Obrak, 6. libkia, 104 eta hh. or.) hain maisukiro deskribatzen duenez, horregatik haren deskribapen bikainak bere balio eta egia guztiari eusten dio, baldin eta ikuspegi estoikoaren menpetik abstrahitzen bada²³.

§ 47

Edertasunak, graziarekin batera eskulturaren objektu nagusia denez gero, biluzia maite du eta formak ezkutatzen ez dituen neurrian jasaten ditu jantziak. Jantziduraz ez da baliatzen estalki batez bezala, baizik formaren aurkezpen bitartedun batez bezala, zeinaren aurkezteko erak asko lanpetzen baitu adimena, kausaren begiespena, soinaren formara bitartegabe emandako efektuaren, jantzien tolesduren bitartez bakarrik iristen baita. Horrela, bada, jantzidura da eskulturaren nolabait, pinturan eskortzoa dena. Biak argibideak dira, baina ez sinbolikoak, baizik lortuak direnean, adimena bitartegabe behartzen dutenak argitua, errealki emana balitz bezala behatzera.

Zilegi bekit hemen bide nabar arte oratorioari buruzko konparazio bat sartzea. Soin-forma ederra jantzidurarik arinenarekin edo batere gabe egokien bistaratzen den bezala, eta horregatik oso gizaki eder bat, eta aldi berean gustua izango balu eta horri jarraitu ahal izango balio, gogaraen ia biluzik, eta izatekotan ere antzinakoen erara jantzita ibiliko litzatekeenez -era berean espiritu eder eta burutapentsuak erarik natural, artez eta sinpleenean adieraziko du bere burua, ahalgarri bada behintzat, bere pentsamenduak beste batzuei komunikatzera beharturik dagoenean, horren bitartez hau bezalako mundu batean sentitu behar dugun bakardadea arintzeko: alderantziz, espirituzko pobrezia, nahaste-borrastea, lausotasuna adierazpen bilatu eta esamolde ilunenez jantzen dira, horrela esaldi zail eta ponpeziatzotan pentsamendu txiki, kaxkar, zozo edo egunerokoak estaltzeko, nola edertasunaren maiestateak ihes egiten diolako gabezia hori jantziez ordeztu nahi duenak bezala eta apaindura barbaro, sasi-urre, luma, iduneko, eranskari eta mantuen azpian bere pertsonaren kaxkarkeria eta itsusikeria estaltzen ahalegintzen da. Horrelakoa bezain durduzaturik aurkituko litzateke, biluzik ibili beharko balu, autore bat baino gehiago, bere liburu hain ponpeziatsu iluna eduki labur klaruan itzultzera behartuko balute.

§ 48

Historia-pinturak edertasuna eta graziarekin batera karakterra dauka bere gai nagusitzat, zeinaren azpian nahimenaren aurkezpena ulertu behar baita bere objektibazioaren mailarik gorenean, non norbanakoak gizadiaren ideiarekin alde berezi baten nabarmentze gisa esangurazkotasun berezia baitu eta hori taxu soilaren bitartez ez ezik edozein motatako egintzaren eta bera eragin eta laguntzen duten ezagutze eta nahi izatearen modifikazioen bitartez, keinu eta jarreretan ikuskor ezagutarazten baita. Gizadiaren ideia testuinguru honetan aurkeztua izateko bere aniztasunaren destolespena norbanako esanguratsuengan jarri behar da begien aurrean, eta horiek beren esangurazkotasunean eszena, prozesu eta egintza askotarikoen bitartez bakarrik ikusaraz daitezke. Amaigabeko eginbehar hori historia-pinturak era guztietako bizitzako eszenak, esangurazkotasun handiko eta txikikoak begien aurrean jartzearen bidez burutzen du. Ezein banako eta ezein jardura ezin liteke garrantzirik gabea izan: guztiengan eta guztien bitartez garatzen da gero eta

gehiago gizadiaren ideia. Horregatik ez dago giza bizitzako ezein prozesu pinturatik baztertzerik. Ondorioz, herbeheretar eskolako pintore bikainei bidegabekeria handia egiten zaie, beren trebetasun teknikoaren soilik aintzatetsi bai baina gainerakoan gutxietsiz begiratzen zaienean, gehienetan bizitza arrunteko objektuak aurkezten zituztelako, aitzitik mundu-historiako gertaerak edo historia biblikoak bakarrik hartzen dira esangurazkotzat. Baina lehenik gogoeta egin beharko genuke egintza baten barne esangurazkotasuna zeharo desberdina dela kanpokoaren aldean, eta sarritan biak elkarrekiko bereizirik ibiltzen direla. Kanpoko esangurazkotasuna egintza baten munta da horren ondorioekiko harremanean mundu errealearentzat eta mundu errealean; horrela arrazoiaren printzipioaren arabera. Barneko esangurazkotasuna ulermenaren sakontasuna da gizadiaren ideian, zeinak irekitzen baitu, ideia horren alde gutxiagotan agertuak argitara ekarri, argiro eta deliberatuki beren burua adierazten duten indibidualitateak helburuari begira ezarritako zirkunstantzien bitartez haren berezitasunak gararaziz. Barneko esangurazkotasunak bakarrik balio du artean: kanpokoak historian balio du. Biak erabat independenteak dira elkarrekiko, batera ager daitezke, baina bakoitza bakarrik ere ager daiteke. Historiarako esangura handieneko egintza bat oso eguneroko eta arrunta izan liteke barneko bere esangurazkotasunean: eta alderantziz eguneroko bizitzako eszena bat barne-esangurazkotasun handiagokoa izan daiteke, baldin eta horretan giza banakoak eta giza egintza eta nahi izatea tolesdurarik ezkutueneraino argi klaru eta garbian agertzen badira. Kanpoko esangurazkotasun oso desberdinekoetan ere izan daitezke barnekoak berdinak, eta berak, horrela, adibidez, horientzat berdina balio du, ministroek mapen gainean lurralde eta herriengatik borrokan aritzeak edo baserritarrek tabernan karta eta dardoen gainean bata besteari beren eskubidea ezarri nahi izatea; urrezko zein zurezko figurekin xakean jokatzeko den bezala. Gainera, hainbeste milioi gizakiren bizitzak eratzen dituzten eszenak eta prozesuak, horien egintza eta bulkadak, horien premiak eta pozak jadanik aski garrantzitsuak dira artearen objektu izateko, eta beren askotarikotasun aberatsaren bitartez gizadiaren ideia aldean itza garatzeko aski gai eman behar dute. Are gehiago, aldiunearen iheskortasunak berak, zeina arteak horrelako koadro batean (gaur egun deituan) finkatu baitu, emozio arin, berezi bat eragiten du: zeren mundu iheskorra, etengabe eraldatzen ari dena, prozesu partikularretan, zeinek hala ere osotasuna ordeztzen baitute, koadro iraunkorretan finkatzea pintore-artearen egitekoa da, zeinaren bitartez denbora geldiarazi egiten dela baitirudi, partikularra bere espeziearen ideiaraz jasotzen delarik. Azkenik, pinturaren gai historiko eta kanporako esangurazkoa dutenek sarritan eragozpena izaten dute horien esangurazkoa begiesgarriki aurkeztgarria ez izatearena, baizik eta pentsatua izan behar izatearena. Ikuspegi horretatik desberdindu egin behar dira oro har koadroaren esangura nominala eta erreala: lehena kanpokoak da, baina kontzeptu gisa bakarrik gehitzen zaiona, bigarrena gizadiaren ideiaraz aldean, zeina koadroaren bitartez begiespenerako agerian jartzen baita. Adibidez, Moises dela, egiptoar printzesak aurkitua; historiarako oso une garrantzitsua da: aitzitik, esangura erreala, begiespenerentzat errealki emana, haur abandonatua, emakume noble batek sehaska flotakorretik salbatua: behin baino gehiagotan gertatu bide den jazoera. Jantziak bakarrik ezagutaraziko dio jakitunari hemen kasu historiko determinatu hura; baina jantziak esangura nominalerako bakarrik balio du, errealerako axolagabea da: zeren azken horrek gizakia horrelakoa den heinean bakarrik ezagutzen baitu, ez forma hautazkoak. Historiatik hartutako gaiek ahaltsun soiletik hartutakoen aldean, eta horregatik, ez indibiduala baizik izendapen orokorra dutenen aldean ez dute inolako abantailarik: zeren horietan dagoen benetako esangurazkoa ez da indibiduala,

ezta gertakari partikular hori ere horrelakoa den heinean, baizik berbaitango orokorra, gizadiaren ideiarene alde, zeinak horren bitartez bere burua adierazten baitu. Bestalde, objektu historiko determinatuak ere ez dira inola ere baztertzeak: bakarrik benetako interes artistikoa, nola pintorearengan hala behatzailearengan, ez dago inoiz indibidual partikularrean, historia eratzen duen horretan, baizik bere burua adierazten duen orokorrean, ideian. Gainera, horrelako objektu historikoak bakarrik hautatu behar dira, zeinetan gai nagusia errealki aurkezgarria baita eta ez pentsatuz zerbait gehitu beharrekoa: bestela gehiegi urruntzen da garrantzi nominala errealetik: pentsatu soilak bihurtzen da garrantzizkoena koadroan eta kalte egiten dio begietsiari. Agertokian komeni ez bada (tragedia frantsesetan gertatzen denez) gai nagusia bastidore-atzean gertatzea, horrela koadro batean nabarmen askozaz akats handiagoa da. Deliberatuki eragin kaltegarriagoa dute gai historikoek, baldin eta pintorea ez hautaz eta helburu artistikoen arabera baizik beste batzuen arabera hautatutako alorrera mugatzen badute, azkenik baina, alor hori objektu pinturazko eta esangurazkotan pobrea denean, juduena bezalako bazter-herri, ekialdeko eta mendebaleko herri handiek aldi berean mesprezatu txiki, bakartu, setati, hierarkikoa, eromenak menderatu baten historia denean. - Gure eta antzinako herri zahar guztien artean herri-migrazioa dagoen bezala, horrela behialako itsas zolaren aldaketa dago oraingo lur-gainaldearen eta ordukoaren artean, zeinen antolakuntzak harri bihurturik bakarrik azaltzen baitzaizkigu; horrela oro har, zorigaitz handitzat hartu behar da herria, zeinaren iraganeko kulturak nagusiki gurearen euskarri izateko balio izan behar baitu, ez indiarrek edo grekoak edo erromatarrek berak ere ez izatea, baizik judu horiek hain zuzen. Bereziki 15. eta 16. mendeetako pintore italiar genialentzat izar txarra izan da zirkulu estuetan, zeinen despotikoki mendean zeuden proiektuak aukeratzeko, era guztietako miseriak hartu behar izan baitzituzten: zeren Itun Berria bere atal historikoen arabera pinturarako ia Zaharra bera baino desfaboragarriagoa baita, eta horri darraikion martirien eta elizako irakasleen historia objektu dohakabeagoa. Hala ere, judutasun eta kristautasunaren historia eta mitologiako objektuak dituzten koadroen artetik, ongi desberdindu behar dira kristautasunaren propioa, espiritu etikoa begiespenerako agerian jartzen dutenak, espiritu horretaz beterik dauden gizakien aurkezpenaren bitartez. Aurkezpen horiek dira izatez pinturaren egikaritze goren eta miresgarrienak: baina maisu handiek bakarrik, Raffael eta Correggiok, azken horrek bere lehen koadroetan batik bat, lortu dute hori. Mota horretako pinturak ez dago historikoen artean sartzerik: zeren gehienetan ez baitute gertakaririk, egintzarik aurkezten; baizik santuen, Salbatzailearen beraren konposizio soilak dira, sarritan haur gisa, bere amarekin, aingeruekin eta abarrekin. Horien aurpegietan, begietan batez ere, ezagutzarik perfektuenaren errainua ikusten dugu, hots, gauza partikularretara ez, baizik ideietara zuzendurik dagoena, horrela munduaren eta bizitzaren esentzia osoa perfektuki atzeman duena, eta ezagutza horrek haien atzera eraginez nahimenaren baitan, ez dizkio beste haiek bezala motiboak hornitzen, baizik kontrara nahi izate ororen kietibo bihurtu da, zeinatik etsipen perfektua, kristautasunaren espiritu barnekoena eta jakituria indiarra dena, nahi indiarra dena, hortik baitator nahi izate oro baztertzea, atzeraraztea, nahimena eta horrekin mundu honen esentzia osoa ezabatzea, hots, salbazioa. Horrela artearen maisu beti laudagarri haiek beren obren bitartez jakituria gorena begiesgarriki adierazi zuten. Eta hemen dago arte ororen gailurra, zeina nahimena bere objektitate egokian, ideietan, maila guztietan zehar jazartu ondoren, beheenetik, non ere bera kausek, gero, non ere bera kitzikapenek eta azkenik, non ere bera motiboek hainbeste eratara higitu eta bere esentzia

garatzen baitute, azkenik bere autoezabaketa librearen aurkezpenarekin bukatzen da bere esentzia propioaren ezagutza perfektuenetik sortzen zaion kietibo handiaren bitartez²⁴.

§ 49

Arteari buruzko gure orain arteko kontsiderazio guztiek beti egia bat dute oinarritzat: artearen objektua, zeinaren aurkezpena artistaren helburua baita, zeinaren ezagutzak ondorioz bere obratik ernamuin eta iturri bezala irten behar baitu – hori ideia bat da Platonen zentzuan eta ez beste ezer: ez gauza partikularra, kontzepzio komuneko objektua; ezta kontzeptua ere, pentsatze razionalaren eta zientziaren objektua. Nahiz eta ideiak eta kontzeptuak zerbait baduten komunean, biek batasun bezala gauza errealean aniztasun bat ordeztzea; horrela bien arteko desberdintasun handia, lehen liburuan kontzeptuari buruz eta oraingoan ideiari buruz esan denetik, era aski garbi eta argitzailean geratu da. Baina jadanik Platonek desberdintasun hori garbiro kontzebitu zuenik inola ere ez dut baieztatuko: ideien bere adibideetako asko eta horiei buruzko bere azterketak kontzeptuei soilik zaizkie aplikagarri. Bitartean gu hori bere horretan utzi eta geure bide propioetik goaz, espiritu handi eta noble baten aztarnekin topo egiten dugunean pozturik, hala ere ez haren oinatzetara baizik geure helmugari jarraituz. – Kontzeptua abstraktua da, diskurtsiboa, bere esferaren barruan erabat indeterminatua, bere mugen arabera bakarrik determinatua, arrazoimena duen ororentzat lorgarri eta atzemangarria, hitzen bitartez beste bitertekaritzarik gabe komunikagarria, bere definizioaren bitartez osoki agortzen dena.

Kontrara, ideia, edozein kasutan kontzeptuaren errepresentante egoki gisa definitu behar dena, erabat begiesgarria da, eta nahiz eta gauza partikularren multzo amaigabe bat ordeztu, guztiarekin ere erabat determinatua: norbanakoak horrelakoa den heinean ez du inoiz ezagutzen, baizik nahi izate oro eta indibidualitate ororen gainetik ezagutzaren subjektu huts izatera goratu denak bakarrik: horrela genioari bakarrik eta gero gehienetan genioaren obrek erangidako goratzearen bitartez bere ezagumen hutsa aldarte genial batean daukanari zaio lorgarri: horregatik ez da besterik gabe komunikagarria, baldintzatuki baizik, ideia kontzebitu eta artean errepikatuak bakoitzari bere balio intelektualaren neurrian hitz egiten dio; horregatik arte bakoitzeko obrarik bikainenek, genioaren sorkaririk nobleenak gizakien gehiengo kamutsarentzat beti itxitako liburu izango dira eta iristezin, amildegia sakon batez hartatik bereiziak, printzeekiko tratua jende xeheari iristezin zaion bezalaxe. Egia da arruntenek ere obra handitzat aitortuei autoritatez balioa ematen dietela, beren ahulezia ez salatzeke: baina isiltasunean beti prest egoten dira, beren gaitzespen-epaia horien gain botatzeko, hori egin dezaketela espero izaten duten bezain laster, beren buruak agerian jarri gabe, handia eta ederra den ororen, inoiz atsegin izan ez zaien eta horregatik umiliatu ere egin dituen horren aurka gorroto luzaroan eutsia, eta horren egilearen aurka ere bai pozkariotsu asaskatuz. Zeren oro har, inoren meritua nahita eta libreki aitortu eta baliarazteko, nork berea eduki behar baitu. Horretan oinarritzen da modestiaren beharrezkotasuna meritua orotan, baita bertute horren entzute harrigarriro handia, hori bakarrik baita, bere ahizpa guztien artean, nolabait gailenduriko gizon bat gorestera ausartzen den orok beti bere laudorioa eransten diona, adiskidetzeko eta baliogabeziaren amorrua baretzeko. Zer da, bada, modestia umiltasun itxuratua baizik, zeinaren bitartez bekaizkeria zitalez gainezka dagoen mundu batean,

pribilejio eta merituentzat, horrelakorik ez daukaten horien barkamena eskale gisa eskatzea baizik? Zeren norbere buruari batere egozten ez diona, errealki ez daukalako, ez da modestoa, egiatia baizik.

Idea da denbora- eta espazio-formen indarrez gure atzemate begiesgarriaren batasun aniztasunean banatua: aitzitik, kontzeptua gure arrazoimenaren bitartez aniztasunetik berriro osaturiko batasuna: bezala izenda daiteke, lehena bezala. Azkenik kontzeptua eta ideiaren arteko desberdintasuna konparazio modura adieraz daiteke esanez: kontzeptuak ontzi hil bat dirudi, zeinean ezarri dena errealki elkarren ondoan egoten baita, baina zeinatik ezin atera bailiteke (judizio analitikoen bitartez), bertan ezarri dena baino gehiago (erreflexio sintetikoaren bitartez): aitzitik, ideiak bera atzeman duenaren baitan, errepresentazioak gararazten ditu, zeinak horien kontzeptu homonimoen aldean berriak baitira: ideiak organismo ugal-indarrez hornitu, garakor, bizidun, hartan sartu gabe zegoena kanporatzen duen baten antza du.

Esandako guztiaren ondorioz, kontzeptua, bizitzarako hain baliagarria eta horrela erabilgarri dena, beharrezko eta emankorra zientziarako, arterako beti antzua da. Aitzitik, ideia atzemana da arte-obra benetako ororen iturri egiazko eta bakarra. Bere jatorrizkotasun indartsuan bizitzatik bertatik bakarrik, naturatik, mundutik ateratzen da eta benetako genioak edo aldiune baterako genialitateraino inspiratuak bakarrik. Horrelako kontzepzio bitartegabeetatik bakarrik sortzen dira benetako obrak, beren baitan bizi hilezkorra daramatenak. Eta hain zuzen ideia begiesgarria eta dirauena delako, artista ez da in abstracto bere obraren asmoa eta helmugaz kontziente; ez kontzeptu bat, ideia bat dauka begien aurrean; horregatik ezin du bere ekintzaz konturik eman: jendeak esan ohi duenez, sentimendu soilez eta inkontzienteki lan egiten du, are instinctiboki. Aitzitik, imitatzaileak, manieristak, kontzeptutik irteten dira: konturatzen dira zer den gustagarria eta eragingarria benetako obretan, nabarmendu egiten dute, kontzeptuan kontzebitzen dute, beraz abstraktuki, eta imitatu egiten dute, agerian edo ezkutuan, gurarizkotasun zuhurrarekin. Landare bizkarroiek bezala hurrupatzen dute elikagaia inoren obretatik, eta polipoek bezala beren elikagaiaren kolorea izaten dute. Are baieza liteke, konparazioa aurrerago eramanez, makinen antza dutela, barruratu zaiena oso fin birrindu eta bata bestearekin nahastu bai, baina ezin baitute digestiorik egin, horregatik osagai arrotzak beti berriro aurkitzen dira, nahasturan bilatu eta bereizi egin daitezke: genioak bakarrik dirudi kontrara soin organiko, asimilatzaile, eraldatzaile eta ekoizlea. Zeren prozesuek eta horien obrek egiaz sortu eta taxutua baita; baina bizitzak eta munduak berak bitartegabe ernaltzen du begiesgarriaren inpresioaren bitartez: horregatik formazio gorenak ez dio inoiz kalterik egiten originaltasunari. Imitatzaile guztiek, manierista guztiek burutzapen ereduak arrotzen esentzia kontzeptutan kontzebitzen dute, baina kontzeptuek ezin diote inoiz obra bati barneko bizia banatu. Garaikideek, aldiko multzo kamutsak. kontzeptuak bakarrik ezagutzen ditu eta horiei atxikitzen zaizkie, horregatik txalo bizkor eta ozenekin onartzen ditu obra manieristak: obra horiek beroriek hogeitau urte geroago jadanik dastaezinak dira, zeren denbora-espiritua, nagusi diren kontzeptuak aldatu direlako, zeinetan bakarrik ezar baitzitzaketen erroak. Benetako obrek, naturatik, bizitzatik bitartegabe ateratzen direnek bakarrik diraute horiek beroriek bezala beti gazte eta etengabe haserako indarrean. Zeren ez baitira ezein garaitakoak, gizadiarenak baizik: eta hain zuzen ere, beren garaikide propioek, horiek lausengatzen lotsatu egin baitziren, nagi harturik, eta aldiko beren errora

bitartedun eta negatiboki agerian jartzen zutelako, berandu eta gogoz kontrara berrezagutuak izan baitziren; horregatik ere ezin dira zahartu, baizik denbora luzea iragan ondoren ere oraindik gordin eta beti berri hitz egiten dute: gero jadanik ez daude gehiago inoren ahaztearen eta ez-ezagutzearen arriskupean, zeren koroatu eta santzionatu egin baititu judiziorako gaitasuna duten buruen txaloak, zeinak banaka eta urri agertzen baitira mendeetan²⁵, eta beren botoak ematen baitituzte, zeinen astiro haziz doan baturak autoritatea oinarritzen baitu, zeina bera bakarrik baita epaile-aulki hura, geroko mundurako deitua erabakitzen duena. Eta hurrenez hurren agertzen diren bakan horiek dira bakar-bakarrik: zeren geroko munduko masa eta multzoa beti era berean aldrebasa eta kamutsa izango da, eta oraingo munduko masa eta multzoa beti izan den eta beti den bezala geldituko da beti. - Irakur bitez edozein mendetako espiritu handien deitoeak beren aldikideei buruz: gaurkoak balira bezala mintzo ziren; zeren giza generoa beti bera baita. Edozein garaitan eta edozein artetan ordeztu du manierismoak espirituaren lekua, zeina beti partikularren jabetza baita: baina manierismoa azkena existitu eta ezagututako espirituaren agerpenaren jantzi zahar baztertua da. Horren guztiaren arabera, eskuarki, geroko munduaren txaloa oraingo munduaren txaloen lepotik bakarrik lortzen da; eta alderantziz²⁶.

§ 50

Baldin eta arte ororen helburua ideia kontzebituaren komunikazioa bada, zeina bitartekaritza horretan artistaren espirituaren bidez arrotza den guztitik garbitu eta bakartua agertzen baita, aldi berean atzemangarri bihurtzen zaio harmen ahulagoa eta produktibitatearik ez duenari; baldin eta gainera artean kontzeptutik abiatzea baztergarri bada, orduan ezingo dugu onartu, arte-obra bat intentzionalki eta berariaz kontzeptu baten adierazpenera determinaturik badago: hori da alegoriaren kasua. Alegoria arte-obra bat da, aurkeztu duenaz bestelako zerbait esan nahi duena. Baina begiesgarriak, ondorioz ideiak ere bai, bitartegabe eta oso perfektuki adierazten du bere burua, eta ez du aditzera emango duen besteren bitartekaritzarik behar. Horrela, era horretara begiespenaren aurrera ezin delako eramane, zeharo beste batek aditzera eman eta errepresentatuko duena, beti kontzeptu bat da. Alegoriaren bitartez, beraz, beti kontzeptu bat izendatu behar da eta ondorioz behatzailearen espiritua aurkezturiko errepresentazio begiesgarritik zeharo abstraktua, ez-begiesgarria den beste batera gidatu behar da, zeina erabat arte-obraz kanpo baitago: hemen koadroak edo estatuak egin behar du idazkuntzak askozaz perfektukiago egiten duena. Guk hemen artearen helburutzat azaltzen duguna, begiesgarriki bakarrik kontzebitzen den ideiare aurkezteko, hori ez da hemen helburua. Hemen nahi denerako, ez da arte-obraren perfekzio handi bat eskatzen; baizik aski da zein gauza den ikustea, horrela, hori aurkitu delarik, heburua lorturik gelditzen baita eta espiritua orain zeharo bestelako errepresentazio batera, kontzeptu abstraktu batera eramana da, zeina aurrezarritako helmuga baita. Arte plastikoko alegoriak, ondorioz, hieroglifo besterik ez dira: arte-balioa, gainerakoan errepresentazio begiesgarri gisa izan lezaketena, ez datorkie alegoria gisa, beste nonbaitetik baizik. Correggioren, Annibale Carracciren, Poussinen koadro oso ederrak izatea, erabat bereizi behar da horien alegoriak izatetik. Alegoria gisa aski dute inskripzio batekin, eta gutxiagorekin ere bai. Hemen berriro gogora ekarri beharra daukagu esangura erreal eta nominalaren artean lehen egindako bereizkuntza. Hemen nominala alegorikoa da horrelakoa den heinean, adibidez, , erreala, errealki aurkeztua: hemen

gaztetxo hegaldun bat, mutiko ederrez inguratua: horrek ideia bat adierazten du; esangura erreal horrek soilik eragiten du, nominala, alegorikoa ahazten denean: alegorian pentsatzen dugunean, utzi egiten dugu begiespena eta kontzeptu abstraktu batek lanpetzen du espiritua; ideiatik kontzepturako igarobidea erortze bat da beti. Are esangura nominal horrek, asmo alegoriko horrek esangura errealari, egia begiesgarriari sarritan kalte egiten dio: horrela, adibidez, naturaz kontrako argiztapena Correggioren n, zeina hain ederki burutua, hala ere alegorikoki motibatua eta errealki ezinezkoa baita. Baldin horrela koadro alegoriko batek artebalioa badu, orduan hori alegoria bezala burutzen duenetik guztiz bereizia eta independentea da: horrelako arte-obra batek bi helbururi zerbitzatzen die aldi berean, hots, kontzeptu baten adierazpenari eta ideia baten adierazpenari: azkenekoa bakarrik izan daiteke arte-helburu; bestea helburu arrotz bat da, olgeta dibertigarri bat, koadro bat inskripzio baten zerbitzuan, hieroglifo gisa, betearazteko, artearen benetako esentzia inoiz interesatu ez zaien faboretan sortua. Horrekin aldi berean lanabes den arte-obra baliagarri batekin bezala gertatzen da, bi helburutarako zerbitzatzen duela: adibidez, estatua bat, aldi berean ganderailu edo kariatide dena, edo baxuerliebe bat, aldi berean Akilesen ezkutu dena. Artearen adiskide garbiek ez dute onartuko ez bata eta ez bestea. Egia da koadro alegoriko batek propietate horretan bertan inpresio bizia eragin dezakeela gogamenean: baina hori bera eragingo luke zirkunstantzia berdinetan inskripzio batek ere. Adibidez, gizaki baten gogamenean ospearen desira iraunkor eta irmo erroturik badago, ospea bere jabetza bidezkoari bezala begiratzen dion bitartean, zeina orain arte erreserbatu baitzaio, bere jabetzaren dokumentuak oraindik ekoiztu ez dituelako bakarrik: eta horrelakoa ereinotz-koroak ageri dituen ren aurrean jartzen bada; orduan horren gogamena zirikatua eta bere indarra ekintzara deitua sentituko dira: baina gauza bera gertatuko litzateke, baldin eta supituki hitza horman letra handitan eta argiro ikusiko balu ere. Edo gizaki batek bizitza praktikorako maxima gisa edo zientziarako ideia bezala garrantzizkoa den egia bat aurkitu badu, baina inoren federik topatu ez badu; orduan koadro alegoriko batek, beloa jasotzen eta egia biluzia erakusten denbora aurkezten duenak, indarrez eragingo du halakoarengan: baina gauza bera egingo luke dibisak ere. Zeren hemen benetan eragiten duena pentsamendu abstraktua bakarrik baita beti, ez begietsia.

Baldin esandakoaren arabera alegoria arte plastikoan arteari erabat arrotz zaion helburuari zerbitzatzen dion ahalegin akasdu bat bada; horrela erabat jasanezin bihurtzen da, urrunegi joan eta interpretazio bortxatu eta indarrez ateratakoen aurkezpena aldrebeskerian erortzen bada. Horren antzekoa da, adibidez, apo armatu bat emakumearen pudorea aditzera emateko; Nemesiak bere jantzipeco bularretara begiratzea, ezkutatutakoa ere ikusten duela aditzera emanez; Belloriren interpretazioa, Annibale Carraccik atsegintasuna soineko hori batez jantzi zuela, haren pozak laster zimeldu eta lastoa bezala horitu egiten direla aditzera eman nahi zuelako. - Eta gainera aurkeztuaren eta horren bitartez aditzera emandako kontzeptuaren artean ez badago subsuntzioan kontzeptu horren azpian edo ideiei asoziazioan oinarrituriko loturarik; baizik zeinuak eta adierazia erabat kobentzionalki ezarpen positibo, ausaz eragindakoz jartzen badira harremanean elkarrekin: alegoriaren sasi-mota horri sinbolo deitzen diot nik. Horrela arrosa diskrezioaren sinboloa da, ereinotza ospearen sinboloa, palma garaipenaren sinboloa, maskorra erromestahunaren sinboloa, gurutzea erlijio kristauaren sinboloa: horrelakoak dira kolore soilen bidez, horia faltsukeriaren kolore gisa eta urdina fideltasunaren kolore gisa bitartegabe aditzera emateak. Horrelako sinboloak

onuragarriak izan daitezke maiz bizitzan, baina arteari arrotz zaio horien balioa: erabat hieroglifo edota ideograma txinatar gisa hartu behar dira, eta klase berean daude armarriekin edo ostatua aditzera ematen duen belar-azaoarekin, giltzarekin, zeinean txanbelanak, edo larrua, zeinean meatzariak ezagutzen baitira. - Baldin eta azkenik pertsona historiko edo mitiko edo kontzeptu pertsonifikatu jakin batzuk behin betiko finkaturiko sinboloen bitartez ezagutarazten badira; ongi legoke horiei benetan enblema deitzea: horrelakoak dira ebanjelarien animaliak, Minervaren mozoiloa, Parisen sagarralea, esperantzaren aingura eta abar. Eskuarki enblema aurkezpen sinboliko, sinple eta goiburu batez argitua ulertzen da, egia moral bat ikuskaritzen duena, zeinen bilduma handiak aurkitzen baititugu Joachim Camerarius, Alciatus eta beste batzuegan: eta horiek alegoria poetikorako igarobidea eratzen dute, eta horretaz aurrerago hitz egingo da berriro.- Eskultura grekoak begiespenerako joera du, horregatik da estetiko; hindostaniarrak kontzepturako joera du, horregatik da sinboliko soil.

Gure orain arteko kontsiderazioetan artearen barneko esentzian oinarrituriko eta horrekin estuki loturiko alegoriari buruzko judizioa zeharo kontrajarria da Winckelmannen ikuspegiarekiko, zeinek, guk bezala, alegoria artearen helburuarekiko erabat arrotza eta sarritan hura nahasten duen zerbait bezala azaltzetik oso urrun, toki guztietan horren alde hitz egiten du, are (Obrak, 1. libkia., 55. hh. or.) artearen helburu gorentzat ezartzen du. Bakoitzaren esku gera bedi ikuspuntu bat ala bestea onartzea. Niri behintzat ederraren benetako metafisikarekin zerikusia duten Winckelmannen ikuspuntu horien eta antzekoen aurrean oso garbi geratu zitzaidan egia bat: sentikortasun handiena eta judiziorik zuzenena eduki litekeela edertasun artistikoaz, hala ere, ederraren eta artearen esentziaz kontu emate abstraktu eta benetan filosofikorik egiteko gai izan gabe; era berean oso noble eta bertutetsua izan eta kontzientzia samur, urre-pisu baten doitasunarekin kasu partikular bakoitza erabakitzen duena eduki daitekeen bezala, hala ere horregatik, egintzen esangurazkotasun etikoa filosofikoki oinarritu eta in abstracto aurkezteko gai izan gabe.

Zeharo beste harreman bat dauka alegoriak poesiarekiko arte plastikoaren aldean, eta azken horietan baztergarri dena, hartan oso komenigarri eta helburuari zerbitzatzen diona da. Zeren arte plastikoak emandako begiesgarritzotik arte guztien objektu propiora, pentsamendu abstraktuetara gidatzen baitu; poesian, berriz, harremana alderantzizkoa da: hemen hitzetan bitartegabe emana kontzeptua da, eta hurrengo helburua horretatik begiespenezkora gidatzea, zeinaren aurkezpena entzulearen fantasiak hartu behar baitu bere esku. Baldin eta arte plastikoan bitartegabe emandakotik beste batera gidatzen bada, orduan horrek beti kontzeptua izan behar du, zeren hemen abstraktua bakarrik ez baitago bitartegabe ematerik; baina kontzeptu bat ezin daiteke inoiz jatorria izan eta bere komunikazioa arte-obraren helburua. Aitzitik, poesian kontzeptua da materiala, bitartegabe emana, zeina horregatik oso ongi bertan behera utz baitaiteke, begiesgarritzko zeharo desberdin bat sortzeko, bertan helmuga lortzeko. Poema baten loturan ezinbestekoa izan daiteke zenbait kontzeptu edo pentsamendu abstraktu, bere baitan eta bitartegabe ezein begiesgarritzotasunetarako gai ez dena: hori gero sarritan bere azpian subsumitzen den adibideren baten bitartez eramaten da begiespenezkotasunera. Horrela gertatzen da adierazpen tropiko bakoitzean eta metafora, konparazio, parabola eta alegoria bakoitzean, zeinak beren aurkezpenaren luzera eta xehetasunarengatik bakarrik desberdintzen baitira. Oratoria-arteetan, horregatik, konparazioak eta alegoriak

efektu bikainekoak dira. Cervantesek loaz ederki dioena bezala, gure gaitz espirituazko eta gorputzeazko guztiak kentzen dizkigula adierazteko, . Kleistek ederki adierazten duen pentsamendua bezala, filosofoek eta ikertzaileek gizadiari argi egiten diotela, alegorikoki bertsolerro honetan:

Gauezko kriseiluaz lurbira osoa argitzen duen hura.

Zeinen indartsu eta grafikoki izendatzen duen Homerok Ate parte txarrekoa, esaten duenean: (19,91). Zeinen eragin handia izan zuen Menenio Agripparen urdaila eta soinatalen alegiak emigraturiko erromatar herriarengan. Zeinen ederki adierazten duen Platonek jadanik aipaturiko haitzuloaren alegoria ko zazpigarren liburuaaren hasieran, dogma filosofiko abstraktuenetako bat. Era berean joera filosofikoko alegoria sakontzat hartu behar da Persefoneren alegia, mingrana-ale bat dastatu izanagatik azpimunduan, horren mendean gelditzen baita: hori bereziki nabaria da laudorio ororen oso gainetiko alegia horren tratamendua, zeina Goethek n tartekatu baitu. Hiru obra alegoriko xehe ezagutzen ditut: bat, nabari eta aitortua, Balthasar Graciánen paregabea da, zeina oso alegoria esanguratsuak elkarri lotuz ehun handi eta aberats bat eratuz baitago osatua, zeinek hemen egia moralen jantzi atsegin gisa zerbitzatzen baitute, horiei begiesgarritzotasun handia emanez eta gu bere asmakizunen aberastasunak txunditurik jarritz. Bi ezkutuko, ordea, eta dira. Lehenak gizaki ororen bizitza alegorizatzen du, zeinak besteek bezala ez baitu bere ongi pertsonalaz soilik arduratu nahi, baizik helburu objektibo, ideal bat jazartzen baitu, bere pentsamendua eta nahi izatea menperatu dituen; horrek mundu honetan benetan itxura bitxia ematen dio. Gulliverrengan fisikoa den guztia espiritualki har daiteke, horrekin, Hamletek deitu zionez, zer esan nahi izan zuen ohartzeko. Alegoria poetikoan kontzeptua beti emana denez gero, zeina irudi baten bitartez begiesgarri bihurtu nahi baita, batzuetan irudi pintatu baten bitartez adierazi edo euskarritu egin daiteke: hori orduan ez da arte plastikoko obra bezala kontsideratzen, baizik hieroglifo adierazle gisa, eta ez du balore pinturazkoen erreibindikaziorik egiten, poetikoena soilik. Mota horretakoa da Lavaterren bineta alegoriko eder hura, egiaren aldezele prestu guztientzat hain eragin bihotz-adoregarria izan behar duena: argi bati eusten dion eskuari liztor batek zizta egiten dio, goian garretan eltxoak erretzen diren bitartean: azpian goiburu hau:

Nahiz eta eltxoak hegoak erreko dituen,
Kaskezurrak eta bere garuntxo guztiak zapart egingen;
Argiak beti dirau argi!
Nahiz eta liztor suminak zizt egin niri,
Ez diot jaregingo suziari.

Horren gisakoa da bestalde hilarri hura, kea darion kandela itzalia eta inskripzio honekin:

Itzaltzen denean, ikusten da
bilgor ala argizari-argi zen.-

Mota horretakoa da antzinako etorki-zuhaitz alemaniarra ere, zeinean oso familia leinargi bateko azken ondorengoak bere bizitza erabateko kontinentzian eta kastitatean amaitu eta horregatik bere askaziari hiltzen uzteko erabakia adierazi baitzuen abar askotako zuhaitz baten sustraietan, artazi batzuekin bere gaineko zuhaitza inausten bere burua irudikatuz. Gisa horretakoak dira lehen aipaturiko, eskuarki enblema deituriko sinboloak, zeinak pintaturiko alegia labur gisa aditzera emandako irakaspen batekin izenda baitaitezke. - Mota horretako alegoriak beti poetikoen artean sartu behar dira, ez pinturazkoetan, eta horrenbestez

justifikaturik daude: hemen ere egikaritze plastikoa beti alboko gisa gelditzen da, eta gauza ezagutzeko eran aurkeztea besterik ez zaio eskatzen. Baina arte plastikoan bezala, baita poesian ere, alegoria sinbolo bihurtzen da, begiesgarriki burutuaren eta horrekin adierazitako kontzeptu abstraktuaren artean lotura hautazkoa baizik ez dutenean. Zeren sinbolikoa den oro barrenean konbentzio batean oinarriturik baitago, horrela beste desabantaila batzuen artean sinboloak badu bere esangura denborarekin ahaztu eta gero erabat mututzekoa: nork asmatuko luke, jakin ezean, zergatik den arraina kristautasunaren sinbolo? Champollion batek bakarrik: zeren erabateko hieroglifo fonetikoa baita. Horregatik dago orain alegoria poetiko gisa Joanesen Apokalipsia, oraindik ere beti interpretazioak egiten zaizkion magnus Deus sol Mithra idatziarekiko erliebeen gisara gutxi gorabehera²⁷.

§ 51

Baldin eta oraindaino arteari buruz egindako kontsiderazioak orokorrean arte plastikoetatik poesiara bideratzen baditugu; orduan ez dugu zalantzan jarriko horrek ere ideiak, nahimenaren objektibazioko mailak agerian jartzeko asmoa duela eta horiek gogamen poetikoak kontzebitu zituen argitasun eta bizitasunarekin entzuleari komunikatzekoa. Ideiak esentzian begiesgarri dira: baldin eta poesian bitartegabe hitzen bidez komunikatutakoa kontzeptu abstraktuak bakarrik badira; hala ere, agerian dago kontzeptu horien errepresentanteetan entzuleari bizitzako ideiak begiesten uzteko asmoa, zeina bere fantasia propioaren laguntzaz bakarrik gerta baitaiteke. Baina hori helburuari dagokionez mugimenduan jartzeko, kontzeptu abstraktuak, zeinak poesiaren prosarik lehorrenaren material bitartegabea eta baitira, halako moldez osatu behar dira elkarrekiko, non horien esferak batabestea ebakitzen baitute, beren orokortasun abstraktuan iraun ez dezaten; baizik eta horien orde ez errepresentante begiesgarri bat fantasiaren aurrean ager dadin, zeina poetaren hitzek bere asmoaren arabera modifikatzen baitute. Kimikariak jariakin guztiz klaru eta gardenekin, horiek batzean hauspeakin solido bat lortzen duen bezala; horrela asmatzen du poetak kontzeptuen orokortasun abstraktu, gardenetik, horiek lotzeko duen moduaren bidez, konkretua, indibiduala, errepresentazio begiesgarria nolabait hauspeatzen. Zeren begiesgarriki bakarrik ezagutzen baita ideia: ideiarene ezagutza da arte ororen helburua. Nola poesian hala kimikan, maisutasunak ahalbidetzen du nahi den hauspeakina lortzea. Helburu horretarako laguntzen dute poesian epiteto ugariak, zeinen bitartez mugatzen baita kontzeptu bakoitzaren orokortasuna, gero eta gehiago, begiesgarritzotasuneraino iritsi arte. Homerok ia substantibo bakoitzari ezartzen dio adjektiboa, zeinaren kontzeptuak lehen kontzeptuaren esfera ebakitzen baitu eta horrela ohargarriro murrizten baitu, horren bitartez begiespenera askozaz gehiago hurbiltzen delarik: adibidez,

(GRIEGO)

(Occidit vero in Oceanum splendidum lumen solis

Trahens noctem nigram super almam terram.)

Eta

Haize bigun batek jotzen du zeru urdinetik,

Mirtoa isilik eta ereinotza goian dago, -

kontzeptu gutxirekin hegoaldeko klimaren xarma osoa hauspeatzen du fantasiaren aurrean.

Poesiaren lagungarri guztiz bereziak dira erritmoa eta errima. Horien efektu harrigarriro ahaltsuaz ez dakit beste azalpenik ematen, baizik gure errepresentazio-indarrak esentzian denborari loturik daudelarik, horren bitartez berezitasun bat lortzen duela, horren indarrez erregulariki errepikatzen den hots orori barrenean jarraitu eta nolabait horrekin bat etortzekoa. Hortik erritmoa eta errima, alde batetik, gure arretaren lokarri dira, proposamenari gogarago jarraitzen baitiogu, bestalde, bere bitartez gudan judizio ororen aurretiko onarpen itsu bat sortzen da proposatuarekiko, zeinaren bitartez horrek pertsuasio-indar enfatiko, arrazoi guztiekiko independentea hartzen baitu.

Poesiak ideiak komunikatzeko erabiltzen dituen materialen, hots, kontzeptuen orokortasunaren, indarrez oso zabalera handiko eremua du. Natura osoa, maila guztietako ideiak dira horren bitartez aurkeztuak, komunikatu beharreko ideien neurriaren arabera bai deskribatuz, bai kontatuz, bai dramatikoki bitartegabe antzeztuz jokatzen delarik. Nahimenaren objektitatearen maila behearenekoan aurkezpenean gehienetan arte plastikoak nagusi izaten badira ere, zeren natura ezagutzagabeak, baita animalia natura soilak ere beren esentzia osoa ongi atzemandako une bakar batean jartzen baitu agerian; kontrara, gizakiak ez du bere taxu eta aurpegiaren adierazpen soilaren bitartez bere burua adierazten, baizik egintzen eta horiek laguntzen dituzten pentsamendu eta afektuzko katea baten bitartez, poesiaren gai nagusi bihurtuz, horretan beste ezein arte parean jartzen ez zaiolarik, zeren arte plastikoetan ez bezala, horretan aurrera joateaz baliatzeko aukera baitu.

Nahimenaren objektitatearen mailarik gorena eratzen duten ideiak agerian jartzea, gizakia bere ahalegin eta egintzen segida koherentean aurkeztea da poesiaren garrantzizkoena. - Egia da esperientziak ere, historiak ere irakasten duela gizakia ezagutzen; hala ere,

sarriago gizakiak gizakia baino; albiste enpiriko gehiago ematen dituzte gizakiaren elkarrekiko portaeraz, nondik jokaera propiorako arauak sortzen baitira, gizakiaren barneko esentzian begirada sakonak egin ordez. Hala ere, azken hori ez dago inola ere haietatik bazterturik: baina gizakiaren beraren esentzia den bakoitzean, historian edo esperientzia propioan agertzen zaiguna; orduan hori, historialariak begi artistikoekin, poetikoekin kontzebitu du, ideienarekin, ez errepresentazioarenarekin, barneko esentziaren arabera, ez harremanen arabera. Ezinbesteko baldintza da esperientzia propioa nola poesia hala historia ulertzeko: zeren biek hitz egiten duten hizkuntzaren hiztegia baita nolabait. Baina historiak poesiarekiko duen harremana erretratu-pinturak historien pinturarekiko duena bezalakoa da: lehenak egia partikularrean ematen digu hori, bigarrenak egia orokorrean: hark agerpenaren egia du eta horren lekukotza ematen du, honek ideien egia du, ezein agerpen partikularretan aurkitzen ez dena, hala ere guztietatik hitz egiten duena. Poetak aukera eta asmoarekin karakter esanguradunak egoera esanguradunetan aurkezten ditu: historialariak biak hartzen ditu, datozen bezala. Areago, ezin ditu kontsideratu eta hautatu gertaerak eta pertsonak ideiak adierazten duen esangurazkotasun barneko, benetakoaren arabera; baizik loturarekiko, ondorioekiko harremanean, esangurazkotasun garrantzitsu, kanpoko, itxurazko, erlatiboaren arabera. Ezin du ezer kontsideratu bere baitan eta beretzat, bere karakter eta adierazpen esentzialen arabera, baizik dena harremanaren arabera, kateakuntzan, ondorengoarekiko, eta bereziki, bere garaiarekiko eraginean. Horregatik ezingo du ahaztu errege baten egintza garrantzi gutxikoa, are berez arrunta dena: zeren ondorioak eta eragina baititu. Aitzitik, ez ditu norbanako partikular oso nabarmenduen egintza berez oso garaiak aipatu, ondoriorik, eraginik ez badute. Zeren bere kontsiderazioa arrazoiaren printzipioaren araberakoa da eta agerpena atzematen du, zeinaren forma printzipio hori baita.

Poetak, berriz, ideia, gizadiaren esentzia, harreman orotatik kanpo, denbora orotatik kanpo kontzebitzen du, berbaitango gauzaren objektitate egokia bere mailarik gorenean. Nahiz eta historialariak beharrezkoa duen kontsiderazio-mota horretan bertan ere barneko esentzia, agerpenen esangurazkotasuna, oskol horien guztien muina ezin litekeen erabat gal eta gutxienez bilatzen duenak oraindik aurki eta ezagut lezakeen; hala ere hura, bere baitan, ez harremanean esanguratsua dena, ideien destolestapen propioa askozaz zuzen eta argiago aurkituko da poesian historian baino, horregatik hari, nahiz eta paradoxazkoa dirudien, egia propio, benetako, barnekoa areago egotz lekiok azken horri baino²⁸. Zeren historialariak gertaera indibiduala bizitzaren arabera zehatz jarraitu behar du, denboran kausa eta efektuen katea askotan txirikordatueta garatzen den bezala; baina ezinezkoa da horri buruzko datu guztien jabe izatea, dena ikusi edo arakatu ahal izatea: une bakoitzean galdu egingo du bere koadroaren originala, edo faltsu bat jarriko zaio aurrean, eta hori hain maiz, non historia orotan faltsua egiazkoa baino gehiago dela onar daitekeela uste baitut. Aitzitik, poetak gizadiaren ideia nolabait alde determinaturen batetik, aurkeztekoa den horretatik hain zuzen, kontzebitu du, bere ni propioaren esentzia da hartan objektibatzen zaiona: bere ezagutza, lehenago eskulturaren kasuan azaldu dudanez, erdi a priorizkoa da: bere eredua espirituaren aurrean dauka finko, garden, aratz argitua, eta ezin du bertan behera utzi: horregatik erakusten digu bere espirituaren ispiluan ideia argi eta garbi, eta horren deskribapena azken xehetasuneraino egiazkoa bizitza bera bezalaxe. Horregatik antzinako historialari handiak, daturik ez zeukaten xehetasunetan, adibidez, beren heroien hitzaldietan, poetak dira; eta materiala tratatzeko modu osoa bera ere

epikora hurbiltzen da: horrek batasuna ematen die beren aurkezpenei, eta barneko egia gordearazten, non ere kanpoko iritsezina edo faltsutua baitzegoen: eta lehen historia erretratu-pinturarekin poesiarekiko oposizioan konparatu badugu, zeina historia-pinturari bailegokioke; orduan Winckelmannen maxima, erretratuak norbanakoaren ideala izan behar duelakoa, antzinako historialariek ere jarraitzen zutela aurkitzen dugu, izan ere norbanakoa hala aurkezten baitute, non hartan adierazten den gizadiaren idearen alde nabarmentzen baita: aitzitik berriek, gutxi salbuetsirik, gehienetan besterik ez dute ematen. - Horrela gizadia bere barneko, agerpen eta garapen guztietako esentzia identikoaren, bere idearen arabera ezagutu nahi duenak, horrelakoari poeta hilezkor handien obrek irudi askozaz fidel eta argiagoa eskainiko diote, historialariek inoiz eman diezaioketena baino: zeren horien arteko hoberenak ere poeta bezala ez baitira lehenak eta ez baitauzkate eskuak aske. Bien arteko harremana ikuspegi horretatik honako konparazio honen bidez argi daiteke. Datuen arabera soilik lan egiten duen historialari soil, hutsak badu antza matematikako batere ezagutzarik gabe, ausaz aurkituriko figuretatik, horien harremana neurketaz ikertzen duenarekin, zeinen enpirikoki aurkituriko zehaztapena marrazturiko figuraren akats guztien jabe baita horregatik: aitzitik, poetak matematikariaren antza du, zeinak harreman horiek a priori eraikitzen baititu, begiespen hutsean, eta ez marrazturiko figurak errealki horiek dituen bezala, baizik ideian diren bezala, marrazkiak ikuskortu nahi dituen bezala formulatzen baititu. - Horregatik dio Schillerrek:

Inoiz eta inon gertatu ez dena,
Hori bakarrik ez da inoiz zahartzen.

Gizadiaren esentziaren ezagutzaren ikuspegitik aitortu beharra daukat biografiei, autobiografiei bereziki, historia propioari, gutxienez eskuarki tratatzen denari baino balio handiagoa. Lehenik, haietan datuak zuzen eta osoago biltzen direlako hauetan baino; gero, historia propioan gizakiek baino herriek eta armadek gehiago dihardutelako, eta agertzen diren partikularrak, hain distantzia handira agertzen dira, hainbesteko ingurunearekin eta hain segizio handiarekin, estatu-jantzi zurrunetan edo armadura astun malguezinean estalirik, non egiazki zaila baita, horretan guztian zehar giza mugimendua ezagutzea. Aitzitik, fidelki deskribaturiko partikularren bizitzak, esfera estu batean, gizakiaren egintza-era bere ñabardura guztietan eta taxueretan erakusten du, bikaintasuna, bertutea eta partikularren santutasuna bera ere bai, perbertsitate, ziztrinkeria, gehienen maltzurkeria, askoren zitalkeria. Baina hemen kontsideratzen dugun ikuspuntu bakarrari dagokionez, hots, agertzen denaren barneko garrantziarekin zerikusia duenez, erabat axolagabea da objektuak, zeinen inguruan egintzak bira egiten baitu, erlatiboki kontsideraturik, huskeriak edo garrantzizkoak, baserriak edo erresumak izatea: zeren gauza horiek guztiek, beren baitan esangurarik gabeak, horrelakorik nahimena higitzearen bitartez bakarrik eta hein horretan hartzen dute: nahimenarekin duen harremanaren bidez bakarrik hartzen du garrantzia motiboak; aitzitik, gauza bezala horrelako beste gauza batekiko duen harremana, ez da kontsiderazioan hartzen. Hazbete bateko diametroa duen zirkunferentzia batek eta 40 milioi miliako diametroa duen beste batek erabat propietate geometriko berak dituzten bezala, herrixka batek eta erresuma batek dituzten prozesuak eta historia esentzian berdinak dira; eta batean zein bestean gizadia aztertu eta ezagut daiteke. Halaber ez da bidezkoa autobiografiak erabateko iruzurra eta disimulua direnik uste izatea. Kontrara, gezurra (nahiz eta edonon ahalgarria izan) hor agian beste inon baino zailagoa da. Disimulua elkarriketa soilean da errazena; baina, paradoxazkoa dirudien arren,

gutun baten barrenean zailagoa da, zeren hor gizakiak, bere baitan utziak, bere baitara begiratzen du eta ez kanpora, arrotza eta urrunekoa dena nekez hurbiltzen du, eta ez dauka begien aurrean bestearengan sortzen duen inpresioaren neurria; azken horrek, aitzitik, lasai, idazleari arrotza zaion aldarte batean, begirada batez menderatzen du gutuna, behin eta berriz eta aldi desberdinetan irakurtzen du, eta horrela erraz aurkitzen dio asmo ezkutua. Autore bat gizaki gisa bere liburutik ezagutzen da errazen, zeren haren baldintza guztiek hor indartsu eta iraunkorrako eragiten baitute: eta autobiografian nork bere burua disimulatzea hain da zaila, non agian bakar bat ere ez baitago, osotasunean egiazkoagoa ez denik beste edozein historia idatzi baino. Bere bizitza idazten duen gizakiak luze-zabalean gainbegiraten dio hari, partikularra txikitu egiten da, hurbilekoa urrundu, urrunekoa hurbildu, kezkak murriztu egiten dira: aitorketa baterako prestatu da eta libreki horretaratu da; gezurraren espirituak hemen ez du hain erraz harrapatzen: zeren gizaki bakoitzarengan egiarako joera bat baitago, gezur bakoitzean menderatu beharrekoa, hain zuzen eta hemen posizio bereziki indartsua hartu duena. Biografia eta herri-historiaren arteko harremana honako konparazioaren bitartez nabarmenarazten da. Historiak gizadia mendi garai batetiko ikusmirak natura erakusten digun bezala erakusten digu: asko ikusten dugu aldi berean, sail handiak, masa handiak; baina ez da ezer argia, ez da ezer bere esentzia propio osoaren arabera ezagugarria. Kontrara, bakoitzaren bizitza aurkeztuak gizakia erakusten digu, guk bere zuhaitz, landare, harkaitz eta uren artean paseatzen gabiltzanean natura ikusten dugun bezala. Paisaje-pinturaren bitartez bezala, zeinean artistak bere begien bidez naturari begirarazten baitigu, eta bere ideien ezagutzak eta horretarako beharrezkoa den ezagutze huts nahimengabeko egoerak asko errazten baitigu; horrela ideien aurkezpenerako, zeinak historian eta biografian bila baititzakegu, poesiak biei alde handia ateratzen die: zeren hemen ere genioak ispilu argitzailea eskaintzen baitigu, zeinean esentziala eta garrantzizkoa den guztia bildurik, eta argirik bizienean ezarririk, aurkezten baitigu, kontingentea eta heterogeneoa dena ezabaturik²⁹.

Gizadiaren ideien aurkezpena, poetari dagokiona, bi eratarata egin daiteke: aurkeztua aldi berean aurkezle izanez: hori poesia lirikoan, kanta propioan gertatzen da, non ere poetak bere egoera propioa bakarrik begietsi eta deskribatzen baitu biziki, horregatik genero horren objektuaren bidez esentziala da nolabaiteko subjektibitatea izatea - edo, bestela, aurkezten dena eta aurkezlea zeharo desberdinak dira, beste genero guztietan bezala, non gehiago edo gutxiago aurkezlea aurkeztuaren atzean ezkutatu eta azkenerako erabat ezabatzen baita. Erromantzean aurkezleak bere egoera propioa tonuaren eta osotasunaren jarreraren bitartez adierazten du: kanta baino askozaz objektiboagoa izaki, badu hala ere zerbait subjektiboa, hori gehiago ezabatzen da idilioan, oraindik gehiago eleberrian, ia erabat benetako epopeian, eta atzen aztarnaraino azkenik dramatik, zeina objektiboena baita eta ikuspuntu batetik baino gehiagotatik poesiako genero perfektuena, baita zailena ere. Genero liriko horregatik da errazena ere, eta artea gainerakoan hain bakana den benetako genioari bakarrik badagokio ere, osotasunean oso gailena ez den gizakiak berak ere, kanpoko kitzikapen indartsuren batek bere espiritu-indarren inspirazioa igoarazten badiu, kanta eder bat sor dezake: zeren horretarako bere egoera propioaren begiespen bizia bakarrik behar baitu une asaldatuan. Hori egiaztatzen dute gainerakoan ezezagun gelditu diren norbanako askoren kanta partikular eder askok, batez ere herri-kanta alemaniarrek, zeinen bilduma bikaina baitaukagu Adar Miresgarrian (Wunderhorn), eta baita herriaren ezin zenbatu ahaleko amodiozko eta bestelako kantei ere hizkuntza guztietan. Zeren aldiuneko aldarte

atzeman eta kanta batean gorpuztea baita genero horren egintza osoa. Hala ere, benetako poetaren poesia lirikoan gizadi osoaren barrena errainutzen da, eta lehen izan diren, orain diren eta gero izango diren milioika gizakik beti errepikatzen diren abagunetan sentitu dute eta sentituko dute, hor aurkitzen du dagokion adierazpena. Abagune horiek errepikatze etengabearen bitartez, gizadia bera bezalaxe, iraunkorrek baitira eta beti sentimendu berak iratzartzen baitituzte, benetako poeten produktu lirikoez milurteetan zehar zuzen, eraginkor eta gordin dira. Oro har poeta gizaki unibertsala da: edozein gizakiren bihotzari eragin diona eta giza naturak abaguneraren batean bere baitatik ateratzen duena, giza bularren batean bizi eta egosten dena - hori du bere gai eta bere material; gainerako natura osoa bezalaxe. Horregatik kanta ditzake poetak hain ongi nola atsegintasuna hala mistika, Anakreonte edo Silesio izan daiteke, tragediak edo komediak idatz ditzake, iritzi bikain edo arruntak aurkez ditzake - bere apeta edo bokazioaren arabera. Horrexegatik, inork ezin dio agindu poetari noble edo bikain, moral, jaieratsu, kristau edo hau edo hura izateko, gutxiago aurpegiaratu hau dela eta ez hura. Gizadiaren ispilua da, eta kontzientziara ekartzen dio sentitu eta eragiten diona.

Orain hurbilagotik kontsideratzen badugu benetako kantaren esentzia, eta horretarako adibidetzat eredu bikain eta aldi berean garbiak hartzen baditugu, ez jadanik beste genero batera, erromantzea, eresia, himnoa, epigrama eta abarretara nolabait hurbiltzen direnak; orduan kantaren esentzia berarizkoena zentzu hertsian honako hau dela aurkituko dugu. - Nahimenaren subjektua da, nahi izate propioa, kantatzailearen kontzientzia betetzen duena, sarritan nahi izate jaregin, asetu gisa (poza), baina sarriago (tristura) afektu, grina, higituriko gogamen-egoera eragotzi gisa beti. Horren ondoan eta aldi berean horrekin, inguruko natura behatzearen bidez, kantariak bere buruaren kontzientzia hartzen du ezagutza nahimengabe hutsaren subjektu gisa, zeinaren lasaitasun kordokaezin, dontsua kontrastean sartzen baita nahi izate beti mugatu, hala ere beti behartsuaren bulkadarekin: kontraste horren, truke-joko horren sentimendua da propioki kantaren osotasunean adierazten dena eta, oro har, egoera lirikoa eratzen duena. Horretan agertzen zaigu nolabait ezagutza hutsa, nahi izateetik eta bere bulkadatik geure burua askatzeko: jarraitu egiten dugu; baina aldiune batean bakarrik: nahi izateak, oroitzapenak geure helburu pertsonaletarako begiztatze baketsutik beti berriro erauzten gaitu; baina hurrengo ingurune ederrak berriro ateratzen gaitu nahi izatearen lilurapetik, zeinean ezagutza nahimengabe hutsak eskaintzen baitigu bere burua. Horregatik kantan eta aldarte lirikoan nahi izatea (helburuaren interes pertsonala) eta bere burua aurkeztzen duen ingurunearen begiespen hutsa miresgarriro nahasturik ibiltzen dira: bien artean bilatu eta imajinatu egingo dira harremanak; aldarte subjektiboak, nahimenaren afekzioak komunikatu egiten dio ingurune begietsiari eta horrek berriz hari bere kolorea errainu gisa: benetako kanta gogamen-egoera osoki nahastu eta banaturiko horren kopia da. - Abstrakzio orotatik oso urruneko egoera horren analisi abstraktu hori adibidetan atzemangarri bihurtzeko, Goetheren kanta hilezkorretako bakoitza har daiteke: helburu horretarako bereziki adierazgarritzat banaka batzuk bakarrik gomendatuko ditut: , , , , , gainera «Adar Miresgarria'ko benetako kantak adibide bikainak dira: oso bereziki honela hasten dena: . - Karakter lirikoaren parodia komiko, oso egoki gisa ohargarri zait Voßen kanta bat, zeinean dorre batetik erortzen ari den beiragin mozortu baten sentimendua deskribatzen baitu, erortzean bere egoerarekiko guztiz arrotza dena, eta ezagutza nahimengabeari dagokion ohartzea egiten baitu, dorreko erlojuan hamaika eta erdiak direla. - Egoera lirikoaren

azaldutako ikuspuntua nirekin elkarbanatzen duenak onartuko du, halaber, hori nire tratatuan propioki ezarritako, baita idatzi honetan jadanik aipaturiko ezagutza begiesgarri eta poetikoaren printzipioa dela, ezagutzaren subjektuaren identitatea nahi izatearenarekin (GRIEGO) miraria izenda daitekeela; horrela kantaren efektu poetikoa azkenik printzipio horren egian oinarritzen da propioki. - Bizitzan zehar bi subjektu horiek edo, herriak bezala hitz egiteko, burua eta bihotza gero eta banatuago agertzen dira: gero eta gehiago bereizten dira bere sentimendu subjektiboa eta bere ezagutza objektiboa. Haurraren biak oraindik oso nahasturik daude: doi-doi daki bere burua ingurunetik desberdintzen, hartan galdu egiten da. Hautemapen orok sentimendua eta aldartea eragiten ditu gaztearen, eta horrekin nahastu ere egiten da; Byronek hain ederki adierazten duenez:

I live not in myself, but I become

Portion of that around me; and to me

High mountains are a feeling³⁰.

Horregatik atxikitzen zaio hainbeste gaztea gauzen kanpoalde begiesgarriari; horregatik poesia lirikorako bakarrik balio du eta heldua izan behar da dramatikorako. Adinekoak gehien ere epiko gisa ikus dezake bere burua Ossianek, Homerok bezala: zeren kontatzea adinekoaren izaerari baitagokio.

Poesia-mota objektiboagoetan, batez ere eleberria, epopeia eta dramen, helburua, gizakiaren ideia agerian jartzea, batez ere bi bitartekoz lortzen da: karakter esanguradunen aurkezpen zehatz eta sakonaren bitartez eta egoera esanguratsuak aurkitzearen bitartez, zeinetan haiek garatzen baitira. Zeren kimikaria gai sinpleak eta horien konbinazioak argi eta garbi aurkezten bakarrik ez; baizik horiek beren berezitasunak argiro eta nabarmen agerian jartzeko errektibo batzuen eraginpean jartzen ere aritzen den bezala; horrelaxe aritzen da poeta, ez bakarrik esanguradun karakterrak egiaz eta leial, natura bera bezala, aurkezten; baizik guri horiek ezagutarazteko, halako egoera batzuetan jarri behar ditu, zeinetan horien berezitasunak erabat garatu eta zirrimarra doietan aurkezten baitira, horregatik egoera esanguratsu deitzen zaienetan. Bizitza errealean eta historian bakan sortzen ditu ausak propietate hori duten egoerak, eta haiek hor bakarturik, galduta eta estalita egoten dira esanguragabekoen multzoaren pean. Egoeren erabateko esangurazkotasunak desberdindu egin behar ditu eleberria, epopeia, drama bizitza errealetik, baita karakter esanguradunen osaerak eta aukerak ere: baina bietan egia hertsiena horien efektuaren ezinbesteko baldintza da, eta batasun falta karakterretan, bere buruaren kontrako edo gizadiaren esentziaren aurkako kontraesana oro har, baita gertaeren ezintasuna edo hurbiltzen zaien egiantzekotasunik eza, nahiz eta albo-zirkunstantzietan izan, iraingarri dira poesian, hala nola irudi lausotuak edo perspektiba faltsua edo argitzapen akasduna pinturan: zeren han bezala hemen bizitzaren, gizadiaren, munduaren ispilu fidela eskatzen baitugu, aurkezpenak argitua eta osaerak esanguratsu bihurtua bakarrik. Zeren arte ororen helburua bakarra baita, ideien aurkezpena, eta horien desberdintasun esentziala honetan bakarrik dago: nahimenaren objektibazioaren zein maila den aurkezten den ideia, zeinaren arabera berriro aurkezpenaren materiala determinatzen baita; horrela bata bestetik urrundenak diren arteak ere elkarrekin konparatuz argitu egiten dira. Horrela, adibidez, uretan adierazten diren ideiak osoki kontzebitzeko, ez da aski urmael lasaian ezta erregularlari darion errekan ikustea; baizik ideia horiek ura zirkunstantzia guztietan eta eragozpenetan agertzen denean bakarrik garatzen dira erabat, zeinek horretan eraginez bere propietate guztiak kanporarazten baitizkiote. Horregatik eder aurkitzen dugu, amiltzen, orro

egiten, aparra ateratzen, berriro gorantz jauzi egiten, langartuz erortzen bada, edo azkenik, artifizialki bortxaturik izpi baten gisara goratzen bada: horrela zirkunstantzia desberdinetan desberdin agertuz, beti leialki baieztatzen du bere karakterra: hain naturala zaio indarrean goratzea nola errainutuz lasai egotea; baterako zein besterako era berean dago prest, zirkunstantziak agertzen diren bezain laster. Ur-artistak materia jariakorrarekin egiten duena, arkitektoak zurrunarekin egiten du, eta hori bera poeta epiko edo dramatikoak gizadiaren ideiarekin. Arte ororen objektuan bere burua adierazten duen ideiarekin, maila bakoitzean objektibatzen den nahimenaren destolestapen eta argibidetzea da arte guztien helburu komuna. Gizakiaren bizitzak, errealtatean gehienetan agertzen denez, urmael eta ibaietan gehienetan agertzen den uraren antza du: baina epopeian, eleberrian eta tragedian karakter hautatuak halako zirkunstantzietan ezartzen dira, zeinetan beren berezitasun guztiak destolestu, giza gogamenaren sakonerak ireki eta egintza ezohiko eta esanguratsutan ikuskor bihurtzen baitira. Horrela objektibatzen du poesiak gizakiaren ideia, zeinaren bereizgarri baita karakter guztiz indibidualetan aurkeztea.

Nola efektuaren tamainaren hala burutzearen zailtasunaren ikuspegitik tragedia hartzen da poesiaren gailurtzat eta halakotzat ezagutzen da. Gure kontsiderazio guztiaren osotasunerako oso esanguratsua eta ongi kontuan hartzekoa da egintza poetiko goren horren helburua bizitzaren alderdi ikaragarria, oinaze esanezina, gizadiaren larridura, gaiztakeriaren garaipena, ausaren nagusigo lotsagarria eta zintzo eta errugabeen salbamenik gabeko erortzea aurkeztea dela: zeren horretan mundua eta existentziaren izaerari buruzko zantzu esanguratsu bat baitatza. Nahimenak bere buruarekiko duen gatazka da hemen, bere objektitatearen maila gorenean osokien destolestu dena, beldurgarri agertzen dena. Gizadiaren sufrimenduan ikuskor bihurtzen da hori, zeina egikaritzen baita, alde batetik halabeharra eta errorearen bitartez, munduaren agintari gisa, eta intentzionalitate-itxura izaterainoko beren zitalkeria zori gisa pertsonifikaturik agertzen baitira; bestalde, gizaditik beretik irteten baita, bata bestearekin gurutzatzen diren norbanakoen nahimen-ahaleginen bitartez, makurkeriaz eta absurdukeriaz gehienetan. Nahimen bat eta bera da horietan guztietan bizi eta agertzen dena, zeinen agerpenek, ordea, elkar borrokatu eta suntsitu egiten baitute. Norbanako horrengan indarrez agertzen da, beste harengan ahulago, hemen gogoeta gehiagorekin, han gutxiagorekin eta ezagutzaren argiaz bigundurik, harik eta bakoitzean ezagutza horrek, sufrimenduak berak garbitu eta jasorik, halako puntu bat lortzen duen arte, non agerpenak, Maiaren beloak jadanik ez baitu engainatzen, agerpenaren forman, principium individuationis-ean zehar ikusten baitu, horretan oinarritzen den egoismoa hiltzen delarik, eta horrenbestez orain lehen hain indartsuak ziren motiboek beren ahalmena galtzen baitute, eta horien orde munduaren esentziaren ezagutza perfektua, nahimenaren kietibo gisa eraginez, etsipena ekartzen baitu, bizitzari soilik ez ezik bizitzeko nahimen osoari ere uko eginez. Horrela ikusten ditugu tragedian azkenik nobleenak borroka eta sofrimendu luzearen ondoren, ordura arte hain jazartutako helburuei, eta bizitzako atsegin guztiei betiko ezetz esaten edo baita gogara eta pozik uko egiten ere: horrela Calderónen printze irmoa; horrela Gretchen n; horrela Hamlet, zeini Horaziok gogara jarraituko baitzion, baina hark gelditzeko eta oraindik pixka batean mundu zakar honetan oinazeekin arnasa hartzeko agintzen dio, Hamleten zoria argitzeko eta haren oroitzapena garbitzeko - horrela Orleanseko dontzeila, Messinako emaztegaia ere: denak sofrimenduak garbiturik hiltzen dira, aurretik bizitzeko nahimena beraiengan hil eta gero; Voltaireren n hau

ia hitzez hitz esaten da bukaerako esaldian, hiltzen ari den Palmirak Mahomari esana: - Aitzitik, justizia poetiko deituaren eskakizuna tragediaren esentzia, are munduaren esentzia erabat ez ezagutzean datza. Ausardiarekin ageri da hori bere kamustasun guztian Dr. Samuel Johnstonek Shakespeareren antzerki batzuei egindako kritiketan, hori erabat abandonatu izana, oso inozo deitoratzen duenean; eta hori noski horrela da: zeren zer erru dute Ofeliak, Desdemonak, Cordeliak? - Mundu-ikuskerak kamuts, baikor, protestante-razionalista edo propioki juduak bakarrik egingo du justizia poetikoaren eskakizuna eta horren asekontzan bere propioa bilatuko. Tragediaren egiazko zentzua da sakonago ulertzea heroiak ez dituela bere bekatu partikularrak pekatzen, baizik jatorrizko bekatua, izatearen errua bera.

Pues el delito mayor
Del hombre es haber nacido.
Calderónnek ageriki adierazten duenez.

Tragedia-antzerkiaren tratamendu-erari hurbilagotik helduz, zilegi bekit ohar bat egitea. Zorigaitz handi baten aurkezpena tragediari bakarrik zaio esentzial. Baina hori burutzeko poetak dituen bide desberdin ugariak hiru kontzeptu-motatan sar daitezke. Adibidez muturreko mugetaraino ahalbideak eramaten dituen karakter baten makurkeria apartekoarengatik gerta daiteke, zeina zorigaitzaren egilea baita; mota horren adibideak dira: Richard III, Jago n, Shylock n, Franz Moor, Euripidesen Fedra, Kreonte n eta antzeko beste asko. Gainera zori itsuarengatik, ausaz edo errorez gerta daiteke: mota horren egiazko eredua Sofoklesen Edipo erregea da, baita Emakume Trakiniarrak ere, eta oro har antzinako tragedia gehienak dira sail horretakoak: berrien artean horren adibide dira: , Voltaireren , . Zorigaitza, azkenik, pertsonak elkarren kontra jartze soilez ere gerta daiteke, harremanen bitartez; horrela ez da behar izaten errore eskerga bat edo ausa entzungabe bat, ezta gaiztakerian gizadiaren mugetaraino iristen den karakter bat ere; baizik ikuspegi moraletik eskuarki izan ohi diren bezalako karakterrak, zirkunstantzia batzuetan, sarritan agertzen diren bezala, halako moldez daude elkarrekiko kokatuak, non beren egoerak behartzen dituen elkarri, jakinez eta ikusiz, ezbeharririk handiena prestatzera, bidegabekeria ezein alderena bakarrik ez delarik. Azken mota horrek, nire iritzian, alde nabarmena ateratzen die beste biei: zeren zorigaitzik handiena ez baitigu salbuespen gisa erakusten, ez zirkunstantzia bakan edo karakter munstrozkoen bitartez buruturiko zerbait bezala, baizik gizakiaren egintza eta karakterretatik erraz eta berez, ia esentziaz sortzen den zerbait bezala, eta horrexegatik gure hurbiltasunera ekartzen du beldurgarriro. Eta baldin guk beste bi motetan zori eskerga eta makurkeria lazkarria ikaragarri, baina gugandik distantzia handira mehatxatzen duten ahalmen gisara ikusten baditugu, zeinetatik ihes egin baitezakegu, uko egitera ihes egin gabe; azken generoak, berriz, erakusten digu zoriona eta bizitza suntsitzen dituzten ahalmen horiek, uneoro beren bideak guretzat zabalik dituztenak bezala, eta sofrimendu handiena, bigiztatzeen bitartez burutua, zeinen esentzialak gure zoriona bera ere atzeman baitezake, eta egintzen bitartez, zeinak egiteko gu ere agian gai baikinakeke, bidegabekeriaz deitoratu beharrik gabe: orduan jadanik infernuaren erdian dardarka sentitzen gara. Azken mota horretako egikaritzea zailtasunik handienekoa ere bada; zeren horretan bitarteko eta mugimendu-kausazko gasturik urrienarekin, horien ezarkera eta banaketaren bidez soilik lortu behar baita efekturik handiena: horregatik tragedia-antzerki hoberenetako askotan ere zailtasun horri ihes egin zaio. Mota horren eredu perfektu gisa antzerki bat aipatu behar da, zeina maisu beraren beste askok beste ikuspegi batetik nabarmen gainditu baitute: da. nolabait mota horretakoa da, baldin eta

Laertes eta Ofeliarekiko bere harremanari bakarrik begiratzen bazaio; ek ere badu pribilejio hori; erabat mota horretakoa da, baldin eta Gretatxo eta bere anaiarekiko gertaera egintza nagusitzat kontsideratzen bada; gauza bera Corneilleren ekin ere, bakarrik horri askaera tragikoa falta zaiola, aitzitik Maxen eta Theklarekiko harreman analogoa du³¹.

§ 52

Arte eder guztiak orain arte kontsideratu ondoren gure ikuspuntuari dagokion orokortasun hartan, arkitektura ederretik hasita, zeinaren helburua nahimenaren objektibazioa argitzea baita bere ikuskortasunaren mailarik beherenean, non masaren bulkada kamuts, ezagutzagabe, erregular gisa azaltzen baita, bere burua bitan banatzea eta borroka agerian jarritz, hots, pisutasuna eta solidotasunaren artean - eta gure kontsiderazioa tragedia-antzertiarekin itxiz, zeinak, nahimenaren objektibazioaren mailarik gorenean, bere buruarekiko bikoizte hura dimentsio eta argitasun beldurgarrian jartzen baitigu begien aurrean - horrela aurkitzen dugu oraindik arte eder bat gure kontsideraziotik bazterturik gelditu dela eta gelditu behar izan duela, izan ere gure aurkezpenaren lotura sistematikoan ez baitzegoen berarentzat leku egokirik: musika da. Erabat bereizirik dago beste guztietatik. Ez dugu aurkitzen horretan munduaren esentziaren ezein ideia kopiarik, errepikapenik: hala ere, hain da arte handi eta guztiz bikaina, hain ahaltsu eragiten du gizakiaren barrenenean, hain oso eta sakonki ulertzen du hor hizkuntza guztiz orokor gisa, zeinaren argitasunak mundu begiesgarriarena bera ere ganditzen baitu, - non hartan bat baino gehiago bilatu behar baitugu, Leibnizek kalifikatu³² zuenez eta arrazoi handiarekin gainera, nahiz eta berak haren esangura bitartegabe eta kanpokoak bakarrik, haren eskola bakarrik kontsideratzen zuen. Besterik ez balitz ere, berak ematen digun asetasa kalkulueragiketara bat zuzen ebazten dugunean sentitzen dugunaren antzekoa izango litzateke, eta ezingo litzateke barneko poz hura izan, zeinarekin gure esentziaren barnerik sakonena hizkuntza bihurturik ikusten baitugu. Horregatik gure ikuspuntutik, zeinean efektu estetikoak baita gure asmoa, munduaren esentzia barnekoenarekin eta gure niarekin harremanetan dagoen esangura askozaz serio eta sakonago bat aitortu beharra diogu; horren ikuspegiarekiko zenbaki-harremanek, zeinetan ebazten baita, ez dute adierazi gisa jokatzeko, adierazle gisa baizik. Munduarekiko nolabaiteko zentzuan aurkezpenak aurkeztuarekiko, kopiak ereduarekiko bezala jokatu behar duelakoa, gainerako arteekiko analogiatik atera dezakegu, zeinentzat guztientzat propioa baita karakter hori, eta zeinek gudan duten efektua haienaren guztiz mota berekoa baita, baina indartsu, laster, beharrezko, hutsezinagoa bakarrik. Gainera, munduarekiko harreman kopiazko horrek oso barneko, amaigabeki egiazko eta guztiz egokia izan behar du, zeren edozeinek une batean ulertzen baitu, eta halako hutsezintasun bat ere aitortu beharra dago bere forma zenbakitan adierazten diren arau guztiz determinatuetara murrizgarria delako, zeinetatik ez baitauka aldentzerik musika izateari erabat utzi gabe. - Hala ere, musika eta munduaren arteko konparaziorik gabe, musika munduaren imitazio edo errepikapeneko harremanean dagoelakoa, oso sakon ezkutaturik dago. Garai guztietan praktikatu izan da musika, nahiz eta horretaz konturik eman ahal izan ez den: pozik, bitartegabe hura ulertzeaz, uko egiten zaio ulertze bitartegabe horren kontzebitze abstraktuari.

Neure espiritua soinuaren artearen inpresioan bere forma askotarikoetan, erabat murgildurik eduki eta gero berriro erreflexiora eta oraingo idatzi honetan

azaldutako pentsamenduen nire joairara itzultzen nintzenean, argibide bat sortzen zitzaidan barneko neure esentziaz eta munduarekiko bere harreman imitaziozko, analogiaren arabera derrigor suposatu beharrekoaren motaz, zeina niretzat erabat behar bestekoa baita noski eta nire ikerketarako gogobetegarria, eta orain arte niri jarraitu didanari eta munduarekiko nire ikuspuntuarekin ados dagoenari, halaber argigarri izango zaio; argibide hori frogatzea, hala ere, esentzian ezinezkoa dela aitortzen dut; izan ere, horrek musikaren harreman bat, errepresentazio gisa, esentzian inoiz errepresentazio izan ez daitekeen zerbaitekiko onartu eta finkatzen baitu, eta musika eredu baten kopia gisa kontsideraturik eduki nahi baitu, zeina bitartegabe errepresentatua ezin izan baita. Horregatik ezin dut besterik egin hemen nagusiki arteen kontsideraziora zuzenduriko hirugarren liburu honen bukaeran, soinuen arte miresgarriari buruz niretzat behar bestekoa den argibide hori azaltzea baino, eta nire ikuspuntua onartzea edo ukatzea, irakurtzaile bakoitzarengan bai musikak eta bai idatzi honetan komunikaturiko nire pentsamendu guzti bakarrak duen efektuaren baitan utzi beharra daukat. Gainera, beharrezkotzat daukat, hemen musikaren esanguraz ematen den aurkezpenari bere onarpena konbentzimendu osoarekin eman ahal izateko, haren erreflexio sostengatuaz sarritan musika entzutea, eta horretarako berriro ezinbestekoa dena, nik aurkezturiko pentsamendu guztiarekiko ezagupidea izatea.

Nahimenaren objektibazio egokia ideiak (platonikoak) dira; horien ezagutza gauza partikularren aurkezpenaren bitartez (zeren arte-obrak berak beti horrelakoak baitira) kitzikatzea (zeina horri dagokion aldaketaren pean bakarrik baita ahalgarri subjektu ezagutzailearengan) da beste arte guztien helburua. Horiek guztiek horrela nahimena bitartedunki objektibatzen dute, hots, ideien bitartez: eta gure mundua ideien agerpena aniztasunean besterik ez delarik principium individuationis-ean sartzearen bitartez (norbanakoari horrelakoa den heinean ahalgarri zaion ezagutzaren forma); horrela musika, ideien gainetik iragaten baita, agertzen den mundutik ere erabat independentea da, enoratu egiten baitu besterik gabe, mundua existituko ez balitz ere, nolabait iraun egin ahal izango luke: hori ez dago beste arteei buruz esaterik. Beraz, musika objektibazio bitartegabe bat da horrela eta nahimen guztiaren kopia, mundua bera den bezala, are ideiak berak diren bezala, zeinen agerpen anizkoiztuak gauza partikularren mundua eratzen baitu. Musika ez da inola ere beste arteak bezala ideien kopia; baizik nahimenaren beraren kopia, zeinaren objektitatea ere ideiak baitira: horregatik da hain zuzen musikaren efektua hainbat ahaltsu eta sarkorragoa beste arteena baino: zerren hauek itzalaz bakarrik mintzo baitira, hura, berriz, esentziaz. Baina nahimen bera objektibatu delarik, nola ideietan hala musikan, nahiz eta bakoitzean zeharo era desberdinean; horrela inondik ere antzekotasun bitartegaberik ez baina paralelismo bat, analogia bat izan behar du musikaren eta ideien artean, zeinen agerpena baita mundu ikuskorra aniztasunean eta imperfekzioan. Analogia horren frogapenak argibide gisa objektuaren iluntasunarengatik zaila den azalpenaren ulerkuntza erraztu egingo du.

Harmoniaren tonurik beherenetan, oinarri-baxuan, nahimenaren objektibazioaren mailarik beherenak, natura inorganikoa, planeten masa berrezagutzen ditut nik berriro. Tonu garai guztiak, errazki higikorrak eta lasterrago iraungitzen direnak, ezaguna denez, oinarri-tonu sakonen albo-bibrazioen bitartez sortutakotzat hartu behar dira, hura sortzen den bakoitzean beti aldi berean arinki durundia ateratzen baitute, eta harmoniaren legea da baxu-nota batek tonu garai haiekin bakarrik bat etorri behar duela, zeinek berez baxu-notarekin aldi berean soinua sortzen baitute (bere) albo-bibrazioen bitartez. Hori naturako gorputz eta antolakuntza guztiak

planetaren masatik garapen mailakatu baten bitartez sortutakotzat hartu behar direlakoaren analogoa da: masa hori, euskarri gisa, bere iturri da: eta harreman bera dute tonu garaiek oinarri-baxuarekin. - Sakonerak muga bat du, zeinaz haraindi ezein tonu ez baita entzungarri: hori ezein materia forma eta kualitate gabe hautemangarri ez delakoari dagokio, indar azalezin baten kanporatzerik gabe, zeinean ideia bat adierazten baita, eta orokorrago, ez dagoela erabat nahimengabea den materiari: horrela tonuan horrelakoa den heinean garaiera-maila jakin bat bereizteza den bezala, horrela da materialen ere nahimen-kanporatzearen maila jakin bat. - Oinarri-baxua horrela harmonian, munduan natura inorganikoa dena bera da, masa gordinena, zeinean dena oinarritzen baita eta, zeinatik dena sortu eta garatzen baita. - Horrezaz gainera harmonia osatzen duten ahots lagungarri guztietan, baxuaren eta melodia abesten duen ahots gidariaren artean, ideien maila-sekuentzia guztia berrezagutzen dut berriro, zeinean nahimena objektibatzen baita. Baxutik hurbilen dauden ahotsak dira maila haietako behearenak, oraindik inorganikoak, baina era batean baino gehiagotan kanporatzen diren gorputzak: gorago daudenek landareen eta animalien mundua errepresentatzen didate. - Eskalako bitarte determinatuak paraleloak dira nahimenaren objektibazioaren maila determinatuekiko, naturako espezie determinatuekiko. Bitartean zuzentasun aritmetikotik saihestea tenperaketaren baten bitartez edo aukeratutako tonu-modalitateak horretataraturik, norbanakoa espeziearen tipotik saihestearen analogoa da: are disonantzia ez-garbiak, bitarte determinaturik ematen ez dutenak bi animalia espezie edo gizakia eta animalia arteko bidutzi munstrozkoekin konpara daitezke. - Harmonia eratzen dutenek hots baxu eta lagungarri horiek guztiek, ez dute jarraipenean melodia abesten duten ahots garaiek bakarrik duten koherentzia hura, zeina modulazio eta eskalatan laster eta arin mugitzen baita, aldiz beste haiek guztiek mugimendu geldoagoa bakarrik dute bakoitzean berez dirauen loturarik gabe. Baxu sakona, materia gordinenaren errepresentantea, higitzen da zailtasun handienarekin: bere igotzea eta jaistea maila handitan bakarrik gertatzen da, hirukotan, laukotan eta bostekotan, inoiz ez tonu baxuaren arabera, kontrapuntu bikoitzaz lerrarazitako baxua litzateke izan ere. Higidura fisiko hori fisikoki ere esentzial zaio: ezin baitugu sakonean eskala laster bat ezta txorrotxio bat ere imajinatu. Bizkorrago higitzen dira, hala ere lotura melodikorik eta zentzuzko aurrerakuntzarik gabe, goragoko ahots betegarriak, animalia munduarekiko paraleloan higitzen direnak. Ahots betegarri guztien joaira loturagabe eta determinazio erregularra arrazoimengabeko mundu osoaren analogoa da, kristaletik animaliarik perfektueneraino, ezein izakik ez baitu propioki kontzientzia loturadunik, zeinak bere bizitza osotasun zentzudun egin baitio, garapen espiritualen suzesio bat ere ez baitu esperimendatzen, eta formazioaren bitartez ez baita hobetzen, baizik denak aldi berean dirau, bere motaren arabera, lege finkoak determinaturik. - Azkenik melodian, goian abestu, osotasuna gidatu eta loturagabeko hautazkotasunarekin pentsamendu bakarrarekiko lotura etengabe, esanguratsuan, hasieratik bukaeraraino aurreratuz, osotasun bat aurkezten duen ahots nagusian berrezagutzen dut berriro nik nahimenaren objektibazioaren maila gorena, gizakiaren bizitza eta bulkada hausnartua. Bera bakarrik bezala, arrazoimenez dotatua delako, etengabe aurrera eta atzera begiratzen duelako, bere errealtatearen eta ezin zenbatu ahal ahalatasunen bidean eta horrela bizi-joaira hausnartua eta horrenbestez osotasun bezala loturaduna egikaritzen duelako - horri dagokionez, melodiak bakarrik du lotura esanguratsu, intentzioduna hasieratik bukaerara. Berak kontatzen digu, ondorioz, hausnarketak argituriko nahimenaren historia, zeinaren errealtateko zantzu bere egintzen segida baita; baina gehiago esaten du, bere historia ezkutukoena kontatzen du, asaldura bakoitza, bulkada

bakoitza, nahimenaren mugimendu oro pintatzen digu, sentimendu kontzeptu zabala eta negatiboaren barruan arrazoimenak biltzen duen guztia eta bere abstrakzioan jaso ezin duena. Horregatik beti esan izan da musika sentimendu eta grinen hizkuntza dela hitzak arrazoimenaren hizkuntza diren bezala: Platonek jadanik azaltzen du (GRIEGO) (melodiarum motus animi affectus imitans), 'De legibus» 7, eta Aristotelesek ere badio: (GRIEGO) (cur numeri musici et modi, qui voces sunt, moribus similes sese exhibent?) cap. 1933.

Nola gizakiaren esentzia bere nahimenak bulkada izan, hori ase eta berriro bulkada izatean datzan eta horrela etengabe, eta bere zoriona eta ongizatea hori besterik ez delarik, desiratik asetzerako igarobidea eta horretatik desira berrira bizkor aurrera egiten duelarik, zeren asekuntza berandutzea sofrimendua, desira berriaren irrikatze hutsa, languor, asperdura baita; horrela, horri dagokionez melodiaren esentzia oinarri-tonutik etengabe saihestea, errebelatzea da, mila bidetatik, ez bakarrik maila harmonikoetara, hirugarren eta nagusira, baizik edozein tonutara, zazpigarren disonanterara eta maila gehitueta, baina ondoren oinarri-tonurako azken itzulera bat etortzen da beti: bide horietan guztietan adierazten du melodiak nahimenaren bulkada taxuaniztuna, baina beti maila harmoniko baten azkeneko berraurkitzearen bitartez, eta areago oinarri-tonu batena asetzea. Melodia asmatzea, giza nahi izatearen eta sentitzearen misterio sakonen guztiak hartan aurkitzea genioaren obra da, zeinaren eragitea hemen nabarmenki beste inon baino urrunago baitago erreflexio eta intentzionalitate kontziente orotatik eta inspirazio dei liteke. Kontzeptua hemen, artean beste edonon bezala, antzua da: konpositoreak munduaren esentzia barnekoena agerian jartzen du eta jakituririk sakonena adierazten du, bere arrazoimenak ulertzen ez duen hizkuntza batean; emakume sonanbulu magnetiko batek gauzei buruzko soluzioak ematen dituen bezala, zeinetaz itzartzean ez baitu kontzepturik. Horregatik daude konpositore batengan beste edozein artistarengan baino areago bereizi eta desberdindurik gizakia eta artista. Arte miresgarri hori azaltzeko ere kontzeptuak bere pobrezia eta bere mugak erakusten ditu: hala ere, hasitako analogia aurrera eramaten saiatu nahi dut. - Nola desiratik asetzerara eta horretatik desira berrira laster iragatean dauden zoriona eta ongizatea, melodia bizkorrak errebelatze handirik gabe pozkariotsuak dira; aldiz, geldoak, disonantzia mingarrietan sartzen direnak eta konpas askoren ondoren atzera oinarri-tonura itzultzen direnak asetze berandutu, zailduaren analogo gisa tristeak dira. Nahimen-higidura berrien berandutzeak, languorrak, ezingo luke beste adierazpenik izan oinarri-tonu sustengatua baizik, zeinaren efektua laster izango bailitzateke jasanezina: horri jadanik oso monotono eta deusezak diren melodiak hurbiltzen zaizkio. Dantza-musika bizkorren esakune labur, argiek badirudi erraz lortzen den zorion arruntaz bakarrik hitz egiten digutela; aitzitik, esaldi handi, ibilera luze, errebelatze zabaletako allegro maestosoak urruneko helmuga baten atzetik bulkada handiago, nobleago bat eta azkenean hori lortzea adierazten du. Adagioak bulkada handi eta noble baten sofrimenduaz hitz egiten du, zeinek zorion kaxkar guztiak arbuiatzen baititu. Baina zeinen miresgarria den modu nagusi eta txikiaren efektua! Zeinen txundigarria, tonu-erdi baten aldaketak, hirugarren nagusia txikiaz ordezteak bat-batean eta hutsezinki sentimendu larri, mingarri bat sartzea, zeinatik tonu nagusiak berriro supituki jaregiten baikaitu. Adagioak tonu txikian minik handienaren adierazpena eskatzen du, deitore hunkigarriena bihurtzen da. Tonu txikiko dantza-musikak badirudi zorion kaxkar baten, arbuiatzekoa areago litzatekeenaren galera aipatzen duela, badirudi helburu behere bat neke eta axanpen ondoren lortzeaz hitz egiten duela. - Melodia ahalgarrien agortezintasuna naturaren agortezintasunari dagokio norbanakoen, fisiognomia eta bizi-joairen desberdintasunean. Tonu-mota batetik zeharo bestelako baterako igarobideak, aurrekoarekiko lotura oro erabat ezabatzen duenean, heriotzaren antza du, hartan norbanakoa amaitzen den heinean; baina horretan agertu zen nahimena, bizi egiten da lehen bezala gero ere, beste norbanako batzuegan agertuz, zeinen kontzientziak lehenarenarekin ez baitu inolako loturarik.

Baina aipatu ditugun analogia horiek guztiak aditzera ematean, ez da inoiz ahaztu behar musikak horiekiko ez duela harreman zuzenik, baizik bitarteduna bakarrik; zeren horiek ez baitute inoiz agerpena adierazten, baizik barneko esentzia, agerpen guztien beren baitangoa, nahimena bera bakarrik. Horregatik ez du adierazten poz partikular, determinatu hau edo hura, nahigabe edo min edo ikara edo alaitasun edo jostaritasun edo gogamen-lasaitasun hau edo hura; baizik poza, nahigabea, mina, ikara, alaitasuna, jostaritasuna, gogamen-lasaitasuna bera, nolabait in abstracto, horien esentziala eranskaririk batere gabe, horrela horretarako motiborik ere gabe. Hala ere, ezin hobeki ulertzen ditugu kintesentzia destilatu horretan. Hemendik sortzen da gure fantasia hain erraz horren bidez kitzikatzea, eta gero guztiz bitartegabe hitz egiten digun eta hain biziki mugitua den espiritu-mundua taxutu eta hori hezur eta haragiz janzen ahalegintzen da, horrela adibide analogo batean gorpuzteko. Hori da hitzekiko kantaren eta azkenik operaren jatorria - zeinaren testuak inoiz ez bailuke utzi behar posizio subordinatu hori, bera nagusi eta musika bere adierazpenaren bitarteko soil bihurtzeko, izan ere hutsegite handia eta aldrebeskeria nabaria baita hori. Zeren edonon musikak bizitzaren kintesentzia eta bere prozesuak bakarrik adierazten du, inoiz ez hori bera, horregatik bere desberdintasunek beti erasaten ez diotelarik. Hain zuzen ere orokortasun eskusiboki propio horrek, zehaztasunik doinean, ematen dio balio gorena, gure sofrimendu guztien panazea gisa baitauka. Horrela musika hitzei estuki lotu eta gertaeren arabera moduztatzen ahalegintzen denean, berea ez duen hizkuntza hitz egitera beharturik egoten da. Akats horretatik inork ez du Rossini adina bere burua begiratu: horregatik hitz egiten du haren musikak hain argi eta garbi bere hizkuntza propioa, hitzik behar ez duena eta horregatik, nahiz eta instrumentu soilez burutua izan, bere efektu osoa eragiten duena.

Horren guztiaren ondorioz, agertzen den mundua edo natura eta musika gauza beraren bi adierazpen desberdintzat har ditzakegu, zeina baita horregatik bien analogiaren bitartekari bakarra, eta horren ezagutza eskatzen da analogia hori ulertzeko. Horren arabera musika, munduaren adierazpentzat hartuta, mailarik goreneko hizkuntza orokorra da, zeinak kontzeptuen orokortasunarekiko ia berdina jokatzen baitu, nola horiek gauza partikularrarekiko. Horren orokortasuna ez da inondik ere abstrakzioaren orokortasun huts hura, baizik zeharo beste mota batekoa eta determinatutasun erabateko eta argiarekin loturik dago. Horretan badu figura geometriko eta zenbakien antza, zeinak esperientziako objektu ahalgarri guztien forma orokor gisa eta a priori guztiei aplikagarri diren heinean, ez abstraktuak, baizik begiesgarriak eta erabat determinatuak baitira. Nahimenaren ahalegin, kitzikapen eta kanporatze ahalgarri guztiak, prozesu horiek guztiak gizakiaren barrenean, zeinak arrazoimenak sentimendu kontzeptu zabal negatiboan jaurtitzen baititu, melodia ahalgarri amaigabe ugarien bitartez adieraztekoak dira, baina beti forma soilaren orokortasunean, materiari gabe, beti berbaitangoaren arabera, ez agerpenaren arabera, horien barneko arima gorputz gabea bezala. Barneko harreman horretatik, zeina musikak gauza guztien egiazko esentziarekiko baitauka, azaltzekoa da, halaber, baldin eta edozein eszena, egintza, prozesu, ingurune musika egoki bat jotzen bazaio, horrek guri horien zentzurik ezkutuen zabaltzen digula iruditzea eta horien iruzkin zuzen eta argiena bezala agertzea; sinfonia baten inpresioaren baitan erabat murgiltzen denari, bizitzako eta munduko prozesu ahalgarri guztiak aurretik igarotzen zaizkiola ikusten duenari gertatzen zaion bezala: hala ere, gogoeta egiten badu, ezin du inolako antzekotasunik aurkitu soinu-joko haren eta buruan zeuzkan gauzen artean. Zeren musika, esan denez, desberdina baita beste arte guztien aldean,

agerpenaren, edo zuzenago, nahimenaren objektitate egokiaren kopia ez izatean baizik nahimenaren beraren kopia bitartegabe izatean eta horrela mundu fisiko guztiari metafisikoa, agerpen orori berbaitango gauza aurkeztean. Horren arabera munduari nola musika gorpuztu hala nahimen gorpuztu dei lekiok: hortik da azalgarria zergatik musikak pintura oro, are bizitza errealeko eszena oro, aldi berean esangurazkotasun goratua nabarmentzen duen; hainbat gehiago, noski, zenbat eta analogoagoa den bere melodia emandako agerpenaren barneko espirituarekiko. Horretan datza poema bat kanta bezala edo aurkezpen begiesgarri bat pantomima bezala edo biak opera bezala musikari ezarri ahal izatea. Giza bizitzako irudi partikular horiek, musikaren hizkuntza orokorrari ezarriak, inoiz ez dira horri erabateko beharrezkotasunez lotuak eta dagozkionak izaten; baizik horiek berarekiko edozein adibide kontzeptu orokor batekiko harremanean bezala bakarrik egoten dira: horiek errealtatearen determinatutasunean aurkezten dute musikak forma soilaren orkotasunean enuntziatzen duena. Zeren melodiak nolabait, kontzeptu orokorren antzera, errealtatearen abstractum bat baitira. Horrek, hots, gauza Horrek, hots, gauza partikularren munduak, begiesgarria, berezia eta indibiduala, kasu partikularrak hornitzen ditu, nola kontzeptuen orokortasunerako hala melodien orokortasunerako, nahiz eta bi orokortasunok elkarrekiko ikuspegi jakin batetik kontrajarriak izan; izan ere, kontzeptuak ezer baino lehen begiespenetik abstrahituriko formak baitira, nolabait gauzei kendutako kanpoko eskola baitaukate, horrela erabat propioki abstraktuak dira; aitzitik, musikak taxuera guztien aurretiko muin barnekoena edo gauzen bihotza ematen du. Harreman hori oso ongi adierazten da eskolastikoen hizkuntzan esaten denean: kontzeptuak universalia post rem dira, musikak, berriz, universalia ante rem ematen ditu eta errealtateak universalia in re. Poema bati ezarritako melodiaren zentzu orokorrari era berean hura bezala gogara hautaturiko beste adibide batzuk egoki lekizkioke hartan adierazitako orokortasun eta maila berean: horregatik konposizio bera ahapaldi askori egokitzen zaie, horregatik vaudevillea ere. Baina oro har konposizio baten eta aurkezpen begiesgarri baten arteko harremana ahalgarri delakoa, esan denez, biak munduaren barneko esentzia beraren adierazpen guztiz desberdinak izatean datza. Kasu partikular batean horrelako harreman bat errealki existitzen denean, orduan konpositoreak nahimenaren kitzikapenak, gertaera baten muina eratzen dutenak musikaren hizkuntza orokorrean adierazten jakin du; orduan kantaren musika, operaren musika adierazkorrak dira. Konpositoreak aurkituriko analogiak bi horien artean munduaren esentziaren ezagutza bitartegabetik sortu behar du eta ezin liteke, jakinaren gaineko intentzionalitatearekin, kontzeptuen bitartezko imitazio izan: bestela musikak ez du barneko esentzia, nahimena bera adierazten; baizik bere agerpena bakarrik imitatzen du, behar bestekoa ez den eran; hori musika propioki kopiatzaile orok egiten duenez, adibidez, Haydnen , baita bere obrak gune askotan, zeinetan mundu begiesgarriaren agerpenak bitartegabe imitatu baitira; gauza bera batailen koadroetan: zeinak erabat arbuiaitzekoak baitira.

Musika ororen esanezinezko barnekoena, zeinaren indarrez paradisu guztiz ezagun eta aldi berean beti urruneko bat begien aurretik pasarazten baitigu, horrela guztiz ulergarri eta hala ere hain azalezina dena, gure esentzia barnekoeneko asaldura guztiak, batere errealtaterik gabe eta haren tormentutik urrun ematean datza. Era berean hari esentziala zaion seriotasuna, zeinak irrigarria dena bere eremu bitartegabeki propiotik erabat baztertzen baitu, haren objektua errepresentazioa ez izatetik azaldu behar da, zeinaren ikuspegitik engainua eta irrigarritasuna bakarrik baitira ahalgarri; bestela bere objektua nahimena da bitartegabe eta hori da esentzian denetan serioena, zeinaren mendean baitago dena. - Zeinen edukitsua eta

esanguratsua den bere hizkuntza testigatzen dute errepikapen-zeinuek Da capo-rekin batera, horrela hitzezko obretan ezin jasanezkoak bailirateke, haietan aitzitik oso egoki eta ongarriak dira: zeren erabat atzemateko bi aldiz entzun beharra baitago.

Baldin eta musikaren aurkezpen honetan guztian ahalegindu banaiz argi uzten hizkuntza guztiz orokor batean adierazten duela munduaren barneko esentzia, berbaitangoa, zeina bere kanporatze argienaren arabera nahimen kontzeptupean pentsatzen baitugu, materia homogeneo batean, hots, soinu soiletan, eta determinatutasun eta egia handienarekin; gainera, nire iritzia eta ahaleginaren arabera, filosofia munduaren esentziaren erabateko errepikatze eta adierazte ziurra besterik ez baldin bada, kontzeptu oso orokorretan, izan ere horietan bakarrik baita ahalgarri esentzia oso horren edonora iritsi eta erabilgarria den gainikuspegi bat; orduan, niri jarraitu zaidanak eta nire pentsatzeko eran sartu denak ez du hain paradoxazko aurkituko, esaten badut, baldin eta lorgarria izango balitz musikaren azalpen guztiz ziur, erbateko eta kasu partikularretaraino iritsiko litzatekeena, horrela berak adierazten duenaren erreprodukzio xehe bat kontzeptutan ematea, hori aldi berean munduaren erreprodukzio eta azalpen behar bestekoa izango litzateke kontzeptutan edo baliokidea, horrela egiazko filosofia izango litzateke eta ondorioz lehen aipaturiko Leibnizen maxima, ikuspuntu beherago batetik guztiz zuzena dena, musikaren gure ikuspuntu garaiagoaren zentzuan honela parodiatu ahal izango genuke: . Zeren scire, jakiteak kontzeptu abstraktutan ezarri izana esan nahi baitu. Eta nola gainera era askotan baieztaturiko Leibnizen maximaren egiaren indarrez, musika, bere esangura estetiko edo barnekotik eta kanpotik soilik eta enpirikotasun hutsean kontsideraturik bitartekoa besterik ez den, zenbaki handiak eta zenbaki-harreman osatuak, kontzeptuzko kontzepzioaren bitartez bitartedunki bakarrik kontzebiturik ezagut dezakeguna, bitartegabeki eta in concreto kontzebitzeko; horrela musikari buruzko bi ikuspuntu hain desberdin eta hala ere zuzen horien sintesiaren bitartez zenbaki-filosofiaren ahalgarritasunaren kontzeptu bat egin dezakegu, Pitagorasena eta txinatarren «Y-king'ekoa zena bezalakoa, eta horrela zentzu horren arabera pitagorikoen sententzia hura interpreta dezakegu, zeina Sexto Enpirikok (lib. 7) aipatzen baitu: (GRIEGO) (numero cuncta assimilantur) [zenbakiari dagokionez, gauza guztiak antzekoak dira]. Eta azkenik ikuspuntu hori lehenagoko harmonia eta melodiaren interpretazioarekin harremanean jartzen badugu, orduan naturaren azalpenik gabeko filosofia moral soil bat, Sokratesek ezarri nahi zuena bezalakoa, harmoniarik gabeko melodia batenarekin, Rousseauk esklusiboki nahi zuena, erabat analogikoa aurkituko dugu, eta horrekiko oposizioan etikagabeko fisika eta metafisika soil bat melodia gabeko harmonia soil bati egokituko zaio. - Behin behineko kontsiderazio horiei zilegi bekit, agertzen den munduarekiko musikaren analogiarekin zerikusia duten ohar batzuk eranstea. Aurreko liburuan aurkitu dugu nahimenaren objektibazioaren mailarik gorena, gizakia, ezin zitekeela

soilik eta bakarturik ager, baizik bere azpitik dituen mailak eta horiek oraindik beherago daudenak suposatzen zituztela: gauza bera gertatzen da musikarekin, zeinak, munduak bezala, nahimena bitartegabe objektibatzen baitu, erabateko harmonian bakarrik agertzen baita perfektuki. Goitik gidatzen duen melodiaren ahotsak, bere inpresio osoa eragiteko, beste ahots guztien laguntza behar du baxu sakoneraino, zeina hartu behar baita beste guztien jatorritzat: melodiak atal osagarri gisa sartzen du bere burua melodian hori hartan bezala: eta ahots guztiez osaturiko osotasunean bakarrik musikak adierazi asmo duena adierazten duen bezala, horrela nahimen bakar eta denboraz kanpokoak aurkitzen du bere objektibazio perfektua maila guztien erabateko sintesian, zeinak ezin zenbatu ahala mailatan igotako argitasunean jartzen baitu agerian bere esentzia. - Oso ohargarria da ondorengo analogia. Aurreko liburuan ikusita daukagu, nahimen-agerpen guztien elkarrekiko egokitze guztiak gorabehera, kontsiderazio teleologikoak sortarazten dituen moten ikuspegitik, hala ere gatazka gaundiezin batek dirauela agerpen horien artean banako gisa, horien maila guztietan ikusten dena eta mundua nahimen bakar eta beraren agerpen horien guztien etengabeko borrokazelai bihurtzen duena, zeinak horrenbestez bere buruarekin duen barneko kontraesana ikusarazten baitu. Horren pareko zerbait aurkitzen dugu musikan ere. Soinuen sistema harmoniko perfektuki garbia ez da soilik fisikoki ezinezkoa, baita aritmetikoki ere. Zenbakiek berek, zeinen bidez soinuak adierazten baitira, irrazionalitate ebatzezinak dituzte: ez dago eskalarik, zeinaren barruan bosgarren oro tonikarekiko 2a 3arekin bezala kalkula daitekeenik, ezta hirugarren handi bakoitza 4a 5arekiko bezala, hirugarren txiki bakoitza 5a 6arekiko eta abar bezala. Zeren soinuak tonikarekiko zehatzak badira, ez dira elkarrekiko horrelakoak izaten; adibidez, bosgarrenak hirugarrenaren hirugarren txikia izan beharko lukeen heinean eta abar: zeren eskalako soinuak komerialariekin konpara baitaitezke, batean paper bat, eta gero beste bat antzeztu behar baitituzte. Horregatik ez dago pentsatzerik musika erabat zehatzik, gutxiago exekutatzetik; eta horregatik musika ahalgarri oro saihestu egiten da garbitasun perfektutik: bere disonantzia esentzialak tonu guztietan banatuz, tenperaketaren bitartez, disimulatu bakarrik egin ditzake. Horretaz ikus bedi Chladnisen § 30 eta bere , 12. or34.

Gauza asko neukake oraindik musika nola hautematen den moduari buruz eransteke, soilik eta bakarrik denboran eta beraren bitartez, espazioaren erabateko eskusioarekin, kausalitatearen, horrela adimenaren ezagutzaren eraginik gabe ere bai: zeren soinuek jadanik efektu gisa, eta horien kausetara begiespenean bezala atzera joan gabe, inpresio estetikoa sortzen baitute. - Baina ez ditut kontsiderazio hauek gehiago luzatu nahi, izan ere hirugarren liburu honetan xehekiegi ari izan bainaiz edo xehetasunei gehiegi lotu bainatzaie. Nire helburuak beharrezko egiten zuen hori eta hainbat hobeki barkatuko zait, baldin eta inoiz behar beste ezagutzen ez den artearen garrantzia eta balio handia kontuan hartzen bada, gogoeta eginez, - ezen gure ikuspuntuaren arabera, mundu ikuskor guztia nahimenaren objektibazioa, ispilua besterik ez dela, bere autoezagutzarako, are laster ikusiko dugunez, bere salbamenaren ahaltsunerako laguntzen duena; aldi berean, mundua errepresentazio gisa, bereizirik kontsideratzen bada, nahi izatetik jareginik kontzientzia bakarrik bere baitan hartzen duela, bizitzaren alde alaiena eta errugabe bakarra dena - orduan artea horren guztiaren igotze garaiena, garapen perfektuena bezala hartu beharko dugu, zeren esentzian mundu ikuskorrarena bera, baina kontzentratuago, burutuago, asmo eta hausnarketarekin egiten baitu, eta horregatik hitzaren zentzu osoan bizitzaren lorea dei daiteke. Mundu osoa errepresentazio gisa nahimenaren ikuskortasuna baizik ez bada, orduan artea ikuskortasun horren argitzapena da,

objektuak garbiago erakusten dituen camera obscura, hobeki gainbegiratu eta besarkatzen uzten diguna, antzerkiko antzerkia, eszenako eszena en.

Eder guztiaren plazerra, kontsolamendua, arteak ematen duena, artistaren suharra, bizitzako atsekabeak ahantzazazten dizkiona, genioak besteen aurrean duen pribilejioa, zeinak kalteordaintzen baitu kontzientziaren klarutasunarengatik neurri berean gehituriko sofrimendutik eta espezie heterogeneo batean duen bakardade ergeletik - hori guztia oinarritzen da, aurrerantzean erakutsiko zaigunez, bizitzaren berbaitangoa, nahimena, izatea bera etengabeko sofrimendu, parte batean, errukarri, parte batean, izugarri izatean; aitzitik, horrek berak errepresentazio gisa bakarrik, begiespen hutsean edo artearen bidez birsortua, tormentutik aske, ikuskizun esanguratsua ematen du. Munduaren alde ezagugarri huts hori eta edozein artetako horren birsorkuntza artistaren elementua da. Hori nahimenaren objektibazioaren ikuskizunaren kontsiderazioak kateatzen du: bertan dirau, ez da nekatzen hori kontsideratzen eta aurkeztuz birsortzen eta bitartean berak hartzen ditu ikuskizun hori burutzearen kostuak, bera da nahimena, objektibatzen dena eta etengabeko argian dirauena. Munduaren esentziaren ezagutza egiazko eta sakon hori berbaitango helburu bihurtzen zaio: horretan dirau. Horregatik berarentzat, hurrengo liburuan etsipenera iritsitako santuarengan ikusiko dugunez, ez da nahimenaren kietibo bihurtzen, ez du bizitzatik betiko salbatzen, une baterako bakarrik eta ez zaio hartatik kanpora bide, baizik une batean kontsolamendu hartan; harik eta horren bitartez gehitutako indarra, jokoaz nekatutik, seriotasunari heltzen dion arte. Igarobide horren sinbolotzat Raffaelen kontsidera daiteke. Guk ere orain hurrengo liburuan seriora jo nahi dugu.

LAUGARREN LIBURUA

MUNDUA NAHIMEN GISA

BIGARREN KONTSIDERAZIOA:

LORTUTAKO AUTOEZAGUTZAN
BIZITZEKO NAHIMENAREN
BAIEZTAPENA ETA UKAPENA

Tempore, quo cognitio simul advenit, amor e medio supersurrexit.
[Ezagutza gertatu zen garaian, alde egin zuen handik gurariak.]

studio Anquetil Duperron, vol 2, p. 216
[Ez dago jatorrizko testuan, en.]

§ 53

Gure kontsiderazioaren azken atala serioena bezala iragartzen zaigu, zeren gizakien egintzei buruzkoa baita, eta objektu hori bitartegabe dagokio bakoitzari, eta inori ezin lekioke arrotz edo axolagabe izan, are hain da normala gainerako guztia gizakiaren naturarekin harremanetan jartzea, non egiteari buruzko ikerketa koherente orotan bere eduki osoaren emaitzatzat hartzen baita, gutxienez berari interesatzen zaion neurrian, eta horregatik atal horri, beste ezeini ez bada ere, arreta serioa eskaintzen baitzaio. - Adierazitako harremanean, adierazteko ohiko moduan, gure kontsiderazioaren orain datorren atalari filosofia praktikoa deituko genioke orain arte tratatutakoarekiko oposizioan. Nire iritzia arabera, ordea, filosofia oro beti teorikoa da, zeren esentziala baitzaio, zeinahi dela ere beti ikerketaren objektu hurbilena, beti kontsiderazio hutsean jokatu eta ikertzea, eta agindurik ez ematea. Aitzitik, praktiko izatea, egintza gidatzea, karakterra eraldatzea uzi zaharrak dira, zeintzuei uko egin beharko bailieke zentzu helduagoa duen honetan. Zeren hemen, existentziaren balioa edo desbalioaz, salbamenaz edo kondenazioaz auzia delarik, kontzeptu hilek ez dute oreka ematen, baizik gizakiaren esentzia barnekoenak, bera gidatzen duen demonak, zeinak ez bera, baizik hark hautatu baitu bera - Platonek dioenez, bere karakter inteligibleak - Kantek adierazten duenez. Bertutea ez da irakasten, ezta genioa ere: are berarentzat kontzeptua hain antzua da eta lanabes gisa bakarrik erabilgarri, nola den artearentzat. Horregatik ergeltasun berekoa litzateke guretzat gure moral-sistemek eta etikek bertutetsu, noble eta santuak, nola gure estetikek poeta, eskultore eta musikariak egingo dituztela espero izatea.

Filosofiak jadanik existitzen dena, munduaren esentzia interpretatu eta azaldu besterik ezin du egin, zeina in concreto, h. d. sentimendu gisa, edonori era ulergarrian adierazten baitzaio, arrazoimenaren ezagutza argi, abstraktura eramanez, baina hori harreman ahalgarri orotatik eta ikuspuntu orotatik. Nola hori aurreko hiru liburuetan filosofiaren orokortasun berezian beste ikuspuntu batzuetatik egiten ahalegindu naizen; oraingo liburu honetan era berean gizakiaren egintza kontsideratuko da; eta munduaren alde hori ez bakarrik alde aurretik oharrarazi dudana bezala, judizio subjektiboen, baizik objektiboen arabera, guztietan garrantzitsuena aurkitu nahiko nuke. Orain arteko kontsiderazio-erarekiko leial iraungo dut, eta orain arte suposiziotzat proposatutakoan oinarrituko naiz, are idazki oso honen edukia den pentsamendu bakarrean, orain arte gainerako objektu guztietan bezala gizakiaren egintzari dagokionez garatuko du, eta horrenbestez, ahal dudana heinean, azken ahalegina egingo dut ahalik eta erarik perfektuenean jakinarazteko.

Emandako ikuspuntuak eta iragarritako trataerak nahikoa garbi uzten dute liburu etiko honetan ez dela preskripziorik, ez betebeharrei buruzko doktrinarik espero izan behar; are gutxiago moral-printzipio orokorrik bertute guztiak sorrarazteko errezeta unibertsal gisako bat emango denik. Ez dugu hitz egingo ere, zeren horrek, Eranskinean adieraziko denez, kontraesana baitauka, ezta ere, kasu berean aurkitzen baita. Ez dugu inola ere betebeharrak hitz egingo: zeren horrela haurrei eta herriei beren haurtzaroan hitz egiten baitzaie, ez ordea nagusi bihurtu den garai baten prestakuntza berenganatu dutenei. Kontraesan nabaria da nahimenari aske deitu eta horri legeak ezartzea, horien arabera nahi izan behar izateko -'nahi izan behar'-

zurezko burdina! Baina gure iritzi osoaren arabera nahimena askea ez ezik, ahaltsua ere bada: hartatik bere egintza ez ezik, bere mundua ere sortzen da; eta bera den bezala, horrela agertzen da bere egintza, horrela agertzen da bere mundua ere: biak bere autoezagutza dira eta besterik ezer ez; bere burua determinatzen du, eta horrenbestez biak: zeren berataz kanpo ez baitago ezer, eta horiek hura bera dira: horrela bakarrik da egiazki autonomoa; beste edozein iritziren arabera heteronomoa. Gure ahalegin filosofikoak joko du gizakiaren egintza, maxima hain desberdinak, are kontrajarriak, zeinaren adierazpen bizia baita, bere esentzia barnekoen eta edukiaren arabera adierazi eta azaltzera, gure orain arteko kontsiderazioaren moldean eta hain zuzen, orain arte munduko gainerako agerpenak bezala, horren esentzia barnekoena argitzen, ezagutza abstraktuan ematen ahalegindu garenez. Gure filosofiak orain arteko kontsiderazio guztietako immanentzia bera baieztatuko du: ez ditu, Kanten doktrina handiaren kontra, agerpenaren formak, zeinen adierazpen orokorra arrazoiaren printzipioa baita, jauzi-oholtzat erabilitako horiei esangura bakarrik ematen dien agerpenaren gainetik jauzi egin eta fikzio hutsen eremu mugagabeen lurrartzeko. Baizik ezagugarritasunaren mundu erreal honek, zeinean baikaude, eta zeina gudan baitago, material bezala, gure kontsiderazioaren mugatzat dirau: horren edukia hain da aberatsa, non giza espiritua gai den ikerkuntzarik sakonenak ere ez bailuke agortuko. Eta nola mundu erreal, ezagugarriak gure kontsiderazio etikoetarako, ezta aurrekoetarako ere, inoiz gai eta errealitaterik gabe utziko ez gaituen bezala; horrela ez dugu kontzeptu edukigabe, negatiboetara jo beharrik izango geure buruari sinetsarazteko, zerbait esan dugula, bekainak jasoz eta , eta antzeko ukapen soilez ari garenean (GRIEGO) -'nihil est, nisi negationis nomen, cum obscura notione'[hori adierazpen negatiboa besterik ez da, errepresentazio ilun batekin lotua] (Julianus Apostata, 5), horiei laburrago (GRIEGO) deitu ordez: mota horretako plater estali, hutsik ez dugu mahairatu beharrik. - Azkenik ez hemen eta ez orain artekoan ez dugu ipuinik kontatuko eta horiek filosofiatzat emango. Zeren gure iritzia baita munduaren ezagutza filosofikotik izugarri urrundurik dagoela horren esentzia nolabait, nahiz eta fineziaz mozturoroturik, historikoki atzeman dezakeela uste duena; eta hori gertatzen zaio munduaren berbaitango esentziari buruzko bere iritzian bilakatze, edo bilakatu izan edo bilakatu beharren bat aurkitzen duenari, goizago edo beranduagoren bat, esangura txikiena duena, eta ondorioz, agerian edo ezkutuan, munduaren hasiera- eta bukaera-puntu bat bien arteko

bidearekin bilatu eta aurkitzen duenari, eta are norbanako filosofatzaileak bide horretan bere kokagune propioa berrezagutzen badu. Filosofatze historiko horrek kasurik gehienetan barietate ugari baimentzen dituen kosmogonia bat ematen du, bestalde baita emanazio-sistema bat ere, erorketaren doktrina bat edo azkenik, bere ahaleginen antzutasunarengatik etsipenak jota norabide hartan azken mugaraino eramaten baldin bada, alderantziz, etengabeko bilakaeraren, agerpenaren, sortzearen, ilunpetik, amildegi goibeletik, lehen amildegitik, amildegi hondargabetik argitara irtetearen doktrina eta antzeko beste eragabekeriak, zeinak erarik laburrenean desegin baitaitezke esanez oraingo aldiunea arte betiera oso bat, h. d., denbora amaigabe bat, iragan dela, beraz gerta daitekeen edo gertatu behar duen oro jadanik gertatu dela. Zeren horrelako filosofia historiko orok, nahi bezain bikaina izan daitekeela ere, Kant existitu izan ez balitz bezala, denbora gauzaren berbaitango determinaziotzat hartzen du, eta horregatik Kantek berbaitango gauzarekiko oposizioan agerpena eta Platonek bilakatzen dena, eta izan baden, inoiz bilakatzen ez denarekiko oposizioan inoiz ez dena, deitzen duen horretan gelditzen da; edo azkenik indiarren artean Maiaren beloa deitzen den horretan: arrazoiaren printzipioari entregaturiko ezagutza da, zeinarekin ez baita inoiz gauzen barneko esentziara iristen, baizik agerpenak amaigabearaino jazartzea besterik ez baita egiten, amaiera eta xederik gabe higituak, gurpilean ari den urtxintxaren antzera, azkenean nekaturik, goiko edo beheko edozein puntutan gelditu arte, eta beretzat besteengandik errespetua mehatxuka lortu nahi duelarik. Munduaren benetako kontsiderazio filosofikoa, h. d. bere barneko esentzia, ezagutzen irakasten diguna eta agerpenaz haratago eramaten gaituena, nondikoaz, norakoaz eta zergatikoa galdetu ordez, beti eta nonahi munduaren zeraz galdetzen diguna da, d. h. gauzak ez ezein harremanen arabera, ez bilakatzen eta iraungitzen direnak bezala, hitz batean, arrazoiaren printzipioaren lau taxuetako baten arabera kontsideratzen dituen bezala; baizik alderantziz printzipio horren arabera aztertua izan ondoren gelditu dena hartzen du objektutzat, harreman guztietan agertzen dena, baina horien mendean ez dagoena, munduaren esentziarekiko horren ideiekiko beti berdina. Ezagutza horretatik abiatzen da artea bezala, baita filosofia ere, are liburu honetan aurkituko dugunez, egiazko santutasunera eta munduaren salbamenera gidatzen duen gogamenaren aldarte horri ere.

§ 54

Lehen hiru liburuek espero dut ezagutza argi eta ziur hau eman izana: munduan errepresentazio gisa nahimenari bere ispilua eskaintzen zaiola, zeinean berak bere burua argitasun eta perfekzioaren gradu goranzko berrezagutzen baitu, gorena gizakia delarik; gizakiaren esentziak bere adierazpen perfektua bere egintzen sail loturadunaren bitartez lortzen du, zeinen lotura autokontzientea arrazoimenak ahalbidetzen baitu, haren osotasuna beti in abstracto gainbegiraraziz.

Nahimenak, bere baitan hutsik kontsideratuak, bulkada ezagutzagabe, itsu eta erresistiezinak bezala, oraindik natura inorganiko eta begetalean eta haren legeetan, baita geure soin propioaren atal begetatiboetan agertzen ikusten dugunez, errepresentazioaren mundu gehitu, bere zerbitzurako garatuaren bitartez bere nahi izatearen ezagutza lortzen du, baita nahi duena zer denarena ere, hots, mundua, bizitza aurkezten den bezala besterik ez dena hain zuzen ere. Horregatik deitu diogu agertzen den munduari bere ispilu, bere objektitate: eta nola nahimenak nahi duena

beti bizia den, eta hori nahi izate horren errepresentaziorako aurkezpena besterik ez denez gero: horrela argi eta garbi pleonasma bat da soilik esan ordez esatea.

Nola nahimena berbaitango gauza, munduaren barreneko edukia, esentziala den; bizia, mundu ikuskorra, agerpena nahimenaren ispilua besterik ez den; horrek itzalak bere gorputza bezain bereiztezinki lagunduko du: eta nahimena hor badago, bizia, mundua ere hor dago. Bizitzeko nahimenari horrela bizia ziurra zaio, eta bizi-nahimenez beterik gauden bitartean, ez daukagu geure existentziaz kezkatu beharrik, ezta heriotzaren ikuskizunaren aurrean ere. Egia da banakoa sortzen eta iraungitzen ikusten dugula: baina banakoa agerpen besterik ez da, arrazoiaren printzipioan, principium individuationis-ean harrapaturiko ezagutzarako bakarrik dago hor: horretarako noski opari bat bezala hartzen du bere bizia, ezerezetik sortzen da, gero heriotzaren bidez opari horren galera pairatzen du eta ezerezera itzultzen da. Baina bizia filosofikoki, h. d., bere ideien arabera, kontsideratu nahi dugu, eta orduan aurkituko dugu ez nahimena, berbaitango gauza bere agerpen guztietan ezta ezagutzaren subjektua, agerpenen behatzailea, ez dituela ez jaiotzak eta ez heriotzak ukitzen. Jaiotza eta heriotza nahimenaren agerpenari dagozkio, beraz biziari, eta esentziala zaio iragankor gisa sortu eta iraungitzen diren banakoetan aurkeztea, denboraren forman azaltzen diren agerpen gisa, berez denborarik ezagutzen ez duen, baina aipaturiko eran aurkeztu behar duena bezala, bere esentzia propioa objektibatzeko. Jaiotza eta heriotza era berean biziari dagozkio eta batabesteari orekan eusten diote elkarrekiko baldintza gisa, edo beste esamolde hau gogokoago izanez gero, bizi-agerpen osoaren polo gisa. Mitologia guztietatik jakintsuenak, indiarrek, hori berori adierazten du suntsiera, heriotza sinbolizatzen duen jainkoari (Brahma bezala, Trimurtiko jainko bekatari eta beherena, sorkuntza, jaiotza eta Vishnu bezala kontserbazioa) atribututzat emanez kaskezur-lepokoa eta aldi berean Lingama [faloa], sorkuntzaren sinboloa, zeina hemen heriotzaren konpentsazio gisa agertzen baita, horrela sorkuntza eta heriotza elkar neutraldu eta gainditzen duten korrelatua esentzialak direla adierazten dutenak. - Erabat pentsamendu bera zen greko eta erromatarrek beren sarkofago baliotsuak jai, dantza, eztei, ehiza, animalia borroka, bakanal, bizi-bulkada indartsuenen aurkezpenekin apaintzera bultzatzen zituen, oraindik ikusten ditugunez, eta ez bakarrik horrelako plazentzietan, baizik talde gozamenekoetan eta are satiro eta ahuntzen estalketetan ere bai. Helburua agerian zegoen, dolutzen zen norbanakoaren heriotzatik inpresiorik handinez naturaren bizitza hilezkorrera pentsamendua eramatea, eta horren bidez, nahiz eta jakite abstraktua adierazi gabe, natura osoa bizitzeko nahimenaren agerpena eta betekuntza delakora. Agerpen horren forma denbora, espazioa eta kausalitatea da, baina horren bitartez dator indibiduazioa, zeinak berekin baitakar, banakoak sortu eta iraungi behar duela, baina horrek bizitzeko nahimena, zeinaren agerpenaren lagin edo espeziimen bakar bat besterik ez baita norbanakoa, hain gutxi erasaten baitu, nola naturaren osotasuna gaixotzen baita banako baten heriotzaren bitartez. Zeren ez bera, baizik espeziea bakarrik interesatzen zaio naturari eta horren kontserbazioan saiatzen da seriotasun guztiarekin, ernamuinen gainkopuru eskergaren eta ernaltze-instintuaren ahalmen handiaren bitartez hain oparoki arduratuz. Aitzitik, banakoak ez du beretzat inolako baliorik, eta ezin du izan, zeren denbora amaigabe, espazio amaigabe eta banako ahalgarrien kopuru amaigabe horretan baitago bere erresuma; horregatik beti prest dago banakoari erortzen uzteko, zeina ez bakarrik mila eratara, baizik halabehar hutsalenen bitartez galtzeko arriskuan baitago, baizik eta horretara jatorriz determinaturik dago eta naturak berak gidatzen du horretara espeziearen kontserbazioari zerbitzatu dion unetik bertatik. Guztiz xaloki adierazten du naturak berak banakoek benetako

errealitaterik ez daukatelakoa, h. d. nahimenaren objektitate perfektua ideiak bakarrik direlako egia handia. Gizakia natura bera baita, eta gainera bere autokontzientziaren gradu gorena, natura, aldiz, bizitzeko nahimen objektibatua besterik ez; horrela gizakiak, ikuspuntu hau kontzebitu badu eta horretan badirau, zalantzarik gabe eta eskubidearekin kontsola daiteke bere buruaren eta adiskideen heriotzaz bera den naturaren bizitza hilezkorra begirada zuzenduz. Horrela ulertu behar da Shiva Lingamarekin, baita antzinako sarkofago haiek ere, zeinek bizitza gorieneko beren irudiekin aldarrikatzen baitute: .

Sorkuntza eta heriotza biziari dagokion eta nahimenaren agerpen horri zerbait esentziala zaion bezala kontsideratu behar direla, ateratzen da gainerako bizitza osoa eratzen duten adierazpen nabarmenki potentziatuak bakarrik izatea aurkezten digutelaketik. Hori materiaren etengabeko aldaketa besterik ezertxo ere ez da formaren iraute finkoaren pean: eta horixe da banakoen iragankortasuna espeziearen iraganezintasunean. Elikatze eta birsortze etengabea graduaren arabera bakarrik da desberdina sorkuntzatik eta etengabeko iraizketa graduaren arabera bakarrik heriotzatik. Lehen hori simple eta argien landarean agertzen da. Hori ez da ezertxo ere instintu beraren etengabeko errepikapena baizik, bere zuntzik sinpleenarena, hosto eta abarretan taldekatzen dena; elkarri eusten dioten landare homogeneoen agregatu sistematiko bat, zeina instintu bakar beraren etengabeko birsorkuntza baita: hori perfektuki asetzeko metamorfosiaren eskaileraren bitartez igotzen da azkenik lore eta fruituraino, bere izate eta ahalegintzearen konpendio den horretaraino, zeinean bide laburrago baten bitartez bere xede bakarra duena lortzen baitu, eta kolpe batean mila bider burutzen du, ordu arte bakarrean eragiten zuela: bere buruaren errepikapena. Fruiturainoko bere bulkadak idazkiak inprentarekiko bezala jotzen du horrekiko. Gauza bera nabari da animaliarengan. Elikatze-prozesua etengabeko sorkuntza bat da, sorkuntza-prozesua nabarmen potentziaturiko elikatze bat; sorkuntzako atsegina bizi-sentimenduaren ongizate nabarmenki potentziatua. Bestalde, iraizketa, materia etengabe lurrindu eta kanporatzea, heriotzaren potentzia nabarmenduan, sorkuntzaren oposizioa dena bera da. Eta nola honetan beti pozik gauden forma kontserbatzeaz materia kanporatua deitoratu gabe; horrela jokatu behar dugu, baldin eta heriotzan gauza bera potentzia nabarmenduan eta osoki gertatzen bada, egunero eta orduoro iraizketan gertatzen dena: lehen kasuan axolagabe garen bezala, bestean ere ez guke ikaratu beharko. Ikuspuntu horretatik hain aldrebesa agertzen da norbere indibidualitatearen iraupena eskatzea, zeina beste norbanako batzuen bitartez ordeztu baita, nola norberaren soineko materiaren iraupena, zeina etengabe berriak ordeztu baitu: eta zentzugabekeria bera litzateke gorpuk baltsamatzea nola gure iraizkinak arduraz gordetzea. Soin indibidualari loturiko kontzientzia indibidualaz denaz bezainbatean, egunero loaren bitartez erabat eteten da. Lo sakona heriotzarekiko, zeinara sarritan, adibidez, izoztean, etenik gabe iragaten baita, bere iraupenaren presenterako ez da desberdina, baizik etorkizunerako, hots, itzartzearekiko ikuspegitik. Heriotza indibidualitatea ahazten den lo bat da: gainerako guztia itzartu egiten da edo areago itzarrik gelditu da.

Ezer baino lehen argiro berrezagutu behar dugu nahimenaren agerpenaren forma, hau da, bizitzaren edo errealitatearen forma, propioki presentea bakarrik dela, ez etorkizuna ezta iragana ere: horiek kontzeptuan bakarrik dira, horiek ezagutzaren loturan bakarrik existitzen dira, arrazoiaren printzipioari darraion heinean. Iraganean ez da ezein gizaki bizi izan, eta etorkizunean ez da inoiz bakar bat ere biziko; presentea bakarrik da bizitza ororen forma, bere jabetza ziurra ere bada,

inoiz erauzi ezin zaiona. Presentea beti hor dago, bere edukiarekin batera: biak finko daude, kolokarik gabe; ostarkua urjauziaren gainean bezala. Zeren nahimena bizitzaren jabe baita, bizitza presente ziur eta seguruaren jabe. - Noski, iragandako milurteetara begiratzen badugu, horietan bizi izan diren milioika gizakiengana; orduan galdetzen dugu: Zer izan ziren? Zer izan da horietaz? - Baina kontrara gogora ekar dezakegu geure bizitza propioko iragana eta horko eszenak fantasian bizitasunez berriro eta berriro galdetu: Zer izan zen hori guztia? Zer izan da horretaz guztiaz? - Horrekin bezalaxe gertatu da milioika haien bizitzarekin ere. Ala uste izan behar ote dugu, iraganak heriotzaz zigilaturik zegoelako, izate berri bat hartu zuela? Gure iragan propioa, biharamuneko eta atzoko eguna ere bai, fantasiaren amets hutsal bat besterik ez dela, eta gauza bera dela milioika haien guztien iragana? Zer izan da? Zer da? - Nahimena, zeinaren ispilua bizitza baita, eta ezagutza nahimengabea, ispilu horretan argiro islatzen duena. Hori oraindik berrezagutu ez duenak edo berrezagutu nahi ez duenak iragandako belaunaldien zoriari buruzko goiko galdera horiei oraindik honako hauek gehitu behar dizkie: zergatik da hain zuzen bera, galdetzailea, hain zoriontsu presente baliotsu, iheskor, erreal bakar horren jabe izateko, giza belaunaldien ehunka haiek, garai haietako heroi eta jakintsuak bezala iraganaren gauan murgildu eta horrenbestez deuseztu diren bitartean?; baina bera, bere ni esanguragabea, errealki existitzen da? - edo laburrago, baina era berean estrainio: zergatik orain hau, bere oraina - da oraintxe hain zuzen eta ez zen jadanik aspaldi izan? - Hori estrainioki galdetzean bere izatea eta bere denbora batabestearrekiko independente ikusten ditu eta hura honen baitara jaurtia bezala: propioki bi orain pentsatzen ditu, bata, objektuari, bestea, subjektuari dagokiona, eta miretsi egiten da horien bat-etortzearen halabehar zoriontsuaz. Baina egiazki presentea eratzen duena (tratatuan erakutsi denez) objektuaren ukipen-gunea bakarrik da, zeinaren forma denbora baita, subjektuarekiko, zeinak arrazoiaren printzipioaren taxuerarik ez baitauka formatzat. Baina orain dena nahimenaren objektu da, errepresentazio bilakatu den heinean, eta subjektua objektuaren korrelatu beharrezkoa da; baina objektu errealak presentean bakarrik daude: iraganak eta etorkizunak kontzeptu eta fantasma soilak dauzkate beren baitan, horregatik da presentea nahimenaren agerpenaren forma esentzial eta horrekiko bereiztezina. Presentea bakarrik da beti existitzen dena eta aldaezin dirauena. Enpirikoki kontzebiturik denetan iheskorrena bada, begiespen enpirikoaren formen gainetik ikusten duen begirada metafisikoari irauten duen bakartzat agertzen zaio, eskolastikoen -a2. bere edukiaren iturria eta euskarria bizitzeko nahimena edo berbaitango gauza da - gu garen hori. Etengabe bilakatu eta iraungitzen dena, jadanik izan den eta oraindik izan behar duen heinean, agerpenari dagokio horrelakoa den heinean, bere formen indarrez, zeinek sortzea eta iraungitzea ahalbidetzen baitituzte. Horren arabera pentsatzen da: Quid fuit?3 - Quod est - Quid erit? - Quod fuit. [Zer izan da? - Zer da? - Zer izango da? - Izan dena.]; eta hitzaren zentzu hertsian hartu eta ez bedi uler simile [antzeko], idem [bera] baizik. Zeren nahimena bizitzaren jabe baita, bizitza presente ziurraren jabe. Horregatik bakoitzak esan dezake: - Amaigabe biraka dabilen zirkulu batekin konpara dezakegu denbora: beti jaisten ari den erdia iragana izango litzateke, beti igotzen ari dena etorkizuna; baina goiko puntu zatiezina, tangentea ukitzen duena, presente hedaduragabea izango litzateke: tangenteak bira egiten ez duen bezala, presenteak, objektuaren ukipen-guneak ere ez, zeinaren forma denbora baita, formarik ez daukan subjektuarekiko, zeren ezagugarriari ez baitagokio, baizik ezagugarri ororen baldintza baita. Edo: denborak korrante geldiezin baten antza du eta presenteak harkaitz batena, zeinari hura oldartzen baitzaio, baina herrestan eraman gabe. Nahimena berbaitango gauza

gisa eta gutxiago ezagutzaren subjektu gisa, zeina azkenik kontsiderazio jakin batean bera edo bere kanporatzea baita, ez dago arrazoiaren printzipioaren mendean; eta nahimenari bizitza, bere agerpen propioa, ziurra zaion bezala, horrela da presentea, bizitza errearen forma bakarra ere. Horregatik ez daukagu bizitzaren aurreko iraganaz ezta heriotzaren ondorengo etorkizunaz ikertu beharrik: areago nahimena agertzen den forma bakarra, presentea⁴ ezagutu behar dugu; bera ezin da hartatik bereizi, baina hura ere ez egiazki beragandik. Horregatik bizitzak den bezala asetzen duena, bera era guztietan baieztatzen duena, horrek konfiantzarekin amaigabe kontsidera dezake eta heriotza-beldurra engainu bat bezala bazter dezake, zeinak presentea galduko balu bezalako beldurra emango baitio, eta denbora bat aurrean islatu ahal izango balio bezala, hartan presenterik gabe: engainu bat, denborarekiko ikuspegitik, beste hura espazioarekiko ikuspegitik dena, zeinaren indarrez bakoitzak bere fantasian berak lurbolaren gainean hartzen duen kokagunea goi bezala eta gainerako guztia behe bezala imajinatzen baitu: era berean bakoitzak presentea bere indibidualitateari lotzen dio eta uste du horrekin presente guztia ezabatzen dela; iragana eta etorkizuna hori gabeak direla. Lurbolaren gainean nonahi goi den bezala, bizitza ororen forma ere presente da, eta heriotzari beldurra izatea, presentea erauzten digulako, ez da zuhurrago lurbola biribiletik, zeinaren gainean zorionez orain baikaude, behera irrist egiteari beldurra izatea baino. Nahimenaren objektibazioari esentziala zaio presentearen forma, zeinak puntu hedaduragabe gisa bi aldeetara denbora amaigabea ebakitzen baitu eta aldaketarik gabe finko baitirau, eguerdi iraunkor baten gisara arrats freskagarriarik gabe; eguzki errealak etenik gabe erretzen duen bezala, itxuraz bakarrik gauaren altzoan murgiltzen den bitartean: horregatik, baldin eta gizaki batek heriotzari beldurra badio bere suntsierari bezala, hori zera pentsatzea besterik ez da, eguzkia arratsean honela kexa litekeela: 5 - Aitzitik, alderantzizkoa ere bai: bizitzako zamek zapaltzen dutela, zinez bizi nahi lukeen eta baieztatzen duenarren, baina tormentuei beldurra izan eta bereziki egokitu zaion zori gogorra gehiago jasan nahi ez duenak: horrelakoak ez du espero izan behar heriotzatik askapenik eta ezin du bere burua suizidioaren bitartez salbatu; itxura faltsuz bakarrik dei egiten dio Orko ilun hotzak atsedeen-portu gisa. Lurra egunetik gaura kulunkatzen da; banakoa hil egiten da: baina eguzkia bera etenik gabe erretzen da eguerdi betikoan. Bizitzeko nahimenari bizitza ziurra zaio: bizitzaren forma amaierarik gabeko presentea da; banakoak bezala, ideien agerpenak, denboran sortu eta iraungitzen dira, amets iragankorren pareko. - Suizidioa agertzen zaigu horrela hemen egintza alfer eta beraz ergel gisa: baldin eta geure kontsiderazioan aurrerago egiten badugu, hori oraindik argi desfaboragarriagoan agertuko zaigu.

Dogmak aldatu egiten dira eta gure jakitea engainuzkoa da; baina naturak ez du huts egiten: bere joaira ziurra da eta ez du ezkututzen. Edozer osoki dago hartan, eta bera osoki dago edozertan. Animalia bakoitzarengan dauka bere erdigunea: ziur aurkitu du existentziarako bere bidea, irteteko ere ziur aurkituko duenez: bitartean beldurrik gabe bizi da suntsieraren aurrean arduragabe, kontzientziak sustengaturik, natura bera baita eta bera bezala iraganezina. Gizakiak bakarrik darama bere baitan kontzeptu abstraktutan bere heriotzaren ziurtasuna: horrek aldiune partikular batzuetan, nahiz eta arraroa izan, gertaeraren batek fantasian presente egiten dionean bakarrik ikaratzen du. Naturaren ahots ahaltsuaren aurrean erreflexioak gutxi dezake. Beragan ere, pentsatzen ez duen animaliarengan bezala, egoera iraunkor gisa nagusitzen da bera natura, mundua bera dela, kontzientzia barnekoenetik sortzen den segurtasuna, zeinaren indarrez heriotza ziur eta ez urrunaren pentsamenduak ez

baitu kezkarazten, baizik bakoitzak bizitzen jarraitzen du, beti bizi behar balu bezala; eta hain urrun iristen da hori, non esan baitaiteke inork ez daukala heriotzaren ziurtasunaren konbikzio propioki bizirik, ze bestela bere aldartearen eta kondenaturiko gaizkilearen artean ezingo bailitzateke hain alde handirik izan; gutako bakoitzak ziurtasun hori in abstracto eta teorikoki ezagutzen du, baina alde batera uzten du beste egia teoriko batzuk bezala, praktikan erabilgarriak ez direnak bezala, bere kontzientzia bizian inoiz hartu gabe. Giza mentalitatearen berezitasun hori ongi kontsideratzen duenak ulertuko du ez direla inondik ere aski horren ezinbestekoari buruzko azalpen-mota psikologikoak, ohitura eta etsipenetik datozenak, baizik horren arrazoia lehen esan dugun eta askozaz sakonago dagoena dela. Horretatik azaldu behar da zergatik garai guztietan, herri guztietan heriotzaren osteko norbanakoaren iraupenaz era guztietako dogmak aurkitu eta kontuan hartzen diren, nahiz eta horren frogak beti guztiz eskuraezinak izan behar duten, alderantzizkoarenak berriz sendo eta ugariak, are horrek propioki ez baitu frogarik behar, baizik adimen osasuntsuak gertakari gisa berrezagutzen baitu eta horrelakoa den heinean sendotu egiten du ziurtasunaren bidez, naturak gezurrik esaten eta errakuntzarik egiten ez duelakoa, baizik bere egitea eta esentzia agerian aurkezten duela, xaloki adierazi ere bai, guk geure apetekin iluntzen ditugularik gure irudimen mugatuari dagokiona interpretatzeko. Orain kontzientzia argira ekarri duguna, nahimenaren agerpen partikularra denboran hasi eta denboran bukatzen denarren, horrek nahimena berbaitango gauza gisa ez duela erasaten, ezta objektu ororen korrelatua dena ere, subjektu ezagutzailea, inoiz ezagutzen ez dena, eta bizitzeko nahimenari bizitza beti ziurra zaiola - baina horrek ez du iraupenaren doktrinak aintzakotzat hartzera eramaten. Zeren nahimenari, berbaitango gauza gisa kontsideraturik, edota ezagutzearen subjektu hutsari, munduaren begi betikoari ez dagokio ez iraupena ezta suntsiera ere, izan ere horiek denboran bakarrik baliozko diren determinazioak baitira, haiek ordea denboraz kanpo gelditzen direnak. Horregatik norbanakoaren egoismoak (ezagutzearen subjektuak argituriko nahimen-agerpen partikular horrek) bere desirarako, denbora amaigabe bat baieztatzeke, guk adierazi dugun iritzitik ezin du elikagairik eta pozbiderik atera, heriotzaren ondoren gainerako kanpo-munduak denboran irauten jarraituko duelako ezagutzatik aterako lukeenez, zeina iritzi beraren adierazpena baita, baina objektiboki, eta horregatik, tenporalki kontsideratua. Zeren egiazki bakoitza agerpen gisa bakarrik da iragankor, aitzitik berbaitango gauza gisa denboragabe, beraz baita amaigabe ere: baina agerpen gisa bakarrik da desberdina munduko gainerako gauzetatik, berbaitango gauza gisa nahimena da, denetan agertzen dena, eta heriotzak ezabatu egiten du engainu hori, bere kontzientzia gainerakoenetik bereizten duena: hori da iraupena. Heriotzak ukitu gabe egotea, zeina berbaitango gauza gisa bakarrik baitagokio, bat dator agerpenarentzat gainerako kanpo-munduaren iraupenarekin⁶. Horregatik gertatzen da ezagutza argira jaso dugunaren kontzientzia barneko eta sentitu soilak, noski, esan denez, izaki arrazoidunaren bizitza pozoi ez dezan eragozte, kontzientzia hori bizidun oro adoretu eta alai biziarazten duen bizi-aldarte haren oinarria den heinean, heriotzarik ez balego bezala, gutxienez, bizitza begien aurrean daukan eta horretara zuzentzen den bitartean; baina horrek ez du eragozten, heriotza partikularrean eta errealtatean edo fantasian bakarrik norbanakoari agertzen zaionean eta aurrez aurre begiratu behar dihonean, heriotza-beldurrak ez harrapatzea eta era guztietara hartatik ihes egiten ahalegintzea. Zeren bere ezagutza bizitzara horrelakoa den heinean zuzendurik zegoenean iraganezintasuna hartan berrezagutu behar zuen bezala, horrelaxe berrezagutu behar du, heriotza begien aurrean agertzean, den bezalakotzat: agerpen denborazko baten amaiera denborazkotzat.

Heriotzan beldurtzen gaituena ez da inola ere mina: zeren alde batetik hori bizitzaz honaindi agertzen baita; bestetik, sarritan minetik heriotzara ihes egiten baitugu, halaber alderantzizkoa ere egiten baitugu batzuetan minik lazkarrienak jasanez, heriotzari, nahiz eta lasterra eta arina izan, oraindik apur batean ihes egiteko. Horrela mina eta heriotza bereizten ditugu bi gaitz guztiz desberdin gisa: heriotzan beldurra ematen diguna, izatez norbanakoaren suntsiera da, deplauki ematen baitigu horren berri, eta norbanakoa bizitzeko nahimena bera denez gero objektibazio partikular batean, bere izaki osoa heriotzaren kontra jartzen da. - Horrela sentimenduak laguntzarik gabe uzten gaituenean, arrazoimena ager daiteke eta horren inpresio kontrakoak neurri handi batean gaingaitu egin ditzake, kokagune garaiago batean ezartzen gaituelarik, partikularren ordez osotasuna begiz jotzeko. Horregatik munduaren esentziaren ezagutza filosofikoak, gu orain geure kontsiderazioan gauden punturaino iritsiko litzatekeenak, baina aurrera joko ez lukeenak, heriotzarekiko beldurra gaingaitu ahal izango luke, norbanako jakin batengan erreflexioak sentimendu bitartegabea menderatuko lukeen heinean. Gizaki batk, orain arte proposaturiko egiak bere mentalitatean finko gorpuztuak balitu, baina ez bere esperientziaz ezta gogoeta jarraituz horretara iritsi ez denak, bizitza oroko sofrimendu iraunkorra esentzialtzat berrezagutzera iritsi ez bada; baizik bizitzan gogobetetasuna aurkituko balu, bertan guztiz ongi egongo balitz eta bere bizi-joairaren gogoeta patxadazkoan, ordu arte esperimintatu duen bezala, iraupen amaigabea edo beti berriro itzultzea nahi izango balu eta bere bizizaletasuna hain haundia izango balitz, non bizitzako gozamenen kontra menderatzen duten neke eta penatze guztiak gogara eta pozik onartuko balitu; horrelakoa [Goethe,] eta ez luke zertan beldurturik: egozten diogun ezagutzaz armaturik, axolagabe begiratuko lioke heriotzari hurbiltzen denboraren hegaletan, itxura faltsu bat, mamu ahalgabe ahulak ikaratzekoa bezala kontsideratuz, baina inolako botererik ez duena, izan ere bai baitaki bera nahimen hura dela, zeinaren objektibitatea edo kopia mundu osoa baita, zeinarentzat horregatik bizitza denbora guztian ziur gelditzen baita eta presentea ere, nahimenaren agerpenaren benetako forma bakarra, zeina horregatik ezingo bailuke ikaratu bera egongo ez litzatekeen ezein iragan edo etorkizunek, izan ere horiek lilura hutsal eta Maiaren belotzat kontsideratuko bailituzke, zeinak heriotzari eguzkiak gauari baino beldur gehiagorik ez bailioke izango. - Ikuspuntu horretan kokatzen da Krishnak n, bere dizipulu berria, Arjuna, borrokarako prest dauden armadak begiztatzean (Xerxes aurkitzen zen moduantzu) tristurak jota, uko egin eta borroka utzi nahi duenean, hainbeste milaren galera eragozteko: Krishnak ikuspuntu horretan kokatzen du, eta orduan ezin du milaka haien heriotzak geldiarazi: batailarako seinalea ematen du. - Ikuspuntu hori bera adierazten du Goetheren Prometeok, batez ere esaten duenean:

Hemen nago ni,
neure irudira gizakiak eratzen,
Nire moduko arraza bat,
sofritzeko, negar egiteko,
gozatzeko eta pozteko gai.
Eta ez haute aintzat hartuko,
nik bezala!

Ikuspuntu horretara gida dezake Brunoren filosofiak eta Spinozarenak ere bere akats eta imperfekzioek konbikzio hori nahastu edo ahulduko ez balute. Brunorenak ez dauka benetako etikarik, eta Spinozaren filosofiakoa ez da bere doktrinaren esentziatik sortzen, baizik bere baitan laudagarri eta ederra denarren, sofisma ahul

eta nabarien bitartez hari erantsita dago. - Aipaturiko ikuspuntuan, azkenik, asko egongo lirateke, baldin eta beren ezagutza beren nahi izatearekin batera ibiliko balitz, h. d. baldin eta apeta guztitik beren buruak argi eta garbi jaregiteko gai izango balira. Zeren hori baita ezagutzarako bizitzeko nahimenaren baieztapen osoaren ikuspuntua.

Nahimenak bere burua baieztatzen du, esan nahi du: bere objektitatean, h. d., munduan eta bizitzan, bere esentzia propioa hari errepresentazio gisa osoki eta argiro ematen zaionean, ez du ezagutza horrek inola ere bere nahi izatea trabatzen; baizik horrela ezaguturiko bizitza horrelakoa den heinean berak nahi izana da, ordu arte ezagutza gabe bulkada itsu gisa, horrela orain ezagutzarekin, kontziente eta hausnartu bezala. - Horren aurkakoa, bizitzeko nahimenaren ezeztapena, azaltzen da, nahi izateak ezagutza hori amaitzen duenean, zeren orduan agerpen partikular ezagutuek ez baitute nahi izatearen motibo gisa eragiten, baizik ideien kontzepzioaren bidez sortutako munduaren esentziaren ezagutza, nahimena ispilatzen duena, nahimenaren kietibo bihurtzen denean eta horrela nahimenak libreki bere burua ezabatzen baitu. Erabat ezezagunak eta adierazpen orokor horretan nekez ulertzekoak diren kontzeptu horiek seguraski argiturik geldituko dira berehala etorriko den fenomenoen, hemen egintza-erak direnen aurkezpenaren bidez, zeinetan alde batetik baieztapena bere gradu desberdinetan, eta bestetik, ezeztapena adierazten baita. Zeren noski biak ezagutzatik abiatzen baitira, baina ez abstraktutik, hitzetan adierazten denetik, baizik bizitik, egite eta portaeren bitartez bakarrik adierazten denetik eta ezagutza abstraktu gisa arrazoimena lanpetzen duten dogmekiko independente gelditzen denetik. Biak aurkeztea eta arrazoimenaren ezagutza argira eramatea izan liteke bakarrik nire helburua, ez ordea bata edo bestea agindu edo gomendatzea, zeina zentzugabea bezain helburugabea bailitzateke, zeren berbaitango nahimena askea baita, berak bakarrik bere burua determinatzen duena eta ez dago legerik berarentzat. - Askatasun hori eta beharrezkotasunarekiko bere harremana aztertu eta zehatzago determinatu behar dugu aurrena, aipaturiko azalpenera iragan baino lehen, gero oraindik bizitzari buruz, zeinaren baieztapena eta ezeztapena gure arazoa baita, kontsiderazio orokor batzuk egin, nahimenari eta bere objektuei begira, horren guztiaren bidez egintza-eraren esangura etikoaren nahi dugun ezagutza, bere esentzia barnekoenaren arabera, erraztuko baitzaigu.

Idazki oso hau, esan denez, pentsamendu bakar baten hedapena baizik ez delarik; hortik datorkio bere atal guztiek elkarren artean loturarik estuena izatea eta ez bakarrik bakoitza hurrengoarekiko harreman beharrezkoan egotea eta horregatik irakurleak gogoan suposatzea, filosofia guztietan gertatzen denez, arrazoiketa batzuen hurrenkera soilaz osatzen baitira; baizik obra osoaren atal bakoitza gainerako bakoitzarekiko ahaideturik baitago eta suposatu egiten baitu, horregatik eskatzen zaio irakurleari ez bakarrik aurrekoa baizik eta lehenagoko guztia ere gogoan izatea, horrela presentekoarekin lotu ahal izateko, nahiz eta tartean dagoena ugari izan; Platonek berak ere ezartzen zuen eskakizun hori bere elkarriketen labirinto guztiz nahasietan, zeinetan episodio luzeen ondoren argiturik pentsamendu nagusia bere irakurleari onarrarazten baitio. Eskakizun hori beharrezkoa da gure kasuan, izan ere gure pentsamendu bat eta bakarra komunikatzeko bide bakarra kontsiderazio askotan banatzea izan baita, baina pentsamenduarentzat ez da esentziala izan, forma artifiziala baizik. - Aurkezpena errazteko eta bera kontzebitzeko lagunduko du lau ikuspuntu nagusiak lau liburutan banatzeak eta erarik arretatsuenean ahaide eta homogeenok direnak lotzea: hala ere, gaiak ez du inola ere lerro zuzenean aurrera egiten uzten, historikoan bezala, baizik aurkezpen

nahasiagoa egiten du eta horregatik beharrezkoa da liburuaren azterketa errepikatu bat, zeinaren bitartez bakarrik atal bakoitzaren lotura beste ororekin argi gelditzen baita eta orduan bakarrik guztiak elkarrekiko argitzen eta guztiz klaru bihurtzen baitira⁷.

§ 55

Nahimena bere horretan askea dela ondorioztatzen da gure iritzia arabera berbaitango gauza, agerpen ororen edukia delakotik. Hori, aitzitik, erabat arrazoiaren printzipioaren mendean ezagutzen dugu, bere lau taxueretan: eta nola dakigun beharrezkotasuna erabat identikoa dela arrazoi jakin baten ondorio izatearekin eta biak elkarrekiko kontzeptu diren; horrela agerpenari dagokion guztia, h. d. norbanako gisa ezagutzen duen subjektuarentzat objektu dena, alde batetik, printzipio da, bestetik, ondorio, eta azken gaitasun horretan derrigor determinatua, eta ezin daiteke inola bestelakoa izan den bezalakoa baino. Naturako eduki guztia, bere agerpen guztiak erabat beharrezkoak dira, eta atal bakoitzaren, agerpen bakoitzaren, gertaera bakoitzaren beharrezkotasun hori frogatu egin daiteke, printzipioa aurkitu ahal daitekeena den heinean, zeinatik ondorioa dependente baita. Horrek ez du salbuespenik: arrazoiaren printzipioaren baliozkotasun mugagabeari dario. Bestalde mundu hori bera bere agerpen guztietan nahimenaren objektitatea da, zeina ez agerpen, ez errepresentazioa edo objektu, baizik berbaitango gauza baita, ezta arrazoiaren printzipioaren, objektu ororen formaren mendean, horrela ez baitago ondorio gisa printzipio baten bidez determinaturik, beraz ez baitu beharrezkotasunik ezagutzen, h. d., aske da. Askatasun kontzeptua horrela propioki negatiboa da, bere edukia beharrezkotasunaren ezeztapen soila, h. d., arrazoiaren printzipioari dagokion ondorioaren bere printzipioarekiko harremanarena delarik. - Hemen aurkitzen da argiroen gure aurrean kontra-jartze handi haren elkargunea, askatasuna beharrezkotasunarekin batzearena, gure garai honetan hainbeste aipatu dena, baina nik dakidanez, inoiz ez argiro eta egoki. Gauza bakoitza agerpen gisa, objektu gisa erabat beharrezkoa da: hori bera nahimen da bere baitan, eta nahimena erabat aske da, betiera guztirako. Agerpena, objektua derrigor eta aldaezin printzipio eta ondorioen kateakuntzan determinaturik dago, etenik izan ez dezakeelarik. Baina objektu horren existentzia oro har eta existentzia horren era, h. d., ideia, horretan agerian jartzen dena, edo beste hitz batzuetan: bere karakterra, nahimenaren agerpen bitartegabea da. Nahimen horren askatasunaren arabera gerta zitekeen ez existitzea edo jatorriz eta esentziaz zeharo besterik izatea; baina orduan katea osoa, zeinaren maila bat baita, zeina bera nahimen beraren agerpen baita, zeharo beste bat izango litzateke: baina existitzen delarik, printzipio eta ondorioen sailean sartu da, horretan beti derrigor determinaturik eta horregatik ezin daiteke beste bat izan, h. d. aldatu, ezta sailetik irten ere, h. d., desagertu ere. Gizakia naturako beste edozein atal bezala nahimenaren objektitate da: horregatik esandako guztiak balio du beratzaz ere. Naturako gauza orok bere indarrak eta kualitateak dituen bezala, inpresio determinatu batzuekiko determinatuki erreakzionatu eta bere karakterra eratzen dutenak, horrela badu bere karakterra ere, zeinatik bere egintzaren motiboak sortzen baitira, beharrezkotasunarekin. Jarduera horretan jartzen da agerian bere karakter enpirikoa, horretan berriz bere karakter adigarria, berbaitango nahimena, zeinaren agerpen determinatua baita. Baina gizakia da nahimenaren agerpen perfektuena, zeinak irauteko, bigarren liburuan erakutsi denez, ezagutzaren hain gradu garaiak argiturik egon behar baitu, non horretan munduaren esentziaren errepikapen guztiz egokia errepresentazioaren formapean ahalgarri bihurtu baitzen,

zeina ideien kontzepzioa, munduaren ispilu garbia baita, hirugarren liburuan aditzera eman dugunez. Horrela gizakiarengan nahimena erabateko autokontzientziara, bere esentziaren propioaren ezagutze argi eta agortzailera irits daiteke, mundu osoan errainutzen denez. Ezagutzaren gradu horren existentzia errealetik irteten da, aurreko liburuan ikusi dugunez, artea. Gure kontsiderazio guztiaren amaieran emaitza izango da, ezagutza horren berorren bidez, nahimena bere buruarekin harremanetan jartzen delarik, horren ezabatze eta autoezeztapen bat bere agerpen beteginenean ahalgarri izatea: horrela askatasuna, zeina bestela, berbaitango gauzari dagokionez, inoiz ezin baita agerpenean azaldu, kasu horretan hor ere agertzen delarik, eta agerpenaren oinarrian dagoen esentzia ezabatzen duelarik, horrek berorrek denboran irauten duen bitartean, agerpenaren kontraesan bat sortzen baitu bere buruarekiko, eta hain zuzen horren bidez santutasunaren eta buru-ukapenaren fenomenoak aurkezten baititu. Baina hori guztia liburu honen amaieran bakarrik ulertu ahal izango da. - Bidenabar eta orokorrean bakarrik adieraziko da hemen nola gizakia nahimenaren beste agerpen guztietatik desberdintzen duena den askatasuna, h. d. arrazoiaren printzipioarekiko independentzia, zeina nahimenari berbaitango gauza gisa bakarrik baitagokio eta agerpenarekiko kontraesanean baitago, hala ere hartan ahalgarri baita agerpenean agertu ahal izatea, non derrigor agerpenaren kontraesan bat bere buruarekiko bezala aurkezten baita. Zentzu horretan ezin liteke aske deitu berbaitango nahimena bakarrik, baizik gizakia ere eta horrela beste izaki guztietatik desberdindu. Nola ulertu behar den hori, ondorengo guztitik argi geratuko da, eta oraingoz erabat alde batera utzi behar dugu. Zeren lehenik errore batetik begiratu behar dugu geure burua: gizaki partikular determinatu baten egintza ez dagoela beharrezkotasunaren mendean, h. d., motiboaren indarra segurtasun gutxiagokoa dela kausaren indarra edo premisetatik ondorioa ateratzea baino. Nahimenaren askatasuna berbaitango gauza gisa, esan dugunez, beti salbuespen bat soilik den goiko kasua alde batera uzten badugu ez da transmititzen, bitartegabe bere agerpenera, ezta horrek ikuskortasunaren mailarik gorena lortzen duen tokian ere, ezta karakter indibiduala duen animalia arrazoidunarengan ere, h. d., pertsonarengan. Hori ez da inoiz aske, nahiz eta agerpena nahimen aske batena izan: zeren nahi izate aske horrena, bera agerpen determinatua baita, eta hori objektu ororen forman, arrazoiaren printzipioan, sartzen den heinean, nahimen horren batasuna egintza-aniztasun batean garatzen du, bai, baina berbaitango nahi izate ororen denboraz kanpoko batasunarengatik natur indar baten erregulartasunarekin aurkezten du. Baina nola nahi izate aske hori den pertsonarengan eta bere portaera osoan ikuskor bihurtzen dena, horrekiko kontzeptuak definizioarekiko bezala jokatzu: horrela egite partikular bakoitza nahimen askeari egotzi behar zaio eta bitartegabe aurkeztuko zaio kontzientziari horrelakoa bezala: horregatik, bigarren liburuan esan denez, bakoitzak a priori (h. d. hemen jatorrizko bere sentimenduaren arabera) asketzat dauka bere burua egintza partikularretan, emandako kasu bakoitzean egintza bakoitza ahalgarri zen zentzuan, eta a posteriori soilik, esperientziatik eta esperientziari buruzko gogoetatik ezagutzen du, bere egintza guztiz derrigor sortzen dela karakterrak motiboekin topo egitetik. Horregatik gertatzen da, landugabeenak ere, bere sentimenduari jarraituz, erabateko askatasuna egintza partikularretan bizikien defenditzea, garai guztietako pentsalari handiek, eta are fede-doktrina sakonenez ere, ukatu duten bitartean. Baina argi gelditu zaionari nahimena dela gizakiaren esentzia osoa eta bera nahimen horren agerpena dela, agerpen horrek arrazoiaren printzipioa beharrezkotzat, eta subjektutik ezagutzeko moduko forma duela, zeina kasu horretarako motibazioaren lege gisa taxutzen baita, horrelakoari egitearen ezinbestekotasunaz zalantza bat, karakterra emanik eta motiboa aurrean

dela, triangeluan hiru angeluak bi zuzenekin bat-etortzeari buruzko zalantza adinaxe gertatuko zaio. - Egintza partikularren beharrezkotasuna Priestleyk bere n8 sobera aurkeztu zuen; baina beharrezkotasun hori nahimenaren askatasunarekin bat datorrelakoa, h. d. agerpenaz kanpo, lehenik Kantek frogatu du⁹, horretan meritu bereziki handia duelarik, karakter enpirikoa eta inteligiblearen arteko desberdintasuna ezarri, nik erabat sustengatzen dudana, izan ere lehena nahimena berbaitango gauza gisa da, norbanako determinatu batengan, gradu determinatu batean agertzen den heinean, bigarrena, ordea, agerpen hori bera da, beraz, egintza-eran bezala, denboraren arabera, eta korporizazioan, espazioaren arabera, aurkezten da. Bien arteko harremana atzemangarriago bihurtzeko, horren adierazpen hoberena jadanik sarrerako tratatuan erabili dut, gizaki ororen karakter inteligiblea nahimen-egintza denboraz kanpoko, beraz, banaezin eta aldaezintzat kontsideratu behar dela, zeinaren denboran eta espazioan eta arrazoiaren printzipioaren forma guztietan karakter enpirikoaren agerpen garatu eta azaldurikoa baita, gizaki horren egintza-era osoan eta bizi-joairan esperientziaren arabera agertzen denez. Zuhaitz osoa bulkada bat eta beraren agerpen beti errepikatua bakarrik den bezala, zeina erarik sinpleenean zuntzean aurkezten baita, eta osaeran hosto, txorten, abar, enborra errepikatu eta horretan erraz berrezagutzen baita; horrela gizakiaren egite guztiak beti errepikatuak dira, bere karakter inteligiblearen kanporatze zerbait aldagarriaren forman, eta horien baturatik sortutako indukzioak ematen du bere karakter enpirikoa. - Hemen ez dut gainerakoan Kantek maisukiro egindako aurkezpena errepikatuko, baizik ezagututzat suposatzen dut.

1840an nahimen-askatasunaren kapitulu garrantzitsua sakon eta xeheki tratatu nuen gai horri buruzko neure idatzi sarituan eta engainu horren arrazoia agerian jarri nuen, zeinaren ondorioz nahimenaren askatasun absolutu enpirikoki eman bat, beraz liberum arbitrium indifferentiae bat autokontzientzian horren errealitate gisa aurkitzen dela uste izaten baita: zeren hain zuzen ere puntu horretara baitzegoen zuzendurik, oso zuhurki, sariketako auzia. Irakurlea idazki horretara, baita izenburupean berarekin batera § 10.era ere aldi berean igorri, kendu egiten dut hemen lehen edizioaren pasarte honetan emandakoa, nahimen-egintzaren beharrezkotasunaren aurkezpen osagabea, eta horren ordeztu goian aipaturiko engainua azalpen labur batez argitu egingo dut, zeina gure bigarren liburuko hemeretzigarren kapituluak supostutzat baitauka eta horregatik aipaturiko idazki sarituan ez baitzegoen ematerik.

Alde batera utzirik nahimena berbaitango gauza egiazko gisa errealki jatorrizko eta independentea dela, halaber autokontzientzian jatorrizkotasun eta hautazkotasunaren sentimenduak bere egintzak lagundu behar dituela, nahiz eta hemen determinatuak izan - nahimenaren askatasun enpirikoaren itxura sortzen da (transzendentalaren, egotz lekiokoen bakarraren ordeztu), hots, egite partikularren nahimen batena, bigarren liburukiko hemeretzigarren kapitulutik, batez ere 3. zenbakian azalduriko nahimenarekiko endelguaren posizio bereizi eta subordinatutik. Endelguak, izan ere, nahimenaren erabakiak a posteriori eta enpirikoki bakarrik jakiten ditu. Horren arabera, ez du inolako daturik aurrean daukan aukera batean nahimenak hartuko duen erabakiari buruz. Zeren karakter inteligiblea, zeinaren indarrez motibo jakin batzuekin erabaki bakar bat bakar baita ahalgarri eta horren arabera beharrezkoa, ez da endelguaren ezagutzapean erortzen, enpirikoa bakarrik zaio ezaguna, hurrenez hurreneko egintza partikularren bidez. Horregatik kontzientzia ezagutzaileari (endelguari) iruditzen zaio aurrean daukan kasu batean nahimenari era berean ahalgarri zaizkiola bi erabaki kontrajarri. Baina honekin

gertatzen da taketa bat zutik dagoela, orekatik zabuka hasita esaten denean bezala hain zuzen ere; horrek esangura subjektiboa bakarrik du eta berez esan nahi du : zeren objektiboki erorketaren noranzkoa jadanik derrigor determinaturik baitago, zabuketa hasi denetik. Era berean nahimen propioaren erabakia ere behatzailearentzat, endelgu propioarentzat bakarrik da indeterminatua, beraz erlatibo eta subjektiboa, hots, ezagutzearen subjektuarentzat; aitzitik, bere baitan eta objektiboki aurrean jarritako aukera bakoitzean erabakia determinatua eta beharrezkoa da aldi berean. Baina determinazio hori hartutako erabakiaren bidez bakarrik agertzen zaio kontzientziari. Horren adibide enpiriko bat dugu hautapen zail eta garrantzizkoren bat aurrean dugunean, baina oraindik beste ez den eta espero izan bakarrik egiten den baldintza baten azpian dagoena; horrela aldeztetik ezin dugu ezer egin, pasiboki itxaron baizik. Orduan gogoeta egiten dugu, zer erabaki hartuko dugun, ekintza eta erabaki aske bat baimenduko diguten zirkunstantziak gertatuko direnean. Gehienetan erabakietako baten alde urrutira ikusteko zabaleko gogoeta razionala jartzen da, bestearen alde joera bitartegabea. Beharturik pasibo diraugin bitartean, badirudi arrazoimenaren aldeak gaina hartu nahi duela; baina beste aldeak nolako indarrarekin tira egingo duen egintzarako aukera sortzean bakarrik aurreikusten dugu. Ordu arte suharki ahalegintzen gara, aldeko eta kontrakoak meditazio hotzaren bidez, aldebietako motiboak argirik klaruenean ezartzen, bakoitzak bere indar guztiarekin nahimenean eragin dezan, denboragunea gertatzean, endelguaren aldetik akatsen batek nahimena desbidera ez dezan, beharko lukeenez bestetara erabakia hartzetik, denak behar bezala eragingo balu. Motibo kontrajarriak argiro destolesteko hori bakarrik da endelguak hautapenean egin dezakeena. Erabaki propioari nahimen arrotz batenari bezain pasiboki eta jakinmin teinkatu berarekin itxaroten dio. Horregatik bere ikuspuntutik bi erabakiei ahalgarritasun bereko iritzi behar die: horixe da, hain zuzen, nahimenaren askatasun enpirikoaren begitazioa. Endelguaren esferan erabakia noski erabat enpirikoki agertzen da, gauzaren azken kolpe gisa; hala ere, nahimen indibidualaren, karakter inteligiblearen, barneko osaeratik sortu da motibo jakinekiko bere gatazkan, eta horregatik beharrezkotasun perfektuarekin. Endelguak horretan ezin du ezer egin motiboen osaera alde orotatik eta zorrotz argitzea baizik; baina ezin du nahimena bera determinatu; zeren erabat iritsezin, gehiago oraindik, ikusi dugunez, ikerrezin baitzaio.

Baldin eta gizaki batek zirkunstantzia berdinetan, batean modu batera, eta bestean beste batera jokatu ahal izango balu: bere nahimenak aldatu egin beharko luke bitarte horretan eta horregatik denboran egon beharko luke, zeren horretan bakarrik baita ahalgarri aldaketa: orduan nahimenak agerpen soil bat izan beharko luke edo denborak berbaitango gauzaren determinazio bat. Horren arabera egite partikularren askatasunari, liberum arbitrium indifferentiae-ari buruzko polemika hura nahimena denboran dagoen ala ez auziaren inguruan mugitzen da. Baldin eta, bai Kanten doktrinak eta bai nire aurkezpen osoak beharrezko egiten duenez, berbaitango gauza denboraz eta arrazoiaren printzipioaren forma oroz kanpo badago; orduan norbanakoak egoera berean ez bakarrik beti era berean jokatu beharko eta ez bakarrik egite txar bakoitzak bermatzaile finkoa izan beharko du beste ezin zenbatu ahalentzat, zeinak burutu egin beharko baitira eta ezin egin gabe utzi; baizik eta, Kanten dioenez, baldin eta karakter enpirikoa eta motiboak perfektuki emango balira, gizaki baten jokaera etorkizunean eguzki- edo ilargi-eklipse bat bezala kalkulatu egin ahal izan beharko litzateke. Natura kontsekuentea den bezala, karakterra ere horrelakoxea da: horren arabera gertatu behar du egintza partikular bakoitzak,

fenomeno oro natur legearen arabera gertatzen den bezala: kausa azken kasuan eta motiboa lehenean abagune-kausal besterik ez dira, bigarren liburuan erakutsi denez. Nahimena, zeinaren agerpena baita gizakiaren izate eta bizitza osoa, ez dago kasu partikularrean ukatzerik, eta gizakiak oro har nahi duena beti nahiko du partikularrean ere.

Nahimenaren askapen enpiriko baten, liberi arbitrii indifferentiae baten baieztapena estuki loturik dago gizakiaren esentzia arima batean ezartzeari, zeina jatorriz ezagutzailea, are propioki izaki abstraktuki pentsatzaile bat izango bailitzateke eta ondorioz bakarrik nahieslea, horrela nahimena natura sekundarioko zerbait eginez, egiazki ezagutza delarik horrelakoa. Nahimena pentsatze-egintza bat bezala ere kontsideratu zen eta judizioarekin identifikatu ere bai, Cartesio eta Spinozaren baitan. Horien arabera, gizaki bakoitza bera den hori bere ezagutzaren ondorioz bihurtuko litzateke: zero moral bat bezala etorriko litzateke mundura, bertako gauzak ezagutu eta honelakoa edo halakoa izatea erabakiko luke, honela edo bestela jokatzeko, ezagutza berriaren ondorioz egintza-era berri bati heldu ahal izango lioke, horrela beste bat izan ahalko litzateke. Gainera horren arabera, lehenik gauza bat ontzat berrezagutuko luke eta horren ondorioz nahi izango luke; lehenik nahi izan eta horren ondoren on deitu, egin ordez. Nire oinarritzko iritzi osoaren arabera hori guztia egiazko harremanaren erabateko alderantzizkatzea da. Nahimena da lehena eta jatorrizkoa, ezagutza gehitua besterik ez da, nahimenaren agerpenari lanabes bat bezala dagokiona. Gizaki oro, beraz, den hori nahimenaren bidez da, eta bere karakterra jatorrizkoa da; zeren nahi izatea baita bere esentziaren oinarria. Gehitutako ezagutzaren bitartez jakiten du bere esperientziaren joairan zer den, h. d. bere karakterra ezagutzen, ikasten du. Bere burua berrezagutzen du nahimenaren osaeraren ondorioz eta arabera; horren ordez, iritzi zaharraren arabera, bere ezagutzaren ondorioz eta arabera nahi du. Horren arabera aski luke gogoeta egitea nolakoa izan nahiko lukeen gogaraen, eta horixe izango litzateke: hori da bere nahimen-askatasuna. Iritzi hori, beraz, benetan gizakia bere obra propioa, ezagutzaren argitan delakoan datza. Aitzitik, nik diot: bere obra propioa da ezagutza ororen aurretik, eta hori gero argitzera bakarrik datorrela. Horregatik ezin du erabaki honelako edo bestelako izatea ezta beste bat izan ere; baizik behin betiko da, eta hurrenez hurren berrezagutzen du zer den. Haiengan berrezagutzen duena nahi du; niregan nahi duena berrezagutzen du.

Grekoek (GRIEGO) deitzen zioten karakterrari eta horren kanporatzei, h. d. . Ohiturei, (GRIEGO); hitz hori (GRIEGO), azturatik dator: hautatu zuten karakterraren konstantzia metaforikoki azturaren konstantziaren bidez adierazteko. (GRIEGO) (A voce (GRIEGO), i. e. consuetudo, (GRIEGO) est appellatum: ethica ergo dicta est (GRIEGO) sive ab assuescendo)[Zeren (GRIEGO) (karakterra) hitzari (GRIEGO) (ohitura) hitzetik datorkio izendapena, dio Aristotelesek (1, 6, p. 1186 [a 1] eta p. 1220, eta p. 1103, editio Berolinensis). Stobaiosek aipatzen du: (GRIEGO) (Stoici autem Zenonis castra sequentes metaphorice ethos definiunt vitae fontem, e quo singulae manant actiones) [Estoikoek ordea, Zenonen jarraitzaileen ondorioz, metaforikoki ethosa bizitzaren iturri gisa definitzen dute, zeinatik jariatzen baitira egintza partikularrak.] 2, cap. 7. - Kristau fede-doktrinan aurkitzen dugu predestinazioaren dogma graziazko hautapen edo ez-graziazko hautapenaren ondorioz (Errom 9, 11-24) nabarmen gizakia aldatzen ez delako iritzitik sortua; baizik bere bizitza eta portaera, h. d. bere karakter enpirikoa, intelijiblearen destolespena besterik ez dela, jadanik haurretan ezagugarria, aldaezina, erabakitakoa den disposizioaren garapena, horregatik nolabait bere jaiotzan bere portaera finko

determinaturik dago eta azkenera arte esentzian berdin iraute du. Horrekin gu ere bat gatoz; kontsekuentziak, ordea, ideia guztiz zuzen horiek fede-doktrina judutarrean aurrez aurkituriko dogmekin batzetik sortu direnak eta zailtasunik handiena, zeinak beti askaezina den korapilo gordiarra eragiten, eta zeinaren inguruan baitabiltza elizako eztabaida gehienak - ez dut neure gain hartzen aldezte; izan ere, hori Paulo apostoluak berak ere oso nekez lortu baitzuen helburu horretarako ezarritako buztinlariaren konparazioarekin: zeren azkenean emaitza honako hau baizik ez bailitzateke izango:

Jainkoen beldur bedi giza arraza.
Esku betikoetan dute
jauntasuna:
Eta gogoaren arabera
erabil ditzakete. -

[Goethe, 4, 5]

Baina kontsiderazio horiek benetan arrotz zaizkio gure objektuari. Alabaina karakterra eta bere motibo guztiak dauzkan ezagutzaren arteko harremanaz azterketa batzuk harira datoz orain.

Nola motiboek, karakterraren edo egintzaren agerpena determinatzen dutenak, ezagutzaren bitartez hartan eragiten duten, ezagutza, ordea, aldakorra da, errorea eta egiaren artean alde batera eta bestera zabukutzen da, eskuarki bizitzaren joairan zehar gero eta gehiago zuzentzen da, oso gradu desberdinetan noski: horrela gizaki baten egintza-era ere ohargarriro alda daiteke, horretatik bere karakterraren aldaketa bat ondorioztatzea zuzena ez litzatekeelarik. Gizakiak benetan eta oro har nahi duena, bere esentzia barnekoenaren joera eta horren arabera jazartzen duen xedea, hori ezin dugu kanpoko eraginaren bitartez, irakaskuntzaren bitartez inoiz aldatu: bestela berriro berregin ahal izango genuke. Senekak bikain dio: , horretan egia bere estoikoak baino nahiago duelarik, zeinek (GRIEGO) (doceri posse virtutem) [Bertutea irakasgarria dela; Diogenes Laertio, 7, 91] irakasten baitzuten. Kanpotik motiboen bitartez bakarrik eragin lekioko nahimenari. Baina horiek ezin dute nahimena bera aldatu: zeren horiek berek harekiko ahalmena badute, den bezalakoa izateko suposiziopean bakarrik baita. Horiek egin dezaketen guztia beren ahaleginaren norabidea aldatzea da, h. d. egin dezakete aldaezinki bilatzen duena, ordu arte ez bezalako bidetik bilatzea. Horregatik irakaskuntzak, ezagutza hobetuak, beraz kanpotiko eraginak irakatsi egin diezaioke bitartekoetan huts egin duela, eta horrenbestez egin dezake xedea, zeinara jotzen baitu bere esentzia barnekoaren arabera, zeharo beste bide batetik, baita lehen ez bezalako zeharo beste objektu bat jazartzea ere: ezin du inoiz ordea, errealki beste zerbait nahi izatea egin, ordu arte nahi izan duenaz aparte; baizik hori aldaezin gelditzen da, zeren bera nahi izate hori besterik ez baita, bestela ezabatu beharko litzatekeena. Lehen hura bitartean, ezagutzaren modifikagarritasuna eta horren bidez egitearena, hain urrun joaten da, non bere helburu aldaezina, adibidez, Mahomaren paradisua bada ere, batzuetan mundu errealean eta beste batzuetan mundu imajinario batean lortzen saiatzen baita, horretarako bitarteko egokiak erabiliz eta horregatik lehen aldian zuhurtasuna, indarra eta iruzurra, bigarreanean kontinentzia, justizia, limosna, Mekkarako erromesaldiak erabiliz. Baina horregatik ez da nahimenaren joera aldatu, are

gutxia

go hura bera. Nahiz eta horrela bere egintza oso desberdin garai desberdinetan aurkeztu, hala ere bere nahi izateak beti berean dirau. .

Motiboen eraginkortasunerako ez da horiek existitzea bakarrik behar, horiek ezagutua izatea ere bai: zeren jadanik aipatu den eskolastikoen adierazpen oso baten arabera, . Horrela, adibidez, gizaki jakin batengan egoismoak eta errukiak batabestearekiko duten harremana ager dadin, ez da nahikoa berak aberastasunen bat izatea eta inoren miseria ikustea; baizik gainera jakin behar du zer egin daitekeen aberastasunarekin nola beretzat hala besteentzat; eta ez zaio inoren sofrimendua aurkeztu behar bakarrik, baizik jakin behar du gainera zer den sofrimendua eta zer den plazerra. Agian ez luke jakingo hori lehen abagunean bigarreanean jakingo lukeen bezain ongi; eta abagune berdinean desberdin jokatzek badu, hori zirkunstantziak benetan desberdinak izateari zor zaio, bere ezagutzaren mendean dagoen atalari dagokionez, nahiz eta berdinak direla diruditen. - Errealiki existitzen diren zirkunstantziak ez ezagutzeak horiei eraginkortasuna kentzen dien bezala, bestalde, erabat zirkunstantzia imajinarioek errealek bezalako eragina izan dezakete, ez bakarrik engainu partikular batean, baizik osoki eta iraunkorki. Adibidez, norbait irmoki konbentzitzen bada egintza on oro geroko bizitzan ehun bider sarituko diotela; konbentzimendu horrek ganbio-letra baten balio segurua izango du erabat eta epe luzera, eta egoismoz eman dezake, beste ideia batekin egoismoz hartuko lukeen bezala. Ez da aldatu: . Nahimen aldaezinean ezagutzak egintzan duen eragin handi horren indarrez gertatzen da, pixkanaka karakterra garatu eta bere ezaugarri desberdinak azaltzea. Horregatik bizi-adin bakoitzean desberdin azaltzen da, eta gaztaro bizikor eta suhar baten ondotik zahartzaro heldu, ordenatu eta zentzuduna etor daiteke. Bereziki karakterreko txarra denborarekin gero eta indartsuago azaltzen da; baina batzuetan grinak, zeinetan gaztaroan murgildu baitzen norbera, gerora nahita bridatu egiten dira, motibo kontrajarriak orduantxe ezagutzan agertu direlako bakarrik. Horregatik, hasieran denok errugabeak gara, eta gure natura propioaren txarra oraindik ez dugula ezagutzen besterik ez du esan nahi horrek: motiboetan bakarrik agertzen baita, eta denborarekin bakarrik agertzen baitira motiboak ezagutzan. Azkenean geure burua ezagutzen ikasten dugu, geuk a priori geneukanaz zeharo bestelako bezala, eta sarritan ikaratu egiten gara gero geure buruaz.

Damua ez da inoiz sortzen nahimena aldatu izatetik (ezinezkoa da), baizik ezagutza aldatu izatetik. Behin nahi izan dudana horren esentzial eta propioa, oraindik ere nahi izan beharra daukat: zeren ni neu bainaiz denboraz eta aldaketaz kanpo dagoen nahimen hori. Horregatik ezin naiz inoiz damutu nahi izan dudana, bai ordea egin dudana; zeren nik, kontzeptu faltsuek gidaturik nire nahimenari zegokionaz bestelako zerbait egin baitut. Ezagutza zuzenagoarekin hori ulertzea da damua. Eta hori ez da bizi-zuhurtziara soilik hedatzen bitartekoen hautapenari eta helburuak nire nahimen propioarekiko egokieraren epaiketari dagokionez; baita propioki etikora ere. Horrela, adibidez, joka nezakeen neure karakterrari dagokion baino egoistago, aurkitzen nintzen premiaren errepresentazio gehiegizkoak bultzatu izanaren bidez erraturik, edo beste batzuen amarruak, faltsukeriak, txarkeriak edo baita presakaegi ibili naizelako ere, h. d. gogoeta egin gabe jokatu dudalako, ez in abstracto argiro ezaguturiko motiboak, baizik begiesgarri soilaren bidez determinaturik, presentearen inpresioaren eta afekzioaren bidez, zeinak eragin baitu eta hain indartsua izan baita, non neure arrazoimenaz ere propioki baliatu ez naizen; gogoetaren itzulera ere kasu honetan ezagutza zuzendua besterik ez da,

zeinatik damua sor baitaiteke, zeina ahal den neurrian gertatua kitatzearen bitartez azaltzen baita. Baina kontuan izan behar da, nork bere burua engainatzeko, itxurazko presaka ibiltzeak prestatzen ditugula aldeaz aurretik, sekretuki hausnarturiko egintzak direnak benetan. - Zeren inor ez baitugu engainatu eta lausengatzen geure burua adinako amarrukeria sotilekin. - Aipaturikoaren kontrako kasua ere gerta daiteke: besteekiko konfiantza handiegi batek edo bizitzako ondasunen balio erlatiboa ez ezagutzeak edo dogma abstrakturen batek, zeinekiko fedea jadanik galdua baitut, eraman nazake nire karakterrari dagokion baino egoismo gutxiagorekin jokatzera, eta horren bidez beste mota bateko damua neure buruari prestatzera. Horrela ere beti damua asmo propioarekiko egitearen harremanaren ezagutza zuzendua da. - Bere ideiak espazioan bakarrik, h. d. taxu soilaren bidez agerian jartzen dituen heinean nahimenari materia kontra-jartzen zaion bezala, beste ideia batzuek, hemen natur indarrek menderaturikoa eta bakan taxua, hemen ikuskortasunarengatik ahalegindu dena, perfektuki argi eta garbi, h. d. eder, irtenarazten duen bezala; horrela eragozpen analogo bat aurkitzen du denboran bakarrik, h. d. egintzen bitartez agerian jartzen den nahimenak ezagutzen, zeinak bakan ematen baitizkio datuak zuzen, zeinaren bitartez gero egitea ez baita oso doiki nahimenarekin bat etortzen, eta horregatik damua prestatzen du aldeaz aurretik. Damua beti ezagutza zuzendu gisa sortzen da, ez nahimenaren aldaketatik, hori ezinezkoa baita. Gertatutakoari buruzko kontzientzia-zimikoa ez da inondik ere damua, baizik nork bere burua bere baitan, h. d. nahimen gisa ezagutzearen mina da. Eta beti nahimen bera izaten den ziurtasunean oinarritzen da. Aldatuko balitz eta horregatik kontzientzia-zimikoa damu besterik ez balitz, orduan bere burua ezabatuko luke: zeren iraganak ezingo bailuke inolako zimikorik sortu, izan ere nahimen baten kanporatzeak, jadanik damutzen denarenak izango ez liratekeenak aurkeztuko lituzke. Geroago xeheki aztertuko dugu kontzientzia-zimikoaren esangura.

Ezagutzak, motiboen bitarteko gisa, ez nahimenaren beraren baitan, baizik bere agerpenean egintzetan daukan eragina, gizakiaren eta animalia-aren egitearen arteko desberdintasun nagusia oinarritzen du, bien ezagutze-era desberdina den heinean. Animaliak errepresentazio begiesgarriak bakarrik ditu, gizakiak arrazoimenaren bidez errepresentazio abstraktuak, kontzeptuak ditu. Nahiz eta animalia eta gizakia beharrezkotasun beraz motiboen bitartez determinaturik egon, gizakiak bakarrik dauka hautapen-erabaki betegin bat animalia-aren aldean, zeina nahimenaren askatasuntzat hartu izan baita sarritan, nahiz eta motibo bat baino gehiagoren arte gatazka erabat borrokatu baten ahalatasuna besterik ez izan, horietako indartsuenak gero beharrezkotasunez determinatzen duelarik. Horretarako beharrezkoa da motiboen pentsamendu abstraktuaren forma hartu izana; zeren horien bitartez bakarrik baita ahalgarri benetako deliberazio bat, h. d. egintzarako arrazoi kontra-jarren pisaketa. Animalia-aren aurrean begiesgarriki dauden motiboen artean bakarrik gerta daiteke hautapena, zeren hori bere atzemate presente, begiesgarriaren esfera meharrena mugaturik baitago. Horregatik motiboen bitarteko nahimenaren determinazioaren beharrezkotasuna, zeina kausaren bitartekoaren eraginarenaren berdina baita, animalia-engan bakarrik aurkez daiteke begiesgarriki eta bitartegabe, zeren hemen behatzaileak motiboak bere eragina bezain bitartegabe baitaizka begien aurrean; aldiz, gizakiaren motiboak ia beti errepresentazio abstraktuak izaten dira, zeinetan behatzaileak ez baitu esku hartzen, eta egintza burutzen duenari berari ere bere eraginaren beharrezkotasuna gatazkaren atzean ezkutatu egiten zaio. Zeren in abstracto bakarrik egon baitaitezke errepresentazio bat baino gehiago judizio eta arrazoi-keta-katea gisa kontzientzia batabestearen ondoan, eta gero

denbora-determinazio orotatik aske batabesteari eragin diezaiokete, indartsuenak gainerakoak mendean hartu eta nahimena determinatu arte. Hori da hautapen-erabaki betegina edo deliberazio-gaitasuna, gizakia animalia gainera gainetik jartzen duen pribilegioa, eta zeinarengatik gizakiari nahimen-askatasuna egotzi baitzaio, uste izanez, bere nahi izatea endelguaren eragiketen emaitza soil bat dela, horren oinarrian bulkada determinatu bat ez dagoela; aldiz, egiazki motibazioak bere bulkada determinatuaren eustazpiaren gainean eta suposizioaren pean bakarrik eragiten baitu, zeina beragan indibiduala, h. d. karakter bat baita. Deliberazio-gaitasun horren aurkezpen xeheago bat eta berorren bitartez buruturiko giza eta animalia aukeramenaren desberdintasuna (1. edizioa 35. or. eta hh.) obran aurkitzen da, eta bertara bidaltzen dut irakurlea. Gainerakoan gizakiaren deliberazio-gaitasun hori existentzia animalia baino mingarriago bihurtzen dioten gauzetako bat ere bada; zeren oro har gure minik handienak ez baitaude presentean errepresentazio begiesgarri edo sentimendu bitartegabe gisa: baizik arrazoimenean kontzeptu abstraktu gisa, pentsamendu mingarri gisa, zeinatik presentean bakarrik eta horregatik inbidia merezi duen arduragabezia bizi den animalia erabat aske baitago.

Azalduriko giza deliberazio-gaitasunak in abstracto pentsatzeko ahalatasunarekiko duen dependentzia hori, horrela epaitu eta arrazoitzekoarekikoa ere, badirudi izan dela Cartesio eta Spinoza eraman dituen nahimenaren erabakiak baieztatzeko eta ezeztatzeko ahalatasunarekin (juzgamenarekin) identifikatzera, zeinatik Cartesiok deduzitu baitzuen nahimen indiferenteki askeak errore teoriko guztien errua duela; Spinozak, aitzitik, nahimena motiboek derrigor determinatzen dutela printzipioek judizioa bezala¹⁰; azken horrek badu zuzentasunik, baina premisa faltsuetatik ateratako egiazko konklusio bat da. -

Moduaren desberdintasun frogatuak, motiboek nola higitzen duten animalia gizakiaren beste modu batera, bien esentzian sakoneraino hedatzen du bere eragina eta bien izatearen desberdintasun sakon eta nabariaren euskarri nagusia ere bada. Animalia errepresentazio begiesgarri baten bitartez motibatzen den bitartean, gizakiak jotzen du motibazioaren mota hori erabat baztertu eta bere burua errepresentazio abstraktuek bakarrik determinatzera, zeinaren bitartez bere arrazoimenaren pribilegioari ahalik eta etekinik hoberena ateratzen baitio, eta presentetik independente ez baitu atsegin iragankorra hautatzen edo min iragankorrari ihes egiten, baizik eta bien ondorioak hausnartzen baititu. Kasurik gehienetan, egintza guztiz esanguragabeak alde batera utzirik, motibo pentsatu abstraktuek determinatzen gaituzte, ez presenteko inpresioek. Horregatik aldiuneko gabetze partikular bakoitza erraz samarra izaten zaigu, baina ukapen oro izugarri zaila: zeren hark presente iraizekoarekin baitu zerikusia, eta honek, berriaz, etorkizunarekin, eta ezin zenbatu ahala gabetzen ditu bere baitan, zeinen baliokidea baita bera. Gure minaren kausa gure pozarena bezala horregatik ez dago gehienetan presente errealean; baizik pentsamendu abstraktuetan: horiek dira guri sarritan jasanezin bihurtzen zaizkigunak, tormentuak sortzen dizkigutenak, zeinen aldean animalien sofrimendu guztiak oso txikiak baitira, izan ere horiekiko gure min fisiko propioak askotan hauteman ere ez baititugu egiten, are sofrimendu psikiko biziak ditugunean, fisikoak sorrarazten baitizkiogu geure buruari, haietatik aditasuna horietara desbideratzeko: horregatik min psikiko handiak ditugunean ileak erauzten ditugu, bularra jotzen dugu, aurpegia urratzen dugu edo lurrera jaurtitzen dugu geure burua; hori guztia jasanezinak gertatzen zaizkigun pentsamenduetatik barreiatzeko bitarteko indartsuak baizik ez dira berez. Eta min psikikoek handiagoak diren heinean fisikoen aurka sentigaitz bihurtzen gaituztelako, etsipenak

jotakoarentzat edo tristura gaixozkoak deuseztuarentzat suizidioa oso erraza bihurtzen da, nahiz eta lehenago egoera atseginean pentsamendu horren aurrean ikaratzen bazen ere. Horrela ardurek eta grinek, pentsamenduaren jokoak diren horiek soina sarriago eta gehiago suntsitzen dute neke fisikoek baino. Hori dela eta arrazoiz dio Epiktetok: (GRIEGO) (Perturbant homines non res ipsae, sed de rebus decreta) [Gauzek ez dute gizakia kezkatzen, baizik gauzei buruzko iritziek;] (5) , eta Senekak: » Plura sunt, quae nos terrent, quam quae premunt, et sepius opinione quam re laboramus». Eulenspiegel ere oso bikain trufatzen zen giza naturaz, mendira igotzen ari zela barre, eta jaisten ari zela negar egitean. Are min hartu duten haurrek sarritan ez dute minarengatik negar egiten, baizik deitoratzen badituzte, horren bitartez sortu zaien minaren pentsamendurengatik. Egintzan eta sofrimenduan dauden desberdintasun hain handi horiek animalia- eta gizakia-aren ezagutza-eraren desberdintasunetik sortzen dira. Gainera, norbanakoaren karakterra argi eta erabakia agertzea, gizakia nagusiki bereizten duena animalia-arengandik, ia espezie-karakterra bakarrik duena, baldintzaturik dago motibo bat baino gehiagoren artean aukeraren bitartez, zeina kontzeptu abstraktuen bitartez bakarrik irakasten baitzuten ahalgarri. Zeren aldeztu aurretiko aukera baten bitartez bakarrik dira banako desberdinetan desberdin gertatzen diren ebazpenak horien karakter indibidualaren zeinu, zeina bakoitzean bestelakoa baita; aldiz, animalia-aren egitea inpresioaren presentzia edo absentzia-aren mendean dago, suposatuz hori oro har bere espezie-arentzat motibo bat dela. Horregatik azkenean gizakia-arengan ebazpena da bakarrik, eta ez desira soilak, bere karakter-aren zeinu baliozkoa, berarentzat eta bestearentzat. Ebazpena egitatearen bitartez bakarrik bihurtzen da ziurra, bai berarentzat eta bai bestearentzat. Desira presenteko inpresioaren beharrezko ondorioa besterik ez da, hori kanpoko kitzikapenaren edo barneko aldarre iragankorrarena, eta horregatik bitartegabe beharrezkoa eta gogoetarik gabea da animalien egitea bezala: horregatik horrek bezala espezie-karakterra soilik adierazten du, ez indibiduala, h. d. gizakia oro har egiteko gai dena adierazten du, eta ez desira sentitzen duen norbanakoa gai dena. Egitatea bakarrik da, giza egintza giza gogoeta jakin bat behar duena eta gizakia eskuarki bere arrazoimenaren jabe delako, zogia beraz, h. d. motibo pentsatu, abstraktuen arabera erabakitzen delako, bere egintzaren maxima adigarriaren adierazpena, bere nahi izate barnekoenaren emaitza, eta letrak hitzarekin bezala jokatzeko du, haren karakter empirikoa markatzen duena, zeina bere karakter inteligiblearen izaera denborazkoa besterik ez baita. Horregatik gogamena osasuntsu dagoenean egitateek bakarrik zamatzen dute kontzientzia, ez desirak eta pentsamenduek. Zeren gure egitateek bakarrik jartzen baitigute aurrez aurre gure nahimenaren ispilua. Gorago aipatu den erabat hausnartu gabeko eta errealki afekzio itsuan gertaturiko egitatea, nolabait esateko, tarteko zerbait dira desira soilaren eta ebazpenaren artean: horregatik, egiazko damuaren bitartez, zeina ere egitate gisa agertzen baita, gaizki marrazturiko lerro

bat bezala ezaba daiteke gure nahimenaren iruditik, gure bizi-joaira den horretatik. - Gainerakoan aparteko konparazio bezala hemen ohar bat egin daiteke, hots, desirak eta egitatearen arteko harremanak analogia guztiz halabeharreko baina zehatza duela banaketa elektrikoaren eta komunikazio elektrikoaren artekoarekin.

Nahimenaren askatasunari buruzko kontsiderazio honi guztiari dagokionez, eta berarekiko harremana duenari buruz aurkitzen dugu nahimena bere baitan agerpenaz kanpo, nahiz eta askea dei daitekeen, are ahalguztidun, ezagutzak argituriko bere agerpenetan, horrela gizakiarengan eta animaliarengan motiboek determinaturik, zeinen kontra karakter bakoitzak beti era beraren arabera eta derrigorrez erreakzionatzen duela. Gizakiari ikusten diogu gehitu zaion arrazoimen-ezagutza abstraktuaren indarrez animaliarekiko abantaila ematen dion hautapen-erabaki bat, zeina motiboen gatazkaren borroka-zelai bihurtzen baitu, bera haien nagusitasunpetik atera gabe, eta horregatik zinez karakter indibidualaren kanporatze beteginaren ahaltasuna baldintzaturik kontsideratu behar dugu, inola ere ez nahi izate partikularren askatasun gisa, h. d. kausalitatearen legearekiko independentzia gisa, zeinaren beharrezkotasuna gizakiaren gainera eta beste agerpen guztietara hedatzen baita. Puntu jakin horretaraino, eta ez harago, iristen da desberdintasuna, zeina arrazoimenak edo ezagutzak kontzeptuen bitartez giza nahi izatearen eta animaliarengan artean ezartzen baitu. Bakarrik bada zeharo bestelako zerbait, animaliarengan ezinezko fenomeno bat gizakiarengandik sor daitekeena, baldin eta gizakiak arrazoiaren printzipioaren mendean ezarritako ezagutza guztia horrelakoa den heinean utzi eta ideien ezagutzaren bitartez principium individuationis-a barrentzen badu, non ere gero nahimenaren askatasun benetakoaren azaltze erreala berbaitango gauza gisa ahalbidetzen baita, zeinaren bitartez agerpena halako kontraesan jakin batean sartzen baita bere buruarekin, zeina autoukapen hitzak izendatzen baitu, are azkenik bere esentziaren berbaitangoa ezabatzen baitu - nahimenaren askatasunaren kanporatze benetako eta bitartegabe bakarria, ez dago hemen oraindik argiro aurkezterik, baizik gure kontsiderazioaren azken-azkeneko objektua izango da.

Karakter enpirikoaren aldaezintasuna, oraingo azalpenen bitartez agirian jarri ondoren, zeina denboraz kanpoko inteligiblearen destolespen soila baita, baita motiboekin topo egitean egintzak sortzen diren beharrezkotasuna ere: lehenik ondorio bat baztertu behar dugu, joera gaitzesgarrien alde oso erraz hartatik atera daitekeena. Nola gure karakterra nahimen-egintza denboraz kanpoko eta gainera banaezin eta aldaezin edo karakter inteligible baten destolespen denborazkotzat hartu behar den, zeinaren bitartez esentzial oro, h. d. gure bizi-portaeraren eduki etikoa, aldaezinki determinaturik baitago eta karakter enpirikoaren arabera adierazi behar baitu bere agerpenean, aldiz, agerpen horren ez-esentziala, gure bizi-joairaren kanpoko taxuera, taxuen mendean baitago, zeinen pean motiboak aurkezten baitira: horrela ondoriozta liteke ahalegin alferrak liratekeela bere karakterren hobekuntzan lan egitea, joera gaiztoen indarrari kontra egitea, horregatik egokiagoa litzatekeela aldaezinaren mendean geure buruak jartzea, eta joera orori, nahiz eta gaiztoak izan, berehala men egitea. - Bakarrik honetan zori saihestezinaren teoria eta hartatik sortzen diren ondorioekin gertatzen den gauza berbera gertatzen da, (GRIEGO) [arrazoimen nagia] eta modernoki turko-fede deitzen dena, zeinaren errefusapen zuzena, Krisipok egin zuena, Zizeronek aurkezten baitu » De fato» cap. 12, 28 liburuan.

Nahiz eta dena zoriak apelaezinki alde aurretik determinatutzat har daitekeen, kausen kateakuntzaren bitartez bakarrik dago horrela. Horregatik ezein kasutan ezin

daiteke determinaturik egon efektua bere kausarik gabe gertatzea. Gertaera besterik gabe ez dago aldez aurretik determinatua, baizik hori aurretiko kausen emaitza gisa: horrela ez da emaitza bakarrik, baita bitartekoa ere, zeinaren emaitza gisa gertatzea determinaturik baitauka zoriak. Bitartekoak ematen ez badira, orduan segurua da emaitza ere ez ematea: biak beti zoriaren determinazioaren arabera, zeina beti horren ondoren jakiten baitugu. Gertaerak beti zoriaren, h. d. kausen kateakuntza amaigabearen arabera bezala, gure egiteak ere gure karakter inteligiblearen arabera gertatzen dira: baina hura aldez aurretik jakiten ez dugun bezala, horrela karakterra ere ezin dugu a priori ezagutu; baizik a posteriori bakarrik esperientziaren bidez ikasten dugu, besteak bezala, geure burua ere ezagutzen. Karakter inteligibleak berekin badakar ebazpen on bat joera gaizto baten aurka borroka luzea egin ondoren bakarrik hartu ahal izatea; orduan borroka horrek aurretik gertatu beharko du eta itxaron egin beharko zaio. Karakterraren aldaezintasunari, gure egite guztiak sorrarazten dituen iturriaren batasunari buruzko gogoetak ez

gaitu gidatu behar karakterraren erabakiaren alde baten baino bestearen faboretan gehiago aurreratzera: sortuko den ebazpenean ikusiko dugu zer eratakoak garen, eta geure burua geure egiteetan ispilatuko dugu. Horretatik azaltzen da atzera begiratu eta atzean utzitako bizi-ibilbidea ikustean sortzen zaigun gogobetetasuna edo barne-larritasuna: biak ez datoz, iraganeko egite haiek oraindik existentzia izatetik: haiek iragan, izan dira eta orain ez dira ezer; baina horien guretzako garrantzi handia beren esanguratik dator, egite horiek karakterraren marka, nahimenaren ispilu izatetik dator, zeinari begiratuz geure ni barnekoena, geure nahimenaren muina berrezagutzen baitugu. Nola guk hori ez aldezturik baizik ondoren jakiten dugun, denboran ahaletzen eta borrokatzea dagokigu, horrenbestez geure egiteen bidez eragiten dugun irudiari begiratzean ahalik eta gehien lasai gaitzan, eta ez larri. Lasaitze horren edo barne-larritasun horren esangura, esan denez, geroago aztertuko dugu. Hemen, aitzitik, bere eskukoa den honako kontsiderazio hau egingo dugu.

Karakter inteligible eta enpirikoarekin batera bada beste hirugarren bat, bi horietatik desberdina dena, aipatu beharrekoa, karakter lortua, zeina baita bizitzan, munduarekiko harremanean hartzen dena eta hori aipatzen dugu, norbait goratzen denean karakterra daukan pertsonatzat, edo karaktergabetzat kritikatzin denean. - Egia da pentsa daitekeela karakter enpirikoa adigarriaren agerpen gisa aldaezin eta edozein natur agerpen bezala bere baitan kontsekuentea dela, gizakiak ere horregatik beti berdin eta kontsekuyente agertu beharko lukeela, eta horregatik ez lukeela premiarik izan beharko esperientzia eta gogoetaren bidez artifizialki karakter bat lortzeko. Baina besterik gertatzen zaio, eta beti bera bada ere, ez du bere burua beti ulertzen, baizik askotan ez du bere burua ezagutzen, harik eta gradu jakin batean bere buruaren benetako ezagutza lortu duen arte. Karakter enpirikoa natur bulkada soil gisa irrazionala da: areago arrazoimenak nahastu egiten ditu bere agerpenak, eta zinez hainbat gehiago, zenbat eta gizakiak hausnarmen eta pentsatzeko indar gehiago duen. Zeren horiek beti proposatzen baitiote, gizakiari oro har, espezie-karakter gisa dagokiona eta nahi izatean eta obratzean ahalgarri zaiona. Horregatik zailago zaio bere indibidualitatearen indarrez nahi duen eta ahal duen hori guztia ulertzea. Bere baitan giza ahaletzen eta indar desberdinetarako gaitasuna aurkitzen du; baina horien gradu desberdina bere indibidualitatean ez zaio esperientzia gabe klaru gelditzen: eta bere karakterrari bakarrik dagozkion bulkadetara jotzen badu, orduan bereziki une eta aldarte partikularretan, kontrajarrietarako kinada sentitzen du, elkarrekiko bateraezinak direnetarakoa, baldin eta lehenei trabarik gabe jarraitu nahi badie, horiek erabat zapaldu behar ditu. Zeren gure bide fisikoa lurrean beti lerro bat bakarrik bat den bezala, eta ez gainalde bat; horrela bizitzan, zerbait eskuratu eta jabetzan eduki nahi badugu, beste ezin zenbatu ahala ezker-eskuin uko eginez utzi beharra daukagu. Ezin baldin badugu horretarako erabakia hartu, baizik hurrek merkatuan bezala, aurretik igarotzean kitzikatzen gaituen guztiari heldu nahi badiogu; orduan hori ahaletzen aldrebesa da, gure bideko lerroa gainalde bihurtzea: horrela sigi-saga eginez egiten dugu lasterka, hara-hona erratuz eta ez gara ezertara iristen. - Edo, beste konparazio bat erabiltzeko, Hobbesen zuzenbidearen doktrinaren arabera bezala, jatorriz bakoitzak edozein gauzaren jabetzarako eskubidea du, baina ez ezeren eskusiboa; azken hau lor daiteke gauza partikularrena gainerako guztienari uko eginez, alderantziz besteek berak hautatuarekiko gauza bera egin dezaten; berdina gertatzen da bizitzan, non edozein irrika determinatu, plazerra, ohorea, aberastasuna, zientzia, artea edo bertutea dela ere, seriotasun eta zorionez bakarrik jazar daiteke, baldin eta arrotz zaizkion uzi guztiak bertan behera uzten baditugu, gainerako guztiei uko egiten badiegu.

Horregatik nahi izate soila eta ahal izatea beren baitan ez dira aski, baizik gizakiak jakin egin behar du zer nahi duen, eta jakin egin behar du zer ahal duen: horrela bakarrik erakutsiko du karakterra, eta horrela bakarrik egin ahal izango du zerbait bidezkoa. Horra iritsi aurretik, karakter enpirikoaren kontsekuentzia naturala kontuan hartu gabe, karaktergabea da, eta nahiz eta osotasunean leial iraun bere buruarekin eta bere bidetik ibili behar duen, bere demonioak erakarria; hala ere, ez du lerro zuzen bat deskribatuko, baizik zalantzakor, desberdina, zabuka, saiheska, biraka, damua eta mina prestatuz: hori guztia handian eta txikian gizakiari ahalgarri eta lorgarri zaion hainbeste ikusten duelako eta artean ez dakielako horretatik zer dagokion eta egingarri zaion bakarrik, ezta zer zaion gozagarri ere. Hainbati bere egoera eta harremanen inbidia izango dio, zeinak haien karakterrari baitagozkio, baina bere propioari ez dagozkionak, eta zeinetan bera dohakabe sentituko bailitzateke, eta zeinak ezingo bailituzke jasan ere. Zeren arraina uretan bakarrik bezala, txoria airean bakarrik bezala, satorra lurpean bakarrik ongi dagoen bezala, horrela gizaki bakoitza berari dagokion atmosferan bakarrik; zeren, adibidez, gorteko airea ez zaio edonori arnasgarri. Hau behar adina ez ulertzeagatik askok era guztietako ahalegin alferrak egiten dituzte, bortxa egin ahal izango dio bere karakterrari gauza partikularretan, baina osotasunean haren aurrean amore eman beharko du: eta horrela kostata bere naturaren aurka lortzen duenak ez dio inolako atsegini emango; horrela ikasten duena, hilik geratuko zaio; eta ikuspegi etiko batetik bulkada bitartegabe huts ez baizik kontzeptu, dogma batetik bere karakterrari egite nobleren bat sortzen bazaio ondorengo damu egoistaren bidez meritu guztia galduko du, bere begien aurrean ere. Inoren karakterraren malguezintasuna esperientziaren bidez bakarrik ezagutzen dugun bezala eta haurkiro sinesten dugularik errepresentazio razional, erregu eta arrenen bidez, adibide eta arimazko prestutasunez norbait eraman dezakegula bere mota utzi, bere egintza-era aldatu, bere pentsatze-motatik aldentu edo bere gaitasunak gehitzera; horrela gertatzen da gure buruarekin ere. Esperientziatik ikasi behar izaten dugu zer nahi dugun eta zer ahal dugun: bitartean ez dakigu hori, karaktergabeak gara eta kanpotiko kolpe gogorren bitartez gure bide propiora berriro bota behar gaituzte. - Baldin eta hori azkenean ikasi badugu, orduan munduan karakter, karakter lortua deitzen dena izatera iritsi gara. Hori, beraz, ezer ez da baizik eta indibidualitate propioaren ezagutza ahalik eta perfektuena: norbere karakter enpirikoaren propietate aldaezinen eta bere indar arimazko eta gorputzezkoen, horrela norbere indibidualitate propioaren indar eta ahulezia guztien jakite abstraktu, eta ondorioz argia. Horrek ezartzen gaitu bere baitan aldaezina den geure pertsona propioaren rola, aldeztu aurretik araugabe naturalizatu duguna, orain gogoeta eginez eta metodikoki gidatzeko eta apetek edo ahuleziek eragindako hutsuneak kontzeptu finkoen ezarpenaz betetzeko egoeran. Gure natura indibidualak besterik gabe ezarritako beharrezko egintza-eraren bidez argiro jakin dugu orain, eta beti presenteko maximak ekarri, zeinen arabera guk horrela gogoeta eginez jokatzen baitugu, ikasia balitz bezala, gogamenaren eragin iragankorren edo presenteko inpresioaren bidez errebelatu gabe, bidean aurkituriko partikularitasun baten mingotsak edo gozoak trahatu gabe, ikararik gabe, zaburik gabe, inkontsekuentziarik gabe. Jadanik ez gara hasiberriak bezala itxaron, entseiatu, haztamuka ibili benetan zer nahi dugun eta zer ahal dugun ikusteko; baizik badakigu behin betiko hautapen bakoitzean printzipio orokor bat ezarri behar diogula kasu bakoitzari ebazpena iristeko. Geure nahimena orokorrean ezagutzen dugu eta ez diogu uzten geure buruari aldarteak edo kanpoko inguruabarrek desbideratzen, partikularrean osotasunean kontrako zaiona ebazteko. Era berean geure indarren eta geure ahulezien mota eta neurria ezagutzen ditugu eta horrenbestez min

asko aurreztuko ditugu. Zeren benetan ez baitago beste gozamenik nork bere indarrak erabili eta sentitzea baizik, eta minik handiena indarraren gabezia hautemana da, non ere behar diren. Ikertu badugu non dauden gure indarguneak eta non gure ahuleziak; horrela geure disposizio natural hoberenak eratu, erabili, era guztietan baliarazten saiatuko gara eta beti komenigarri eta baliozko diren tokira joko dugu, baina erabat eta autogainditzez ekidingo ditugu naturaz disposizio murriztagokoak ditugun joerak; geure burua begiratu egingo dugu iritsi ezin garenera ahalegintzetik. Horra iritsi dena bakarrik beti izango da gogoeta guztiarekin bera, eta ez du inoiz bere burua abandonaturik utziko, zeren beti jakingo baitu zer egiteko gai den. Sarritan izango du gainera bere indarra sentitzeko poza, eta nekez sentituko du bere ahulezia gogoratu izanaren mina, zeina azken umiliazioa baita, agian espirituko minik handiena sorrarazten duena: horregatik askozaz hobeki jasaten da zorigaitza aldrebeskeria baino begien aurrean izatea. - Erabat jabeturik gaudenean geure indarrez eta ahuleziez; orduan ez gara ahaleginduko ez dauzkagun indarrak erakusten, ez dugu txanpon faltsuekin jokatu, zeren amarrukeria horrek azkenean huts egiten baitio bere xedeari. Zeren gizaki osoa bere nahimenaren agerpena besterik ez baita; horregatik ezinda ezer aldrebesagorik izan, gogoetatik abiatuz, nor bera denaz bestelako zerbait izatea baino: zeren nahimenaren kontraesan bitartegabe bat baitago norbere buruarekiko. Inoren gaitasun eta berezitasunak imitatzea askozaz lotsagarriagoa da inoren arropak janzteia baino: zeren baliogabezia propioaren judizioa baita, norberak emana. Mota guztietako joera eta gaitasun propioak eta horien muga aldaezinak ezagutzea da ikuspegi horretatik biderik seguruenak, nork bere buruarekin ahalik eta gogobetetasun handiena lortzeko. Zeren barneko zirkunstantzietan eta kanpokoez balio baitu esateak ez dagoela kontsolamendu eraginkorragorik beharrezkotasun aldaezinaren ziurtasun osoa baino. Erasan gaituen gaitz batek gutxiago tormentatzen gaitu hura saihestu ahal izango zuketen zirkunstantzietan pentsatzeak baino; horregatik ez da ezer eraginkorrago gure lasaitasunerako gertatutakoa beharrezkotasunaren ikuspuntutik kontsideratzea baino, zeinatik gertaera guztiak zori indartsu baten lanabesak bezala aurkezten baitira, eta horrenbestez gertaturiko gaitza barneko eta kanpoko zirkunstantzien gatazkaren bitartez, ezinbestez, hots fatalismoz burututzat berrezagutzen baitugu. Kexatu eta deitoratzen dugu edo besteengan eragina izatea edo geure burua ahalegin ezohikoak egitera zirikatzea espero dugunean bakarrik benetan. Baina haurrek eta helduok badakigu ongi etsipena hartzen argi eta garbi ulertzen dugunean ez dagoela beste erremediorik:

(GRIEGO)

(Animo in pectoribus nostro domito necessitate.)

[...bortxaz golkoan gordez herra elikatua.

Homero, » Ilias» 18, 113]

Harrapaturiko elefanteak bezalakoak gara, zeinak egun askotan izugarri indarka eta borrokan izugarri aritzen baitira alferrik dela ikusten duten arte, eta gero supituki beren lepoa uztarripean ezartzen dute, betiko bezaturik. David erregea bezalakoak gara, semea bizi zitzaion arte, etengabe Jehovari erreguz abaildu eta etsipenezko keinuak egiten baitzituen; baina semea hil zitzaion bezain laster, ez zuen gehiago harengan pentsatu. Horregatik gertatzen da ezin zenbatu ahalek axolagabetasunez jasatea dauden ezin zenbatu ahal gaitz, hala nola: itxuragabetasuna, pobrezia, gizarte-posizio apala, itsusitasuna, bizileku ziztrina eta sentitu ere ez egitea, zauri orbainduen gisara, zeren bai baitakite barneko edo

kanpoko beharrezkotasunak hemen ez duela ezer aldatzen uzten; bitartean zoriontsuagoek ez dute ulertzen nola jasan daitekeen hori. Kanpoko beharrezkotasuna barnekoarekin ezagutza argi batek adina ezerk hain finko adiskidetzen ez duen bezala. Geure gaitasun eta indarrak, baita ahaltsun eta ahuleziak, behin betiko argiro ezagutu ditugunean, horien arabera geure xedea ezarri eta lortuezinezkoaz geure buruari etsipena eman diogunean; orduan ihes egiten diogu seguruen, gure indibidualitateak baimentzen digun neurrian, sofrimendu guztietatik mingotsenari, geure buruarekiko gogobetetasunik ezari, zeina indibidualitate propioa ez ezagutzearen, iritzi faltsuaren eta hortik sortutako ausardiaren ezinbesteko ondorio baita. Autoezagutza gomendatuaren kapitulu mingotsean erabilera bikainerako gai da Ovidioren bertsoa:

Optimus ille animi vindex laedentia pectus
Vincula qui rupit dedoluitque semel.

[Hori da espirituaren laguntzailerik hoberena bihotza estaltzen duten lokarri oinazegarriak behin betiko hausten dituenen.

» Remedia amoris» 293]

Hau dena esan daiteke karakter lortuaz, nahiz eta etikarentzat berarentzat gizarte-bizitzarako bezain garrantzitsua ez izan, zeinaren azterketa karakter inteligiblearen eta karakter enpirikoarenarekin batera egin behar baita, horien alboan ezarritako hirugarren mota batena bezala; lehen biak kontsiderazio xehe samar batean sartuko ditugu, argiro ulertu ahal izateko, nola nahimena bere agerpen guztietan beharrezkotasunaren mendean dagoen, bera bere baitan aske, are ahalguztidun dei daitekeelarik.

§ 56

Askatasun hori, ahalguzti hori, zeinaren kanporatzea eta kopia mundu ikuskor osoa, bere agerpena baita eta ezagutzaren formak berekin daramatzen legeen arabera etengabe garatzen baita - ahalgarri da eta egiazki bere agerpen osatuenean bere esentzia propioaren ezagutza perfektuki egokia agertu den horretan ere, berriro kanporatzea; orduan edo hemen gogoetaren eta autokontzientziaren gailurrean itsuki eta bere burua ezagutu gabe nahi zuen hura bera nahi du, non ere gero ezagutzak, nola partikularrean, hala osotasunean berarentzat beti motibo izaten baitirau; edo alderantziz ere bai, ezagutza hori kietibo bihurtzen da, nahi izate oro isildu eta ezabatzen duena. Lehen era orokorrean aipaturiko bizitzeko nahimenaren baieztapena eta ezeztapena da, zeinak norbanakoaren portaeraren ikuspegitik orokor gisa, ez nahimen-kanporatze partikularra ez karakterraren garapena nahastuz ez baitu modifikatzen, eta egintza partikularretan ere bere adierazpena ez baitu aurkitzen; baizik ordu arteko egintza-era osoaren nabarmentze beti indartsuaren bitartez, edo alderantziz, beraren ezabatze biziki maxima adierazten baitu, zeinak aurrerantzean eskuratutako ezagutzaren arabera nahimenak aske atzeman baitu. - Horren guztiaren garapen argiagoa, azken liburu honen gai nagusia eratzen duena, aldezturik zerbait prestatu eta errazturik dago bitartean askatasunaz, beharrezkotasunaz eta karakterraz jadanik egindako kontside

razioen bitartez: baina hori oraindik areagotu egingo da, baldin eta beste behin berandutuz, baldin eta lehenik gure kontsiderazioa bizitzari berari zuzentzen badiogu, zeinaren nahi izatea edo ez nahi izatea baita auzi nagusia, eta zinez horrela orokorrean zer den nahimena bera jakitea bilatuz, zeina edonon bizitza horren esentzia barnekoena baita, zer bilakatuko den bere baieztapenaren bidez, zer eratan eta zenbateraino bera asetzen duen, are ase dezakeen; labur esateko, ikusiko dugu zein den orokorrean eta esentzian bere egoera bere propioa duen eta alde guztietatik dagokion mundu honetan.

Lehenik, hemen, bigarren liburuari amaiera eman genion kontsiderazio hura berriz burura ekarri nahi dut, han nahimenaren xede eta helburuaz ezarritako auziaren bidez sorrarazitako hartara; erantzuna eman ordez, begien aurrean jarri nuen nola nahimena bere agerpenaren maila guztietan, beherenetik goreneraino, azken xede eta helburu batez osoki gabeturik, beti ahalegintzen den, zer ahalegina baitu bere esentzia bakarra, zeinari ezein xede lortuk ez baitio amaierarik ezartzen, eta horregatik ez baita ezein asekuntza amaikorretarako gai, baizik eragozpenek bakarrik eutsi ahal baitiote, baina bera baitan amaigaberraino baitoa. Hori ikusi genuen natur agerpenetako sinpleenean, pisutasunean, zeinak ez baitio ahalegintzeari eta erdigune hedaduragabe baterantz jotzeari, zeinaren lorpena bere eta materiaren suntsiera izango balitzateke, ez baitio uzten, nahiz eta unibertso osoa bola bakar bihurtuko balitz ere. Beste natur agerpen sinpleetan ikusten dugu hori: solidoa denak, fusioz edo disoluzioz, jariatortasunerantz jotzen du, non ere bakarrik bere indar kimikoak aske bihurtzen baitira: zurruntasuna hotzak eutsiriko atxiloturik egote bat da. Jariakorra denak lurrin-egoerara jotzen du, zeinara berehala iragaten baita, presio orotatik askatu bezain laster. Ez dago ahaidetasun gabeko gorputzik, h. d. ahaleginik edo irrikarik edo gutiziarik gabe, Jacob Böhmek esango lukeenez. Elektrizitateak amaigaberraino ugaltzen du bere barne-destolespena, nahiz eta lur-masak bere efektua irentsi. Galvanismoa, pila bizi den bitartean, halaber etengabe berrituriko destolespen eta adiskidetze-egintza helburugabea da. Horrelako ahalegintze atsedengabe, inoiz asegabea da landarearen existentzia, gero eta forma jasoagoetan barrena bultza egite etengabea, amaiera-punturaino, haziraino, berriro hasiera-puntu bihurtzen deneraino: hori amaigaberraino errepikatzen da; inon ez xede bat, inon ez asetze amaikor bat, inon ez atsedeen-puntu bat. Aldi berean, bigarren liburuan esandakoaz oroituko gara, nonahi askotariko natur indarrak eta forma organikoak elkarrekin borrokan aritzen direla beren buruak agertu nahi dituzten materiarengatik, izan ere bakoitza besteari kendutakoaren jabe bakarrik baita, eta horrela bizitza eta heriotzarengatik etengabeko borroka bati eusten diogu, zeinatik sortzen baita nagusiki erresistentzia ere, zeinaren bitartez gauza bakoitzaren esentzia barnekoena eratzen duen ahalegin hura nonahi eragozten baitu, alferrik behartzen baitu, hala ere bere esentziari uko egin gabe bere burua tormentatzen du, harik eta agerpen hori iraungitzen den arte, horrela beste batzuek horren lekua eta horre materia gutiziaz atzematen dutelarik.

Aspaldi berrezagutu dugu gauza bakoitzaren muina eta berbaitangoa eratzen duen ahalegintze hori gauza bat eta bera, gudan, kontzientzia osoenaren argitan argien agertzen delarik, nahimena deitzen zaiona bezala. Oztopo baten bitartezko horren eragozpenari, zeina bera eta bere aldiko xedearen artean ezartzen baita, sofrimendu deitzen diogu; aitzitik, bere xede-lorpenari asekuntza, ongizatea, zoriona. Izendapen hauek berak, nahiz eta graduaren arabera ahulagoak, esentziaren arabera identikoak diren mundu ezagutzagabeko agerpenetara alda ditzakegu. Orduan horiek beti sofrimenduan harrapaturik ikusten ditugu eta zorion iraunkorrik gabe. Zeren

ahalegintze oro gabeziatik sortzen baita, nork bere egoerarekiko duen gogobetetasun ezatik, eta sofrimendu da, asetzen ez den bitartean; baina ez dago asetze iraunkorrik, areago ahalegintze berri baten hasiera-puntua besterik ez da beti. Ahalegintzea nonahi era askotara eragotzirik ikusten dugu, nonahi borrokan; bitartean horrela beti sofrimendu gisa: ez dago ahalegintzearen azken xederik, beraz ez dago sofrimenduaren neurririk eta xederik.

Baina aditasun zorroztuarekin eta ahaleginarekin bakarrik natura ezagutzagabea aurkitzen duguna, argiro agertzen zaigu animalitasunaren bizitza ezagutzailean, zeinaren sofrimendu etengabea erraz frogatzekoa baita. Baina, tarteko maila horretan geratu gabe, ezagutzarik klaruenak argi egiten duen, dena argien agertzen den tokira jo nahi dugu: gizakiaren bizitzara. Zeren nahimenaren agerpena beteginago bihurtzen den bezala, sofrimendua ere gero eta nabariago bihurtzen baita. Landarean ez dago inolako sentsibilitaterik, beraz ezta minik ere: animalia beherenetan, infusorio eta radiarioetan bada sofrimenduaren halako gradu oso murriz bat: intsektuetan beraietan sentitzeko eta sofritzeko gaitasuna oraindik mugatua da: animalia ornodunen nerbio-sistema perfektuarekin agertzen da gradu gorenean, eta beti goragokoan, zenbat eta inteligentzia gehiago garatzen den. Neurri berean horrela, ezagutza argiagotu ahala, kontzientzia ere igo egiten da, tormentua ere hazi egiten da, zeinak ondorioz gizakian lortzen baitu bere gradu gorena, eta hor hainbat gehiago oraindik, zenbat eta argiago ezagutzen duena, zenbat eta inteligenteagoa den gizakia: genioa bere baitan daukanak sofritzen du gehien. Zentzu horretan, ezagutzaren graduarekiko harremanean oro har, ez jakite abstraktu soilarekiko, ulertu dut eta darabilt hemen nik Koheletheke zuhurritz hura: [jakintza gehitzen duenak, sofrimendua ere gehitzen du; Koheleth 1, 18]. - Kontzientziaren eta sofrimenduaren graduaren arteko harreman zehatz hori jadanik adierazi du aurkezpen begiesgarri eta nabari guztiz eder baten bitartez marrazki batean Tischbein pintore filosofiko edo filosofo pintatzaile hark. Bere orriaren goiko erdiak emakumeak aurkezten ditu, zeintzuei haurrak kendu baitzaizkie eta zeinek talde eta posizio desberdinetan ama-min, -beldur eta -etsipen sakona era askotara adierazten baitute: orriaren beheko erdiak, erabat antzeko ordena eta taldekatzean ardiak, zeintzuei bildotsak kendu baitzaizkie: horrela goiko orri-erdiko giza buru bakoitzari, giza posizio bakoitzari behekoan animalia analogo bat dagokio, eta horrela argiro ikusten da nola animaliaaren kontzientzia kamutsean ahalgarri den mina portatzen den tormentu gogorrarekiko, zeina ezagutzaren argitasunaren bidez, kontzientziaren klarutasunaren bidez izan baitzen ahalgarri.

Horregatik nahi dugu kontsideratu giza existentzian nahimenaren zori barneko eta esentziala. Bakoitzak erraz berraurkituko du animaliaaren bizitzan gauza bera, baina ahulago, gradu desberdinetan adierazia, eta nahierara konbentzitu ahal izango gara animalitasun sofritzailean, nola esentzian bizitza oro sofrimendu den.

§ 57

Ezagutzak argitzen duen maila bakoitzean nahimena norbanako gisa agertzen da. Espazio amaigabea eta denbora amaigabea giza banakoak bere burua amaikor gisa aurkitzen du, ondorioz haien aldean handiera nimenoko, hietara jaurtirikoa eta haien mugagabetasunarengatik beti bere existentziaren noiz eta non erlatibo bat dauka, inoiz ez absolutua: zeren bere tokia eta bere iraupena amaigabe eta mugagabe baten atal amaikorrek baitira. - Bere benetako existentzia presentean bakarrik dago, zeinaren iraganerako ihes eragotzigabea heriotzarako etengabeko igarobidea baita, etengabeko

hiltzea baita; zeren bere bizitza iragana, alde batera utzirik presenterako dituen ondorioak baita bere nahimena duen testigantza, zeinean baitago markatua, jadanik erabat bukatu, hilik eta deuseztu baitago: horregatik era razionalean axolagabe izan behar zaio iragan horren edukia tormentuak ala gozamenak izan ziren. Baina presentea etengabe bere eskuetan iragan bihurtzen da: etorkizuna oso ziurrez eta beti labur. Horrela bere existentzia, alde formalek bakarrik kontsideratuta, presentea etengabe iragan hilean amiltze bat, etengabeko hiltze bat da. Alde fisikotik begiratzen badiogu, berriz, agerian dago, ezaguna denez, gure ibiltzea beti erortze eragotzi bat den bezala, gure soinaren bizitza iraunkorki eragotzitako hiltzea besterik ez dela, beti berandaturiko heriotza: azkenik horrela gure espirituaren jardunkortasuna iraunkorki berandaturiko aspertasuna da. Gure arnasketa bakoitzak etengabe hertsatzen ari zaigun heriotzatik babesten gaitu, eta era horretara segundo bakoitzean borroka egiten dugu, eta gero tarteko espazio handiagoetan, otordu bakoitzarekin, loaldi bakoitzarekin, berotze bakoitzaren eta abarrekin. Baina azkenik garaipena izan behar du: zeren jadanik jaiotzaz baikagozkio, eta apur batean jolas egiten baitu bere harrapakinarekin, irentsi aurretik. Bitartean luzarazi egiten dugu geure bizitza interes handia eta ardura askorekin, ahalgarri den heinean, xaboi-burbuila ahal bezain luzaroan eta ahal bezain handi puzten den bezala, nahiz eta kontzientzia ziurra izan lehertu egingo dela.

Jadanik ikusita daukagu natura ezagutzagabeen bere esentzia barnekoa xederik eta atsedetik gabeko etengabeko ahalegintzea dela; horrela animaliaren eta gizakiaren kontsiderazioan hori oraindik argiago agertzen zaigu. Nahi izatea eta ahalegintzea da bere esentzia osoa, egarri iraungiezin batekin osoki konpara daitekeena. Baina nahi izate ororen oinarria behartasuna, gabezia, beraz, mina da, zeinara ondorioz jadanik jatorriz eta bere esentziaren arabera beharturik baitago. Aitzitik, bere nahi izatearen objektua falta zaionean, asetze erraz batek berehala kentzen badi; orduan hustasun eta aspertasun beldurgarrian erortzen da, h. d. bere esentzia eta bere existentzia zama jasanezin bihurtzen zaizkio. Bere bizitza pendulu baten antzera kulunkatzen da minaren eta aspertasunaren artean, izatez biak baititu bere azken osagai. Hori oso bakan eta honen bidez adierazi izan da: gizakiak sofrimendu eta tormentu guztiak infernua ezarri dituelarik, zerurako aspertasunaz aparte ezer gelditu ez izanaz.

Etengabeko ahalegintzea, zeinak nahimenaren agerpen ororen esentzia eratzen baitu, objektibazioaren maila gorenean lortzen du bere eustazpi lehen eta orokorrean, nahimena hor soin bizi gisa elikatzeko agindu burdinazkoarekin agertzean: eta agindu horri indarra ematen diona da soina bizitzeko nahimen objektibatua besterik ez izatea. Gizakia nahimen horren objektibazio perfektuen gisa horren arabera behartsuena ere bada izaki guztien artean: nahi izate eta behar izate konkretua da erabat, mila beharrezkoen konkrezioa da. Horiekin dago lurrean, bere baitan abandonaturik, batez ere ziurtasunik ezan, bere premiazkotasun eta beharrezko izan ezik, horren arabera bere existentziaren kontserbazioarekiko ardurak betetzen dute hain astunak diren, egunero berriro iragartzen diren eskakizunek eskuarki giza bizitza osoa. Horri lotzen zaio bitartegabe bigarren eskakizuna, espeziearen ugalketarena. Aldi berean, alde guztietatik arriskurik desberdinenen mehatxua du, eta horiei ihes egiteko etengabeko ernetasuna behar da. Urrats arduratsuak emanez eta beldurri ingurura begiratu jarraitzen zaio bere bideari: izan ere, milaka ustekabeko eta milaka etsai baitauzka zelatan. Horrela

ibili zen basa-bizitzan eta horrela dabil orain bizitza zibilizatuan; ez dauka inolako segurtasunik.

Qualibus in tenebris vitae quantis periclis

Degitur hoc aevi, quodcumque est!

[Ai, izatearen nolako ilunpetan, zeinen arrisku handitan

igarotzen den bizitza hau, dirauen bitartean!]

Lukrezio [] 2, 15.

Gehienen bizitza beren bizitzarengatiko borroka etengabea da, azkenean galduko duten ziurtasunarekin. Borroka neketsu horretan irauten laguntzen diona ez da hainbeste bizitzari dion maitasuna, baizik heriotzari dion beldurra, zeina saihestezin baitago atzealdean eta edozein unetan ager baitaiteke. - Bizitza bera arrailez eta zurrumbiloz beteriko itsasoa da, zeinak gizakiak arreta eta zuhurtzia handienaz saihesten baitu, nahiz eta ahalegin eta trebetasun guztiarekin gurutzatzea lortuko duela jakin, hala ere urrats bakoitzarekin, ontzi-galtze erabateko, ekidinezin eta salbamengabera hurbiltzen ari dela, are horretara zuzendurik dagoela - heriotzera: hori da bidaia neketsuaren azken xedea eta saihesten dituen arrailak baino okerragoa zaiona.

Eta halaber oso azpimarragarria da, alde batetik, bizitzako sofrimendu eta tormentuak erraz haz daitezkeela halako puntu bateraino, non heriotza bera, zeinatik ihes egitean baitatza bizitza osoa, desiragarri bihurtu eta gogara egiten baita lasterka bertar; eta bestetik, beharrianak eta sofrimenduak gizakiari atsedeen bat ematen dioten bezain laster, aspertasuna berriro laster hurbiltzen dela eta denborapasa derrigor behar izaten dela. Bizidun guztiak lanpetu eta higiduran edukitzen dituen, izatearekiko ahalegina da. Baina existentziarekin, hori segurtatu zaienean, ez dakite zer egin: horregatik bigarrena jartzen da mugimendua, existentziako zama askatzeko ahalegina, hori sentiezin egitekoa, h. d. aspertasunari ihes egitekoa. Horren arabera ikusten dugu premia eta aspertasunetik babesean jarri diren ia gizaki guztiak, azkenik beste zama guztiak gainetik astindu dituztenean, orduan beren buruarentzat zama bihurtzen direla, eta irabazitza jotzen dutela iragandako ordu bakoitza, hots, bizitzaren laburtze oro, zeinari ahalik eta luzeen kontserbatzeko ordu arte indar guztiak eskaini baitizkiote. Aspertasuna ez da gutxitzat eduki behar den gaitza: azkenean egiazko etsipena pintatzen du aurpegian. Elkar hain gutxi maite duten gizakia bezalako izakiek batabestea bilatzea egiten du, eta horregatik soziagarritasunaren iturria da. Horren kontra edonon, beste kalamitate orokorren kontra bezala arreta publikoak hartzen ditu estatu-zuhurtziak; zeren gaitz horrek bere mutur kontrajarriak, goseteak bezala, gizakiak desmasia handienetara bultzatzen baita: 12 [ogia eta zirku-ikuskizunak] behar du herriak. Philadelphiako kartzela-sistema zorrotzak aspertasuna bihurtzen du bakardadea eta jardunezaren bitartez zigor-tresna: eta hain da beldurgarria, non presoak suizidiora eramaten baititu. Beharrianaren herriaren zartailua den bezala, aspertasuna da moduko jendearena. Hiri-bizitzan igandeak errepresentatzen du beharrianaren asteko sei egunek bezala.

Nahi izatearen eta lortzearen artean jariatzen da giza bizitza oro. Desira bere izaeraren arabera mina da: lortzeak berehala sortzen du asedura: xedea itxurazkoa bakarrik izan da: jabetzak erakarmena kentzen dio: taxu berri baten azpian desira, beharrianaren ezartzen da berriro: eta hori gertatzen ez den tokian, bakardadea, hustasuna, aspertasuna datoz, zeinen aurkako borroka beharrianaren aurkakoa bezain tormentatzailea baita. - Desira eta asekuntza tartegune laburregi eta luzeegirik gabe jarraitzeko, biek sortzen duten mina neurririk txikienera murrizten da, eta

orduan gertatzen da bizitzarik zoriontsuena. Zeren atalik ederrena, bizitzako pozik garbiena dei litekeena, hain zuzen ere bizitza errealetik aldendu eta horien behatzaile interesgabe bihurtzen gaituelako, horrela ezagutze hutsa, zeinari nahi izate oro arrotz baitzaio, ederraren gozamina, artearekiko benetako poza da: hori disposizio bakanak eskatzen dituen ez gero, oso gutxiri eta horiei ere amets iragankor bat bezala bakarrik dagokiena da: eta gutxi horiek ere indar intelektual handiagoek sofrimendu handiagoetarako prestatzen dituzte arrunten senti ditzaketenen aldean, eta horiek guztiz bakarti ezartzen ditu nabarmen berekiko nabarmenki desberdinak direnen artean: eta horrela hori ere konpentsatu egiten da. Nola gizakien parterik handienarentzat eskuraezinak diren gozamen intelektual hutsak; ezagutze hutsean datzan poza ia ezinezkoa zaie: nahi izatera osoki emanak daude. Horregatik baldin eta zerbait interesatzen bazaie, orduan (hori jadanik hitzaren esanahian bertan dago) nolabait bere nahimena kitzikatu behar du, nahiz eta harreman urruneko eta haren bitartez bakarrik ahalgarri den batez baizik ez izan; baina ezin dio jokoan egoteari utzi, zeren bere existentzia askozaz gehiago baitago nahi izatean ezagutzean baino: akzioa eta erreakzioa da bere elementu bakarra. Osaera horren kanporatze xaloak huskerietatik eta eguneroko agerpenetatik atera daitezke: horrela, adibidez, bisitatzen dituzten toki ikusgarrietan idazten dute beren izena, horrela erreakzionatuz, tokiaren baitan eragina izateko, berak ez baitu haiengan eragiten: gainera, ezin dute animalia arrotz, bakan bat soil behatu, baizik kitzikatu, zirikatu, berarekin jolas egin behar dute, akzioa eta erreakzioa bakarrik sentitzeko; oso bereziki nahimena kitzikatzearen premia hori karta-jokoaren asmakuntzan eta kontserbazioan azaltzen da, zeina gizadiaren alde deitoragarri horren adierazpen benetakoena baita.

Baina zernahi egin duelarik ere naturak, edo zoriak, nornahi izan edo zernahiren jabe izan ere; ezin izango zaio bizitzaren min esentzialari ihes egin:

(GRIEGO)

(Pelides autem eiulavit intuitus in coelum latum.)

[Peleoren semeak deitore egin zuen, begirada zerurantz jasoz.

Homero, 21, 272]

Eta hau ere bai:

(GRIEGO)

(Iovis quidem filius eram Saturnii; verum aerumnam

Habebam infinitam.)

[Zeus kronidaren semea nintzen, eta hala ere esan ezinezko atsekabeak pairatu nituen.

Homero, 11, 620]

Sofrimendua baztertzeke ahalegin etengabeek bere taxua aldatzea besterik ez dute lortzen: hori da bizitza kontserbatzeko gabezia, beharrian, ardura jatorrizkoa. Taxu horretan sofrimenduari albora eragitea, oso zaila den hori lortzen bada, orduan berehala beste mila eratan agertzen da adinaren eta zirkunstantzien arabera aldatuz - sexu-instintu, grinazko amodio, jeloskortasun, inbidia, gorroto, beldur, ohorenahi, dirunahi, gaixotasun eta abar eta abar bezala. Eta azkenik beste taxu batean sarrerarik aurkitu ezin duenean, orduan gogaita eta aspertasunaren jantzidura triste, grisean etortzen da, zeinen aurka hainbeste gauza entseatu baitira. Eta azkenik lortzen bada ere, horiek aldentzean, nekez gertatuko da aurreko taxuetakoren baten mina ez itzultzea eta horrela berriro aurreko dantza ez hastea;

zeren mina eta aspertasunaren artean alde batera eta bestera jaurtikirik baitago giza bizitza. Nahiz eta abailgarria izan kontsiderazio hori, hala ere horren alde bat oharrarazi nahi dut hartatik kontsolamendua, are agian existitzen den gaitz propioaren aurkako axolagabetasun estoikoa ere, lor baitaiteke. Zeren horrekiko gure pazientzia eza neurri handi batean baitator horiek kontingente, kausa-katea batez ekarriak bezala kontsideratzetik, zeinak erraz izan baitzitezkeen beste era batera. Zeren gaitz bitartegabe beharrezko eta guztiz orokorraz, adibidez, zahartzea eta heriotzaren beharrezkotasunaz eta eguneroko deserosotasun ugariez ez baikara kezkatu ohi. Areago da zirkunstantzien kontingentziaren kontsiderazioa, hain zuzen ere sofrimendu bat ekarri digutenena, horri eztena ezartzen diona. Baina berrezagutu badugu mina horrelakoa den heinean esentzial eta saihestezina zaiola bizitzari, eta bere taxu soila, forma, zeinaren azpian aurkezten baita, kontingentziaren mendean dagoena, horrela gure presenteko sofrimenduan gune bat betetzen duena, zeinean bera gabe berehala beste bat agertuko bailitzateke, orain hartatik baztertua, beraz esentzian zoriak gutxi kenduko bailiguke; horrelako gogoeta bat, konbikzio bizi bihurtuko balitz, axolagabetasun estoikozko gradu esanguratsu bat ekarri eta ongi propioarengatik beldurrezko ardura asko gutxitu ahal izango luke. Izatez arrazoimenak sofrimendu bitartegabe sentituarekiko hainbesteko nagusitasun indartsua izatea oso gutxitan edo inoiz ezin izaten da aurkitu.

Gainerakoan, minaren ekidinezintasunari eta min batzuk beste batzuek ordeztu eta aurrekoak errepikatzearen bidez gaitz berriak sortzeari buruzko kontsiderazio hau, norbanako bakoitzarengan esentzial zaion minaren neurria bere naturak behin betiko determinatu dion hipotesi paradoxazko baina ez bidegabearaino eramán daiteke; eta neurri hori ez hutsik geratu ez gainezka baitaiteke, nahiz eta sofrimenduaren forma askotan aldatu. Bere sofrimendua eta ongizatea horren arabera ez lirateke kanpotik, baizik neurri horrek, disposizio horrek determinatuak izango lirateke, zeina ongi-sentitze fisiko hori zinez garai desberdinetan gehitu eta gutxitu egin baitaiteke, baina osotasunean beti bera iraungo luke eta bere tenperamendua deitzea besterik ez litzateke izango edo zehatzago: gradua, zeinean berak, Platonek ren lehen liburuan adierazten duenez (GRIEGO) edo (GRIEGO), h. d. zentzu arin edo astuna. - Hipotesi horren alde ez dago soilik sofrimendu handiek txikiago guztiak sentigaitz egiten dituztelako esperientzia ezaguna bakarrik, eta alderantziz, sofrimendu handien absentsian gogaikarritasun txikieneke ere tormentatu eta sumintzen gaituztelakoarena; baizik esperientziak irakasten du, halaber, zorigaitz handi bat, zeina pentsatze hutsak ikaratzen baikintuen, errealki agertu denean, hala ere gure aldarteak, lehen mina gaingitu den bezain laster, osotasunean aski aldagabe dirauela; eta alderantziz ere bai, luzaroan desiraturiko zorion bat agertzen denean, osotasunean eta iraunkorki ez garela lehen baino nabarmen hobeki eta atseginago sentitzen. Aldaketa horiek agertzearen aldiuneak bakarrik higitzen gaitu ezohiko indarrez deitore sakon edo pozkario ozenarekin; baina biak laster desagertzen dira, zeren biak engainuan baitzeuden oinarrituak. Zeren ez baitira gozamen edo min bitartegabe presente baten gainean sortu, baizik etorkizun berri baten irekierarenean, zeina horretan aitzinatzen baita. Horregatik bakarrik, mina eta poza etorkizunari mailegatzen zaizkiolako, jaso daitezke hain maila anormalera, ondorioz ez iraupenarengatik. - Ezarritako hipotesiaren alde, zeinaren ondorioz, ezagutzean bezala, horrela sofrimenduaren edo ongizatearen sentimenduan ere atal handi bat subjektiboki eta a priori determinaturik bailegoke, honako ohar hauek adibidetzat ekar daitezke: giza poza edo tristura ez direla nabarmenki kanpoko zirkunstantzien, aberastasunaren edo posizioaren bidez determinatuak, gutxienez behartsuen artean aberatsen artean adina aurpegi alai aurkitzen baititugu: gainera, suizidiorako

motiboak oso desberdinak dira; zeren ezingo baikenuke hain zorigaitz handirik aurkitu egiantzekotasun askorekin karakter guztietan suizidiora eramango lukeenik, eta gutxi, hain txikiak liratekeenak, era berean jadanik suizidioa eragin ez dutenak. Beraz, alaitasun eta tristuraren gradua beti garai guztietan bera ez delarik; orduan ez diogu hori kanpoko zirkunstantzien aldaketari egotzi behar, baizik barruko egoera, disposizio fisikoarenari. Zeren gure alaitasunaren igoera erreal, nahiz eta beti denborazko bat poztasun izaterainokoa bada; horrela kanpoko eragingarririk batere gabe gertatu ohi da. Egia da sarritan ikusten dugula gure mina kanpoko harreman determinatu batetik sortzen, eta horrek nabariki estutu eta nahigabetzen gaitu: orduan uste izaten dugu, hori kenduz gero, kontentamendurik handienak agertu beharko lukeela. Baina hori engainua besterik ez da. Gure minaren eta ongizatearen neurria osotasunean gure hipotesiaren arabera denbora-gune bakoitzerako subjektiboki determinaturik dago, eta horrekiko harremanean kanpoko motibo hura atsekabearekiko bakarrik da, soinarentzat besikatorio bat dena, zeinara gainerakoan barreiatutako zuku txar guztiak biltzen baitira. Baldin eta gure izakian denbora-epe horretarako oinarritutako eta horregatik bazterrezina den mina sofrimenduaren kanpoko kausa determinatu hura gabe ehun puntutan banaturik balego, eta ehun gogaikarritasun txiki edo gauzen gaineko apeta bitxiren taxupean agertuko balitz, zeinak orain ez baititugu inola ere aintzakotzat hartzen, minerako gure kapazitatea gaitz nagusi hark jadanik beterik daukalako, zeinek gainerakoan berriaturiko sofrimenduak puntu bakar batean kontzentratu baititu. Horri dagokio, halaber, behaketa hau ere: baldin eta harrapaturik gauzkan kezka bat azkenean irtenbide zorioneko batengatik bularretik kentzen badigute, haren lekuan berehalaxe agertzen da beste bat, zeinaren gai osoa jadanik han baitzegoen alde aurretik, nahiz eta kezka gisara kontzientzian agertu ezin zen, zeren ez baitzuen horretarako kapazitaterik, eta horregatik kezka-gai hori laino-taxu okarkabe ilun baten gisara bakarrik baitzegoen kontzientziaren horizontearen azken muturrean. Orain ordea, lekua egin delarik, berehala agertzen da gai prest gisara eta eguneko nahigabe nagusi (GRIEGO) gisa hartzen du tronua: eta nahiz eta materiaren arabera askozaz arinagoa izan desagertu den nahigabe haren gaia baino; badaki berak bere burua puzten itxurazko handieran parean jarri arte, eta horrela eguneko nahigabe nagusi gisara tronua erabat betetzen du.

Poz neurgabea eta min oso bizia beti pertsona berarengan aurkitzen dira beti: zeren biek elkar baldintzatzen baitute, eta espirituaren bizikortasun handi batek komunki baldintzatuak ere bai baitaude. Jadanik ikusi dugunez, biak datoz ez presente hutsetik, baizik etorkizunaren aitzinapenaren bitartez. Baina mina esentziala da bizitzarako eta bere graduaren arabera subjektuaren naturaren bitartez determinaturik dago, horregatik supituko aldaketek, beti kanpokoak direlako, ezin dute benetan haren gradua aldatu; horrela pozkario edo min neurgabeak beti daukate barrenean errore edo lilura bat: ondorioz, gogamenaren bi gaintentsio horiek saihestu egin behar dira ulerkuntzaren bitartez. Pozkario neurgabe oro (exultatio, insolens laetitia) beti liluratik dator, bizitzan bertan aurki ezin litekeen zerbait aurkitu dugulakotik, hots, beti jaiotzen diren eta tormentatzen gaituzten desira edo arduren asekontza iraunkorretik. Mota horretako lilura partikular bakoitzetik atera egin behar gaituzte ezinbestean, eta gero bera desagertzen denean, agertzean sortu zuen pozaren pareko min mingotsekin ordaindu behar da. Badu altuera baten antza, zeinatik erorkeraz bakarrik jaits baitaiteke; horregatik saihestu egin beharko litzateke: eta min supituko, neurgabe bakoitza altuera horretatik erortze bat da, lilura hori desagertzea, eta horregatik berak baldintzatzen du. Ondorioz biak saihestu ahal izango lirateke, baldin eta gai izango bagina gauzak beti osotasunean

eta beren loturan begiratzeko, eta etengabe begiratuko bagenu geure burua gauzei izatea nahiko genukeen koloreak haiei errealki ematetik. Etika estoikoa gogamena lilura horietatik guztietatik jaregin eta berari horren ordeztu gogoberdintasun kordokaezina emateko nagusiki sortu zen. Ideia horrek beterik dauka Horazio oda ezagun honetan:

Aequam memento rebus arduis

Servare mentem, non secus in bonis

Ab insolenti temperatam

Laetitia.

[Gogora zaitez gogamena garai txarretan beti ere

berean gordetzeaz, onetan zuzurra den bihotzak gehiegizko

poza menderatzen duen bezala.

2, 3]

Baina gehienetan uko egiten diogu sendagai mingotsaren parekoa den ezagutzari, hau da, sofrimendua bizitzari esentziala zaiola eta horregatik ez dela kanpotik guran jarioa sartzen, baizik bakoitzak horren iturri agortezina bere barruan daramala. Nahiago izaten dugu gugandik inoiz aldentzen ez den minari beti kanpoko kausa bakar bat bilatzea, nolabaiteko aitzakia bat; askeak sasi-jainko bat sortzen duen bezala, jaun bat edukitzeko: Zeren nekagaitz ahalegintzen baikara desiratik desirara eta lortutako asekuntza bakoitzak, nahiz eta asko agindu, asetzen ez gaituen bezala, baizik eta errore lotsagarri gisara hor dagoen bezala, oraindik ez dugu ikusten Danaiden upelarekin ura ateratzen ari garela; baizik beti desira berrietara jotzen dugu lasterka:

Sed, dum abest quod avemus, id exsuperare videtur

Caetera; post aliud, cum contigit illud, avemus;

Et sitis aequa tenet vitai semper hiantes.

[Desiratzen duguna urrun dagoen bitartean, badirudi dena gainditzen duela balioz; lortzen dugunean beste bat desiratzen dugu, eta horrela egarri berak dukitzen gaitu beti bizitzaz irrikatzen.]

(Lukrezio [13, 1080-1083])

Eta horrela gertatzen da beti amaigaberraino edo, bakanagoa dena eta karakterraren halako indar bat suposatzen duena, harik eta desira batekin, bete ezin dena eta hala ere abandonatu ezin denarekin topo egiten dugun arte: orduan daukagu nolabait bila gabiltzana, hots, une bakoitzean gure esentzia propioaren ordeztu gure sofrimenduaren iturritzat deitoraz genezakeena, eta horren bitartez banaturik aurkitzen gara geure zoriarekiko, baina horrenbestez adiskidetu egiten gara geure existentziarekin, existentzia horri sofrimendua esentzial eta egiazko asekuntza ezinezkoa delako ezagutza berriro urruntzen den

bitartean. Garapen-mota horren ondorioa aldarte melankoliko samarra da, etengabe min bakar handi bat eramatearena eta hortik sortzen diren sofrimendu eta poz txiki guztien gutxiespena; ondorioz jadanik agerpen duinagoa beste engainuzko taxuen atzetik, arruntagoa denez, beti lasterka ibiltzea baino.

§ 58

Asetze oro, edo arrunki zoriona deitzen den hori, propioki eta esentziaz beti negatiboa bakarrik da eta inoiz ez positiboa. Ez da jatorriz eta berez guregana datorren zoriontze bat, baizik desira baten asetzea izan behar du beti. Zeren desira, h. d. gabezia, baita gozamen ororen alde aurretiko baldintza. Asetzearekin eten egiten da desira eta ondorioz gozamena. Horregatik asetzea edo zoriontzea inoiz ezin da izan min batetik, beharizan batetik askatzea baizik: zeren horri ez baitagokio bakarrik sofrimendu erreal nabari bakoitza, baizik desira bakoitza ere bai, zeinaren inportunitateak gure atsedena nahasten baitu, are aspertasun hiltzailea, existentzia zama bihurtzen diguna. - Baina oso zaila da zerbait lortu eta burutzea: egitasmo bakoitzari amaigabeko zailtasun eta nekeak jartzen zaizkio aurrean, eta urrats bakoitzean eragozpenak metatzen dira. Baina dena gainditu eta lortzen denean, ez da inoiz ezer irabazi, sofrimendu edo desiraren batetik jaregitea baizik, ondorioz hori agertu aurretik geunden bezala aurkitzen gara. - Beti bitartegabe ematen zaigu gabezia, h. d. mina. Baina asetzea eta gozamena bitartez bakarrik berrezagut daitezke, aurreko sofrimendu eta gabetzeen oroitzapenaren bitartez, zeinak hori agertzean eten baitziren. Horregatik dator errealki dauzkagun ondasunez eta abantailez ez ongi konturatzea eta horiek ez prezatzea, baizik horrela izan behar duela besterik ez uste izatea: zeren horiek beti negatiboki zoriontzen baitute, sofrimendua aldentuz. Galdu ditugunean bakarrik sentitzen dugu horien balioa: zeren falta, gabezia, sofrimendua positiboa baita, bitartegabe eskaintzen zaiguna. Horregatik pozten gaitu gainditutako beharizan, gaixotasun, gabezia eta antzekoen oroitzapenak, zeren hori presenteko ondasunak gozatzeko bitarteko bakarra baita. Halaber ez dago ukatzerik, ikuspegi horretatik eta egoismoaren ikuspuntutik, zeina bizi-nahi izatearen forma baita, inoren sofrimenduak begiasteak edo deskribatzeak bide horretatik asetzea eta gozamena ematen digutela, Lukreziok ederki eta deblauki adierazten duenez bigarren liburuaren hasieran:

Suave mari magno turbantibus aequora ventis

E terra magnum alterius spectare laborem:

Non quia vexari quemquam est iucunda voluptas;

Sed quibus ipse malis careas, qui cernere suave est.

[Poza ematen du itsasoan, haize ekaiztsuek hura zigortzean,

Hegian egoteak eta marinela larri nola dabilen ikusteak:

Ez atseгина sortzen duelako inoren tormentua ikusteak,

Baizik poza ematen dizulako, zeure burua gaitzetik aske dagoela jakiteak.

2, 1]

Hala ere, ondoren erakutsiko da, poz-mota hori, bere ongizatearen ezagutza bitartedunaren bidez, benetako gaiztakeria positiboaren iturritik oso hurbil dagoela.

Zorion oro izaera negatibokoa bakarrik dela, ez positibokoa, eta ondorioz asetze eta zoriontze iraunkorrik ezin litekeela izan, baizik beti min edo gabezia batetik askatzen duela, zeinari min berri bat edo languorra, joran hutsa eta aspertasuna jarraitu behar zaizkiola; horrek baieztapena aurkitzen du munduaren eta

bizitzaren esentziaren ispilu fidel hartan ere, artean, batez ere poesian. Poema epiko edo dramatiko orok zorionarengatiko gudukatze, ahalegintze eta borrokatzea bakarrik aurkez dezake, inoiz ez zorion iraunkor eta betegina bera. Bere heroia mila zailtasun eta arriskutan zehar gidatzen du xederaino: lortu duen bezain laster, berehalaxe erortzen da oihala. Zeren orain gauza bakarra geldituko bailitzateke erakusteko, xede distiratsuak, zeinetan heroiak zoriona aurkitzea espero baitzen, iruzur egin diola eta hori lortu ondoren ez zegoela alde aurretik baino hobeki. Zeren benetako zorion iraunkorra ahalgarri ez denez gero, ezin liteke artearen objektu izan. Zinez idilioaren helburua horren deskribapena dela propioki: bakarrik ikusten da idilioak bere horretan ezin diola bere buruari eutsi. Poetaren eskuetan beti epiko bihurtuko da eta orduan oso esanguragabeko epos bat izango da, sofrimendu txiki, poz txiki eta ahalegin txikiez osatua: hori da kasurik sarriena; edo bestela poesia deskribatzaile soil bihurtzen da, naturako edertasuna deskribatzen du, h. d. nahimengabeko ezagutza hutsa propioki, zeina izatez zorion huts bakarra baita noski, zeinaren aurretik ez baitoa sofrimendurik eta premiarik, ezta damu, sofrimendu, hustasun, gogaitasunik derrigor ondoren ere: bakarrik zorion horrek ezin du bizitza osoa bete, baizik aldiunea soilik. - Guk poesian ikusten duguna musikan aurkitzen dugu berriz, zeinaren melodian berrezagutu baitugu nahimen kontzientearen beraren orokorki adierazitako historia barnekoena, bizitza, joran, sofrimendu eta poz sekretuena, giza bihotzaren gorabeherak. Melodia beti oinarri-tonutik aldentze bat da mila bide errebelatu miresgarritan barrena disonantzia mingarrieneraino, non azkenean oinarri-tonua berraurkitzen baitu, nahimenaren asetzea eta lasaitzea adierazten duena, zeinarekin gero beste ezer ezin baita egin, eta zeinari luzaroago eutsiko balitzaio, monotonia astun eta zentzugabea sortuko bailitzateke, aspertasunari dagokiona.

Kontsiderazio hauek argitu nahi duten guztiak, asetze iraunkorraren lortuezintasunak eta zorion ororen negatibitateak, bigarren liburuaren itxieran erakutsi den horretan du bere azalpena: nahimena, zeinaren objektibazioa giza bizitza agerpen oro bezala baita, xederik gabeko eta amairik gabeko ahalegintze bat dela. Amaigabetasun horren zigilua bere agerpen osoaren atal guztietan aurkitzen dugu markaturik, horren formarik orokorrenetatik, amaiera gabeko denbora eta espaziotik agerpen guztietan osotueneraino, gizakiaren bizitza eta heriotzaraino. - Giza bizitzaren hiru mutur onar ditzakegu teorikoki eta giza bizitza errearen elementutzat kontsideratu. Lehenik nahi izate indartsua, grina handiak (Raja-Guna). Karakter historiko handietan agertzen da; epos eta dramen deskribaturik dago: baina esfera txikietan ere erakuts daiteke, zeren objektuaren handiera nahimena higitzen den graduaren arabera bakarrik neurtzen baita, ez horren kanpoko harremanen arabera. Gero, ezagutza hutsa, ideiak kontzebitzea ezagutzaren askapenaren bitartez nahimenaren zerbitzutik baldintzatua: genioaren bizitza (Satva-Guna). Azkenik, hirugarren, nahimenaren letargia handiena eta horrekin berari loturiko ezagutza, joran hutsa, aspertasun bizi-zurruntzailea (Tama-Guna). Norbanakoa- ren bizitza oso urrundurik dago mutur horietako batean geldituzetik, nekez ukitzen horietakoren bat, eta gehienetan horietara ahulki eta zabuka alde horietako batera edo bestera hurbiltzea baizik ez du egiten, objektu txikien nahi izate premiatsua da, beti itzuliz eta horrela aspertasunari ihes eginez. - Errealki sinestezina da zeinen kaxkar eta esanguragabea den, kanpotik ikusita, eta zeinen kamuts eta zentzugabea, barrutik sentituta, gizakirik gehienei darian bizitza. Irrikatze eta tormentatze sorra, ametsetako ibilera baldarra bizitzako lau aroetan barrena heriotza arte, pentsamendu hutsalezko sail baten laguntzapean. Korda eman eta zergatik jakin gabe

ibiltzen diren erlojuak dirudite; eta gizaki bat sortu eta jaiotzen denean, giza bizitzaren erlojuari berriro korda ematen zaio, orain ere ezin zenbatu ahal alditan jadanik jotako sonata-doinua berriro errepikatzeko, esaldiz esaldi eta konpasez konpas, esanguragabeko bariazioekin. - Norbanako bakoitza, giza aurpegi bakoitza, eta zeinaren bizi-joaira natur espiritu amaigabearen bizitzeko nahimen iraunkorraren amets labur bat gehiago baita, koadro iragankor bat besterik ez da bere orri amaigabea den espazioa eta denboran jolastuz marrazten duena, eta tartetxo iragankor horren kontra iraunarazten duena, gero leku berria egiteko ezabatuz. Hala ere, eta honetan dago bizitzaren alde gogoetagarria, bakoitzak koadro iragankor hori, burutapen zozo horietako bakoitza bizitzeko nahimen osoak bere bizikortasun guztian, min ugari eta gogorrekin eta azkenik luzaroan beldurra izan zaion eta halako batean agertzen den heriotza mingotsarekin ordaindu behar da. Horregatik jartzen gaitu supituki serio gorpu bat ikustek.

Norbanako bakoitzaren bizitza, bere osotasunean eta orokorrean begiratzen bazaio eta zertzelada esangurazkoenak bakarrik azpimarratzen badira, egiazki beti ikuskizun tragiko bat da; baina partikularrean aztertuz gero komedia baten izaera du. Zeren eguneko neke eta kalamidadeak, aldiuneko txantxa taigabeak, asteko desira eta beldurak, ordu bakoitzeko ezbeharrak bihurrikeriarako pentsaturiko ezustekoekin, beti komediako eszena hutsak dira. Baina inoiz bete gabeko desirak, ahalegintze hutsalduak, zoriak gupidagabe zapalduriko esperantzak, bizitza osoko errore dohakabeak, gero eta sofrimendu handiagoa eta heriotzarekin bukaeran, beti ikuskizun tragiko bat ematen dute. Horretara, zoriak gure existentziaren nahigabeari iseka gehitu nahi izan balio bezala, gure bizitzak bere baitan dauzka ikuskizun tragikoaren dolore guztiak, eta hala ere ezin dugu pertsona tragikoen duintasuna baieztatu, baizik bizitzaren detalle zabalean komediako pertsonaia ergel izan gaitezke ezinbestez.

Nahiz eta kalamidade handi eta txikiek giza bizitza oro bete eta etengabeko egonezin eta mugimenduan eduki, hala ere ez dira gai izango espiritua betetzeko bizitzak duen ezintasuna, existentziaren hustasuna eta zozotasuna estali edo aspertasuna baztertzeko, zeina prest baitago beti ardurak uzten duen pausaldi bakoitza betetzeko. Hortik sortu da gizakiaren spirituak, mundu erreala ezartzen dizkion ardura, nahigabe eta arazoekin pozik ez dagoelarik, milaka superstizio desberdinen taxupean oraindik mundu imaginario bat sortzea, horrekin gero era guztietako zereginak izaten ditu eta denbora eta indarra horretan xahutzen ditu, erreala bakea eman nahi dion orduko, zeren horrekiko ez baita batere abegikor. Horregatik, horixe da jatorriz ia gehienetan herriei gertatzen zaiena, zeintzuei klimaren eta lurraren biguntasunak bizitza errazten baitzien, batez ere hinduen artean, gero greko, erromatar eta gero italiar, espainiar eta abarren artean. - Demonio, jainko eta santuak sortzen ditu gizakiak bere irudi propioaren arabera; gero horiei etengabe opariak, otoitzak, tenplu-apaindurak, botoak eta horien askapenak, erromesaldiak, diosalak, irudien hornidurak eta abar eskaini behar zitzaizkien. Horien kultua errealitatearekin nahasten da edonon, hori iluntzeraino. Bizitzako jazoera oro izaki horien kontraeragintzat hartzen dira: horiekiko tratuak bizitzaren erdia betetzen du, etengabe esperantzari eusten dio liluraren erakarmenez sarritan izaki errealekikoak baino interesgarriago bihurtzen dira. Gizakiaren premiazkotasun bikoitzaren adierazpen eta sintoma da, bai laguntza eta babesarena, eta bai lanpetze eta denborapasarena: eta lehen beharrianari dagokionez sarritan kontra aritzen bada ere, zeren gertatzen diren ezbeharrak eta arriskuak, haiek ekiditen erabili ordez denbora eta indar baliotsuak otoitz eta oparietan alferrik

xahutzen baitira; horrela bigarren beharrianari askozaz hobeki zerbitzatzen dio amesturiko espirituen munduarekiko trataera fantastiko haren bidez: eta hori inola ere erdeinatu behar ez den superstizioen onura da.

§ 59

Kontsiderazio orokorrenen bitartez, giza bizitzaren lehen oinarri-ezaugarri elementalen azterketaren bitartez a priori egin litekeen neurrian, geure burua konbentzitu dugu hori bere disposizioz ez dela gai egiazko dohatsutasuna emateko, baizik esentzian taxu askotako sofrimendua eta egoera erabat dohakabea dela; horrela konbentzimendu horrek orain askozaz bizikiago piztaraz dezake gudan, baldin eta, gehiago a posteriori ibiliz, kasu determinatuetan sartzen bagara, koadroak fantasiaren aurrera ekarri eta adibidetan atsekabe izengabea deskribatu nahiko bagenu, esperientzia eta historia eskainiko bagenitu, zeinetara begiratu eta edozein asmorekin ikertu nahi dela ere. Baina hori amairik gabeko kapitulua izango litzateke eta filosofiari esentzial zaion orokortasunaren ikuspuntutik urrundu egingo gintuzke. Gainera, aise har liteke horrelako deskribapen bat giza miseriari buruzko deklamazio soiltzat, jadanik sarritan gertatu denez, eta horrelakoa den heinean alderditarkeriaren errua leporatuko litzaioke, errealtate partikularretatik abiatu delako. Horregatik horrelako ahakar eta arbuiotik libre dago bizitzaren esentzian ezinbestez oinarrituriko sofrimenduaren gure frogapen guztiz hotz eta filosofikoa, orokorretik abiatu eta a priori burutua. Horren a posteriori berrespena erraz lortzen da nonahi. Bere lehen gaztaro-ametsetik itzartu den, norbere eta inoren esperientziak kontsideratzen dituen edonork, bizitzan, iraganaren historian eta garai propioan, poeta handien obretan arakatu duenak, baldin eta aurriritzi ezabaezinki markaturiko batek juzgarena trabatzen ez badio, ongi berrezagutuko du emaitza hau: mundu hau ausa eta errearen erresuma dela, gupidagabeki bertan agintzen dutela, handian eta txikian, eta horien ondoan erokeriak eta gaiztakeriak zartailua astintzen dutela: horregatik gertatzen da hobe den orok nekez bakarrik aurrera egitea, noblea eta zuhurra dena oso bakan agertzera iristea eta horrek eraginkortasuna edo entzutea aurkitzea, baina absurdua eta aldrebesa pentsamenduaren erresuman, kamutsa eta gustugabea artearen erresuman, gaiztoa eta maltzurra egitateen erresuman, etendura laburrez bakarrik nahastua, horiek berresten dute beren nagusitasuna; aitzitik, arte bakoitzean bikaina beti salbuespena da, bakarra milioi bat kasuren artean, eta horregatik obra iraunkor bat sortzen bada, hori, bere garaikideen herratik bizirik irten ondoren, bakarturik gelditzen da, meteorito baten antzera kontserbatzen da hemen agintzen duenaz bestelako gauzen beste ordena batetik sortua bezala. - Baina banakoaren bizitzari dagokionez, bizitza-historia oro sofrimendu-historia da: zeren bizi-joaira oro eskuarki ezbehar handi eta txikien sail jarraitu bat da, zeina egiaz bakoitzak ahal duen guztia ezkutatzen baitu, bai baitaki besteek nekez sentitu behar dutela interesa edo errukia, aldiz ia beti gogobetetasuna kalamidadeak azaltzearen bidez, zeinetatik horiek orduan libre baitaude - baina agian inoiz ez luke ezein gizakik nahi izango bere bizitzaren amaieran, senaren jabe eta egiati bada, bizitza berriz hastea, baizik horren ordeaz askozaz gogarago hautatuko luke erabat ez izatea. en monologo ospetsuaren eduki esentziala da, laburtuz gero, honako hau: gure egoera hain da errukarria, non erabateko ez-izatea deliberatuki nahigarriagoa izango bailitzateke. Baldin eta suizidioak hori errealki eskainiko baligu, alternatiba hitzaren zentzu betean proposatzeko eran; orduan baldintzagabe hautatu beharko luke burutzapen guztiz

desiragarritzat (). Bakarrik gudan dago zerbait esaten diguna hori ez dela horrela; horrenbestez ez dela bukatzen, heriotza ez dela deuseztapen absolutua. - Antzekoa da historiaren aitak aipatzen duena¹³, eta harrezkero ez dena ezeztatu, ez dela gizakirik izan, behin baino gehiagotan desiratu izan ez duenik, biharamunean bizirik ez egotea. Horregatik hain sarritan deitoraturiko bizitzaren laburtasuna da berak duen hoberena. - Baldin eta bakoitzari bizitzak dauzkan min eta tormentu lazkarriak azkenik begien aurrean jarriko balizkio, izuak harrapatuko luke: eta baikorrik porrokatuena erietxe, lazareto eta martirio-ganbera kirurgikoetatik, kartzela, tortura-ganbera eta esklabo-barraketatik, borroka-zelai eta urkalekuetan barrena gidatuko balute, gero miseriaren aterpe ilun guztiak, non jakinmin hotzaren begiradatik ezkutatzen baita, irekiko balitzaizkio eta bukatzeko Ugolinoren gosedorreari begiraraziko balitzaio; orduan seguraski berak ere ulertuko luke zer motakoa den 14 hau. Nondik, bada, bestalde hartu du Dantek bere infernurako gaia gure mundu erreal honetatik izan ezik? Eta hala ere oso infernu ganorazkoa egin du. Aitzitik, zerua eta bertako pozak deskribatzeko egitekoari lotu zitzaionean, orduan zailtasun gaundiezina izan zuen bere aurrean; zeren gure munduak horrelako zerbaiterako ez baitzion materialik eskaintzen. Horregatik beste erremediorik ez zuen izan paradisuako pozen ordeztatu bere aurrekoengandik, bere Beatrizengandik eta santu desberdinengandik jasotako irakaspena guri berriz ematea baizik. Hortik aski argiturik gelditzen da zer motakoa den mundu hau. Noski, giza bizitzan, edozein erosgai txarretan bezala, kanpoaldea distira faltsuz estalirik dago: beti ezkutatatu egiten da sofritzen dena; aitzitik, bakoitzak apaingura eta distiran erakuts dezakeena begien aurrean jartzen du, eta barneko gogobetetasunetik urrunago dagoen, hainbat gehiago desiratzen du, besteen iritzian dohatsu bezala egotea: hain urruneraino joaten baita erokeria, eta inoren iritzia bakoitzaren ahalegintzearen helburu nagusia da, nahiz eta horien ezereztasun osoa jadanik ia hizkuntza guztietan banitateak, vanitas-ek, jatorriz hustasuna eta ezereztasunaren esanahiaz adierazten den. - Baina sasi-itxura horren guztiaren azpian bizitzako tormentuak oso ongi haz litezke, eta egunero gertatzen da bestelakoan beste gauza guztiei baino beldur handiagoa zaion heriotzari heltzen zaiola. Are zoriak bere makurkeria guztiak atera nahi baditu, horrela ihespide hori ere debekatu egiten die sofritzen ari direnei eta etsai amorratuen eskuetan martirio krudel luze batean salbamenerik gabe murgilduak egoten dira. Alferrik erregutzen die orduan tormentatuak bere jainkoei laguntza: erruki gabe bere zoriari abandonaturik gelditzen da. Baina salbamengabezia hori bere nahimenaren menderaezintasunaren ispilua besterik ez da, zeinaren objektitatea bere pertsona baita. - Kanpoko ahalmen batek nahimen hori aldatu edo ezabatu ezin duen bezala, kanpoko ezein ahalmenek ere ezin du tormentuetatik jaregin, zeinak bizitzak sortzen baititu, zeina nahimen horren agerpena baita. Gizakia beti bere baitan utzirik dago, bai gauza bakoitzean, eta bai garrantzizkoena den horretan ere. Alferrik egiten ditu jainkoak, bere nahimen-indar propioak bakarrik ekar diezaiokeena haiengandik eskean egin eta ateratzeko. Baldin eta Itun Zaharrak mundua eta gizakia jainko baten obra egin bazituen; horrela Itun Berriak beharturik ikusi zuen bere burua jainko hura gizon eginaraztera mundu honetako atsekabeetatik salbamera eta berrerospena bertatik bakarrik irten daitekeela irakasteko. Gizakiaren nahimenaren mendean dago dena eta horrela iraungo du. Saniassiak, martiriak, fede eta izen orotako santuak gogara eta pozik jasan izan dute martirio oro, beraiengan bizitzeko nahimena ezabatua izan zelako; horregatik bere agerpenaren suntsitze geldiarik abegi egiteraino iritsi ziren. Baina ez dut aurreratu nahi geroko aurkezpena. - Gainerakoan ezin diot eutsi azalpena emateari: baikortasuna, bekoki kamutsen azpian hitzak besterik ezkutatzen ez dituztenen pentsamendurik gabeko

erretolika soila ez denean, ez gizadiaren sofrimendu izengabearekiko pentsatze-mota absurdua bakarrik, baita egiazki donge bezala ere ageri zaidala. - Ez bedi pentsa fede-doktrina kristaua baikortasunaren aldekoa denik; zeren, alderantziz, Ebanjelioetan mundua eta gaitza ia adierazpen sinonimo bezala erabiltzen baitira¹⁵.

§ 60

Tartekatu beharreko bi azterketak bukatu ditugu, hots, nahimenak bere baitan duen askatasunari buruzkoa, aldi berean bere agerpenaren beharrezkotasunarekin, eta bere esentzia munduan ispilatzen duen zoriari buruzkoa, zeinaren ezagutzak baieztatzera edo ezeztatzera eraman behar baitu; baieztapen eta ezeztapen horiek, lehen adierazi eta azaldu ditugunak, argitasun handiagora jaso ditzakegu, horiek beren adierazpena aurkitzen duten egintza-erak aurkeztu eta beren barneko esanguraren arabera kontsideratuz.

Nahimenaren baieztapena ezein ezagutzak nahastu gabeko nahi izate iraunkorra bera da, gizakiaren bizitza orokorrean betetzen duenez. Nola gizakiaren soina nahimenaren objektitatea den, maila horretan eta norbanako horretan agertzen denez; horrela denboran garatzen den bere nahi izatea nolabait soinaren parafrasea da, osotasunaren eta atalen esanguraren argipena, berbaitango gauza beraren beste aurkezpen-era bat da, zeinaren agerpena ere soina baita. Horregatik nahimenaren baieztapenaren ordez soinaren baieztapena ere esan dezakegu. Nahimen-egintza askotariko guztien oinarri-gaia beharrianak asetzeari da, zeina soinaren existentziatik bere osasunean bereiztezina baita, eta bertan bere adierazpena baitauka, eta norbanakoaren kontserbaziora eta espeziearen ugalketara zuzentzen baita. Horietako bakoitza proba bat besterik ez da, hemen agertzen den nahimenaren etsenplu bat oro har: zer eratakoa den proba hori, zer taxu motiboak transmititzen dion, ez da esentziala; baizik oro har nahi izatea eta bizikortasunaren zein graduarekin, hori da hemen axola zaiona. Nahimena motiboetan bakarrik bihur daiteke ikuskor, begiak argitan bakarrik bere ikusmena kanporatzen duen bezala. Motiboa oro har nahimenaren aurrean Proteo taxuanitz bat bezala dago: asetze osoa agintzen du, nahimen-egarria iraungitzea; baina lortu denean, beste taxu batean agertzen da hor eta horretan berriro higitzen da nahimena beti bere bizikortasun-graduaren eta ezagutzarekiko bere harremanaren arabera, zeinak proba eta etsenplu horien bidez karakter enpiriko gisa agertzen baitira.

Gizakiak, kontzientzia agertzen zaionetik, bere burua nahi izaten aurkitzen du, eta normalean bere ezagutza nahimenarekiko etengabeko harremanean egoten da. Aurrena bere nahi izatearen objektuak bilatzen ditu, gero horietako bitartekoak etengabe ezagutzea. Orain badaki zer egin behar duen, eta normalean ez da beste jakite bat lortzen ahalegintzen. Jardun eta saiatu egiten da: bere nahi izatearen xederantz beti lan egiteko kontzientziak zutik eta jardunean eusten dio: bere pentsamenduak badu zerikusia bitartekoen aukerarekin. Horrelakoa da ia gizaki guztien bizitza: nahi dute, badakite zer nahi duten, horretara ahalegintzen dira hainbeste arrakastarekin, beren burua etsipenetik, hainbeste porrotekin, beren burua aspertasunetik eta bere ondorioetatik babesteko. Hortik nolabaiteko alaitasuna, edo gutxienez lasaitasun bat sortzen, aberastasunak edo pobretasunak benetan ezer aldatzen ez duena: zeren aberatsak eta pobreak ez baitute daukatenaz gozatzen, izan ere horrek, erakutsi denez, negatiboki bakarrik eragiten baitu; baizik horien ekinaz lortzea espero dutenaz. Aurrera ekiten diote, seriotasun handiarekin, manera

garrantzitsuekin: horrela ekiten diote haurrek ere beren jokoari. - Beti salbuespen bat da horrelako bizi-joaira batek nahasmendu bat jasatea nahimenaren zerbitzuaren mendean dagoen eta esentzian munduaren esentzia ezagutzera zuzenduriko ezagutzetik kontenplaziorako beharrizan estetikoa edo ukapenerako etikoa sortzea. Aitzitik, nahimena sarritan izekitzen da soinaren baieztapena aise gaingitzen duen graduraino, zeinak afektu biziak eta grina indartsuak erakusten baititu, zeinetan norbanakoa bere existentzia propioa baieztatu ez ezik besteena ezeztatu eta ezabatzen saiatzen baita, bidean aurrez aurre aurkitzen duenean.

Soinaren kontserbazioa bere indar propioen bidez hain da nahimenaren baieztapenaren gradu txikia, non bertan gogara geldituz gero, onartu beharko genukeen soin horren heriotzarekin bertan agertzen den nahimena ere iraungiko litzatekeela. Sexu-instintua asetzeak berak hain denbora laburra betetzen duen existentzia propioa gaingitzen du, eta bizitza norbanakoaren heriotzaren gainetik baieztatzen du denbora determinatugabea. Naturak, beti egiazko eta kontsekuenteak, hemen xaloa ere badenak, oso zabal jartzen du gure aurrean sortze-egintzaren barneko esangura. Kontzientzia propioa, instintuaren bizitasunak irakasten digu, egintza horretan bizitzeko nahimenaren baieztapen deliberatuena garbi eta beste gehigarririk gabe (beste norbanakoen ezeztapenik gabe) adierazten da; eta orain denboran eta kausa-segidan, h. d. naturan, egintzaren ondorio gisabizitza berri bat agertzen da: sortzailearen aurrean sortua jartzen da, agerpenean hartaz bestelakoa, baina bere baitan edo ideiarekin arabera harekin identikoa. Horregatik da egintza hori bizidunen belaunaldiak osotasunarekin lotu eta horrelako diren heinean betikotzen dituenak. Sorkuntza sortzailearekiko adierazpena baizik ez da, bizitzeko nahimenaren bere baieztapen deliberatuaren sintoma: sortuarekiko ez da bertan agertzen den nahimenaren arrazoa, izan ere nahimenak bere baitan ez baitu arrazoirik ez ondoriorik ezagutzen; baizik kausa guztiak bezala nahimen hori denbora horretan eta toki horretan agertzearen kausa okasiozkoa bakarrik da. Sortzailearen nahimena berbaitango gauza gisa ez da sortuarenaz bestelakoa; izan ere, agerpena dago principium individuationis-aren mendean, ez berbaitango gauza. Gorputz propioaren gaineko baieztapen horrekin eta beste berri baten aurkezpenera arte sofrimendua eta heriotza dago, bizitzaren agerpenari dagozkionak bezala, berriz ere baieztatutak aurkitzen dira eta oraingoan ezagutza-gaitasuna perfektuenaren bitartez buruturiko salbamen-ahaltasuna fruitugabetzat eman behar da. Hemen datza sortze-egintzari buruzko lotsaren arrazoi sakona. - Iritzi hori mitikoki aurkezturik dago fede-doktrina kristauaren dogman, zeinak Adamen bekatu-erorketan (zeina sexu-instintua asetzea besterik ez baita izan) denok partaide egiten baikaitu eta horregatik sofrimenduaren eta heriotzaren errudun. Fede-doktrina hori arrazoiaren printzipioaren kontsiderazioaren gainetik doa puntu honetan eta gizakiaren ideia berrezagutzen du, zeinaren batasuna ezin zenbatu ahal norbanakotan banatzetik denari berriro loturik eusten dion sortze-lokarriaren bidez berrezarri baita. Horren arabera norbanako bakoitza alde batetik Adamekin, bizitzaren baieztapenaren errepresentantearekin, identiko bezala jotzen du eta horrenbestez bekatuak (jatorrizko bekatuak), sofrimenduak eta heriotzak atzemana: bestalde, ideiarekin ezagutzak erakusten du norbanako oro identikoa dela salbatzailearekin, bizitzeko nahimenaren ezeztapenaren errepresentantearekin, eta horrenbestez bere autosakrifizioaren partaide gisa, bere merituez berrerosi eta bekatuaren eta heriotzaren lokarrietatik, h. d. mundutik salbatu gisa. (Errom 5, 12-21)

Sexu-instintua asetzearen gure iritziaren beste aurkezpen mitiko bat, bizitza indibidualaren gainetiko bizitzeko nahimenaren baieztapen gisa lehen aldiz

kontsumaturiko horretan abandonatze bat bezala edo nolabait bizitzarekiko preskripzio berritu bat bezala hor dago Proserpinaren mito grekoa, zeini ahalgarri izan baitzitzaion azpimundutik itzultzea, azpimunduko fruituak dastatu ez zituen heinean, baina mingrana dastatzean erabat bertan atzemana gelditzen baita. Mito honen Goetheren aurkezpen paregabea oso argi eta garbi mintzo da zentzu horretaz, batez ere mingrana dastatu bezain laster, Parken koru ikusezinak supituki kantatzeari ekiten dionean:

Gure haiz!

...

Baraurik itzul hintekeen:

Eta sagarraren hozkadak gure bihurtzen hau!

Ohargarria da Klemente Alexandriakoak (lib. 3, cap. 15) gaia irudi beraren eta adierazpen beraren bidez aipatzea: (GRIEGO) (Qui se castrarunt ab omni peccato, propter regnum caelorum, ii sunt beati, a mundo ieiunantes.) [Bekatu orotatik beren burua irendu zutenak zeruko erreinuarengatik, horiek dohatsu dira munduaz barau eginez.]

Sexu-instintuak bizitzaren baieztapen deliberatu, indartsuena bezala berresten du bere burua nola gizaki naturalarentzat hala animaliaarentzat bizitzako azken helburua, xede gorena den heinean. Autokontserbazioa da bere lehen ahalegina, eta horretaz arduratu den heinean, orduan espeziearen ugalketaz bakarrik ahalegintzen da: izaki natural, soin gisa ezin du gehiagora jo. Natura bera ere, zeinaren barneko esentzia bizitzeko nahimena baita, bere indar guztiarekin saiatzeko da gizakia eta animalia ugaltzera bultzatzen. Ondoren norbanakoarekin bere helburua lortu du eta erabat axolagabe da horren suntsierarekiko, zeren bizitzeko nahimen gisa espeziearen kontserbazioaz bakarrik arduratzen baita, norbanakoa ez baita beretzat ezer. - Zeren sexu-instintuan adierazten baita indarrik handienaz naturaren barneko esentzia, bizitzeko nahimena, zioten antzinako poeta eta filosofoek - Hesiodok eta Parmenidesek - oso esanguratsu, Eros dela lehena, eratzailea, printzipioa, zeinatik gauza guztiak irten baitziren (ikus bedi Aristoteles, 2, 4). Ferezidesek esan du: (GRIEGO) (Iovem, cum mundum fabricare vellet, in cupidinem sese transformasse.) [Zeus eros bihurtu zen, mundua sortu nahi izan zuenean.] Proklo lib. 3. - Objektu horren tratamendu

xehea berriki jaso dugu Georg Friedrich Schoeman-en , 1852 obratik. Indiarren Maiak ere, zeinaren obra eta ehuna itxura-mundua baita, amor parafraseatzen du.

Genitalak soinen kanpoko beste edozein atal baino gehiago daude nahimenaren mende eta ez ezagutzarenean: are nahimena hemen ezagutzarekiko ia hain independente azaltzen da, nola bizitza begetatiboaren, ugalketa partzialaren atalekiko, zeinetan natura ezagutzagabe bezala nahimenak itsuki eragiten baitu. Zeren sortzea banako bakoitzari iraganarazitako birsorkuntza besterik ez baita potentzia berretuan, heriotza potentzia berretuko irazketa besterik ez den bezala. - Horren guztiaren ondorioz, genitalak dira nahimenaren benetako goriguneak eta ondorioz garunaren, ezagutzaren errepresentantearen polo kontrajarria, h. d. munduaren beste aldearena, errepresentazio gisako munduarena. Horiek dira bizia kontserbatzen duen, denborari bizitza amaigabea segurtatzen dion printzipioa; gaitasun horren kariaz grekoen artean falo gisa, hinduen artean lingam gisa gurtu zuten, zeinak horrela nahimenaren baieztapenaren sinbolo ere bai baitira. Ezagutzak aldiz ahalatasuna ematen du nahi izatea ezabatzeko, askatasunaren bitarteko salbaziorako, mundua gaingitu eta deusezteko.

Jadanik laugarren liburu honen hasieran xeheki kontsideratu dugu nola bizitzeko nahimenak bere baieztapenean heriotzarekiko bere harremana ulertu behar duen, horrek ez dio trabarik egiten, zeren jadanik hori bizitzan harturik eta berari dagokiona bezala baitago, zeinari bere oposizioak, sortzeak erabat eusten baitio orekari eta bizitzeko nahimenari, norbanakoaren heriotza gorabehera, denbora guztian bizitza segurtatu eta hitzematen baitio; hori adierazteko indiarrek Shiva jainkoari lingama eman zioten atribututzat. Hortxe bertan aditzera eman dugu nola gizakiak, gogoeta osoarekin, bizitzaren baieztapen deliberatuaren aldeko ikuspuntutik beldurrik gabe begiratzen dion heriotzari. Baina horretaz ez dugu hemen gehiago hitz egingo. Gogoeta klarurik gabe egoten dira gizakirik gehienak, eta etengabe baieztatzen dute bizitza. Baieztapen horren ispilu gisa dago hor mundua ezin zenbatu ahal norbanakorekin, denbora amaigabea eta espazio amaigabea eta sofrimendu amaigabea, sortze eta heriotzaren artean amairik gabe - baina horretaz ez dago inongo aldetik kezurik egiterik: zeren nahimenak tragikomedia handia bere lepotik ordaintzen baitu eta bere buruaren behatzaile ere bada. Mundua den bezalakoa bada, nahimena, zeinaren agerpena baita, nahimenak agerpen horretan bere burua baieztatzen duelakoaren justifikazioa delako; eta baieztapen hori justifikatu eta konpentsatu egiten du berak sofrimendua jasateak. Horrela justizia betikorako ikusmira bat irekitzen da osotasunean; gero hurbilagotik eta argiago ikusiko dugu partikularrean. Baina horren aurretik justizia denborazkoaz edo gizakizkoaz hitz egin beharko da¹⁶.

§ 61

Gogoan dugu, bigarren liburutik, natura osoan nahimenaren objektibazioaren maila guztietan derrigor etengabeko borroka bat zegoela espezie guztietako banakoen artean eta horren berorren bitartez bizitzeko nahimenak bere buruarekiko duen antagonismo barnekoa adierazten zela. Objektibazioaren maila gorenean beste guztia bezala fenomeno hori ere argitasun jasoagoan aurkezten da, eta horregatik areago deszifratzen da. Helburu horrekin ondoren aztertu nahi dugu egoismoa bere iturrian borroka ororen abiagune gisa.

Denbora eta espazioari, horien bitartez eta horietan homogeneoaren aniztasuna ahalgarri delako, principium individuationis deitu diegu. Ezagutza naturalaren, h.

d. nahimenetik ernetakoaren, forma esentzialak dira. Horregatik agertzen da nonahi nahimena banakoen aniztasunean. Baina aniztasun horrek ez du zerikusirik berarekin, berbaitango gauza gisako nahimenarekin, baizik bere agerpenekin bakarrik: horietako bakoitzean osoki eta banatugabe existitzen da, eta bere esentzia propioaren ezin zenbatu ahaleko irudi errepikatuari begiratzen dio bere inguruan. Baina hori bera, errealki erreala dena bere barruan bakarrik aurkitzen du bitartegabe. Horregatik bakoitzak dena beretzat nahi du, denaren jabe izan nahi du, gutxienez menderatu egin nahi du eta kontrajartzen zaiona deuseztu egin nahi du. Horri gehitu behar zaio izaki ezagutzailean, norbanakoa subjektu ezagutzailearen euslea izatea; h. d. hartaz kanpoko natura osoa, horrela gainerako banako guztiak ere bere errepresentazioan bakarrik existitzea, bere errepresentazio gisa bakarrik, horrela bitartez eta bere esentzia eta existentzia propiotik dependente diren gisa haien kontzientzia izatea. Izan ere, bere kontzientziarekin mundua derrigor iraungitzen da, h. d. bere izatea eta ez-izatea esangura berekoak eta bereiztezinak zaizkiola. Banako ezagutzaile bakoitza egiatan da eta aurkitzen du bere burua bizitzeko nahimen osoa bezala edo munduaren beraren berbaitangoa bezala, baita errepresentazio gisako munduaren baldintza osagarria bezala, ondorioz mikrokosmos bat, makrokosmos baten baliokidea dena bezala. Beti eta nonahi egiazko naturak berak ematen dio, jadanik jatorriz eta gogoeta orotatik independenteki, ezagutza sinple eta bitartegabe ziur hori. Eman diren beharrezko bi determinazio horietatik azaltzen da mundu mugagabea desagertu eta hutseraino txikitzen den norbanakoak munduaren erdigune bihurtzen duela bere burua, bere existentzia eta ongizate propioaz bakarrik arduratzen dela eta ikuspuntu naturaletik gainerako guztia horri sakrifikatzeko prest dagoela, mundua deusezteko prest dagoela, bere buru propioa, itsasoko urtanta hori zertxobait luzaraztearren. Aldarte hori egoismoa da, naturako gauza orori esentziala zaiona. Gainera, horren bidez beldurgarriro agerian jartzen da nahimenak bere buruarekiko duen barneko gatazka. Zeren egoismo horrek mikroskosmosa eta makrokosmosaren arteko oposizio hartan dauka bere iraupena eta esentzia edo nahimenaren objektibazioak principium individuationis-a formatzat edukitzean eta horrenbestez nahimena ezin zenbatu ahal norbanakotan era berean agertzean, eta zinez horietako bakoitzean bi aldeen arabera (nahimen eta errepresentazio) oso eta bete. Horrela, bada, bakoitzak bere burua nahimen osoa eta errepresentatzaile osoa bezala emanak ikusten dituen bitartean, besteak bere errepresentazio gisa bakarrik ematen zaizkio; horregatik bere esentzia propioa eta horren kontserbazioa beste guztiena baino gehiago axola zaizkio. Bakoitzak bere heriotza propioari munduaren bukaerari bezala begiratzen dio, bere ezagunak gauza axolagabe samar gisa hautematen dituen bitartean, baldin eta zerbait pertsonala haiekin elkarbanatzen ez badu. Gradu goreneraino igoarazitako kontzientzian, gizakiarenean ezagutzak bezala minak, pozak baita egoismoak ere gradu gorena lortu dute eta horrek baldintzaturiko norbanakoen gatazka lazkarriena izateraino iritsi da. Nonahi ikusten dugu hori begien aurrean, nola txikian hala handian, bai tirano eta gaizkile handien bizitzan ikusten dugu alderdi ikaragarritik eta mundua sakailatzen duten gudu horietan, bai alde barregarritik, non ere komediaren gaia baita eta oso bereziki presuntzioan eta banitatean agertzen baita, zeina Larochefoucaultek beste inork ez bezala kontzebitu eta in abstracto aurkeztu baitu: munduaren historian eta nork geure esperientzian ikusten dugu hori. Baina argien agertzen da gizaki-multzo batek lege eta ordenu orotatik bere burua askatzen duenean: orduan agertzen baita argien [denen denen aurkako gudua] hori, Hobbesek lehen kapituluari bikain deskribatu duena. Orduan ikusten da nola bakoitza gai den berak nahi duena besteari kentzeko; sarritan nork bere ongizatea hazkuntza esanguragabe batean gehitzeko bestearen zorion osoa edo bizitza suntsitzeko. Hori da

egoismoaren adierazpen gorena, zeinaren agerpenak ikuspegi horretatik benetako gaiztakeriarenek bakarrik gainditzen baitituzte, zeinak besteen kaltea eta mina atsegin hutsez bakarrik bilatzen baititu norberarentzat inolako abantailarik gabe; laster hitz egingo dugu horretaz. - Egoismoaren iturriaren aurkikuntza horrekin konpara bedi nire § 14an egindako horren aurkezpena.

Sofrimenduaren iturri nagusietako bat, goian bizitza ororentzat esentzial eta saihestezintzat aurkitu duguna, errealki eta taxu determinatu batean agertzen den heinean, Eris hura da, norbanako guztien borroka, kontraesanaren adierazpena, zeinekin bizitzeko nahimena barnean harrapaturik baitago eta principium individuationis-aren bidez ikuskor izatera iristen baita: hori bitartegabe eta ankerki ikusarazteko animalien arteko borrokak dira bitarteko krudelak. Jatorrizko liskar horretan dago sofrimenduaren iturri agorrezina, horren aurka hartu diren arreta guztiak gorabehera, eta zeinak berehalaxe hurbilagotik kontsideratuko baititugu.

§ 62

Jadanik aztertua dugu bizitzeko nahimenaren baieztapen lehen eta sinplea norbere soinaren baieztapena bakarrik dela, h. d. nahimenaren aurkezpena denboran zehar, soinak bere forma eta helburuzkotasunean nahimen hori espazialki aurkezten duen heinean eta ez besterik. Baieztapen hori soinaren kontserbazio gisa horren indar propioak erabiltzearen bitartez azaltzen da. Horri bitartegabe lotzen zaio sexu-instintua asetzea, areago genitalak soinari dagozkion bezala dagokio hari. Horregatik instintu horren asetzearen ukapen borondatezkoa eta ezein motibotan oinarritu gabekoa bizitzeko nahimenaren ezeztapena da nahimenak bere buruaz egiten duen hautazko ezabatzea, kietibo gisa eragiten duen ezagutza gisa; horren arabera soin propioaren ezeztapen hori nahimenaren kontraesan gisa aurkezten da bere agerpen propioaren aurka. Zeren nahiz eta hemen soinak genitaletan birsorkuntzarako nahimena objektibatzen duen, hala ere hori ez da nahi. Hain zuzen ere horregatik, hori bizitzeko nahimenaren ezeztapen edo ezabatzea delako, horrelako ukapena autogaingaitze zail eta mingarria da; hala ere horretaz geroago hitz egingo dugu. - Baina nahimenak soin propioaren autobaieztapen hori elkarren ondoko ezin zenbatu ahal banakorengan aurkezten duenez gero, oso erraz igarotzen da egoismo berezi horren indarrez banako batengan baieztapen horretatik haratago beste banako batengan agertzen den nahimenean berorren ezeztapeneraino. Lehenaren nahimenak inbaditu egiten du inoren nahimen-baieztapenaren muga, banakoak inoren soina bera suntsituz edo zaurituz edo baita inoren soin horren indarrak bere nahimenari zerbitzatzera behartuz soin horretan bertan agertzen den nahimenari zerbitzatu orde; horrela inoren soin gisa agertzen den nahimena soin hori indarrez gabetzean eta horren bidez bere nahimenari zerbitzatzeko dion indarra bere soin propioarenaz haratago gehitzen denean, ondorioz bere nahimen propioa bere soin propioaren gainetik baieztatzen da inoren soinean agertzen den nahimenaren ezeztapenaren bitartez. - Inoren nahimen-baieztapenaren mugak inbaditzea aspaldidanik argiro ezaguna da eta horren kontzeptua injustizia hitzaz izendatzen da. Zeren bi parteek berrezagutzen baitute gaia zinez, ez guk hemen abstrakzio soilean bezala, baizik sentimendu gisa, berehalaxe. Injustizia sofritzen duenak bere soin propioaren baieztapenaren esferan sentitzen du inbasioa banako arrotz batek egindako horren ezeztapenaren bidez, min bitartegabe eta espiritual gisa, zeina guztiz bereizi eta desberdina baita batera min fisikotik egintzagatik edo tristuratik galeragatik. Bestalde, injustizia egiten duenari

ezagutza aurkezten zaio, bera izan nahimen bera dela, gorputz hartan ere ageriratzen dena eta agerpen batean, hainbesteko suharrak baieztatzen dela, non soin propioaren muga eta horren indarrak gaindituz, beste agerpenean nahimen horren berorren ezeztapenera iristen dela, ondorioz, berbaitango nahimen gisa kontsideraturik, bere suharraren bidez bere buruaren aurka gatazkatzten da, bere burua zarrastatzen du - bere buruari aurkezten dio, diot nik, ezagutza hori berehalaxe, ez in abstracto, baizik sentimendu ilun bat bezala: eta horri deitzen zaio kontzientziaren zimikoa edo, kasu honetan zehatzago, injustizia egin izanaren sentimendua.

Injustizia, zeinaren kontzeptua hemen abstrakzio orokorrean aztertutako baitugu, erarik oso, propio eta nabarienean in concreto kanibalismoan adierazten da: hori da bere tipo argi eta begibistakoena, nahimenak bere buruarekiko duen kontragatazka handienaren koadrorik lazkarriena bere objektibazioaren mailarik gorenean, zeina gizakia baita. Horren ondoren gizaerailketa dator, zeina burutzeari horregatik kontzientziaren zimikoa, zeinaren esangura halaber abstraktu eta lehor eman baitugu, berehalaxe argitasun beldurgarritz jarraitzen baitzaio, eta zeinak espirituen bakeari bizi-denbora guztian zauri sendaezina egiten baitio; horrela gertatuarengatik gure ikara eta halaber gertatu beharreko gizaerailketaren aurrean izuturik gure atzera-egitea bizitzarekiko atxikimendu mugagabeari dagozkio, zeinaz bizidun oro bizitzeko nahimenaren agerpen gisa blaiturik baitago. (Gainerakoan, injustizia eta gaiztakeria egitearekin batera doan sentimendu hura edo kontzientziako larritasuna oraindik xeheago aztertutako eta kontzeptuaren argitasunera jasoko dugu.) Esentziaren arabera gizaerailketaren pareko eta hartatik graduan bakarrik desberdina dena bezalakotzat hartu behar da berariazko mutilazioa edo inoren gorputza zauritze soilak, baita kolpe bakoitza ere. - Gainera injustizia beste norbanakoa uztarpetzean, bera esklabotzara bortxatzean agertzen da; azkenik, inoren jabetzari erasotzean, zeina bere lanaren fruitua den heinean, esentzian haren mota berekoa baita eta harekiko zauritze soilak gizaerailketarekiko bezala jokatzeko baitu.

Jabetza, gizakiari injustiziarik gabe kentzen ez zaiona, injustiziaz eman dugun gure azalpenaren arabera, bakarrik izan daiteke bere indarren bidez landutakoa, zeinaz gabetzean horregatik bere soineko indarrak horretan objektibaturiko nahimenari kentzen baitzaizkio, beste soin batean objektibaturiko nahimenari zerbitzarazteko. Zeren horrela bakarrik inbaditzen baitu injustizia egiten duenak erasoaren bidez, ez inoren soina, baizik gauza bizigabea, horretatik guztiz desberdina dena, hala ere inoren nahimen-baieztapenaren esferan dagoena, izan ere gauza horrekin inoren gorputzaren indarrak, lana nolabait hazi eta identifikaturik baitaude. Hortik dator, jabetza-eskubide benetako, h. d. moral oro, jatorriz lanean bakarrik eta soilik oinarriturik egotea; zeina hori Kanten aurretik ere eskuarki samar onarturik zegoenez, baita legeliburu guztietan zaharrenak argiro eta ederki jadanik esaten duenez: (Manuren Legeak» 9, 44). - Kanten zahartzaroko ahuleziak bakarrik azaltzen dit niri bere zuzenbidearen doktrina osoa bata bestetik sorturiko errore txirikordatzeko berezi bat bezala, eta jabetza-eskubidea lehen jabetza-okupazioaren bidez oinarritu nahi izatea. Zeren, nola liteke nire nahimenaren azalpen soilak besteak gauza baten erabilpenetik baztertzea eta berehala horri eskubide bat ematea? Agerian dago horrek berak eskubide-oinarri bat behar duela; horren ordez Kantek suposatzen du hori bera eskubide-oinarri bat dela. Eta, nola liteke halakoa bere baitan, h. d. moralki, injustuki portatzea baldin eta halakoak bere azalpen propioan oinarrituriko uziak besterik ez baditu kontuan hartzen gauza baten jabetza eskusiborako? Nola liteke bere kontzientzia hori dela-eta kezkatzea? Izan ere, argi

eta aise ulertzen da ezin litekeela jabetza-hartze juridikorik egon, baizik gauzaren norbereganatze, jabetza-lortze juridiko bat jatorriz indar propioak haren gain erabiltzearen bidez. Izan ere gauza bat nolabait inoren nekez, nahiz eta txikia izan, landu, hobetu, ezbeharretatik babestu, bermatzen bada, eta neke hori biltzea edo era basan hazitako fruitua lurtzorutik altxatzea balitz; orduan erasotzaileak nabarmen gabetzen du bestea bere indarrak horretan erabili izanaren arrakastaz, horrela bestearen soinari propioaren ordeztu bere nahimenari zerbitzarazten dio, bere nahimen propioa baieztatzen du horren agerpenaz haratago inorenaren ezeztapeneraino, h. d. injustizia egiten du¹⁷. - Aitzitik, gauza baten gozamen soilak horren lantze eta suntsieraren aurkako segurtatzerik gabe ez du ematen eskubiderik norbere nahimenaren adierazpenak ematen duena baino gehiago jabetza eskusiborako. Horregatik familia bat mende batez ehiza-barruti batean ehizan ibili bada, hori hobetzeko ezer egin gabe; bertan ehizan egin nahi duen etorberri arrotz bati ezingo lioke eragotzi injustizia moralik gabe. Lehen okupatzailearen eskubide deitua, zeinaren arabera gauza baten gozamina izan delako soilik horri buruzko saritzea, hots, eskubide eskusiboa aurrerantzean gozatzeko ere eskatzen duena, moraliki guztiz oinarrigabea da. Eskubide horretan bakarrik euskarritzen denari etorberriak askozaz eskubide gehiagorekin erantzun liezaioke: Inola ere lantzearen bidezko hobetze edo ezbeharretatik segurtatzerako gaitasunik ez duen gauza oroz ezinezkoa da moraliki oinarrituriko jabetza eskusiborik izatea; orduan izan liteke beste guztien aldetik borondatezko lagapenaren bidez, beste zerbitzu motaren baten saritze bezala; baina horrek konbentzioz arauturiko elkarte bat, estatua, suposatzen du. - Moraliki oinarrituriko jabetza-eskubideak, goian deduzitu denez, bere naturaren arabera jabeari ahalmen mugagabea ematen dio gauzarekiko, bere soin propioarekiko duena bezalakoa; nondik baitarraio hark bere jabetza truke edo dohaintzaren bidez besteei transmiti diezaikeela, eta horiek aurrerantzean berak zeukan eskubide moral berarekin gauzaz jabetuko direla.

Injustizia egitea, oro har hartuta, edo bortxaren edo maltzurkeriaren bitartez gertatzen da; eta hori moraliki esentziala denaren ikuspegitik gauza bera da. Lehenik, gizaerailketan moraliki berdina da, puinalaz edo pozoiaz baliatzen naizen; eta antzeko eran gorputzezko zauriketa orotan. Injustiziako beste kasuak beti murriz daitezke nik injustizia eginez norbanako arrotza, bereari ordeztu, nire nahimenari zerbitzatzera, berearen ordeztu, nire nahimenaren arabera jokatzera. Bortxaren bidetik kausalitate fisikoaren bidez lortzen dut hori; maltzurkeriaren bidetik motibazioaren bitartez, h. d. ezagutzak blai eginiko kausalitatearen bitartez, ondorioz bere nahimenari nik itxurazko motiboak proposatzearen bitartez, zeinen indarrez bera, bere nahimenari jarraitzen zaiola sinetsirik, nireari jarraitzen baitzaio. Izan ere, motiboak aurkitzen diren bitartekoa ezagutza delarik, bere ezagutza faltsutuz bakarrik egin dezakete hori, eta horixe da gezurra. Horrek beti inoren nahimenean eragitea du helburu ez bere ezagutza bakarrik, beretzat eta horrelakoa den heinean, baizik horretan bitarteko gisa, hots, bere nahimena determinatzen duen heinean. Zeren neure gezurrak berak, nire nahimenetik irteten den heinean, motibo bat behar du: hori inoren nahimena bakarrik izan daiteke, ez inoren ezagutza bere baitan eta beretzat; izan ere, horrelakoa den heinean ezin baitezake eraginik izan nire nahimenean, horregatik ezin du inoiz higitu, ezin da inoiz bere helburuen motibo izan: baizik inoren nahi izatea eta egitea izan daitezke horrelakoak, eta horren bidez, ondorioz bitartez bakarrik, izan daiteke inoren ezagutza. Horrek balio du ez bakarrik etekin propio nabaritik sorturiko gezurrentzat, baita gaiztakeria hutsetik sortuentzat ere, berak sorrarazitako inoren errorearen ondorio mingarrietan atsegin

hartzen baitu. Hitzontzikeria soilak berak ere badu helburua arreta gehituz edo iritzia hobetuz besteen aldetik beren nahi izatean edo egitean eragina handitu edo errazteko. Egia bati, h. d. aitorpen bati oro har, uko egitea hutsa berez ez da injustizia, bai ordea gezurrari eustea. Bidazti galduari bide zuzena erakusteari uko egiten dionak, ez dio injustiziarik egiten; bai ordea hari okerreko bidea erakusten dionak. - Esandakotik jarraitzen da gezur oro, bortxakeria-ekintza oro, horrelakoa den heinean injustizia dela; zeren horrek horrelakoa den heinean helburutzat baitauka nire nahimenaren nagusitasuna norbanako arrotzarengana hedatzea, horrela neure nahimena harenaren ezeztapenaz baieztatzea, bortxakeriak egiten duen bezala. - Baina gezurrik beteginena kontratu hautsia da; zeren hemen aipaturiko determinazio guztiak osoki eta argiro bateratzen baitira. Zeren nik kontratu bat egiten dudanean, inork agindutako burutzapen bitartegabe eta aitortua ondorioz, aurrerantzean gertatuko den nirearen motiboa da. Hitzemateak gogoeta egin ondoren eta formalki trukutzen dira. Kasu honetan egiten den bakoitzaren aitorpenaren egia, hipotesiaren ondorioz, beren ahalmenean datza. Besteak kontratua hausten badu, orduan engainatu egin nau eta nire ezagutzan itxurazko motibo soilak ordeztearen bidez nire nahimena bere asmoaren arabera gidatu du, bere nahimenaren nagusitasuna norbanako arrotzaren gainetik hedatu du, horrela injustizia perfektu bat egin du. Horretan oinarritzen dira kontratuen legitimitate morala eta baliozkotasuna.

Bortxakeriazko injustizia ez da egiten duenarentzat maltzurkeriazko injustizia bezain desohoragarria; zeren hura indar fisikotik sortzen baita, giza arrazari edozein zirkunstantzian ezartzen baitzaio; aitzitik, bigarrenak, itzulinguruak erabiltzearen bidez, ahulezia erakusten du, eta horrela hura izaki fisiko eta moral bezala beheratzen du; gainera, gezurrak eta engainuak konfiantza lortzera bakarrik iristen dira, baldin eta egiten dituenak aldi berean aiherra eta mesprezioa horien kontra adierazten baditu, eta bere garaipena datza berez ez daukan jatortasun bat berari egoztean. - Maltzurkeriak, fidelitasunik ezak eta traizioak nonahi sorrarazten duten aiher sakona datza fidelitasuna eta jatortasuna lokarri izatean, zeinak norbanakoen aniztasunean barreiaturiko nahimena kanpotik berriro batasun batean lotzen baitu, eta horrenbestez, barreiakuntza horretatik sorturiko egoismoaren ondorioei mugak ezartzen baitizkie. Fidelitasunik ezak eta traizioak urratu egiten dute kanpoko azken lokarri hori, eta egoismoaren ondorioei joko-eremu mugagabea ematen diete.

Gure kontsideratze-erarekiko elkarloturan injustizia kontzeptuaren eduki gisa norbanako baten egintzaren izaera aurkitu dugu, zeinean bere bizitzan agertzen den nahimenaren baieztapena hainbesteraino hedatzen baita, non inoren gorputzetan agertzen den nahimenaren ezeztapen bihurtzen den. Gainera, oso adibide orokorretan injustiziaren barrutiaren hasierak dituen mugak erakutsi ditugu, aldi berean bere mailaketa ere bai goren gradutik behereneraino kontzeptu nagusi gutxi batzuen bitartez determinatu dugu. Horren ondorioz injustizia kontzeptua jatorrizkoa eta positiboa da: horri kontrajarritako justiziarena deduzitua eta negatiboa da. Zeren ez hitzetan, baizik kontzeptuetan, gelditu behar baitugu. Izatez ez litzateke inoiz justiziaz hitz egingo, injustiziarik ez balego. Justizia kontzeptuak injustiziaren ukapena besterik ez dauka bere baitan, eta borretan subsumitzen da egintza oro, lehen aipaturiko muga gaingitzen ez duena, h. d. inoren nahimenaren ezeztapena ez dena, propioa indartsuago baieztatzeko. Horregatik muga horrek banatu egiten du determinazio soil eta huts baten ikuspegitik egintza ahalgarrien barruti guztia justuak eta injustuak direnetan. Egintza batek goian aztertutako eran inoren

nahimen-baieztapenaren esfera, hori ezeztatuz, inbaditzen ez duen bitartean, ez da injustizia. Horregatik, adibidez, inoren beharrian larriaren aurrean laguntza ukatzea, inor gosez hiltzen lasai ikustea, norberak soberan daukela, krudela eta deabruzkoa bada ere, ez da injustizia: bakarrik esan daiteke ziurtasun osoz maitasun gabezia eta gogorkeria halako punturaino eramateko gai denak oso ziur egingo duela edozein injustizia bere desirek eskatzen badute eta bortxaren batek eragozten ez badu.

Justizia kontzeptuak injustiziaren ukapen gisa bere erabilpen nagusia eta zalantzarik gabe bere lehen sorrera saiaturiko injustizia bortxaren bidez eragotzi den kasuetan aurkitu du, eta horrela eragozte hori ezin izan daiteke injustizia bere aldetik, ondorioz justua da; nahiz eta horretan egindako bortxa-ekintza, bakarturik eta bere baitan kontsideraturik, injustizia izango litzatekeen eta hemen bere motiboaren bidez bakarrik justifikatzen den, h. d. justizia bihurtzen den. Baldin eta norbanako bat bere nahimen propioaren baieztapenean hain urrun joaten bada, non nire pertsonaren esferan halakoa den heinean nahimen-baieztapen esentziala inbaditu eta horrekin ezeztatu egiten baitu; horrela inbaditze hori nik eragozte ezeztapen haren ezeztapena bakarrik izango da, eta nire aldetik nire soinean esentziaz eta jatorriz agertzen den eta agerpen soil horren bidez jadanik implicite adierazitako nahimenaren baieztapena izango da; ondorioz ez da injustizia, justizia baizik. Horrek esan nahi du: nik orduan eskubidea daukat inoren ezeztapen hura bera ezabatzeko, beharrezko indarrarekin ezeztatze, zeina, erraz ulertzen denez, norbanako arrotza erailtzearaino irits baitaiteke, zeinaren kaltea kanpo indar sarkor bat gisa kontraerreakzio pixka bat handiago batez eragotz baitaiteke inolako injustiziarik gabe, ondorioz justiziarekin; zeren nire aldetik gertatzen den guztia, beti nire pertsonaren esferan bakarrik horrelakoa den heinean esentziala eta jadanik bere bitartez adierazitako nahimen-baieztapena baita (borrokaren agertokia dena), ezta inorenean sartzen, ondorioz ukapenaren ukapena, horrela berrespina da eta ez ukapena. Injustiziarik gabe neure nahimena - nire soinean azaltzen den heinean eta neure soinen kontserbazio hutserako neure indar fisikoez egin dezakedan erabilpenean muga horren barruan agertzen den inoren nahimeneko ezer horregatik ezeztatu gabe - ezeztatzen duen inoren nahimena bortxatu egin dezaket ezeztapen horretatik alderatzeko: h. d. horraino badut bortxa-eskubidea.

Bortxa-eskubidea, indarra besteen aurka erabiltzeko eskubide osoa dudan kasu guztietan, zirkunstantzien arabera inoren indarrari maltzurtasuna kontrajar diezaioket, injustizia egin gabe, eta ondorioz gezurra esateko eskubide erreala dut bortxarako daukadan neurri berean. Horregatik, erabat zuzen portatzen da norbait arakatzen ari zaion lapur bati ez daramala ezer aldean ziurtatzen dionean: baita gauez sartu zaion lapurra gezurraren bidez soto batera erakarri eta bertan giltzapean jartzen duenean ere. Lapurrek, adibidez, berberiskoek harrapaturikoak eskubidea du ez bakarrik ageriko indarrez bere burua askatzeko, baita maltzurtasunez inor hiltzeko ere. - Horregatik ez du inola ere lotzen indar-ekintza fisiko bitartegabe baten bidez bortxaturiko hitzmateak; zeren horrelako bortxa pairatzen ari denak eskubide osoa badu erailketaren bidez bortxatzaileengandik bere burua askatzeko, areago engainua erabiltzeko. Lapurtu dioten jabetza indarrez berreskuratu ezin duenak ez du inolako injustiziarik egiten hori maltzurtasunaren bidez egitean. Are norbaitek lapurtu didan dirua jokatzen badu, eskubidea dut haren kontra dado faltsuak erabiltzeko, zeren irabaziko diodan guztia jadanik nirea baita. Hori ukatu nahiko lukeenak oraindik areago ukatu beharko luke gerrako amarruen legitimitatea, ekintzazko

gezurra baita hori eta Suediako Kristina Erreginaren adierazpenaren egiaztapen bat:

- Hain arinki ukitzen baititu justiziaren mugak injustiziarenak. Gainerakoan alferrikakotzat daukat hau guztia lehen gezurraren eta indarraren legitimitaterik ezaz esandako guztia bat datorrela frogatzea: gainera horrek ezinbesteko gezurrari buruzko teoria bitxiak azaltzeko ere balio dezake¹⁸.

Orain arteko guztiaren arabera injustizia eta justizia determinazio moralak dira, h. d. giza egintza horrelakoa den heinean egindako kontsiderazioari buruz eta berbaitango egintza horren barruko esangurarekiko harremanean bere baitan baliozkotasuna dutenak. Hori bitartegabe azaltzen da kontzientzian, alde batetik, egite injustua barneko min batek laguntzen duela, zeina injustizia egiten duenaren kontzientzia sentitu soila bere baitan nahimenaren baieztapenaren gehiegizko indarretik sortua baita, zeina inoren nahimen-agerpenaren ezeztapen-graduraino iristen baita; halaber, zinez agerpen gisa injustizia egiten duenaz bestelakoa bada ere, bere baitan harekiko identikoa da. Kontzientziako larritasunaren barneko esanguraren azterketa sakonagoa gerora bakarrik egingo da. Bestalde, injustizia jasaten duena bere nahimenaren, hots, bere soinaren eta bere beharrian naturalen bidez adierazirik dagoenaren ezabapena, horiek asetzeko igortzen baitu naturak soin horren indarretara, mingarriki kontziente da, eta aldi berean, injustiziarik egin gabe, ezeztapen hori era guztietara eragotz dezakeelakoaz, indarrak huts egingo ez balio. Esangura moral huts hori da justiziak eta injustiziak gizakientzat gizaki diren heinean eta ez Estatu baten hiritar gisa daukan bakarra, zeinak ondorioz natur egoeran, inolako lege positiborik gabe, iraun egingo bailuke eta natur eskubide deitu izan den horren euskarria eta edukia eratzen baitu; horrela baino egokiagoa da eskubide moral deitzea, izan ere bere baliozkotasuna ez sofrimendura, kanpoko errealitatera, baizik egitera eta horretatik gizakiari hazten zaion bere nahimen indibidualaren autoezagutzara, kontzientzia deitzen zaion horretara hedatzen baita, baina natur egoeran ezin da ez kasu guztietan kanpora ere, beste norbanako batzuekiko baliarazi eta ezin du eragotzi indarra justiziaren ordeiz nagusi izatea. Natur egoeran, jakina, norbanako bakoitzaren mendean dago soilik, kasu bakoitzean injustizia ez egitea, inola ere ez ordea kasu bakoitzean injustizia ez sofritzea, zeina kanpoko bere indar kontingenteen mendean baitago. Horregatik justizia eta injustizia kontzeptuak zinez baliozko dira natur egoerarako ere eta inola ere ez dira konbentzionalak; baina hor nahimen propioaren autoezagutzarako soilik balio duten kontzeptu moralak dira bakoitzarengan. Horiek indarraren gradu desberdinenen eskalan, zeinekin bizitzeko nahimenak giza banakoengan baieztatzen baitu bere burua, puntu finko bat dira, izozte-puntua termometroan bezala, hots, nahimen propioaren baieztapena inorenaren ezeztapen bihurtzen den puntua, h. d. bere suhertasunaren gradua principium individuationis-en ezagutzaren herabetasunaren graduarekin batzen dena (zeina erabat nahimenaren zerbitzuan dagoen ezagueraren forma baita), injustizia egiteak ematen duena. Baina giza egintzaren kontsiderazio moral hutsa alde batera utzi edo ukatu, eta egintza horren kanpoko eraginkortasunaren eta arrakastaren arabera kontsideratu nahi duenak, horrelakoak noski **Hobbese**kin justizia eta injustizia determinazio konbentzional, borondatez hartutakotzat eta horregatik lege positiboaz at existitzen ez direntzat baizik ezin ditu azaldu, eta ezin izango diogu inoiz kanpoko esperientziaren bidez ekarri, kanpoko esperientziakoa ez dena; eta guk **Hobbes** berorri, zeinak bere pentsatzeko era enpirikoki osotua guztiz ohargarriro ezaugarritzen baitu bere liburuan benetako matematika hutsa ukatuz, eta puntuak hedadura duela eta lerroak zabalera eta ezin diogula inoiz hedadura gabeko puntu bat eta zabalera gabeko lerro bat aurrean jarri kaskagor baieztatuz, horrela ezin diogu

matematikaren aprioritatea ulertarazi, zuzenbidearen aprioritatea ezin diogun bezala, zeren erabat itxirik baitago ezagutza enpirikoa ez den guztira.

Zuzenbidearen doktrina hutsa moralaren kapitulu bat ere bada horrela eta zuzeneko zerikusia egitearekin du, ez sofritzearekin. Zeren hura baita nahimenaren kanporatzea eta hau moralak bakarrik kontsideratzen baitu. Sofritzea akzidente hutsa da: zeharka bakarrik har dezake kontuan moralak sofrimendua ere, alegia, injustizia bat ez sofritzeko egiten dena ez dela egite injustu bat frogatzeko bakarrik. - Kapitulu horren garapenak mugen determinazio zehatza beharko luke edukitzat, zeinaraino norbanakoa jadanik bere soinean objektibaturiko nahimenaren baieztatapenean joan baitaiteke, hori horrela nahimen haren ezeztapen bihurtu gabe, beste norbanako batengan agertzen den heinean, eta horrela gero muga horiek gaintitzen dituzten egintzak, ondorioz injustizia baitira eta horregatik injustiziarik gabe eragotz baitaitezke. Egite propioa izango litzateke horrela kontsiderazio honen miragunea.

Kanpoko esperientzian akzidente gisa agertzen da injustizia sofritzea eta hartan, esan denez, beste inon baino argiago azaltzen da bizitzeko nahimenak bere buruaren aurka duen gatazkaren agerpena, norbanakoen aniztasunetik eta egoismotik irtenez, zeinak biak principium individuationis-aren bitartez baldintzaturik baitaude; printzipio hori munduaren forma da errepresentazio gisa norbanakoaren ezagutzarako. Jadanik goian ikusita daukagu giza bizitzaren sofrimendu esentzialaren atal handi batek norbanakoen gatazka hartan daukala beti jarioan dagoen iturburua.

Norbanako horiek guztiek komunean duten arrazoimenak, zeinak animaliek bezala ez kasu partikularra, baizik osokia elkarloturan ezagutarazten baitu, berehala irakatsi du sofrimendu horren iturburua ulertzen, eta bitartekoa pentsarazi baitu hori murriztu edo ahal den neurrian ezabatzeko sakrifizio komun batekin, zeina gaintiturik uzten baitute batera hartatik datozen abantailek. Nahiz eta atsegina izan partikularren egoismoarentzat kasu jakin batzuetan injustizia, hala ere beharrezko korrelatua du beste norbanako baten injustizia sofritzean, zeinarentzat min handia baita. Eta osokia gaintetik pentsatzen duen arrazoimena aldendu egin baitzen dagokion norbanakoaren ikuspuntu aldebakarretik eta izaki horrekiko dituen interesetatik une baterako libratu egiten baitzen, norbanako batengan injustizia egitearen gozamina bestearen injustizia jasatean erlatiboki min handiago batek gaintitu duela ikusi zuen eta gainera, dena hemen ausaren baitan utzirik geratu delako, aurkitu zuen bakoitzak beldurra izan behar ziola, beretzat askozaz bakanagoa izango zela injustizia egite okasiozkoaren gozamina injustizia sofritzearen minetan esku hartzearen aldean. Arrazoimenak jakin zuen horretatik, bai denengana hedaturiko sofrimendua gutxitzeko bai erarik ahalik eta uniformeenean banatzeko, bitarteko hoberen eta bakarra denei injustizia egitearen mina aurrezteka dela, denek injustizia egitearen bidez lortzen den gozamenari uko eginez. - Arrazoimena metodikoki erabiliz eta bere ikuspuntu alderdibakarra abandonatuz erraz asmatu eta pixkanaka beteginduriko bitarteko hori estatu-kontratua edo legea da. Nik hemen horren jatorria ematen dudana bezala, jadanik Platonek n aurkeztu zuen. Egitatean jatorri hori esentzial bakarra eta naturaren bidez gauzari ezarritakoa da. Estatuak ezin izan du ezein herrialdetan beste jatorririk izan, zeren sortze-mota horrek eta helburu horrek bakarrik bihurtu baitu Estatu; eta horretarako berdin dio herri determinatu bakoitzean aurretiko egoera basati independenteen multzoarena (anarkia) ala esklaboen multzoarena izan den, indartsuenak nahierara gobernatzeko zuena (despotia). Bi kasuetan artean ez zen Estaturik existitzen: bat-etortze komun haren bidez bakarrik sortzen da, eta gero bat-etortze hori gutxiago edo gehiago nahasturik

dagoen anarkiarekin edo despotiarekin, horrela beteginagoa edo ez-beteginagoa izango da Estatuak ere. Errepublikak anarkiarako joera dute, monarkiek despotiarakoa, eta horregatik monarkia konstituzionalen erdibide asmatuan fakzioen nagusitasunerako joera dago. Estatuak betegin bat oinarritzeko hasi beharko litzateke izakiak sortzetik, zeintzuei naturak erabat beren ongi propioa publikoari sakrifikatzen utziko bailieke. Bitartean hala ere zerbait lor daiteke familia bat existitzetik, zeinaren ongia herrialdearenetik guztiz bereiztezina baita; horrela gutxienez garrantzitsuenean batari ezingo baitzaio mesede egin besteari egin gabe. Horretan dautza monarkia hereditarioen indarra eta abantaila.

Moralak egite justu edo injustua eskusiboki kontuan hartzen badu eta injustiziarik ez egitea erabakita dagoenari bere egintzaren mugak zehazki izendatu ahal badizkio; alderantziz, estatu-doktrinak, legeegintzaren doktrinak injustizia sofritzea bakar-bakarrik hartzen du kontuan eta ez litzateke inoiz injustizia egiteaz kezkatuko, bere betiko korrelatu beharrezkoa denarengatik ez balitz, injustizia sofritzearengatik, zeina baita bere ikuspuntua, haren aurka lan egin behar duen etsaia bezala. Are injustizia egitea pentsatzerik balego, zeinarekin ezein injustizi sofritze beste alde batetik ez bailitzateke loturik egongo; Estatuak kontsekuenteki ez luke inola ere debekatuko. - Gainera, nola moralean nahimena, asmoa kontsiderazioaren objektua eta errealki bakarra den, injustizia egiteko nahimen finkoak, zeina kanpoko botereak eusten eta ez-eraginkor bihurtzen baitu, errealki egindako injustiziaren guztiz balio bera du, eta horrelakorik nahi duena injustutzat kondenatzen du bere epaile-aulkiaren aurrean. Aitzitik, Estatuak ez dute kezkatzen nahimenak eta asmoak horrelakoak diren heinean inola ere; baizik egitateak bakarrik (soilik entseiatuak edota burutuak) bere korrelatuarengatik, beste aldearen sofrimenduarengatik: beretzat egitatea, gertaera da errealki bakarra: asmoa, intentzioa, horretatik egitatearen esangura ezagutzen den heinean bakarrik ikertzen da. Horregatik, Estatuak ez dio inori debekatuko, erailketa eta pozoia beste baten aurka etengabe pentsamenduan eramatea, ziur dakien neurrian ezpata eta tormentuaren beldurak etengabe eragotziko dituela nahi izate horren efektuak. Estatuak ez dauka inola ere injustizia egiteko joera, asmo gaiztoa ezabatzeko plan burugabea ere; baizik injustizia bat egiteko motibo posible bakoitzaren alboan hura utzarazteko motibo nagusiago bat ezartzekoa ezinbesteko zigorrean: horren arabera zigor-kodea egintza kriminal ahalgarri, aurreikusi ahal izan diren guztientzako kontramotiboen erregistro ahalik eta beteginena da - biak in abstracto kasu bakoitza gertatzean erabilpena in concreto egiteko. Estatu-doktrina edo legeegintzak bere helburu horretarako moraletik mailegatuko du kapitulu hura, zeina zuzenbidea baita, eta zeinak zehatzak justizia eta injustiziaren arteko muga bien barneko esangurarekin batera determinatzen baititu, baina bakarrik eta soilik horien alderantzia erabiltzeko eta muga guztiak, moralak gaundiezintzat adierazten dituenak, injustiziarik egin nahi ez bada, beste aldetik inork gaunditzea jasan ezin litekeenaren mugak bezala kontsideratzeko, baldin eta injustizia sofritu nahi ez bada, eta zeinatik horrela besteak atzerarazteko eskubidea izaten baita: horregatik muga horiek ahal den eran alde pasibotik legeen bidez gotortu egiten dira. Hemendik ateratzen da, grazia handiarekin, historiografoari profeta alderantzikatua deitu zaion bezala, jurista moralista alderantzikatua dela, eta horregatik zuzenbidea zentzu propioan, h. d. eskubideen doktrina, zeina baieztatu baitaiteke, moral alderantzikatua, honek hautsi ezin daitezkeen eskubideak irakasten dituen kapitulu. Injustiziaren kontzeptua eta justiziaren bere ukapena, jatorriz morala dena, abiagune aktibotik pasibora bihurtuz juridiko bihurtzen da, hots,

inbertsioz. Horrek, Kanten zuzenbide-doktrinarekin, zeinek bere inperatibo kategorikotik Estatuaren eraikuntza betebeharrak moral baten gisa faltsuki deduzitzen baitu, gero azken garaiotan, behin baino gehiagotan eragin du estatua morala sustatzeko instituzioa delako errakuntza guztiz berezia, horretan ahalegintzetik sortu dela eta horregatik egoismoaren aurka zuzendurik dagoela. Barneko asmoa, zeinari bakarrik moralitatea edo immoralitatea baitagozkio, nahimen beti askea, kanpotik modifikatu eta eragite batez aldatzerik balego bezala! Absurduagoa da oraindik Estatua zentzu moralean askatasunaren eta horren bidez moralitatearen baldintza delako teorema: askatasuna agerpenaz haratago baitago, eta areago oraindik giza instituzioez haratago. Estatua, esan denez, egoismoaren aurka oro har eta horrelakoa den heinean hain gutxi dago zuzendua, nola bai alderantziz guztien egoismo komunak ongi ulertuz eta metodikoki jokatuz ikuspuntu aldebakarretik orokorrera jaso eta asumituz sortua baita, eta horiei zerbitzatzeko bakarrik existitzen da, moralitate hutsa, h. d. arrazoi moralengatik justuki jokatzea itxaron behar ez delako suposizio zuzenaren pean eraikia; bestela alferrikakoa izango litzateke. Inola ere ez egoismoaren aurka, baizik egoismoaren ondorio kaltegarrien aurka bakarrik, zeinak norbanako egoisten aniztasunetik elkarrekiko sortzen baitira eta horien ongizatea nahasten baitute, eta ongizate hori lortzeko helburuarekin dago eraikia Estatua. Horregatik dio jadanik Aristotelesek (3, 9). (GRIEGO) (Finis civitatis est bene vivere, hoc autem es beate et pulchre vivere.) [Estatuaren helburua ongi bizi izatea da, baina horrek esan nahi du, zoriontsu eta ederki bizi izatea.] Hobbesek ere Estatuaren jatorria eta helburua oso zuzen eta bikain azaldu ditu; estatu-ordena ororen axioma zaharrak hori adierazten duenez, . - Baldin eta Estatuak bere helburua osoki lortzen badu, asmoen zuzentasun osoa nagusituko balitz bezalako agerpen bera sortuko du. Bi agerpenen barneko esentzia eta jatorria alderantzizkoa izango da. Azken kasuan inork injustizia ez egin nahi izatea izango litzateke; aurrenekoan, berriz, inork injustizia sofritu nahi ez izatea eta helburu horretarako bitarteko egokiak osoki erabiliko lirateke. Horrela lerro hori bera noranzko kontrajarritatik deskriba daiteke: muturretakodun harraparia animalia belarjalea bezain kaltegabea da. - Baina Estatua ezin da puntu honetatik aurrerago igaro: ongizate eta maitasun orokor elkarrekikotik sortuko litzatekeen agerpenik ezin du erakutsi horrela. Zeren, jadanik aurkitu dugunez, inoiz ez luke debekatuko bere naturaren arabera injustiziarik, beste alde batetik injustizia sofritzerik ez legokiokkeenik, eta soilik, hori ezinezkoa delako, injustizia egite oro eragozten du; horrela alderantziz, guztien ongizatera zuzenduriko bere joeraren arabera, oso gogara arduratuko da era guztietako giza maitasunaren onginahi eta obra oro burutzeaz; baldin eta horiek ez balute ezinbesteko korrelatua egitate onak eta maitasun-obrak eragitean, zeinetan Estatuko hiritar orok eginkizun pasiboa hartuko bailuke aktiboaren orde, eta azken hori bati beste bati baino gehiago esleitzeko ez legoke batere arrazoirik. Horren arabera negatibokia bakarrik, eskubidea den hori, ez positibokia, maitasun-betebeharrak edo betebeharrak ez-betegin izenpean ulertu dena bakarrik ezar daiteke bortxaz.

Legegintzak, esan denez, moraletik mailegatzeko du zuzenbide hutsaren doktrina edo justukia edo injustukiaren izaera eta mugen doktrina, moralari arrotzak zaizkion bereak alderantzitara ezartzeko eta gero legegintza positiboa eta horren sustengua, h. d. Estatua eraikitzeko. Legegintza positiboa alderantzitara erabilitako zuzenbide-doktrina moral hutsa da. Erabilpen hori arretaz herri determinatu baten hartueman eta zirkunstantzia berekien arabera gerta daiteke. Baina, baldin legegintza positiboa esentzian erabat zuzenbide-doktrina hutsetiko gidaritzaren arabera determinatua izatea eta bere xedapen bakoitzerako zuzenbide-doktrina hutsean

oinarria hartzen badu, orduan da sortutako legegintza benetan zuzenbide positiboa eta Estatua itun legitimoa, estatua hitzaren zentzu propioan, instituzio moralki onargarria, ez inmorala. Kontrako kasuan, aitzitik, legegintza positiboa injustizia positibo baten oinarritzapena besterik ez da, injustizia bortxaz ezarri eta publikoki aitortua. Horrelakoa da despotia oro, erresuma mahomatar gehienen araubidea, eta horrelakoak dira halaber araubide askotako atal batzuk ere, adibidez, serbutza, petxerotza eta antzekoak. - Zuzenbide-doktrina hutsa edo natur zuzenbidea, hobeki: zuzenbide morala, nahiz eta inbertsioz, edozein legegintza juridiko positiboren hain oinarrian datza nola matematika hutsa aplikatuen edozein abarrenetan. Zuzenbide-doktrina hutsaren puntu garrantzitsuenak, filosofiak helburu horretarako legegintzari eskuratu behar dizkionez, honako hauek dira: 1. Barruko eta benetako esanguraren eta justua eta injustua kontzeptuen jatorriaren eta horiek moralean duten erabilpen eta kokagunearen azalpena. 2. Jabetza-eskubidearen dedukzioa. 3. Kontratuen baliozkotasun moralaren dedukzioa. 4. Estatuaren sorrera eta helburuaren azalpena, helburu horren moralarekiko harremanarena eta harreman horren ondorioz legegintzara inbertsioz egindako zuzenbide-doktrinaren beharrezko transmisioarena. 5. Zigor-zuzenbidearen dedukzioa. - Zuzenbide-doktrinaren gainerako erabilpena printzipio horien ezarpen soila da, justua eta injus

tuaren mugen determinazio zehatzagoa bizitzako harreman ahalgarri guztietarako, zeinak horregatik ikuspuntu eta titulu jakin batzuen azpian bildu eta sailkatzen baitira. Irakaspen berezi horiei dagokienez aski bat datoz zuzenbide hutsaren eskuliburuak: printzipioetan bakarrik agertzen dira oso desberdin; zeren horiek beti sistema filosofikoren batetiko dependentzian baitaude. Gurearen arabera lehen lau puntu nagusiak labur eta orokorki, hala ere determinatu eta argi aztertu ditugularik, orain era berean zigor-zuzenbidez hitz egitea geratzen zaigu.

Kantek Estatuaz kanpo jabetza-eskubide beteginik ez dagoelako baieztapen esentzian faltsua egiten du. Gure goiko dedukzioaren ondorioz natur egoeran ere badago jabetza eskubide natural betegin, h. d. moralekin, zeinak ez baitira injustiziarik gabe hausten, baina injustiziarik gabe azken muturreraino defenda baitaiteke. Aitzitik, ziurra da Estatuaz kanpo zigor-eskubiderik ez dagoela. Zigortzeko eskubide oro lege positiboak bakarrik oinarritzen du, zeinak hori gertatu aurretik zigor bat determinatu baitu, eta horren mehatxuak hura egiteko motibo guztien kontramotibo gisa balio handiagoa izan beharko luke. Lege positibo hori Estatuko hiritar guztiek santzionatu eta berrezagututzat hartu behar da. Horrela kontratu komun batean oinarritzen da, zeina betetzera zirkunstantzia guztietan, beraz zigorra ezartzera batetik eta hori pairatzera beste aldetik, Estatuko kideak beharturik baitaude: horregatik pairatzea zuzenbidez bortxagarria da. Ondorioz zigorraren helburu bitartegabea kasu partikularrean legea kontratu bat bezala betetzea da. Baina legearen helburu bakarra da inoren eskubideei kalte egitetik izutzea: zeren horrela injustizia sofritzetik guztiak babesturik egoteko, Estatuan batu, injustizia egiteari uko egin eta estatua sustengatzearen zama beren gain hartu baitituzte. Legea eta hori burutzea, zigorra, esentzian etorkizunera zuzendurik daude, ez iraganera. Horrek bereizten ditu zigorra eta mendekua, horietako azkena gertatuak soilik, horrela iraganak bere horretan motibatua baita. Injustiziaren konpentsazio oro, mina ezartzearen bidezkoa, etorkizunerako helbururik gabe mendekua da, eta ezin dezake beste helbururik izan, norberak eragindako inoren sofrimendua ikusteaz, norberak sofritutakoaz kontsolatzea baizik. Hori gaiztakeria eta krudelkeria da eta etikoki ez dago justifikatzerik. Norbaitek egin didan injustiziak ez dit baimenik ematen berari injustizia egiteko. Gaizkiaz gaizkia ordaintzea beste intentziorik gabe ez da morala ezta inolako arrazoi razionalez justifikatzekoa ere. Eta ius talionis zigor-eskubidearen azken printzipio autonomo gisa ezarria zentzugabea da. Horregatik da Kanten zigorraren doktrina errepresalia soilarengatik errepresalia erabat iritzi arrazoigabe eta aldrebesa. Eta hala ere, jurista askoren idazkietan agertzen da era guztietako esaldi dotoretan, esentzian hitzontzikeria hutsa baizik ez direnetan, adibidez: zigorraren bidez delitua kitatu edo neutralizatu eta ezabatu egiten da eta antzekoak. Ezein gizonek ez dauka epaile eta errepresaliatzaile moral huts bihurtzeko gaitasunik eta inoren egitate gaiztoak egiten dion minaren bidez zigortzeko, eta horregatik penitentzia ezartzeko. Aitzitik, hori uzi guztiz neurgabea litzateke; horregatik dio Bibliak: Baina gizakiak badu eskubidea gizartearen segurtasunaz arduratzeko: alabaina, hori bakarrik hitzak izendatzen dituen egintza guztiak mehatxatzearen bidez gerta liteke, mehatxaturiko zigorrak diren kontramotiboen bidez horiek makurraraziz: mehatxu hori betetzeaz bakarrik izan daiteke eraginkorra hala ere gertatzen den kasuan. Horren arabera zigorraren helburua edo zehatzago zigor-legearena delitutik larderiatzea dela horrela orokorki berrezaguturiko, are bere burua argitzen duen egia da, non Ingalaterran akusazio-formula (indictment) oso zahar batean adierazita baitago, zeinaz Koroaren fiskala baliatzen baita oraindik ere kausa kriminaletan. this be proved, you, the said N.

N., ought to be punished with pains of law, to deter others from the like crimes, in all time coming¹⁹. Printze batek justiziaz kondenaturiko gaizkile bati indultua eman nahi badio, bere ministroak hori eginez gero delitua laster errepikatuko dela berriro objektatu beharko dio. - Etorkizunerako helburuak bereizten ditu zigorra eta mendekua, eta hori zigorrak legea betetzeko burutzen bada bakarrik du, zeinak horrela etorkizuneko kasu guztietarako ezinbesteko bezala agertuz, legeari izutzeko indarra ematen baitio, eta horretan datza bere helburua. - Kantiar batek hutsik egin gabe jarriko luke objektzioa hemen, iritzi horren arabera gaizkile zigortua gisa erabilia izango litzatekeela esanez. Baina kantiar guztiek nekagaitz errepikatutako esaldi hori, esanguratsu ageri den esaldia da, baina eta horregatik, oso esaldi egokia da formula bat izan nahi dutenentzat gehiago pentsatu beharrik ez izateko; baina argitan kontsideraturik, proposizio guztiz lauso, zehazgabe eta bere asmoa oso zeharka lortzen duena da, eta kasu bakoitzerako bere erabilpenak azalpen, determinazio eta modifikazio bereziak behar ditu, baina horrela orokorrean harturik askieza da, esanahi gutxikoa eta arazotsua da gainera. Legearen ondorioz heriotzera kondenaturiko eraileak orain noski eta eskubide osoarekin bitarteko soiltzat erabilia izan behar du. Zeren segurtasun publikoa, Estatuaren helburu nagusia, nahastu egin baitu, are ezabatu egin baitu, baldin eta legea bete gabe gelditzen bada: berak, bere bizitzak, bere pertsonak legea betetzeko bitarteko bihurtu behar du orain eta horren bidez segurtasun publikoa berrezartzeko, eta hori egiten bada eskubide osoarekin egiten da estatu-kontratua betetzeko, zeina berak ere, estatuaren hiritar zen heinean, berretsi egin baitzuen, eta horren ondorioz, bere bizitzarako segurtasunaz, bere askatasunaz eta bere jabetzaz goatzeko, bere bizitza osoaren segurtasuna, bere askatasuna eta bere jabetza bahian ezarri baitzituen; bahi hori orain galdu egin da.

Hemen aurkeztu den zigorraren teoria arrazoimen osasuntsuari bitartegabe nabari zaiona esentzian ez da pentsamendu berria, baizik errakuntza berriek ia zanpatua, eta horregatik aurkezpen argienaren premian zegoena. Hori esentziaren arabera Pufendorf-ek 2. liburuan, cap. 13.ean dioenaren barruan dago. Hobbes ere bat dator horrekin: cap. 15 eta 28an. Gure egunotan ezaguna da Feuerbach borrokatu dela horren alde. Gainera, antzinateko filosofoen sententzietan ere aurkitzen da: Platonek argiro adierazten du en (114. or. editio Bipontini), baita en ere (168. or.), azkenik hamaikagarren liburuan (165. or.) Senekak Platonen iritzia eta zigor ororen teoria betegintzarrez adierazten du hitz gutxitan: (1,16).

Halaber, Estatuan ezagutu dugu arrazoimenaz armaturiko egoismoa bere buruaren kontra zuzentzen zaizkion ondorio txarrak saihesten ahalegintzeko bitartekoa, eta orain bakoitzak guztien ongizatearen alde egin behar du, zeren bere propioa horren baitan ikusten baitu. Estatuak bere helburua betegintzarrez lortuko balu, horrela nolabait, izan ere bertan bildutako giza indarren bidez gainerako izadia ere gero eta erabilgarriago bihurtzen baitaki, azkenik mota guztietako gaitzak kenduz, Pagotxamendiren antzeko egoera batera hurbildu ahal izango litzateke. Bakarrik alde batetik beti oso urrun gelditzen da xede horretatik; eta bestetik, bizitzari beti esentzial zaizkion ezin zenbatu ahal gaitz kenduko balira ere, azkenik horiek guztiek utzitako lekua aspertasunak beteko luke, lehen bezala gero ere sofrimenduari eutsiz; azkenik, norbanakoen arteko desakordioa ez litzateke Estatuaren bidez erabat ezabatuko, zeren txikian zirikatu egiten baitu, handian gaitzikusia dagoenak; eta azkenik barrutik zorionez botatako Eris kanpotik itzultzen da berriro: norbanakoen arteko liskar gisa Estatuaren instituzioak debekaturikoa, kanpotik herrien gerra bezala itzultzen da, eta handian eta kolpe batean erru metatu gisa sakrifizio odoltsua eskatzen du, arreta zuhurraren bidez partikularrean ezabatu zena. Demagun

hori guztia ere azkenik milaka urtek sustengaturiko esperientziaz gainditu eta baztertu egiten dela; amaiian planeta osoaren gainpopulatze erreala izango litzateke emaitza, zeinaren gaitz lazkarriak irudimen ausartak bakarrik irudikatu ahal izango baititu²⁰.

§ 63

Justizia denborazkoa, Estatuan bere egoitza daukana, konpentsatu eta zigortzen duena aztertu dugu, eta horrelakoa etorkizunarekiko ardurarengatik bakarrik dela justizia ikusi dugu; izan ere ardura hori gabe delituaren zigortze eta konpentsatze oro justifikaziorik gabe geldituko litzatekeela, are bigarren gaitz baten gehitze soil bihurtuko litzatekeela, zentzurik eta esangurarik gabe. Zeharo besterik gertatzen da justizia betikoarekin, zeina lehenago aipatu baita, eta zeinak ez Estatua baizik mundua gobernatzen baitu, gainera ez da giza instituzioekiko dependentea, ez dago ausa eta ilusioaren mendean, ez da ziurrez zabukari eta erratzen dena, baizik hutsezin, finko eta ziurra da. - Konpentsazioaren adigaiak denbora barnebiltzen du bere baitan: horregatik justizia betikoa ezin daiteke konpentsatzailea izan, ezin du geroratze eta epe jakinik ezarri eta, denboraren bitartez bakarrik egitate gaiztoa ondorio gaiztoaz konpentsatuz, ez du irauteko denborarik behar. Zigorrak hemen delituarekin hain loturik egon behar du, non biak bat izango baitira.

(GRIEGO)

Euripides,

Apud Stobaeum, 1 cap. 4.

(Volare pennis scelera ad aetherias domus

Putatis, illic in Iovis tabularia

Scripto referri; tum Iovem lectis super

Sententiam proferre? - sed mortalium

Facinora coeli, quantaquanta est, regia

Nequit tenere: nec legendis Iuppiter

Et puniendis par est. Est tamen ultio

Et, si intuemur, illa nos habitat prope.)

[Uste al duzue delituak hegaletan jainkoengana igotzen direla, eta han Zeusenean, norbaitek taulan idazten dituela, gero Zeusek irakurrita epai emateko? Zeru osoa ere ez litzateke behar bezain handi izango, gizakiaren bekatuak hartzeko, Zeusek han idatziko balitu, ezta haiek gainbegiratu eta bakoitzari bere zigorra banatzeko ere. Ez! Zigorra jadanik hemen da, ikusi nahi baldin baduzue behintzat.]

Horrelako justizia betiko bat errealki munduaren esentzian datzala, guk orain arte garatu dugun pentsamendutik guztiz nabari geratuko zaio jarraitu duenari.

Agerpena, bizitzeko nahimen baten objektitatea da, mundua bere atalen eta taxuen aniztasun guztian. Existentzia bera eta existentziaren mota, nola osotasunean hala atal bakoitzean, nahimenetik bakarrik dator. Askea da, ahalguztiduna da. Gauza bakoitzean agertzen da nahimena, hain zuzen ere bere burua bere baitan eta denboraz at determinatzen duena bezala. Mundua nahi izate horren ispilua besterik ez da: eta bere baitan dauzkan amaikortasun oro, sofrimendu oro, tormentu oro, nahi duen horren adierazpenari dagozkio, berak nahi duelako dira horrela. Beraz eskubide hertsienarekin darama izaki orok existentzia oro har, baita bere motaren eta bere indibidualitate berekiaren existentzia, osoki, den bezala, eta diren bezalako inguruabarretan, den bezalako mundu batean, ausak eta erroreak gobernatuak,

denboraren eta iraganaren mendean, beti sofrituz: eta gertatzen zaion guztian, are gerta lekiokkeen guztian, beti bidezkoa gertatzen zaio. Zeren nahimena baitu berea: eta nolakoa den nahimena, halakoa baita mundua. Existentzia eta mundu honen osaerarekiko erantzunkizuna berak bakarrik eraman dezake, ez beste inork; nola hartu nahi izango zuen bere gain? - Jakin nahi bada, moralki kontsideraturik, zer balio duten gizakiek osoan eta orokorrean; orduan bere zoria osoan eta orokorrean kontsidera bedi. Hori gabezia, miseria, deitorea, oinazea eta heriotza da. Justizia betikoa da nagusi: osoan harturik hain duineza ez balitz, orduan bere zoria, osoan harturik, ez litzateke hain tristea izango. Zentzu horretan esan dezakegu: mundua bera da mundu-auzitegia. Munduko deitore guztia balantzaren plater batean ezartzerik balego, eta munduko erru guztia bestean, orduan orratza bertikal geldituko litzateke.

Baina, jakina, ezagutzari ez zaio nahimenari bere zerbitzurako sortzen zaion bezala, norbanakoari horrelakoa den heinean mundua aurkezten, azkenik ikertzaileari desestaltzen zaion bezala, bizitzeko nahimen bat eta bakarraren objektitatea gisa, zeina hori bera baita; baizik norbanako gordinaren begirada, indiarrek diotenez, Maiaren beloak lausotzen du: berbaitango gauzaren orde zagerpena bakarrik azaltzen zaio denboran eta espazioan, principium individuationis-ean eta arrazoiaren printzipioaren gainerako taxueretan: eta bere ezagutza zedarrituaren forma horretan ez du ikusten gauzen esentzia, zeina bakarra baita, baizik horren agerpenak, aparteko, bereizi, zenbatezin, oso desberdin, are kontrajarri gisa. Orduan agertzen zaio atsegina gauza bat bezala eta oinazea zeharo bestelako bezala, gizaki hau borrero eta eraile gisa, beste hura pairatzaile eta biktima gisa, gaiztoa gauza bat bezala eta gaitza beste bat bezala. Bata pozean, oparotasunean eta atseginetan bizitzen ikusten du, eta aldi berean horren atzean bestea gabezia eta hotzez oinazetan hiltzen. Orduan galdetzen du: non dago konpentsazioa? Eta berak, nahimen-oldar suharrean, zeina bere jatorria eta bere esentzia baita, oratu egiten ditu bizitzako atseginak eta gozamenak, tinko eusten die, eta ez daki bere nahimenaren

egintza horren bidez bizitzako min eta tormentu guztiak, zeinak ikustearaz ikaratzen baita, atzeman eta bere buruaren kontra estutzen dituela. Gaitza ikusten du, gaiztakeria ikusten du munduan: baina aski urrundurik biak bizitzeko nahimen beraren agerpenaren alde desberdinak baizik ez direla ezagutzeko, oso desberdintzat hartzen ditu, are osoki kontrajarritzat eta sarritan gaiztakeriaren bidez, h. d. inori sofrimendua eragitearen bidez, norbanako propioaren gaitzari, sofrimenduari ihes egiten saiatzen da, principium individuationis-ean harrapaturik, Maiaren beloak bidez engainaturik. - Zeren itsaso asaldatuan, alde guztietara mugarik gabe, orroka urezko mendiak jaso eta eraisten dituenean, txalupa batean ontzizaina eserita dagoen bezala, bere ontzi ahulaz fidaturik; horrela dago eserita tormentuz beteriko mundu batean lasai gizaki partikularra, principium individuationis-aren euskarri eta konfiantzarekin edo norbanako gisa gauzak berrezagutzeko daukan eran, agerpen gisara. Mundu mugagabea, sofrimenduz betea nonahi, amaigabeko iraganean, amaigabeko etorkizunean arrotz zaio, are ipuin ere bai: bere pertsona kaxkarra, bere presente hedaduragabea, aldiuneko bere ongizatea, horrek bakarrik du errealtatea beretzat: eta hori kontserbatzeko egiten du dena, ezagutza hobeak begiak irekitzen ez dizkion bitartean. Une hori arte bere kontzientziako sakonera barnekoenean bakarrik bizi da hori dena benetan guztiz arrotz ez zaion aieru ilun bat, baizik eta horrekin halako elkarlotura bat baduela, zeinatik principium individuationis-ak ezin baitu babestu. Aieru horretatik dator izudura ezabaezina eta gizaki guztiek (agian animalia zuhurrenek ere bai) komunean dutena, horiek supituki menderatzen dituen, nolabaiteko halabeharrez errebelaturik aurkitzen direnean principium individuationis-ean, arrazoiaren printzipioak bere taxueretakoren batean salbuespen bat jasaten duela dirudienean: adibidez, kausarik gabeko aldaketaren bat gertatu dela dirudienean edo hildakoren bat berriro agertu dela edo nolabait iragan edo etorkizuneko presenten edo urruneko hurbil egin dela. Horrelako zerbaiten gainean oinarritzen da izulaborri eskerga, supituki agerpenaren ezagutza-formez zalantzan jartzen baita, zeinek bakarrik eusten baitiote berezirik bere norbanako propioari gainerako mundutik. Baina apartatze hori agerpenen bakarrik dago eta ez berbaitango gauzan: horretan datza halaber justizia betikoa. - Egitatean zorion denborazko guztia dago eta zuhurtzia guztia dabil - lurtzoru azpijandakoaren gainean. Horiek babestu egiten dute pertsona ezbeharretatik eta gozamenak sortzen dizkiete; baina pertsona agerpen soila da, eta beste norbanakoekiko bere desberdintasunak eta horiek jasaten duten sofrimendutik aske izateak agerpenaren forman hartzen du atsedena, principium individuationis-ean. Gauzen egiazko esentziaren arabera, bakoitzak munduaren sofrimendu guztiak bere bezala kontsideratu ditu, are guztiak ahalgarri gisa beretzat erreal bainoago, bera bizitzeko nahimen finkoa den, h. d. berak indar guztiarekin bizitza baieztatzen duen heinean. Principium individuationis-az haratago begiratzen duen ezagutzarentzat bizitza zoriontsu bat denboran, halabeharrez opari eginga edo zuhurtziaren bidez hari irabazia, beste ezin zenbatu ahal sofrimenduren artean - eskale baten ametsa besterik ez da, zeinean bera errege baita, baina zeinatik itzartu egin behar baitu, ilusio iragankor batek bere bizitzako sofrimendutik bereizi duela jakiteko.

Arrazoiaren printzipioari jarraitzen zaion ezagutzari, principium individuationis-ean harrapaturiko begiradari ihes egiten dio justizia betikoak: erabat huts egiten dio, baldin eta fikzioen bidez salbatzen ez badu. Gaiztoa era guztietako txarkeria eta krudelkerien arabera pozik bizitzen ikusten du, eta inork eraso gabe mundutik alde egiten ikusten du. Zapaldua sofrimenduz beteriko bizitza bat azkeneraino arrastaka eramaten ikusten du, mendekatzaille bat, konpentsatzaile

bat azaldu gabe. Baina justizia betikoa soilik ulertu eta kontzebituko du arrazoiaren printzipioaren gida-harian haien gainetik aurrera eginez eta gauza partikularrei loturiko ezagutzatik goratzen denak, ideiak berrezagutu, principium individuationis-az haratago begiratu eta berbaitango gauzari agerpenaren formak ez dagozkiola konturatzen bada. Hori bakarrik da ezagutza horren berorren indarrez bertutearen egiazko esentzia uler dezakeena ere, oraingo kontsiderazioarekiko elkarloturan laster azalduko zaigunez; hala ere, hori egiteko in abstracto ezagutza hori ez da inola ere beharrezko. Horrela aipaturiko ezagutzara iritsi denari argi geratuko zaio, nahimena agerpen guztien berbaitangoa delako besteei eragindako eta norberak jasandako tormentua, gaiztakeria eta gaitza beti esentzia bakar eta berari dagozkiola; nahiz eta agerpenetan, zeinetan bata eta bestea aurkezten baitira, norbanako guztiz desberdin gisa eta urruneko denbora eta espazioen bidez bereizirik egon. Ulertzen du sofrimendua eragiten duenaren eta hura jasan behar duenaren arteko desberdintasuna fenomenoa bakarrik dela eta ez duela berbaitango gauzarekin zerikusirik, zeina bietan bizi den nahimena baita, zeinak hemen, bere zerbitzuan lorturik ezagutzaren bidez engainatu, bere burua ez ezagutu, bere agerpenetako batean ongizate jasoagoa bilatuz, bestean sofrimendu handia sortzen baitu, eta horrela oldar suharrean bere haragi propioan sartzen baititu hortzak, beti bere burua zauritzea besterik ez duela egiten jakin gabe, horretara indibiduazioaren bitartez bere buruarekiko kontrakarra, bere barruan daramana agerian jarritz. Tormentatzaile eta tormentatua bat dira. Hark huts egiten du honen tormentuan ez duela esku hartzen sinetsiz, eta honek haren erruan ez duela esku hartzen sinetsiz. Biei begiak irekiko balitzaizkie sofrimendua eragiten duenak berrezagutuko luke mundu zabalean tormentua sofritzen duen guztian bizi dela eta, arrazoimenaz horniturik, alferrik gogoeta egiten duela ea zergatik izan den deitua existentziara hain sofrimendu handietarako, zeinen zorpetzea ez baitu ulertzen: eta tormentatuak ulertuko luke munduan egiten den eta garai batean egin zen gaiztakeria guztia nahimen hartatik isurtzen dela, zeinak bere esentzia eratzen baitu eta bertan agertzen dela eta agerpen horren eta bere baieztapenaren bitartez sofrimendu guztiak bere gain hartu dituela, zeinak nahimen horretatik sortu eta justiziaz pairatzen baititu, bera nahimen hori den bitartean. - Ezagutza horretaz mintzo da Calderón poeta aierutsua obran:

Pues el delito mayor
Del hombre es haber nacido.
[Gizakiaren deliturik handiena,
jaio izana baita.]

Nola ez da krimen bat izango, baldin eta lege betiko batek heriotzera kondenatzen badu? Calderónek jatorrizko bekatuaren dogma kristaua adieraztea besterik ez du egin bertso horren bitartez.

Justizia betikoaren, malum culpae bereiztezinki malum poenae-rekin lortzen duen balantzaren ezagutza biziak erabat goratzea eskatzen du indibidualitatearen eta bere ahalgarritasunaren printzipioaren gainetik: horregatik beti iristezin geratuko zaie gizaki gehienei, horrekin ahaideturik dagoen eta laster aztertuko dugun bertute guztien esentziaren ezagutza huts eta argia bezalaxe. - Horregatik indiar herrien lehen guraso jakintsuek hiru kasta birjaioetan bakarrik baimenduriko Vedetan edo jakituria-doktrina esoterikoan zuzenean, adigaiak eta hizkuntzak hori kontzebitu eta bere aurkezpen-era beti figuratu ez ezik rapsodikoak baimentzen duen neurrian adierazi zuten; baina herri-erlijioan edo doktrina exoterikoan mitikoki bakarrik komunikatu da. Aurkezpen zuzena Vedetan, giza ezagutza eta jakituria gorenaren fruituan aurkitzen dugu, zeinaren muina Upanishad-etan mende honetako oparirik

handiena bezala azkenik iritsi baitzaigu, batez ere ikaslearen begiradaren aurrean munduko izaki guztiak, bizidunak eta bizigabeak, ilaran pasarazi baitira, eta horietako bakoitzaren gain formula bihurturiko eta horrelakoa den heinean Mahavakya deitu zaion hitza adierazi da: 21, zuzenago, 22, hau da, . - Baina herriari egia handi hura, bere zedarritutasunean kontzebi zezakeen neurrian, arrazoiaren printzipioari darraion ezagutza-eran itzuli egin zitzaion, zeinak bere izaeraren arabera egia hura hutsik eta bere baitan ezin baitu inola ere hartu, erabateko kontraesanean baitago berarekin bakarrik mitoaren forman haren subrogatu batean jaso baitzuen, egintzaren araugarri gisa aski zelarik, horren esangura etikoa, zeinean bere buruarentzat beti arrotza den ezagutza-era hori arrazoiaren printzipioaren arabera, aurkezpen irudizkoaren bidez atzemangarri bihurtzen baitu; hori da fededoktrina guztien helburua, izan ere guztiak giza gogamen arruntarentzat egia erdietsezin direnen jantzidura mitikoak baitira. Zentzu horretan mito hura, Kanten mintzairan, arrazoimen praktikoaren postulatu ere dei liteke: baina alde horretatik kontsideraturik abantaila handi bat du, bere baitan elementurik ez izatearena, errealtatearen erresuman gure begien aurrean daudenak bezalakorik, eta horregatik bere adigai guztiak begiespenekin euskarritu ahal izatearena. Hemen aipatzen dudana arima-migrazioaren mitoa da. Horrek irakasten du beste izaki batzuei bizitzan zehar eragiten zaizkien sofrimendu guztiak, ondorengo bizitza batean mundu honetan bertan sofrimendu horien berorien bidez pekatu behar direla; animalia bat bakarrik hiltzeraino iristen dena, behin denbora amaigabean animalia hori bezala jaioko dela eta heriotza hori berori pairatu beharko duela. Horrek irakasten du portaera gaiztoak beregana ekartzen duela etorkizuneko bizitza bat mundu honetan izaki sofritzaile eta arbuaiatuengan, horren arabera gero kasta beheretan berriz jaiotzen dela edo emakume edo animalia gisa, paria edo txandala gisa, lepradun gisa, krokodiko gisa eta abar. Mitoak mehatxu egiten dituen tormentu guztiak mundu errealetik ateratako begiespenekin euskarritzen ditu, beren tormentua nola zorpetu duten ez dakiten izaki sofritzaileen bitartez, eta ez du beste ezein infernuren laguntzarik hartu behar. Saritze gisa agintzen du kontrara taxu hobe, nobleagoetan berriz jaiotzea, brahman gisa, jakintsu gisa, santu gisa. Saritzerik gorena egitaterik nobleenak eta etsipen beteak itxaroten daukatena, zeina zazpi bizitzatan hurrenez hurren nahita senarraren sutean hil den emazteari ere baitagokio, ez gutxiago inoiz bere aho garbitik gezurrik adierazi ez duen gizakiari, saritze hori mitoak mundu honetako hizkuntzan negatiboki bakarrik adieraz dezake, berriro ez jaiotzearen hainbestetan egindako agintzariaren bidez: [ez duzu berriro existentzia itxurazkoa zeureganatuko], edo budistek, ez Vedei eta ez kastei baliorik ematen ez dietenek adierazten duten bezala:

Inoiz ez da mito bat eta inoiz ez da gerturago hurbilduko egia filosofiko hain erdietsezinetara, nola herri zaharren eta nobleenaren doktrina antzina-antzinako hau bezala, zeinean, nahiz eta orain alde askotatik hain endekaturik egon, herri-fede orokorrean nagusi baita eta bizitzan eragin erabakigarria baitu, gaur orain lau mila urte bezala. Aurkezpen mitikoaren non plus ultra hori Pitagorasek eta Platonek harrimenarekin atzeman zuten, Indiatik edo Egiptotik transmititurik, gurtu, erabili eta, ez dakigu noraino, sinetsi ere bai. Aitzitik, guk orain clergymen ingelesak eta moraviar komunitateko ehuleak bidaltzen dizkiegu brahmanei errukiz haiei zerbait hobe irakasteko, hutsetik sortuak direla eta esker onez poztu behar dutela horregatik. Baina bala bat harkaitzaren kontra jaurtitzen duenarena gertatzen zaigu. Indian gure erlijioak ez dira errotzen eta ez dira errotuko ere: giza arrazaren lehen jakituria ez dute Galileako gertaerek alboratuko. Aitzitik, indiar jakituria

berriro Europara jariatzen ari da eta oinarritzko eraldakuntza burutuko du gure jakite eta pentsatzean.

§ 64

Baina justizia betikoaren gure aurkezpen ez mitiko, baizik filosofikotik egintzaren eta kontzientziaren esangurazkotasun etikoaren horrekin ahaideturiko kontsiderazioetara igaro nahi dugu orain, zeina haren ezagutza sentitu soila baita. - Bakarrik puntu honetan aldeaz aurretik giza izaeraren bi berekitasun oharrarazi nahi ditut, zeinek lagun baitezakete argitzen nola bakoitzari justizia betiko haren esentzia eta nahimenaren batasuna eta identitatea bere agerpen guztietan, zeinak baitauzka euskarritzat, gutxienez sentimendu ilun gisa kontziente zaizkion. Estatuak zigorrean duen aipaturiko helburutik guztiz independente, zeinak oinarritzen baitu zigor-zuzenbidea, gogobetetasuna ematen dio, egitate gaizto bat gertatu denean, ez irainduari bakarrik, gehienetan mendeku-irrikaz animaturik dagoenari baizik edozein begiratzaile guztiz interesgaberik, beste bati mina eragin dionak berak ere minaren neurri bera sofritzen duela bere aldetik ikusteak. Niri iruditzen zait honetan justizia betiko haren kontzientzia baizik ez dela mintzo, zeina argituriko zentzutik gaizki ulertu eta faltsutu egiten baita bitartean principium individuationis-ean harrapaturik adigaiaren anfibolia bat burutzen baita eta agerpenari eskatzen dio berbaitango gauzari bakarrik dagokiona, ez duela ulertzen, noraino beren baitan iraintzailea eta iraindua bat eta izaki bera diren, bere agerpen propioan, bere burua ez berrezagutuz tormentua eta errua jasaten dituen; baizik areago eskatzen duela errua duen norbanako berarengan tormentua ere berriz ikustea. - Horregatik eskatuko lukete gehienek gaiztakeria-gradu oso garaia duen gizaki batek, zeina bera askotan, bakarrik ez beste gaitasun batzuekin beragan bezala parekaturik aurki litekeelarik, espiritu-indar ezohikoen bitartez besteen aldean oso gaineratik legokeelarik, eta zeinak horien ondorioz ezin esanezko sofrimenduak beste milioikari eragin bailiezaizkieke, adibidez, konkistatzaile gisa - eskatuko lukete, diot nik, horrelakoak sofrimendu horiek guztiak noizbait eta nonbait minen neurri berdinen bidez pekatzea; ez baitute berrezagutzen, nola beren baitan tormentatzailea eta tormentatua nahimen bat eta bera diren, zeinaren bidez horiek existitu eta bizitzen baitira, eta gainera gertatzen da horretan agertzen dena eta hain zuzen horren bidez bere izatea agerian jartze argieneraino iristen baita, eta zeinak era berean zapalduengan bezala, zapaltzailearengan ere sofritzen baitu, eta egiaz horrengan gehiago kontzientziak klarutasun eta argitasun handiagoa eta nahimenak suhar handiagoa duen neurrian. - Baina principium individuationis-ean harrapatu gabeko ezagutza sakonagoak, zeinatik bertute eta arima-handitasun oro sortzen baita, konpentsatze hura eskatzen duen pentsaera ez duela zirikatzen, etika kristauak testigatzen du, zeinak uko egiten baitio gaiztoa gaiztoaz konpentsatze orori eta justizia betikoari agerpenaz bestelako berbaitango gauzaren eremuan nagusi izaten uzten baitio (: Errom 12, 19).

Bada giza izaeran ezaugarri askozaz txundigarriago baina halaber bakanago bat, zeinak eskatze hura, justizia betikoa esperientziaren, h. d. indibiduazioaren, eremura erakartzekoa adierazten baitu, eta horrenbestez aldi berean kontzientzia sentitu bat erakusten baitu, goian adierazi dudanez, bizitzeko nahimenak tragedia eta komedia handia burutzen duela bere kontura eta nahimen bat eta bera bizi dela agerpen guztietan, horrelako ezaugarri bat, diot nik, ondorengo hau da. Ikusten dugu batzuetan gizaki bat berak jasan izan duen edo lekuko gisa bizi izan duen makurkeria

handi baten aurrean, hainbestearaino asaldatu dela, non bere bizitza propioa jakinaren gainean eta salbamenik gabe arriskuan jartzen duela, doilorkeria haren egilearen lepotik mendekua hartzeko. Ikusten dugu urte luzetan agian zapaltzaile ahaltsu baten atzetik, azkenean hura erailtzeko eta gero bera urkabeen hiltzeko, aurreikusitako duen, baina askotan saihestea bilatu ez duelarik, bere bizitzak mendekurako bitarteko gisa beretzat balioa izan duelarik. - Batez ere espainiarren artean aurkitzen dira horrelako adibideak²³. Konpentsazio-irrika horren espiritua zehatz kontsideratzen badugu, horrela oso bestelako aurkitzen dugu mendeku arruntaren aldean, zeinak jasandako sofrimendua eragindakoa ikusteaz ibitu nahi baitu: are aurkitzen dugu berak helburutzat duenak ez duela hainbeste merezi mendeku deitzerik, zigor baizik: zeren horretan bai baitago etorkizunean eragina izateko asmoa adibidearen bitartez, eta zinez hemen norberarentzako etekinezko helbururik gabe ez mendekua hartzen duen norbanakoarentzat, zeren horretan bizia galtzen baitu, ezta gizartearentzat, zeinak legeen bitartez bere segurtasuna sortzen baitu: zeren zigor hura partikularrak burutua baita, ez Estatuak lege bat betetzeko, areago beti du zerikusia Estatuak zigortu nahi ez zuen, edo ezin zuen, eta zeinaren zigorra gaitzesten baitzuen egitate batekin. Niri iruditzen zait horrelako gizaki bat bere buruarenganako maitasunaren gainetik hain urrunera eramaten duen sumina, kontzientziarik sakonenetik sortzen dela, hori izaki guztietan, denbora guztietan zehar agertzen den bizitzeko nahimen osoa bera dela, zeinari horregatik bai etorkizunik urrunekoena eta bai presentea era berean dagozkiola eta ezin dela axolagabe izan: nahimen hori baieztatzat, eskatu egiten duela oraindik, bere izatea aurkezteari ari den ikuskizunean, inoiz gehiago ez dadila halako makurkeria eskergarik ager, eta mendeku baten adibidearekin, zeinaren aurka ez baitago inolako babes-hormarik, mendekatzailleak heriotzaren beldurrak ikaratzen ez duenez gero, etorkizuneko doilorkume oro izuarazi nahi duela. Bizitzeko nahimena, nahiz eta bere burua baieztatzat, ez da hemen jadanik agerpen partikularrarekiko, norbanakoarekiko dependente, baizik gizakiaren ideia besarkatzen du eta garbi eutsi nahi dio bere agerpenari horrelako basakeria eskerga eta asaldarazleetatik. Karakter-ezaugarri bakan, esanguratsu, are bikaina ere bada, zeinaren bitartez partikularrak bere burua sakrifikatzen baitu, justizia betikoaren beso bihurtzeko ahaleginean, zeinaren egiazko esentzia ez baitu oraindik ezagutzen.

§ 65

Giza egintzari buruzko orain arteko gure kontsiderazio guztien bidez azkena alde aurretik prestatu eta eginkizuna asko erraztu dugu, egintzaren benetako esangura etikoa, zeina bizitzan on eta gaizto hitzen bidez izendatzen baitugu, eta horrela ezin hobeki ulertzen baitugu argitasun abstraktu eta filosofikora jasotzea eta gure pentsamendu nagusiaren atal gisa erakustea.

Baina aurrena on eta gaizto adigai horiek, gure garaiotako idazle filosofikoek oso era harrigarrian sinpletzat, eta horrela inolako analisirako gai ez diren adigai gisa tratatzen dituzten horiek, beren benetako esangurara berrerraman nahi ditut; nolabait ilusio lauso batean harrapaturik ez gelditzeko, beren baitan errealki daukatena eta hemen beharrezko guztia jada esandakoa baino gehiago dutelakoan. Hori egin dezaket on hitzaren atzean neure burua ezkutatzeko asmorik ez dudalako, lehenago eder eta egiazko hitzen atzean ere egin ez nuen bezala, gero bat eranstea, gaur egun halako (GRIEGO) [solemnitate] berezi bat baitaukate eta kasu batean baino gehiagotan ihesbidea eskaintzen baitute, eta itxura solemnea hartuz sinetsarazteko

hiru hitz horiek adieraztean gehiago egin dudala hiru adigai oso zabal eta abstraktu esatea baino, ondorioz eduki batere aberatsekoak ez direnak izendatuz, zeinek jatorri eta esangura oso desberdinak baitituzte. Gure egunotako idazkiak egitatean ezagutzen dituenarentzat, ez al dira hiru hitz horiek, nahiz eta jatorriz hain gauza bikainak adierazi, nazkagarri bihurtu, milaka aldiz ikusi behar izan dutelarik, nola pentsatzeko gaitasunik gutxiena duenak uste izaten duen ahoa zabalik eta ardi suhartu baten itxurarekin hiru hitz horiek aipatu behar dituela jakituria handiko zer bait esateko?

Egiazko adigaiaren azalpena kap. 5, § 29 hh. tratatuan jadanik emana dago. Eder adigaiaren edukia gure hirugarren liburuaren bidez behar bezalako azalpena hartuta dago jadanik. Orain on adigaia bere esangurara berreraman nahi dugu eta oso gutxirekin egin daiteke hori. Adigai hori esentzian erlatiboa da eta nahimenaren edozein ahalegin determinaturekiko objektu baten egokitasuna izendatzen du. Horrela bere kanporatzeetako edozeinetan nahimenari komeni zaiona, bere helburua betetzen duena, hori pentsatzen da on adigaiaren bidez, gainerakoan oso desberdinak izan daitezkeelarik ere. Horregatik esaten dugu: jateko ona, bide ona, eguraldi ona, arma onak, augurio ona eta abar, labur esateko, on deitzen diogu nahi dugun bezalakoa den guztiari; horregatik batarentzat ona izan daiteke, beste batentzat zeharo horren kontrakoa dena. Ongiaren adigaia bi azpimotatan banatzen da: bitartegabe presentean aldiko nahimena gogobetetzen duena, eta bitartedunki, etorkizunera bakarrik iristen dena, h. d. atsegina eta utila. - Kontrakakoaren adigaia, ezagutzen ez duten izakiez ari garelarik, txar (schlecht) hitzaz adierazten da, eta bakanago eta abstraktuago ezbehar (übel) hitzaz, zeinak nahimenaren aldiko ahaleginari ez dagokiona izendatzen baitu. Beste gainerako izaki guztiak bezala, zeinak nahimenarekiko harremanean sar baitaitezke, gizakiei ere on deitu zaie, nahi izan diren helburuen aldeko, faboragarri, begiko zirenei, adibidez honako esamoldean: adierazten duen esangura berean eta beti erlatibokiari eutsiz. Baina beren karakterrak eraman dituenak oro har inoren nahimen-ahaleginak bere horretan ez eragotzera, baizik horien alde jokatzera, horrela erabat laguntzeko prest egoten direnak, onginahitsu, adiskidekor, ongile izan direnak, beren egintza-erarekiko harreman horregatik gizaki on deitu izan dira. Adigai kontrajarria alemanez izendatzen da, baita frantsesez ere duela zenbait ehunka urte, izaki ezagutzaileengan (animalia eta gizakiengan) ezagutzagabeengan ez bezalako hitz batez, hots, böse, méchant-en bidez, ia beste hizkuntza guztietan desberdintasun hori aurkitzen ez delarik eta (GRIEGO), malus, cattivo, bad nola gizakiez hala gauza bizigabeez erabiltzen baita, nahimen indibidual determinatu baten helburuen aurkakoak direnean. Horrela ongiaren atal pasibotik erabat abiaturik, kontsiderazioa gero aktibora igaro ahal izan da, eta on deituriko gizakiaren egintza-era ez besteekiko hartuemanen, baizik bere baitan aztertu ahal izan dugu, bereziki azalpena emanez bai errespetu objektibo hutsarena, zeinak besteengan, bai berekizko gogobetetze bere buruarekiko, zeina berarengan agerian jarri baita, izan ere hori beste mota bateko sakrifizioez erosi baitu; halaber barneko minaren kontrakoa, asmo gaiztoa laguntzen duena, horrela asko izanik ere zaintzen dituenari ekartzen dizkion kanpoko abantailak. Honetatik sortu ziren sistema etikoak nola filosofikoak, hala fede-doktrinatan euskarrituak.

Biek bilatzen dute beti dohatsutasuna bertutearekin nolabait loturan ezartzea, lehenek edo kontraesanaren printzipioaren bidez edo arrazoiarenez, dohatsutasuna bertutearekiko identiko edo ondorio bihurtzeko, sofistaki beti: bigarrenak, berriz, esperientziaz ahalgarri denaz bestelako beste mundu batzuen baieztapenaren bitartez²⁴. Aitzitik, gure kontsiderazioaren arabera bertutearen barneko esentzia

agertzen da dohatsutasunaren, h. d. ongizatearen eta bizitzaren guztiz kontrajarritako norabideko ahalegintze gisa.

Goragokoaren ondorioz ongia bere adigaiaren arabera (GRIEGO) [bata bestearekiko baliodun], horrela ongi oro esentziaz erlatiboa da: zeren bere esentzia desiratzen duen nahimen batekiko harremanean baitu. Ongi absolutua, beraz, kontraesan bat da: ongi gorena, summum bonum, gauza bera esan nahi du, hots, nahimenaren azken gogobetetze bat, zeinaren ondoren ez bailitzateke nahi izate berririk agertuko, azken motibo bat, zeinaren lorpenak nahimenaren asetze suntsiezin bat emango bailuke. Gure orain arteko kontsiderazioaren ondoren laugarren liburu honetan horrelako zerbait pentsaezina da. Nahimenari hain ezinezko zaio nolabaiteko gogobetetze baten bitartez beti berriro nahi izateari uztea, nola denborari amaitu edo hasi ahal izatea: ez dago bere ahalegintzea betiko eta erabat asetzen duen betekuntza iraunkorrik berarentzat. Danaiden upela da: ez dago ongi gorenik, ongi absoluturik berarentzat; baizik aldiune batekoak beti. Baina nahi izango bagenu antzinako esamolde bati, erabat ohituraz at utzi nahi izan ez denari nolabait emeritus gisa ohore-betekizun bat eman; orduan era tropiko eta irudizkoan, nahimenaren autoezabatze eta ezeztapen osoari, egiazko nahimengabeziari, nahimen-oldarra betiko gelditu eta isiltzen duena bezalakoa, gogobetetasuna ematen duen bakarra, berriro suntsi ezin daitekeena, mundua salbatzen duen bakarra, eta orain gure kontsiderazioaren bukaeran berehala tratatuko duguna - ongi absolutua, summum bonum deitu eta gaixotasunaren sendabide erradikal bakartzat har dezakegu, zeinaren kontra beste ondasun guztiak, hots, desira bete guztiak eta lortutako zorion guztiak ibigarriak, anodyna²⁵ besterik ez baitira. Zentzu horretan grekozko (GRIEGO) hobeki dagokio gaiari, finis bonorum [ongi gorena] ere bezala. - Aski da on eta gaizto hitzei buruz aritzeaz; orain goazen gaira.

Baldin eta gizaki batek, abagunea sortu bezain laster eta kanpoko ahalmen batek eragozten ez badio, beti injustizia egiteko joera badu, horrelakoari gaizto deitzen diogu. Injustiziaren gure azalpenaren arabera, horrek esan nahi du horrelakoak ez duela bizitzeko nahimena, bere bizitzan agertzen denez, baieztatzen bakarrik; baizik baieztapen horretan hain urrunera doala, non beste norbanakoengan agertzen den nahimena ezeztatzen duela; eta horretan azaltzen da haien indarrak bere nahimenaren zerbitzurako eskatzen dituela eta horien existentzia ezabatzen saiatzen dela, bere nahimenaren ahalegintzeen aurka jartzen direnean. Horren azken iturburua egoismoaren gradu garai bat da, zeinaren esentzia gorago aztertu baitugu. Bi gauza jartzen dira hemen agerian: lehenik, horrelako gizaki batengan bere bizitza propioaren baieztapenaren gainetik askozaz haratago doan bizitzeko nahimen guztiz suhar bat adierazten dela; eta bigarren, bere ezagutza, arrazoiaren printzipioari osoki emana eta principium individuationis-ea harrapatua, finko gelditzen dela bere pertsona propioaren eta beste guztien artean azken bi horiek ezarritako desberdintasun erabatekoa; horregatik berak bere ongizate propioa bakarrik bilatzen du, guztiz axolagabe beste guztiekiko, zeinen izaera erabat arrotz zaiolarik, amildegi batez beretik bereizirik, are inolako errealitaterik gabeko larbatzat bakarrik benetan jotzen dituelarik. - Eta bi gaitasun horiek dira karakter gaiztoaren oinarri-elementuak.

Nahi izatearen suhartasun handi hori da orain bere baitan eta beretzat eta bitartegabe sofrimenduaren iturburu etengabea. Lehenik, nahi izate oro horrelakoa den heinean gabeziatik, hots, sofrimendutik, sortzen da. (Horregatik da, hirugarren liburutik gogorarazi behar denez, nahi izate ororen aldiune bateko isiltzea, zeina gertatzen baita, ezagutzearen subjektu nahimengabe huts gisa [ideiaren korrelatu]²⁶ kontsiderazio estetikoan murgiltzen garen bezain laster, jadanik ederkiko pozaren

osagai nagusi bat.) Bigarren, gauzen elkarlotura kausalaren bidez desirarik gehienek bete gabe gelditu behar dutenez gero eta nahimena kontrakartua betea baino askozaz sarriago izaten denez gero, ondorioz horregatik nahi izate suhar eta ugariak beti sofrimendu suhar eta ugariak izaten ditu berekin. Zeren sofrimendu oro ez baita nahi izate betegabe eta kontrakartua besterik: eta gorputzeko mina bera ere, zauritua edo suntsitua denean, soina objektu bihurturiko nahimena bera izatearen bitartez bakarrik da ahalgarri. - Horregatik, sofrimendu ugari eta suharra nahi izate ugari eta suharretik bereiztezina delako darama oso gizaki gaiztoen aurpegi-adierazpenak barneko sofrimenduaren marka: nahiz eta kanpoko zorion guztia lortuta eduki, dohakabe itxura izaten dute beti, aldiuneko gozamenak harrapatua edo disimulatzen ez badago. Berari bitartegabe esentziala zaion barneko tormentu horretatik sortzen zaio azkenik egoismo soiletik ez, baizik beretzat etekinik gabea duen inoren sofrimenduarengatik poza, zeina benetako gaiztotasun eta krudeltasuneraino areagotzen dena baita. Horrentzat inoren sofrimendua ez da nahimen propioaren helburuak lortzeko bitartekoa, baizik berbaitango helburua. Fenomeno horren azalpen zehatzagoa ondorengo hau da. Gizakia nahimenaren agerpen delako, ezagutzarik klaruenak argitua, bere nahimenaren gogobetetasun erreala eta sentitua beti ezagutzak erreserbatzen dion ahalgarri soilarekiko neurtzen du. Hortik sortzen da inbidia: gabetze oro amaigabeki areagotzen da inoren gozamenaren bidez eta arindu egiten da beste batzuek gabetze bera pairatzen dutela jakitearen bitartez. Denei komunak zaizkien eta giza bizitzatik bereiztezinak diren gaitzek gutxi nahigabetzen gaituzte: ezta klimari, herrialde osoari dagozkionek ere. Gureak baino handiagoak diren sofrimenduen oroitzapenak baretu egiten du horien mina: inoren mina ikusteak ibitu egiten ditu norberarenak. Baldin eta gizaki bat nahimen-oldar guztiz suhar batez beterik badago, irrits kixkalgarriarekin atzeman nahiko luke, egoismoaren egarria hozteko, eta horretan, beharrezkoa denez jakin behar du gogobetetze oro itxurazkoa besterik ez dela, lortutakoak ez duela egiten, desiratuak agindutakoa, hots, nahimen-oldar amorratuaren baretze amaieraduna; baizik desira betetzearen bitartez bere taxua aldatu besterik ez du egiten, eta orain beste baten azpian sofritzen du tormentua, are azkenik, haiek guztiak agortu direnean, nahimen-oldarra bera motibo ezagunik gabe gelditzen da eta mortutasun

eta hustasun lazkarrienaren sentimendu gisa tormentu erremediogabearekin azaltzen da - baldin eta horietatik guztietatik nahi izatearen ohiko graduan, neurri murritzean bakarrik sentiturik, aldarte goibeleko ohiko gradua bakarrik sortzen badu, gaiztotasun gaileneraino doan nahimenaren agerpena duenarengan beharrezkoa da barneko tormentu neurritz gainera, egonezin betikoa, min sendaezina haztea; horrela zeharka bakarrik bilatzen du ibitzea, ez baita zuzenean horretarako gai, inoren sofrimendua begiztatzeaz bilatzen du, aldi berean bere ahalaren kanporatze den horretaz bere propioak baretzea. Inoren sofrimendua orain helburu bihurtzen zaio bere baitan, gozamina sortzen dion ikuskizun du: eta horrela sortzen da benetako krudeltasunaren, odol-egarriaren agerpena, historiak hain sarritan Neron eta Domizianorengan, afrikar deis [buruxkila]27, Robespierre eta abarrengan ikusarazten duena.

Gaiztotasunarekin ahaideturik dago mendeku-irrika, gaizkia gaizkiaz ordaintzen duena, ez etorkizunarekiko begirunearengatik, zeina zigorraren karakterra baita, baizik gertatua, iraganarengatik soilik bere horretan, hots norberarentzat etekinik gabe, ez bitarteko gisa, helburu gisa baizik, berak eragiten duen iraintzailearen tormentuan gozatzeko. Mendekua gaiztotasun hutsetik bereizi eta zerbaitetan desenkusatzeko duena justizia-itxura bat da; zeren egintza bera, orain mendekua dena, lege, h. d. alde aurretik determinatu eta ezaguturiko erregela baten arabera eta bera santzionatu duen batasun batean burutuko balitz, zigorra, beraz, justizia izango bailitzateke.

Baina gaiztotasunarekin deskribaturiko erro batetik, nahimen oso suharrari erne eta horregatik hartatik bereiztezina den sofrimenduz gainera, bada oraindik hartaz zeharo bestelakoa eta atsekabe apartekoa eransten dion bat, eta hori egintza gaizto orotan, egoismozko bidegabekeria soila, gaiztotasun hutsa delarik ere, sentigarri dena, eta bere iraupenaren luzeraren arabera kontzientzia-zimikoa edo kontzientzia-laridura deitzen zaio. - Laugarren liburu honen orain arteko edukia, baina batez ere bere hasieran aztertutako egia, bizitzeko nahimenari bizitza bera kopia edo ispilu soil gisa zaiola beti ziur, horrela baita justizia betikoaren aurkezpena ere - gogoan eta presente dituenak; horrek aurkituko du, kontsiderazio haiekiko egokitasunean, kontzientzia-zimikoak ezin lezakeela izan ondorengo beste esangurarik, h. d. bere edukia, abstraktuki adierazita, ondorengo hau dela, zeinean bi atal desberdintzen baitira, elkarrekin erabat bat datozenak eta osoki baturik pentsatu behar direnak.

Nahiz eta oso lodia izan Maiaren beloak estaltzen duen gaiztoaren zentzua, h. d. nahiz eta oso finko egon principium individuationis-ean harrapatutik, horren arabera bere pertsona beste edozeinengandik absolutuki desberdintzat jotzen du eta amildegi zabal batez bereizirik ikusten du, eta ezagutza horri, bere egoismoari bakarrik dagokiona eta horren euskarria delarik, bere indar guztiaz eusten dio, gero ezagutza nahimenak ia beti erosia dagoelako; horrela bere kontzientziaren barrenenean gauzen horrelako ordena agerpena besterik ez den aieru sekretuak kitzikatzen du, gauzen beren baitan ordea zeharo bestela gertatzen dela, eta nahiz eta denborak eta espazioak bera beste norbanakoengandik eta horien ezin zenbatu ahal tormentuetatik, zeinak sofritzen baitituzte eta are haren bitartez sofritu, bereizi eta berarentzat guztiz arrotz gisa aurkezten baititu; hala eta guztiz ere bere baitan eta alde batera utzirik errepresentazioa eta bere formak bizitzeko nahimen bakarra dela horietan guztietan agertzen dena, hemen, bere burua berrezagutu gabe, bere buruaren aurka bere armak zuzentzen dituen, eta bere agerpenetako batean ongizate areagotua bilatzen duen bitartean, eta horrenbestez besteei sofrimendu

handiena ezartzen die, eta bera, gaiztoa nahimen hori bera dela, ondorioz ez bakarrik tormentatzailea, baita tormentatua ere badela, zeinaren sofrimendutik engainuzko amets batek bakarrik bereizten eta aske gordetzen baitu, zeinaren forma denbora eta espazioa baita, baina ametsa desagertu egiten da, eta gaiztoak, egiaren arabera, atsegina tormentuarekin ordaindu behar izaten du, eta sofrimendu orok, berak ahalgarritzat bakarrik berrezagutzen duenak, berarekin baitu zerikusia bizitzeko nahimena den heinean, norbanakoaren ezagutzarako bakarrik, principium individuationis-aren bitartez bakarrik dira desberdinak ahalgarritasuna eta errealitatea, denbora eta espazioaren hurbiltasuna eta urruntasuna; ez bere baitan. Egia hori da, nahiz eta mitikoki, h. d. arrazoiaren printzipioari egokiturik eta horren bidez agerpenaren forman itzulirik, arima-emigrazioaren bitartez adierazi dena: baina bere nahastura guztietatik adierazpen garbiena kontzientzia deitzen zaion tormentu ilun sentitu baina kontsolamendugabe hartan dauka. - Baina hori bigarren batetik sortzen da gainera, lehen harekin zehatz loturik dagoen ezagutza bitartegabe batetik, hots, indarrarenetik, zeinarekin norbanako gaiztoarengan baieztatzen baita bizitzeko nahimena, zeina bere agerpen indibidualetik askozaz haratago baitoa, norbanako arrotzengan agertzen den nahimenaren erabateko ezeztapeneraino. Gaiztoak bere egitatearen ondorioz daukan barneko izudura, bere buruari ezkututzen saiatzen dena, ezereztasunaren eta principium individuationis-aren itxurazkotasun soilaren aieru harekin batera dauka bere baitan eta haren bitartez bere eta besteen artean ezarritako desberdintasunaren bidez aldi berean bere nahimen propioaren, indarraren suhertasunaren ezagutza ere, zeinarekin oratzen baitio bizitzari, atxiki baitzaio hurrupaka: bizitza hori bera, zeinaren alde lazkarria berak zapalduen tormentuan aurrez aurre ikusten baitu, eta zeinarekin bera hain estuki loturik baitago, non horren bidez bere baitatik ikaragarrikeria irteten baita, bere nahimen propioaren baieztapen osorako bitarteko gisa. Bizitzeko nahimenaren agerpen kontzentratu gisa berrezagutzen du bere burua, sentitzen du zer gradutaraino bizitzari itsatsirik dagoen eta horrekin esentzial zaizkion ezin zenbatu ahal sofrimenduak, izan ere denbora amaigabea eta espazio amaigabea baititu, ahalgarritasunaren eta errealitatearen arteko desberdintasuna ezabatzeko eta oraingoz tormentu berak berrezagutu soil direnak sentitu bihurtzeko. Birjaiotze etengabeko milioika urteak zinez adigai soilean bakarrik daude, iragan eta etorkizun osoa adigaian bakarrik existitzen diren bezala: denbora betea nahimenaren agerpenaren forma presentea bakarrik da, eta norbanakoarentzat denbora beti berria da: beti sortu berria bezala aurkitzen da. Zeren bizitzeko nahimenetik bizitza bereiztezina baita eta horren forma oraina bakarrik da. Heriotza (barka bekik konparazioa errepikatzea) eguzki-sartzearen antzekoa da, zeina itxuraz bakarrik irensten baitu gauak, errealki ordea, argi ororen iturburua da eta etenik gabe izekitzen dago, mundu berriei egun berriak ekartzen dizkie, denbora guztian goratzen eta denbora guztian beheratzen. Hasierak eta amaierak norbanakoarekin bakarrik dute zerikusia denboraren, errepresentaziorako agerpen horren formaren bitartez. Denboraz at nahimena bakarrik dago, Kanten berbaitango gauza, eta horren objektitate egokia, Platonen ideia. Horregatik ez du ematen suizidioak salbamenik: bakoitzak barrenenean nahi duen horrek izan egin behar du: eta bakoitza dena, hori nahi du. - Horrela norbanakoak banatzen dituzten errepresentazioaren formen itxurazkotasunaren eta ezereztasunaren ezagutza sentitu soilaren ondoan nahimen propioaren eta bere graduaren autoezagutza da kontzientzia eztenkatzen duena. Bizi-joairak karakter enpirikoaren irudia eragiten du, zeinaren jatorrizkoa inteliggiblea baita, eta gaiztoa ikaratu egiten da irudi horren aurrean; berdin dio marra lodiekin egina dagoen, munduak bere izua ezartzeko, edo berak bakarrik ikusteko bezain mehekin:

zeren horrek berarekin bakarrik baitu zerikusi bitartegabea. Iragana axolagabea izango litzateke agerpen soil gisa eta ezingo luke kontzientzia larritu, ez balu karakterra aske sentituko denbora orotatik eta beraren bidez aldaezin, bere burua ezeztatzen ez duen bitartean. Horregatik zamatzen dute kontzientzia aspaldi gertatutako gauzek. arrenak esan nahi du: . - Gaiztoak bizitza baieztatzen duen eta horrek besteei egiten dizkien sofrimenduetan hura agertzen zaion indarrean neurtzen du berak zer distantziatara daukan nahimen hura abandonatu eta ezeztatzea, zeina mundutiko eta bere tormentutiko salbamen ahalgarri bakarra baitatza. Ikusten du zenbateraino dagokion hari eta zeinen finko hari loturik dagoen: besteen sofrimendu berrezagutuak ezin izan du bera hunkitu; bizitzari eta sofrimendu sentituari itsatsirik dago. Auzitan gelditzen da ea horrek inoiz bere nahimenaren suhertasuna hautsi eta gaindituko duen.

Gaiztotasunaren esangura eta barneko esentziaren azterketa honek, zeina sentimendu soil gisa, h. d. ez ezagutza argi, abstraktu gisa, kontzientzia-larriduraren edukia baita, oraindik argitasun eta osotasun handiagoa hartuko du giza nahimenaren gaitasun gisa ongi azkenik etsipen erabatekoaz eta santutasunaz era berean egindako kontsiderazioaren bidez; horietatik sortzen da, gradurik gorena lortu duenean. Zeren kontrakoak elkarrekiko argitzen baitira beti, eta egunak aldi berean bere burua eta gaua jartzen baititu agerian, Spinozak bikain esan duenez.

§ 66

Oinarritzapenik gabeko moral batek, moralizatze soil gisa, ezin du eraginik izan; ez baitu motibatzen. Motibatzen duen moral batek buruestimuan eraginez bakarrik egin dezake hori. Baina horretatik sortzen denak ez du balio moralik. Hortik ateratzen da moralaren eta ezagutza abstraktuaren bidez oro har ez dagoela benetako bertutea eragiterik; baizik horrek ezagutza intuitibotik sortu behar du, norbanako arrotzean propioan bezalako esentzia bera berrezagutzen duenetik.

Zeren bertutea zinez ezagutzatik sortzen baita; baina ez abstraktutik, hitzen bidez komunikagarria denetik. Hori horrela balitz, irakatsi egin ahal izango litzateke, eta guk hemen bere esentzia eta bere oinarrian daukan ezagutza abstraktuki adierazten dugun bitartean, hori atzematen duen edonor etikoki ere hobetu egingo genukeen. Baina ez da inola ere horrela gertatzen. Aitzitik, hitzaldi etiko edo predikuekin ez da bertutetsurik egin ahal izan, estetika guztiekin, Aristotelesenetik hasita, inoiz poetarik egin ez den bezala. Zeren bertutearen benetako eta barreneko esentziarako adigaia antzua baita, arterako den bezala, eta lanabes gisa osoki subordinaturik, beste bide batzuetatik ezagutu eta ebatzi dena burutu eta kontserbatzeko laguntza ematea bakarrik egin dezake. Bertuterako, h. d. asmoen ontasunerako, dogma abstraktuek egitatean ez dute eraginik: faltsuek ez dute eragozten eta egiazkoek nekez egiten diote fabore. Egiazki oso txarra izango litzateke, giza bizitzako gauza garrantzitsuena, bere balore etikoaren, betierarako balio duenaren lorpena ausaren mendean dauden dogmak, fede-doktrinak, filosofemak bezalakoekiko hain dependentea izatea. Dogmek moralitaterako eskema baten, formulario baten balioa dute, zeinaren bidez gizakiak, laster aztertuko batitugu beste bide batzuetatik eta ezagutzatik bertutea atera ondoren, arrazoimenari bere egintza ez egoisten berri gehienetan itxuratua bakarrik ematen baitio, zeinaren esentzia, h. d. berak ez baitu kontzebitzen, zeinean ohitu baita bere burua gogobetetzen.

Zinez egintzarekiko, kanpoko egitearekiko, dogmek eragin indartsua izan dezakete, ohiturak eta adibideak bezala (azken horiek, ohiko gizakia bere judizioez fidatzen ez delako, zeinaren ahuleziaz kontziente baita, baizik norbere edo inoren esperientziari jarraitzen diolako); baina horrekin ez da asmoa aldatzen²⁸. Ezagutza abstraktu orok motiboak bakarrik ematen ditu: baina motiboek, gorago ikusi dugunez, nahimenaren norabidea aldatu besterik ezin dute egin, ez hura bera aldatu. Ezagutza komunikagarri orok motibo gisa bakarrik eragin dezake nahimenean: dogmek bezala gidatu egin dezake, horrela hala ere, bertan gizakiak benetan eta oro har nahi duena berdin geratzen delarik: horretara iristeko bideez bakarrik hartu ditu beste pentsamendu batzuk, eta motibo imajinarioek gidatzen dute halaber hori egikaritzera. Horregatik, adibidez, bere balio etikoaren ikuspegitik axolagabea da, opari handiak egiten dizkien behartsuei, irmoki konbentziturik, etorkizuneko bizitzan hamar halakotarik jasoko duela, edo dirutza bera lur-funts bat eratzen darabilen, zeinak gero mozkin askozaz seguru eta joriagoa emango baitio - eraile bat denez horren bidez sari bat eskuratzen duen bandido bat bezala, fede onean hereje bat sugarretara entregatzen duena; are barneko zirkunstantzien arabera, turkiarrak Lurralde Santuan lepamozten dituen, zeren beste hark bezala zeruan leku bat lortzeko asmoarekin egiten baitu hori. Zeren berentzat bakarrik, beren egoismorako nahi dute arduratu, bandido hura bezala, zeinarengandik bitartekoaren absurdukeriaz bakarrik desberdintzen baita. - Kanpotik, jadanik esan denez, motiboen bitartez bakarrik iristen da nahimenera: baina horiek kanporatzen den modua bakarrik aldatzen dute, inoiz ez hori bera.

Egitate onetan, zeinen egilea dogmetan oinarritzen denean, beti berezi behar da ea dogma horiek horretarako errealki motibo diren ala, goian esan dudanez, itxurazko kontu ematea besterik ez den, zeinaren bidez bere arrazoimen propioa gogobetetzen saiatzen den zeharo beste iturburu batetik isurtzen den egitate onaz, zeina burutzen baitu onadelako, baina ez baitaki egoki azaltzen, filosofo ez delako, eta hala ere horretaz zerbait pentsatzeko gogoia izan. Desberdintasuna oso zaila da aurkitzen, gogamenaren barruan baitago. Horregatik ezin dugu inoiz besteen egitea eta oso nekez geure propioa moralki zuzen juzgatu.- Partikularren eta herri baten egitateak eta jokatzeko era asko modifika daitezke dogma, adibide eta ohituren bitartez. Baina beren baitan guztiak irudi hutsen egitateak soilik dira (opera operata), eta horietara gidatzen duen asmoak bakarrik ematen die esangurazkotasun moralak. Baina hori errealki guztiz bera izan daiteke kanpoko agerpen oso desberdinetan. Gaiztotasun-gradu berarekin bata urkabeen hil daiteke eta bestea lasai beretarren altzoan. Gaiztotasun-gradu bera izan liteke herri batean gordinki gizaerailketa eta kanibalismoan, eta beste batean aitzitik mota guztietako gorte-intrigak, zapalkuntzak eta amarrukeria sotiletan fin eta aise en miniature adierazten dena: esentziak berdin dirau. Pentsa liteke Estatu betegin batek edo agian baita heriotzaz haraindiko saritze eta zigortzearen finko sinetsiriko dogma betegin batek krimen guztiak eragotziko lituzkeela: horren bidez politikoki asko lortuko litzateke, baina moralki ezer ez, gehienera ere bizitzak galgaturiko nahimenaren irudi bat.

Asmoaren benetako ontasuna, norberarentzat etekinik gabeko bertutea eta arima-nobletasun hutsa ez dira ezagutza abstraktutik sortzen, ezagutzatik baizik: hots bitartegabe eta intuitibo, arrazoimenak bere alde ez kontra ezer egin ez duen batetik, abstraktua ez delako transmititzen ez den, baizik bakoitzari berez irten behar zaion ezagutza batetik, zeinak horregatik bere adierazpen benetan egokia ez baitu hitzetan aurkitzen, gizakiaren egitateetan, egintzan, bizi-joairan bakar-bakarrik. Guk, hemen bertutearen teoria bilatzen dugunok eta horregatik bere

oinarrian ezagutzaren esentzia abstraktuki adierazi behar dugunok, ezin izango dugu adierazpen horretan ezagutza hura bera eman ahal izan, baizik bere adigaia bakarrik, zeinean gu beti ikuskor bihurtzen den egintzatik bakarrik abiatzen baikara, eta zeina aipatzen baitugu beti bere adierazpen egoki bakar gisa; aditzera eman eta interpretatu behar duguna, h. d. abstraktuki adierazi behar duguna, hortik benetan gertatzen dena da.

Aurkezturiko gaiztoarekiko oposizioan egiazki ona denaz hitz egin aurretik, tarteko maila gisa gaiztoaren ukapena tratatu behar dugu: hori da justizia. Zer den justua eta injustua, luzaro aztertu dugu goian: horregatik hemen gutxiarekin esan dezakegu justua eta injustuaren arteko muga moral soil hura libreki berrezagutu eta onartzen duena hura dela, ezein Estatuk edo indarrek segurtatzen ez duen tokian ere, ondorioz gure azalpenaren arabera inoiz bere nahimen propioaren baieztapenean beste norbanako batengan aurkeztu denaren ezeztapeneraino iristen ez dena - da justua. Horrela ez du, bere ongizate propioa gehitzeko, besteengan sofrimendurik eragingo: h. d. ez du krimenik egingo, bakoitzaren eskubideak, jabetza errespetatuko ditu. - Orain ikusten dugu horrelako justu batentzat principium individuationis-a ez dela gaiztoarentzat bezala euspen-horma absolutu bat, hark ez duela honek bezala bere nahimen-agerpena baieztatzen eta beste guztiak ezeztatzen, berarentzat besteak ez direla larba soilak, zeinen esentzia bereaz zeharo desberdina baita; baizik bere egintza-eraren bidez azaltzen da berak bere esentzia propioa, hots, bizitzeko nahimena berbaitango gauza gisa inoren, berari errepresentazio gisa soilik emandako agerpenean ere berrezagutzen duela, horrela bere burua hartan berraurkitzen duela, halako gradu jakin bateraino, hots, ez-injustizia egiteareneraino, h. d. ez-zauritzeareneraino. Eta gradu horretan bertan igaro egiten du begiradaz principium individuationis-a, Maiaren beloa: bere buruaz at dagoen esentzia berearen pare jartzen du: ez dio kalterik egiten.

Justizia horretan datza, baldin eta horren barnekoena ikusten bada, nahimen propioaren baieztapenean inoren nahimen-agerpena ezeztatzen bezain urrunera ez joateko erabakian, hari zerbitzatzen behartzen duelarik. Horregatik besteengandik gozatzen duen adina besteei egiteko prest egongo da. Asmoaren justiziaren gradurik gorena, zeina beti karakter inoiz negatibo soilak ez duen benetako ontasunarekin batzen baita, hain urrunera joaten da, non heredaturiko jabetzarekiko bere eskubideak zalantzan jartzen dituen, soina bere indar propio, espiritual edo gorputzezkoei bitartez kontserbatu nahi duen, inoren zerbitzu-egintza oro, luxu oro ahakar bat bezala sentitzen duen eta azkenik borondatez pobretasuna besarkatzen duen. Horrela ikusten dugu Pascal, zeinek norabide aszetikoa hartu zuenean, ez baitzuen inolako zerbitzurik jasan nahi izan, nahikoa zerbitzari bazituen ere: etengabeko gaixotasunak gorabehera, berak egiten zuen ohea, berak hartzen zuen jatekoa sukaldetik eta abar (, 19 or.). Honen ildo beretik kontatzen digute hindu askok, rajahek ere bai aberastasun handiak beretarren, beren gorkeen eta beren zerbitzarien mantenuan gastatzen dituztela eta eskrupuluzkotasun zorrotzez jarraitzen dutela ezer ez jatearen maxima, beren eskuez erein eta bildutakoa ez bada. Baina barrenean badago halako gaizki-ulertze bat: zeren partikularrak egin dezake, aberats eta ahaltsua delako, gizartearen osotasunari horrelako zerbitzu ohargarriak burutzea, heredaturiko aberastasuna konpentsatuz eta horren segurtapena gizarteari eskertuz. Horrelako hinduen neurritz gaineko justizia justizia baino gehiago da egiazki, hots, uko-egite erreala, bizitzeko nahimenaren ezeztapena, aszesia; horretaz azkenean hitz egingo dugu. Aitzitik, alderantziz, ezer ez egite hutsa eta besteen indarren bitartez bizitzea heredaturiko jabetzarekin, ezer egin

gabe, hori moralki injustutzat jo daiteke, nahiz eta lege positiboen arabera justua izan.

Jadanik aurkitu dugu borondatezko justizia bere jatorri barnekoena principium individuationis-aren barreneraino ikustearen halako gradu jakin batean, eta, aldiz, gizaki injustua erabat eta osoki horretan harrapaturik gelditzen dela. Barreneraino ikuste hori baliteke honaino eskatutakoan ez gelditzea, baizik gradu garaiago batean gertatzea, zeinak onginahi eta ongiegite positibora, giza maitasunera bultzatzen baitu: eta hori gerta daiteke, oso indartsu eta energikoa delarik ere bai norberaren baitan eta bai horrelako norbanakoarengan agertzen den nahimena. Beti lor dezake ezagutzak orekari eustea, irakats dezake injustiziarako tentaldiari kontra egiten eta ontasun-gradu hura, are etsipeneko ere sortzen. Horrela ez da inola ere uste izan behar gizaki onak jatorriz nahimen-agerpen ahulagoa duenik gaiztoak baino; baizik ezagutza da berarengan nahimen-oldar itsutzailea menderatzen duena. Badira noski norbanakoak beraiengan agertzen den nahimenaren ahuleziarengatik bakarrik izaera onekoak direla diruditenak: horiek zer diren egitate justu edo on bat burutzeko bere buruaren gainditze ohargarririk egiteko gai ez izatean azaltzen da ordea.

Baldin eta orain salbuespen bakan gisa gizaki bat agertzen bazaigu, ondasun ohargarriak dituen, horietatik beretzat gutxi erabili dituen eta gainerako guztia beharrezana dutenei ematen diena, bere buruari atsegin eta erosotasun ugari kenduz, eta gizaki horren jokaera geure buruari argitzen saiatzen bagara; orduan aurkituko dugu, alde batera utzirik dogmak, zeinen bitartez bere jokaera bere arrazoimenari ulerrarazi nahi baitio, bere egintza-eraren adierazpen orokor sinpleen eta karakter esentzialtzat eskuarki baino desberdintasun gutxiago egiten duela bere buruaren eta besteen artean. Aldiz, desberdintasun hori askoren begietan hain handia izaten da, non inoren sofrimenduak gaiztoari poz bitartegabea, injustuarentzat bere ongizate propiorako bitarteko ongietorria baita; baldin eta justua horiek ez eragite hutsean gelditzen bada; baldin eta gizaki gehienek besteen ezin zenbatu ahal sofrimendu beren hurbiltasunean jakin eta ezagutzen badituzte, baina horiek baretzeko erabakia hartzen ez badute, bere horretan bere buruari gabeziaren bat ezarri beharko lioketelako; baldin eta horietako guztietako bakoitzari desberdintasun nabarmen bat sortzen dela badirudi bere niaren eta inorenaren artean; horrela, aitzitik pentsatzen ari garen noble harentzat desberdintasun hori ez da esanguratsua; principium individuationis-ak, agerpenaren formak ez du hain finko harrapatzen; baizik besteengan ikusten duen sofrimendua, ia bere propioa bezain hurbileko gertatzen zaio: horregatik bien artean oreka bilatzen saiatzen da, atseguinei uko egiten die, gabeziak bere gain hartzen ditu, inoren sofrimenduak baretzeko. Konturatzen da bera eta besteen arteko desberdintasuna, gaiztoarentzat hain amildegi handia dena agerpen engainagarri iragankor bati dagokiola: bitartegabe eta arrazoiketarik gabe berrezagutzen du bere agerpen propioaren berbaitangoa inorena ere badela, hots bizitzeko nahimen hura, gauza ororen esentzia eratzen duena eta orotan bizi dena; are animalia guztiengana eta izadi osora ere hedatzen dela: horregatik ez du animaliarik tormentatuko²⁹.

Hain ezinezko izango zaio besteak miserian uztea, berak ugari eta sobera daukan bitartean, nola norbaiti egun batean gosea pairatzea, biharamunean kontsumi dezakeena baino gehiago edukitzeko. Zeren maitasunaren obrak egiten dituenari Maiaren beloa garden bihurtu baitzaio, eta principium individuationis-aren ilusioak alde egin dio. Bere burua, bere nahimena berrezagutzen du izaki bakoitzean, ondorioz baita sofritzen ari denarengan ere. Albora eragiten dio absurduari, zeinarekin

bizitzeko nahimenak, bere burua ez ezagutuz, hemen norbanako batengan atsegin iragankor eta aizunak dastatzen baititu, eta horretarako beste batengan sofritu eta miserian baitago eta horrela tormentua eragin eta tormentua pairatzen baitu, jakin gabe, Tiestesek bezala bere haragi propioa irrikaz jaten ari dela, eta hemen merezi ez duen sofrimendu batez kexatzen dela eta han Nemesisaren izurik gabe burutzen dituela doilorkeriak, behin eta berriz inoren agerpenean bere burua ez ezagutuz, eta horregatik justizia betikoa hautematen ez duelako bakarrik, principium individuationis-ean harrapatutik, horrela arrazoiaren printzipioa nagusi den ezagutze-mota hartan. Maiaren ilusio eta itxurakeria horretatik sendatzea eta maitasunaren obrak egitea gauza bera da. Azken hori ezagutza horren ezinbesteko sintoma da.

Kontzientziako atsekabearen kontrakoa, zeinaren jatorria eta esangura gorago argitu baitira, kontzientzia ona da, norberarentzat etekinik gabeko egitate bakoitzaren ondoren sumatzen dugun gogobetetasuna. Hori sortzen da egitate hori, nola bere baitan geure izate propioaren berrezagutze bitartegabetik baita inoren agerpenean ere sortzen baita, aldi berean ezagutza horren, gure egiazko norbera ez pertsona propioan bakarrik, agerpen partikular horretan bakarrik, baizik bizi den ororengan existitzen delako ezagutzaren berrespena ematetik. Horren bidez, bihotza zabaldua sentitzen da, egoismoaren bidez uzurtua bezala. Zerengure interes horrek norbanako propioaren agerpen partikularrean kontzentratzen den bezala, non ezagutzak beti, etengabe agerpen horri mehatxu egiten dioten arrisku zenbakigabeak aurrean jartzen baitizkigu, zeinaren bidez larridura eta kezka gure aldartearen oinarri-tonu bihurtzen baitira; horrela bizidun oro berbaitango gure izaki propioa, baita gure pertsona propioa bezalako diren ezagutza hedatzen da, bizidun ororekiko gure interesa: horrek zabaltzen du bihotza. Horrela norbera propioarekiko interes murritugabe horren bidez bere erroan eraso eta zedarritzen da horren larridurazko kezka: horregatik asmo bertutetsuak eta kontzientzia onak ematen duen naretasun lasai, fidakorra eta egitate on bakoitzean hori argiro agertzea, aldarte horren arrazoa geuri berresten digun bitartean. Egoista agerpen arrotz eta etsaikorrez inguratua sentitzen da, eta bere esperantza guztia bere ongizate propioan bakarrik oinarritzen da. Ona agerpen adiskidekorrezko mundu batean bizi da: bakoitzaren ongia bere propioa ere bada. Horregatik nahiz eta giza zoriaren ezagutzak oro har aldarteak ez alaitu, hala ere bere izaki propioa bizidun guztiengan dagoelakoaren ezagutza iraunkorrek aldartearen halako neurriberdintasun bat eta halako naretasun bat ematen diote. Zeren agerpen zenbakigabeen gain barreiatutako interesak ezin baitezake larri, bakarrean kontzentratuak adina. Izakien osotasunarekin zerikusia duten ausak konpentsatu egiten dira, partikularrari gertatzen zaizkionek zoriona edo zorigaitza eragiten dutelarik.

Nahiz eta beste batzuek prinzipio moralak ezarri dituzten, bertuterako preskripzio eta derrigor jarraitu beharreko lege gisa, nik, aldiz, jadanik esan denez, ezin dut horrelakorik egin, zeren nahimen beti askeari ez baitago betebeharrak edo legerik ezartzerik; hala ere, neure kontsiderazioarekiko elkarloturan bada egiteko horri nolabait dagokiona eta analogoa den egia teoriko huts bat, zeinaren garapentzat har baitaiteke nire aurkezpen osoa, hau da, nahimena, agerpen ororen berbaitangoa, horrelakoa den heinean horren formatatik eta horren bidez aniztasunetik aske dagoela; egia hori egintzarekiko harremanean ez dakit duinago adierazten jadanik aipaturiko Vedako (hau hi haiz!) formularen bidez baino. Ezagutza klaruarekin eta barneko konbikzio irmoarekin ukipenean sartzen den izaki

bakoitzari buruz hori bere buruari adierazteko gai dena, horrelakoa halaber bertute eta dohatsutasun ororekiko ziur eta salbamenerako bide zuzenean dago.

Aurrerago joan baino lehen eta neure aurkezpenaren azkena erakutsi aurretik, nola maitasunak, zeinaren jatorri eta esentzia gisa principium individuationis-a barreneraino ikustea berrezagutzen baitugu, salbamenera, hots, bizitzeko nahimenaren, h. d. nahi izatearen abandonatze osora, halaber biguntasun gutxiagokoa den beste bide bat, baina sarriago gizakia bertara eramaten duen bat nola dagoen, esaldi paradoxazko bat adierazi eta argitu behar dut hemen alde aurretik, ez horrelakoa delako, baizik egiazkoa delako eta azaltzen ari naizen neure pentsamenduaren osotasunari dagokiolako. Hauxe da:

§ 67

Dagoeneko ikusi dugu nola principium individuationis-a barreneraino ikustetik gradu apalagoan justizia, garaiagoan asmoaren benetako ontasuna sortu den, zeina besteenganako maitasun huts, h. d. norberarentzako etekinik gabeko gisa azaldu baita. Hori betegina den tokian norbanako arrotza eta bere zoria propioaren guztiz parean jartzen da: ezin da urrunago joan, izan ere ez baitago arrazoirik norbanako arrotza propioaren aldean hobesteko. Baina norbanako arrotzen kopuru handienak, zeinaren ongizate eta bizitza arriskuan baitago, ongi gaindi dezake partikularren ongi propioarekiko ardura. Horrelako kasu batean ontasun gorenera eta arima-nobletasun beteginera iritsitako karakterrak bere ongia eta bere bizitza erabat sakrifika ditzake beste askoren ongirako: horrela hil zen Kodro, horrela Leonidas, horrela Regulo, horrela Dezio Mus, horrela Arnold von Winkelried, horrela borondatez eta kontzienteki beretarren alde, aberriaren alde heriotza ziurrera doan bakoitza. Maila horretan aurkitzen da, halaber, gizadi osoaren ongirako dena eta lege dagokiona, h. d. egia orokor, garrantzitsuengatik edo errore handiak ezabatzeagatik sofrimendua eta heriotza nahita onartzen dituen: horrela hil zen Sokrates, horrela Giordano Bruno, horrela aurkitu zuen heriotza egiaren heroi batek baino gehiagok, sutan, apaizen eskuetan.

Baina orain goian adierazitako paradoxarekiko ikuspegitik gogorarazi behar dut lehenago bizitzari osotasunean sofrimendua esentzial zaiola eta hartatik bereiztezina dela aurkitu eta ulertu dugula, desira bakoitza premia batetik, gabezia batetik, sofrimendu batetik sortzen den bezala, horregatik asetze oro kendutako min bat dela, ez dela zorion positiboki sortua, pozek gezurra esaten diotela gure desirari, ongi positiboak balira bezala, baina egiaz izaera negatiboa baizik ez dutela eta gaitz baten amaiera bakarrik direla. Horregatik ontasunak, maitasunak eta arima-nobletasunak besteen alde egiten dutena haien sofrimenduak ibitzea besterik ez da beti, eta ondorioz, egitate eta obra onetara horiek mugi ditzakeena, inoren sofrimenduaren ezagutza bakarrik da, zeinatik propioa bitartegabe ulergarri eta horren parean jartzen baita. Hortik sortzen da maitasun hutsa (GRIEGO, caritas) bere naturaren arabera errukia izatea; berak ibitzen duen sofrimendua, handia edo txikia, zeinari ase gabeko desira oro baitagokio, izan daiteke. Horregatik ez dugu hemen inolako zalantzarik izango, Kantekiko kontraesan nabarian, zeinek egiazko ontasun oro eta bertute oro horrelakotzat bakarrik aitortu nahi baititu, baldin eta gogoeta abstraktutik eta zinez betebeharraren eta inperatibo kategorikoaren adigaitik sortu badira, eta erruki sentitua ahuleziatzat, inola ere ez baitu bertutetzat azaltzen - Kantetiko kontraesan nabarian esateko: adigai soila benetako bertuterako, benetako arterako bezain antzua dela: maitasun egiazko eta huts oro errukia dela, eta

maitasun oro, errukia ez dena, norberezaletasuna dela. Norberezaletasuna (GRIEGO) da, errukia (GRIEGO) da. Sarritan aurkitzen dira bien nahasturak. Benetako adiskidetasuna bera ere beti norberezaletasun eta errukiaren nahastura da: lehena adiskidearen presentziako ongi izatean datza, zeinaren indibidualitatea gureari baitagokio, eta ia beti berak eratzen du atalik handiena; errukia bere ongian eta nahigabeaz zinez eskuhartzean eta horri egiten zaizkion norberarentzat sakrifizio etekingabeetan azaltzen da. Horretaz Spinozak dio: (lib. 3, prop. 27, cor. 3, schol.). Paradoxazko gure esaldiaren berrespen gisa oharraraz daiteke maitasun hutsaren hizkuntzaren tonua eta hitzak eta laztanak erabat bat datozela errukiaren tonuarekin: bide batez esan behar da italieraz errukia eta maitasun hutsa pietà hitz beraz izendatzen direla.

Halaber hauxe da giza naturaren propietate harrigarrienetako bat, negar egitea aztertzeko lekua, zeina barre egitea bezala gizakia eta animalia bereizten dituzten kanporatzeei baitagokie. Negarra ez da inola ere minaren kanporatze zuzena. Zeren gutxienak baitira nehar eragiten duten minak. Nire iritziz, ez da inoiz negar egiten bitartegabe mina sentitu delako, baizik gogoetan hura errepikatzearengatik. Izan ere, sentitutako minetik, nahiz eta gorputzekoa izan, horren errepresentazio soilera igarotzen gara eta egoera propioa hain errukarri aurkitzen da, non beste bat izango balitz pairatzailea errukiz eta maitasunez beterik hari laguntzeko irmo eta benetan konbentziturik egoten baita: baina orain norbera da bere erruki propio zinezkoaren objektua: laguntzeko asmorik handienarekin ikusten da norbera dela laguntza-behartsuena, sentitzen da gehiago pairatzen dela, beste norbait pairatzen ikusi ahal izango balitz baino, eta aldarte bereziki bigiztatu honetan, zeinean bitartegabe sentituriko sofrimendua itzulunguru bikoitz baten bidez berriro pertzepziora iristen baita, inorena bezala errepresentaturik, zeinarekiko sentikide garen eta gero supituki berriro bitartegabe propio gisa hautematen baitugu. - Naturak gorputzeko konbultsio aparteko horren bidez arinbidea sortzen du. - Negar egitea, beraz, norbere buruarekiko errukia da edo bere abiagunera itzularazitako errukia. Horregatik maitasuna eta errukirako gaitasunaren bitartez eta fantasiaren bitartez baldintzaturik dago: horregatik gizaki bihotz-gogorrek eta fantasiagabeek ez dute erraz negar egiten, eta negar egitea karakterarren ontasunaren halako gradu baten seinaleztat hartu izan da beti, eta horrek kolera desarmatzen du, zeren negar egiteko gai dena, derrigor besteenganako maitasunerako, h. d. errukirako ere, gai izan behar duela sentitzen baita, zeren hortik deskribatu den eran negar egitera gidatzen duen aldarte bat bezala sartzen baita haietan. - Egindako deskribapenari erabat egokitzen zaio, Petrarcak, bere sentimendua xaloki eta egiazki adieraziz, negar-malkoen sorreraz egiten duena:

I» vo pensando: en el pensar m'assale
Una pietà si forte di me stesso,
Che mi conduce spesso,
Ad alto lagrimar, ch'i» non soleva³⁰.

Esandakoa berresten da halaber hurrek, min bat pairatzen dutenean, gehienetan gupituak diren arte bakarrik negar egiten dutelakotik, ez minarengatik, baizik horren errepresentazioarengatik beraz. - Ez geure sofrimendu propioengatik baizik inorenengatik negar egitera higituak garenean, hori gertatzen da fantasian biziki sofritzen ari denaren lekuan geure burua jartzeagatik edo bere zorian gizadi osoaren destinoa eta ondorioz batez ere geurea ikusteagatik, eta horrela itzulunguru luze bat egin ondoren azkenean beti geure buruarengatik negar egiten dugu, geure buruarekiko errukia sentitzen dugu. Badirudi hori dela heriotza-kasuetan negar egite ohiko, hots, naturalaren arrazoi nagusi bat. Ez da bere galera, dueloa egiten ari

denak negartzen duena: horrelako malko egoistez lotsatu egingo litzateke; aldiz, negar ez egiteaz lotsatzen da batzuetan. Lehenik hildakoaren zoriarengatik negar egiten du: baina nahiz eta beretzat sofrimendu luze, gogor eta sendaezinen ondoren heriotza salbamen desiragarri bat izan bada ere, negar egiten du. Nagusiki errukia sentitzen du gizadi osoaren destinoarengatik, amaikortasunean murgildurik baitago, zeinaren ondorioz bizitza ahalegintsu eta sarritan egitatetsuak iraungi eta deuseztu beharra baitauka: baina gizadiaren destino horretan batez ere berak bere propioa ikusten du, eta zinez hainbat gehiago, zenbat eta hurbilagokoa zitzaien hildakoa, horregatik bere aita baldin bazuen gehien. Nahiz eta berarentzat zahartzaro eta gaixotasunarengatik bizitza tormentua eta bere baliaezintasunarengatik semearentzat zama astuna bazen ere; hala ere, horrek biziki negar egiten du aitaren heriotzarengatik: eman den arrazoiarengatik³¹.

§ 68

Maitasun hutsak errukiarekin duen identitateari buruzko desbideratze honen ondoren, zeinak norbanako propioarengana zuzentzen denean negar egitearen fenomeno baitauka sintomatzat, berriz hartzen dut egintzaren esangura etikoaren gure interpretazioaren haria, ontasun, maitasun, bertute eta arima-nobletasun guztia isurtzen duen iturburu beretik, azkenik nik bizitzeko nahimenaren ezeztapena deitzen dudana ere nola sortzen den azaltzeko.

Lehenago gorrotoa eta gaiztotasuna egoismoak baldintzaturik eta horiek principium individuationis-aren ezagutzan harrapatu egotean oinarriturik ikusi ditugun bezala; horrela aurkitu ditugu justiziaren jatorria eta esentzia bezala, gero, aurrera joatean, maitasunarena eta arima-nobletasunaren graduak goreneraino principium individuationis haren barreneraino ikustea, zeinak bakarrik, norbere eta inoren norbanakoen arteko desberdintasuna ezabatzen duelarik, asmoaren ontasun betegina norberarentzat etekinik gabeko maitasuneraino eta arima-handitasunezko autosakrifizio handiena besteentzat ahalgarri egin eta azaltzen baitu.

Baina principium individuationis-a barreneraino ikuste hori, nahimenaren identitatearen ezagutza bitartegabe hori bere agerpen guztietan argitasunaren graduak gorenean existitzen denean; orduan aurreranzko eragin bat azalduko du nahimenarekiko. Baldin eta gizaki baten begien aurrean Maiaren belo hari, principium individuationis-ari hainbestearaino albora eragiten bazaio, non bere pertsonaren eta inorenaren artean desberdintasun egoista jadanik ez egiteraino, baizik beste norbanakoen sofrimenduetan bere propioetan adina esku hartzen duen eta horren bidez ez bakarrik gradu gorenean laguntzeko gai bihurtzen den, baizik baita prest ere jartzen den, bere norbanako propioa sakrifikatzeko, beste banaka batzuk horren bidez salbatzeko: gero berez darraio, horrelako gizaki batek, izaki guztietan bere norbera barnekoena eta egiazkoa berrezagutzea, bizidun ororen sofrimendu amaigabeak bereak bezala kontsideratzea eta horrela mundu osoaren mina bere egitea. Horri aurrerantzean ez zaio ezein sofrimendu arrotz. Besteen tormentu guztiak, zeinak ikusi eta hain bakan ibitu ahal baititu, tormentu guztiak, zeinetaz berri bitarteduna baitu, are berak ahalgarritzat bakarrik ezagutzen baititu, bere espirituarengan propioek bezalako eragina dute. Jadanik ez da bere pertsonaren ongi eta atsekabe aldakorra begien aurrean daukana, oraindik egoismoan harrapatutako gizakiaren kasuan gertatzen denez; baizik, izan ere principium individuationis-a barreneraino ikusten duenez, dena hurbiltasun berean gelditzen zaio. Osokia

berrezagutzen du, horren esentzia atzematen du eta iragate etengabea, ahalegintze hutsalea, barneko liskarrean eta sofrimendu iraunkorrean harrapaturik, noranahi begiratzeko duelarik ere gizadi sofritzailea eta animalitasun sofritzailea eta mundu suntsikorra ikusten ditu. Baina hori guztia berari orain egoistari bere pertsona propioa bakarrik bezain hurbileko gelditzen zaio. Munduaren ezagutza horrekin, nola baieztatu dezake bizitza hori nahimen-egintza etengabeen bidez, eta horrenbestez horri gero eta finkoago lotu lekiok, gero eta finkoago bere kontra estu dezake? Baldin horrela, principium individuationis-ea, egoismoan harrapaturik dagoenak gauza partikularrak eta horien bere pertsonarekiko hartueman bakarrik berrezagutzen baditu eta horiek gero bere nahi izatearen motibo berri bihurtzen badira; horrela, aitzitik, osokiaren, berbaitango gauzaren esentziaren ezagutza deskribatu hura nahi izate ororen eta bakoitzaren kietibo bihurtzen zaio. Nahimena alden egiten da aurrerantzean bizitzatik: ikaratu egiten da orain atseginen aurrean, zeinetan haren baieztapena berrezagutzen baitu. Gizakia borondatezko ukapen, etsipen, egiazko lasaitasun eta erabateko nahimengabeziatzko egoerara iristen da. - Guri, besteoi, oraindik Maiaren beloak biltzen gaituenoi, batzuetan gogor sentituriko sofrimendu propioan edo biziki berrezaguturiko inorenean bizitzaren deuseztasun eta mingostasunaren ezagutza agertzen zaigunean, eta osoki eta betiko erabakitako uko-egitez irritsei beren eztena hautsi, sofrimendu orori sarbidea itxi nahiko bagenio geure burua garbitu eta santutzeko; laster katigatzen gaitu berriro agerpenaren ilusioak, eta bere motiboek berriro nahimena mugimenduan jartzen dute: ezin dugu geure burua jaregin. Esperantzaren promesek, presentearen lausenguek, plazerraren gozotasunek, ongizateak, mundu sofritzaile baten atsekabearen erdian ausaren eta errearen nagusipean ezartzen baitute gure pertsona, beregana tira egin eta berriro lokarriak tinkatzen dizkigute. Horregatik dio Jesusek: 32

Baldin eta bizitza gune hotz batzuk dituen ikatz gorizko bide zirkular batekin, etengabe bertatik zirkulatu beharko genukeen batekin konparatzen badugu; orduan esan dezakegu kontsolatu egiten dutela engainuan harrapaturik dagoena gune hotz horiek, zeinetan baitago orain edo bere aurrean hurbil ikusten baitu, eta aurrera jarraitzen du ibilbidea korritzen. Baina principium individuationis-a barreneraino ikusiz, berbaitango gauza eta horren bitartez osokia berrezagutzen duenak ez du kontsolamendu hori onartzen: zeren gune guztietan ikusten baitu aldi berean bere burua eta irten egiten da. - Nahimenak atzera egiten du, jadanik ez du agerpenean ispiatzen den bere esentzia propioa baieztatzen, baizik ezeztatu egiten du. Hori aditzera ematen duen fenomeno bertutetik aszesirako igarobidea da. Hau da, jadanik ez zaio aski besteak bere burua bezala maitatzea eta haientzat bere buruarentzat adina egitea; baizik izudura sortzen zaio esentziaren, zeinaren adierazpena bere agerpen propioa baita, bizitzeko nahimenaren, atsekabezko gisa berrezaguturiko mundu horren muin eta esentziaren aurrean. Horregatik ukatu egiten du bertan agertzen den eta jadanik bere soinen bidez adierazitako esentzia hori, bere egiteak gezurtatu egiten du bere agerpena, kontraesan agerikoan sartzen da berarekin. Esentzian nahimenaren agerpena besterik ez dela, utzi egiten dio zerbait nahi izateari, gorde egiten du bere burua bere nahimena zerbaiti atxikitzeari, gauza guztiekiko axolagabetasun handiena finkatzea bilatzen du. - Bere soinak, osasuntsu eta indartsu, genitalen bidez adierazten du sexu-instintua; baina nahimena ezeztatu eta soina gezurtatzen du: ez du sexu-asetzerik nahi, ezein baldintzaren pean. Borondatezko kastitate betegina da lehen urratsa aszesian edo bizitzeko nahimenaren ezeztapenean. Horren bidez ezeztatzen du bizitza indibidualaz haratago doan nahimenaren baieztapena, eta horrekin iragartzen du soin horren bizitzarekin

nahimena ere ezabatu egiten dela, zeinaren agerpena baita. Naturak, beti egiazko eta xaloa dena, dio baldin eta maxima horiek orokortuko balira, giza espeziea iraungi egingo litzatekeela: eta bigarren liburuan nahimen-agerpen guztien elkarloturaz esan denaren ondoren, uste dut onar dezakedala nahimen-agerpen gorenarekin horren errainu ahulagoa ere, animalitasuna, ezabatu egingo litzatekeela; argi betearekin erdi-itzalak desagertzen diren bezala. Ezagutzaren ezabatze guztizkoarekin gainerako mundua ere bere baitatik desagertuko litzateke; izan ere, subjektu gabe ez baitago objekturik. Honi buruz Vedako pasarte bat aipatu nahiko nuke, honela dioena: «Mundu honetan haur gosetuak amaren ingurura arrimatzen diren bezala, horrela esertzen dira izaki guztiak erre-opariaren (agnihotram) inguruan (libkia. 8; Colebrooke, ; ko aterakina ere hemen dago: Colebrooke-ren libkia 1, 88. or). Erre-opariak etsipena esan nahi du oro har, eta gainerako izadiak gizakiarengandik espero du bere salbamen, zeina apaiz eta opari baita aldi berean. Guztiz ohargarri gisa merezi du aipatzea pentsamendu hori Angelus Silesius miresgarri eta izugarri sakonak adierazi zuela izenburua duen bertsotxoan; honela dio:

Gizon, denak maite hau; hire inguruan dena metaturik zagok:
Dena hiregana zoak lasterka, Jainkoarengana iristeko.

[I,275]

Baina oraindik mistiko handiago batek, Eckhard Maisuak, zeinaren idazki harrigarriak Franz Pfeifferren edizioaren bidez azkenik (1857) eskuragarri bihurtu baitira, 459. orrialdean azaldutako zentzuan esaten baitu: (Joan. 12, 32). Horrela gizaki onak gauza guztiak Jainkoarengana jaso behar ditu, haien lehen jatorrira. Hori ziurtatzen digute maisuek, sorkari guztiak gizakiarengatik eginak izan direla. Hori probatzen da sorkari guztietan, sorkari bat besteaz baliatzen dela: idia belarraz, arraina uraz, txoria aireaz, piztia oihanaz. Horrela sorkari guztiek onura dute gizaki onarentzat: sorkari bat besteengana eramaten ditu, gizaki onak Jainkoarengana». Esan nahi du: gizakiak beregan eta berekin animaliak ere salbatzen dituela, haietaz baliatzen dela bizitza honetan. - Beraz zentzu horretan interpretatu behar dela deritzot Erromatarrak 8, 21-24 Bibliako pasarte zaila.

Budismoan ere ez dira falta gai horren adierazpenak: adibidez, Budak, artean Bodhisatva zela, bere zaldia aitaren egoitzatik basamortura ihes egiteko azken aldiz zelatzen duenean, bertso hau esaten dio: (Abel Rémusat-ek itzulua, 233. or.).

Aszesia gero oraindik borondatezko eta nahitako pobretasunean azaltzen da, zeina ez baita per accidens bakarrik sortzen, jabetza ematen delako, inoren sofrimenduak baretzeko, baizik hemen jadanik berbaitango helburu da, nahimenaren etengabeko mortifikazio gisa balio behar du, desiren gogobetetasunak, bizitzaren gozotasunak nahimena berriro kitzika ez dezan, zeinaren aurka geure buruaren ezagutzak higuina hartu baitu. Puntu horretara iritsi denak soin bizitu, nahimen-agerpen konkretu gisa era guztietako disposizioak sentitzen ditu nahi izateko: baina nahita zapaltzen ditu, berak nahiko lukeenetik ezertxo ere ez egitera bere burua behartuz, aitzitik nahiko ez lukeen guztia egitera, nahiz eta beste helbururik ez duen nahimenaren mortifikaziorako balio izatea baizik. Nola bere pertsonarengan agerturiko nahimena ezeztatzen duen, ez dio kontra egingo, beste norbaitek gauza bera egiten badu, h. d. injustizia egiten badio: horregatik kanpotik datorkion guztiari, ausaz edo inoren gaiztotasunez datorkion sofrimenduari, kalte orori, lotsa orori, irain orori abegia egingo dio: pozik hartzen du bere buruari nahimena gehiago ez duela baieztatzen ziurtasuna emateko aukeratzat, baizik pozik nahimen-agerpenaren, bere pertsona propioaren etsai ororen alderdia hartzen duela.

Horregatik horrelako lotsa eta sofrimendua egonarri eta samurtasun agorrezinez jasaten ditu, harrandiarik gabe ezabatzen du gaizki hori eta ez dio uzten koleraren suari pizten, irritsarenari uzten ez dionez. - Nahimena bera bezala mortifikatzen du ikuskortasuna, horren objektitatea, soina: gartxu janaritzen du bere loratze eta garatze joriak nahimena, zeinaren adierazpen soil eta ispilu baita, berriro bizitu eta indartsuago kitzika ez dezan. Horrela barauari ekiten dio, are hilduratze eta bere burua atsekabetzeari egiten dio, etengabeko gabetzez eta sofritzez nahimena gero eta gehiago hautsi eta hiltzeko, zeina bere eta munduaren existentzia sofritzailearen iturburutzat berrezagutu eta arbuiaitzen baitu. - Azkenik, heriotza datorrenean, nahimen horren agerpen hori disolbatzen duena, zeinaren esentzia hemen bere buruaren ezeztapen askearen bidez hilda baitzegoen aspaldi hondar ahuleraino soin horren biziaraipen gisa agertu baitzen; abegi hoberena egingo dio salbamen irrikatuari bezala eta pozik hartuko du. Berorrekin hemen ez da amaitzen besteengan bezala agerpen soila; baizik esentzia bera ezabatzen da, zeinak hemen agerpenean bakarrik eta bere bitartez existentzia ahula baitzuen³³; zeinaren lokarri hauskorra ere orain eten egin baita. Horrela amaitzen denarentzat aldi berean mundua ere amaitu egin da.

Eta nik hemen mihi ahularekin eta adierazpen orokorrekin deskribatu dudana ez da neuk asmatutik ipuin filosofiko bat eta gaurkoa bakarrik: ez, santu askoren eta arima ederren bizitza inbidiagarria izan da kristauen artean eta oraindik gehiago hindu eta budisten artean, baita beste fedekide batzuegan ere. Nahiz eta beren arrazoimena oso dogma desberdinez markaturik egon, barneko ezagutza bitartegabe, intuitiboak, zeinatik bakarrik irten baitaiteke bertute eta santutasun oro, era bat eta berean adierazten baitzuen bere burua bizimoduaren bitartez. Zeren hemen ere azaltzen baita gure kontsiderazio osoan hain garrantzitsua eta nonahi agertzen den eta orain arte gutxiegi kontuan hartu den ezagutza intuitibo eta abstraktuaren arteko desberdintasun handia. Bien artean amildegia zabala dago, zeinaren gainetik munduaren esentziaren ezagutzarekiko ikuspegitik filosofiak bakarrik gidatzen baitu. Intuitiboki edo, hots, in concreto benetan gizaki oro kontziente da egia filosofiko guztiez: baina horiek beren jakite abstraktura, gogoetara ekartzea da filosofoaren zeregina, zeinak ez baitu gehiago egin behar eta gehiago ere ezin baitu.

Agian, horrela, hemen lehen aldiz abstraktuki eta mistikoki orotatik garbi adierazi da santutasun, autoukapen, nahimen propioaren hilduratzea aszesiaren barneko esentzia bizitzeko nahimenaren ezeztapen gisa, bere esentzia propioaren ezagutza osatua nahi izate ororen kietibo bihurtu zaionez gero. Aitzitik, bitartegabe ezagutu eta egitatearen bidez adierazi dute santu eta aszeta horiek guztiek, zeinek barneko ezagutza berean oso hizkuntza desberdina erabili baitzuten, dogmen arabera, zeinak behin beren arrazoimenean hartu baitzituzten, eta zeinaren ondorioz santu indiar, kristau, lamaista batek bere egite propioaz bakoitzak oso kontu desberdina eman behar baitu, baina hori gairako zeharo axolagabea da. Santu bat egon liteke superstizio absurduenez beterik, edo alderantziz filosofo bat izan liteke: berdin dio. Bere egiteak bakarrik testigatzen du santu gisa: zeren ez baita ikuspegi moraletik munduaren eta bere esentziaren ezagutza abstrakturik, baizik intuitiboki kontzebitutik bitartegabetik eta bere arrazoimenaren gogobetetasunerako bakarrik interpretatzen baitu dogmaren baten bitartez. Horregatik santua filosofoa izatea bezain premia gutxikoa da filosofoa santu izatea: beharrezko ez den bezala gizaki guztiz eder bat eskultore handia izatea edo eskultore handi bat bera gizaki eder bat izatea ere. Oro har eskakizun bitxia da moralista batentzat berak dauzkanak baino bertute gehiagorik ez gomendatzekoa. Munduaren esentzia osoa abstraktuki, orokorki

eta argiro kontzeptutan birsortzea, eta hori horrela kopia errainutu gisa arrazoimenaren adigai iraunkor eta beti prest daudenetan ezartzea: hori da eta ez besterik filosofia. Gogoan dut lehen liburuan aipaturiko Baco Verulamekoren pasartea.

Baina hain zuzen abstraktua eta orokorra bakarrik eta horregatik hotza da bizitzeko nahimenaren ezeztapenari buruzko lehenagoko nire deskribapena, edo arima eder baten, santu etsitu baten, borondatez penitentzia egiten duen baten portaerarena. Nahimenaren ezeztapena sortzen duen ezagutza intuitiboa ez den bezala eta ez abstraktua; horrela bere adierazpen betegina ere ez adigai abstraktutan aurkitzen du, baizik egitatean eta portaeran. Horregatik bizitzeko nahimenaren ezeztapen gisa filosofikoki adierazten duguna, osokiago ulertzeko, esperientzia eta errealitatetik ateratako adibideetara jo behar da. Ez ditugu noski eguneroko esperientzian aurkituko: [leinargia den oro zaila bezain bakana baita.], dio Spinozak bikainki. Baldin eta bereziki zori aldeko batez horien lekuko bihurtu ez bagara, horrelako gizakien biografiekin nahikotu beharra daukagu. Indiar literatura, orain arteko itzulpen urrien bitartez jadanik ikusten dugunez, oso aberatsa da santu, penitentziagile, samaneo, saniassi eta abar deitzen bizitzaren deskribapenetan. ezagunak baina ikuspegi guztietatik laudagarria ez denak berak ere era horretako adibide bikain ugari dauzka bere baitan (batez ere bigarren liburukiaren 13. kapituluaren). Kristauen artean ere ez dira falta adibideak gure helburua argitzeko. Irakur bitez gehienetan gaizki idatziriko horrelako pertsonen biografiak, arima santu, pietista, kietista, begitaziodun jaieratsu eta abar izendatu direnenak. Horrelako biografien bildumak garai desberdinetan egin izan dira hala nola: Tersteegen-en , Reitze-ren , gure egunotan Kanne-ren³⁴ bilduma bat, zeinak gauza txar askoren artean on banakaren batzuk ere bai baititu, horien artean sartzen dudalarik. Oso bereziki hemen aipatzekoa da Asisko Frantzisko santuaren, aszesiaren benetako pertsonifikazio eta eskeko fraide ororen ereduaren bizitza. Bere bizitza, bere aldikide gazte batek eskolastiko gisa ere sonatua izan zen Bonaventura santuak idatzia, arestian berriro berrinprimatu da: (Soest 1847), pixka bat lehenago bere biografia arduratsu, xehe eta iturburu guztiak darabiltzana Frantzian agertu ondoren: par Chavin de Malan (1845). - Komentu-idazki horien paralelo oriental gisa Spencer Hardyren liburu oso irakurgarria daukagu: «Eastern monachism, an account... of the order of mendicants founded by Gotama Buddha (1850). Gauza bera azaltzen zaigu beste janzkera batean. Hemen ere ikusten da zeinen axolagabea den erlijio teista edo ateista batetik abiatzea. - Baina hobespenez adibide berezi, guztiz oso zehaztu eta nik ezarritako kontzeptuaren argitzapen egiteko gisa, Guyon andrearen autobiografia gomenda dezaket, zeinaren arima handi eta ederra ezagutzea, zeinaren pentsamenduek beti errespetuz betetzen bainaute, eta bere asmoaren bikaintasunari, bere arrazoimeneko superstizioaren aurkako barkaberatasunarekin, justizia eginarazteak mota hobeko gizaki ororentzat hainbat atseginago izan behar baitu, liburu hori pentsatze arruntekoentzat, h. d. gehienentzat, beti kreditu txarrean egongo baita, zeren hori edonon eta erabat neurri batean antzekoa zaionak bakarrik prezia baitezake eta horretarako gutxienez disposizio ahul bat duenak. Horrek balio du nola intelektualkiarekiko, hala etikokiarekiko. Nolabait hemen bere lekua daukan adibidetzat kontsidera daiteke Spinozaren biografia frantses ezaguna, baldin eta horretarako giltzatzat bere tratatu oso askiezerako sarrera bikain hura erabiltzen bada: pasarte aldi berean grinaren ekaitza baretzeko nik ezagutzen dudako bitarteko eraginkorrenentzat hori gomenda nezake. Azkenik Goethe handiak berak, hain grekoa dena, ez zuen beretzat ezduintzat hartu gizadiaren alderik ederrena poesiaren ispilu argigarrian erakustea, obran Klettenberg andereñoaren bizitza idealizatua

aurkeztu zuenean eta gerora bere biografia propioan horretaz berri historikoak eman zituenean; nola gero Philipppo Neri santuaren bizitza birritan kontatu zigunean ere.

- Mundu-historia beti isilik geldituko da, eta hala behar du gainera gizakiez, zeinen portaera gure kontsiderazio honetako puntu garrantzitsu honen argitzapen bakar eta behar bestekoa baita. Zeren mundu-historiaren gaia zeharo bestelakoa baita, are kontrajarria, hots, ez bizitzeko nahimena ezeztatu eta abandonatzea, baizik bera baieztatu eta ezin zenbatu ahal norbanakotan agertzea, zeinetan bere buruarekiko banaketa bere objektibazioaren gailur gorenean agertzen baita argitasun osoarekin eta orain partikular baten gogoetak bere zuhurtziaren bidez, edo jendetzaren indarrak bere masaren bidez edo zoriaren pertsonifikazioa den ausaren botereak ahalegin guztiaren alferrekotasun eta deuseztasuna beti begien aurrean jartzen du. Baina guk hemen, agerpenen haria denboran jarraitzen ez dugunok, baizik filosofo gisa egintzen esangura etikoa ikertzen saiatzen garenok eta guretzat esangurazko eta garrantzizkoa denerako neurri bakartzat hartzen ditugunok, ez digu inolako izuak arrunkeria eta kamuskeriaren ahots-ugaritasun beti iraunkorraren aurrean munduak erakuts dezakeen agerpen handien, garrantzitsuen eta esanguratsuena ez dela mundu-konkistatzailea, baizik mundu-gainditzailea aitortzea eragotziko, horrela egitatean horrelako gizaki baten bizi-portaera isil eta oharkabea, zeinari iritsi baitzaio ezagutza hori, zeinaren ondorioz denean bultzatzen duen eta ahalegintzen den bizitzeko nahimena abandonatu eta ezeztatzen baitu, zeinaren askatasuna hemen, horretan bakarrik agertzen baita, zeinaren bidez aurrerantzean bere egitea ohikoaren zeharo aurkako bihurtzen baita. Filosofoarentzat ikuspegi horretatik bere buruari uko egiten dioten gizaki santuen biografia horiek, nahiz eta gehienetan oso gaizki idatzia izan, are superstizioz eta aldrebeskeriaz nahasturik eginak, hala ere gaiaren esangurazkotasunarengatik askozaz irakasgarriago eta garrantzitsuago dira Plutarko edo Livio bera baino ere.

Guk geure aurkezpenaren abstrakzio eta orokortasunean bizitzeko nahimenaren ezeztapen gisa adierazten dugunaren ezagutza zehatz eta osoagorako, ekarpen handia egingo du gainera zentzu horretan eta espiritu horretaz beterik dauden gizakiek emandako preskripzio etikoek, eta horiek berehala erakutsiko digute zeinen zaharra den gure ikuspegia, nahiz eta horren adierazpen filosofiko hutsa oso berria izan. Gugandik hurbilen dagoena kristautasuna da, zeinaren etika erabat aipaturiko espirituan baitago, eta giza maitasunaren gradu gorenera ez ezik uko egitera ere gidatzen baitu; azken alde hori apostoluen idazkietan ernamuin gisa oso argi baitago, nahiz eta gerora erabat garatu eta explicite adierazi izan zen Apostoluek agindurik aurkitzen ditugu: hurkoarenganako maitasuna norberarenganako maitasuna orekatuz, egitate onak burutzea, gorrotoa maitasuna eta ongi egitearen bidez konpentsatzea, egonarria, samurtasuna, irain ahalgarri guztiak kontrakarrik gabe eroatea, irritsa zapaltzeko janariarekiko gartxutasuna, sexu-instintuarekiko kontrakarra, ahal izanez gero erabatekoa. Jadanik dugu aszesiaren lehen mailak edo nahimenaren benetako ezeztapena hemen ikusten, zeinaren azken adierazpenak Ebanjelioetan norbere burua ezeztatzea eta gurutzea aldean hartzea deitu izan dena bera aipatzen baitu (Mat 16, 24.25; Mark 8, 34.35; Luk 9, 23.24; 14, 26.27.33). Joera hori gero eta gehiago garatu zen eta penitentziagileak, anakoretak eta monjegoa sorrarazi zituen, zeina bere baitan garbi eta santua baitzen, baina hain zuzen horregatik gizakien parte handienarentzat oso desegokia, horregatik hartatik garatutakoa azaluskeria eta desmasiak bakarrik izan ahal izan ziren: zeren [hoberenaren abusua txarrena]. Kristautasun argiztatuagoan ernamuin aszetiko hura loraldi betean garaturik ikusten dugu santu eta mistiko kristauen idazkietan.

Maitasun garbienarekin batera etsipen osoa predikatzen zuten, borondatezko pobretasun osoa, egiazko desatxikimendua, munduko gauza guztiekiko axolagabetasun betegina, norbere nahimenarekiko hiltzea eta Jainkoarengan birjaiotzea, pertsona propioa erabat ahaztu eta Jainkoaren begiespenean murgiltzea. Horren aurkezpen osoa Fénélon-en n aurkitzen da. Baina kristautasunaren espiritua bere garapen honetan ez dago inon hain perfektuki eta indartsu adierazirik mistiko alemaniarren idazkietan baino, Eckhard maisuaren eta arrazoiz ospetsua den liburuan, zeinaz Luterok harentzat idatzirik hitzaurrean baitio, ezein liburutatik ez duela gehiago ikasi, Biblia eta Agustin salbuetsirik, Jainkoa, Kristo eta gizakia zer den, horretatik baino - zeinaren testu benetako eta araztua 1851n Stuttgarterko edizioan Pfeiffer-engandik jaso baitugu. Bertan dauden preskripzio eta irakatsiak nik bizitzeko nahimenaren ezeztapen gisa aurkeztu dudaren azalpen osoena, konbentzimendu sakonenetik sortua da. Hor ezagutu behar da zehatzago konfiantza judutar-protestantearekin erdeinatu aurretik. Espiritu bikain berean idatzia, nahiz eta obra haren parean jartzerik ez dagoen, Taulerren 35 rekin batera. Nire iritzian benetako mistiko kristau hauen doktrinak Itun Berriarekiko duten zerikusia ardoaren spirituak ardoarekiko duena bezalakoa da. Edo: Itun Berrian belo eta laino artean bezala nabari zaiguna, mistikoen obretan estalkirik gabe agertzen da, klarutasun eta argitasun betean. Azkenik, Itun Berria lehen inimizazio kontsidera daiteke, mistikoak bigarren bezala - (GRIEGO).

Baina oraindik eliza kristauan eta mendebaldeko munduan baino garatuago, alde gehiagotatik adierazita eta biziago aurkeztuta aurkitzen dugu bizitzeko nahimenaren ezeztapena deitu duguna, sanskrito hizkuntzako obra guztiz antzinakoetan. Bizitzaren ikuspegi etiko garrantzitsu hark hemen garapen handiagoa eta adierazpen ausartagoa lortu ahal izatea, agian, nagusiki egotzi behar zaio hemen zeharo elementu arrotz batek, kristautasunean fede-sistema judutarra izan den bezalako batek murriztua ez egoteari, zeinara bere sortzaile bikainak beharrez batzuetan kontzienteki eta beste batzuetan agian inkontzienteki ere bai egokitu eta moldatu behar izan baitzuen, eta zeinaren bidez kristautasuna bi osagai oso heterogeneoz osaturik baitago, zeinetarik nik hobesgarritzat jotzen baitut etiko hutsa, eta are eskusiboki kristau deitu eta alde aurretik aurkituriko dogmatismo judutarretik desberdindu nahiko nukeen. Baldin eta jadanik sarritan eta bereziki gaurko garaian beldur zaionez, erlijio bikain eta osasungarri hori hondamenean erabat eroriko balitz: horren arrazoiak nik elementu sinple batez ez, baizik jatorriz heterogeneoak eta mundu-joairaren bitartez bakarrik lotu diren bi elementuz osaturik egotean bakarrik bilatuko nuke, zeinen bidez beren ahaidetasun desberdinetik eta gero eta argiztatuagoa den denbora-espirituarekiko erreakziotik sortuko litzatekeen banaketak kasu horretan disolbaketa ekarriko bailuke, zeinaren ondoren atal etiko hutsa hala ere kalterik gabe geldituko bailitzateke, suntsiezia denez gero. - Hinduen etikan, nahiz eta beren literaturaren ezagutza osatugabea izan, jadanik orain era askotariko eta indartsuenetan adierazita aurkitzen dugunez Vedetan, Puranetan, poeten obretan, mitoetan, beren satuen legendetan, maximetan eta bizi-arauetan³⁶, hau ikusten dugu agindurik: hurrekoaren maitasuna norbere-maitasunaren erabateko ukapenarekin; maitasuna oro har ez bakarrik giza espeziara zedarritua, baizik bizidun guztiak besarkatuz; ongia egitea egunero kostata lortutakoa emateraino; iraintzaile guztiekiko egonarri mugagabea; gaizki ororen konpentsatzea, nahiz eta oso gogorra izan, ongiaz eta maitasunaz; lotsa oro borondatez eta pozik jasatea; animaliaiki oroz elikatzeari uko egitea; kastitate osoa eta atsegin orori uko egitea benetako santutasunera jo nahi duenarentzat; jabetza oro baztertzea, bizileku oro, senide guztiak uztea, erabateko bakardade sakona, gogoeta isilean eramana, borondatezko

penitentzia eta autoatsekabetze lazgarri, geldoa nahimenaren mortifikazio osorako, zeina azkenik borondatezko heriotzera iristen baita gosearen bidez, baita krokodiloen aurrean jartzearen bidez, Himalaiako harkaitz-gailur sakratuetatik behera amiltzearen bidez, bizirik lurperatua izatearen bidez, baita jainkoen irudiak garraiatzen dituzten orga eskergen gurpilen azpira norbere burua jaurtitzearen bidez ere, baiaderen abesti, pozkario eta dantzen artean. Eta preskripzio horiek, zeinen jatorria lau mila urte baino lehenagokoa baita, oraindik ere, nahiz eta herri hori alderdi askotan endekaturik egon, bizirik jarraitzen dute, eta batzuek azken muturreraino eramaten dituzte³⁷. Hainbeste milioi besarkatzen dituen herrian hain luzaz praktikan egon dena, sakrifiziorik gogorrenak ezartzen dituelarik, ezin da hautaz asmatu apeta izan, baizik gizadiaren esentzian izan behar du bere arrazoia. Baina horri gehitu behar zaio ez dagoela gehiegi harritu beharrik aurkitzen den adostasunaz, penitentziagile edo santu kristau baten edo indiar baten bizitza irakurritz. Dogmak, ohiturak eta giroa errotik hain desberdinak direlarik ere, bien ahalegintzea eta barne-bizitza erabat bera da. Horrela bientzako preskripzioetan: adibidez, Taulerrek erabateko pobretasunaz hitz egiten du, zeina bilatu behar baita, eta zeina baitatza kontsolamenduren bat edo atsegin mundutarren bat atera dezakegun oro erabat baztertu eta hartaz gabetzean: nabaria da, zeren horrek guztiak nahimenari beti janari berria ematen baitio, zeinarengan erabat hiltzeko asmoa baitago: eta indiar kontratal gisa ikusten dugu Foren preskripzioetan etxebizitzarik eta inolako jabetzarik gabe egon behar duen saniassiarik azkenik gomendatzen, ez duela sarri zuhaitz beraren azpian egon behar, zuhaitz horrekiko inolako hobespen edo isuririk har ez dezan. Mistiko kristauak eta Vedanta filosofiaren irakasleak ere bat datoz berentzat, betegintzarrerara iritsi denarentzat, kanpoko obra eta erlijio-jarduera guztiak alferrikakotzat jotzen. - Hainbesteko bat-etortzea hain garai eta herri desberdinetan froga erreala da hemen ez dagoela, kamustasun baikorrak gogara baieztatzen duenez, zentzuaren aldrebeste edo eromenik, baizik giza naturaren alde esentzialen eta bere bikaintasunaren bitartez oso bakan agertuz bakarrik adierazten dena.

Orain iturburuak eman ditut, zeinetatik bitartegabe eta bizitzatik aterata fenomenoak ezagut baititzakegu, zeinetan bizitzeko nahimenaren ezeztapena aurkezten baita. Neurri batean, hauxe da gure kontsiderazio guztiaren punturik garrantzitsuena: hala ere, orokorrean aurkeztea besterik ez dut egin; izan ere, hobe baita esperientzia bitartegabetik hitz egiten dutenengana igortzea, haiek esandakoaren errepikapen ahulagoaren bidez liburu hau premiarik gabe oraindik puztea baino.

Hitz gutxi batzuk gehitzea besterik ez dut egingo egoera horren zehaztapen orokorrerako. Goian gaiztoa bere nahi izatearen suharrarengatik etengabe barneko tormentu urragarria sofritzen eta azkenik bere nahimen propioaren egarri amorratua, nahi izatearen objektu guztiak agortu direnean, inoren atsekabeari begira hozten ikusi dugun eran; horrela, kontrara, bizitzeko nahimenaren ezeztapena argitu zaiona, nahiz eta kanpotik pobre, pozgabe eta gabeziaz beterik ageri den, barneko pozkario eta egiazko bake zerutarrez beterik dago. Ez da bizi-oldar lasaitasungabea, ez poz alaia, zeinek alde aurretiko edo ondorengo baldintzatzat sofrimendu bizia baitauka, bizitzaz gozatzen duen gizakiaren portaera eratzen duena bezalakoa; bake kordokaezina da, lasaitasun sakon eta barneko naretasuna, egoera hori begien aurrean agertzen bazaigu edo irudimenaren indarrak jartzen badigu, ezin diogu joran handirik gabe begiratu; zeren justuki bakartzat berrezagutzen baitugu, gainerako guztia nabarmen gaunditzen duena bezala, zeinara gure espiritu hoberenak handia hots egiten baitugu. Orduan ongi sentitzen dugu mundutik lortutako gure desiren betetze

orok limosna baten antza duela, zeinak gaur bizirik eusten baitio eskaleari bihar berriz ere gose izan dadin; kontrara etsipenak oinordekotzan hartutako etxaldearen antza du: jabeari kezka guztiak kentzen dizkio betiko.

Hirugarren liburutik gogoratu behar dugu ederkiarekiko poz estetikoak neurri handi batean kontenplazio hutseko egoeran sarturik dagoela, une horretan nahi izate orotatik, h. d. desira eta kezka orotatik jareginik, nolabait esateko geure buruagandik jaregitean, ez gara bere nahi izatearen bidez ezagutzen duen norbanakoa, objektu partikularren korrelatua, zeinari objektuak motibo bihurtzen baitzaizkio, baizik ezagutzearen subjektu betiko nahimengabea, ideien korrelatua: eta badakigu aldiune hauek, zeinetan nahimen-older amorratutik jareginik, nolabait lurreko eterraren gainetik gailentzen baikara, ezagutzen ditugun dohatsuenak direla. Horretatik imajina dezakegu zeinen dohatsua izan behar duen gizaki baten bizitzak, zeinaren nahimena ez aldiune batean ederkia gozatzean bezala, baizik betiko bareturik dagoenean, are erabat iraungia azken txinpart dizdizari hartaraino, zeinak soina kontserbatzen baitu eta horrekin iraungitzen baita. Horrelako gizaki batek, zeinek bere natura propioaren aurka borroka mingots askoren ondoren azkenik irabazi egin baitu, izaki ezagutzaile huts bezala, munduaren ispilu lausotugabe bezala soilik geratuz. Ezerk ezin du larritu aurrerantzean, ezerk ezin du higitu aurrerantzean: zeren nahi izatearen mila hariak, irrits, beldur, inbidia, kolera gisa munduari loturik edukitzen eta hara-hona mugiarazten gaituztenak, min etengabeen artean, ebaki egin baititu. Lasai eta irribarrez begiratzen die mundu honetako irudi lilurazkoei, zeinak garai batean bere gogamena higitu eta atsekabetzeko gai baitziren, baina orain joko amaitu ondoren xakeko figurak bezain axolagabe baitaude bere aurrean, edo goizean jaurtitako mozturroak bezala, zeinen txakurrak inauteri-gauean txantxetan eta zirikatzen ibili baitzaizkigu. Bizitzak eta bere txakurrak haren aurrean agerpen iragankor batek bezala flotatzen dute, erdi-itxartuaren aurrean goiz-amets arin batek bezala, zeinean barrena jadanik errealitate erdi-nabaria baita eta horregatik ezin baitu engainatu: eta hori bezalaxe desagertzen dira azkenik igarobide indarrezkorik gabe. Kontsiderazio horietatik ikas dezakegu ulertzen zer zentzutan Guyonek bere biografiaren azken aldera sarritan adierazten duen: - Zilegi bekit adierazteko, nola nahimena hil ondoren soinen heriotzak (zeina nahimenaren agerpena bakarrik baita, zeina ezabatzearekin berak bere esangura guztia galtzen baitu) ezin dezake ezer mingotsik izan, baizik guztiz ongiatorri izan behar baitu - penitentziagile santu haren hitz propioak aldatzea: (2. libkia., 13. or.)

Hala ere, ez dugu uste izan behar, ezagutza kietibo bihurtu delako bizitzeko nahimenaren ezeztapena sortu delako, aurrerantzean inoiz atzera egin ez dezakeenik eta behin betiko lortutako jabetza bailitzan hartan atsedena har litekeenik. Aitzitik, borroka etengabearen bitartez berriro irabazi beharra dago. Zeren nola soina nahimena bera den, objektitatearen forman edo agerpen gisa munduan errepresentazio gisa; horrela existitzen da soina bizi den bitartean, bizitzeko nahimen osoa ere bere ahalgarritasunaren arabera eta ahalegintzen da beti, errealitatean agertu eta berriro bere distira osoarekin izekitzen. Horregatik aurkitzen dugu gizaki santuen bizitzan deskribaturiko lasaitasun eta dohatsutasun hura loratzea bezala, nahimena beti gaunditzetik sortzen dena, eta bera ernarazten duen lurtzorua bezala ikusten dugu bizitzeko nahimenarekiko borroka etengabea: zeren lurrean ezinezkoa baita lasaitasun iraunkorrik izatea. Horregatik ikusten ditugu santuen barneko bizitzen kondairak arimako borrokaz, tentaldiz eta graziak abandonatzeaz beteak, h. d. ezagutza-era horiek, zeinek motibo guztiak eraginkortasunik gabe utzirik nahi izate ororen kietibo orokor gisa lasaitu, bakerik

supituki sortzen den bizitzeko nahimenaren, h. d. salbamenaren, ezeztapenaren bristada bezala da. Oso gaiztoak izan direnak berak ere ikusten ditugu batzuetan min gogorrenen bidez gradu horretaraino arazturik: bestelako bihurtu eta osoki eraldatu direla. Horregatik garai bateko egintza gaiztoek ez dute kontzientzia jadanik larritzen; hala ere, gogara pekatzen dituzte heriotzarekin eta borondatez ikusten dute nahimen horren agerpena amaitzen, beraiei orain arrotz eta izugarri zaiena. Zorigaitz handiaren eta salbamenarekiko etsipenaren bitartez ekarritako nahimenaren ezeztapen horren aurkezpen argi eta begiesgarri bat, nik beste inongo poesiatan ezagutzen ez dudan bezalakoa, Goethe handiak eman du bere maisu-lan hilezkorrean Gretaxoren sofrimenduen kondairan. Hori bigarren bidearen eredu betegina da, nahimenaren ezeztapenera gidatzen duenarena, ez lehena bezala, borondatez norbereganatzen den mundu oso baten sofrimenduaren ezagutza soilaren bidez; baizik norberak sentituriko min propio bapikatuaren bidez. Zinez tragedia askok eramaten dituzte indartsu izan nahi duten beren heroiak azkenean erbateko etsipenaren puntu horretara, non gero eskuarki bizitzeko nahimena eta bere agerpena aldi berean amaitzen baitira: baina nik ezagutzen ditudan aurkezpenen artean, eraldakuntza horren esentzia ez du beste ezeinek jartzen begien aurrean albolan guztietatik bereizirik, lehen aipaturiko k bezain argi eta garbi.

Bizitza errealean sofrimenduaren neurri handiena hustu behar duten dohakabeak, izan ere, itxaropen guztiak erabat kendu zaizkielarik, urkabeen heriotza lotsagarri, indartsu, sarritan tormentutsu batera joaten ikusten ditugu espirituaren indar betean, sarri askotan era horretara eraldaturik. Ezin dugu onartu, horien karakterren eta gizakirik gehienen artean beren zoriak adierazten duena bezain desberdintasun handirik dagoenik, baizik azken hori neurri handi batean zirkunstantziei egotzi behar zaie: hala ere, errudunak dira eta gaiztoak gradu kontsideragarrian. Orain horietako asko ikusten ditugu, itxaropengabezia osoa agertu delarik, aipaturiko moduan eraldaturik. Orain ontasun erreala eta asmoaren garbitasuna erakusten dute, egiazko izuikara sentitzen dute egitate gaizto edo maitasungabe txikienetako bakoitza burutzearen aurrean: barkatu egiten diete beren etsaiei, nahiz eta errugabeki sofriarazten dietenak izan, ez hitzez soilik edo azpimunduko epaileenganako beldur hipokritaz; baizik egitatean eta barneko seriotasunez, eta ez dute inolako mendekurik nahi. Bai beren sofritzea eta heriotza azkenean gogoko dute; zeren bizitzeko nahimenaren ezeztapena gertatu baita: sarritan baztertu egiten dute eskainitako salbamena, gogara hiltzen dira, lasai, dohatsu. Minaren desmasian bizitzako azken sekretua jarri zaie agerian, hots, gaitza eta gaizkia, sofrimendua eta gorrotoa, tormentatua eta tormentatzailea, nahiz eta oso desberdin agertu arrazoiaren printzipioari darion ezagutzarekiko, beren baitan bat direla, bizitzeko nahimen bakar horren agerpen, zeinak bere buruarekiko gatazka principium individuationis-aren bitartez objektibatzen baitu: bi aldeak dituzte, gaizkia eta gaitza, ezagutu dituzte neurri betean, eta azkenean bien identitatea ulertzen dutelarik, biak batera baztertzen dituzte berengandik orain, bizitzeko nahimena ezeztatzen dute. Zein mito eta dogmatan beren arrazoimenari ezagutza intuitibo eta bitartegabe horren berri eta beren eraldakuntzaren kontu ematen dioten, esan denez, guztiz axolagabea da.

Era horretako zentzu-aldaketaren lekuko Matthias Claudius izan da zalantzarik gabekoa (1. atala, 115. or) izenburuean artikulua ohargarria idatzi baitzuen, honako amaierarekin. «Gizakiaren pentsatzeko era periferiako puntu batetik alderantzizkora igaro daiteke eta atzera berriz aurreko puntura, baldin eta zirkunstantziek

horretarako arkua marrazten badiote. Eta aldaketa horiek ez dira gizakiarengan aurkitzen ditugun gauza handi eta interesgarriak. Baina aldaketa ohargarri, katoliko, transzendental hura, zeinean zirkulu osoa ezinbestean hautsi eta psikologiako lege guztiak kaskal eta huts bihurtzen baitira, larruazaletik erantzitako jantzia, gutxienez alderantzitara jartzen baita eta gizakiari ezkata modukoak erortzen baitzaizkio begietatik, horrelako zerbait gertatzen zaiona, baldin eta bere sudurrean duen hatsaz nolabait kontziente bada, aita eta ama uzten ditu, horretaz zerbait ziurra entzun eta sentitu ahal izateko.». Gainerakoan heriotzaren eta itxaropengabeziaren hurbiltasuna ez da inondik ere beharrezko sofrimenduaren bidez horrelako arazketa baterako. Hori gabe ere zorigaitz eta min handiaren bidez bizitzeko nahimenaren kontraesanaren ezagutza indarrez barnera daiteke bere buruarekin, eta ahalegin guztien ezereztasuna ulertu ere bai. Horregatik ikusten da sarritan gizonak, grinaren eraginpean bizitza oso mugitua izan dutenak, erregeak, heroiak, abenturazaleak, supituki aldatzen, etsipen eta penitentziara jotzen, anakoreta eta monje bihurtzen. Horrelakoak dira benetako konbertsio-kondairak, adibidez, Raimon Llullena, zeinak dama eder baten atzetik luzaroan ibili ondoren, azkenean hark gelara deitu zuelarik, bere desira guztiak betetzea irrikaz espero zuenean, emakumeak bere paparreko lakioa irekiz, minbiziak era lazkarrian jandako bularra erakutsi baitzion. Une hartatik aurrera, infernua ikusi izan balu bezala, konbertitu egin zen, Mallorcako erregearen gordea utzi eta basamortura joan zen penitentzia egitera³⁹. Konbertsio-kondaira horren oso antzekoa da Abbé Rancé-rena, bigarren liburukiko 48. kapituluaren labur kontatu dudana. Baldin eta kontsideratzen badugu bietan atseginetik bizitzako ikaragarrietarako igarobidea izan dela eragingarria; horrela argibide bat eman digu argitzeko nola Europako nazio bizizale, alai, zentzukoi eta arinenaren, frantsesaren baitan sortu den monje-ordena askozaz zorrotzena, trapatarrena, eta behera egin ondoren Rancék berrezarria izan zena eta, iraultzak, eliz aldaketak eta hedaturiko fedegabezia gorabehera, gaur arte bere garbitasunean eta zorroztasun beldurgarrian baitirau.

Bizimodu honen izaeraren lehen aipaturiko eraren ezagutza bere eragingarriarekin batera berriro urrundu egin daiteke eta bizitzeko nahimena eta horrekin aurreko karakterra berriz ager daitezke. Horrela ikusten dugu Benvenuto Cellini grinatsua behin kartzelan eta beste batean gaixotasun larri batean horrela eraldaturik, baina sofrimendua desagertzean egoera zaharrean berriz erortzen. Oro har, ez da sofrimendutik nahimenaren ezeztapena sortzen kausatik efektuaren beharrezkotasunarekin, baizik nahimena aske gelditzen da. Zeren hemen baitago puntu bakarra, non ere bere askatasuna agerpenean bitartegabe sartzen baita: horregatik Asmusek ari buruz hain indartsu adierazitako harridura. Sofrimendu bakoitzean suhertasunean goragokoa eta horren bidez menderaezina den nahimen bat pentsa daiteke. Horregatik kontatzen du Platonek en horrelakoak exekuzioaren azken unea arte jaten, edaten, sexu-gozamenetan, heriotza arte bizitza baieztatzen aritzen direla. Shakespearek ⁿ⁴⁰ desesperazioak jota hiltzen den malapartatu baten amaiera beldurgarria dakarkigu begietara, izan ere ez sofrimendua eta ez heriotza ez baitira gai gaiztakeriaren muturrerainoko nahimen suharra hausteko.

Zenbat eta suharragoa nahimena, hainbat distiratsuagoa bere gatazkaren agerpena: hainbat handiagoa sofrimendua ere. Gaur eguneko baina askozaz nahimen suhartsuagoaren agerpena litzatekeen mundu batek hainbat sofrimendu handiagoa erakutsiko luke: infernu bat izango litzateke beraz.

Sofrimendu orok, mortifikazio bat eta etsipenera bideratze bat den heinean, ahaltsunaren arabera indar santutzaile bat duelako; hortik azaltzen da zorigaitz

handi batek, min gogorrek beren baitan halako errespetu bat sortarazten dutela. Guztiz errespetagarri bihurtzen zaigu sofritzen duena, baldin eta bere bizitzako joaira sofrimenduzko katea bat bezala gainetik ikusiz edo min handi eta sendaezin bat bezala deitoratuz, benetan zirkunstantzien kateakuntzari ez badio begiratzen, zeinek bere bizitza doluan amiltzen baitzuten, eta menderatu duen zorigaitz partikular handi hartan ez badirau - zeren horraino bere ezagutzak arrazoiaren printzipioari jarraitzen baitio eta agerpen partikularrari atxikitzen baitzaio; beti nahi du bizitza, baina ez berari gertatu zaizkion baldintzetan- baizik errealki errespetagarri bihurtzen da bere begirada partikularretik orokorrera goratzen denean, bere sofrimendua osokiaren adibide bezala bakarrik kontsideratzen duenean eta berarentzat, ikuspegi etikotik genial bihurtzen delarik, kasu bakarrak milaren balioa hartzen du⁴¹, horregatik bizitzaren osokiak, sofrimendu esentzial gisa kontzebituak, etsipenera eramaten baitu. Horregatik da errespetagarria Goetheren n printzesa, xehetasunak ematean, nola bere bizitza propioa eta beretarrena beti triste eta pozgabea izan den, eta horretan erabat orokorkia ikusten baitu.

Oso karakter noble bat beti pentsatzen dugu tristura isilezko halako kutsu batekin, zeina ez baita etengabeko umore txar gisako bat eguneroko kontrakarrengatik (hori nobletasunik gabeko ezaugarria da eta izaera gaiztoa areago salatuko luke); baizik bizitza guztiko ontasun guztien eta sofrimendu guztien ezereztasunaren ezagutzatik sortutako kontzientzia. Hala ere, ezagutza hori norberak esperimaturiko sofrimentuaren bidez sor daiteke, batez ere handi bakar baten bidez; Petrarca desira beteezin bakar batek bizitza osoari buruzko etsipenezko tristura hartara eraman zuen bezala, zeina bere obratik hain hunkigarriki mintzo baitzaigu: zeren berak jazartzen zuen Dafnis desagertu egin behar izan baitzitzaien eskuetan, bere buruaren ordeaz ereinotz hilezkorra uzteko. Baldin eta zoriaren horrelako uko-egite handi eta atzeraezinaren bidez halako neurri batean nahimena hausten bada; orduan gainerakoan ia ez da ezer nahi izaten, eta karakterra samur, triste, noble, etsitu azaltzen da. Nahigabeak azkenik objektu determinaturik ez duenean, baizik bizitzaren osokiraino hedatzen denean; orduan bere baitara joate bat da, itzulera bat, nahimenaren pixkanakako desagertze bat, zeinaren ikuskortasuna, soina lasai baina barrenekoenean azpia jaten baitio, gizakiak horretan bere lokarrietatik halako askapen bat sentitzen duelarik, soinen eta nahimenaren disolbatzearen aurrenentimendu samur bat aldi berean iragartzen duen heriotzarena; horregatik nahigabe horrek poz sekretu bat du lagungarri, zeina, nik uste dudanez, herri guztietan melankolikoenak izendatu baitu. Baina oraindik sentiberakeriaren arraila ere badago nola bizitzan bertan hala horren aurkezpenean, poesian: zeren beti negar eta deitore egiten baita, etsipenera igo eta animatu gabe; horrela zerua eta lurra aldi berean galdu eta sentimentalitate urtsu batean geldituz. Sofrimenduak ezagutza hutsaren forma soila hartu eta horrek nahimenaren kietibo gisa egiazko etsipena ekartzen duen heinean da salbamenerako bidea, eta horregatik errespetagarri. Ikuspegi horretatik oso zorigaitzekoa den zerbaiti begiratzearan halako begirune bat sentitzen dugu bertuteak eta arima-handitasunak eragiten digutenaren ahaide dena, eta aldi berean gure egoera zoriontsua bera ahakar bat bezala agertzen da. Ezin dugu besterik egin sofrimendu oro, nola norberak sentitua hala inorena, bertute eta santutasunerako gutxienezko hurbiltze ahalgarri gisa kontsideratu baino, aitzitik atseginak eta asebetetze mundutarrak hartatik urruntze gisa. Hori hainbesteraino da, non gizaki oro, gorputzeko sofrimendu handi bat edo espiritual gogor bat jasaten ari dena, are esfortzu handiena eskatzen duen gorputzeko lana bere aurpegiko izerditan eta akidura nabariaz burutzen duen oro, baina hori guztia egonarria eta marmarrarik gabe, diot nik, horrelako gizaki oro, arreta sakonez kontsideratzen badugu, nolabait

sendaketa mingarri bat hartzen ari den gaixo bat bezala agertzen zaigu, zeinak eragindako mina nahita eta gogobetetasunez ere jasaten baitu, bai baitaki, zenbat eta gehiago sofritu, hainbat gehiago suntsituko dela gaixotasunaren gaia ere, eta horregatik presenteko mina bere sendakuntzaren neurria izango dela.

Orain arteko guztiaren arabera bizitzeko nahimenaren ezeztapena, zeina erabateko etsipena edo santutasuna izendatzen dena baita, nahimenaren kietibotik sortzen da beti, zeina bere barneko gatazkaren eta bere ezereztasun esentzialaren ezagutza baita, bizidun guztien sofrimenduan adierazten dena. Bi bide bezala azaldu dugun desberdintasuna da ezagutza hori, sofrimendu berrezagutu soil eta hutsa horren norbereganatze askearen bidez principium individuationis-a barreneraino ikustearen bitartez sortzen dela edo sofrimendu bitartegabe sentituaren bidez. Egiatzko salbamena, bizitzatik eta sofrimendutik salbatzea nahimenaren erabateko ezeztapenik gabe ezin liteke pentsa. Horra arte bakoitza nahimen hori besterik ez da, zeinaren agerpena existentzia iragankorra, beti ahalegin hutsaldu, beti deuseza eta sofrimenduz beteriko mundu aurkeztua baita, zeinari era berean baikagozkio denok ezinbestean. Zeren goian aurkitu dugu bizitzeko nahimenari bizitza beti ziurra zaiola eta bere forma erreala bakarria presentea, zeinari ezin baitio ihes egin, jaiotza eta heriotza gobernatzen dituen heinean. Mito indiarrek hori adierazten du esaten duenean: . Karakterren desberdintasun etiko handiaren esangura da gaiztoa amaigabeki urrun dagoela nahimenaren ezeztapena sortzen den ezagutzara iristetik, eta horregatik tormentu guztietara, bizitzan ahalgarri gisa agertzen direnetara, egiaren arabera errealki abandonaturik dagoela; zeren bere pertsonaren presenteko egoera zoriontsua Maiaren principium individuationis-aren bitartez transmitituriko agerpena eta itsumena baita, eskalearen amets zoriontsua. Bere nahimen-oldarraren suhar eta bapikatzean besteei eragiten zaizkien sofrimenduak, sofritzearen neurria dira, zeinaren esperientzia propioak ezin baitu bere nahimena hautsi eta ezeztapen amaikorrera eramanez. Aitzitik, maitasun egiatzko eta huts oro, are justizia aske oro, principium individuationis-aren barreneraino ikusetik sortzen baita, zeinak indar betean sartzean santutze eta salbatze osoa burutzen baitu, zeinaren fenomeno goian deskribaturiko etsipeneko egoera, hori laguntzen duen bake kordokaezina eta heriotzako pozkario gorena baita⁴².

§ 69

Gure orain arteko kontsideratze-eraren mugetan luzaroan aurkezturiko bizitzeko nahimenaren ezeztapenetik, zeina agerpenean gertatzen den bere askatasuneko egintza bakarria baita, eta horregatik, Asmusek izendatzen duenez, aldaketa transzendentala da, ezer ez da gehiago desberdintzen bere agerpen partikularren hautazko ezabatzea, suizidioa baino. Nahimenaren ezeztapena izatetik oso urrun nahimenaren baieztapen indartsuko fenomeno bat da. Zeren ezeztapenak ez baitauka bere esentzia sofrimenduak arbuiatzean, bizitzako atseginak baizik. Suizidak bizitza nahi du bakarrik gertatzen den baldintzekin ez dago pozik. Horregatik ez du bizitzeko nahimena abandonatzen, bizitza soilik, zeinean agerpen partikularra suntsitzen baita. Bizitza nahi du, soinen existentzia eta baieztapen eragotzi gabea nahi du; baina zirkunstantzien bigiztatzeak ez dio hori uzten eta sofrimendu handia sortzen zaio. Bizitzeko nahimena bera agerpen partikular horretan hain trabaturik aurkitzen da, non bere ahalegina ezin baitu garatu. Horregatik erabakitzen du berbaitango esentziaren arabera, zeina arrazoiaren printzipioaren taxuerez at baitago, eta zeinari horregatik edozein agerpen partikular axolagabe baitaio; izan ere, bera

sortze eta iraungitze orok ukigabe gelditzen baita eta gauza guztien bizitzaren barnekoa baita. Zeren barneko ziurtasun finkoa hura baita, zeinak egiten baitu gu guztiok heriotzaren etengabeko ikararik gabe bizitzea, nahimenari bere agerpenak inoiz huts egin ezin dion ziurtasunak ezartzen dio eustazpia egitateari suizidioan. Bizitzeko nahimena horrela bai nork bere burua hiltze horretan (Shiva) agertzen da, eta bai nork bere burua kontserbatzearen ongi-sentitzean (Vishnu) eta sortzearen atsegintasunean (Brahma). Hori da Trimurtiaren batasunaren barneko esangura, gizaki bakoitza osoa dela, nahiz eta denboran hiru buruetako bai bata, bai bestea erakusten baititu. - Gauza partikularra ideiarekiko bezala, horrela jokatzeko du suizidioak nahimenaren ezeztapenarekiko: suizidak norbanakoa bakarrik ezeztatzen du, ez espeziea. Dagoeneko lehenago ere aurkitu dugu, bizitzeko nahimenari bizitza beti ziur eta horri sofrimendua esentzial zaiolako, suizidioa, agerpen partikular baten hautazko suntsiera, zeinean berbaitango gauza suntsitu gabe gelditzen baita, ostarkua finko gelditzen den bezala, nahiz eta aldiune batean haren euskarri diren tantak bizkor aldatu, egintza alfer eta burugabea dela. Baina horrezaz gainera Maiaren maisu-lana ere bada, bizitzeko nahimenak bere buruarekiko duen kontraesanaren adierazpen nabarmenena. Nola guk kontraesan hori lehen nahimenaren agerpen beheerenetan berrezagutu dugun natur indarren eta banako organiko guztien kanporatze guztien materia, denbora eta espazioarengatiko borroka etengabea, eta nola gatazka hori nahimenaren objektibazioaren goranzko mailetan argitasun beldurgarriarekin behin eta berriz agertzen ikusi dugun; horrela iristen da azkenik maila gorenera, zeina gizakiaren ideia baita, gradu hori, zeinean ez soilik ideia bera aurkezten duten norbanakoek batabestea ezabatzen baitute, baizik norbanako berak bere buruari gerra aldarrikatzen baitio, eta bizitza nahi duen eta horren traba den, sofrimenduaren aurka erasotzen duen suharra bere burua suntsitzera inoiz eramaten du, horrela nahimen indibidualak soina, zeina bere ikuskortze propioa bakarrik baita, nahimen-egintza baten bidez ezabatzen baitu, sofrimenduak nahimena hautsi baino lehen. Suizidak nahi izateari utzi ezin diolako, uzten dio bizi izateari, eta nahimena baiezatu egiten da hemen bere agerpena ezabatzearen bidez, beste era batera baiezatu ezin delako. Baina hain zuzen sofrimendua, zeinari ihes egiten baitio, nahimenaren mortifikazio gisa bere buruaren ezeztapenera eta salbamenera eramaten ahal izango zuen zerbait da; horrela ikuspegi horretatik suizidak gaixo baten antza du, ebakuntza mingarri baten bidez erabat sendatu ahal izango litzatekeenarena, hasi eta gero, bukatzen utzi ez, baizik gaixotasunari iraunarazi nahi dionarena. Sofrimenduak hurbildu eta ireki egiten dio nahimena ezeztatzeko ahalgarritasuna; baina berak desbideratu egiten du, nahimenaren agerpena, soina suntsitzen diolarik, nahimena hautsi gabe gera dadin. - Hauxe da etika ia guztiek, nola filosofikoek hala erlijiosoek, suizidioa kondenatzeko duten arrazoia; nahiz eta horretarako arrazoi sofistiko bakanak bakarrik eman ditzaketen. Baina gizaki bat bulkada moral hutsengatik bakarrik suizidiotik inoiz atzeraraztea lortu balitz ere, bere burua gaunditze horren zentzurik barnekoena (zeinahi adigaiz bere arrazoimenak jantzi nahi izango lukeelarik ere) hau izango litzateke: «Ez diot sofrimenduari ihes egin nahi, bizitzeko nahimena, zeinaren agerpena hain atsekabea baita, ezabatzen lagundu ahal izateko, munduaren benetako esentziaren ezagutza jadanik hasia indartzeko, nire nahimenaren azken kietibo bihurtu eta betiko salba nazan.».

Ezaguna da tarteka suizidioa hurrengana ere hedatzen deneko kasuak gertatzen direla: aitak oso maite dituen haurrak erailtzen ditu eta gero bere burua. Pentsatzen badugu kontzientziak, erlijioak eta jasotako kontzeptu guztiek erailketan krimenik handiena ezagutarazten diotela, baina hori bere heriotzako orduan gertatzen

dela, eta horretara batere motibo egoistarik gabe iritsi ahal izan dela; orduan egitatea bakarrik azaltzen da norbanakoaren nahimena bitartegabe haurrengan berrezagutzen, baina agerpena berbaitango gauzatzat hartzera daraman eromenean harrapaturik, eta horretan bizitza ororen atsekabearen ezagutzak sakon harturik, orain agerpenarekin esentzia bera ezabatzeko asmoa du, eta horregatik bere burua eta haurrak, zeinengan bitartegabe bere burua berriz bizi izaten ikusten baitu, existentziatik eta bere nahigabetik salbatu nahi ditu. - Horren oso antzeko errore bat izango litzateke borondatezko kastitateak egiten duena naturaren helburuari iruzur eginez ernaltzean edo bizitzako sofrimendu ezinbestekoak kontuan harturik jaioberriari heriotza ematean, bizitzara jotzen duen bakoitzari bizitza segurtatzeko dena egin beharrean. Zeren bizitzeko nahimena existitzen denean, ezin baitu ezein indarrek hautsi metafisikoki edo berbaitango gauza bakar gisa, baizik toki horretan denbora horretan bere agerpenak bakarrik suntsi dezake. Bera ezin liteke ezeren bidez suntsi, ezagutzaren bidez izan ezik. Horregatik salbamenerako bide bakarra hau da, nahimena eragotzia izan gabe agertzea, agerpen horretan bere esentzia propioa berrezagutu ahal izateko. Ezagutza horren bidez bakarrik ezaba dezake nahimenak bere burua, eta horrekin baita bere sofrimendua, bere agerpenetik bereiztezina dena, amaitu ere: baina hori ez da ahalgarri indar fisikoaren bidez ernamuinaren suntsiera edo jaioberriaren erailketa edo suizidioa bezalakoen bidez. Naturak nahimena ere argira eramaten du, zeren argitan bakarrik aurki bailezake bere salbamina. Horregatik naturaren helburuak era guztietara bultzatu behar dira, bizitzeko nahimenak, bere barneko esentzia duen horrek, erabakia hartu duen bezain laster. -

Ohiko suizidiotik zeharo desberdina dirudi horren beste mota batek, zeina agian oraindik behar adina konstataturik ez baitago. Aszesiaren gradu gorenetik borondatez hautaturiko gose-heriotza da. Zeinaren agerpena beti asaldura erlijioso ugariz eta superstizioz lagundurik egon baita, eta horregatik lausotu egin baita; badiirudi, hala ere, nahimenaren erabateko ezeztapena irits daitekeela gradu batera, non soinen begetazioaren kontserbaziorako janaria hartzearen bidez beharrezkoa den nahimenak huts egiten baitu. Oso urrundurik dago suizidio mota hori bizitzeko nahimenetik sortzea, horrelako osoki etsitako aszeta batek utzi egiten baitio bizi izateari, erabat nahi izateari utzi diolako. Beste heriotza-mota bat gosearen bitartezkoaz bestelakorik ez da hemen inola ere pentsagarri (superstizio berezi batetik irtendakoa izan ezik), zeren tormentua laburtzeko asmoa errealki nahimenaren baieztapenaren gradu bat izango bailitzateke. Horrelako penitentziagile baten arrazoimena betetzen duten dogmak ispilarazten diote mota garaiago bateko izaki batek barau egiteko gomendatu diola, zeinara barneko isuri batek bultzatzen baitu. Horren adibide zaharragoak hemen aurki daitezke: iraila 1719, 363. or. hh: Bayle » Nouvelles de la république des lettres» otsaila 1685, 189. or. hh.; Zimmermann, libkia 1, 182. or; in 1764 Houttuye-ren txosten bat; bera dago errepikaturik in 1819, Heft 3, 460. or: in 1809, libkia 5, 319. or. 1833. urtean aditzera eman zuten egunkari guztiek Dr. Lingard historialari ingelesa urtarrilean Doverren nahitako gose-heriotzaz hil zela; geroagoko albisteen arabera ez zen bera izan, ahaide bat baizik. Horrela albisteetan norbanakoak zoro bezala aurkezten dira, eta ezin izaten da egiaztatu zenbateraino kasua horrelakoa izan zen. Baina mota horretako beste albiste bat ezarri nahi dut hemen, giza naturako fenomeno hunkigarri, txundigarri eta ezohikoaren adibide bakan baten konstatazio ziurtzat besterik ez bada ere, zeina itxuraren arabera horri baitagokio, non sar baitaiteke eta hortik kanpora nekez azal baitaiteke. Arestiko albiste aipatua 1813ko uztailaren 29ko en dago honako hitzekin:

«Bernatik diote Thurnen ondoko baso sarri batean txosna bat aurkitu dutela eta bertan ia hilabete inguru usteltze-egoeran zegoen gizon-gorpu bat jantziekin, zeinek argibide gutxi ematen baitute jabearen posizioaz. Alboan bi alkandora fin zeuden. Gauzarik garrantzitsuena Biblia bat zen orri zuri koadernotuekin, atal batean hildakoak idatzitakoekin. Bertan etxetik alde egin zuen eguna adierazten du (sorterria ez du aipatzen), gero esaten du: Jainkoaren espirituak basamortu batera bultzatu duela, otoitz eta barau egitera. Bertarako bidaian zazpi eguneko baraua egin zuela: gero berriro jan zuela. Gero bertan kokaturik berriro barau egiteari ekin ziola, eta zenbait egunez. Egun bakoitza marra batez adierazi zuela, eta horietako bost ageri dira, zeinen joairan erromesa ustez hil egin baitzen. Apaiz bati idatziriko gutun bat ere aurkitu zen sermoi bati buruzkoa, zeinari hildakoak entzun baitzion; baina helbiderik ez zeukan.» - Aszesiaren muturretik eta etsipenetik sortzen den borondatezko ohiko heriotzaren artean tarteko maila eta nahastura ugari izan daitezke, zinez azaltzeko zailak direnak; baina giza gogamenak baditu sakonera, iluntasun eta konplikazioak, argitu eta aztertzeko zailtasunik handienekoak direnak.

§ 70

Gure orain amaituriko aurkezpen hau, nahimenaren ezeztapena deitu dudana, agian bateraezintzat jo daiteke lehengo beharrezkotasunaren kontsiderazioarekin, zeina motibazioari eta arrazoiaren printzipioaren beste edozein taxuerari baitagokio, eta zeinaren ondorioz motiboak eta kausa guztiak kausa okasiozko baitira, zeinetan hemen karakterrak bere esentzia garatzen baitu eta natur lege baten beharrezkotasunarekin jartzen baita agerian, horregatik guk hor askatasuna liberum arbitrium indifferentiae gisa ukatu egin baikenuen. Hori hemen ukatzetik oso urrun, gogora ekartzen dut. Egiaz benetako askatasuna, h. d. arrazoiaren printzipioarekiko independentzia, nahimenari berbaitango gauza gisa bakarrik dagokio, ez bere agerpenari, zeinaren forma esentziala nonahi arrazoiaren printzipioa, beharrezkotasunaren elementua baita. Soilik kasu bakarra, zeinetan askatasun hura bitartegabe agerpenean ere ikuskor bihurtzen baita, agertzen denari bukaera ezartzen diona da, eta horretan agerpen soilak, kausen katean maila bat denez gero, soin bizidunak, denboran, bere baitan agerpenak bakarrik dauzkana, iraun egiten baitu, haren bitartez kanporatzen den nahimena berarekin kontraesanean jartzen da, berak adierazten duena hark ezeztatzen duen heinean. Kasu horretan, adibidez, nahiz eta genitalak sexu-instintuaren ikuskortasun gisa existitu eta osasuntsuak izan, hala ere, barrenenean, ez da sexu-asetzerik nahi: eta soin osoa bizitzeko nahimenaren adierazpen ikuskorra da, eta hala ere, nahimen horri dagozkion motiboek ez dute eragiten: are soinaren disolbatzeari, norbanakoaren amaierari eta horren bidez natur nahimenaren trabatzerik handienari ongi etorri egiten zaio eta desiratu egiten da. (Kontraesan erreal horren, zeina beharrezkotasunik ezagutzen ez duen bere baitako nahimenaren askatasunaren eskusartze bitartegabetik bere agerpenaren beharrezkotasunera agertzen baita, errepikapena besterik ez da filosofiaren gogoetan gure kontraesana, alde batetik motiboen bitartez karakterraren arabera nahimenaren determinazioaren beharrezkotasunari buruzko baieztapenaren, eta bestetik, nahimenaren ezabatze osoaren ahalgarritasunaren artekoa, zeinaren bidez motiboak indargabe bihurtzen baitira.) Kontraesan horiek bateratzeko gakoa honetan datza: egoera, zeinean karakterrak motiboen botereari ihes egiten baitio, ez da bitartegabe nahimenetik irteten, baizik ezagutza-era aldatu batetik. Ezagutza principium

individuationis-ean bakarrik harrapaturik, arrazoiaren printzipioaren arabera bakarrik gidatzen den bitartean, motiboen indarra ere erresistiezina da: baina principium individuationis-a barrenerraino ikusten denean, ideiak, are berbaitango gauzan esentzia nahimena bera gisa guztian bitartegabe berrezagutzen da, eta ezagutza horretatik nahi izatearen kietibo orokor bat sortzen da; orduan motibo partikularrek ez dute eraginkortasunik, zeren beraiei dagokien ezagutze-era, beste batek ilundurik, eta atzerarazirik geratu delako. Horregatik karakterra ezin da inoiz partzialki aldatu, baizik natur lege baten kontsekuentziarekin partikularrean nahimena burutu behar da, zeinaren agerpena baita osotasunean: baina osotasun hori, karakterra bera osoki ezaba daiteke goian aipaturiko ezagutzaren aldaketaren bidez. Bere ezabatze hori da, Asmusek, lehenago aipatu denez, izendatzen zuena, eta bera harritzen zuena: eliza kristauan oso egoki birjaiotze, eta hartatik sortzen den ezagutzari graziaren efektu deitu izan zaion hori bera ere bada. - Eta nola hemen ez aldaketa batez baizik eta karakterraren ezabatze oso batez ari garen hitz egiten, gertatzen da, ezabatze horren aurretik berak erasandako karakterrak oso desberdinak baziren ere, hala ere horren ondoren berdintasun handi bat erakusten dutela egintza-eran, nahiz eta bakoitzak bere kontzeptuen eta dogmen arabera oso desberdin hitzegi.

Zentzu horretan nahimenaren askatasunaren filosofema zahar, beti eztabaidatu eta beti baieztatua ez da arrazoigabea, eta graziaren efektuaren eta birjaiotzaren elizaren dogma ere ez da zentzurik eta esangurarik gabea. Baina itxaron gabe ikusten dugu biak bat egiten direla, eta orain uler dezakegu zer zentzutan Malebranche bikainak esan zezakeen: 43 eta arrazoa zeukan. Zeren mistiko kristauek graziaren efektua eta birjaiotza deitzen zuten hori guretzat nahimenaren askatasunaren kanporatze bitartegabe bakarra baita. Baina bakarrik agertzen da, nahimena, bere esentziaren ezagutzara heldurik, horretatik kietibo bat hartzen duenean eta horren bitartez motiboaren eragina kentzen zaionean, zeina beste ezagutza-era baten eremuan baitago, zeinaren objektuak agerpenak bakarrik baitira. - Horrela kanporatzen den askatasuna gizakiaren pribilejiorik handiena da, zeina animalari beti ukatzen baitzaio, zeren arrazoimenaren gogoetamena, zeinak presenteko inpresioarekiko independentzian bizitzaren osotasuna gainbegiratzeko aukera ematen baitu, horren baldintza baita. Animalia askatasunerako inolako ahalgarritasunik gabea da, benetako, beraz hausnarturiko hautapen-erabaki baterako ahalgarritasunik gabea den bezala aldeztu aurretik gertaturiko motiboen gatazka beteginaren ondoren, zeinek horretarako errepresentazio abstraktuak izan beharko bailukete. Harria lurrera erortzen den beharrezkotasun beraz, sartzen ditu otso goseak haginak bere harrapakinean, bera lepo egilea eta lepo eginga dela ezagutzeko ahalgarritasunik gabe. Beharrezkotasuna naturaren erreinua da; askatasuna graziaren erreinua da.

Zeren, ikusi dugunez, nahimenaren autoezabatze hura ezagutzatik abiatzen da, ezagutza eta ideia oro horrelakoa den heinean aukeramen askearekiko independentea da; horrela da nahi izatearen ezeztapen hura ere, askatasunean sartze hura, ez dagoela asmoaren bidez bortxatzerik, baizik gizakiarengan ezagutzeak nahi izatearekiko duen hartueman barrenekoenetik sortzen dela, horregatik supituki gertatzen da eta kanpotik emandako kolpe batez bezala. Horregatik deitu zion Elizak graziaren efektua: eta nola hori graziaren onartzeari loturik dagoen, kietiboaren eragina ere azkenean nahimenaren askatasun-egintza bat da. Eta horrelako graziaren eragin baten ondorioz gizakiaren esentzia osoa oinarritik aldatu eta alderantzizkatzen delako, horrela jadanik ez du nahi ordu arte hain suharki nahi izan duenetik ezertxo ere, horrela nolabait errealki gizaki berri bat agertzen da zaharraren lekuan, graziaren eraginaren ondorio horri birjaiotza deitu izan dio. Zeren gizaki natural deitzen duena, zeinari onerako

gaitasun oro ukatzen baitio, hori da bizitzeko nahimena ere, ezeztatu behar dena, gurea bezalako existentzia batetik salbamena lortu nahi bada. Gure existentziaren atzean beste zerbait dago ezkutaturik, mundua astindutakoan bakarrik lortu ahal izango duguna.

Arrazoiaren printzipioaren arabera, ez norbanakoak, baizik gizakiaren ideia bere batasunean kontsideratuz sinbolizatzen du fede-doktrina kristauak natura, bizitzeko nahimenaren baieztapena, Adamengan, zeinaren heredaturiko bekatuak, h. d. gure berarekiko batasuna ideian, zeina denboran sortzearen lokarriaren bitartez aurkezten baita, sofrimendu guztien eta betiko heriotzaren partaide bihurtzen baikaitu: kontrara graziak, nahimenaren ezeztapena, salbamena gizaki bihurturiko Jainkoagan sinbolizatzen du, bekatuzkotasun orotatik, h. d. bizi-nahimen orotatik, aske gisa, ez gu nahimenaren baieztapen deliberatuenetik irten ahal izan garen bezala, ezta soin bat izan dezakegun bezala ere, zeina erabat nahimen konkretua bakarrik, nahimenaren agerpen baita; baizik, ama birjina garbiarengandik jaioa, itxurazko soina besterik ez baitu. Azken hori dozeten, h. d. puntu honetan oso kontsekuenteak diren eliz guraso batzuen arabera. Batez ere Apellesek irakatsi zuen hori, eta bere eta bere jarraitzaileen aurka Tertuliano altza zen. Baina Agustinek berak ere iruzkintzen du Erromatarrek 8, 3 pasartea: [Jainkoak bere semea bekatuzko haragiaren itxurapean bidali zuen.] eta [zeren ez baitzen bekatuzko haragia, haragizko atseginetik jaioa ez zelako, baina hala ere bazegoen harengan bekatuzko haragiaren taxua, haragi hilkorra zelako.] (83, quaestio 66.). Berak irakasten du 1, 47 izeneko bere obran jatorrizko bekatua bekatu eta zigor dela aldi berean. Haur jaioberriengan jadanik aurkitzen dela, baina hazitakoan bakarrik azaltzen dela. Hala ere, bekatu horren jatorrira bekatariaren nahimenetik iristen dela. Bekatari hori Adam izan zela: baina berarengan denok existitu ginela: Adam zorigaitzeko bihurtu zela, eta berarengan gu denok zorigaitzeko bihurtu garela. - Errealki jatorrizko bekatuaren (nahimenaren baieztapenaren) doktrina eta salbamenarena (nahimenaren ezeztapenarena) da kristautasunaren muina eratzen duen egia handia; gainerakoa gehienbat jantzidura eta estalkia edo gehigarria besterik ez da. Horren arabera orokorrean beti hartu behar dugu bizitzeko nahimenaren ezeztapenaren sinbolo edo pertsonifikazio gisa; baina ez indibidualki, Ebanjelioetako bere kondaira mitikoaren arabera edo haien barrenean dauden ustezko egiazkoen arabera. Zeren ez bata eta ez besteak ez baitu erraz asetzen. Herriarentzako lehen kontzepzio haren eroailua besterik da, alde horretatik beti zerbait praktikoa eskatzen baitu. - Azken garai honetan kristautasunak bere egiazko esangura ahaztu eta baikortasun arrunt endekatu izana ez zaigu axola hemen.

Bada, gainera, kristautasunaren doktrina jatorrizko eta ebanjeliko bat, Agustinek Elizako buruekiko adostasunean pelagiotarren arrunckeriaren aurka defenditu zuena eta Luterok erroreetatik garbitu eta aldarrikatzea bere ahaleginen xede nagusi bihurtu zuena, bere liburuan espreski azaltzen duenez - hots, nahimena askea ez delako doktrina, baizik gaizkiaren joerara jatorriz menderatua; horregatik bere obrak beti bekatuzkoak eta akasduak direla eta ezin dutela justizia inoiz ase; horrela azkenik inola ere ez obra horiek, fedeak bakarrik egiten duela dohatsu: fede hori bera ez dela asmotik eta nahimen asketik sortzen, baizik graziaren efektuaren bitartez gure esku-hartzerik gabe eta kanpotik bezala. - Ez bakarrik lehenago aipatuak, baita azkeneko benetako dogma ebanjeliko hau ere gaur egun iritzi gordin eta arrunt batek absurdutzat baztertu edo disimulatzen dituen horietakoa da, izan ere, Agustin eta Lutero gorabehera, pelagiotar ulerkuntza murriztari atxikirik, gaur eguneko razionalismoak dogma sakon eta kristautasunari zentzurik estuenean berriki eta esentzialak arbuia egiten baititu, aitzitik judutasunetik datorren eta berak gordea, kristautasunaren bide historikoari lotutako⁴⁴ dogmari bakarrik eusten dio

finko eta bihurtzen du gai nagusi. - Baina goian aipaturiko doktrinan gure kontsiderazioaren emaitzarekin osoki bat datorren egia berrezagutzen dugu. Izan ere, ikusten dugu benetako bertuteak eta asmoaren santutasunak bere lehen jatorria ez daukatela aukeramen hausnartuan (obretan), baizik ezagutzen (fedean): geure pentsamendu nagusitik garatu dugun bezala. Obrak izango balira, motiboetatik eta asmo hausnartuetatik irtenak, dohatsutasunera gidatzen dutenak; orduan bertutea beti egoismo zuhur, metodiko eta urrun-begiratzaillea bakarrik izango litzateke. - Baina fedea, eliza kristauak dohatsutasuna agintzen diona, hau da: lehen gizakiaren bekatuan erortzearen bitartez denok horretan esku hartu eta heriotza eta hondamendira kondenaturik gaudenez gero, guk guztiok graziaren eta geure erru eskergak onartzearen bitartez, bitartekari jainkotiarren bitartez salbatuak izango garela, eta egiazki hori batere gure (pertsonaren) meriturik gabe; izan ere, pertsonaren intentziazko (motiboen bidez determinaturiko) egitetik sor daitekeenak, obrek zeharo eta beren naturaren arabera ezin baikaituzte inoiz justifikatu, hain zuzen intentziazkoa delako motiboaren bitartez buruturiko egitea, opus operatum. Fede horretan dago, lehenik, gure egoera jatorriz eta esentziaz salbamengabea dela, eta horretatik salbamen behar dugula; gero, gu geu esentzian gaiztotasunari gagozkiola eta hari hain finko loturik gaudela, non gure obrek legearen eta preskripzioaren arabera, h. d. motiboen arabera, ezin dutela justizia ase, ezta gu salbatu ere; baizik salbamen fedearen bitartez bakarrik, h. d. ezagutza-era aldatu baten bidez, lortuko dela, eta fede hori bera graziaren bitartez bakarrik, beraz kanpotik bezala, etor daitekeela: horrek esan nahi du salbamen gure pertsonari erabat arrotz zaiola, eta persona horren salbamenerako beharrezko ezeztapen eta ezabatzea adierazten duela. Obrek, legeari bere horretan jarraitzeak ezin dute justifikatu, beti motiboengatik egintzak direlako. Luterok defenditzen du (liburuan), fedea sartu denean, obra onak berenez bakarrik sortzen direla hartatik, haren sintoma, fruitu bezala; baina inola ere ez meritu, justifikazio edo sarirako uzi bezala, baizik borondate hutsez eta doan gertatuz. - Gero eta klaruago bihurtzen den principium individuationis-aren barneraino ikustearen bitartez lehenik justizia askea, gero egoismoa erabat ezabatzerainoko maitasuna eta azkenik etsipena edo nahimenaren ezeztapena sortzen dira. Fede-doktrina kristauko dogma hauek, bere baitan filosofiari arrotz zaizkionak, hona ekarri baditugu, hori azaltzeko izan da, gure kontsiderazio osotik sortzen den eta haren atal guztiekin doiki bat datorren eta lotzen den etika, adierazpenaren arabera berria eta entzungabea bada ere, esentziaren arabera ez dela inola ere, baizik osoki bat datorrela dogma kristauarekin guztiz benetan eta horietan bertan esentziaren arabera zegoela eta existitzen zela; zehazki bat datorren bezala zeharo beste forma batzuetan aurkezturiko Indiako liburu santuetako doktrina eta preskripzio etikoetan. Eliza kristauaren dogmak gogoratzeak aldi berean balio izan digu itxurazko kontraesana azaldu eta argitzeko, alde batetik, karakterraren kanporatze guztien beharrezkotasunaren artekoa aurrez emandako motiboetan (naturaren erreinua), eta bestetik, nahimenaren berbaitango askatasunaren artekoa, bere burua ezeztatu eta karakterra haren gainean oinarrituriko motiboen beharrezkotasun guztiarekin ezabatzeko (graziaren erreinua).

§ 71

Nik hemen etikaren oinarri-ezaugarriak eta horrekin batera komunikatzeko asmoa neukan pentsamendu bakarraren garapen osoa amaitzean, ez dut inola ere ezkutatu nahi aurkeztearen azken atal horrekiko objekzio bat, baizik erakutsi gaiaren esentzian

dagoela eta ezinezkoa dela hori baztertzea. Eta objekzioa da, gure kontsiderazioaren arabera azkenik iristen bagara santutasun beteginean nahi izate ororen ezeztapen eta ezabatzea eta horren bitartez mundu baten salbamena, zeinaren existentzia osoa sofrimendu gisa aurkeztu baitzaigu, begien aurrean izatera, hori doi-doi ezerez hutserako igarobide gisa agertzen zaigula.

Hori dela eta, lehenik oharrarazi behar dut ezerezaren adigaia esentzian erlatiboa dela eta ukatzen duen eta beti determinatua den zerbaitekin duela zerikusia. Gaitasun hau nihil privativum-ari bakarrik egotzi zaio (Kantek alegia), zeina + baten kontrara - batekin markaturik baitago, eta - hori alderantzizko ikuspuntuan + bihur liteke, eta nihil privativum horren oposizioan nihil negativum-a ezarri da, zeina edozein harremanetan ezer ez bailitzateke, zeinarako bere burua ezabatzen duen kontraesan logikoa adibidetzat erabiltzen baita. Hurbilagotik kontsideratuz gero, ez dago ezerez absolutu bat, ez dago osoki benetako nihil negativum pentsagarria bakarrik denik: baizik mota horretako bakoitza, ikuspuntu garaiago batetik kontsideraturik edo adigai zabalago batean subsumiturik, beti nihil privativum bat bihurtzen da. Ezerez oro horrelakoa da beste zerbaitekiko harremanean pentsaturik bakarrik, eta harreman hori beste edozeinekiko ere suposatzen du. Kontraesan logiko bat bera ere ezerez erlatibo bat besterik ez da. Ez da arrazoimenaren pentsamendu bat; baina horregatik ez da ezerez absolutua. Zeren hitz-elkarketa bat da, ezin pentsatuzkoaren adibide bat da, zeinaren premia beharrezkoa baita logikan, pentsamenduaren legeak erakusteko: horregatik baldin eta helburu horretarako horrelako adibide batetik abiatzen bada, zentzugabeari bilatzen den positibokiari bezala finko eusten zaio, zeren zentzuari negatibokia den heinean gainera jauzi egiten baitzaio. Horrela nihil negativum edo ezerez absolutu oro, baldin eta adigai garaiago bati subordinatu bazaio, nihil privativum soil bat edo ezerez erlatibo gisa agertuko da, zeinak beti ukatzen duenarekin bere zeinuak trukatu baititzake, horrela hura negazio gisa, baina hura bera posizio gisa ere pentsa litekeelarik. Horrekin bat dator ezerezari buruzko ikerketa dialektiko zailaren emaitza, Platonek n (258 D, editio Bipontini 258, 12) adierazten duena: (GRIEGO) (Cum enim ostenderemus alterius ipsius naturam esse perque omnia entia divisam atque dispersam invicem; tunc partem eius oppositam ei, quod cuiusque ens est, esse ipsum revera non ens asseruimus.) [Baldin eta frogatuko bagenu beste bat izatearen natura existitzen dela eta izaki guztiengana hedatzen dela elkarrekiko bere harremanean, eta natura horretako ataltxo partikular bakoitza izakiari kontrajarriko bagenio, orduan ausartuko ginатеke esatera hori ere egiaz ez-izakia dela.]

Orokorrean positibo gisa hartua, guk izaki deitzen duguna, eta zeinaren negazioa ezerez adigaia bere esangurarik orokorrean adierazten baitu, errepresentazioaren mundua da hain zuzen, nik nahimenaren objektitate gisa, bere ispilu gisa, erakutsi dudana. Nahimen hori eta mundu hori gu geu gara, eta horri dagokio errepresentazioa oro har bere alde bat bezala: errepresentazio horren forma espazioa eta denbora da, horregatik ikuspuntu horretatik existitzen denak nonbait eta noizbait existitu behar du. Errerepresentazioari dagokio gero adigaia ere, filosofiaren materiala, azkenik hitza, adigaiaren zeinua. Nahimenaren ezeztapena, ezabatzea, bihurtzea munduaren, bere ispiluaren ezabatze eta desagertzea ere bada. Ispilu horretan ikusten ez dugunean, alferrik galdetzen dugu zer bihurtu den, eta deitoratu egiten dugu, nongo eta noizkorik ez duenez gero, ezerezean galdu dela.

Alderantzizko ikuspuntu bat, ahalgarri izango balitzaigu, zeinuak trukatzeko izango litzateke, eta guretzat existitzen dena ezerez gisa eta ezerez hura existitzen dena bezala erakustea. Baina bizitzeko nahimena bera garen bitartean, azken hori guk negatiboki bakarrik berrezagutu eta ezaugarri dezakegu, zeren

Enpedoklesen maxima zaharrek, berdina berdinak bakarrik ezagutzen duelakoak, hemen ezagutza oro kentzen digu, alderantziz gure ezagutza erreal guztiaren ahalgarritasuna bertan oinarritzen da, h. d. mundua errepresentazio gisa edo nahimenaren objektitatea azken batean. Zeren mundua nahimenaren autoezagutza baita.

Baina horren gainean ezarri nahi izango bagenu, filosofiak negatiboki bakarrik nahimenaren ezeztapena gisa adieraz dezakeen horretatik nolabait ezagutza positibo bat lortzeko; orduan beharturik geundeke nahimenaren ezeztapen beteginera iritsi diren guztiek espe

rimentatu eta estasi, arrobamendu, argitzapen, Jainkoarekin bat-egite eta abar bezalako izenez ezaugarritu duten egoera aipatzera; egoera hori ez dago benetan ezagutza izendatzerik, ez baitauka subjektu eta objektu forma eta esperientzia propioari bakarrik baitagokio, eta ez da inori komunikagarria.

Baina guk, erabat filosofiaren ikuspuntuan iraun nahi badugu, hemen positibokiaren azken mugarrira lortu izanaren ezagutza negatiboarekin nahikotu, gogobete beharko dugu. Horrela berrezagutu dugu munduaren berbaitango esentzia nahimena dela eta bere agerpen guztietan bere objektitatea bakarrik, eta horiek jazartu ditugu natur indar ilunen oldar ezagutzagabetik gizakiaren egintza kontzientetsueneraino; horrela ez dugu ezeztapen askearekin, nahimenaren ezabatzearekin agerpen haiek guztiak ere ezabatzen diren kontsekuentziatik ihes egin nahi, xede eta atsedunik gabeko hertsatze eta bultzatze etengabe hura objektitatearen maila guztietan, zeinetan eta zeinen bitartez baitatza mundua, ezabatu era mailakatuan jarraitzen zaizkion formen aniztasuna, ezabatu nahimenarekin bere agerpen guztiak, azkenik baita horien forma orokorrak ere, denbora eta espazioa, eta horien azken oinarri-forma, subjektua eta objektua. Nahimenik gabe ez dago errepresentaziorik, ez dago mundurik.

Aurrean ezereza bakarrik gelditzen zaigu. Baina ezerezean desegite horren aurka asaldatzen dena, gure natura, bizitzeko nahimena besterik ez da. Guk ezerezari hainbesteko izua izatea horren beste adierazpen bat besterik ez da, bizitza hainbeste nahi dugula eta nahimen hori besterik ez garela eta bera baizik ez dugula ezagutzen. - Baina geure begirada geure behartsutasun eta mugatutasunetik saihesten badugu mundua gainditu zuten horiengana, zeinengan nahimenak, autoezagutza betera iritsirik, guztiarengan berriz bere burua aurkitu eta gero bere burua libreki ezeztatu baitu, eta zeinek gero beren azken aztarna bizia ematen dion soinarekin desagertzen ikustea itxaroten baitute; horrela azaltzen zaigu oldar eta bultzatze atsedengabearen ordeztasun, desiratik beldurrera eta poztetik sofrimendura etengabe igarotzearen ordeztasun, inoiz asetzen ez den eta inoiz hiltzen ez den itxaropenaren ordeztasun, zeinak gizaki nahieslearen bizi-ametsa eratzen baitu, bake hura, arrazoimen oro baino garaiago dagoena, gogamenaren itsas isiltasun erabatekoa, lasaitasun sakon hura, konfiantza eta naretasun kordokaezin hura, zeinaren distira soila aurpegian, Raffael eta Correggiok aurkeztu dutenez, Ebanjelio oso eta ziurra baita: ezagutza bakarrik gelditu da, nahimena desagertu egin da. Baina gero guk melankolia sakon eta mingarriarekin begiratzen diogu egoera horri, zeinaren alboan kontrastez argi betean agertzen baita gure propioaren atsekabea eta salbamengabea. Horregatik da kontsiderazio hori kontsola gaitzakeen bakarra, alde batetik sofrimendu sendaezina eta atsekabe amaigabea nahimenaren, munduaren agerpen gisa esentzian berrezagutu dugunean, eta bestetik nahimen ezabatuan mundua desegiten ikusten dugu eta ezerez hutsa bakarrik daukagula aurrean. Horrela era horretara, santuen bizitza eta portaeraren kontsiderazioaren bidez, zeina esperientzia propioan aurkitzera nekez iristen baikara, baina bere historia marraztua, bere barneko egiaren zigiluarekin bermaturik, arteak begien aurrean jartzen baitigu, ezerez horren inpresio iluna baztertu behar dugu, bertute eta santutasun ororen atzean azken xede gisa eralgitzen dena eta guri haurrari ilunpeak bezalako izua ematen diguna; horri ihes egin gabe indiarrek mito eta hitz esanguragabeen bitartez bezala, Brahmengan berrurrupatua edo budisten Nirvanaren bidez izatea bezala. Guk libreki aitortzen dugu: nahimenaren ezabatze erabatekoaren ondoren gelditzen dena ezer ez da oraindik nahimenaz beterik dauden guztientzat. Baina alderantziz ere nahimena konbertitu eta ezeztatu

zaienentzat gure mundu hain erreal hau bere eguzki eta esnebide guztiekin - ezer ez da⁴⁵.

Oharrak

Schopenhauerren testu honetako puntuazio-sisteman badira gure gaurko konbentzioekin bat ez datozen zenbait jokaera[: / ; / -] zeinuei dagokienez batik bat. Hala ere, egileak barnekoherentziarekin jokatu duenez, puntuazio hori errespetatzeari hobetsi diot, testuaren atal nagusiak artikulatzen dituen heinean. Aitzitik, perpausaren barneko puntuazioari dagokionez, gaur egun gure artean ohikoagoa den erabilerari hobetsi diot, [,] zeinuaren erabilerari dagokionez bereziki. Gure bertsia Wolfgang Frhr. von Löhneysen-ena da, 1960an Suhr- kamp-ek argitaratua. (Itz. oh.).

Hitzaurreak

¹ Friedrich Heinrich Jacobi.

² Hegeldar filosofia.

³ Fichte eta Schelling.

⁴ Hegel.

Lehen Liburua

⁵ Vedanta-eskolaren oinarritzko dogma ez datza materiaren, h. d. solidotasun, sarrezintasun eta taxu hedatuaren arbuioan (horiek ukatzea zentzugabekeria litzateke), baizik horri buruzko ohiko iritzia zuzentzean, eta hautemapen mentalarekiko independentea den existentziarik ez duela defenditzean; existentzia eta hautemangarritasuna adigai elkartrukagarriak direla.

⁶ «Arrazoiaren printzipioa» 2. Edizioa, § 22.

⁷ Kantek bakarrik nahastu du arrazoimenaren adigai hau, eta horrekiko ikuspegitik Eranskinera bidaltzen dut nik, baita «Etikaren oinarri-arazoak» in. «Moralaren oinarria» § 6, or. 148-154 lehen edizioan.

⁸ «Mira in quibusdam rebus verborum proprietates est et consuetudo sermonis antiqui quaedam efficacissimis notis signat.» [Miresgarria da gauza batzuetan hitzen egokitasuna, eta zaharren erabilerak gauza asko modurik eraginkorrean izendatzen du.] Seneca. «Epistulae» 81 [9]

⁹ Materia eta substantzia bat direla, Eranskinean adierazten da.

¹⁰ Horrek azaltzen du kantiar azalpenaren arrazoia materiala dela: zeren higidura espazioa eta denbora batzean bakarrik baitatza.

¹¹ Ez denboraren ezagutzatik, Kantek nahi duenez; hori Eranski-nean adierazita dago.

¹² Ametsak eginak dauden gaikoak gara, eta gure bizitza txikia loaz inguratutik dago.

¹⁴ Ikusi honetaz 'Arrazoiaren printzipioaren erro laukoitza' 2. edizioa, § 49.

¹⁵ Lehen zazpi paragrafo hauei dagozkie osagarrien lehen liburuko lehen lau kapituluak.

16Gizaki gutxiak pentsatzen dute, baina guztiek izan nahi dituzte iritzia.

17Paragrafo honekin konparatu behar da 'Arrazoiaren printzipioa' tratatuko bigarren edizioa § 26 eta 27.

18Ikusi bigarren liburukiko 5. eta 6. kapituluak.

19Ikusi bigarren liburukiko 9. eta 10. kapituluak.

20[Atzipetzeko silogismoen izenak]

21Ikusi bigarren liburukiko 11. kapitulua.

22[Jacob Böhme-ren idazki baten izenburua, 1622.]

22Ni neu, beraz, fisiognomika ziurtasunez oso urrun ezin joan daitekeen iritzikoa naiz, arau oso orokor batzuk ezarri ahal izatek aurrera, adibidez: bekokia eta begia dago intelektuala, ahoan eta aurpegiaren behe-erdian etikoa, nahimenaren kanporatzeak irakurtzeko - bekokiak eta begiak elkar argitzen dute, bietako edozein erdizka bakarrik da ulergarri bestea ikusi gabe -. Ez dago geniorik bekoki garai, zabal, ederki gangaturik gabe; hau ordea sarritan hura gabekoa izaten da - itxura espiritual batetik hainbat ziurrago deduzi daiteke espiritua, zenbat eta aurpegia itsusiagoa, eta itxura lelo batetik lelotasuna hainbat ziurrago, zenbat eta aurpegia ederrago; zeren edertasunak gizadiaren tipoari dagokiona bezala bere baitan eta berez klarutasun espiritualaren adierazpena baitarama, itsusitasuna alderantziz portatzen da, eta abar.

23Ikusi bigarren liburukiko 8. kapitulua.

24Suarez: 'Disputationes metaphysicae' 3, sectio 3, tit. 3.

25Ikusi bigarren liburukiko 12. kapitulua.

26Adierazpen greko hauetaz Kantek egin zuen abusua ez dugu hemen pentsatuko, Eranskinean egingo dugu kritika.

27Spinozak, 'more geometrico' jokatzeari beti ilaraintzen zena, berak uste zuena baino gehiagotan egin du hori. Zeren munduaren esentziaren kontzeptioa begiesgarri bitartegabezi ziurtatzen eta aurkiturik zeukana ezagutza orotatik independenteki logikoki gogoratzen saiatzen baita. Baina asmoan zeukan eta alde aurretik zurratzen zitzaion emaitza hautaz eraikitako kontzeptuetatik abiatuz bakarrik lortzen du (substantzia, causa sui eta abar), eta frogetan hautazkotasan horiek guztiak baimentzen dizkio bere buruari, zeinetarako kontzeptu-esfera zabalen esentziak aukera eroso ematen baitio. Bere doktrinaren egiazko eta bikaina horregatik erabat independentea da frogetik, geometriaren bezala. - Ikusi bigarren liburukiko 13. kapitulua.

28Ikusi bigarren liburukiko 17. kapitulua.

29'Omnes perturbationes iudicio censeant fieri et opinione. [Erakusten dute nahaste guztiak iudicio eta iritzitik sortzen direla.] Cicero. 'Tusculanarum disputationum' lib. 4, 6. - (GRIEGO [Perturbant homines non res ipsae, sed de rebus opiniones. [gauzek ez dituzte giza- nahastean, baizik gauzei buruzko iritziek.] Epikteto: 'Enchiridion' cap. 5.

30(GRIEGO [Haec est causa mortalibus omnium malorum non posse communes notiones aptare singularibus. [Zeren hori baita giza-entzat gaitz guztien kausa, kontzeptu orokorrak kasu partikularrei aplikatzeko gai ez izatea.] Epikteto: 'Dissertationes' ['Enchiridion'] 3, 26 [h.h. 4,1,42]

31Ikusi bigarren liburukiko 16. kapitulua.

Bigarren Liburua

1 Ikusi bigarren liburukiko 18. kapitulua.

2 Ez gatz inola ere bat Baco Verulamekoarekin, baieztatzen duenean («De dignitate et augmentis scientiarum' lib. 4 in fine gorpuzten higidura mekaniko eta fisiko guztiak alde aurretiko hautemapenaren ondoren gertatu direla gorpuz horietan; nahiz eta esaldi faltsu horri egiaren aieru batek existentzia eman dion. Gauza bera gertatzen da 'De planeta Martis' bere tratatuko Keplerren baieztapenarekin ['Astronomia nova (GRIEGO seu physica caelestis tradita comentariis de motibus stellae Martis...' 1609], planetek ezagutza izan behar izan dutela, beren orbita eliptikoak hain zuzen jarraitu eta beren higiduraren lastertasuna horrela neurtzeko, non beren orbitaren azaleraren triangelua beti denborarekiko proportzional gelditzen baita, zeinaren basia korritzen baitute.

3 Ikusi bigarren liburukiko 19. kapitulua.

4 Ikusi bigarren liburukiko 20. kapitulua; baita nire idazkietan ere: 'Naturako nahimena' 'Fisiologia' eta 'Anatomia konparatua' errubriken pean, non hemen seinlatu baizik egin ez dena han sakon adierazten baita.

5 Hori bereziki tratatzen du bigarren liburukiko 27. kapituluak.

6 Ezagutza hori erabat frogatzen du nire 'Nahimenaren askatasunari buruzko idazki saritua'k, eta bertan aurkituko da horregatik (or. 30-44, 'Etikaren oinarri-arazoa' kausa, estimulua eta motiboaren arteko hartuemanak azterketa xehetua hartu du.

7 Ikusi bigarren liburukiko 23. kapitulua, baita 'Naturako nahimena' nire idazkian 'Landare-fisiologia' eta nire metafisikaren muinerako guztiz garrantzitsua den 'Astronomia fisikoa' kapituluan ere.

8 Wenzel: 'De [penetiori] structura cerebri humani et brutorum' 1812, cap. 3. - Cuvier: 'Leçons d'anatomie comparée' ['Anatomie

comparée»] leçon 9, art. 4 et 5. - Vicq d'Azur: «Histoire de l'académie des sciences de Paris» 1783, p. 470 et 483.

⁹ 1840ko irailaren 16an Londresko Hiriko institutu literario eta zientifikoan Pettigrew jaunak Egiptoko antzinkariei buruzko hitzaldi batean, G. Wilkinsonek Tebasko hilobi batean aurkitutako eta bertan hiru mila urte lehenago ezarritako gari-ale batzuk erakutsi zituen. Hermetikoki zigilaturiko ontzi batean aurkitu ziren. Hamabi hazi erein zituen eta horietatik landare bat lortu zuen, bost oinbetez hazi eta bihi erabat heldua eman zuena. 1840ko irailaren 21eko «Times»etik. Londresko Medikuntza eta Botanikako Elkartean era berean Haulton jaunak sustrai erraboilatsu bat aurkeztu zuen momia egiptoar baten eskuan, han seguraski begirune erlijiosoren batengatik ezarria eta gutxienez 2000 urte zituena. - Lorepoto batean landatu eta bertan hazi eta berdetu zen. Hori 1830eko «Medical Journal»etik jaso zen 'Journal of the Royal Institution of Great-Britain', 1830eko urrian, or. 196. - Londresko Highgate herbarioko Grimstone jaunaren lorategian, bada orain ilar-landare bat fruitu betean, eta Pettigrew jaunak eta British Museumgo enplegatuek ontzi batetik hartua, egiptoar sarkofago batean alde aurretik aurkitu zutena, 2844 bat urte lehenago bertan ezarria izan bide zena. 1844ko abuztuaren 16ko «Times»etik. - Kare-harritan aurkituriko apo biziek eramaten dute suposiziora, animala bizitza horrelako suspentsio bat milaka urtetan egiteko gai dela, baldin eta letargora gidatu eta zirkunstantzia berezi batzuen bitartez kontserbatzen badira.

¹⁰ [Konfuziok argitaraturiko «Y-king» «Eraldakuntzen liburu»tik]

¹¹ [Washington Irving: «Bracebridgehall» vol. 1, p. 118]

¹² Ikusi bigarren liburukiko 22. kapitulua; baita: «Naturako nahimena» nire idazkia ere.

¹³ Horregatik eskolastikoez arrazoiz esaten zuten: «causa finalis movet non secundum suum esse reale, sed secundum esse cognitum» [Kausa finalak ez du eragiten bere izate errearen arabera, baizik ezagutuaren arabera du].

¹⁴ Ikusi «Arrazoimen hutsaren kritika»ideia kosmologikoen ebazpena mundu-gertakarien dedukzioaren guztizkotik» 560. or. tik 586. or. ra bosgarren ediziotik eta 532 eta hh. lehen ediziotik eta «Arrazoimen praktikoaren kritika» laugarren edizioa, 169-179. or. Rosenkranz-en edizioa 224. or. eta hh. Konparatu «Arrazoiaren printzipioa» nire tratatua. § 43.

¹⁵ Konparatu «Naturako nahimena» errubrikaren amaieran «Anatomia konparatua».

¹⁶ [Gasteropodoen espeziekoa den molusku baten izena.]

¹⁷ Ikusi «Naturako nahimena»n «Anatomia konparatua» errubrika.

¹⁸ Chatin: «Sur [graine et la germination du] Vallisneria spiralis» in den «Comptes rendus de l'académie des sciences» Nr. 13, 1855.

¹⁹ Ikusi bigarren liburukiko 26. eta 27. kapituluak.

²⁰ Ikusi bigarren liburukiko 28. kapitulua.

Hirugarren liburua

¹ Friedrich Heinrich Jacobi

² [Esaera orfikoa]

³ Ikusi adibidez «Immanuel Kant, ein Denkmal» Friedrich Bouterweck -ena, or. 49 - eta Buhle-ren «Geschichte der Philosophie» libkia 6, or. 802tik 815 eta 823ra.

⁴ Ikusi bigarren liburukiko 29. kapitulua.

⁵ Halaber gomendatzen dut berak hor bertan lib. 2, prop. 40, schol. 2 eta lib. 5, prop. 25etik 38ra bitartean «cognitio tertii generis sive intuitiva» [Hirugarren motaren edo intuitiboaren ezagutzaz] dioena, hemen aipatzen den ezagutza-era argitzeko berriro irakurtzea, eta zinez oso bereziki prop. 29, schol.; prop. 36, schol. et prop. 38 demostr. et schol.

⁶ Ez al dira mendiak, uhinak, zerua
nire eta nire arimaren atal bat , eta ni horiena?

⁷ Ikusi bigarren liburukiko 30. kapitulua.

⁸ Azken esaldi hau ezin liteke uler hurrengo liburua ezagutu gabe.

⁹ [Gilles Personne de Roberval]

¹⁰ [«Essay on Man» 1, 225, nn ere aldaki hau baitago:

«Remembrance and Reflexion - how ally'd,
What thin partitions Sense from Thought divide!

Oroimena eta gogoeta -zeinen ahaidea;
Sentitzea eta pentsatzea horma meheak bereizten ditu.]

¹¹ Espiritu handia eromenaren ahaide da,
eta horma meheak bereizten ditu biak.

¹² Ikusi bigarren liburukiko 31. kapitulua.

¹³ [Genioari kasu batek milak adina balio dio, in: «Materialien zur Geschichte der Farbenlehre», Galilei.]

¹⁴ Ikusi bigarren liburukiko 32. kapitulua.

¹⁵ Ikusi bigarren liburukiko 33. kapitulua.

¹⁶ Hainbat gehiago pozten eta txunditzen nau orain, goiko pentsamendu horiek hain herabe eta ezbaiti duela 40 urte idatzi nituelarik, jadanik Agustin santua honela mintzatu zela aurkitzeak: «Arbusta formas suas varias, quibus mundi huius visibilis structura formosa est, sentiendas sensibus praebent; ut, pro eo quod nosse non possunt, quasi innotescere velle videantur.» [Landareek beren forma anitzak eskaintzen dituzte, zeinen bitartez mundu honen egitura forma ederreko bihurtzen baita, sentsuen hautemapenerako, horrela ezagutzeko gai ez direnez gero, badirudi, nolabait ezagutuak izatea nahi dutela.] «De civitate Dei» 11, 27 [2].

¹⁷ Zeren beti izan baitzara,
Dena sofritzean, ezer sofritzen ez duena bezalako:
Zoriaren kolpe eta sariak
Esker beraz hartu dituen bezalako, etab.

¹⁸ [or. 281]

¹⁹ [Gaur Albino hartzen da egiletzat]

²⁰ Ikusi bigarren liburukiko 35. kapitulua.

²¹ Jacob Böhmek, «De signatura rerum» cap. 1, § 15, 16,17 bere liburuan dio: «Eta ez dago gauzarik naturan, bere barneko taxua kanpoan agerian jartzen ez duenik: zeren barnekoak beti bere burua agerian jartzeko lan egiten baitu. -- Gauza bakoitzak bere ahoa dauka bere burua agerian jartzeko. -- Eta hori da natur hizkuntza, zeinetan gauza bakoitza bere gaitasun propiotik mintzatzun baita eta beti bere burua agerian jarri eta eskaintzen baitu. -- Zeren gauza bakoitzak bere ama agertzen du, taxuerarako bere esentzia eta nahimena ematen dituen.»

²² Azken esaldia Helvetiusen «il n'y a que l'esprit qui sente l'esprit» [«De l'esprit» disc. 2, chap. 4, alinea 5] hitzen itzulpena da, lehen edizioan oharrarazteko premiarik izan ez nuena. Baina harrezkero Hegelen sasi-jakituren eragin kamustailearen bitartez garaia hainbeste beheratu eta zakartu da, non batek baino gehiagok pentsa dezakeen hemen ere «espiritua eta natura» antitesia aipatu dela: horregatik beharturik nago horrelako filosofema arrunten egozpenaren aurka espreski neure burua babestera.

²³ Episodio horrek bere osagarria bigarren liburukiko 36. kapituluan hartu du.

²⁴ Pasarte honek hurrengo liburu osoa suposatzen du bere ulerkuntzarako.

²⁵ «Apparent rari nantes in gurgite vasto» [Banaka agertzen dira, igerilariak amildegi zabalean; Virgilio: «Aeneis» 1, 118].

²⁶ Ikusi bigarren liburukiko 34. kapitulua.

²⁷ Ikusi bigarren liburukiko 36. kapitulua.

²⁸ Ulertzen da beti poeta bakan, handi, benetakoez ari naizela eta inoiz ez erdipurdiko poeta, koblakari eta ipuin-kontalari multzo kaskalaz, bereziki gaur egun Alemanian hain ugari direnez, zeini alde guztietatik etengabe belarrietara dei egin beharko bailitzaieke:

Mediocribus esse poetis

Non homnes, non di non concessere columnae.

[Erdipurdikoak izatea ez diete baimentzen ez jainkoek ez gizakiek ezta iragarki-zutabeek ere poetei.] Horazio, «De arte poetica epistula ad Pisones» 372.

Benetan arduratzea mereziko luke nolako beren eta inoren denbora- eta paper-mordoa alferrik galarazten duen erdipurdiko poeta horien aldrak eta zeinen kaltegarria den beraien eragina, zeren publikoak batzuetan berria denera jotzen baitu, beste batzuetan aldrebesa eta arrunta denera, izaeraz homogeneoa duenerako joera handiagoa baitu; horregatik erdipurdikoen obrek benetako maisu-lanetatik eta haien argiztapenetik aldendu eta atzerarazi egiten dute, ondorioz genioaren eragin faboragarriaren kontralanean arituz, gustua gero eta gehiago hondatuz eta horrela garaiaren aurrerakuntza oztopatuz. Horregatik kritikak eta satirak inolako begirune eta errukirik gabe zigortu behar ditu erdipurdiko poetak beren hobekuntzara eramanez, astia gauza onak irakurtzen eman dezaten txarrak idazten eman orde. - Zeren bokazio gabeko poeta baten lardaskeriak Musen jainko samurra hainbesteko atsekabea jarri bazuen, non Marsyas larrutu ahal izan baitzuen; nik ez dut ikusten zertan oinarritu nahi dituen erdipurdiko poesiak tolerantziarako bere uziak.

²⁹ Ikusi bigarren liburukiko 38. kapitulua.

³⁰ Ez naiz neure baitan bizi, baizik

Inguratzen nauenaren atala bihurtzen naiz, eta niretzat

Mendi garaiak sentimendu bat dira.

³¹ Ikusi bigarren liburukiko 37. kapitulua.

³² «Leibnitii epistulae» collectio Kortholti. Epistula 154.

³³ [Bi aipuak ez daude hitzez hitz emanak]

³⁴ Ikusi bigarren liburukiko 39. kapitulua.

Laugarren liburua

¹ Ondoko kontsiderazioak lagun egin diezaioke, sotilegia gertatzen ez zaionari, norbanakoa agerpena baizik ez dela, berbaitango gauza ez dela ulertzen. Norbanako bakoitza alde batetik ezagutzearen, h. d. mundu objektibo osoaren ahalgarritasunaren, baldintza osagarriaren subjektua da, eta bestetik nahimenaren agerpen partikularra, gauza bakoitzean objektibatzen den horrena. Baina gure izatearen bikoiztasun hau ez datza berez den batasun batean: bestela geure buruaren geure baitako kontzientzia izango baikenuke, ezagutzearen eta nahi izatearen objektuetatik independente; baina hori ezin dugu inondik ere, baizik eta ahalegintzen garenean geure baitan sartzen, ezagutzea barrura zuzenduz, behingoz osoki gogoeta egin nahi dugunean; orduan hutsarte hondargabe batean galtzen gara, geure burua beirazko bola kaskal bat bezala aurkitzen dugu, zeinaren hutsartetik ahots batek hitz egiten baitu, nahiz eta horren kausa haren barruan ez egon, eta horrela geure burua atzeman nahi dugularik, izanik gabeko mamu bat besterik ez dugu harrapatzen ikaraturik.

² [Albertus Magnus: «Summa theologiae» 1, tract. 5, quaest. 22]

³ [Konparatu Kohelet 1,9]

⁴ Scholastici docuerunt, quod aeternitas non sit temporis sine fine aut principio successio, sed Nunc stans; i. e. Idem nobis Nunc esse, quod erat Nunc Adamo: i. e. Inter nunc et tunc nullam esse differentiam. [Eskolastikoeak irakatsi zuten betiera ez dela amaiera edo hasierarik gabeko segida, orain iraunkor bat baizik, h. d. Adamentzat zen orain beraren jabe garena; h. d. orainaren eta ordukoaren ez dagoela desberdintasunik.] Hobbes: «Levia- than» cap. 46.

⁵ Eckermann-en «Goetherekiko elkarrizketak» (bigarren edizioa 1. libkia., or. 154 Goethek dio: «Gure espiritua guztiz izaera suntsiezinazko izakia da: betieratik betierara eragiten diharduena. Eguzkiaren antzekoa da, gure begi lurtar hauei bakarrik iruditzen zaie behera doala, baina benetan ez da inoiz behera joaten, etengabe argi egiten jarraitzen du.» - Goethek nigandik hartu zuen konparazioa; ez nik berarengandik. 1824an jasotako elkarrizketa honetan zalantzarik gabe goiko pasartearen agian oroitza pen inkontzientearen ondorioz erabiltzen du; jadanik lehen edizioan 401 or. ean hemengo hitz berekin baitago; baita 528 or. ean ere hemen § 65.aren bukaeran errepikatzen den bezala. Lehen edizio hura 1818ko abenduan igorri zitzaion, eta 1819ko martxoan Napolira bidali zidan, han aurkitzen baintzen orduan, bere onarpena neure arrebaren bitartez laburki adierazia eta txartel bat ezarri zuen batera bereziki gustatu zitzaizkion orrialde batzuen zenbakiak oharraraziz: beraz irakurria zuen nire liburua.

⁶ Vedan pentsamendu hori adierazten da esanez gizaki bat hiltzen denean, bere ikusmena bat egiten dela eguzkiarekin, bere usna lurarrekin, bere gustua urarekin, bere entzumena airearekin, bere mintzoa suarekin eta abar. (Oupnekhat» libkia 1, or. 249 hh.; baita zeremonia berezi batean

hil-zorian dagoenak bere zentzuak eta gaitasun guztiak bere semeari eskuratzean ere, horrengan aurrerantzean existitzen jarraitu behar dutenak bezala (ibid. libkia 2, or. 82 hh.).

⁷ Ikusi bigarren liburukiko 41-44. kapitulua.

⁸ «Disquisitiones relating to matter and spirit»-ren eranskina.

⁹ «Arrazoimen hutsaren kritika» lehen edizioa 532-558 or.; bosgarren edizioa 560-586 or.; eta «Arrazoimen praktikoaren kritika» laugarren edizioa 169-179 or. - Rosenkranz-en edizioa 224-231 or.

¹⁰ Cartesius: «Meditationes de prima philosophia» 4. - Spinoza: «Ethica» 2, prop. 48 et 49, cet.

¹¹ Konparatu Goethe: «Fausto» 1, 1917 bertsolerroa]

¹² [Juvenal, «Saturae» 10, 81]

¹³ Herodoto: [«Historiak»] 7, 46]

¹⁴ [Lebniz: «Essais de Théodicée sur la bonté de Dieu» 1, 8]

¹⁵ Ikusi bigarren liburukiko 46. kapitulua.

¹⁶ Ikusi bigarren liburukiko 45. kapitulua.

¹⁷ Jabetza-zuzenbide naturalaren oinarritapenerako ez da beharrezko bi oinarri juridiko batabestearen alboan suposatzea, detentzioan oinarritua eta formazioan oinarritua; baizik azken hori iristen da edonora. Formazio hitza ez da egoki moldatzen, izan ere nekeren bat erabili behar izateak gauzaren batean ez du beti forma ematea izan behar.

¹⁸ Hemen aurkeztutako zuzenbidearen doktrina gehiago garaturik aurkituko da lehen edizioko nire «Moralaren oinarriari buruzko idazki saritua»n § 17, 221-230 or.

¹⁹ Baldin eta hori frogatzen bada, orduan Berorrek, aipaturiko NN-k, legeko zigorra pairatu beharko du, besteak antzeko krimenetatik izutzeko etorkizuneko garai guztietan.

²⁰ Ikusi bigarren liburukiko 47. kapitulua.

²¹ [«Oupnekhat»en bertsioa sanskriterazko «tat tvam asi»rentzat]

²² «Oupnekhat» 1. libkia, 60 or hh.

²³ Espainiar apezpiku hura, azkeneko gerran bere burua eta bere mahaiko jeneral frantsesak pozoitu zituen, hemen aipatzekoa da gerra horretako beste gertakari asko bezala. Montaigne-rengan ere aurkitzen dira adibideak: [«Les essais»] 2. lib., 12. kap.

²⁴ Bidenabar ohar bedi fede-doktrina positibo bakoitzari bere indar handia ematen diona, bermagunea, zeinaren bitartez gogamenez irmoki jabetzen baita, bere alde etikoa da; ez bitartegabe hori den aldetik, baizik gainerakoarekin, fede-doktrina bakoitzaren dogma bereki, mitikoarekin hainbesteraino dago finko loturik eta nahasturik, non bere bitartez bakarrik dela azalgarria baitirudi; hainbesteraino, non egintzen esangura etikoa arrazoiazen printzipioaren arabera azalgarria ez bada ere, mito bakoitza printzipio horri jarraitzen zaio, zeren fededunek egintzaren esangura etikoa eta beren mitoa guztiz bereiztezintzat baitauzkate, are gauza bakartzat baitauzkate eta mitoari egindako eraso oro zuzenbidea eta bertuteari egindako erasotzat hartzen baitute. Hori hainbesteraino da, non herri monoteistetan ateismoa edo jainkogabezia moralitate ororen absentziaren sinonimo bihurtu baita. Apaizei oso begiko zaizkie kontzeptu-nahaste horiek, eta horien bitartez bakarrik sortu ahal izan da munstro beldurgarri hori, fanatismoa, eta ez bakarrik norbanako nabarmenki makur eta gaiztoen gain, baizik herri osoen gain nagusi izan da, eta azkenik, gizadiaren ohorerako behin bakarrik bere historian gertatu bada ere, Mendebalde honetan Inkisizio gisa haragitu da, zeinak azken orduko albiste benetakoen arabera Madrilen bakarrik (Espainian gainerakoan ere honelako erailtzaile-zulo espiritualak ugari zirelarik 300 urtetan 300.000 gizaki fedearen gaiarengatik sutan tormentuz beterik erail baitzituen: suhar orori, bere burua agerian jartzen duen bakoitzean, berehala gogorarazi behar zaio hori.

²⁵ [min-aringarria]

²⁶ [Kortxete hauek Schopenhauer-rek ezarriak dira]

²⁷ [Aljeriar janitzaro-miliziaren komandante nagusia 1830 arte]

²⁸ «Opera operata» soilak dira, esango luke Elizak, ezer laguntzen ez dutenak, baldin eta graziak birjaiotzara gidatzen duen fedea eman ezik. Horretaz gero gehiago hitz egingo da.

²⁹ Gizakiak animalien bizitzaz eta indarrez baliatzeko duen eskubidea honetan datza: nola kontzientziaren klarutasuna igo ahala era berean sofrimendua ere igotzen den, animaliak heriotzaren edo lanaren bidez sofritzen duen mina, gizakiak lan soilaren bidez sofritzen duena bezain handia ez izatean, ezta animaliaaren haragiaz edo animaliaaren indarraz gabetze soilaren aldean sofrituko lukeena bezain handia ere, horregatik gizakia bere existentziaren baieztapenean animaliaaren existentziaren ezeztapeneraino joan daiteke, eta bizitzeko nahimenak osotasunean horren bidez gutxiago sofritzen du, alderantzizko kasuan baino. Horrek determinatzen du aldi berean gizakiak injustiziarik gabe animalien indarraz egin dezakeen era-

bilpenaren gradua, zeina sarritan gainditu egiten baitu, batez ere zamarien eta ehiza-txakurren kasuan; horregatik horren kontra bereziki zuzendurik dago animaliak babesteko elkarteen ekintza. Aitzitik, intsektuak ez du bere heriotzaren bitartez gizakiak haren ziztadaren bidez sofritzen duen adina sofritzen. - Hinduek ez dute hori ulertzen.

29Pentsakor nabil: eta pentsatzen ari naizela neure buruarekiko erruki hain indartsu batek hartzen nau, non sarritan ozenki negar egitera behartzen nauen, nahiz eta horrelakorik ez nuen egin ohi.

30Ikusi bigarren liburukiko 47. kapitulua. Ia ez dago gogora ekarri beharrik §§ 61-67 zirrimarraturiko etikak aurkezpen xehe eta osoagoa hartu duela nire «Moralaren oinarriari buruzko idazki saritua»n.

31[Mateo 19, 24; Schopenhauerrek (GRIEGO (aingura-kablea) aieruari jarraitzen dio eta ez (GRIEGO) (gamelua) aieruari.

32Pentsamendu hau konparazio eder baten bidez adierazita dago «Sankhya Karika» sanskriterazko idazki filosofiko antzina-antzinakoan: «Hala ere arima apur batean soinaz jantzirik gelditzen da; buztinlariaren gurpilak, ontzia osatu ondoren, artean biraka jarraitzen duen bezala, lehenago hartutako bulkadaren ondorioz. Arima argiztatua soinetik bereizten denean bakarrik eta harentzat natura eteten denean, orduan lortzen du bere salbamen osoa» (Colebrooke, «On the philosophy of the Hindus»[in] «Miscellaneous essays» 1. libkia, 259. or.) Gauza bera Horace Wilson-en «Sankhya Karika» § 67, 184. or. ean ere.

33[«Leben und aus dem Leben merkwürdiger und erweckter Christen aus der protestantischen Kirche», 2 Teile, 1816/17]

34[Idazki hauek huts egitez egotzi zitzaizkion Taulerri]

35Ikusi, adibidez, «Oupnekhat' studio Anquetil-Duperron 2. libkia, 138, 144, 145, 146 zk.- «Mythologie des Indous' par Mme de Polier 2. Libkia, 13, 14, 15, 16, 17 kap. - «Asiatisches Magazin' von Klaproth lehen liburukian: «Über die Fo-Religion'; idem, «Bhagavat-Geeta' ['Bhagavad-Gita'] edo «Gespräche zwischen Krischna und Ardschuna'; bigarren liburukian: «Moha-Mudgava' ['Moha-Mudgara'].- Gero «Institutees of Hindu-Law, or the ordinances of Manu' from the Sanskrit by William Jones, von Hüttner-ek alemanieratua (1797); batez ere seigarren eta hamabigarren kapituluak.- Azkenik pasarte ugari «Asiatic researches'en. (Azken berrogei urteotan hainbeste hazi da indiar literatura Europan, non nik orain ohar hau lehen edizioari osatu nahiko banio, orrialde pare bat beteko bailituzke.)

36Jaggernauteko [Jagan-natha] prozesioan 1840ko ekainean hamaika hinduk bota zuten beren burua orgen azpira eta bat-batean hil ziren (Ekialdeko Indietako lurjabe baten gutuna «Times'en 1840ko abenduaren 30ean).

37F. Über (GRIEGO) Stobaios: «Florilegium' [cap. 59, nr. 9, editio Gaisford] vol. 2, p. 376.

38Bruckner: «Historia critica philosophiae' tom. 4, pars 1, p. 10.

39 'Henry VI.' part 2, act 3, scene 3.

40Konparatu 277. or.

41Ikusi bigarren liburukiko 48. kapitulua.

42[Malebranche: «Prémotion physique' Schopenhauerrek iturburutzat ematen duena, bere «Entretiens sur la Métaphysique'n 4, 16 espiritua eta gorputza misteriotzat izendatzen duen antitesia dauka, aldi berean bere «Recherches sur la vérité'n lib. 3, chap. 1 askatasuna eta aurrejakite jainkozkoa bat etortzeari «mystère' deitzen dio.]

43Zenbateraino den hori kasua ikusten da Agustinek kontsekuenteki sistematizaturiko kristau dogmatikan dauden kontraesan eta ulertezintasunak, pelagiotar arrunkeria kontrajarrietara gidatu dutenak, desagertzen direlako, oinarri-dogma judutarretik abstrahitu eta berrezagutzen den orduko, gizakia ez dela beste baten, baizik nahimen propioaren obra. Orduan dena berehalaxe argi eta garbi gelditzen da: orduan ez baitago askatasunik «operari'an: zeren «esse'an baitatza, eta hortxe bertan dago bekatua ere, jatorrizko bekatu gisa: baina graziaren efektua gure propioa da. - Gaur eguneko ikuspegi razionalistarentzat aitzitik, Itun Berrian oinarrituriko dogmatika agustindarreko doktrina asko erabat sustengaezinak dira, are asaldagarriak, adibidez, predestinazioa. Horren arabera benetan kristaukia dena arbuatu eta berriro judutasun gordinera itzultzen da. Baina kristau-dogmatikaren kalkulu-akatsa edo jatorrizko hutsegitea inoiz bilatzen ez den horretan datza, gauza ziur-ziurtzat ematen delakoxe azterketa orotatik libre geratzen den

horretan hain zuzen ere. Hori kenduz gero, dogmatika osoa razionala da: zeren dogma horrek hondatu egiten baitu, beste zientzia guztiak bezala, baita teologia ere. Izan ere, teologia agustindarra «De civitate Dei'n (batez ere 14. liburuan) aztertzen bada, bere baitatik kanpora grabitatea daukan gorputz bati zutik eutsi nahi zaionean, esperimentatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da: bira eman eta ezarri nahi bada ere, beti amildu egiten da. Horrela hemen ere Agustinen ahalegin eta sofisma guztiak gorabehera, munduaren errua eta bere tormentua beti Jainkoaren gainera erortzen da, zeinak dena eta denean dena egin baitu eta horregatik jakin baitu gauzak nola joango ziren. Agustín bera ordurako zailtasunaz jabeturik zegoela eta oso kezkatutik zegoela jadanik erakutsi dut neure «Nahimenaren askatasunari buruzko idazki saritua'n (lehen edizioa kap. 4, 66-68. or.) - Era berean, Jainkoaren ontasunaren eta munduko miseriaren arteko kontraesana, baita nahimenaren askatasunaren eta Jainkoaren aurrejakitearen artekoa, ia mendetako kontrobertsiaren gai agortezina da cartesiar, Malebranche, Leibniz, Bayle, Klarke, Arnauld eta beste batzuen artean, non eztabaidariek irmo baitaukate dogma bakarra Jainkoaren existentzia eta bere atributuak direla, eta non denak etengabe biraka biribilean higitzen baitira, gauza horiek harmonian jartzeko h. d. inoiz azken

onera iristen ez den problema matematiko bat ebazten ahaleginduz, zeinetan hondarren bat nahiz
hemen, nahiz hor beti agertzen baita, lehen beste nonbait ezkutatu izan dena. Baina
nahasmenduaren iturburua oinarrizko suposizioan zegoela ez zaio inori bururatzen; nahiz eta
begibistakoa izan. Baylek bakarrik

oharrarazten du horretaz ohartu dela.

45 F. Horixe da budisten Prashna-paramita, «Ezagutza ororen haraindia», h. d. subjektua eta objektua existitzen ez diren puntua (ikusi Isaak Jakob Schmidt, «Über das Mahayana und Pradschna-paramita»).

Aurkibidea

Hitzaurrea	7
BIBLIOGRAFIA	17
LEHEN EDIZIOAREN HITZAURREA	19
BIGARREN EDIZIOAREN HITZAURREA	27
HIRUGARREN EDIZIOAREN HITZAURREA	39
LEHEN LIBURUA	
MUNDUA ERREPRESENTAZIO GISA LEHEN KONTSIDERAZIOA:	
ERREPRESENTAZIOA ARRAZOIAREN PRINTZPIOAREN MENDE:	
ESPERIENTZIA ETA ZIENTZIAREN OBJEKTUA	41
BIGARREN LIBURUA	
MUNDUA NAHIMEN GISA LEHEN KONTSIDERAZIOA:	
NAHIMENAREN OBJEKTIBAZIOA	141
HIRUGARREN LIBURUA	
MUNDUA ERREPRESENTAZIO GISA ERREPRESENTAZIOA,	
ARRAZOIAREN PRINTZPIOAREKIKO INDEPENDENTEKI:	
IDEIA PLATONIKOA:ARTEAREN OBJEKTUA	219
LAUGARREN LIBURUA	
MUNDUA NAHIMEN GISA BIGARREN KONTSIDERAZIOA:	
LORTUTAKO AUTOEZAGUTZAN BIZITZEKO NAHIMENAREN	
BAIEZTAPENA ETA UKAPENA	325
Oharrak	351